Mikel Aizpuru (Zuzendaria)
Urko Apaolaza
Jesús Mari Gómez
Jon Odriozola

# 1936ko UDAZKENA GIPUZKOAN. HERNANIKO FUSILATZEAK



ALBERDANIA

memoria

# 1936KO UDAZKENA GIPUZKOAN.
# HERNANIKO FUSILATZEAK

Hernaniko Udala

© 2007, Mikel Aizpuru, Urko Apaolaza, Jesús Mari Gómez, Jon Odriozola

© Azal eta diseinuarena: 2007, Antton Olariaga

© Argitaraldi honena: 2007, ALBERDANIA, S.L.

Istillada, 2, behea C. 20304 Irun

Tf.: 943 63 28 14 Fax: 943 63 80 55

alberdania@alberdania.net

**www.alberdania.net**

Inprimatzailea: ITXAROPENA, S.A., Araba kalea, 45. 20800 Zarautz

ISBN: 978-84-96643-66-6

Depósito Legal: S.S. 833/07

# 1936KO UDAZKENA GIPUZKOAN. HERNANIKO FUSILATZEAK

MIKEL AIZPURU (Zuzendaria)

URKO APAOLAZA

JESÚS MARI GÓMEZ

JON ODRIOZOLA

ALBERDANIA

memoria

# AURKIBIDEA


| | | |
|---|---|---|
| SARRERA | | 7 |
| I. | ERREPRESIOAREN MEMORIA(K) EDO HISTORIA(K) | 17 |
| II. | GIPUZKOA BIGARREN ERREPUBLIKAN (1931-1936) | 35 |
| III. | GERRA ZIBILA GIPUZKOAN: ERRESISTENTZIAK ETA ERASOAK | 49 |
| IV. | GERRA ZIBILEKO ERREPRESIOA BI ALDEETAN: EREDUAK ETA DATU OROKORRAK | 63 |
| V. | FRANKISTEN FUSILATZEAK GIPUZKOAN | 87 |
| VI. | ERREPRESIO PARALEGALA ETA HERNANIKO FUSILATZEAK | 143 |
| VII. | BI EGOERA BEREZI: *GALERNA*KO FUSILATZEAK ETA ELIZGIZONENAK | 175 |
| VIII. | ERREPRESIOA HERNANIKO HERRITARREN AURKA | 217 |
| IX. | HILERRIKO KRIPTA ETA MONUMENTUA: IRAGANAREN LEKUKO ISILAK | 261 |
| X. | FUSILATUEN NORTASUNA | 281 |
| XI. | ITURRIAK ETA BIBLIOGRAFIA | 309 |

# SARRERA

1936KO URRIAREN 15EAN, Pierre Lhande jesulagun eta euskaltzainak *Le moulin d'Hernani*-ren hitzaurrea sinatu zuen Luxenburgon. Ipuin laburrez osatuta dago lana, eta horietariko lehena da izenburua eman diona liburuari. *Le moulin d'Hernani* ipuinean kontatzen den istorioa xumea da: Hernaniko lantegi batek ur-hornidura erregularra behar du bere jarduerari eusteko, eta lantegiko arduradun batek (ugazabaren alabaz maiteminduta dago) eta neska horrek aurkitzen dute iturburu bat Onyi mendiaren magalean.

Lhandek oso ongi ezagutzen zuen Hernani, bertan izan baitzen irakasle Jesusen Konpainiak zuen ikastetxean, baina kontakizuna irakurtzen duenak, aldiz, nekez lortzen du herriko errealitate soziala ezagutzea. Lanaren sarrerak, ordea, interes handia pizten du, Espainiako Gerra Zibilaren lehen hilabeteetan idatzi zelako eta egilea euskal abertzaletasunaren pentsamendutik hurbilekoa izana zelako. Aitzitik, abertzaleek urte hartako uztailean hartutako jarreraren kontra azaldu zen jesulagun zuberotarra, jelkideak Bigarren Errepublikaren gobernu zilegiaren alde jokatu zutelako haserreturik.

Sarreran, kontrajarri egin zituen Lhandek Jaizkibel mendiko gailur lasai eta harmoniatsuak, Irungo sutea eta mendikatearen iparraldean zegoen Guadalupeko gotorlekuko preso eskuindarrak fusilatzeko tiro-hotsak. Aldi berean, liburuko orrialdeetan deskribatzen zen paradisu antzeko Euskadiko giro zoragarriaren eta gerra berriak ekarritako egunen errealitate krudelaren arteko kontrastea nabarmendu nahi izan zuen. Baina, sarrera horren ostean, noren alde zegoen erakutsi zuen idazleak, gainera duda-mudarik gabe: haren ustez, euskal abertzaleek dena jarri zuten jokoan abentura zoro hartan. Zer eskubide zuten abertzaleek guztiz politikoa zen gai bati lehentasuna emateko interes erlijiosoaren gainetik? Gasteizko eta Iruñako gotzainak, aldiz, zuzen zeuden aho betean gaitzetsi zutenean euskal abertzaleek egindako hitzarmen zorigaiztokoa marxistekin, anarkistekin eta apaizak fusilatzen zituen Frente Popularrarekin. Euskal tradizioaren kontra egoteaz gain, zuhurtziaren eta gizarte-senaren oinarrizko legeen kontra ere bazegoen abertzaleek hartutako erabakia. Egoera egoki bideratuko zuen benetako agintari bat falta izan zen, hots, Frente Popularra desegiteko irrikaz zeuden nafar sutsuak eta autonomiak eroturik zeuzkan bizkaitar eta gipuzkoarrak baretu eta koordinatuko zituen norbait. Odol hotz pixka bat eta diplomazia asko aski izango ziren odolez, erlijioz eta hizkuntzaz ahizpak ziren bi euskal adar horiek batzeko. Funtsezkoena katoliko eta euskaldun mantentzea zen, osterantzean erlijioa, hizkuntza eta autonomia galtzeko arriskua zegoen. Euskal abertzaletasunak, bere aliantzen politikarekin, arriskuan jarri zuen, baita Ipar Euskal Herrian ere, arrazaren etor-

kizuna, segurtasuna eta milaka urteko hizkuntza. Autonomismoaren ameskeria baztertzea zen Sabino Aranak sortutako mugimenduak zuen aukera bakarra Loiolako San Inazio eta San Frantzisko Xabier sortu zituen tradiziora itzultzeko.

Urtebete eta hilabete eskas batzuk igaro ondoren, ordea, arestian azaldutako lerroak idatzitako Lhandek berak aurkeztu zituen *Elai-Alai* abesbatza eta dantza-taldea, Mercier gotzainaren eta Pariseko gizarte katolikoaren aurrean. Hain zuzen ere, jesulagun zuberotarrak hainbeste iraindutako autonomiari esker eratutako Eusko Jaurlaritzak sortutakoa zen orduan berak aurkezten zuen taldea. Zer gertatu zen bere jarrera, itxuraz behintzat, errotik aldatzeko? Berak hitz gutxitan laburbiltzen zuenez, hondamendia eta amesgaiztoa izan zen euskaldunei gertatutakoa.

Gerra Zibileko lehenengo gertakariek oihartzun handia izan zuten gure mugetatik haratago, eta, besteak beste, honako informazio hau zabaltzen zen: nahasmenak agintzen zuela erregimen errepublikarrari leialak zirenen eremuan, eta alderdi eskuindarretako kideen hilketen berri ematen zuten; era berean, matxinadarekin hein handiago edo txikiagoan konprometitutako militarren eta klero katolikoko kide ugariren hilketen albistea hedatzen zen. Errealitate hura izan zen, hain zuzen ere, aipatutako sarrera idaztera bultzatu zuena aita Lhande. Matxinatutako taldearen atzeguardian arnasten zen lasaitasuna nabarmentzen zuten Europako komunikabide kontserbadoreek, errepublikarren arteko anabasaren kontrako aurpegia erakutsi nahian. Baina Lhande Luxenburgoko Ikastetxe Jesuitan bere osasun kaxkarra hobetzen ahalegintzen zen bitartean, herrikide lapurtarrak oso errealitate ezberdina ezagutzen hasi ziren. Hain zuzen ere, altxamendu militarraren hasiera-hasieratik Ipar Euskal Herrira Gipuzkoa eta Nafarroatik errefuxiatu asko heldu baziren ere, irailaren amaieratik aurrera arras murriztu zen kopurua, eta mugaz beste aldetik zekartzaten berriak ere aldatu egin ziren. Militar erreboltariak eta beren aliatu zibilak, karlistak eta falangistak bereziki, ehunka, milaka nafar eta gipuzkoar fusilatzen ari ziren.

Onyi menditik jaitsiz hartu zuten Hernani tropa matxinatuek, gero Donostia okupatzeko, eta Urumeako hiribildua izan zen aurkari politikoak exekutatzeko aukeratu zuten tokietako bat, 1936ko irailaren amaieratik azaroaren hasierara bitartean. Zenbat pertsona hil edota hobiratu ote zituzten Hernanin? Lan honetan zehar ikusiko dugun legez, baliteke inoiz ere ez jakitea zehatz-mehatz. 1958ko ekainaren 17an, Hernaniko Guardia Zibilaren komandantziaren postuko buruak Gipuzkoako Gobernu Zibilari bidalitako mezu batean adierazten zuenez, frankistek hildako zazpi pertsona zeuden lurperatuta herriko kanposantuan: Martin Lekuona, Gervasio Albisu, José Ariztimuño, José Adarraga eta Celestino Onaindia apaizak. Ez dakigu zergatik erantsi ziren José María Elizalde donostiarraren eta Aiako alkate Gabino Alustizaren izenak. Jarraian, txostenak honela zioen:

Se hallan enterrados juntamente con los reseñados anteriormente unos 190 individuos más aproximadamente, cuyos nombres se desconocen totalmente, los cuales también fueron ejecutados por las Fuerzas Nacionales.

Testua eta kopuru hura idatzi zituen ofizialordearen iturria nor edo zein izan zen ez dakigu, baina bildu ditugun datu gehienek norabide hori adierazten dute. Guztira 8 apaiz eta gutxienez 130 pertsona hil ziren Hernaniko leku ezberdinetan 1936ko udazkeneko hilabeteetan. Ez dugu uste Lhandek ezagutzen zituenik Hernanin lurperatutako apaizak, José Adarraga salbu, herriko parrokiari 55 urtez atxikia egon zena, baina ziurrenik José Ariztimuño *Aitzol* izena ezaguna egiten zitzaion, euskal abertzaletasunaren ideien apaiz propagandista. Lhandek bere sarrera sinatu eta bi egun geroago fusilatu zuten Aitzol, eta berri horrek jesulagunaren burua astindu omen zuen eta bere ekintzen bitartez *Le moulin d'Hernani*-ren sarrerako hitzak egunero-ko jokabidean berridaztera bultzatu omen zuen exekuzio hark.

Urte luzez, Hernaniko hilerria Aitzolen heriotzaren sinonimo izan zen; eta hildakoei lehen omenaldi publikoa egin zitzaienean Hernanin 1977an, hildako apaizek izan zuten protagonismoa zegokiena baino handiagoa izan zen, exekutatutakoen kopuruari bakarrik begiratuz gero, behintzat. Franco jenerala desagertu zenetik aurrera, eta hurrengo hogeita hamar urteetan, 1936an gertatutakoaren oroitzapena hein handi batean hildakoen senitartekoen memoria isilean gordeta geratu zen, eta oso gutxitan agertu zen publikoan, talde ezberdinek antolaturiko ospakizunen batean soilik. 2002an, ordea, eta *memoria historikoa* berreskuratzeko mugimenduarekin batera, Hernaniko udalak han lurperatutakoen izenak eta gorpuak berreskuratzea erabaki zuen, eta liburu honen bidez emango zaio nolabaiteko amaiera prozesu horri, lanean zehar ikusiko dugunez, oraindik erantzunik gabeko galdera asko gelditzen badira ere.

Lehendabizi, Aranzadi Zientzia Elkarteak hartu zuen identifikazio-lanen ardura, baina zailtasun handiak izan zituen kanposantuko hilobi komunetan topatutako gorpuzkinak identifikatzeko, hilerriko lur-azpiko egitura sakonki mugituta baitzegoen kanposantuko obren ondorioz. Hori dela eta, udal agintariek ikerketa historikora zuzendu zuten begirada, eta 2004an hitzarmen bat sinatu zuten Euskal Herriko Unibertsitateko Historia Garaikidearen Sailarekin. Aipaturiko hitzarmenaren ondorioz, unibertsitateko irakasle den Mikel Aizpuruk gidatutako ikerketa-taldea sortu zen: Jesús Mari Gómez, udal artxibozaina, Urko Apaolaza, Historian lizentziatua eta kazetaria, eta Jon Odriozola kazetaria eta Soziologian lizentziatua aritu dira ikertzen.

Zereginari ikuspuntu bikoitza eman zitzaion. Lehenik eta behin, Gerra Zibilean zehar jasandako errepresioaren eta horrek euskal kasuan izandako ezaugarrien testuinguruan kokatu behar ziren Hernaniko hilketak. Horrek, gure aburuz, gaur egun

errepresioaren eta memoria historikoaren inguruan dagoen eztabaida laburki azaltzea zekarren; halaber, Gipuzkoak gerra aurretik zituen ezaugarri soziopolitikoak aztertzea; gerrak lurralde honetan izandako bilakaera laburbiltzea eta heriotza-kondenekin edo hilketekin amaitzen ez zen errepresioaren modalitate ezberdinak erakustea. Gerrako borroka-lerroaren bi aldeetan aztertu dira faktore horiek, nahiz eta, bere handitasuna eta iraupena dela eta, garrantzi handiagoa eman zaion matxinoen aldekoek ezarritako errepresioari. Baliteke irakurlea errepublikarren errepresioari egindako aipamenarekin harritzea, eta horrek azalpen bat merezi du.

Guk ez dugu uste bi aldeetan indarkeria-mota bera erabili zutenik, nahiz eta biek erabili gogorkeria, pertsona ugari hil eta askori sufriarazi baitzieten. Era berean, ez dugu uste kuantitatiboki edo kualitatiboki aldera daitekeenik batzuek eta besteek eragindako kaltea; izan ere, María José Souto-k zioenez, gutxi gorabeherako aritmetikak ziren iturri, metodo eta egoera ezberdinetatik bildutako datuak. Baina bat gatoz Santos Juliá-rekin baieztatzen duenean ezin dela, besterik gabe, indarkeria faxista aurretik landutako ekintzatzat hartu, indarkeria iraultzailea horren aurrean emandako erantzun gisa ikusten den bitartean. Gerra aurrekoa zen bi aldeetako indarkeria, eta aurkaria berariaz deuseztatzea bilatzen zuten guztiek. Ildo horretatik, guk uste dugu errepublikarren ekintzen krudeltasunak izua zabaldu zuela jarrera jakinik gabekoen artean eta beren laguntza behar zuen Errepublikatik urrundu egin zituela. Bestalde, errepresio frankistaren basakeriak sortutako gaitzespena ahulegia izan zen gerraren bilakaeran eraginik izateko. Iragan krudel hori saihesteak erremindu egin ditzake nahigabea bizi izan zutenak edo beren familiak, baina beharrezkoa da benetan gertatu zena ulertzeko.

Bide honetatik, Hernanin gertatutakoa kontatzea eta azaltzea da gure lanaren asmoa. Ez, Enric Ucelay-k behin esan zuen legez, fusilatutakoen hezurrak ateratzeko eta aurkari ideologikoen aurpegira jaurtitzeko, baizik eta historialari garen heinean, bi sentimenduren artean mugitu behar dugulako: batetik, bere berezko zentzugabekeriarengatik, Gerra Zibileko basakeriak ez diola inongo logikari erantzuten pentsatu behar dugu; eta, bestetik, aldi berean, kontrakoa pentsatuz ikertu behar dugu, hau da, gertatutakoa logika krudel baina arrazional baten testuinguruan kokatzen saiaturik.

Bigarrenik, Hernanin hildako eta lurperatutako pertsonen kopururik handiena identifikatzea genuen helburu. Gerra Zibilean desagertutako pertsonen familiei ahalik eta informazio gehien eskaini nahi izan diegu; izan ere, ez frankismo-garaian ez eta hurrengo hogeita hamar urteetan ere, ez zuten beren senitartekoei buruzko informazio ofizialik jaso, ez zergatik hil zituzten, ez non edo nola, ezta non dauden lurperatuak ere. Erakunde ofizialez gain, historialariok, altxor publikotik kobratzen dugunok behintzat, eta Aro Garaikidean adituak garenok, nolabaiteko zorra daukagu

aipaturiko pertsonekin, zailtasun handiko gai polemiko eta korapilatsu honen ikerketa alde batera utzi izan dugulako. Orain arte ikertu den kasuetan, amateurrak edo unibertsitate- eta ikerketa-zentroetatik urrun daudenak aritu dira. Lan honen xederako, Guardia Zibilak 1958an idatzitako txostena izan zen egile-taldeak ezarritako abiapuntua, eta une horretatik bertatik egoera paradoxikoa planteatu zitzaigun. Itxuraz, hildakoen kopurua ezagutzen genuen, baina ez beren identitatea; bagenekien non zeuden lurperatuak, baina ez nondik zetozen. Gerra Zibileko hilketen eta desagerpenen inguruko ikerketa gehienetan, ordea, hildakoen izenak eta beren jatorria ezagutzen dira, baina desadostasunak daude beren kopurua eta hildako lekua finkatzeari dagokionez. Gure lanak, hortaz, alderantzizko berreraikitzea egitea inplikatzen zuen: Hernaniko kanposantutik abiatuta, hildakoak leku horretara eraman zituen bidea topatu behar genuen. Zeregin horretan, hasieran uste genuena baino zailtasun gehiago izan ditugu, eta horrexegatik dira halabeharrez behin behinekoak liburu honen orrialdeetan azalduko ditugun ondorioak.

Hiru dira Gerra Zibileko errepresioaren gaia lantzen duten historialariek erabili ohi dituzten iturriak. Hildako pertsonen senitartekoen edo gertakariak bizi izan zituztenen lekukotasuna da lehena. Funtsezko kanala da, kasu askotan pertsona baten desagerpenaren berri eman diezagukeen iturri bakarra delako, horrelako gertakariak sarritan ez ziren agiri ofizialetan jasotzen eta. Senitartekoekin izandako harremanak, gainera, aukera eman digu beren atsekabea ezagutzeko eta gerra hasi eta 70 urte geroago zauriak itxi gabe daudela ikusteko; izan ere, Ignacio Martínez de Pisón-ek zioenez, hildako askoren familiak ezin izan dira lutoz jantzi, eta ezin izan zuten etxeko exekutatuengatik negarrik egin bere garaian. Aukerarik ere ez zuten izan senarraren, aitaren edo anaiaren azken gutuna berriro irakurtzeko, kasu gehienetan ez baitzekiten gau hartan bertan hilko zituztenik. Baina gure kasuan, ez dira nahikoak hurbilenekoengandik jasotako datuak, eta zaila da kontatutakoa egiaztatzea. Gurekin edo Aranzadi Zientzia Elkartekoekin –Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailarekin sinatutako hitzarmenaren bidez gerran desagertutakoen auzia zentralizatu duen elkartea– harremanetan jarri diren pertsonek badakite beren ahaideak atxilotu edo beren etxeetatik indarrez atera zituztela, baina kasu askotan ez dakite zer gertatu zen haiekin eta, gainera, ezin dute ziurtatu Hernanin hil zituztenik ere. Oiartzunen edo Ulia mendian fusilatu zitzaketen, horietan ere hainbat exekutatu baitzituzten garai bertsuan.

Bigarren iturria historialarien lana da. Nahiz eta lan ugari dauden Euskal Herrian gauzatutako Gerra Zibilaren inguruan, oraindik ere ikerketara zabalik dagoen alorra da, duela gutxira arte hutsune garrantzitsu bat izan baitu: errepresioaren auzia. Euzko Apaiz Taldeak eta ikerketa-gai Nafarroan fusilatutakoak eta desagertutakoak zituzten lanak genituen, baina egungo Euskal Autonomia Erki-

degoaren kasuan, presoen lekukotasunen liburuetara edo tokiko kasuetara mugatzen zen ikergaien zerrenda, esaterako, Arrasateko eta Andoaingo kasuak aztertu izan dira. 1998an hasi zen aldatzen egoera, Iñaki Egañak zuzendutako taldeak *La Guerra Civil en Euskal Herria* argitaratu zuenean, non espazio zabal bat eskaini zitzaien militar matxinatuen eta beren laguntzaileen ekintzen ondorioz hildako pertsonei. Aurrerago aipatuko ditugun salbuespenekin, gure ikerketarako oinarrizko iturri izan da Egañaren lan hori. Pedro Barruso-k funtsezko beste lan bat argitaratu zuen 2005. urtean, Gerra Zibilean eta lehen frankismoan Gipuzkoan izandako indarkeriari eta errepresioari buruz. Era berean, Araban, Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle batzuek idatzitako artikulu batzuk argitaratu ziren 80ko hamarkadan, eta errepresioak lurralde horretan izandako garrantzia nabarmendu duten lanak ere egin dira. Horien artean argitaratutako azkena Txema Flores eta Iñaki Gil Basterrak egindakoa da. Bizkaia, oraindik ere, umezurtz dago alor honi dagokionez. Nolabaiteko dedikazio-falta honek euskal lurralde historiografikoan izan dituen hutsuneek Gipuzkoako egoera bertsua bizi izan duten beste probintzia batzuetan egindako ikerketetara eraman gaituzte behin baino gehiagotan. Errepresioari buruzko lan orokorrez gain, guretzat erreferentzia saihestezinak izan dira Santiago Vega-k Segoviari buruz, Carlos Gil Andrés-ek Errioxari buruz eta Julio Prada-k Ourenseri buruz idatziko liburuak.

Dokumentuen ekarpenek osatzen dute iturrien hirugarren taldea. Gure etsipen handienak alor honetan jasateaz gain, Gerra Zibilean gure artean gertatutakoa kontatzean beti gailentzen den teorietako baten konfirmazioa ere aurkitu dugu: gertatutakoari buruzko dokumentazio eza da Hernaniko kasuak dokumentuen ikuspuntutik eskaintzen duen ezaugarri nagusia. Ez agiritegi zibilek, ez militarrek ez eta erlijiosoek ere ez dute ehunka pertsonaren atxiloketa, espetxeratze eta ondorengo hilketen inguruko dokumentaziorik gorde. Egoera arras desberdina da beste probintzia batzuetan, non auzipetutakoen aurkako gerra-kontseiluen aktak, Gobernu Zibilen gutunak, kartzeletako espedienteak edota espetxeetako kapilauek edo Instituto Provincial de Higiene zeritzon erakundearen oharrak gorde egin diren. Gipuzkoako kasuan, kartzeletako espediente batzuk baino ez dira gorde (Martuteneko kartzelan daude) eta gerra-kontseiluei buruzko paperak (El Ferroleko Archivo Militar-rean), baina azken horietan ez dago Hernanin hil zituztela dakigun pertsonei egindako erreferentziarik. Baliteke dokumentaziorik ez egotea, Espainian, normalean, agiriak utzikeriaz tratatu izan direlako, tradizioz; edo, agian, 1976tik 1980ra bitartean erregimen frankistako ekintzak ezkutatzen saiatzeko dokumentuak deuseztatu eta suntsitu zirelako. Gure ustez, aurrerago xehetasunez azalduko dugunez, Hernanin hildako gehienek ez zituzten gutxieneko berme prozesalak izan, eta horregatik, data ezezagun batean, baina ziurrenik Gerra Zibilean bertan, aipaturiko dokumentazioa suntsitu edo

ezkutatu egin zen. Hortaz, bat gatoz gerra-kontseiluak jasan behar izan zituzten errepresaliatuekin, beste asko, Hernanin fusilatutakoak besteak beste, ez zirela epaituak izan eta beren heriotza ilegalki erabaki zela baieztatzen dutenekin; eta hori guztia, xehetasun bat alde batera utzita, hots, 1936an legez eratutako Gobernuaren kontrako altxamendu batean sortu zela legaltasun frankista. Topatu duguna, aldiz, zeharkako informazioa izan da, kasu ezberdinen zerrendak eta salaketak jasotzen dituzten artxiboak, baina ez zuzeneko material dokumentala. Beste bide batzuetatik jaso dugun informazioa berresteko, baztertzeko edo zehazteko balio izan digute agiri ofizialetan lortu ditugun datu eskasek.

Ezin izan ditugu Eliza Katolikoaren agiritegi ofizialak kontsultatu, bere araudiek, salbuespenak salbuespen, informazioa sortu zenetik 75 urte igaro arte ezingo dela kontsultatu xedatzen dutelako, eta 70 urte besterik ez da igaro Gerra Zibila hasi zenetik gaur arte. Gasteizko Elizbarrutiko Artxiboak (gutxienez fusilatutako apaizei buruzko dokumentazio garrantzitsua izan beharko luke) eta Iruñekoak ere ateak itxirik dituzte ikertzaileentzat. Informazio hori existitzen ote den ere ez dakigu. Nafarroako kasuan, Olaechea gotzainak matxinatuek atxilotutako pertsonen familiei eta lagunei laguntzeko bulego moduko bat eratu zuen, eta berarekin eraman zituen dokumentu horietariko asko Valentziako gotzain izendatu zutenean, eta gaur egun, hiri horretako artxibo salestarrean daude, gotzaina hil zenetik 50 urte betetzen diren arte, hau da, 2022ra arte. Vatikanoko Agiritegi Sekretuaren jarrera bestelakoa da, azken horrek 2006ko amaieran jarri baitzuen ikertzaileen eskura 1939an hildako Pio XI.ari buruzko dokumentazioa; Argentinako Elizak ere gordetegiko erreserba hogeita hamar urtera mugatu du.

Erakunde ofizial ezberdinen arteko koordinazio-falta eta, aldi berean, ikerketarako berria eta tentuz ibili beharreko auzian sakontzeak dakartzan mesfidantzak gehi diezazkiekegu orain arte aipaturiko zailtasun guztiei; baina hala eta guztiz ere, ez ditugu ahaztuko guk uste baino luzeagoa eta zailagoa suertatu den bide honetan lagundu diguten pertsonak eta erakundeak. Eskerrak eman nahi genizkieke, lehenik eta behin, hildako pertsonen senideei, izan ere, beren ekarpenik gabe, beren lekukotasunik gabe edo utzitako dokumenturik gabe, lan honek ezin izango zukeen bere helburu nagusia bete: 1936ko urte krudel hartan hildako pertsonen berri ematea. Uneoro Hernaniko udalaren eta, bereziki, Jose Antonio Rekondo bertako alkatearen laguntza izan dugu, eta mota honetako lanek izan ohi dituzten atzerapenen aurrean oso ulerkor azaldu dira beti. Juantxo Agirrek, Paco Etxeberriak eta Aranzadi Zientzia Elkarteko taldeak erraztu dute gure ikerketaren zati handi bat, aurretik egindako lanei esker eta gure lanean zehar izandako dokumentazio-trukeari eta elkarrizketei esker. Abel López de Aguiletak, Eusko Jaurlaritzako Justizia Saileko Azterlanen eta Araubide Juridikoaren Zuzendariak, lagundu digu bide ba-

tzuk sasiz garbitzen. Bidasoa Institutuko Jose María Gamboak eta Jean-Claude Larrondek jarri zuten gure eskura beren liburuaren ale originala, artean argitaratu gabe zegoen eta. Ikerketa-lanaren inguruko aholkuak eman dizkigu Pedro Barrusok eta topatzen zailak diren datu batzuk lortu dizkigu. Agirizain eta liburuzain askok lagundu dute era askotako materiala gure eskuetara hel zedin. Bereziki, Euskal Herriko Unibertsitateko Arabako Kanpuseko Liburutegiko Cristina Díazen laguntza nabarmendu nahiko genuke, Abertzaletasunaren Agiritegiko Iñaki Goioganarena, Labayru Ikastegiko Ander Manterolarena eta Madrilgo Agiritegi Historiko Nazionaleko Carmen Alonsorena. Harrigarria dirudien arren –bere irudi publikoa kontuan hartuz gero–, Francisco Franco Fundazioak ez zuen inongo trabarik jarri bere fondo digitalizatuak ikusteko, nahiz eta Franco jeneralaren mahaitik pasatu ziren hainbat dokumentu non ote diren galdetzen jarraituko diogun geure buruari. Agiritegi militarretan izandako arreta ere erakunde horrek hoberantz izandako aldaketaren adierazgarri da. Egileen azalpenak, neurak eta kezkak sufritu behar izan dituzte lagunek, senitartekoek eta adiskideek, liburu hau burutu bitartean. Horiei guztiei, eskerrik asko. Baita Usoa Wyssenbach-I ere, zortzi eskuz eta bi hizkuntzatan idatzitako liburu honetako atal batzuk itzuli ditu eta.

Sarrera honetan bi aldiz adierazi dugu ikerketa honen emaitzak behin-behinekoak direla eta balitekeela inoiz ere zehaztasunez ez jakitea zenbat pertsona hil zituzten Hernanin. Ez genuke haien senitartekoen itxaropena inolaz ere desagerrarazi nahi, ezta gure lana gutxietsi ere. Gure eskura zeuden iturri guztiak erabili ditugula uste dugu, baina jakinaren gainean gaude oraindik ere badirela auzi honen inguruan informazioa biltzen duten agiri publikoak edo pribatuak. Badakigu ezinezkoa izango dela izen guztiak berreskuratzea, informazioa ezkutatu delako edo izenak idaztean akatsak egin direlako. Ez genuke nahi hildakoen zerrenda artifizialki eta era interesatu batean puztea. Hildakoen kopurua bezain garrantzitsua da beren oroitzapena ez desagertzea, hori baitzen uztaileko 17ko matxinatuek legez kanpoko hilketen bidez jarraitzen zuten helburuetako bat. Ahal izan dugun neurrian, gure eskuen artean genituen datuekin egiaztapen kritikoa egin dugu, eta horren ondorioz, beste hainbat lanetan edo dokumentutan "Hernanin hildakoen" moduan azaltzen ziren izenak gure zerrendatik desagertu egin dira. Horrek ez du esan nahi militar matxinatuen errepresiorik bizi izan ez zutenik, baizik eta ez zela Hernanin gertatu. Hortaz, ez gaude norbaitek mespretxuz "hildakoak zenbatzea" bezala definitu zuen horrekin obsesionatuta. Ez dugu uste hildako guztiak aurkitu ditugunik, baina aurkitu dugun izen bakoitza, hilobi anonimo batetik ateratako gorpu bakoitza bezala, esperientzia ikaragarria bizi izan zuen belaunaldi eta gizarte baten ordezkari izateaz gain, hildakoari eta bere familiari horrela hil eta lurperatu zutenek kendu nahi izan zieten duintasuna itzultzea dela pentsatu nahi dugu. Izan ere, Bordagain idazle anonimoak

*Euzko Deya* egunkarian Jose Markiegi apaizaren hilketaren berri ematean zioen moduan,

> Ainbeste gizon argi ta biozdun galtzen ari gera guda zital au militar españarrak piztu zigunetik, nun, ez bai dakigu oraindik galeraren aundia neurtzen; ez bai dezakegu –gure naigabe ta oñazeen erdian– joan zaizkigun adizkide guztien izenak aipatu bederik[1].

1 Bordagain, "Jose Markiegi, Apaiza", *Euzko Deya* 44, 1937-4-22.

# I

# ERREPRESIOAREN MEMORIA(K) EDO HISTORIA(K)

FRANCOREN HERIOTZAREN ondorengo lehen urteetan, lan asko argitaratu ziren Gerra Zibilari buruz. Ia denek argi definitutako bi aldeen arteko borroka moduan planteatzen zuten gerra. Aurkako helburuak zituzten bi aldeek, baina, talde bakoitzari barne-koherentzia ematen zioten benetako elementuetako bat borrokatu beharreko aurkari komun bat izatea zen (Aguilar, 1998, 122). Gutxi dira, ordea, errepresioaren auzia jorratu zuten lanak. Euskal Herriaren kasuan, jazarritako apaizekin eta gudari ohi batzuen memoriarekin lotu zen zapalkuntza. Argitalpen horien ostean eta gatazkan hildakoei egindako omenaldi batzuen ondoren, Gerra Zibilaren ikerketa eta, batez ere, errepresioarena, ikertzaile-talde mugatu baten esku geratu zen, horietariko asko, gainera, unibertsitatetik urrun zeudenak. Soria (Hernández García), Errioxa (Herrero Balsa & Hernández García), eta Nafarroa (Colectivo Afán, 1984 eta Altafaylla, 1986), eta Gipuzkoako kasuan Arrasateri buruzko lanak (Oktubre, 1987) horren adibide argia dira. Hurrengo urteetan, hainbat historialari inplikatu ziren isilpean jarduera horretan, baina era sistematikoago batean, iturri berriak erabiliz, gertatutakoari buruzko interpretazio konplexuagoak proposatuz, beste lurraldeetan gertatutakoa kontuan hartuz eta beren emaitzak unibertsitateetan argitaratuz. Reig Tapia (1979) izan zen Espainiako aitzindaria eta Joan Solé I Sabaté-k eta Joan Villarroya-k (1983) jarraitu zuten bide horretan ikertzen Kataluniako kasuan. Gerra Zibilaren hasieraren berrogeita hamargarren urteurrena zela eta egondako publizitate-eztandak, salbuespen batzuk alde batera utzita, errepresioaren auzia alde batera uzten jarraitu zuen. Alde errepublikarrean gertatukoa jakiteko zegoen jakin-mina alde frankistan gertatutakoari buruzko lan eskasekin kontrajartzen zen. Gerrako eta gerra osteko errepresioari buruzko lehen ikerketa serioak laurogeiko hamarkadaren bigarren erdialdean azaldu ziren, Ramón Salas Larrazabal militarrak *Pérdidas de la guerra* lana argitaratu eta hamarkada bat geroago. Agirreazkuenagaren (1987) eta Ugarteren (1988) lan sektorialak izan ziren lehenengo ekarpenak euskal kasuan. Baina ekarpen horiek ez zuten jarraipenik izan, eta ez ziren ez publiko zabalera ez komunikabideetara heldu[2]. Badira egoera hori azal dezaketen hainbat arrazoi.

Horietariko lehena, itxuraz teknikoa eta ez oso aipatua, errepresioaren gaia ikertzeak zailtasun anitz izan ohi dituela da, eta horrek konplexu bihurtzen duela gaia-

2 Euskal Herriko Gerra Zibilaren historiografiari buruz, ikus Pablo (2003).

ren azterketa. Oso maiz, gerra zibiletan gertatutako hilketa basatiek ez dute inongo dokumenturik uzten atzean, eta historialariak informazio-iturri idatzirik gabe geratzen dira. Horrelakoetan, ahozko iturriek egiten dute informazio-ekarpen handiena, beren aberastasun guztiarekin, baina hutsuneak, zehaztugabetasunak, partzialtasuna eta xehetasun-falta ere badituzte. Bestalde, gertaeren garaian idatzitako lekukotasun askok ere arazo berdinak dituzte. Horren adibide bat jarriko dugu, ez da Hernanikoa, baina bai garai kronologiko berean gertaturikoa, José Sagarna apaiz fusilatuaren kasua, hain zuzen ere. Bizkaiko Frontean fusilatu zuten apaiz honen heriotzari buruzko lau bertsio ezberdin jaso ditugu. Jean Pelletier-en arabera (1937, 70) Sagarna inongo prozesurik egin gabe hil zuten, bera abertzalea izan ez arren, bere herriak ez zituelako erasotzaileak onartu. Bigarren bertsioaren arabera, Miguel García Alonso apaizak Gomá gotzainari idatzi zion esanez, 1937ko otsailean trenean zihoala, Nafarroako errekete bati entzun ziola Bizkaiko frontean apaiz bat fusilatu zuela, komunikazio-kable bat mozten ikusi zutelako. Kondenatu ondoren, erreketeari fusilatzeko agindu zioten (Andrés-Gallego, 2002, 101). Beste alde batetik, José de Artechek (1970, 120) bere egunkarian bildu zuen Azkoitiko errekete batek jakinarazi ziola Markinako fronteko posizioak egonkortu ostean, apaiz bat heldu zela beste alderditik. Ofizial batek, espioitzat hartu eta, oso haserre, berehala fusilatzeko agindu zuen. Apaiza, estu eta larri, nazionalen alderdira zetorrela adierazten ahalegindu zen, baina ez zion ezertarako balio izan, ofizialak bere agindu zorrotza mantendu baitzuen. Azkenik, apaiz-talde batek eta Juan de Iturraldek (1978, 370) egindako ikerketaren arabera[3], Berriatuko herritar batek salatu zuen Sagarna, apaizak kargu hartu baitzion herriko maistrarekin eskandaluzko harremanak izateagatik. Abertzalea izatea egotzi zioten, mugimendu horren alde azaldu zelako, eta Amulategi baserrira eraman zuten eskuak lotuta eta begiak estalita zituela; gaua txerritoki batean pasatzera behartu zuten, eta militar erreboltarien kapilau batekin aitortu ondoren, lasai eman zion aurpegia heriotzari.

Ikus daitekeenez, ikerketa-mota honek zuhurtzia handia eskatzen du biktimei edo hiltzaileei buruzko datuak zehazterakoan; izan ere, min egiteko arriskua handia da, batez ere, hirurogei eta laurogeiko hamarkadetan, protagonistetariko asko bizirik zeudenean. Datu asko falta ziren gertatutakoari buruz eta historialariek nahiago izan zuten beste ikerketa-arlo batzuk landu, esaterako, alderdi ezkertiarren edo abertzaleen jarduera. Bada, gainera, bigarren arrazoi bat teknikoa izan arren kutsu politiko

3 Juan José Usabiaga zen Juan de Iturralderen benetako izena. Beasaindarra izatez, Eskolapioa zen eta Tolosako komentuan atxilotu egin zuten, 1937ko maiatzean. Donostiako Ondarretako kartzelan izan zen bi astez, harik eta askatu eta Hendaiara eraman zuten arte. Frantzian pasa zuen Frankismo guztia eta hainbat liburu kaleratu zituen 1936ko gerra eta Elizaren inguruan. 1979an omenaldia egin zioten Beasainen eta handik bi urtera hil zen Lapurdiko Sara herrian.

nabarmena ere bazuena. Gerra Zibilarekin erlazionatutako agiritegi gehienak itxiak zeuden eta irekita zeudenak kontsultatu ahal izateko zailtasun asko zeuden, hala nola, ikertzaileei egindako mehatxuak eta administrazioak jarritako trabak, eta horrek guztiak gaiaren tratamendu zientifikoa galarazten zuen (Espinosa, 2004). Ekainaren 25eko Espainiako Ondare Historikoari buruzko 16/1985 Legeak, agirien sistema arautzen zuenak, ez zuen gehiegi lagundu, dokumentazioa kontsultatu ahal izateko 50 urteko epea ezartzen baitzuen, eta epe horri 25 urte gehiago gehitu behar zitzaizkion dokumentuetan aipatutako pertsona oraindik bizirik bazegoen. Espetxeetako eta Guardia Zibilaren artxiboak xedapen horietaz baliatu dira sistematikoki, dokumentu horietara heltzea galarazteko, baita gaur egun ere. Horrela, ahaztu egiten da errepresioarekin lotutako dokumentuek, bere balio historikoaz edo judizialaz gain, memoriarekin eta identitatearekin lotutako balioa ere badutela, biktimen lekukotasunari laguntzen eta indarra ematen diona[4]. Gobernu sozialistaren garaian onartutako lege horrek traba gehiago jarri zizkion berez zaila zen lan bati, eta, ezinbestean, errepresioaren inguruan izandako isiltasun politikoaren arrazoiak bilatzera eraman gaitu.

Espainian, demokraziara egindako trantsizioa frankismoaren oinordekoek gidatu zuten militarren tutoretzapean eta, azken horientzat, baziren ukitu ezin ziren gai batzuk. Gerra Zibilean eta frankismo-garaian izandako errepresioa zen horietariko bat. Horren ondorioz, egiaztatu gabe dagoen baina nahiko sinesgarria den zurrumurru batek dioenez, 1976tik 1980ra bitartean, Rodolfo Martín Villa Barne Ministroaren aginduak jarraituz, Espainiako probintzia askotan frankismoko aparatu politiko eta errepresiboarekin lotutako dokumentazio asko suntsitu zen. Aparatu horrek Gerra Zibilean zuen bere jatorria, eta lege militarrak aplikatu zizkieten zibilei 1978ra arte. Komenigarria litzateke gogoratzea Todorov-ekin, tirania oro memoria kontrolatzen saiatzen dela, baita familiena ere, iragana errotik desagerrarazteko, gertatutakoa gogoraraz dezakeen edozein elementu deuseztatzeko eta erregimen totalitarioko basakeria salatzea ahalbidetu dezakeen edozein aztarna ezabatzeko. Horrexegatik, hainbat kasutan oso zaila izaten da gertatutakoari buruzko informazio ofiziala eskuratzea, bereziki, udaletako eta probintziako agiritegietan, errepresioko erantzukizun pertsonalen frogak ezabatzen saiatu baitziren.

Erakunde ofizialek eta alderdi politiko gehienek ez zuten interes handiegirik azaldu gerraren auzia eta errepresioarena iker zitezen. Erabaki horrek (isilekoa edo inplizitua) gizartearen gehiengoaren babesa izan zuen, Gerra Zibila piztu zuen egoerara itzularaz zezakeen edozein egoeratatik aldendu nahi zutelako. Horrela, politikarien eta hiritarren borondateak baztertu egin zituen (ohartuta edo oharkabean) errepresio frankista eta horrek eragindako desagertuen auzia. 1981eko otsailaren 23ko estatu-

4 Errepresioaren munduari eta artxiboei buruzko gogoeta batzuk Gonzalez Quintanaren 1999ko lanean; Jelin & Silva Catela, 2002; Mantelli, 2003; Saz, 2003 eta Viciano, 2003.

kolpe saiakerak agerian utzi zuen, gainera, antzeko gertakariak berriro ere errepika zitezkeela, eta Suárez-en lehendakariordea zen Gutiérrez Mellado jeneralak Felipe Gonzálezi aholkatu zion, PSOEk boterea lortzen bazuen komenigarria izango zela Gerra Zibilaren auzia ez mahaigaineratzea, izan ere, sua artean erabat itzali gabe zegoen; haren hitzetan: «debajo de las cenizas todavía quedan rescoldos encendidos». 2001ean, González presidente ohiak onartu egin zuen gatazkaren 50. urteurrena bete zenean (bera presidente zela), era guztietako ospakizunak saihestu zituela lehenengo agintaldian, eta ekitaldiak historialarien bileretara mugatu zirela[5]. Laurogeiko hamarkadaren amaieran, elkarbizitza oinarri baketsu eta demokratikoetan finkatuta egon arren, oraindik ere indarkeria frankistaren auzia jorratzeko beldurra orokorra zen, eta oso zaila zen borreroak ezagutaraztea. Hainbat ikerlarik "isiltasunaren ituna" edo "amnesiaren ituna" deitu diote interes falta horri (Preston, 1999, 162), eta hamaika polemika piztu ditu izendapen horrek.

Zenbateraino behar zituen Trantsizioak isiltasuna eta ahanztura? Nola bateratu zitezkeen politikoek behar zuten adostasuna frankismotik ateratzeko eta gertatutakoaren oroitzapena? Zergatik nahastu zen amnistia politikoa amnesia historikoarekin, edo barkamena ahanzturarekin? Michael Richards-en arabera (1999, 6) iragan hurbilaren ahanztura frankismoak gerraostean ezarritako zerbait izateaz gain, biziirauteko estrategia moduan ere erabili zen, hala alor pertsonalean nola kolektiboan. Gertatutakoa ahazteko nolabaiteko isilpeko akordioa ezarri zen, trantsizio politikoaren prozesurako ezinbesteko baldintza bihurtuko zena, baina baita garaileen nagusitasuna luzatzeko tresna ere izan zena. Walther Bernecker historialari alemanarentzat, Espainiako Gerra Zibilak eta gerraosteko errepresioak belaunaldien kontzientziak baldintzatu ditu, nahiz eta frankismoa saiatu memoria kolektibotik Espainia garaitua ezabatzen. Horregatik, harrigarria da Francoren heriotzaren ostean gaia aztertzeko edo kaleetako eta kuarteletako ikur frankistak ezabatzeko jarritako arreta eskasa. Hainbat arrazoik bultzatu zuten egoera horretara, alde batetik, Francoren diktadurarekin haustura demokratiko argirik ez egoteak; beste batetik, inork defendatzen ez duen mendekua eta historia hurbila berreskuratzea nahasteak; eta, azkenik, aurrerapenaren eta europartasunaren garairik gorenean (1994. urtearen inguruan) Espainiako historiako garai negatiboak gogoratzeak funtzionaltasunik ez zuelako usteak. Conxita Mir (2001, 19-20) historialari katalanak ere defendatu duenez, itundutako adostasunean eta memoria-faltan oinarritutako hogei urteko trantsizioak gerrak zapuztutako esperientzia indartzea besterik ez du lortu, eta orain, behin finkatuta diktadorearen heriotzaren ostean hasitako aldaketa-prozesua, esperientzia hura aldarrikapen bihurtzeko borroka ari da gertatzen.

5 *El País*, 2001-2-24. Baieztapen horren aurrean, auzi honen inguruan 1986an egin zuen diskurtso bakarrean, Gerra Zibila historia zela esan zuen presidenteak (Bernecker, 1994, 68).

Alderdi frankistak utzitako hildakoen, desagertuen eta errepresaliatuen berreskuratze historikoan inplikatutako sektoreek kritikatu dute gogorren ahanztura hori. Memoria Historikoa Berreskuratzeko Elkarteak (Silva, 2004) Valladoliden 2003an ospatutako bileran jasotako aktek bi kexa nagusi bildu zituzten: Espainian trantsizioa gauzatzeko bidea batetik, eta, 80ko hamarkadan, eredu demokratikoa finkatu ostean, gudari errepublikarren eta beren senitartekoen oroitzapena ahaztea. Vincenç Navarro izan da frankismotik ateratzeko bidea sistematikoki gehien kritikatu duen egileetako bat. Topaketa horretan bertan adierazi zuen Espainiako ongizate eskasa eta osatu gabeko demokrazia lotuta zeudela gerra-garaian eta gerraostean errepresioaren inguruan jarraitutako isiltasunaren politikarekin, non diktadurako agintariek, salbuespen batzuk kenduta, ez zuten iraganarekiko erruduntasunik edo jarrera autokritikorik azaldu. Bi Espainien arteko bataila moduan ikustea gerra, eta erantzukizunen artean ere distantziakidetasuna onartzea, lurraldeko komunikabideetan eta politikan eskuindarrek izandako nagusitasunaren ondorio izan zen. Beste faktore batzuen artean, errepublikar-garaiko sektore aurrerakoienak fisikoki ezabatuz edo Espainiatik kanporatuz lortu zuten nagusitasuna. Garaiko egoeraren adierazgarria zen komunikabideak eta telebista isilik geratzea errepresioaren aurrean.

Santos Juliá eta dagoeneko hilda dagoen Javier Tusell izan dira isiltasunaren ituna egon zela gogor ukatu zutenak. Juliáren aburuz, ez zen egon pakturik; baina, mendeku politikoari muzin egin zitzaion sistema politiko berria finkatu ahal izateko (2006). Tusellen iritziz, trantsizio-garaian ez zen inolako amnesiarik egon; alderantzizkoa gertatu zen, lan asko argitaratu baitziren gerrari buruz, nahiz eta egia izan ez zela hainbeste argitaratu errepresioari buruz. Garai hartako gobernuek eta ondorengoek uko egin zioten iraganari aurre egiteari, adiskidetzeko premian oinarritutako borondatea zegoelako, eta ez zen ahanztura izan. Julián Casanova-k ere (1999, 7-8) gerraren memoriak bizirik dirauela uste du, eta gezurra dela ez dela ezer argitaratu. Haren ustez, memoria orok eskatzen du etengabe elikatzea, eta horixe izan zen, hain zuzen, urte batzuetan falta izan zena, «pero siempre ha habido libros sobre la guerra, mejores o peores, tiradas largas o cortas, por toda España». Javier Pradera-ren ustez, iragana alde batera utzi dela egia bada ere, ez da bidezkoa gizarte bati taldeko erantzukizunak eskatzea diktadura bati aurre ez egiteagatik (Pradera, 2000, 53).

90eko hamarkadan, agiritegi batzuk irekitzean, hazkunde garrantzitsua nabaritu zen[6] gerrari buruzko produkzio historiografikoan. Ordura arte argitaratutakoen modura, honako hau eman zuten jakitera lan berriek: 1) Frankistek gerran eta gerraostean gauzatutako errepresioaren handitasuna (1999an argitaratutako *Víctimas*

6 Produkzio berriaren irteera-marka *Justicia en guerra* izan zen, Kultura Ministerioak argitaratu zuena 1990ean. Justiziari eta errepresioari buruzko produkzio historiografikoari dagokionez, ikus Sagués, 1994; Moradiellos, 1999; Rodrigo, 2001; Egido, 2003; Espinosa, 2006; Márquez, 2006 eta Blanco Rodríguez, 2006.

*de la Guerra Civil* izan zen honen sintesi ezagunena Espainian eta Egañaren liburua Euskal Herrian) eta 2) hildakoen memoria soziala zegoela, ordura arte isilik eta isilarazia egon zena, desagertutako familien oroitzapena gorde zuena eta, beste lurralde eta kontinenteetako (Txile, Argentina, Hegoafrika, Bosnia) mugimenduekin batera, zer gertatu zen jakitea eskatzen zuena, zergatik ez zitzaion garrantzirik eman beren senitartekoen aurkako errepresioaren auziari galdetzen zuena eta, gainera, oraindik desagertuta zeudenen gorpuak berreskuratu nahi zituena.

Paradoxikoki, Gerra Zibilean desagertutako errepublikarren gorpuak berreskuratzeko mugimenduak bultzada handia izan zuen 1995eko udan jakin zenean Defentsa Ministerioak (artean sozialisten esku) hitzarmen bat sinatu zuela erakunde aleman batekin, Errusiako frontean hildako Espainiako Dibisio Urdineko kideen gorpuak berreskuratzeko. Alderdi Popularreko Gobernuak ere politika horrekin jarraitu zuen. Kontuan hartu beharra dago PPk 1996an izandako garaipenak eztabaida publiko bizi bati eman ziola hasiera, non urrutiko eta antzinako historiak (Carlos I.aren eta Felipe II.aren erreinuen mendeurrenen ospakizunak, bigarren hezkuntzako ikasketa-planetako edukiak, identitate nazionala, etab.) hurbilekoak eta oraintsuagokoak baino garrantzi handiagoa hartu zuen (Ruiz Torres, 2007). Dibisio Urdineko gorpuak berreskuratzeko erabakiak (ez zuen kritikarik izan), pertsona zaharrek urteetan isildutakoa adierazteko beldurra galtzeak eta horien bilobek beren aiton-amonak zein egoeratan desagertu ziren jakin-nahiak desagertutakoen gorpuak berreskuratzeko mugimenduaren agerpena suspertu zuten. Errusiako gorpuak berreskuratzen eta monumentuen eraikuntzan gastatutako 360.000 euroen aldean, Espainiako Gobernuak ez zuen inongo agiririk sinatu Gerra Zibilean errepresaliak jasan zituzten errepublikarren senitartekoei hilobiak aurkitzen eta gorpuak lurpetik ateratzen laguntzeko. Alabaina, hori ez zen oztopo izan, bai frankismo garaian (isilpean) bai eta geroago, garai demokratikoan, ahalegin horretan ibilitakoek indarberriturik heltzeko berriz ere lehenago hasitako lanari, oraingoan askoz ere oihartzun handiagoarekin komunikabideetan eta gizartean.

Lehenengo ekintza publikoa 2000. urteko urrian Priaranza del Bierzon, Leongo probintzian, egindako indusketa izan zen (Silva-Macías, 2003). Horrek izandako oihartzunak Memoria Historikoa Berreskuratzeko Elkartearen sorrera (www.memoriahistorica.org) eragin zuen. Bi urte geroago, Bortxazko Desagerpenei buruzko Nazio Batuen lan-taldeak Espainiako gobernuari gomendatu zion gerra-garaian erregimen frankistaren esku geratutako bi pertsonaren desagerpena ikertzeko. Memoria Historikoa Berreskuratzeko Elkartearen bidez egin zen eskaera eta 64 kasu aurkeztu ziren, baina 1945etik aurrera gertatutakoak soilik onartu ziren, hori baitzen NBE sortu zen urtea. Espainiak 1991n sinatutako akordioan oinarritzen zen erabakia; horren aurretik, Argentinan eta Txilen euskarri bera erabili zen desagertuen kasuak az-

tertzeko. 2002ko azaroaren 20an, horrelako ekimenak aurrera eramatea erabaki zuen Espainiako Parlamentuak, izan ere, 1936ko uztaileko kolpe militarraren kontrako lehenengo adierazpen bateratua egin zen Diputatuen Kongresuan, eta giro horretan hartu zen aipatutako erabakia. Adierazpen horrek altxamendua gaitzesten zuen, diktadura frankistaren errepresioa sufritu zutenei aitorpen morala egiten zitzaien eta hilobi komunak berriro irekitzeko laguntzak agindu ziren. Lehenago esan bezala, talde guztien adostasunaz lortutako emaitza izan zen testua, PP barne, nahiz eta ordura arte mota horretako ekimenei ezezkoa eman eta norabide horretan ekimen parlamentario gehiago ez egiteko eskatu[7]. Dena dela, errepresaliatuen berreskurapenean lan egiten zuten taldeek, lortutako adostasuna gorabehera, kritikatu egin zuten ebazpena, lausoa zelako, neurri zehatzik ez zuelako proposatzen eta Errepublikaren eta Gerra Zibilaren inguruko aldarrikapenen amaiera izan zitekeelako. Ez zen halakorik gertatu, aurrerago ikusiko dugunez, hurrengo legealdian berriro ere azaldu baitzen gaia.

Adierazpen parlamentarioa adostu baino hilabete lehenago, historialarien kongresu bat egin zen Bartzelonan, Espainian Gerra Zibilean eta Frankismoan izandako kontzentrazio-esparruen eta presondegien inguruan, eta honako neurri hauek eskatu ziren, besteak beste:

> 1°) Que sea tipificada como delito la apología de la dictadura franquista.
>
> 2°) La retirada inmediata, tanto de la vía pública como de las diferentes instituciones, de todos los nombres y símbolos de la dictadura.
>
> 5°) La constitución de memoriales Democráticos que permitan recuperar del olvido la trágica experiencia de la dictadura y sus consecuencias, así como la memoria de los miles de hombres y mujeres que lucharon por la libertad, para que de esta forma se incorporen al conocimiento común de las futura generaciones.

XXI. mendeko lehenbiziko urteetan, Gerra Zibilean eta frankismo garaian errepresaliak jasan zituztenen oroitzapena berreskuratzearekin erlazionatutako ekitaldi eta produktu ugari egin dira: elkarteak, omenaldiak, hilobien indusketak, dokumentalak, lan historikoak, literatura-lanak, kontzertuak, diskoak, etab. Horrek guztiak, ekitaldi horietako sustatzaile askok memoria historikoaz duten kontzeptuaren kritikak eragiteaz gain, "galdutako diru-laguntzaren bila" doazen erakunde gehiegi daudela salatzen duten kritikak ere azaldu ditu, askotan urteetan lanean bakarrik aritzeak eragindako ondarearen jabetza-sentimenduak bultzaturik edota zentzu esklusibistaren ondorioz. Ekintza horietariko askok duten norabide politikoari buruzko gogoetak ere azaldu dira, bultzatzaileak espektro politikoaren muturreko ezkerrean kokatzen direlako, eta gertatutakoaren ezagutzaren bidez, gerran aritutakoen oinordekoen adiskidetzea bilatzen ez duen Memoria Historikoaren kontzeptua

7 *El País* 2002-11-16.

landu dutelako[8]. Iraganari buruzko diskurtso politikoa litzateke, memoriari berari buruzko diskurtsoa baino gehiago (Juliá, 2006).

Gerrak eta errepresioak piztutako interes honen arrazoiak ezberdinak eta elkarren aurkakoak dira, baina denak datoz bat esatean unean uneko egoera politikoak eragin nabarmena duela. Espainiako gerraren memoriaren inguruko ikerketetan aitzindaria izan da Paloma Aguilar; horren arabera, azken urteotan iragan frankistaren erabilera politikoa ez egiteko akordioa haustea gehiago izan da PPren aurkako oposizio-indarren erabaki estrategikoa, behar soziala baino (2003). Alabaina, ahaztu egiten du indar politikoek, PSOEk bereziki, ez zituztela beren gain hartu nahi izan Gerra Zibilarekin erlazionatutako proposamenak (Molinero, 2003, 28). Francisco Espinosaren ustez, aldiz, haustura bikoitzaren ondorioz berpiztu da gaia. Lehenik eta behin, trantsizioa gauzatu zen moduari buruko adostasuna hautsi zen, borreroak eta biktimak maila berean jar zitezkeela ukatuz eta justizia-ekintza bat gauzatu gabe eta iragana aztertu gabe igaro zitekeela diktaduratik demokraziara baztertuz. Errepresio frankistaren inguruan gero eta liburu gehiago argitaratzen ari zirenez, PPko kide askoren erantzunak adierazten zuen erregimenaren seme-alaba askok ez zutela beren iragana baztertu nahi izan eta, ondorioz, gerra galdu zutenek ere ezin zutela ahaztu. Errepublikazaleek bultzatutako liburuen gorakadari eskuinak emandako erantzuna izan ziren 1996-97 inguruan Pío Moak argitaratutako lanak, eta bigarren haustura eragin zuten (Reig, 2003). 80ko hamarkadan PSOE atzera ez begiratzen saiatu bazen ere, laurogeita hamarreko hamarkadaren amaieran memoria historikoaren eztabaida inoiz baino biziago zegoen. Gainera, eskuinak ez zuen onartu nahi hobi komunetan lurperatutako gorpuek lurperatze duin bat izateko eskubidea zutela, garaileek zuten bezala, eta sentimendu horrek bultzaturik, ezinegona adierazten zuten hilobiekin erlazionatutako edozein berriren aurrean. Gaiari buruz egin ziren iruzkinen artean bat jasoko dugu, Nafarroako Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuko kontseilariak egindakoa: horren ustez, 1981az geroztik jaiotako gazteei ezin zitzaien trantsizioaz, frankismoaz, 36ko gerraz edo fusilatuei buruz hitz egin. Bestalde, trantsizioko hipotekak ezabatzeak, atzera egiteari beldurra kentzeak eta demokrazia errealak ez asetzeak indartu egin zuten desagertutakoak berreskuratzeko mugimenduaren oihartzuna.

Desagertuenganako interesak beste arrazoi bat ere bazuen, baina Espainiako mugetatik haratago kokatzen zen. Zuzenbide Erromatarraren printzipio zahar bati buruzko eztabaidarekin erlazionatuta zegoen; printzipio horren arabera,

8 Mota honetako adierazpen bat eztabaida zerrenda honetan http://arxiu-llistes.rinet.org/mllistes/gce/current/, "¿Memoria historikoa?", 2005-5-12.

Memoriaren Foruaren orientazio politikoari buruz eta PCErenganako hurbiltasuna http://www.nodo50.org/foroporlamemoria/documentos/2005/granada_30062005.htm

legeek atzeraeraginezko izaera zuten, eta unean uneko irizpideei jarraituz iraganeko ekintzak epaitzea galarazten zuen. 1945ean agintari nazien aurka egindako Nuremberg-eko epaiketan azaldu zen lehen aldiz eztabaida, baina erritmo eta indar ezberdinekin hazten jarraitu du. Argentinan eta Txilen izan du eragin nabariena, diktadura militarrak babesten zituzten amaiera-puntua eta amnistia legeak deuseztatu zirenean, baina ez dira kasu bakarrak, kontuan hartzen baditugu Hegoafrikako Errepublikan edo Europa ekialdeko lurralde komunista ohietan piztutako eztabaidak edo Erdialdeko Amerikako eta Hegoamerikako lurraldeetan eratutako Egiaren Batzordeak (Godoy, 2002). Juan Carlos Monedero politologoaren iritziz (Silva, 2004, 141), duintasunaren eta kalitatearen ideia bere gain hartzen dituen demokraziaren ideiaren barnean sartzen dira aipaturiko eskaerak. Horrela, sistema demokratiko bat benetan finkatuta egongo litzateke irizpide formalez gain (hauteskunde askeak eta eskubideak), herritarrek agintari politikoei erreklamatu ahal izatea eta erabakietan aktiboki parte hartzea ahalbidetuko liekeen kultura zibikoa balego. Joera horren arabera, Estatuen betebeharra da biktimei jakiteko eskubidea bermatzea eta, era berean, justizia bereganatzekoa eta kalte-ordainak jasotzekoa (Nizkor, 2004).

Espainiako kasuan, egoera paradoxikoa izan zen; izan ere, Espainiako Justiziak Txileko eta Argentinako pertsonen estradizioa eskatu zuen, lurralde horietan diktadura militarrek iraun zuten bitartean hiritar espainolen aurka egindako erasoak zirela eta –Pinochetena izan zen adibiderik argiena–, baina Espainiako mugen barnean eragozpenak baino ez ziren jarri printzipio bera aplikatzeko. Amnesty International-ek 2002an salatu zuen moduan, 1977ko urriaren 17ko legea, amnistiari buruzkoa, benetako amaiera-punturako lege bihurtu zen. Honakoa jasotzen zuen: «Art. 2° e) Los delitos y faltas que pudieran haber cometido las autoridades, funcionarios y agentes del orden público, con motivo u ocasión de la investigación y persecución de los actos incluidos en esta Ley f) Los delitos cometidos por los funcionarios y agentes del orden público contra el ejercicio de los derechos de las personas» Alabaina, nazioarteko legediaren arabera, gizateriaren aurkako krimenek ez dute preskribitzen. Luis Fondebrider argentinarra auzitegiko medikua da, gizateriaren aurkako krimenetan desagertutakoen ikerketan aditua eta aipatutako Egiaren Batzordeek parte hartutako lurralde iberoamerikarretan eta beste kontinenteetan aritutakoa; aditu horren iritziz, harrigarria da zein interes gutxi izan duen Espainiak bere iraganari buruz ikertzeko. Ikerketen helburuak, gainera, bikoitza behar zuen izan, egia bilatzea eta justizia egitea. Aranzadi Zientzia Elkartean eskainitako hitzaldi batean nabarmendu zuen, denbora gehiegi igaro zenez, berreskurapenerako lanek eraginkortasun gutxi zutela, lekukoak edo haien memoria galdu egin baitziren. Gainera, Fondebriderrek azpimarratu zuen estatuak ez daudela

lankidetzan aritzeko prest ikerketa-mota hauetan, beren kolore ideologikoa edozein izanik ere[9].

Arestian ere aipatu dugu Leongo indusketak izan zirela Memoria Historikoaren Berreskurapenerako hazia. *Memoria* terminoaren erabilera da, *Historia* terminoarekin kontrajarrita, hain zuzen ere, mugimendu hau definitzen duen ezaugarrietako bat[10]. Gainera, ez da Gerra Zibilaren auziei dagokien elementu bat, baizik eta duela hamarkada batetik hona, mundu garatuan sartu den elementua, Hegoafrikatik eta Latinoamerikatik hasita lurralde sozialista ohietara heldu izan da, eta komunikabideek eta produkzio historiografikoak darabilten hizkeran txertatu da. Termino hori *Historia* terminoaren ordez erabiltzeko zaletasunak kausa ezberdinak ditu: horien artean bat, Historia arinki jorratzea da, garrantzigabetu egin da historia, oro har; izan ere, eman zaion erabilera publiko bakarra gertakari eta pertsonaia ospetsuen oroitzapena berpizteko izan da, haiei elementu negatiboak kendu ostean. Beste arrazoi batzuk globalizazioaren fenomenoarekin lotuta daude, tokiko identitatea urratu eta desagertzean susperturiko sentikortasunarekin, edo *metakontaketen* galerarekin eta letra larriz idatzitako Historiaren amaierarekin (Erice, 2005). Gero eta lan historiko gehiago idazten dira hiritarren kontzientzia pizteko asmoz, eta baztertu egiten da azalpenak bilatu eta iragana zalantzan jartzen duen historiaren kontzeptua. Sarritan, memoria berreskuratzeko prozesuetan lantzen diren gertakari asko oso larriak dira, eta protagonista batzuentzat ezin adierazizkoak, definizioz; gainera, kasu askotan, horiei buruz dagoen dokumentazio--faltak eraginik, sorkuntzaren mundutik hurbildu dira gai horietara, literaturatik, zinemagintzatik eta margolaritzatik besteak beste, Historiaren esparrutik bertatik baino gehiago. Horrela, ezagutza zientifikoa ez den beste ezagutza bat eskaintzen du sorkuntzak, baina ezagutza azken finean, eta hobe defini daiteke memoria moduan Historia moduan baino.

John Gillis-en arabera, *memoria* terminoaren erabilera areagotzen den heinean –batzuetan gehiegi erabiltzeraino–, esanahia galdu egiten da (Carreras, 2006). *Memoria historikoa* terminoa nahasgarria da eta beharrezkoa da historialariak berriro ere erabilera berbideratzea, inpartzialtasuna lortzeko prozeduretan. Izan ere, Maurice Halbwachs-ek XX. mende hasieran sortutako memoria historikoaren kontzeptuak ez zuen bere berezko izaera nabarmentzen, eraikitako izaera baizik (2004). Halbwachsek bakartzat eta zientifikotzat jotzen zuen Historia, letra larriz idatzia; memoria, ordea, taldean eratutako zerbait da, gehiago edo gutxiago, baina beti subjektiboa, orai-

9 *Berria*, 2004-5-23.

10 *Memoria* terminoak gogoeta historiografiko asko eragin ditu. Horietariko asko historiako aldizkari ezberdinek auzi honi eskainitako monografikoetan jaso dira (*Ayer* 1998, *Pasajes de Pensamiento Contemporáneo* 2003, *Hispania Nova* 2006 eta 2007).

nalditik eta orainaldiko materialak erabiliz iraganari buruz eraikia. Memoria kolektibotik elikatzen da memoria indibiduala, nahiz eta pertsona bakoitzak bere erara barneratzen duen, eraldatuz, horrela zubi bat eraikiz iraganaren eta etorkizunaren artean. Pertsona edo talde batek gertatutakoari buruz gogoratzen duena da memoria, ekintza indibidualen eta gertatutakoaren bizipen subjektiboen bidez eratzen da, garai horretako mezuen artean aukera eginez. Memoria historikoak, gaur egun ulertzen den moduan, iraganari buruzko diskurtsoa eraiki nahi du, baina diskurtso horren oinarria ez da soilik ezagutza eta egia bilatzea; era berean, pertsona batzuk omendu nahi ditu, horien jokaera eredugarritzat aurkeztuz, eta injustizia konpontzen saiatzen da, moralki behintzat. Horrela, subjektuarekiko eta gogoratutako gertakariekiko harreman afektiboa sendotzen saiatzen da memoria historikoa. Horrek, askotan, gogoratzen den pertsonaren, taldearen edo gertaeren prozesuko pasarte batzuk isilaraztea eskatzen du, pasarte guztiek ez baitute izaten behar besteko koherentzia. Izan ere, bizitzak berak, indibidualak zein kolektiboak, kontraesanak, hutsuneak, akatsak eta abar ditu, eta inori ez zaio gustatzen horiek gehiegi zabaltzea.

Historiak, aldiz, nahiz eta manipula daitekeen, iragana berreraiki nahi du, era zorrotzean eta gertakariei helduz, horiek gehiegi gustatu ez arren, eta egia zientifikoa zehazten saiatzen den diziplina baten mendean. Beste hau ere badio Halbwachsek: idazkietan eta gertakarietan oinarritzen dela historia, eta gertakariek ez dutela zertan memoria kolektiboarekin lotuta egon. Antoine Prost historialari frantsesak bereizi egiten zituen historia eta memoria; honela definitu zuen historia: «construcción de un relato que da coherencia a los hechos en su encadenamiento»; eta honela memoria: «acumulación de referencias yuxtapuestas» edo «amontonamiento interminable e imposible de todo el pasado entero». Historiak, gainera, urruntzea eskatzen du eta ulertzeko eta azaltzeko borondatea izatea, baina baldintza horiek ez dira beti bateragarriak bizirik dagoen memoriarekin. Halaber, Prostek nabarmentzen du memoriaren eginbeharra eta identitatearen baieztapena bat etortzen direla normalean; Historiarekin, aldiz, ez da horrelakorik gertatzen, ahal den neurrian iragana ulertzea bilatzen baitu, betiere bere konpromisoaren erlatibitateaz ohartuta (2003, 99-100).

Memoria Historiaren sinonimo bezala erabiltzea onargarria da, baldin eta diskurtso kritikoa egiten badu eta subjektibotasuna nabarmentzen badu. Ez da onargarria, ordea, arrazoiaren ardatz bakartzat hartzen bada edota iragana esentzializatzen badu. Berreskuratu beharreko egia historikoaren gordailu gisa hartzea memoria, zientifiko sozialek auziari buruz pentsatzen dutenaren kontrakoa da, memoria kolektiboa ez baita berreskuratzen, berreraiki baizik. Enrique Gavilán-en hitzetan, historialariok baztertu egiten dugu, edo, behintzat, zalantzan jartzen dugu, memoria historikoa zerbait objektibotzat hartzea, ia fisikoa, iraganari buruzko informazio fidagarria eskaintzen duena eta gogoeta handirik gabe komunika daitekeena (Silva, 2004,

57-65). Historiaren arazo berdinak ditu memoriak iragana berreskuratu nahi duenean, eta oraindik handiagoak iragana transmititu nahi duenean.

Bestalde, ez dira falta izan memoria erlatibizatu duten filosofoak eta historialariak. Manuel Cruz-ek (2005, 124), esaterako, uste du iraganaren oroitzapen obsesiboak orainaren analisia ahuldu dezakeela eta etorkizunarekin dugun erlazioa arriskuan jarri. Memoria gure nortasun indibidual eta kolektiboaren iturrietako bat da, eta talde-sentimendua eratzen eta mantentzen laguntzeko balio du, baina gure autonomia ukatzeko modu bat ere izan daiteke. Iraganeko gertakariei, bereziki negatiboei, gehiegizko pisua emateak zaildu egiten du etorkizuna eraikitzea. Horregatik, memoriak autonomia nahikoa izan behar du irakurketa bakarra onartzen duen iragan horretatik ihes egiteko, ez bihurtzeko gatazkaren eszenatoki, politika tartean izanik. Bestalde, gerta daiteke balio absolutua ematea memoriari, ez dugulako atsegin orainaldiko errealitatea eta ez gaituelako asebetetzen, eta nahiago dugulako iraganaren balio nostalgikoa. Gainera, autokritika ezaren eta murriztapen moralistaren ondorio izan daiteke ikuspegi hori, paradoxikoki esperientzia guztiak berdinduz eta biktimak eta borreroak erruduntzea errazten duena, bi taldeak, aldi berean, gertatutakoaren egile eta subjektu bihurtuz.

Memoria berreskuratzeko mugimenduek frankismoko biktimen aldarrikapenean zentratu dituzte beren helburuak. Baina, Gerra Zibilaren, gerraostearen eta trantsizioaren historiak, eta gaur egungo historiak berak ere erakusten digute egokiagoa izango litzatekeela memoriez (pluralean) hitz egitea, gertatutakoaren oroitzapena ez baita berdina guztientzat eta talde bakoitzak du iraganaren bere memoria, eta, are gehiago, gerra zibil bati buruz ari garenean. Memoriak, pertsonak bezala, Santos Juliáren arabera, ezberdinak dira eta, askotan, euren artean gatazka pizten da. Memoria historikoaren kontzeptua singularrean erabiltzeak errepresio errepublikarraren biktimak isilaraztea dakar, hala eskuindarrak nola garai bakoitzean gehiengoaren ortodoxiatik aldendutakoak. Memoria historikoaren kontzeptuaren inguruan mesfidantzak izateak ez du esan nahi ez denik ikertu behar gertaturikoa edo ez direnik berreskuratu behar desagerturikoen gorpuak, auzi hau landu duten egile askok azpimarratu duten moduan. Espainiako armadaren zati bat matxinatzean piztu zen gerraren ondorioak 70 urtez sufritu dituzten biktimei lagundu egin behar zaie, moralki eta, ahal den heinean, materialki. Baina, betiere, arrazoi ugari eta benetan gertatutako egoera ezberdinak hartu behar dira aintzat abiatzerakoan.

Edozein kasutan ere, *memoria historikoa* terminoa komunikabideen eta herritarren hizkeran finkatu da, eta Rodríguez Zapateroren gobernu sozialista biktimen egoera aztertzeko legea eratzen hasi zenean, batzorde bat sortu zen 2004ko uztailaren 23an. Hitzez hitz ekarriko dugu hona zein zen batzordearen helburua: «reparar la dignidad y restituir la memoria [azpimarra geurea da] de las víctimas y de los re-

presaliados desde el inicio de la Guerra Civil y hasta la recuperación de las libertades [frankismo hitza nekez azaltzen da agiri ofizialetan], sufrieron cárcel, represión o muerte por defender esas mismas libertades». Agindu zitzaizkion lanetan murgildu zen batzordea: ordura arteko gobernuek biktimen alde hartutako neurrien ikerketa egitea; agiritegi publikoetan eta pribatuetan zeuden datuei buruzko txosten bat osatzea eta lege-aurreproiektu bat idaztea[11]. Bien bitartean, parlamentuak memoriaren auzia berriro hartzea lortu zuen gizarteak egindako presioak, eta 2006. urtea Memoria Historikoaren Urtea izendatzea proposatu zen. Izendapen horren ordez Adiskidetasunaren Urtea jartzen saiatu zen PP, baina, azkenean, urte hartako uztailean (norbaitek esan zuen memoria historikoaren urte erdia zela) 2006. urtea Memoria Historikoaren Urtea izendatzen zuen proposizioa onartu zen. Azalpen hau eman zitzaion izendapenari: «el año 2006 como Año de la Memoria Histórica en orden a reconocer y homenajear a todos los que que de una forma u otra se esforzaron para conseguir un régimen democrático, dedicando su vida o sufriendo persecución por este motivo, y a comprometer a los poderes públicos en la promoción de actos conmemorativos de esta efeméride».

Hilabete horretan bertan, 2006ko uztailean, azterketa-batzordeak proposatutako lege-aurreproiektua onartu zuen gobernuak, bi urtez ikertzen ibili ondoren eta 40 elkarterekin elkarrizketatu eta 700 dokumentu aztertu ondoren. Memoria Historikoaren Legea izendatu zuten ekimena, eta horrela erabili zuten kontzeptua hura kritikatu zuten komunikabideek ere; baina polemikak urtebete lehenagotik zetozen, ebazpenak atzeratu egin baitziren, eta etorkizuneko legearen helburua denak pozik uztea zela zabaldu baitzen. Honela laburtu zuten helburua egunkari batean: «[que] contente a los dos bandos y no sirva para abrir heridas, sino para cicatrizarlas»[12]. Bi gertaerak eragin zuten jarrera-aldaketa: batetik, proiektu originalarekiko PPren erabateko desadostasunak eta, bestetik, Sustapen Ministerioaren egoitzaren ondoan kokaturik zegoen Francoren estatua kentzeak piztutako polemika sozialak. Testu juridikoaren tituluan geratu zen adierazita orientazio berria: "Ley por la que se reconocen y amplían derechos y se establecen medidas en favor de quienes padecieron persecución o violencia durante la guerra civil y la dictadura". Proiektuaren aurka egin zuten biktima errepublikarren duintasunaren alde borrokatu ziren elkarteak, zehaztugabea zelako, bi alderdietako hildakoak berdindu egiten zituelako «directamente padecieron las injusticias y agravios producidos por unos y otros motivos políticos o ideológicos» adieraztean, ezarritako kondenak eta zigorrak ez ezabatzeagatik, nahiz eta bidegabekoak izan zirela aitortu, edo hobiak aurkitzeko eta gorpuak berreskura-

11 http://www.mpr.es/Documentos/memoria.htm

12 *El País*, 2006-9-12.

tzeko lana esparru pribatura eramateagatik. Gainera, testuaren aurkezpenean onartzen zen ez zela bere zeregina memoria historikoa eraikitzea:

> Fijarse el objetivo de implantar una determinada "memoria histórica", de que no le corresponde al legislador construir o reconstruir una supuesta "memoria colectiva". Pero sí es deber del legislador y cometido de la ley, consagrar y proteger, con el máximo vigor normativo, el derecho a la memoria personal y familiar como expresión de plena ciudadanía democrática.

Eztabaida horiek gertatu bitartean, euskal kasuan, Aranzadi Zientzia Elkarte gipuzkoarrean izan zuen epizentroa gorpuak berreskuratzeko mugimenduak. Aranzadiko hiru ikertzailek (arkeologoak eta antropologoak) Priaranza del Bierzoko indusketetan parte hartu ondoren, Euskal Herrian hasi ziren hilobi komunak aurkitzeko indusketak egiten. Lurperaketen lekukoek eskainitako informazioa ez da oso zehatza izaten kasu gehienetan, eta ez da lurperatutakoen identitatea ezagutzen; horrek guztiak zaildu egiten du lana eta neketsu bihurtzen du. Oihartzun handia izan zuten 2002ko irailean eta urrian Zaldibian eta Arrasaten egindako indusketek, aukera eman baitzuten hobi bakoitzean bi gorpu topatzeko. Jarduera horien oihartzunak zenbait elkarteren sorrera eragin zuen, Nafarroako Fusilatuen eta Desagertuen Ahaideen Elkartea besteak beste. Talde horrek salatu zuen trantsizioko adiskidetze-politikak elite politikoei bakarrik eragin ziela eta, hilobi komunetan lurperatutako gorpuak berreskuratu behar zirela zauriak itxiko baziren.

Eusko Jaurlaritzak, bere aldetik, 2002ko abenduaren 10ean, "Gerra Zibilean desagertutako pertsonen hilobiak ikertzeko eta kokatzeko sailen arteko batzordea" eratu zuen, Justizia Saileko Giza Eskubideen zuzendaria buru izanik. Aipaturiko batzordea sortzeko dekretuak zioen bezala, honakoa zen helburua:

> ofrecer un reconocimiento público de respeto a las personas ejecutadas en la Guerra Civil española española y a sus familiares, que repare, al menos moralmente, el dolor y la injusticia que durante más de medio siglo han sufrido en silencio.
>
> Reabrir formalmente este reconocimiento es una deuda que toda la sociedad tenemos con los familiares y herederos de aquellas personas que perdieron la vida, lo perdieron todo y quedaron, además, en el ostracismo de los perdedores. No se trata de reabrir heridas, no queremos buscar culpables, ni víctimas, nada más lejos de la intención de este Gobierno. (...) Se trata de ofrecer un trato de igualdad y una justicia histórica a los que, en silencio, han sufrido larga e intensamente una cruel e irremediable ausencia.

Zuzendariak onartu zuen pentsaezina izango zela horrelako zerbait onartzea trantsizioan, tentsio handia eragingo zuela eta. Eusko Jaurlaritzak informaziorako telefono-zenbaki bat eman zien ahaideei, eta jasotako eskari ugarien aurrean, Aranzadi Zientzia Elkartearekin hasi zen elkarlanean. 2003ko uztailaren 8an hitzarmen bat sinatu zen Elkartearekin: Aranzadiren esku geratu zen desagertutakoak identifikatzeko beharrezko ikerketak egitea (historikoak eta dokumentalak) eta lurperake-

tak egin zireneko lekuak topatzea, gero metodo arkeologikoen bidez indusketak egiteko.

Historiaren eta erakundeen alorrean bideraturiko jarduerek Bidasoa Institututik proposatutako alor osagarri bat izan zuten: azken gudari errepublikarrak omentzea domina banakin eta oroitzapenerako monumentu batzuk eraikiz[13]. Horrekin batera, areagotu egin ziren eraikin ofizialetan ikur frankistak mantentzearen aurkako salaketak, eta bereziki Iruñako Monumento a los Caídos izenekoaren kontra (1952an inauguratua eta 1998tik udalaren ondasuna). Nafarroako Foru Komunitateko hiriburuko udalak ez zuen onartu ikur frankistak kentzeko eskatzen zuen proposamena. Aldi berean, omenaldiak antolatu ziren, hala gerran hildakoei, nola langileen batailoietan parte hartu zutenei. Kasu batzuetan, aspalditik ospatzen ziren ekitaldiek, Nafarroako Cortes herrikoak esate baterako, garrantzi handiagoa lortu zuten. Gipuzkoako kasuan, 2004an egin ziren ekitaldi nagusiak: Andoainen fusilatutakoei egin zitzaien omenaldia apirilean, eta Foru Aldundiak maiatzean omendu zituen probintzia matxinatuen esku erori ostean lanpostutik kendu zituzten enplegatuak. Debagoienean jarraitzen dute antolatzen errepresaliak jasan zituztenen omenez ahaideek urtero egiten duten ekitaldia, erakusketa berriekin, bideokin eta liburuen berrargitalpenekin osatu dutena.

Eragile sozial eta politiko gehienek goratu dute Aranzadiren lana, eta aldizka bere jardueren berri emanez joan da. Horrela, 2004ko maiatzean adierazi zuten 350 dei jaso zituztela Espainia osotik, Gerra Zibilean desagertutako pertsonei buruzko informazioa ematen edota eskatzen. Hilabete batzuk geroago, EAEn desagertuak lurperaturiko 44 gune zeudela jakinarazi zuten: 21 Gipuzkoan, 12 Bizkaian eta 11 Araban. 2005eko martxoan, Ibarretxe Lehendakariak publikoki eskerrak eman zizkion Aranzadi Elkarteari egindako kudeaketarengatik, eta adierazi zuen indusketen edota ikerketa-lanen helburua ez zela zauriak irekitzea, giza zor bat ixtea baizik, esker demokratiko, politiko eta sozialekoa. Hainbat aldiz saritu dute Aranzadi Elkartea egindako kudeaketarengatik, eta behin baino gehiagotan azpimarrratu dute elkartekoek ekimenaren berri izatean hildakoen familiek jarritako interesa eta pertsona kalteturikoei buruzko txostenak ematean senideek adierazitako esker ona. Juantxo Agirre Aranzadiko idazkari nagusiaren esanetan, era horretako ekintzak egiteko ordua zela uste zuten ahaideek, eta benetako katarsia edo askapena sentitzen dute hainbeste denbora igaro ondoren, beren istorioaren berri eman dezaketenean; izan ere, horietariko asko 40 urtez bizi izan dira beldurrez beren etxean bertan, gertatutakoari buruz hitz egiteko gogorik eta indarrik gabe, familiak izandako bizipen latza zela eta, beren istorioa ezkutatu nahian. Kasu askotan, horietariko pertsona batzuk orain arte

13 *Deia*, 2002-11-15.

inoiz ez dira ausartu beren ahaideei jazotakoaren berri ematen. Aranzadikoek diote oso sinplea dela ahaideek eskatzen dutena: haiek esaten zutena egia dela ziurtatzea Aranzadi Elkarteak. Bestalde, hildakoen familientzat oso garrantzitsua da jakitea non lurperatu zituzten exekutaturiko ahaideak.

Jarduera horiekin guztiekin batera, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaien Sailak, Javier Madrazo Ezker Batukoa buru zela, gobernu zentralak 1990ean eta 1992an frankismoko biktimei kalte-ordainak emateko deialdietan bazterturik geratu ziren biktimei laguntzak emateko prozesuari eman zion hasiera. Deialdi honetan ere ekonomikoak ziren laguntzak, baina ez zen kontuan hatu zigorrak inposatu zituzten agintariak legezkoak ziren ala ez. 2002an argitaratutako dekretu batek bide berria ireki zuen, baina berehala bete zen zailtasunez eta eragozpenez. Asmo oneko helburua zuen eta aitzindaria zen Euskal Herrian. Ildo horretan, *Berria* egunkariari eskainitako elkarrizketa batean, José María Ochoa de Chinchetruk (*Euzko Gudarostea* gudari ohien elkarteko presidentea eta EAJko BBBko kidea izandakoa) onetsi egin zuen Madrazok frankismoko biktimei diru-laguntzak emateko egindako lana, eta adierazi zuen EAJk ez zuela ezer egin alde horretatik. Hortaz, ez dirudi Euskal Herriak pairaturiko errepresioaren mitoa «el mito de la superior magnitud de la represión en el País Vasco, cuidadosamente alimentado por el discurso nacionalista» (Aguilar, 1998, 135), egon bazen, oso eraginkorra izan zenik, biktimei kalte-ordainak emateko garaian, behintzat. Madrazoren dekretuaren gorabeherek, gainera, lausotu egin zituzten lortu nahi ziren helburuak (Urquijo, 2006). Izan ere, nahiz eta historialariek aurretik egindako txostenetan laguntzak eskuratzeko beharrezkoa zen ziurtapena lortzeko zeuden zailtasunak azpimarratu (Barruso, 2004), lege-xedapenaren arabera, gutxienez sei hilabetez kartzela edo kontzentrazio-esparru batean askatasunik gabe egon zirela frogatu behar zuten diru-laguntzak jaso nahi zituztenek. Bestalde, prestatutako aurrekontua ez zen nahikoa izan azkenean aurkeztu ziren 8.680 eskaerei erantzuteko, eta, azkenik, balorazio-batzordeak zorrotz jokatu zuen eta ez ziren onartu 2003an aurkeztutako eskari gehienak (% 70).

Deialdia gauzatu zen moduak sortutako hasarreak eta egonezinak elkarte berriak sorrarazi zituen. Geureak 1936 izan zen lehena, eta diru-laguntzen eskaria aurkeztu nahi zutenei beharrezkoa zen dokumentazioa lortzen laguntzea zen helburua. Madrazoren aurka egindako kanpaina gogorrak zatiketa eragin zuen. Aldi berean, talde berriak azaldu ziren, eta kalte-ordainen auziarekin batera, Eusko Jaurlaritzak memoriaren inguruan gauzatutako politikaren alderdi batzuk zalantzan jarri zituzten. Talde horien jarduerek ardatz bikoitza izan dute: frankismoko biktimen aldarrikapenen defentsa eta memoria historikoaren sustapena. Azkenean, 2007ko otsailean, talde horietatik hamaikak Lau Haizetara koordinakundea eratu zuten, beren gogoeten eta proposamenen eraginkortasuna eta indarra areagotzeko helburuarekin.

Koordinakundearen arduren artean zegoen gobernu sozialistak aurkeztutako lege-proiektuari aurre egitea, beste elkarte batzuek uste zuten moduan, amaiera-puntu gisa ikusten baitzuten legea[14]. Beste gauza batzuen artean, talde hauek zalantzan jarri dute Gizarte Gaien Departamentua izatea gai hauen arduraduna eta ez Justizia Saila, aipaturiko dekretuaz gain ez duelako ekintza gehiagorik sustatu; errepresioaren biktimen memoria ikertzeko eta jasotzeko plan integral bat ez izatea ere kritikatzen dute; garaiko epaiketak ezabatzea eskatzen dute; bahitutako ondasunak itzultzea aldarrikatzen dute; memoria historikoaren artxibo bat eratzea planteatzen dute eta beharrezko ikusten dute gertatutakoa hezkuntza-esparruan eta kulturalean gogoratzea.

14 Ahaztuak 1936-1977, Andikona (Otxandiokoa), Debagoieneko Fusilatuen Senideen Batzordea (Arrasate), EAE/ANV, Geureak 1936, Izquierda Republicana, Katin Txiki (Oiartzun), Asociación de Víctimas del 3 de Marzo (Gasteiz), Memoriaren Bideak (Nafarroa), Oroituz (Andoain) eta Uliako Taldea (Donostia). *Berria*, 2007-2-13.

## II

# GIPUZKOA BIGARREN ERREPUBLIKAN (1931-1936)

### ERREPUBLIKA

Espainiako Bigarren Errepublika 1931ko apirilaren 14an aldarrikatu zuten, alderdi errepublikarrek apirilaren 12ko udal hauteskundeetan hiri nagusietan irabazi eta gero. Data esanguratsua da geroztik apirilaren 14a; izan ere, Errepublikak aldaketa ugari ekarri zituen, ez bakarrik Espainiar Estatura, baita Euskal Herrira ere. Gorabehera askoko sasoiak izan ziren, kaos eta nahasmen urteak batzuentzat eta itxaropenez betetako garaiak besteentzat. Hala ere, hori guztia ez zen ezerezetik sortu, XIX. mende amaieratik abiatu zen prozesu sozial baten ondorio besterik ez zen izan. XX. mendearen lehen herena guztiz gorabeheratsua izan zen mundu osoan: mende zaharra utzi orduko, bazirudien denborak azkarrago egin zuela aurrera, eta horrekin batera gertakizunek. Aurreko mendean ernetzen hasitako masa sozialek eztanda egin zuten XX. mendean, eta, horrekin batera, klase borrokak, gerrak eta baita New York-eko burtsak ere. Aldi berean, ideia berritzaileak indartu egin ziren: sozialismoa, abertzaletasuna, faxismoa... Europa laborategi bilakatu zen eta laborategi horretako produktu guztietatik probatu zuen Gipuzkoa txikiak.

Mende berriaren atarian, Gipuzkoako auzi nagusiena 1876an galdutako foruen ingurukoa zen oraindik. Hala ere, ideietan berriturik sartu zen Euskal Herria XX. mendera: alde batetik, Sabino Aranaren abertzaletasuna; bestetik, industrializazioaren eraginez sortutako sozialismoa. Baina karlismoak eta ideia liberalek (kontserbadore nahiz progresistak) nagusi izaten jarraitu zuten XX. mende-hasierako Gipuzkoan. Foruez gain, kezka gehiago zuten herritarrek, batez ere gazteenek. 1898ko Kubako gerran bezalaxe, Marokon hamaika sufrimendu pasa zituzten armak hartzera deituriko kintek, eta horietako askok, soldadutzatik alde egitearren, Ameriketara emigratu zuten. Hain zuzen, Afrikako gerrak diktadura ekarri zuen. 1921ean Marokoko Annual izeneko lekuan sekulako porrota jasan zuen gudaroste espainiarrak (9.000 soldaduk galdu zuten bizia bertan); gertaera horren ondorioz, Alfonso XIII.a Erregearen oniritziarekin eta iritzi publikoaren pasibotasunarekin, Espainiako agintea hartu zuen Primo de Rivera jeneralak 1923an.

Rif inguruko marokoarren kontra egin zuen hurrengo urteetan jeneral kolpistak, Frantziaren laguntzarekin, eta gerrillarien buruzagia errendiarazi zuen. Kanpai-

na haietan ondu ziren 1936ko altxamenduan parte hartu zuten militarrak, horien artean Mola jenerala, errekete nafarrak Gipuzkoara bidali zituena. Alderdi politikoen jarduna debekatu zuen Diktadurak eta Unión Patriótica deituriko alderdi bakarreko sistema sortu. Lehenengo urte oparo batzuen ondoren, Primo de Riveraren diktadurak prestigioa galdu zuen, arazo ekonomiko eta militarrak tarteko, eta 1929an dimititu egin zuen jeneralak. Dámaso Berenguer-rek hartu zuen orduan agintea, hauteskundeak deitzeko konpromisoarekin. Baina ordurako, monarkiak indarrak xahututa zituen, erregezaleak zatiturik baitzeuden, eta errepublikarrak ugaritzen eta antolatzen hasita zeuden eskualde guztietan. 1930ean, hainbat alderdi errepublikarrek Donostiako Ituna sinatu zuten, Espainiako monarkia kanporatu eta Errepublika ezartzeko asmoarekin. Horretarako, bertan bildutakoek, Alcalá-Zamora eta Maura buru zutela, behin-behineko gobernu bat eratu zuten eta militarrekin harremanetan jarri ziren, altxamendu baterako prest egon zitezen. Hortik hilabete batzuetara, militarren altxamendu-saiakera bat gertatu zen: Jacako goarnizioa, Fermín Galán kapitainaren aginduetara, Huescara bidean jarri zen, baina gainerako tropek altxatuak geldiarazi eta Galán atxilotu zuten. Hurrengo egunean, kapitaina eta hainbat ofizial fusilatu zituzten Huescan. Fusilatze horiek eragin handia izan zuten sentimendu antimonarkikoa suspertzeko. Gauzak horrela, Berenguerrek udal hauteskundeak deitu zituen 1931ko apirilaren 12rako, monarkiaren eta errepublikaren arteko erreferendum bilakatu ziren hauteskundeak, hain zuzen.

Monarkikoek boto eta zinegotzi gehiago atera zituzten, baina, egiaz, errepublikarrek irabazi zuten, hiri nagusietan, hauteskundeak askatasun osoz egin ziren tokietan, beraiek gailendu baitziren. Gipuzkoan ere antzera pasatu zen: monarkikoek 185 zinegotzi lortu zituzten, nazionalistek 110, ezkertiarrek 100 eta tradizionalistek 70; baina ezkertiar errepublikarrek hiri eta herri nagusietan irabazi zuten (Donostian, Irunen, Eibarren, Arrasaten...). Emaitzak jakin eta berehalaxe, apirilaren 14ko goizaldean, Bigarren Errepublika aldarrikatu zuten Eibarren eta, egun berean, Alfontso XIII.a erregeak erbesterako bidea hartu zuen.

## Errepublika-urteak, aldaketa-urteak

Euskal Herriko Hegoaldeko probintzietan txikiena izanik ere, biztanle-dentsitate handiko lurraldea zen Gipuzkoa. 1930eko hamarkadaren hasieran, 1.237.000 biztanle bizi ziren Hego Euskal Herrian, horietatik 302.329 Gipuzkoan. Biztanle-kopurua gora zihoan gainera, besteak beste, heriotza-tasak izugarri egin zuelako behera mende hasieratik aurrera, nagusiki, medikuntzaren aurrerakuntzei esker. 1930eko hamarkadako Gipuzkoak zerikusi gutxi zuen aurreko mendeko probintziarekin. Bi aldaketa

handi azpimarra daitezke: hiritartzea eta masa-gizartearen sorrera. Hiriak lekua jan zion baserriari eta biztanleen zati handi bat herri-guneetan bizi zen: Donostiak 80.000 biztanle zituen urte haietan, 17.670 Irunek, 6.282 Hernanik eta Arrasatek, berriz, 7.720 biztanle.

### HEGO EUSKAL HERRIKO BIZTANLE-KOPURUAREN BILAKAERA

| | 1900 | 1930 |
|---|---|---|
| Gipuzkoa | 195.850 | 302.329 |
| Bizkaia | 311.361 | 485.205 |
| Nafarroa | 307.669 | 345.883 |
| Araba | 96.385 | 104.176 |

Iturria: Granja-Pablo, 2002, 150

Urbanizazio-prozesu horretan zerikusi handia izan zuen industrializazioak. XIX. mende-bukaeran sortu eta hurrengo hamarkadetan finkatu ziren industriak Gipuzkoan, Bizkaiko ezkerraldean baino geroago. Gipuzkoako industria txikia eta arlo askokoa izateagatik nabarmendu zen: papera, ehuna, kimika, metalurgia eta elektrizitatea ekoizten ziren, besteak beste. Hau da, arlo ezberdinetara bideratu zuten produkzioa bertako eta kanpoko enpresariek (batez ere alemaniarrak, ingelesak...). Lantegiak txikiak ziren (1.000 langile baino gehiagoko bi lantegi zeuden bakarrik, Beasaingo CAF eta Arrasateko Unión Cerrajera), eta probintzia osoan barreiaturik zeuden gainera, ez baitzen industria-eskualde jakin bat nagusitu Bizkaian bezala. 1930. urtean Gipuzkoako gizonezkoen %43 industrian zebilen lanean, %27 zerbitzuetan eta %30 arrantzan edo nekazaritzan (Valdaliso, 2002, 172). Baserritik bizi ziren oraindino Gipuzkoako toki askotan, nahiz eta gazte askok baserriko lanak lantegiko lanarekin tartekatu. Hala ere, landa-eremuak bazuen XIX. mendetik jasotako herentzia bat: baserrien erdietan baino gehiagotan, baserritarrak maizter ziren eta errenta ordaindu behar izaten zioten ugazabari.

Errepublikako urteetan, modernizazioa etengabe zihoan aurrera. Autoen matrikulek, adibidez, gorakada ikusgarria izan zuten (Gipuzkoan 8.900 auto zeuden 1933an) eta ohikoa zen hiriburuko edo herri nagusietako kaleetan autoak aparkatuta ikustea (Pablo, 1995, 27). Hala ere, luxuzko produktua izaten jarraitzen zuten Cadillac, Citröen edo Fiat haiek. Masa-gizartearen sorreran, garraiobide publikoek zeregin handia izan zuten; trenbide nagusiez gain, tranbia-sare sendo bat osatu zuten Donostia inguruan (Hernanin, Tolosan, Errenterian...) eta, era berean, autobus-lineak ugaldu egin ziren;

ahal zuenak bizikleta erosteko aukera ere bazuen. Garraio-mota merke horiei esker, herritar xeheak abarketak urratzeari utzi zion. Komunikabideei dagokienez, Bigarren Errepublikan egunkari asko argitaratu ziren, baina bizitza laburrekoak izaten ziren normalean eta gehienak oso politizaturik zeuden. Honako hauek izan ziren garai hartako egunkari garrantzitsuenak: *El Día* (abertzalea), *El Pueblo Vasco* (erregionalista), *El Diario Vasco* (katoliko eta monarkikoa, 1934an agertu zen, gaur egun arte) eta *La Voz de Guipúzcoa* (errepublikarra). Formatu handiko egunkariak zeuden modan, eta gero eta argazki gehiago ikus zitekeen haien orrialdeetan. Euskarazko prentsak oso leku gutxi zuen oraindik komunikabideen munduan, baina *Argia* aldizkariak, esate baterako, hedapen handia zuen, 10.000 irakurle, euskaldunen artean (Díaz, 1995). Irratiak, aldiz, ez zuen horrenbesteko garrantzirik, baina entzun, gero eta gehiago entzuten zen.

Erlijioari dagokionez, fede katolikoa indartsu zegoen, bai behintzat Errepublikaren politika laikoari aurre egiteko moduan. Jaioberrien ia %100 bataiatzen zituzten, eta herri txikietan, herritar guztiak biltzen ziren igandeko mezatara. Hala ere, hiri eta herri industrializatuetan, praktika erlijiosoa gainbehera zihoan. Irunen, adibidez, herritarren erdia joaten zen mezatara igandean, eta ezkerreko ideiak nagusitu ziren Donostiako zenbait auzotan gazteek ez zuten ezer jakin nahi Elizarekin. Oro-korrean, erlijioaren inguruko iritzia polarizatu egin zen: fede katolikoa eta Eliza babesteko talde ugari sortu ziren; baina, aldi berean, Elizaren kontrako ideiak ere hedatzen hasi ziren pixkanaka hirietan.

XX. mendetik aurrera gero eta eskola gehiago eraiki ziren Gipuzkoan, udalen eta Diputazioaren laguntzari esker. Hori dela eta, analfabetismo-tasa asko gutxitu zen gazteen artean, eta 1930eko hamarkadan, tasa horrek ez zuen %15 gainditzen probintzia horretan. Madrilgo Gobernu errepublikarrak bultzada handia eman zion hezkuntzari, hezkuntza laikoari, hain zuzen. Horrek tentsioa eta ezinegona zabaldu zuen ikastetxe erlijiosoetan; izan ere, Euskal Herrian indar handia zuen hezkuntza-mota horrek. 1933an, Madrilgo Gobernuak debekatu egin zien kongregazio erlijiosoei klaseak ematea (tartean jesulagunei), baina, hala ere, eskolei izena aldatu eta zeregin horretan jarraitu zuten. Matrikulaturiko ikasle asko ez zen klaseetara joaten, ordea, etxean lagundu beharra zutelako, eta Lehen Hezkuntza bukatu orduko hasten ziren lanean gehienetan. Ikasleen %6 baino ez zen pasatzen Institutura, bigarren mailako ikasketak egitera. Hezkuntza publikoa gaztelaniazkoa zen, baina, urte haietan, hainbat ikastola sortu ziren, batez ere hezkuntza erlijiosoa debekatu zutenetik aurrera. Gainera, Gipuzkoako auzo-eskola askotan, euskaraz ematen zituzten klaseak. Baina euskara ez zegoen osasun onean; izan ere, aurreko mendeetako joera areagotu egin zen XX. mendean eta Euskal Herriko eremu zabaletan, jadanik ez zen euskararik entzun ere egiten. Gipuzkoan, ordea, hizkuntza nagusi zen artean, batez ere nekazari-herrietan. Herri handiagoetan, gero eta maizago jotzen zuten gaztelaniara gazteek eta Do-

nostian asko ziren euskaraz ez zekitenak. Hala ere, Errepublikak euskaltzaletasunaren loraldia ekarri zuen, Euskaltzaindiak edo José Ariztimuño *Aitzol* apaizak gidaturiko Euskaltzaleak taldeak eginiko lana da loraldi horren adierazle.

Bestalde, moda eta aisialdirako ohitura berritzaileak gogotik sartu ziren Euskal Herrian Errepublikaren garaian, baina sektore kontserbatzaileek balore tradizionalak jarri zituzten haien aurrean. Bi pentsamolde edo mundu haien arteko talka dantzaldietan ikus zitekeen, esaterako: leku batzuetan debekaturik zegoen *agarraoa* dantzatzea. Abertzaleak kanpoko ohitura zelako zeuden kontra; Eliza aldiz, moralaren kontrakoa zelako. Hala ere, neska-mutilek gero eta maizago egiten zuten dantza elkarri helduta, baita herri txikietan ere. Are gehiago, Donostian *cabaret*ak eta *dancing*ak antolatzen zituzten areto itxietan, edo bestela Ameriketako *jazz*a entzuten zuten. Ordurako Donostia hiri kosmopolita bilakaturik zegoen, azken hamarkadetako turismoak eman baitzion kosmopoli eta *glamour* kutsu hori: jatetxe eta ostatu modernoak igogailuarekin eta ur beroarekin, kanpoko sukaldaritza, Estatu Batuetako edo Frantziako jantzi-modak (txapelaren ordez kapela amerikarra eramatea, adibidez), emakume eta gizonezkoentzako ile-apaindegi sofistikatuak, zigarro--marka bereziak... Aurreko mendekoarekin konparatuta, beste hiri bat zen Donostia. Baina Donostiara ez ezik, Gipuzkoako herri nagusienetara ere iritsi ziren moda horiek, neurri txikiagoan gertatu bazen ere. Jarduera guztiz berritzailea zen kirola egitea, eta zinemarekin batera masa-gizartearen ikuskizun gogokoenetako bat bilakatu zen. Ordurako, futbola zen Euskal Herriko kirol erregea, baina horretaz gainera txirrindularitzak eta mendizaletasunak ere (mendigoizaleen ekimenari esker) jende asko mugitzen zuten. Tenisa, hipika eta automobilismoa (Donostia-Hernani--Andoain artean egiten zen sari garrantzitsu bat), besteak beste, elite-kirolak ziren. Kirolarekin batera, zinema zen jendeak gogokoen zuen beste ikuskizunetako bat: 1930eko hamarkadan, 56 zinema areto zeuden Gipuzkoa osoan, horietatik 15 Donostian. Zinema amerikarra zen nagusi eta familia dirudunetako gazteak laster hasi ziren amerikar aktoreak bezala janzten.

Oro har, aldaketa handiak izan ziren Gipuzkoan urte haietan, baina aldaketa horietako asko aurreko urteetan hasi ziren antzematen. Nekazari-lurraldeetan, baserri eta herri txikietan, aldiz, geroago iritsi ziren aldaketa horiek eta, artean, sendo jarraitzen zuten XIX. mendeko ohiturek eta gizarte-egiturak.

## Txikia, anitza eta dinamikoa

Errepublika-garaiko Gipuzkoako erradiografia politikoa eginez gero, probintzia txikia bai, baina aldi berean probintzia askotarikoa eta dinamikoa zela ikusten da.

Hiru multzo politiko nagusi ditugu urte haietako Gipuzkoan: alde batetik, eskuindar monarkikoak eta karlistak, bestetik, errepublikar ezkertiarrak, eta horien erdian, abertzaleak. Lehenengo biak etsai amorratuak ziren eta itunak egin zituzten abertzaleekin Errepublikaren une batean edo bestean (Rodríguez Ranz, 1995).

Bloke eskuindarrak uste dena baino indar handiagoa zuen Gipuzkoan. Araban edo Nafarroan ez bezala, eskuindar blokea era askotakoek osatzen zuten probintzia honetan: alde batetik, karlistak eta integristak zeuden (karlismoaren banaketa bat) eta neurri txikiagoan monarkiko dinastikoak eta katoliko independenteak. Eskuindarren indarra nekazari-eremuan zegoen, batez ere garai batean karlismoaren feudo izan ziren guneetan (Tolosaldea, Azpeitia eta Azkoitia ingurua, Ordizia...), horretaz gain, herrietako eta hirietako familia boteretsuek osatzen zuten eskuindar bloke hori, hain zuzen, egitura ekonomikoak kontrolatzen zituzten horiexek. Eskuindarrak alderdi ezberdinetan biltzen ziren: Comunión Tradicionalista (karlistak, integristak...), Unión Regionalista de Guipúzcoa (Renovación Española), CEDA... Gipuzkoan, alderdi horiek batuta agertzea lortu zuten hauteskunde gehienetan (batzuetan abertzaleekin koalizioan) eta ez zuten Araban bezalako zailtasunik edo tirabirarik izan beren artean.

Euzko Alderdi Jeltzaleak zatiketa eta batasun-prozesu sakonak jasan zituen Errepublika iritsi baino lehenago. Jeltzaleen barne-banaketa 1920ko hamarkadan hasi zen, orduan Comunión Nacionalista Vasca izena zuen alderdiak eta bere agintariek autonomismoaren alde egin zuten. Horren aurrean, alderdi bereko zenbait militante gaztek beste alderdi bat sortu zuten, *Aberri* aldizkariaren inguruan lan egiten zutenek, hain zuzen. *Aberriano*ek aurretik zetorren dinamika berrindartu zuten: beren inguruko taldeak sortu zituzten (Emakume Abertzale Batza, mendigoizale-taldeak...) eta alderdiari perspektiba herrikoiagoa eman zioten. Baina Primo de Riveraren diktadurarekin galarazita geratu ziren ekintza horiek guztiak. Diktadura erori eta Errepublikaren atarian zeudela, abertzaleak beren barne eztabaidak konpontzeko bidean jarri ziren. Comunión-ekoek eta *aberriano*ek bat egin zuten berriro 1930ean eta Euzko Alderdi Jeltzalea izena hartu zuten berriz ere, Aranaren doktrinetara gehiago hurbiltzearekin batera. Baina, aldi berean, beste zatiketa bat ere gertatu zen: abertzale talde batek "San Andres-ko manifestua" irakurri zuen azaroaren 30ean eta aldarrikapen horrekin sortu zen Eusko Abertzale Ekintza-Acción Nacionalista Vasca (EAE-ANV). Alderdi berriak ez zuen bat egiten JEL (Jaungoikoa eta Lege Zaharrak) ikurritzarekin: akonfesionala, ezkertiar-liberala eta errepublikarra zen.

Beraz, abertzaleak bat eginda eta, aldi berean, banatuta iritsi ziren Errepublikaren garaira. Baina zein zen sektore horren indarra Gipuzkoan? Noraino iritsi ziren horien ideiak? Abertzaleen feudoa Bizkaia zen; hor sortu zuen Sabino Aranak alderdi jeltzalea. Baina Gipuzkoan ere barneratu zen ideologia abertzalea eta eremu zabaletan hedatu zen Bigarren Errepublikan; izan ere, Gipuzkoan nagusi ziren baloreekin bat egiten zuen

EAJk. Herri industrializatuetan edo karlismoak oraindik indar handiegia zuen eskualdeetan izan ezik, gainerakoan abertzaleak ziren nagusi. Alderdi interklasista zela erakutsi zuen EAJk, nekazari-eremuetan eta hirian eragiteko gauza izan baitzen. Gainera, eskuineko nahiz ezkerreko alderdiekin egindako itunen bidez indar handiagoa lortu zuen Aranaren alderdiak. EAE-ANV, aldiz, ez zen herri txikietan nabarmendu, baina bai industria handia zegoen lekuetan, defendatzen zituen ideia progresisten erakusgarri.

Erradiografia politikoaren hirugarren atala errepublikarrak eta sozialistak dira. Alderdi errepublikarrak ziren, segur aski, sektore zatituena. Ez zuten Euskal Herrirako alderdi propiorik sortu eta Espainiako alderdi handien "sukurtsalak" besterik ez ziren. Ideia guztietako alderdiak aurki ditzakegu errepublikarren artean, eskuinetik hasi eta ezkerrera arte, hamaika izen: Partido Radical, Partido Radical-Socialista, Acción Republicana, Derecha Liberal Republicana... Sektore horrek ez zuen sekula indar handiegirik izan; baina Donostian eta Gipuzkoako herri nagusietan sortutako Centro Republicano edo Agrupación Republicana izeneko egoitzetan biltzen ziren eta horiek nolabaiteko sendotasuna ematen zieten. Garai bateko liberalen tradizioa jaso zuten; Hernanin, esaterako, Gerra Karlistan liberalek herria askatu zuten eguna ospatzen zuten bertako Centro Republicanoan, ekainaren 2an. Egoitza horiek nolabaiteko autonomia eman zieten herri edo eskualde bakoitzeko errepublikarrei. 1933tik aurrera hainbat alderdi indartsu sortu ziren Estatuan: Unión Republicana eta Izquierda Republicana nabarmenenak; urte horretatik aurrera, alderdi horien inguruan antolatu ziren Gipuzkoako errepublikarrak (Rodríguez Ranz, 1987, 372 eta 382).

Sozialistek askotan egin zuten bat errepublikarrekin. Izan ere, Indalecio Prieto euskal buruzagi sozialistaren ideiek pisu handia zuten eta horrek errepublikar "burgesekin" kolaboratu nahi izan zuen. Sozialismoak tradizioa eta indar handia zuen Euskal Herrian, Bilbon sortu ondoren Ezkerraldeko lantegietara zabaldu zen eta gero Gipuzkoako herri industrializatuetara. Eibarren, Pasaian, Beasainen, Hernanin, Errenterian, Irunen eta Arrasaten, besteak beste, sozialistak nabarmendu, eta kasu batzuetan erabat nagusitu ziren beste alderdien aurretik. Oraindik ezkerrerago zeuden komunistak: baina PCEk ez zuen sekula lortu sozialistek adinako indarrik, nahiz eta militante gogotsuak zituen bere barnean. *Euzkadi Roja* aldizkaria kaleratzen zuten eta kalean pintadak edo ekintza armatuak egiten zituzten. Hasiera batean, komunistek gobernu errepublikarraren aurka gogor egin zuten, baina azkenean 1936ko Frente Popularrean integratu ziren.

## Langile-borroka eta sindikalgintza

Errepublikako langile batek egunean zortzi ordu egiten zuen lan, astean sei alditan; beraz, 48 lanorduko astea zuen. Gipuzkoako fabriketako langileek Espainiar Estatu-

ko leku askotan baino soldata hobea jasotzen zuten. Lehen mailako makinista batek 12,5 pezeta kobratzen zituen eguneko eta peoi batek 8 pezeta inguru. Aitzitik, emakumeek askoz gutxiago kobratzen zuten, gizonezkoen erdia baino gutxiago. Ez zen denbora asko emakumeak industriako lan-merkatuan sartu zirela, batez ere ehungintza fabriketan eta eskulan bereziak egin behar ziren postuetan. Janariaren prezioari begiratuta ondoriozta daiteke, soilik soldata altuak jasotzen zituzten langileek ateratzen zutela aurrera hilabetea nolabaiteko erosotasunarekin. 1931 eta 1936 artean, soldatak ez ziren batere igo, krisi ekonomikoaren eraginagatik. Gainera, urtebete lehenago, New York-eko burtsaren deskalabruak gogor jo zuen Gipuzkoako industrian eta Gobernuak metalurgian zituen inbertsioak bertan behera geratu izanak krisia sakondu besterik ez zuen egin. Langabezia izan zen arazo larrienetako bat; 1932an ia 7.000 langabe zeuden Gipuzkoan, populazio aktiboaren %15 inguru. Langabezia-mota ezberdinak zeuden: kasu batzuetan aldian aldiko langabezia zen, fabrikek produktibitate-garai ezberdinak izaten zituzten, eta horren arabera kontratatzen zituzten langileak.

Bi sindikatu nagusitu ziren Gipuzkoan urte horietan (Barruso, 1996b): Unión General de Trabajadores (UGT) eta Euzko Langilleen Alkartasuna-Solidaridad de Trabajadores Vascos (ELA-STV). Horietaz gain, sindikatu komunista (CGTU), anarkista (CNT) eta baita sindikatu libre katolikoak eta nekazari-sindikatuak ere bazeuden. Errepublika iritsi aurretik, sindikatuen eragina oso eskasa zen Gipuzkoan; Donostian eta industria-tradizio handia zegoen herrietan lortu zuten antolatzea (Eibar, Arrasate...). Baina Errepublika iristearekin batera, sindikatuetan afiliaturiko langileen kopuruak izugarri egin zuen gora eta erakunde horien eragina Gipuzkoa osora zabaldu zen, baita herri txikietara ere (ELA-STV batez ere). Guztira, langileen %30 inguru afiliatu zen sindikatu batera edo bestera.

UGT zen, II. Errepublika hasieran, Gipuzkoan, afiliatu gehien zituen sindikatua. Donostian, Eibarren eta beste zenbait hiri industrializatutan goraka egin zuen nabarmen sindikatu sozialistak eta Errepublikako urteetan 10.000 afiliatu izan zituen batez beste. Hala ere, UGTk ezin izan zuen eremu industrialetatik harantzago joan. ELA-STVk, aldiz, Gipuzkoako gune gehienetan nagusitzea lortu zuen urte gutxiren buruan; hau da. Errepublikaren hasieran ez zituen 5.000 afiliatu baino gehiago sindikatu abertzaleak eta hiru urtean kopuru hori hirukoiztu egin zuen. *Solidario*en arrakastaren arrazoia, gizarte fededunarengana iristeko izan zuen erraztasunean datza; lehenago aipatu bezala, Gipuzkoan industria oso sakabanaturik zegoenez, nekazaritza eta industria uztartzen zituzten herriak gehiengoa ziren probintzia txiki honetan. ELAk nolabaiteko indarra bazuen hirian, baina babes gehiena nekazaritza eta industria biltzen zituzten eremuetan lortu zuen, batez ere 1933tik aurrera (1933 arte SOV Solidaridad de Obreros Vascos, izena izan zuen). 1932an CGTU sortu zuen Alderdi Komunistak; afiliatu gutxi zituen sindikatu horrek, baina zarata handia egin

zuen hasierako Gobernu errepublikarraren aurka. Anarkisten feudo nagusia Pasaiako Avance Marino sindikatua izan zen (750 afiliatu), CNTn integratua. Pasaia eta Donostia arteko auzoetan finkatu zen CNT batez ere, baina horretaz gain, Tolosan ere bazuen eraginik, Beasainen eta Bergaran bezalaxe.

Bukatzeko, ezin aipatu gabe utzi sindikatu katolikoak eta libreak, eta nekazari-sindikatuak. Egia esan, ezer gutxi dakigu sindikatu libre eta katoliko horien inguruan. Industrializazioak ekarritako aldaketei eta ezkerreko ideien bultzadari aurre egiteko sortu ziren, 1910eko hamarkada inguruan; Bigarren Errepublika iritsitakoan afiliatutako langile-kopurua nahiko altua zen (5.500 afiliatu). Donostiako emakumezkoen Nazaret sindikatua zen katolikoetan indar handiena zuena, Azkoitian, Tolosan eta gune tradizionaletan ere nabarmentzen ziren horrelako sindikatuak. Hala ere, Errepublikak aurrera egin ahala, afiliatu-kopuruak behera egin zuen, ELAk lekua kendu baitzien. Azkenik, nekazari-sindikatuak aurkitu ditugu Gipuzkoako sindikalgintzaren panoraman. Nekazari-eremuetan, kooperatibak eta mutuek (aseguruak) izan zuten sindikatuek baino garrantzi handiagoa. Alkartasuna eta San Isidro izenpean (baserritarren zaindaria izaki), elizaren inguruan egiten zuten lan, pentsua saltzeko, edo ganadua aseguratzeko. Errepublikako urteetan egon zen, hala ere, berrikuntzarik esparru horretan: Euzko Nekazarien Bazkuna sortu zen, jeltzaleek sustaturiko sindikatua. Aipatutako lanak bultzatzeaz gain, baserritarrak euren etxaldeen jabe bilakatzea nahi zuen, horretarako Errepublikak onartutako legeaz baliatuz. Asmo horrek, zenbait kasutan, tentsio bat baino gehiago sortu zituen baserri-jabeekin.

Oro har, Gipuzkoako sindikatu nagusien jarrera nahiko moderatua izan zen, langileen bizi-baldintzek okerrera egin zuten arren. UGTri dagokionez, Madrilgo gobernuaren lagun izan zen Errepublikaren lehenengo bi urteetan, eta gatazkak ahalik eta modu baketsuenean konpontzen saiatu zen. ELA-STVren kasuan, "harmonia sozialaren" alde egiten zuen. Dena den, grebak eta aldarrikapenak behin eta berriro errepikatu ziren, batzuek sona handia izan zuten gainera.

GREBAK GIPUZKOAN

| Urtea | Greba-kopurua |
|---|---|
| 1931 | 13 |
| 1932 | 16 |
| 1933 | 12 |
| 1934 | 26 |
| 1935 | 3 |
| 1936 | 27 |

Iturria: Barruso (1996c, 99).

Esaterako, Pasaian 1931n egin zen greba. Komunistek kontrolaturiko La Unión arrantzale-sindikatuak borroka gogorra egin zuen. Gatazkaren jatorrian aldarrikapen laboralak zeuden, baina egoera zailduz joan zen eta Alderdi Komunistak, Astigarribia buru zuela, kalera atera zituen arrantzaleak. Egun beltza maiatzaren 28a izan zen, Guardia Zibilaren karga baten ondorioz zortzi manifestari hil zirelako. 1933an ELAk Eibarko arma-lantegietan egindako greba ere esanguratsua izan zen; halaber, 1934ko greba iraultzailea. Orokorrean, greba gehienak lan-egoera hobetzeko borrokak izan ziren, baina kasu batzuetan kutsu politiko nabarmena zuten edo beste langile batzuekiko elkartasunez egin zituzten.

## Hamaika bide politikan

Bigarren Errepublikak iraun zuen urteetan, gorabehera handiak izan ziren, eta eztabaida politikoa, batez ere, bi ildo nagusitan oinarritu zen: Estatutua eta erlijioa/laikotasuna. II. Errepublika aldarrikatu eta berehala, Estatutuaren auzia azaleratu zen Hego Euskal Herriko lau probintzietan. EAJ izan zen auzi horretan buru-belarri sartu zena. Ekainean, udal korporazioen bilkura bat antolatu zen Lizarran eta Estatutu proiektu bat onartu zuten, jeltzaleen, karlisten eta katolikoen babesarekin. EAEk ez zuen babestu eta errepublikar eta sozialistekin batera aurkeztu zen hauteskundeetara. Izan ere, 1931ko apirilaren ondoren, Alcalá-Zamoraren gobernu berriak hauteskundeak deitu zituen, ekainean, Madrilgo Gorteetara. Espainian, errepublikar-sozialisten koalizioak irabazi zuen, baina, Euskal Herrian eskuindarrak, "Lizarrako Estatutua" babestu zuten horiexek, atera ziren garaile (hiriburuetan eta herri nagusietan izan ezik). Bi alde bereizi ziren 1931ko uda hartan: Lizarrako blokea (Estatutu katoliko baten eta "ordena sozialaren" aldekoa) eta bloke ezkertiarra (laikoa eta antimonarkikoa). Egoera horretan, alderdi bakoitzak bere interesen arabera egin zuen bataren edo bestearen alde.

Estatutuaren auziak, bestetik, laikotasunari buruzko eztabaida suspertu zuen. Gipuzkoa ez zen tentsio horretan aparte geratu, eta horren adibide garbia Ezkioko amabirjinaren agerpenak dira. Milaka fededun bildu ziren Ezkioko magaletan amabirjina hura ikusteko, eta askok diote Madrilgo asmo laizismozaleei erantzuteko modu bat izan zela hura. Urte bereko irailean, Lizarrako Estatutua baztertu zuen Madrilgo Gorteak, Euskal Herria "Gibraltar Vaticanista" bat bihurtu nahi zuelako, Indalecio Prietoren arabera. Horren ordez, errepublikarrek kontrolaturiko Diputazioek (ez zen hauteskunderik egin erakunde horiek berritzeko eta gobernuak izendatu zituen kideak), Estatutu berri bat diseinatu zuten: "Gestoren Estatutua". Euskal udalen bilkurak eman behar zion onarpena Estatutu horri eta horren ondoren onartuko

zuen Madrilgo Gorteak. EAJk sistema hori babestu egin zuen, baina Nafarroako eskuindarrak ez zeuden prest ezkertiarren Estatuturik ontzat hartzeko eta nafar udalek, hainbat gorabeherarekin, ez zuten parte hartu udalen bilkuran. Estatutua onartzeko prozesuak bi urte iraun zuen; artean, abertzale katolikoen eta ezkertiarren arteko liskarrak etengabeak izan ziren Gipuzkoan. 1933ko azaroan Estatutuari buruzko erreferenduma egin zen herritarren artean: Gipuzkoan botoen %89,5 lortu zuen baietzak eta Bizkaian %88,4; Araban, berriz, botoen %46 izan zen baietzaren aldekoa.

Baina bi aste geroago, Gorteetarako hauteskunde orokorrak egin ziren. Gipuzkoan EAJk irabazi zuen, Bizkaian bezalaxe; Araban Oriol-en Comunión Tradicionalistak gehiengo osoa lortu zuen eta Nafarroan eskuindarren koalizioa atera zen garaile nagusi. Espainian Lerroux-en Partidu Erradikalak eta eskuineko alderdiek irabazi zuten, eta emaitza horrek ateak itxi zizkion Estatutuari, agintari berriek ez baitzuten ezer jakin nahi Estatutuaz; izan ere, 1931n babestu zutenean, erlijioaren defentsan egin zuten, baina, orduz gero, egoera erabat aldatuta zegoen.

### HAUTESKUNDEAK GIPUZKOAN II. ERREPUBLIKAN

<table>
<tr><th>URTEA</th><th colspan="2">1931</th><th>1933</th><th colspan="2">1936</th></tr>
<tr><td>Eskuindarrak</td><td rowspan="2">Lizarrako blokea</td><td rowspan="2">%57,7</td><td>%24,6</td><td colspan="2">%32,9</td></tr>
<tr><td>EAJ</td><td>%45,5</td><td colspan="2">%36,9</td></tr>
<tr><td>ANV</td><td rowspan="3">Ezkertiar blokea</td><td rowspan="3">%41,0</td><td>%1,6</td><td rowspan="4">Frente Popularra</td><td rowspan="4">%30,2</td></tr>
<tr><td>Errepublikarrak</td><td>%10,7</td></tr>
<tr><td>Sozialistak</td><td>%15,7</td></tr>
<tr><td>Komunistak</td><td colspan="2">%0,5</td><td>%1,6</td></tr>
</table>

Iturria: De la Granja 1986

Abertzaleen eta gainerako eskuindarren eta katolikoen arteko diferentziak (Comunión Tradicionalista, monarkistak, erradikalak, CEDAkoak...) gero eta nabarmenagoak ziren. EAJk ikusi zuen eskuindarren aldetik ez zuela lortuko Estatuturik eta Agirrek eta Irujok Gorteetan esan bezala "Estatutua emango digun eskua bedeinkatuko" zuten. Beraz, Sabino Aranaren alderdia bira egin eta ordura arte etsai izan ziren sozialistengana hurbiltzen hasi zen. Horren erakusgarri da "Ardoaren Gerra" deiturikoa. 1934ko udan, Madrilgo Gobernuak ardoaren zerga, Kontzertu Ekonomikoaren eta udal autonomiaren zutabeetako bat, kendu nahi izan zuen. Erantzuna berehalakoa izan zen: abertzaleek eta ezkerreko alderdiek kontrolaturiko "udalen al-

txamendua". Udal horiek bilkura bat egin nahi izan zuten Zumarragan, baina Gobernuak gogor erantzun zuen: alkate batzuei kargua kendu zieten eta hainbat zinegotzi atxilotu zuten. Horren aurrean, dimisio kolektiboa aurkeztea erabaki zuten abertzale eta sozialisten esku zeuden udalek.

Udal abertzaleek eta ezkertiarrek Madrilgo Gobernuarekin izandako pultsua momentu horretan zegoen tentsioaren adierazle izan zen. Izan ere, 1933an eskuindarrak agintera iritsi zirenetik, egoerak okerrera egin zuen, bai Estatutuaren inguruan, baita Patronalaren jarrerari zegokionez ere. Patronalak presioa egin zuen aurreko gobernuak ezarritako hainbat lege progresista atzera botatzeko. Sozialistek moderazioari eutsi zioten ordura arte, baina Gobernutik kanpora posturak gogortu egin zituzten, grebak ugaritu, eta horrekin batera etorri zen 1934ko urriko iraultzasaiakera. Urriko iraultzan, sozialisten eta UGTren eskua ikus daiteke, baina EAEko edo ELA-STVko zenbait kidek ere parte hartu zuten. Espainian, Asturias izan zen iraultzaren nukleoa, bertako meatzeetan langileen eta soldaduen artean izandako borroken ondorioz ehunka lagun hil baitziren. Gipuzkoan, hilaren 5ean hasi zen mugimendua Guardia Zibilaren eta grebalarien arteko tiroketa bat gertatu zenean Eibarren. Herri horretan bi lagun hil zituzten, Carlos Larrañaga enpresari eta buruzagi karlista izan zen bat. Egun horretan bertan amaitu ziren borrokak. Arrasaten, aldiz, gogorragoak izan ziren enfrentamenduak. Grebalariek 60 lagun inguru atxilotu eta horietako bi, Marcelino Oreja diputatu karlista eta Dagoberto Rezusta erradikala, hil egin zituzten. Gasteizetik etorritako tropek zapaldu zuten iraultza-saioa. Gipuzkoako beste herri batzuetan greba nahiko baketsua izan zen, Tolosan izan ezik, hildako bat egon zen, eta Pasaian, hilaren 8an, grebalariek armadari aurre egitean, 6 hildako izan ziren (AAVV, 1984). Urriaren hamaikatik aurrera egoera bere onera etortzen hasi zen, eta, aldi berean, gobernuaren eta agintarien errepresioa gogortu egin zen. Lan hori sozialisten aurka zuzendu zen bereziki, nahiz eta beste erakunde batzuen aurka ere jo, abertzaleen aurka esate baterako. Urriaren amaierarako, 420 lagun atxilotu zituzten Gipuzkoa osoan eta gehienak Hondarribiko Guadalupe gotorlekura eraman zituzten. Errepresioa ez zen nola-halakoa izan: Salbuespen Egoera, torturak, erbestea, kaleratzeak, UGTren eta CNTren egoitzak itxi egin zituzten eta ia urtebete jarraitu zuten horrela. Ezkertiarrek jasan zuten gogorren errepresio hori, baina abertzaleek ere nabaritu zuten; izan ere, Gobernuak zaku berean sartu zituen ezkertiarrak nahiz abertzaleak, azken finean, eskutik helduta ibili ziren hilabete batzuk lehenago. Bestalde, azaroan bertan, hasi ziren atxilotuen aurkako epaiketa militarrak (Barruso, 1996b, 342-343). Epaile batzuek hor izan zuten 1936ko jardunerako lehen prestaketa. Gehienetan, epaiketa bakoitzean herri bateko auziperatuen aurkako salaketak aztertzen ziren; horietako garrantzitsuenak Lasarte, Hernani, Arrasate eta Beasaingo kasuak izan ziren. Lasarteko 29 auzokidek zigor txikiak izan zituzten, hiru

lagunek salbu, horien artean Victoriano Vicuña komunista ezagunak, zortzi urteko zigorra jaso baitzuten. Hernaniko kasuan, UGTko 39 kideri armak eskuratzeko lapurretan ibili izana leporatzen zitzaien eta Guardia Zibilarekin tiroka ibiltzea udaletxea hartzeko ahaleginean. Gertaera horren ondorioz, 16 kide libre geratu ziren, beste 23 lagunek 14 urte eta hamar hilabeteren tarteko salaketak jaso zituzten 1935eko udaran. 1936ko udaberrira arte egon ziren espetxean, beste asko atzerrian ziren bitartean.

1935eko urtea gogorra izan zen, errepresioaren urtea. Baina hilabeteek aurrera egin ahala egoera normalizatuz joan zen; urriko iraultzan atxilotutakoen amnistiaren aldeko kanpaina bati ekin zioten oposizioko taldeek, eta 1936an Frente Popularra izeneko blokea osatu zuten errepublikarrek, sozialistek, komunistek eta aeneubezaleek otsaileko hauteskundeei begira. Bloke ezkertiar horretatik kanpo geratu zen EAJ eta bakarrik aurkeztu zen hauteskundeetara. Karlistek, aldiz, gero eta maizago ateratzen zituzten beren erreketeak mendira, altxamendua gertu zegoen, eta hura piztuko zuen pospoloa besterik ez zuten behar. Ez zen beharrezkoa gizarte-liskarrak, bortxakeria edota iraultza-mehatxuak benetakoak izatea, nahikoa zen mehatxua jasan zezaketenak horrela sinestea. Horrela, 1934ko urriko iraultzak, Eibar eta Arrasate kenduta, eragin txikia izan zuen Gipuzkoan, baina nahikoa izan zen bortxakeriaren mehatxuaren mezu kontserbadorea hedatzeko eta gizarte-sektore zabalak bat egiteko mezu horrekin, pentsatuz iraultzaren arriskua hurbilekoa eta benetakoa zela eta horren aurkako borrokak erabatekoa izan behar zuela.

Otsaileko hauteskundeak benetan lehiatsuak izan ziren. Gipuzkoan, EAJ izan zen berriz ere garaile, baina bai ezkertiarrek eta bai eskuineko bloke "kontrairaultzaileak" ere gora egin zuten nabarmen. Jeltzaleek botoak galdu zituzten, gipuzkoarren botoen herenak jaso zituen eskuineko koalizioaren mesedetan eta ezkerra izan zen nagusi Donostian, Irunen, Eibarren, Pasaian, Hernanin eta Beasainen; Errenterian jeltzaleen atzetik geratu ziren eta Tolosan eskuineko koalizioaren aurretik. Espainian Frente Popularra atera zen garaile, nahiz eta tartea ez izan oso handia. Hurrengo hilabeteetan indar berriarekin ekin zioten lanari sindikatuek; alde batetik amnistiari esker, bestetik komunistak UGTn sartu zirelako eta egoerak langileen eskakizunak bultzatzen zituelako. Garaipen hura eta giro berria izan ziren, hain zuzen, errekete nafarrek eta Marokoko militar kolpistek erabili zuten pospoloa. 1936ko uztailaren 17an piztu zuten sua.

III

# GERRA ZIBILA GIPUZKOAN: ERRESISTENTZIAK ETA ERASOAK

ESPAINIAKO II. ERREPUBLIKAK, aldarrikatu zen unetik, konstituzioaren legaltasuna aldatzeko saiakerak jasan zituen hala ezkerraldetik nola eskuinaldetik zetozen konspirazioen bidez: CNTren edo komunisten ahalegin iraultzaileak lehen biurtekoan, Sanjurjo jeneralaren altxamendua 1932ko abuztuan, 1934ko urriko iraultza sozialista eta 1936ko guda piztu zuen uztailaren 17ko altxamendua izan ziren gertakari garrantzitsuenetariko batzuk.

Errepublikaren aurkako kolpe militar bat antolatzeko ahalegin ezberdinek beren fruitua eman zuten 1936ko otsailean Iruñean. Hantxe egin zen lehen bilera bat, non Unión Militar Españolako (UME) ofizial batzuek erregimenaren kontrako "ekintza" bat prestatzeaz hitz egin zuten. Hilabete horretan bertan ospatutako legegintzarako hauteskundeetan Frente Popularrak garaipena lortzeak eta ustez gobernu berriaren aurka zeuden militarrak lekuz aldatzeak prestakizunak aurreratzea eragin zuen. Martxoaren 8an, jeneralen talde bat Madrilen bildu zen, horien artean Gerra Zibilean matxinatutakoen buru nagusienetarikoak izango zirenak zeudelarik, eta "aberriaren hondamena eta zatiketa" saihestuko zuen mugimendua antolatzea adostu zuten. Horren buru Sanjurjo jenerala izango zen, Portugalen erbesteratua zegoena, eta koordinazioaren arduraduna, berriz, Emilio Mola jenerala, halabeharrez Iruñera bidali zutena.

Altxamenduaren norabidea, hasiera batean militarra besterik ez zena, 1936ko apirilaren 15ean erabat aldatu zen, Emilio Mola jeneralak, konspirazioaren "zuzendari" moduan, bere "1. Instrukzio Erreserbatua" eman zuenean, bertan honakoa baieztatuz: «...la conquista del poder ha de efectuarse aprovechando el primer momento favorable y a ella han de contribuir las Fuerzas Armadas conjuntamente con las aportaciones que en hombres y elementos de todas clases faciliten los grupos políticos, sociedades e individuos aislados que no pertenezcan a partidos, sectas o sindicatos que reciban inspiraciones del extranjero, socialistas, masones, anarquistas comunistas, etc...». Horrela, konplot militar bat izatetik estatu-kolpe batera igaro zen, aldeko talde politiko eta erakundeen laguntzarekin, hau da, karlotradizionalisten eta Falange Españolaren laguntzarekin. Alabaina, ez ziren ekainera arte, zailtasunak tarte, militarren eta tradizionalista karlisten interesak proiektu matxinatu bakar batean batu (Maiz, 1952 eta 1976). Akordio horrek eta gertakarien bilakaerak, uztailaren 13an

Madrilen José Calvo Sotelo erailtzearekin (monarkiazalea, antikomunista eta estatu espainol faxista baten aldekoa) 1936ko uztailaren 17ko estatu-kolpe saiakera eragin zuten; nahiz eta agintari militar batzuek, horien artean Franco, zalantzak izan. Espainiak Afrikan zituen posizioetan hasi zen matxinada. Ejerzitoa bera legaltasunaren eta matxinatuen eta herritarren erresistentziaren aldekoen artean zatitu zen, bereziki Madrilen eta Bartzelonan, eta horrek kolpearen porrota eta gerra zibil luze baten hasiera ekarri zuen.

## Lehen operazioak eta Donostiako altxamenduaren porrota

Gerrak Gipuzkoan izandako bilakaerak, batez ere 1936ko uztaila eta iraila bitartean, bere protagonistak izandako batzuen eta egungo hainbat historialariren interesa piztu du. Gertatutakoaren oroitzapenen artean honako hauek nabarmendu ditzakegu errepublikarren aldean: Manuel de Irujo (1978), Miguel de Amilibia (1978) eta Manuel Chiapuso (1977). Ikuspuntu frankistatik egindako gertakarien deskribapena Morales (1937), Sainz de los Terreros (1937), Loyarte (1944) eta Echeandiaren lanetan (1945) topatuko dugu. Historialari profesional garaikideen artean, azpimarratzekoak dira, Felix Luengo, (1987 eta 1994) eta, bereziki, Pedro Barruso, Bigarren Errepublikako, Gerra Zibileko eta lehen frankismoko Gipuzkoan aditu handia. Bere 1996ko lana *Verano y Revolución. La guerra civil en Gipuzkoa (julio-septiembre de 1936)*, gure oinarrizko erreferentzia da. Egile horiek aurretik egindako lanari esker lurralde honetan une historiko honetan gertatutakoa laburbiltzea daukagu. Azalpena ardatz hirukoitz baten inguruan egituratzen da. Matxinatutako militarrek eta beren aliatuek Nafarroatik egindako mugimenduak, Donostiako kuarteletako erantzuna eta talde eta mugimendu errepublikazale eta antifaxistek erakutsitako erresistentzia. Hurrengo kapituluetarako utziko dugu errepresioaren alorrean gertatutakoaren deskribapena eta azterketa, eta arreta, bereziki, geroago Hernanin fusilatuko zituzten pertsonak atxilotuak izan zireneko herrietan jarriko dugu. Gure ustez, kasu batzuetan, aurrerago aipatuko ditugun faktore orokorrekin batera, matxinatutako tropei jarritako erresistentzia handiagoak errepresio gogorragoari bide eman zion.

Iruñako uztailaren 18ko altxamenduaren ostean, Emilio Mola jeneralak ia mugimendu militarrik gabe probintzia osoko kontrola lortu zuen, eta hiru kolumna bidali zituen Gipuzkoara. Lurraldea okupatzea eta hiriburu donostiarreko matxinadari laguntzea ziren helburuak. Kolumna nagusiena Beorlegui koronelak zuzendu zuen eta uztailaren 20an abiatu zen Iruñatik, bere helburua Bidasoako arroa menderatuz muga ziurtatzea eta horrela Donostian presioa egitea izanik. Beorleguik aurrera egin zuen Beraraino, inongo trabarik topatu gabe. Handik, formazio berri bat, Ortiz de

Zárate koronela buru zuela, Oiartzun inguruko gailurretara abiatu zen, baina miliziano-taldeek eta gobernuari leial zitzaizkion indarrek harrapatu zuten. Egun berean, hilaren 20an, beste bi konpainia militarrek, metrailadoreen sekzio batek eta falange eta erreketeen bi unitatek, Cayuela teniente koronela buru zutela, Altsasu okupatu eta Gipuzkoako Goierrirako bidea hartu zuten. Hirugarren kolumnak, kopuruz txikiagoa eta falangistek bakarrik osatua, eta geroago erreketeek, Gipuzkoan Aralarreko mendilerrotik sartzea zuen helburutzat. Hilaren 24an Gaztelun bazeuden ere, eta errepublikarren erresistentzia oso indartsua ez bazen ere, Tolosara ez ziren uztailaren 30era arte heldu. Posizio horietatik ekingo zioten probintzia konkistatzeari.

Donostian, bitartean, matxinatu beharreko agintari militarrek zituzten zalantzek ezkerreko erakundeen erreakzio azkarrak sendotu zituzten. UGT eta CNT sindikatuek eta PCEk egoeraren kontrola lortu zuten, probintziako agintarien buruzagitza eza zela eta. Irujok eta abertzaleren batek besterik ez zuten lehen uneetan erresistentzian lagundu. Uztailaren 27ra arte itxaron behar izan zuten Gipuzkoako Defentsa Junta sortu zen arte. Nahiz eta bertan Errepublikari leial zitzaizkion alderdi guztiek parte hartu, talde abertzaleak barne, Juntaren hegemonia eta ekimena aipaturiko erakunde ezkertiarren esku egon zen. Jesus Larrañaga komunista gerra-komisario izendatu zuten eta haiek izan ziren Donostiako defentsaren protagonista nagusiak eta hiriburu donostiarreko, eta hortaz, Gipuzkoako matxinadaren porrotaren eragileak.

Uztailaren 18ko arratsaldean bildu ziren kuartelera tropak, baina Loiolako kuartelen agintaritza zuten graduazio handieneko ofizialen artean buruzagitza sendorik ez zegoenez, ez zen une hartan mugimendu militar esanguratsurik egon. Bien bitartean, hiriburuko miliziano ezkertiarrak, hiriko kuarteletako armamentuaz hornituri, Donostiako kaleak patruilatzen hasi ziren. Hilaren 22an, matxinadaren buru berriak, José Vallespín teniente koronela, hiriburuaren okupazioa agindu zuenerako beranduegi zen. Militarrak Donostiako hirigunera heltzen saiatu ziren, baina atzera egin behar izan zuten, María Cristina Hotelean eta beste eraikin batzuetan ezkutatutako zibilen laguntza izan arren. Erakunde ezkertiarrek jarritako erresistentzia liskar eta borroka gogorretan gauzatu zen, eta horrek galarazi zien militarrei beren helburuak lortzea. Konspiratzaileek uztailaren 24an Loiolako kuarteletan babestea erabaki zuten, Urumeako ibaiertzean, baina ez hiria inguratzen zuten gailurretatik eraso berriak egiten saiatu aurretik. Setiatuta eta aireko eraso batzuk jasan ostean, uztailaren 28an eman zuten amore matxinatuek. Vallespínek ihes egitea lortu zuen arren, 68 ofizial hartu zituzten preso [15].

15 Avilako Archivo General Militar-ra. Cuartel General del Generalísimo. 4. Arm. –16. Carp.- 273. Leg. bis. *Operaciones de Guerra de la Plaza de San Sebastián, formulado en cumplimiento de la Orden Ministerial de 28 de Noviembre de 1939, redactado por el Coronel de Ingenieros Don José Vallespín Cobián sobre antecedentes y primeros días del Movimiento. Año de 1939.* Aipaturiko txostenean, garai hartan ingeniarien teniente koronela zen José (...)

Hainbat dira Donostiako altxamendua ez gauzatzeko erabakigarritzat hartu izan diren arrazoiak. Alde batetik, buruzagitza zehatzik eza, hau da, konprometituak (funtsean graduazio txikiko ofizialak) hiriaren boterea lortzera gidatuko zituen buruzagi militar kualifikaturik ez egotea. Bestetik, azpilan zibilaren ahulezia; izan ere, Nafarroan gertatutakoarekin alderatuta, probintzian zeuden erreketeak eta falangistak oso gutxi ziren, eta horrek lurraldean ia matxinadarik ez egotea, edo oso azkar menperatu ahal izatea eragin zuen. Donostiako kasuan, gainera, kontuan hartu beharrekoa da ezkerrak matxinatuen aurrean erakutsitako erresistentzia.

Loiolako kuartelek amore emateak matxinatuek beren estrategia aldatzea eragin zuen. Beorlegui, Ortiz de Zárateren kolumnarekin batera Donostiara Oiartzungo bailaratik heltzen saiatu zen, baina ezin izan zuen lortu Errenteriako milizianoek jarritako erresistentziarengatik eta inguruko gailurretan kokatutako gotorlekuetako artilleriarengatik. Matxinatuek Donostian izandako porrotak, bestalde, hiriburua menderatu aurretik atzealdeko eskualdeak okupatzea aholkatzen zuen, eta horrexegatik, Beorleguik Irunera abiatzea erabaki zuen. Alabaina, Endarlatzako zubiaren leherketak mugimendu hori galarazi zuen, eta Oiartzun-Lesaka eskualdean geratu zen blokeaturik.

Hegoaldean, Oria bailararen konkistarekin jarraitu zuten militarrek. Beasain hartu arte, 1936ko uztailaren 27an, matxinatutako tropek ia ez zuten erresistentziarik aurkitu aurrera egitean, izan ere, Donostian bizi zen egoerak, Loiolako kuartelen altxamenduarekin eta eskuin aldekoen matxinadarekin, Errepublikaren legaltasunaren defendatzaileak beren indarrak Donostian biltzera behartu zituen. Horrek aukera eman zien matxinatutako tropei Altsasutik azkar-azkar sartzeko, Cayuela teniente koronelaren buruzagitzapean. Oriako goiko arroa defentsarik gabe ikusita, eta Beasainek zuen garrantziaz jabetuta, izan ere hori galtzeak Tolosa arrisku larrian jarriko zukeen, eta hortaz, probintziaren zati handi bat, Eibartik zetorren milizianotalde bat hantxe bereizi zuten agintari errepublikarrek. Uztailaren 26an, hiribilduaren inguruetan oso borroka gogorra izan zen eta, horren ostean, erreboltarien laguntza artilleroa ikusirik, herri barrura egin behar izan zuen atzera gobernuaren alderdiak. Hilaren 27an, erresistentzia garaitua izan zen, eta egun horretan bertan Cayuelaren tropak Beasainen sartu ziren. Erreboltariek, horrela, puntu estrategiko bat ziurtatzen zuten eta Tolosarako bidea zabalik geratu zitzaien. Beasain hartu ondoren, militarrek eta beren laguntzaile karlistek eta falangistek, aurretik Ataunen egin zuten moduan, arpilatzeari eta armak topatzeko miaketei ekin zieten, eta, aurrerago xehe-

(...) Vallespínek (Donostiako matxinadaren burua, eta Loiolak amore ematean ihes egindakoa) 25 orrialde baino gehiagotan xehetasunez kontatzen du hiriburu donostiarreko matxinadaren prestakuntza, zibilek izandako inplikazioa, graduazio handieneko ofizialen arteko tentsio eta tirabirak eta gertaeren segida kronologikoa matxinatuek amore eman arte. Txostenaren amaieran militarren eta herritar erreboltarien arteko presoen eta hildakoen zerrenda dator «salvo error u omisión por falta de datos» Loiolako kuartelean zein hirian, Donostian.

tasun gehiagoz ikusiko dugunez, susmagarriak ziren auzokoak erailtzeari. Matxinatutako tropen sarrerarekin batera heldutako beste ekintza batzuk herritarren aurkako irainak, errepublikarren eta abertzaleen zentro sozialak konfiskatzea eta bertako liburutegi eta agiritegiak erretzea izan ohi ziren. Ekintza horien helburua okupatuz zihoazen herrietako biztanleengan eta defendatzaileengan beldurra piztea zen, eta lortu zuten, horren adierazle garbia matxinatuen esku erori aurretik herrietan izandako ebakuazio masiboa izanik.

Beasain erori zen egun berean, hilaren 27an, Beorleguik errefortzuak jaso zituen, eta berriro ere erasoaldiari ekitea erabaki zuen. Behin Oiartzun ziurtatua zegoela, aurrera egin zuen Errenteriara, Loiolako kuarteletan matxinatutako eta setiatutako militarrei laguntzeko asmoz. Baina beranduegi zen, izan ere horiek hurrengo egunean amore eman zuten. Errepublikarrek, beren aldetik, beren tropa onenak Errenteria defendatzera bidali zituzten, Pérez Garmendia komandantearen agindupean. Matxinatuen erasoak porrot egin zuen gobernuaren aldeko alderdiek eskainitako erresistentzia antolatuaren aurrean. Erasoak hurrengo egunetan behin eta berriro errepikatu ziren inongo arrakastarik lortu gabe. Borroken krudeltasunaren adierazle da zauritutako sei erreketeren fusilatzea, Errenterian preso egin ostean. Une horretatik aurrera, frontea egonkortu egin zen Errenteriako inguruetan, eta ekintza beste sektore batzuetara aldatu zen.

Bien bitartean, gobernuaren aldeko bandoa berrantolatzen saiatu zen; izan ere, altxamendu militarrak Gipuzkoan izandako ondorioetako bat botere errepublikarrek porrot egitea eta horien ordez tokiko defentsa-juntak edo komisioak sortzea izan zen. Gipuzkoako Defentsa Junta sortzean, 1936ko uztailaren 27an, botere-organo berria sortu zen eta horren mende geratu ziren hala gobernadore zibila nola komandante militarra, bai eta Aldundiaren eta udalen jarduerak ere; ondorioz, beren funtzioak eta eskuduntzak nabarmen murriztu ziren. Bere iraunaldia, jarduera eraginkorra, 1936ko irailaren erdira arte luzatu zen, Donostia –eta berehala Gipuzkoako zati handi bat– tropa matxinatuek hartu zuten arte. Baina, aldi berean, abertzaleek beren Junta eratu zuten Urola bailaran eta gauza bera egin zuten Eibarko sozialistek. Botere errepublikarraren sakabanaketa eta ahultasuna talde erradikalenen dinamismoak areagotu zituen, hautestontziek eman ez zieten presentzia aldarrikatzeko aprobetxatu baitzuten altxamendu militarra. Presentzia hori, militarrekiko izandako garaipenaren fruitu, indartu egin zen sozialista, komunista eta anarkista galegoak eta asturiarrak heltzean Gipuzkoara, batzuk errepresio militarrari ihesi zetozenak, eta beste batzuk, ordea, boluntario moduan, puntu estrategiko batean defendatzeko Errepublika. Defentsa Juntatik erresistentzia militarra bide legaletatik bideratzen saiatzen ziren bitartean, muturreko jarrerak saihestuz, jendearen eskaerak gainditu egin zuen saiaturiko bidea, Beasainen gertatutakoa jakin ostean, eta aurretik ere, "herri justiziaren

ekintza" berehalakoak eta zuzenak aldarrikatzen eta gauzatzen baitzituzten. Uztailaren 30ean, goizaldean, miliziano-talde batek probintziako espetxea eraso zuen, Ondarretako kartzela, non Loiolako kuartelek uztailaren 28an amore eman ondoren hiriburuan izandako altxamenduaren porrotean preso hartutako gehienak zeuden. Erasoaren ondorioz, 53 pertsona fusilatu zituzten, aurretik inongo epaiketarik egin gabe, eta horietariko 41 ofizialak ziren. Egun horietan, beste hainbat atxiloketa ere egin ziren helburu bikoitzarekin: eskuin aldeko elementuak kontrolatzea batetik, eta herritarren suminduratik babestea bestetik. Hurrengo kapituluan ikusiko dugun legez, hori ez zen nahikoa izan haietariko askok bizirik iraun zezaten. Matxinatutako tropen bonbardaketek hondamendia, hildakoak eta zaurituak utzi zituzten Donostian, eta egoera horrek areagotu egin zuen herritarren ezinegona.

## Matxinatuen aurrerapena Oria Bailaratik

Beasain hartu ostean, Oriako arrotik aurrera egiten zuten militar matxinatuen hurrengo helburua Ordizia zen. Nahiz eta lehen erasoak, uztailaren 29an, milizianoen defentsaren aurrean porrot egin zuen, errepublikarrek Tolosara atzera egitean, bidea zabalik geratu zitzaion Cayuela teniente koronelaren zuzendaritzapean zetorren arerioari, eta inongo erresistentziarik gabe hartu zuten abuztuaren 1ean hiribildua. Hurrengo egunean, Gerrako Junta Carlista finkatu zen herrian, eta probintzian gatazkak lehen hilabeteetan izandako protagonista nagusienetariko bat izan zen.

Abuztuko lehen egunek errepublikarrek bata bestearen atzetik ezarritako defentsa-lerroen etengabeko porrota ikusi zuten, nahiz eta horiek erresistentzia jarri. Horrela, hilaren 5ean Alegia erori zen eta 10ean abangoardia erasotzaileak Tolosan sartzen hasi ziren. Bien bitartean, Gipuzkoako Defentsa Juntak herria ebakuatzea eta Villabonaraino atzera egitea erabaki zuen, bertan behin-behineko defentsa-lerro bat jartzeko. Azkenik, abuztuaren 11n konkistatu zuten Tolosa Cayuelaren kolumnako tropek, eta okupazioa bermatzeko hilaren 12tik 14ra bitarteko egunak erabili zituzten. Hiribildu papergilea konkistatu ostean, indar militarrak berrantolatu egin ziren: 2.500 bat gizaseme Iruretagoyena koronelaren agindupean jarri ziren. Beren helburuak: hiribildua segurtatzea eta Azpeitiara doan errepidea moztea, non miliziano-talde batzuk defentsa-lerro bat antolatzen ari ziren. Bigarrenik, Oria bailaratik aurrera egitea Andoainerako bidean, Donostian presioa egiteko eta Oiartzun-Errenteria eskualdean kokatutako indarrekin bat egiteko asmoz.

Andoainera azkar aurrera egin eta, abuztuaren 17an hartu ostean, errepublikarrek Buruntza, Santa Barbara, Oriamendi eta Santiagomendi inguruan eraikitako defentsa-lerroak geldiarazi zituen militarrak; horrela, errepublikarrek Oria eta Astiga-

rraga-Errenteria-Oiartzuneko eskualdea lotzea lortu zuten. Hilaren 18tik 20ra bitartean, Andoainek errepublikarren aireko erasoak jasan zituen eta, abuztuaren 23an Belkoain mendia hartu ondoren, Oria ibaiko ezkerraldean, Buruntza mendiaren erasoa agindu zuen Iruretagoyenak (errepublikarrek eskuinaldean zuten defentsa-gune nagusia zen). Azken erasoa eta okupazioa, hainbat egunez saiatu ostean, hilaren 29ra arte ez zen gertatu; bitartean, Andoainek errepublikarren artilleriaren eta hegazkinen bonbardaketak jasaten jarraitzen zuen, eta horrek herritar zibilen artean hainbat hildako utzi zituen. Bestalde, operazio horretan 80 gizasemek galdu zuten bizia indar erasotzaileen artean. Batailaren ostean, fronte honetako ekintzak gelditu egin ziren. Tropa erasotzaileek beren posizioak berrindartzeari ekin zioten errefortzuei itxaroten zieten bitartean, eurekin batera operazioen fase berriari hasiera emateko: Hernani inguruko gailurretan ezarrita zegoen eta Donostiarako bidea ixten zuen defentsa-lerroa gainditzea.

## Bidasoako frontea

Abuztuaren erdialdetik aurrera, operazioen agertoki nagusia Bidasoako inguruetara mugitu zen, non erasoaldi bortitza piztu zen Irun konkistatzeko eta muga ixteko asmoz. 1936ko abuztuaren 11tik irailaren 4ra bitartean (Irun erori zeneko data) egindako operazioak ordura arte ezagututako indarren kontzentrazio handiena izan ziren, eta Gerra Zibilak Gipuzkoan izandako gogorrenak eta hildako gehien izan zituztenak. Tolosa hartzearekin eta Andoainera aurrera egitearekin batera hasi zen erasoaldia, eta errepublikarrak beren indar eskasak bereiztera behartu zituen; izan ere, alderdi nazionalak (errefortzuak eta hornigaiak jasotzeko arazorik gabe) fronte ezberdinetatik egiten zuen aurrera.

Lehen erasoen helburua Aiako Haitzen inguruko gailurrak izan ziren (Pikoketa, Erlaitz, Gorostiaga, Pagogaina, Zubeltzu...); tontorrak errepublikarren esku zeuden eta hornigaien lerroak zein matxinatutako tropek aurrera egiteko zituzten bideak mehatxatzen zituzten. Operazio zaila zen, inguru haietan gotortutako hainbat gune zeudelako, batetik, Frantziatik etor zitezkeen erasoei aurre egiteko pentsatuak, eta bestetik, orografia zaila eta malkartsua zelako. Alabaina, ausardiaren eta zortearen arteko nahasketa bati esker, tropa nazionalak posizio guztiak hartuz joan ziren, errepublikarrek erresistentzia handia jarri arren. Fusileriaren borrokek artilleriaren laguntza izan zuten bi aldeetan, eta, horrez gainera, matxinatuen kasuan, ontziena eta aireko bonbardaketena . Beorleguik, gainera, Legioaren bandera bat jaso zuen errefortzu gisa, argi utziz erreboltarientzat muga ixteak zenbaterainoko garrantzia zuen. Leku hartan borrokan zeuden bi aldeek 6.000 gizaseme baino

gehiago bildu zituzten, kopuru garrantzitsua, baina urrun Gerra Zibilak 1937an edo 1938an izandako bataila handietan izan ziren mobilizazio garrantzitsuetatik. Ebroko batailan, esaterako, 200.000 soldaduk baino gehiagok hartu zuten parte. Irungo kasuan, borrokalarien kopurua berdina zen bi aldeetan, baina botere militarra (artilleria-indarrak, fusilak eta arma automatikoak) matxinatuen aldean askoz ere handiagoa zen, eta gauza bera gertatzen zen errefortzuak lortzeko gaitasunarekin eta nekatuen zeuden soldaduak txandakatzeko orduan.

Abuztuaren 26an, Beorleguik Irun erasotzeari ekin zion. San Martzialgo posizioaren aurkako erasoaren porrotaren ondoren, bere estrategia aldatu zuen, etengabeko bonbardaketak eginez eta herritarrei ordainaraziko ziela mehatxatuz. Egoera horrek tokian bizi zirenen ebakuazioa eta exodoa eragin zuen; abuztuaren 30ean bertan, 2.000 pertsonak baino gehiagok utzi zuten mugako herria Frantziarako bidean. Mugan agintari errepublikar espainolek bidalitako munizioz beteriko hainbat bagoi geratu ziren, Frantziako gobernu ezkertiarrak, abuztu-erdialdetik, milizianoen eskuetara heltzea galarazi baitzuen. Izan ere, gobernu galiarrak uste zuen laguntza hura helduz gero nazioarteko gatazka piztu zitekeela Alemaniako Hitlerrekin. Bien bitartean, euskal kostaldeak eskainitako ikuskizun baten moduan ikusten zituzten borrokak ehunka turistak. Pío Barojak (2005), erreketeen kolumnetatik osorik ateratzea lortu ondoren, Bidasoa ibaiaren beste aldean jazotakoa eszeptizismoz begiratzen zuen. Borroka bortitzez beteriko egun batzuen ostean, eraso eta kontraerasoekin, legionario-talde batek hilaren 2an San Martzialgo ermita hartzea lortu zuen. Egun bat geroago, errepublikarren ahaleginek ez zuten lortu Behobiako mugako postua mantentzea eta hurrengo egunean, irailaren 4an, Santiagoko Nazioarteko Zubia ixtea, horrela Irunerako bidea guztiz zabalik geratu zen. Hiria ebakuatzen zuten bitartean, anarkista-talde batek sute bat piztu zuen bertako eraikin anitz suntsituz. Hilaren 5ean, matxinatuak erortzear zegoen hiri batean sartu ziren, baina, hala ere, arpilatze sistematiko anitz egin zituzten. Milizianoek Hondarribia ere utzi zuten, beren ihesaldian Guadalupe gotorlekuan giltzapetutako hainbat preso eskuindar exekutatuz.

Bidasoako behe arroan gertaturiko operazioak Gipuzkoako lurretako borrokaren bilakaeraren gakoa dira. Errepublikarrek, nazioarteko laguntza helduko zelako itxaropenarekin, eta behin Irun hartuta Donostiarako bidea zabalik geratu zela jakinik, inguruetan zituzten soldadu gehienak mugan bildu zituzten. Baina alferrik izan zen. Dena den, nahiz eta erreboltariek garaipena aise lortu zutela iruditu, errealitatea bestelakoa izan zen. Borroka odoltsuen artean lortu zuten aurrera egitea matxinatuek, nahiz eta era guztietako laguntzak jaso, eliteko tropak barne, hots, Legioa eta boluntarioak eta asko motibatutako errekete eta falangistak, kasu askotan gainera, prestakuntza militarra ere bazutenak.

### DONOSTIAREN OKUPAZIOA

Irun konkistatu ostean, matxinatutako tropen helburua Gipuzkoako hiriburua, Donostia, zen, presioa bi frontetatik eginez: Hernaniko errepidetik –inguruetan, Andoainen, Iruretagoyenaren tropak zeuden abuztuaren amaieratik– eta Irungo errepidetik aurrera eginez. Aurrerapen hori hiriari egindako etengabeko bonbardaketekin tartekatu zen. Errepublikarrak, beren aldetik, arerioaren aurrerapena atzeratzen saiatu ziren Jaizkibel eta Gaintxurizketa artean defentsa-lerro bat osatuz, Oiartzun eta Hernaniko gotorleku eta gailurrekin lotzen zena: San Markos, Txoritokieta, Santiagomendi, Oriamendi eta Santa Barbara, XIX. mendean eraikiak hiria eraso karlistetatik babesteko. Irailaren 6an Errenteriako ebakuazioa agindu zen, eta biztanleriaren erdiak alde egin zuen.

Hegoaldeko fronteari dagokionez, operazioei irailaren 5ean ekin zieten berriro, Cayuelaren tropak Lasarte-Oriako eskualdera hurreratu zirenean. Operazio latza izan zen erreboltarientzat, beren gerra-parteek diotenez, 50 hildako eta zauritu izan zituzten. Egun horretan bertan Galiziako Legioa heldu zen (falangisten bost konpainia eta metrailadoreen konpainia bat) frontera. Hurrengo egunean, Urnietara heldu ziren, nahiz eta hiribildua utzi behar izan zuten errepublikarren bonbardaketa bortitzaren aurrean. Aldi berean, matxinatutako tropen beste talde batek Hernani eraso zuen Adarra eta Onyi mendietatik. Herria, tropa nazionalak sartuko ziren beldurrez, biztanleak ebakuatzen hasi zen. Lehen saiakera horrek porrot egin zuen, eta 41 hildako utzi zituen erasotzaileen artean. Geroago egindako kontraeraso batean, milizia errepublikarrek hogeita hamar bat hildako izan zituzten. Egun batzuk geldirik egon ondoren, Irungo frontetik etorriko ziren errefortzuen zain zeuden bitartean, Iruretagoyenak azken aldiz eraso zuen Hernani. Irailaren 11 eta 12a Hernani inguruko gailurrak menderatzeko egindako borroka latzen lekuko izan ziren, bertan, tokiko milizianoekin batera boluntario asturiarrak ere borrokatu ziren. Iruretagoyenaren indarrek eta Galiziako Legioak posizio horiek eskuratzea lortu zuten, bai eta Santa Barbara gotorlekua ere, defendatzaileek utzi ondoren. Egun horretan bertan hartu zuten Hernani indar horiek eta Lesakako Tertzioaren zati batek. Donostian, hiritarrak ebakuatzeko erabakia hartu zen. Eskuin aldeko presoak Bilbora eraman zituzten itsasoz egun batzuk lehenago, oso egoera txarrean, zementu-ontzi bateko sotoetan. Haiekin batera utzi zuten hiria Donostiako banketxeetako fondoek.

Egun bat geroago, hilaren 13ko goizean, Becerra komandantea buru zuen unitate batek Errenteria hartu zuen, baita Pasaia eta San Markoseko gotorlekua ere. Donostiako eskualdeko konkista burutua zen. Ikuspuntu militarretik hiriaren defentsa ezinezkoa zen: Molaren tropak ateetan zeuden jada Errenteria, Hernani eta bere inguruko gailurrak konkistatu ostean, hiriaren azken defentsa-lerroa ordurako okupa-

tuta zegoen eta edozein unetan Bilbora ihes egiteko bidea blokea zezaketen. Donostia ia erabat setiatuta zegoen. Bere defentsak kaleko borroka bat besterik ez zuen piztuko, hildako asko utziko zituena eta hiria suntsituko zuena.

Pasaiako eremua hartu ostean, Lacar Tertzioko konpainien misioa Donostiako inguruak okupatzea zen, baina konpainietako bat, Ureta kapitaina buru zuela, aurreratu egin zen eta hiriburu donostiarrean sartu zen egun hartako eguerdian bertan, azken defendatzaileek Oriora ihes egiten zuten bitartean. Ordu batzuk geroago, arratsaldeko laurak aldera, Los Arcos kolumnako tropak sartu ziren Donostian, Cayuela eta Iruretagoyenaren tropak Hernaniko errepidetik heldu ziren bitartean. Horrela, hiria guztiz harturik geratu zen. Donostia eskuratzea pizgarri ikaragarria izan zen erreboltarientzat, errepublikarrentzat, ordea, kolpe moral handia.

## Gerraren amaiera Gipuzkoan

Matxinatutako militarren aginte militarrak hiru kolumna antolatu zituen Gipuzkoako okupazio osoa bermatzeko. Los Arcos komandanteak gidatutako kolumna Gipuzkoako erdialderantz bideratu zen, Tolosatik Azpeitira doan errepidetik, han kokatuta zeuden defentsa-lerro abertzaleei aurre eginez. Iruretagoyenaren indarrek kostaldetik egin zuten aurrera, eta Alonso Vega Arlabango portutik sartu zen. Kolumna horien abiadurak –batez ere lehen egunetan–, alde errepublikarraren desmoralizazioa erakusten du. Gainera, kontuan izatekoa da matxinatutako aldeari tokikoek Gipuzkoako kostaldean eta sortaldean emandako laguntza txikiagoa zela. Koalizio kontrairaultzailea Azkoitian, Oñatin eta Legazpin bakarrik izan zen hauteskundeetako indar nagusia. Irailaren 17an lurraldeko erdialdeko operazioei ekin zitzaien eta 21erako Los Arcos komandantea Deba ibaiaren ertzean zegoen, bere mende Zumarraga, Urretxu, Azpeitia, Azkoitia, Oñati, Bergara eta Elgoibar izanik. Iruretagoyenak, bere aldetik, hilaren 15ean hasi zuen erasoa, kostaldeko errepidetik eta Villabona Oriorekin Andazarratetik lotzen duen errepidetik paraleloki aurrera eginez, eta topatzen zituzten herriak okupatuz. Erniotik itsasora luzatzen zen lerroa gainditzeko borroken ostean, aurrera egin zuten bidean erresistentzia handirik gabe. Aia hilaren 20an okupatu zuten eta Zarautz 21ean, bere defendatzaileek utzi eta CNTko miliziano batzuek udaletxeari su eman ondoren. Egun bat geroago, erreboltarien tropak Deban sartu ziren. Tropetariko batzuk barrualdera desbideratzen ziren bitartean, Elgoibarren zeuden tropei laguntzeko, gainontzekoek aurrera egin zuten Mutriku okupatu arte eta bertan eta beste hainbat puntutan Gipuzkoaren eta Bizkaiaren arteko muga okupatu arte. Egun horretan bertan, irailaren 28an, erreboltariek Kalamua mendia eta Arrateko ermita hartzea lortu zuten. Azken posizio hori

urriaren 2tik 8ra gertatutako gatazken agertoki izan zen, borroka nabarmenki baretzen hasi zen garaian.

Gipuzkoa okupatu zuen hirugarren kolumna abuztuaren 21ean hasi zen aurrerantz egiten. Une horretan Camilo Alonso Vega teniente koronela zen komandantea, geroko gobernu frankistetan ibilbide politiko luzea egingo zuena. Alonso Vegak, lehenengo, Arlabango portua eraso zuen; Arrasatetik zetozen miliziano-taldeek zuten gotorturik eta garrantzitsua zen Araba eta Gipuzkoa lotzen baitzituen. Errepublikarren erresistentzia gogorra izan arren, munizio-eskasiak eta erreboltarien kolumnaren artilleriak gobernuaren taldea ihes egitera behartu zuen. Erasotzaileen esku geratu zen Gatzaga. Bi egun geroago, Eskoriatza erori zen eta 24an Aretxabaleta. Arrasatek, ordea, beste bi egunez eutsi zuen; artean, hiri sarrailagileari eraso egiteko behar zituzten inguruko gailurrak menderatzen gatazka bortitzak gertatu ziren. Gobernuaren taldeak errefortzuak jaso zituenez, ezinezkoa izan zitzaien Kanpantzarretik Bizkaira aurrera egiten jarraitzea. Matxinatuek Debako haran osoa okupatu zuten, Aramaio (Araban) eta Eibar eta Elgeta (Gipuzkoan) salbuespen izanik. Azken bi herri horiek kalte handiak jasan zituzten kontraeraso frankistan, 1937ko udaberrian. Ordura arte, eta aldian aldiko liskarrak alde batera utzita, borroka geratu egin zen, eta etenaldi horretan, une batzuetan bi aldeek "adiskideen" arteko harremana ere izan zuten, elkarren artean tabakoa eta egunkariak trukatuz.

Erasoa gelditzeko arrazoiak seguruenik honen abiadurarekin daude erlazionaturik, gehiegi zabaldu baitzituen hornidura-lerroak eta konkistatutako lurraldean soldadu gehiegi erabili beharra izan zuten, eta, horrez gainera, errepublikarrek jarritako erresistentzia, gero eta gogorragoa baitzen erreboltariak Bizkaira hurbiltzen ziren heinean. Beste bi faktorek ere izan zuten eragina: alde batetik, abertzaleak gerran sartzeak eta, bestetik, armak eta munizioak heltzeak; izan ere, horrek aukera eman zien errepublikazaleei erasoei aurre egiteko eta kontraerasoan aritzeko; San Prudentzion gertatutakoa da horren adibide, Bergarako hegoaldean, Arrasatera doan errepidean. Beste arrazoi nagusi bat gerrako beste eskualde batzuetako ekintzak areagotzea izan zen, batez ere gerraren operazio nagusiak Madrilera mugitzea. Errepublikarrek Gasteizen zuzendutako erasoaren porrota, Legutiano igarotzea lortu ez zuena, 1936ko azaroaren amaieran, Iparraldeko Fronteko azken gerra-ekintza garrantzitsua Legutianon gertatu zen, eerpublikarren asmoa Gasteizera heltzea izan zen, baina ez zuten Legutiano igarotzea lortu. Kanpainak gutxi gorabehera 3.000 hildako utzi zituen bi aldeetan. Pertsona askok beren etxeak galdu zituzten eta biztanleriaren zati handi batek Frantziara edo Bizkaira ihes egin zuen. Haietariko batzuk hilabete batzuk geroago itzuli ziren, baina beste asko ez ziren sekula bueltatuko. Arrien eta Goioganaren hitzetan (2002, 11) 15.000 eta 20.000 artean ibili zen Frantziako toki ezberdinetara heldu ziren gipuzkoarren kopurua. 10.000 bat pertsona Kataluniara joan ziren,

zehaztu gabeko kopuru bat egun batzuk igarota Gipuzkoara itzuli zen eta gainontzekoak, 5.000 pertsona baino gehiago, Frantzian geratu ziren, departamendu ezberdinetan banatuak gerrako errefuxiatu gisa. Beste 100.000 lagunek Bizkaian bilatu zuten babesa.

## Errepublikarren porrotaren arrazoiak

Errepublikarrek Gipuzkoan porrot egin izanaren arrazoiak bi bloke handitan bil daitezke: arrazoi militarrak direnak, besterik gabe, eta arlo politikoekin erlazionatutakoak. Lehenengoak taktikarekin, esperientzia militarrarekin eta bando nazionalak su egiteko zuen potentziarekin daude erlazionaturik. Horrela, erasotzaileek artilleria ugari erabiltzeari eta armamentu hobea izateari gehitu zitzaion indar errepublikarren arteko koordinazio-falta. Errepublikarrek porrot egiteko beste arrazoi bat agintari militar iraunkorrik ez edukitzea izan zen, buruzagiak desagertu egiten baitziren arrazoi ezberdinengatik; gainera, sarritan, milizianoek ez zituzten betetzen goikoen aginduak; kasu askotan kartsuak izan ohi ziren, baina trebakuntza eskasekoak eta zuten armamentua ere ez zen aproposena, batetik ez zelako eraginkorra eta, bestetik, ez zitzaizkielako iristen gudari guztientzako mota berdineko armak. Dena den, agian, errepublikarren aldean izandako gabezia nagusiena, eta Gipuzkoako gerraren norabidean erabakigarria izan zena, armamentu- eta munizio-falta izan zen.

Faktore "teknikoez" gain, elementu politikoek pisu nabarmena izan zuten errepublikarren porrotean. Hiru dira garrantzitsuenak. Lehenik eta behin, Gipuzkoa defentsa-junta ezberdinetan banatu zen, eta era autonomoan eta anarkikoan jarduten zuten batzar iraultzaileak eratu ziren. Erakunde ezberdinen arteko mesfidantzek, liskar alderdikoiek eta egitura antolatzaile eraginkor bat eratzeko gaitasunik ezak ordena konstituziogilearen aldekoen jarduera zaildu zuten. Bigarrenik, matxinadaren aurrean piztutako indar politikoen arteko tirabirak ditugu, beren artean norgehiagoka ibiltzen baitziren, CNTk Loiolako armak hartzea da horren adibidea. Talde errepublikar moderatuak ia erabat desagertzea beste bat. Batasun-falta horren adierazpenik garbiena EAJren hasierako jarrera zalantzatia izan zen. Mende-hasieratik EAJ bere munduko ikuspegi bera partekatzen zuten eskuineko indarrekin elkarlanean ibili ondoren, autonomia lortzeko bira ematen ari zen eta ordura arteko kideengandik aldentzen; egoera horretan guztiz deseroso zebilen aliatu berriekin. Altxamenduko lehen hilabeteetako jarduera batez ere bere kideak kontrolatzea izan zen, eraikin erlijiosoen erasoak edo eskuinekoak hiltzea galaraztea besteak beste, eta ez gerrarako ahalegina egitea. Autonomia Estatutua lortzea eta atzerritik armak eta munizioak jasotzea erabakigarriak izan ziren abertzaleak aktiboki eta erabat inplikatzeko ma-

txinatuen aurkako gerran. Alabaina, beranduegi zen Gipuzkoa salbatzeko eta, azken buruan, Euskadi autonomoa salbatzeko. Hirugarren osagaia ezkerreko muturreko erakundeek garatutako prozesu iraultzailea dugu, komunistek eta anarkistek bereziki. Talde horiek izan ziren Donostiako altxamenduaren porrotaren eragile nagusiak, agintari legalak gainditu zituzten, esparru propioa eratuz, baina oso zatitua zegoen eta erresistentzia-gaitasuna ahuldu zuen. Era berean, ez zuten aintzat hartu otsaileko hauteskundeetan zentro-ezkerreko alderdiek probintziako erroldaren %30 besterik ez zutela ordezkatu eta hiriburuko erroldaren %47. Beren ekintzetako askok, eta errepresioak –kasu batzuetan basatia eta bortitza– Errepublikari lagundu beharrean, hiritar asko urrundu egin ziren posizio horretatik, nahiz eta ez izan matxinatutako militarrekiko sinpatiarik. Edozein kasutan ere, faktore askoren batuketak eragin zuen errepublikarren porrota, eta Gipuzkoa frankismoarentzako operazio-gune garrantzitsu bihurtu zen. Baina, horretarako, lehenik konkista sendotu beharra zegoen eta helburu hori betetzeko ezinbesteko tresna zen errepresioa.

IV

# GERRA ZIBILEKO ERREPRESIOA BI ALDEETAN: EREDUAK ETA DATU OROKORRAK

## SARRERA

Gerra oro eta, bereziki, gerra zibilak bataila-eremua gainditzen duten espazio ezberdinetan garatzen dira. Horietariko espazio bat borrokan dauden aldeentzat arriskutsuak diren edo potentzialki izan daitezkeen pertsonen edo taldeen kontrola, zainketa eta jazarpena da. Gerra garaikideak, borrokalarien eta borrokalari ez direnen arteko bereizketa lausotzean, ezaugarri hori nabarmendu egin du eta, zentzu horretan, Espainiako Gerra Zibila Bigarren Mundu Gerra izango zenaren aurrekari paradigmatikoa izan zen, II. Mundu Gerra izanik militarrak baino hildako zibil gehiago izango zituen lehen gatazka moderno handia. Gure Gerra Zibilean garatutako errepresioak alderdi eta eredu ezberdinak izan zituen, eta helburua aurkako pertsonek eta erakundeek erresistentziarako zuten gaitasuna deuseztatzea zen. Nahiz eta atal honetan Gipuzkoa errepublikarren eskuetan egon zen bitartean izandako errepresioa aztertuko dugun, gure arreta handiena matxinatutako militarren fakziotik sustatutako errepresioan jarriko dugu, biziena, luzeena eta ondorio gehien izan zituena izan baitzen. Erreboltarien errepresioak hiru ikuspuntu izan zituen: 1) menderatze soziopolitikoa 2) alde legitimoari erantzun posible bat emateko asmoa kentzea eta 3) militar matxinatuek eta beren laguntzaileek irudikatutako baloreen aurkakoa ordezkatzen zuen guztia fisikoki deuseztatzea. Kapitulu honetan, lehen bi modalitateak landuko ditugu bereziki. Horretarako, Pedro Barruso Baresen lana jarraituko dugu batez ere; bere 2005eko lanean, *Violencia política y represión en Guipúzcoa durante la Guerra Civil y el primer franquismo (1936-1945)*, matxinatuek neutral edo altxatutako militarren aurka azaldutako eta altxamenduari batu ez zitzaizkion gipuzkoarren aurka errepresioa gauzatzeko erabilitako era desberdinekin mapa bat eratu zuen, besteak beste.

Gaian sakondu aurretik, zalantzan jarri nahiko genuke gai hau landu duten historialari askok "errepresio ilegalaren" eta "legeztatutako errepresioaren" artean egiten duten bereizketa. Lehenengoa bortitza, basatia eta inongo kontrolik izan ez zuena, gerraren lehen uneetan garatu zena; eta bigarrena agintari berriek eta 1936ko urriaren 1ean autoizendatutako estatu berriak arautu zuena. Gero eta zentzu gutxiago duela

bereizketak uste dugu (Vega Sombría, 2005, 83). Baieztapen hori egiteko bi arrazoi ditugu. Lehenik eta behin, badakigu militarrek zuzenduriko errepresio guztia argi eta garbi ilegala izan zela; izan ere, agintaritza zibil legitimoetatik (Gorteek gainbegiratutako Errepublikako Presidentea edo Gobernuaren dekretua) bakarrik bideratu zitekeen gerra-egoera, eta ez gertatu zen legez, eratutako gobernuari zin egindako leialtasunari muzin egin zioten militarren eskutik. Bando militarrek, gainera, segurtasun juridikorik eza sortzen zuten, ez baitzuten zehazten salbuespenezko legeriak indarrean noiz arte iraungo zuen. Berez, nahiz eta gerra 1939ko apirilean amaitu zen, gerra-egoerak 1948ko uztailera arte iraun zuen indarrean, une hartan 1946an iadanik ez zegoela indarrean adierazi bazen ere. Errepresio-ekintzaren zati bat ezarritako prozedura legalei jarraiki egin zela onartzeak, honako hau ekarriko luke: batetik, gerra-kontseilu batek (auzipetutako guztiei heriotza-zigorra jartzen ez ziena) epaituak izateko "zortea" zutenen defentsarik eza ontzat hartzea eta, bestetik, nolabait altxamendu militarra prozedura juridiko edo militar legitimoetan oinarritu zela onartzea.

Bigarren arrazoia, gure aburuz, garrantzitsuagoa da: uztailaren 17tik aurrera Espainiako eskualde ezberdinetan jazotako gertakariek erakusten zuten gero eta argiago altxamenduko buruzagien aginduei erantzunez erabiltzen zutela indarkeria eta muturreko zapalkuntza mendekoek. Mola jeneralak gatazka piztu baino hilabete batzuk lehenago botatako esaldi batek –ondoren mila aldiz errepikatua– adierazten zuen indarrean jarri beharra zegoela muturreko indarkeria «acción en extremo violenta para reducir lo antes posible al enemigo...» eta, behar izanez gero, zigor eredugarriak aplikatu behar ziren disidentzia guztiak deuseztatzeko, «...castigos ejemplares». Ez bakarrik hori; Extremadura, Galizia, Segovia, Burgos, Errioxa, Nafarroa edo Arabari buruz egindako ikerketek adierazten dutenez, gerraren lehen hilabeteetako errepresio ilegal edo espontaneo hori agintari berriek kontrolatzen zuten –salbuespen batzuekin–, hala militarrek nola zibilek. Osterantzean, ez dago eten kronologiko zehatzik eredu "espontaneoaren" eta "instituzionalizatuaren" artean. Gipuzkoan bertan, kasu bat edo beste ezagutzen dugu, Ordiziako Antonio Murua Arruabarrena abertzalearena esaterako, 1936ko abuztuaren erdialdera exekutatua Nafarroako Etxarri-Aranazen, gerra-kontseilu bat izan ostean, eta, bien bitartean, beste hainbat exekutatu ziren urriaren edo abenduaren amaieran, inongo epaiketarik izan gabe.

Zigor-jurisprudentziak bi esparru zituen. Lehena Altxamendu Nazionalaren aurka zeuden guztiei jazartzen zien errepresioa, gerra-auzitegi eta gerra-kontseiluen bidez kartzela eta heriotza-zigorrak ezarriz. Bigarrenak, alderdi errepublikarreko jarraitzaileak zigortzera bideratutako xedapenak biltzen zituen, esaterako, Ondasunak Konfiskatzeko Dekretua (1936/37), Erantzukizun Politikoen legea (1939) eta enplegatu publikoen garbiketa. Nahiz eta gu gerra-garaira mugatuko garen, erregimen fran-

kista oinarritu zeneko indarkeriaren eta errepresioaren larritasuna bere osotasunean ulertzeko, gutxienez, berrogeiko hamarkadara arte luzatu behar da begirada. Hain zuzen ere, behin gerra amaitu zenean, ustez, kanpotik mota guztietako erakundeek babesten zuten barne-erresistentzia hipotetiko baten aurkako corpus legegilea eratu zen estatua "defendatzeko", oinarrian 1940ko Komunismoaren, Masoneriaren eta Judaismoaren Errepresiorako Legea eta 1941eko Estatuko Segurtasunerako Legea zituena. Matxinatuek eratutako esparru "legaletik" kanpo, agintari berriak eta gerra irabazi zuten taldeak beren indarraz baliatu ziren mota guztietako burugabekeriak egiteko, garaituak publikoki iraintzetik hasi eta, haien aurkako indarkeria era ezberdinetan gauzatzeraino, heriotza barne.

Alde errepublikarrean egindako errepresioak, jarraian ikusiko duguna, ez zien parametro berdinei erantzuten, nahiz eta erreboltariek egindakoaren aurrean indarkeriaz eta errepresaliaz beteriko jazoerak gertatu ziren; talde informalek edo Frente Popularreko sektore erradikalenei lotutakoek egindako ekintzak izan ziren. Agintari legitimoak, baita uztailaren 17tik aurrera sortutakoak ere, interes eta zorte handiago edo txikiagoarekin, ekintza horiek geldiarazten saiatu ziren, baina hainbat sektoreren erradikaltasunak eta sumindurak gainditu zituen. Denborak aurrera egin ahala, abuztuaren amaierarako, tresna juridiko normalizatua eraikitzen hasi ziren, baina pertsonal juridikorik ezak eta eginkizun horietarako aukeratutakoen prestakuntza eskasak zaildu egin zuen lana (Aróstegui & Godicheau, 2006, 45). Euskaldunen kasuan, herri-auzitegi errepublikarrak urte horretako urritik aurrera hasi ziren funtzionatzen eraginkortasun osoz Bizkaiko lurraldean.

Hasierako erantzukizunak, planteamendu ezberdinek eta borrokan zeuden bi aldeetan gauzatutako errepresioaren neurri ezberdinak kontuan izan arren, ezin dugu ahaztu alde batean edo bestean legez edo legez kanpo, zapalkuntza eta zigorrak bizi izandakoek antzeko esperientziak izan zitzaketela. *Días de Llamas*, Juan Iturralde (1979) idazleak Madril errepublikarreko txeka komunista batean preso egondako epaile bati eskainitako eleberria, kalitateari eta sakontasunari dagokionez, Alberto Méndezen (2005) *Los Girasoles ciegos* lanarekin berdindu daiteke, 1939ko apirilean izandako errepresioari buruz idatzitako narrazioen multzoa. Manuel Chaves Nogales kazetari errepublikarrak (1936an erbesteratua bi aldeetan ikusten zuenak nazkaturik) 1937an *A sangre y fuego* idatzi zuen, Queipo de Llanoren Andaluzian eta Espainia errepublikarrean burututako sarraskiak gurutzatzen zituzten kontakizun laburren multzoa. Ikerketa honetan zehar, gutxieneko erreferentzia batek kointzidentzia hori nolabait azaltzeko balio diezaguke. Jean Pelletier industrial frantsesak (frankistek *Galerna* itsasontzia harrapatu ostean Ondarretako kartzelan preso izandakoa) aske utzi zutenean idatzi zuen aipatutako kartzelako patiora lehen aldiz atera zenean, bertako hormek odol-orbanak eta azalen hondakinak eta giza ehunak zituztela (Pelletier, 1937,

52). Urtebete geroago, kartzela berean, 1936ko uztail- amaieraren eta irail-hasieraren bitartean, preso izandako Simón Ezquiagaren *Tolosa en el Alzamiento Nacional* argitaratu zen. Ez dugu uste karlista tolosar honek Pelletierren liburua irakurrita zuenik, baina Ondarretan bizi izandakoa kontatzean, esperientzia berdina aipatzen du:

> Efectivamente: la pared frontera a nuestras celdas estaba acribillada de orificios de balas. La mayoría se hallaba a una altura de setenta centímetros del suelo. La sangre de los mártires coagulada, trozos de tejidos salpicados e incrustados en la pared, fragmentos de sesos... en fin un espectáculo realmente trágico.

### Errepresio errepublikarra eskuineko elementuen eta matxinatutako militarren aurka

Gobernu errepublikarraren errepresioa pairatu zutenen ikertzaileek edo senitartekoek abantaila triste bat dute: 1936ko uztaileko altxamendu militarraren hasieratik, hildakoak, zauritutakoak, atxilotutakoak, zigor fisiko, moral edo ekonomikoak jasan zituztenak zenbatzeko ahalegin handia egin zuten matxinatuek.

> Sería, por cierto, bien lamentable que de una revolución tan cruenta, de una cosecha tan riquísima de heroísmos y martirios como antes no se ha dado en nuestra historia y difícilmente se dará en la de país alguno, no se formara el inventario completo. Sería sensible que se perdiera la más pequeña parte de la eficacia de tan poderosos ejemplos, e injusto que cayera en el olvido un solo nombre al que no pudiera ser tributado el merecido homenaje de admiración y gratitud. Claro es que ante Dios no hay héroes anónimos; pero también la Patria y la posterioridad quieren y deben honrar a todos y cada uno de sus héroes.
>
> (Echeandía, 1945, 20)

Interes hori, gainera, administrazio berriak «ex-cautivos, caballeros mutilados e hijos de los mártires de la Cruzada»ri eskainitako lehentasunezko arretan gauzatu zen, haientzat lanpostu ugari edo era ezberdinetako *sine cura*k gordez. Gerra-gatazka amaitu ostean, agintariek aipaturiko kontabilitatea Causa General-a izenaz ezagututako prozedura baten bidez sistematizatu zuten. Causa General-aren helburua oso sinplea zen: Espainiako eskuinak Gerra Zibila hasi zenetik pairatu zituen kalte pertsonal eta ekonomikoen zerrenda zehatza eskaintzea. Kasu batzuetan, zerrenda horrek, gainera, 1934ko urriko iraultza ere jasotzern zuen. Horretarako, Espainiako udalerri guztiei eskatu zitzaien informazioa, galdeketak bidali zitzaizkien bete zitzaten, eta Espainiako probintzia bakoitzarentzat txosten bat ireki zen. Bertan, atxilotu eta erail zituzten pertsonez gain, jasandako kalte ekonomikoak ere sartu ziren, eta hortaz, errepublikarrek 1936 eta 1939 bitartean zenbat edalontzi edo maindire bereganatu zituzten edo zenbat etxe suntsitu ziren jakiteko aukera badago. Dokumen-

tuen bilduma amaituta, laburpentxo bat besterik ez zen argitaratu, agian "zuriek" ez zutelako gerran zehar behar adina sufritu "gorrien" gainean egindako errepresioa justifikatzeko. Dokumentuak, ehunka kaxatan gordeak, Estatuko Fiskaltza Nagusian egon ziren harik eta, duela bi hamarkada, Madrilgo Archivo Histórico Nacional-era eraman ziren arte. Teorian, hor egon beharko luke errepresio errepublikarrari buruz jasotako informazio guztia. Alabaina, Causa General-ak eskaintzen dituen datuen okerrak, errepikapenak eta orokorrean informazioa puzteko joera erakutsi dute azken urteotan egindako ikerketek.

Gipuzkoaren kasuan, iturri horri, gerran zehar edo gerraostean, Gipuzkoa gobernuaren indarraren mendean egon zeneko hilabeteetan gertatutakoaren berri eman zuten hainbat liburu gehitzen zaizkio (Carasa, Echeandía, Ezquiaga, Loyarte, Morales, Sainz de los Terreros, Runy eta Valladolideko Unibertsitateko txostena). Oro har, matxinatutako militarren aldekoek pairatutako sufrimenduak nabarmentzen dituzte testu horiek, "gorrien" eta "separatisten" izaera gaiztoa ere azpimarratzen dute, eta orrialde propagandistiko anitz dute, baina André Zwingelstein (1936, 223) publizista frantsesaren muturrera iritsi gabe; izan ere, horrek idatzi zuen frontetik zetozen milizianoek lau egunetan Tolosako familia onenetako hogei neska bortxatu zituztela. Pérez Madrigal (1936, 8) sozialista erradikal ohiak eskuin muturreko aliatu berrien iritzi ona lortzeko, honakoa azpimarratu zuen: gobernuko alderdiak hainbat preso bizirik erre zituela, apaiz bat laurdendu zuela, dontzeila bati bularrak moztu zizkiola eta Andaluziako haurrak burdin batetik zintzilikatu zituela. Egoera hauek gorabehera, eta iturri horiek euskal historialarien ikerketa ezberdinekin bateratuz, Gipuzkoan 1936ko udan jazotakoa eta pairatutakoa nolabaiteko erraztasunez kontabiliza daiteke. Zailagoa da, errepublikarren kasuan bezala, biktimen eta borreroen aurpegien berri ematea, indarkeriaren psikologia azaltzea, atxiloketen errituak, kartzelara sartzea, epaiketak, paseoak eta fusilatzeak edota senitartekoek edota protagonistek bizitako larritasuna adieraztea. Ez da batere xamurra azaltzea, Ledesma Vera-ren (2003) hitzak erabiliz, hiltzen nola ikasten den, edo nola helburu horretarako armak zituztenak gutxiengoa izanik, gizarteko sektore garrantzitsu baten babesa, laguntza eta estalketa zuten.

Altxamendu militarraren ondorioz, lehenengo eta behin erakunde errepublikarrak bertan behera geratu ziren, ezkerreko masen dinamismoak gaindituta. Denbora batez, aipaturiko erakundeen ordez tokian tokiko defentsarako junta edo batzarrak sortu ziren. Gipuzkoako kasuan, Defentsa Junta 1936ko uztailean eratu zen, eta indarrean egon zen bitartean, irailaren erdialdera arte, bere mende geratu ziren probintziako gainerako erakunde eta organoak, eta horien artean egon ziren ia desagertuta zeuden egitura judizialak. Baina, ikusi dugunez, Defentsa Juntak zuen kontrolatzeko ahalmena ez zen nahikoa izan anarkisten, komunisten eta kidetasun po-

litiko argia ez zuten taldeen ekintza autonomoak eragozteko. Momentuko anabasaz baliatuz, beren errepresio-politika gauzatu zuten, baita saltokietan eta etxebizitzetan konfiskazioak eta lapurretak egin ere. Kontuan hartzekoa da, gainera, altxamendu militarraren lehen unean bertan hasi zirela eskuindarren atxiloketak, eta hilaren 20an José María García Fuentes, Errenteriako Círculo Carlistako idazkaria, hil zuten[16]. Beste 150 pertsona hil ziren hil berean, gehienak Donostian. Irun, Arrasate, Tolosa, Deba edo Eskoriatzan gertaturikoa, esaterako, esanguratsua izan zen pairatutako atxiloketen kopuruarengatik. Tokiko atxilotuekin batera, Gipuzkoako kostaldeko udatiar askok etxe barruko arrestatzeak edo behin-behineko kartzelaratzeak jasan behar izan zituzten. Gerrako itsasontzi atzerritar batzuk euskal kostaldera hurbildu ziren beren herrikideak jasotzeko eta gehiegikeriak ekiditeko. Gutxi gorabeherako datuen arabera, 800 pertsona inguru atxilotu zuten Gipuzkoan abuztuaren erdialdera arte, eta horietatik 472 Ondarretako kartzelan sartu zituzten, 168 Kursaalen eta beste 100 Guadalupen (Barruso, 1996a, 158). Zehaztu gabeko preso-kopuru bat Deba bailaratik Bilboko kartzelara eraman zuten.

Simón Ezquiaga tolosar tradizionalista preso egon zen, lehenik Tolosan, gero Ondarretan eta azkenik Bilbon. Berak idatzitako testu honetan oso era grafikoan adierazten da atxilotuekin izandako jarrerak eragindako sentimenduak nolakoak ziren:

> cuando paramos en el trayecto a San Sebastián porque nos ahogábamos, las sucias mujerzuelas se amotinaban y nos querían matar. En Ondarreta, el gran cordón de salvajes, con ojos de hiena, acecha con ferocidad e insulta. Somos corderos acumulados en grave silencio... Los frente-populistas blasfeman, destilan odio por sus bocas y sus ojos. Cada uno de los tipejos asquerosos nos mira como eligiendo su víctima, en nuestra violenta entrada a Ondarreta. Los tiranos «manda-más» son incapaces de frenar los ímpetus canallescos y rastreros de la plebe, y ésta tira golpes a diestro y siniestro, confundiéndose con los condenados. Al nuevo suplicio suenan bofetadas y otros excesos de los chulos (...) amenazando volverían a segar nuestras vidas; y a beber nuestra sangre. ¡Locura de sanguinarios!
>
> (Ezquiaga, 1938)

Pedro Barrusok hiru indarkeria-mota bereizi ditu fase honetan: Justizia Espontaneoa, Justizia Iraultzailea eta Herri Justizia. Justizia Espontaneoak bere adierazlerik onena Ondarretako erasoetan eta Tolosa, Guadalupe, Donostia eta Azkoitiko preso eskuindarren hilketetan izan zuen. Kontrolik gabeko ekintzak ziren, matxinatutako indarren aurrerapenak eragindako frustrazioari erantzuteko, era berean, zibilen kontrako aireko eta itsasoko bonbardaketekin eragindako hilketei erantzuteko. Hiriburuan, ezkerrak indarra zuen herrietan eta anarkisten edo komunisten patruilak bisitan ibiltzen zirenetan (Hernani, Irun, Deba eta Arrasate) izan ziren atxiloketa gehien. Kasu batzuetan, altxamenduaren ustezko jarraitzaileak ziren pertsonen hil-

16 Egun horretan bertan, Mola jeneralak Iruñetik ihes egindako "komunisten" talde bat fusilatzeko agindua eman zuen (Iribarren, 1937).

ketak, horien jabetzen aurkako ekintzak eta elizaren ondasunen eta eraikinen kontrako ekintzak egiten zituztenak.

Elizaren estamentuaren eta bere ondasunen aurkako erasoei dagokienez, aipatu beharra daukagu Gipuzkoan eta euskal probintzietan estatuko gainerakoetan baino eraso gutxiago gertatu zirela eta ahulagoak. Gipuzkoan lau erlijioso bakarrik hil zituzten. Horietariko lehena Pasaiako apaiz ekonomoa izan zen, Felipe Goena, uztailaren 27an eraila[17]. Horren atzetik Ricardo Vázquez mertzedarioa, Ondarretan preso egon ondoren, uztailaren 30ean hil zuten. Hirugarrena José María Alcibar, Itziarreko apaiz laguntzailea, anarkista-talde batek erail zuen abuztuaren 10ean. Azkenik, Eibarko apaiza, Eulogio Ulacia, irailaren 4an hil zuten. Euskal Herrian, guztira 45 apaiz eta erlijioso hil ziren errepublikarren esku. Hainbat eliza, komentu eta eskola erlijioso kuartel, kartzela eta biltegi moduan erabiliak izan ziren. Apaiz askok kaleko arropa erabiltzen zuten segurtasun-neurri moduan, baina herri gehienetan, elizkizunak normaltasunez ospatzen jarraitu zen.

Errepublikarren aldiko gertakari larrienak Donostian jazo ziren, non León Carrasco gobernadore militarra hil ostean, talde komunista batek kartzela eraso zuen uztailaren 30ean, eta 53 pertsona hil, gehienak militarrak. Ordurako, indar erreakzionarioak Tolosako inguruetan zeuden; iraultza-batzorde batek boterea eskuratu zuen uztailaren 31n, eta abertzaleak eta errepublikarrak bazterrean geratu ziren[18]. Abertzaleen ekintzari esker, preso asko aske utzi baziren ere, gau hartan bertan hamalau atxilotu (denak tradizionalistak) hiriburura eraman zituzten eta Pasealeku Berrian fusilatu zituzten. Gertakari hartatik aurrera, abertzaleek, errepublikarrek eta sozialista batzuek lortu zuten gehiegikeriak eragoztea. Presoen hilketak geldiarazi ziren; eta gatazkaren azken uneetan errepikatu ziren berriz Gipuzkoan, erretiratuz zihoazen milizianoen eskutik. Hala ere, ekintza bidegabeek jarraitu zuten, kasu bakan batzuk izan baziren ere (hilketak, konfiskazioak, miaketak eta abar). Norteko Ferro-

17 Egun batzuk desagerturik egon ostean, bere parrokiara itzuli zen; Bidebietan atxilotu zuten, sindikatuen lokaletara eraman eta gero kaleetatik paseatu zuten, non emakumeek iraindu zuten eta tratu txarrak jaso zituen. Jotzeko ahaleginetan zebilen taberna bateko jabea lurrera erori zen, eta hil zezaten eskatu zuen. Hala egin zuten. Mendizale-talde bat heldu zen orduantxe, eta gorpua kalerik kale arrastaka eramatea eragotzi zuen (Gamboa-Larronde, 2006).

18 Tolosako fusilatuak eraman zituzten milizianoek Gerra Komisarioaren ofizio bat zeramaten, Jesus Larrañagak sinatua, hainbat preso entregatzeko agindua emanez, eta horien izen-abizenak argi eta garbi zehaztuz. Alkateak eta zinegotzi gehienek dimisioa aurkeztu zuten, «aun a sabiendas de estar exponiéndose a la represalia de quienes consideraban más fácil y menos arriesgado matar en la retaguardia que en el frente. Y así, sintiéndose un poco culpables, salieron avergonzados del pueblo y buscaron acomodo en los pueblecillos de la costa, creyendo encontrar en ellos el medio de huir de aquel ambiente de sobresalto...» (Iñurrategui, 2006, 67-68). Urte batzuk geroago, Larrañagak bere inplikazioa ezeztatu zuen, horretarako norbaitek berak sinatutako orri zuri bat erabili zuela adieraziz. Simón Ezquiagaren iritziz, Larrañagak abuztuaren 24an Ondarretako kartzelaren aurkako eraso berri bat saihestu zuen (Ezquiaga, 1938).

karrillaren Burdinazko Zubiaren inguruan exekutatzen zuen talde batek Atotxako frantziskotarren komentuan zuen egoitza. Felipe Mujika abertzalearen arabera,

> Allí estaban unos individuos indeseables, desarrapados cuya sola presencia me hizo pensar que si nuestra causa estaba encomendada a tales sujetos, era preferible que vinieran los fascistas (Gamboa-Larronde, 2006, 407).

Larritasun handiko hurrengo gertakariak irailean izan ziren, Irun erori zenean; Hondarribiko Guadalupeko fortea izan zen istiluen gune nagusia. Gerrako lehen egunetatik aurrera, Guadalupeko fortea, uztailaren 24tik aurrera hain zuzen, kartzela moduan erabiltzen hasi ziren. Hara eraman zituzten Hondarribian atxilotutakoak, eta atxilotu horiei batu zitzaizkien Irunen eta Donostian atxilotutakoak abuztuaren amaieran. Bestalde, altxatutako tropen helburu militarretariko bat izan zen, eta hori agerian geratu zen *Almirante Cervera* eta *España* erreboltarien flotako itsasontziek abuztuaren amaieran hasita bonbardatu zutenean. Bonbardaketen eta matxinatutakoen erasoen errepresalia bezala, abuztuaren 19an, forteko hamahiru presori heriotza--zigorra ezarri zitzaien, baina sei bakarrik fusilatu zituzten. Irailaren 5ean, fortea zaintzen zuten abertzaleek utzi egin zuten; José Múgica abertzalea zen buru une horretan, eta EAJtik jasotako aginduak jarraituz, kartzela horretako ateak zabaltzeko ordena eman zuen. Atxilotutako gehienek eskainitako aukera aprobetxatu zuten eta gutxi batzuk geratu ziren barnean, muturreko elementuak kanpoan aurkituz gero, eraso egingo zieten beldur[19]. Hondarribi inguruko baserrietan ezkutatu ziren ihes egin zutenak. Nahasmen handiaren erdian, handik denbora gutxira, miliziano anarkisten talde bat heldu zen, eta tentsio handiko uneetan –atxilotuetako batzuek dirua eskaintzen zieten laguntzeagatik (Runy, 1938)– hamar bat preso fusilatu zituzten Donostiara ihes egin baino lehen. Nazionalak heldu zirenean, bost miliziano hartu zituzten preso fortean eta berehala fusilatu zituzten.

Fronte garbirik gabe gertatzen ziren borrokek sortutako nahasketek behin baino gehiagotan pasarte ilunak sorrarazi zituzten. Lezon, adibidez, itxuraz euskal abertzaletasunaren aldeko lau lagun hil zituzten uztailaren 29an: María Oyarzabal Lekuona 48 urtekoa, eta hiru semeak Domingo Usabiaga Oyarzabal 24 urtekoa, Crisóstomo 21ekoa eta Sebastián 17koa. Matxete batekin egindako zauriak zituen amak eta hiru semeek suzko armak egindako zauriak. 1941. urtean Causa General-erako egindako aitortzan, Francisco Usabiagak, hildakoen alargun eta aitak, zera adierazi zuen, hilketen egunean tiro batzuk entzun zituztela eta baserritik irten zirela ihesean. Harrezkero ez zituen gehiago bizirik ikusi etxekoak. Datak kontuan hartuta, ingurutik pasa ziren miliziano anarkista batzuengana zuzendu ziren susmo guztiak[20].

19 Abertzaletasunaren Agiritegia,1940.

20 AHN, Causa General 1335.

Beharbada, Pío Barojak CNTko kideek baserritar ugari mehatxatu zituztela eta haien aurka tiro ere egin zutela idatzi zuenean Lezoko gertakizun horretaz ari zen. Barojaren hitzetan:

> Lo que pasa es que esta gente de la CNT que anda por estas tierras vascas son gallegos, asturianos, navarros de la Ribera y aragoneses, los cuales se nota que sienten odio por el país (2005, 80).

Bien bitartean, Gipuzkoako Defentsa Juntak, gerra-komisarioaren bidez, era irregularrean eraturiko auzitegi mistoak, zibiko-militarrak, ezarri zituen (Barrusok justizia iraultzailea deiturikoa) Loiolan errenditutako militarrak eta Ondarretako kartzelan zeuden herrikide batzuk epaitzeko. Abuztuaren 14an, itsasoko bonbardaketa baten ostean, 8 militar epaitu eta exekutatu ziren, eta beste 7 hilaren 19an, matxinatuen ontzidiaren beste ekintza baten ostean. Abertzaleek eta, bereziki, Manuel Irujok egindako ahaleginek (diputatua eta geroago ministroa) ez zuten ezertarako ere balio izan. Donostian altxamenduan inplikatutakoen kontra egindako azken prozesua abuztuaren 26an izan zen. Bertan epaitu zituzten Muslera jenerala eta Baselga teniente koronela eta biak kondenatu zituzten heriotzara; 1936ko abuztuaren 27an exekutatu zituzten.

Ordena Publikoko Komisaria abertzaleen esku egon zen, eta eskuindarren bizitza bermatzera eta kultu katolikoaren defentsara bideratu zituen bere ekintzak. Berez, abuztuan egindako atxiloketa askoren helburua atxilotuak babestea zen, kontrolik gabeko patruilek ez zitzaten atera pertsona horiek beren etxebizitzetatik. Era berean, Ondarretako edo Tolosako kartzelei egindako erasoen moduko gertakariak ez errepikatzeko ahaleginak egin ziren, eta hainbat saiakeraren eta komisario aldaketen ostean batzorde eta junten kontrolik gabeko ekintzak etetea lortu zen. Izan ere, horien esku zeudenez ordena mantentzeko lanak, tokiko buruzagi eskuindarrak atxilotzen zituzten, etxebizitzak arakatzen zituzten eta abar, askotan inongo justifikaziorik izan gabe. 1936ko abuztuaren 23 eta 25eko dekretuei jarraiki, estatuko kanpo-segurtasunaren kontrako delituen, sedizioaren eta iraultzaren aurkako Auzitegi bereziak eratu ziren, eta "matxinadarekin eta sedizioarekin erlazionatutako kausak" aztertzen zituzten. Horiek eratzean, Gipuzkoako Defentsa Juntak eskumenak galdu zituen eta Herri Justiziaren faseari eman zitzaion hasiera. Nahiz eta ez dakigun aldaketa legalaren ondorio edo ekintza espontaneo bat izan ote zen, Herri Auzitegi batek, geroago desagertu zenak, 22 pertsonaren exekuzioa epaitu eta agindu zuen, hiriburuaren ebakuazioa baino egun batzuk lehenago; horien artean pertsona ezagunak zeuden, Víctor Pradera eta Javier bere semea, Jorge Satrustegui eta Pedro Soraluce, besteak beste.

Une hartan, Donostiako azken egun "errepublikarretan" ahaleginak errepikatu ziren Guadalupeko fortean jazotakoa saihesteko. Horrela, presoak itsasontzi batean sartu eta Bilbora eraman zituzten irailaren 8an, tropak Donostiatik ebakuatu

zituzten egun berean. Horietariko batzuk kartzela-ontziei eta Bilboko kartzelei egindako erasoetan hil zituzten 1937ko urtarrilean, beste batzuk, aldiz, Euzkadiko Herri Auzitegiak epaitu zituen, eta zigor desberdinak erabaki ziren haientzat. Beste hainbat ez zituzten epaitu eta kartzelan egon ziren tropa nazionalek 1937ko udan Bizkaia okupatu zuten arte, une horretan militante nazionalisten laguntzari esker aske geratu ziren, batzuk Bilbon eta beste batzuk Turtziozen (Carasa, 1938, 323).

Causa General-aren arabera, errepublikarren kontrolak iraun zuen bitartean, Gipuzkoan 343 pertsona hil ziren, nahiz eta horietariko batzuk ez ziren probintzian bizi, eta biktima horietariko batzuk Bilbon arestian aipatutako erasoetan hildako gipuzkoarrak izan ziren. José Echeandía apaizak (bera ere gatibu egon zen) esan zuen errepublikarrek Donostian egindako hilketen kopurua ezin zela era zehatz batean argitu, baina hirurehun inguru izango zirela (Echeandía, 1945, 267). Azken ikerketen arabera (Egaña, 1998), 280 hildako izan ziren. Datuen arteko ezberdintasuna ulergarria da, egun horietan Gipuzkoan udatiarrak eta biztanleria mugikorra zeuden eta. Polloeko hilerri donostiarrean ezarri zen oroitzapenezko hilarriak ere agerian utzi zuen informazio zehatzik ez egotea.

> De Julio a Septiembre de 1936, durante la dominación de la ciudad por los elementos del Frente Popular y sus adeptos, se cometieron en esta plaza multitud de asesinatos en personas, algunas de ellas ilustres, de San Sebastián, que están enterradas en este cementerio.

Gerra-garaiko bortxakeria ez zen izan gatazka militarraren gailurra, besterik gabe, ezta iraultza-garaiko nahasketaren berezko adierazlea ere. Ledesma Vera-ren ustez (2003), bortxakeriaren erabilera ez zen izan kasu guztietan Errepublika-garaiko gatazken jarraipena, matxinatuek armekin altxatzean sortutako botere-hutsunearen ondorioa baizik. Botere-hutsune horrek indarraren erabileran zegoen monopolioa desegin zuen eta gertaera horrek ateak ireki zizkion iraultzari eta bortxakeria kolektiboari. Ledesmaren iritziz, bortxakeria ez zen izan gerraren arrazoia, estatu-kolpearen ondorioa eta adierazlea baino. Kolpe-saiakerak huts egiteak, bestetik, ateak ireki zizkion gerra zibilari, eta aurretik zeuden talde guztiak bitan, edo bi bandotan, banatu ziren. Beraz, botere-hutsune hori ezinbesteko baldintza izan zen, bortxakeria eragin eta bizkortu zituzten bestelako arrazoiek ateak zabalik aurkitzeko. Horien artean daude errepublika-garaiko gizarte-gatazkak, tokiko boterearen inguruan izandako borrokak eta iraultza-ahaleginen aurkako erresistentzia. Bortxakeria-mota horrek Frantziako eta Errusiako iraultza-saioetan izandakoaren antza du, baina ez zen boteretik antolatutakoa eta bultzatutakoa izan. Horrela, estatu errepublikarra berrantolatu eta egonkortu zenean, berezko bortxakeria horrek atzera egin zuen, baina Gipuzkoan beranduegi gertatu zen hori. Beraz, bortxakeria-mota hori ez zen sistemaren parte, eta ez zuen agintari legalen babes eta bultzadarik izan. Ez zen Estatu totalitario baten emaitza, Estatuaren gabeziarena baino.

"BESTE" ERREPRESIO FRANKISTA: KONFISKAZIOAK, ISUNAK ETA ABAR

...creen que todos los crímenes que se han cometido en nuestro país y que se trata de juzgar y sancionar por esta justicia inicial han sido debidos exclusivamente a la pasión política, y esto no es cierto, la mayoría de ellos han sido hijos de impulsos bastardos, de envidias y venganzas personales, de malquerencias anteriores y casi todos han sido inspirados por un bajo espíritu de odio, de represalia, que nada tiene que ver con la pasión política que puede ser noble y grande[21].

Bigarren Errepublikaren aurkako altxamendu militarra gertatu eta hilabete gutxi batzuetara, ia Gipuzkoa osoa matxinatuen esku zegoen. Horiek, aipatu dugun legez, errepresiorako estrategia eta makinaria garatu zuten lehen egunetik, eta garaitua fisikoki deusezteaz gain eta "atzealdea" garbitzeaz gain, corpus legegile *sui generis* bat eratu zuten, garaituei bizirauteko askatasuna, ondasunak eta bitartekoak kenduko zizkiena. Azken finean, edozein disidentzia ezabatzea zen helburua. Errepresio-prozesu hauek gizarte-maila guztiei eragin zieten, garbitzeko ahaleginean; izan ere, azken finean, gizartea berriro hezi nahi zuten balore tradizionaletan oinarrituz. Jarduera horretan, zeregin garrantzitsua bete zuten armadak –bere esku zituen ordena eta justiziaren administrazioa–, Eliza Katolikoak eta matxinadaren inguruan zebiltzan erakundeek. Apaizek, alkateek eta Comunión Tradicionalistaren eta Falange Españolaren tokiko batzordeek egindako txostenak oinarrizko piezak ziren militarren errepresiorako. Horiek guztiek, hein handiago edo txikiagoan, hartu zuten parte zigor-ekintza, fusilatze eta exekuzioetan; era berean, "zerrenda beltzen" eraketan, konfiskazioetan, isunetan, langileen kaleratzeetan, erbesteratzeetan, zapalkuntza publikoetan, ile-mozketetan eta beste hainbat zigorretan. Gipuzkoako populazioaren zati handi bat, gehiena euskal abertzalea edo errepublikarra, errepresioaren biktima zuzena edo zeharkakoa izan zen (seme-alabak, emazteak, gurasoak), nahiz eta kasu askotan ez dagoen 1936ko gerran, gerraostean eta Francoren diktaduran bizitakoa eta sufritutakoa jasotzen duen dokumenturik.

Matxinatutako alderdiaren jarraitzaile batzuk saiatu ziren errepresioaren ondorioak apaltzen, baina horrelako kasuak ez ziren asko izan. Gipuzkoak, beste hainbat probintziak bezala, zapalkuntzazko eta beldurrezko erregimena bizi izan zuen, nahiz eta beste leku batzuetan baino hildako gutxiago izan ziren. Justo Mokoroa eskolapioak, Tolosan eta Iruñean hilabete batzuk ezkutaturik egon ostean, 1936an erbestera egin behar izan zuen alde, eta honela deskribatu zuen egoera:

Desbordados completamente los jefes por los subalternos y por la gentuza armada nada valen las recomendaciones, ni las promesas, ni siquiera los salvoconductos oficiales. (...)

21 Federizo Zabala Allende: *Justicia inicial*. 1945, argitaragabeko lana. Abertzaletasunaren Agiritegia. Federico Zabala Fondoa, 0010, c.1.

No ha sonado una voz compasiva en nombre de la caridad cristiana. Por todas partes se percibían en cambio incitaciones a la venganza y al exterminio. Destacan (los periódicos) *Arriba España* y *Unidad*.

(Gamboa-Larronde, 2006, 11 eta 114)

Ignacio Arrieta erreketeen tenienteak (1937ko abuztuan Frantziara egin zuen ihes) honela definitu zituen erreketeak: «fieras sedientas de sangre humana. El espíritu que los anima se condensa en estas frases que se oyen en cada momento: "hay que matar a todos los rojos, a todos los nacionalistas vascos y simpatizantes, a todos los sospechosos"» (Gamboa-Larronde, 2006, 166). Urtebete lehenago, falangistek eta karlista nafarrek Gaztelu herria hartu zutenean, 1936ko uztailaren 24an, estatutuaren aldekoak deuseztatzeko asmoa azaldu zuten, «esos vascos» ziren erditik kendu behar zirenak (Gamboa-Larronde, 2006, 148). Bi egun geroago, Ataun okupatu zutenean, bi neskatilak uko egin zioten besoa altxatzeari eta biak fusilatzekotan eta haien etxea erretzekotan egon ziren, baina apaiz baten bitartekotzari esker saihestu zen tragedia. Boluntario horiek berek Tolosan sartu zirenean, beraiekin batera heldu ziren arpilatzeak, isunak, atxiloketak eta exekuzioak. Ignacia Marquet tolosarrak Frantziara ihes egiteko aukera izan zuen José Arámburu Gipuzkoako Gerrako Junta Carlistako presidente ohiak eskainitako laguntzari esker; abertzaleen aurkako gorrotoa azpimarratzeko honako hitz hauek erabili zituen Marquetek adierazpen batzuetan: «los tradicionalistas rezuman odio contra los nacionalistas». Egoera horretan, nahiz eta komandante militarrek hilketen errudunak atxilotzeko ahaleginak egin, erreketeek presioa egin zuten exekuzio irregularrengatik atxilotutakoak aske utzi zitzaten (Gamboa-Larronde, 2006, 337). Irailaren 13an hartu zuten Pasaia erreboltariek, eta kapilau errekete bat Gelasio Aramburu apaiza lasaitzen saiatu zen, esanez, ez zituztela abertzale guztiak hilko, buruzagiak bakarrik, «únicamente a los dirigentes» izan ziren hitzak (Gamboa-Larronde, 2006, 514). Karitatea aldarrikatzen zuten erlijiosoak abertzale susmagarriak ziren eta, hortaz, jazarri zitzaketen. Errepublikarrak indarrean zeudela abertzaleen laguntza jaso zuten eskuindarrek isilik geratu behar izan zuten gero, haiekiko lotura edo esker ona azaldu nahi izan arren, abertzaleen kontrako kanpaina prentsak hasi zuenean, lurraldean gertatzen ari ziren zoritxar guztien errua abertzaleena zela hedatzen hasi baitziren.

Errepresio frankistaren muturreneko kasuak edo adierazpiderik gogorrenak matxinatuen bandoaren aurka egin edo laguntzarik eman ez zioten pertsonen hilketen inguruan gertaturikoak izan ziren. Hurrengo kapituluan aztertuko ditugu arreta bereziz, baina beharrezkoa iruditzen zaigu azpimarratzea militar erreboltarien eta beren akolitoen ekintza beldurrarazlea ez zela "bero-beroan egindako errepresiora" mugatu edo indarrean zegoen erregimen konstituzionalari leial zitzaizkion pertsonen aurkako gerra-kontseiluetatik ondorioztatutako errepresiora. Franco hil

eta ondorengo urteetan, errepresio frankistaren inguruan egindako ikerketek fusilatzeak eta exekuzio sumarioak izan zuten jomuga; 1990etik aurrera, aldiz, konkistatutako herria menderatzeko matxinatuek erabilitako bide ezberdinak azaltzen zituzten lehen ikerketak argitaratu ziren (Álvaro Dueñas, 1990, 1994, 1996; Mir, 1994). Gipuzkoako kasuan, Pedro Barrusok (2005) egin du gaiaren inguruko ikerketarik sakonena.

Donostia eta ia Gipuzkoa osoa okupatzen ari ziren bitartean, matxinatuen ekintza sistematizatuko zuen egitura "juridikoa" garatzen ari ziren. Donostia, gainera, erresistentzia luze baten ostean frankisten esku erori zen lehen hiriburuetako bat izan zen eta, hortaz, gainerako Espainia errepublikarrak Gipuzkoa izan zuen gertatuko zitzaionaren eredu.

1936ko irailaren 15ean, *La Voz de España* tradizionalistaren lehen alean (*La Voz de Guipúzcoa* errepublikarra ordezkatu zuen egunkaria), 1936ko uztailaren 28ko bandoa argitaratu zen, zeinaren bidez Junta Nacional de Defensa izenekoak gerra-egoera aldarrikatu zuen. Hortik aurrera, Kode Militarraren mende geratzen zen justizia. Defentsa Batzar Nazionalaren 108. dekretuak (irailaren 13koa) legaltasun errepublikarrari leial izandako alderdi guztiak legez kanpo utzi zituen, eta "Estatu berria" bihurtu zen aipaturiko erakundeei eta beren kideei konfiskatutako ondasunen administratzaile eta titular. Okupatuz zihoazen herrietan "Estatu espainola" ezarriz joan ziren, matxinadari leial zitzaizkion pertsonak agintari izendatuz eta matxinadaren kide ziren erakundeetan kokatuz. Lehenengo unetik bertatik ekin zioten garaituaren jazarpen sistematikoari eta zigor-justiziari. Horretarako beharrezkoak ziren mekanismoak Estatuko Batzorde Teknikoa eratu zenean garatu ziren, 1936ko urriaren 1ean, "Estatu berriak" garatutako corpus legegile berria ezarri zenean, garaipenaren osteko bizitza arautzeko asmoz.

Gipuzkoa okupatu zuten lehenengo uneetan, beste probintzia batzuetan bezala, frankisten errepresioak oinarrizko bi foku izan zituen: "aurkako" pertsonak eta "aurkakoen" ondasunak. Pertsonei zegokienez, errepublikarrak, abertzaleak edo horien lagun ziren susmoa zutenak atxilotu egiten zituzten eta, sarritan, gero exekutatu. Horretarako "aurkakoen" zerrendak egin ziren eta honako irizpide hauek jarraitu zituzten etsaia definitzeko:

> Actuaron en las diferentes comisarías creadas durante el dominio rojo-separatista.
>
> A partir de octubre de 1934 hubieran desempeñado cargos directivos, o actuado como asesores políticos en las organizaciones políticas integrantes del Frente Popular y del nacionalismo vasco.
>
> Habían desempeñado cargos similares en las asociaciones inspiradas por las aludidas organizaciones.
>
> Se levantaron en armas contra el ejército español.

Fueron proclamados candidatos a Diputados a Cortes por los aludidos partidos en las elecciones de febrero de 1936.

Hicieron públicamente campaña a favor de los dichos partidos o de sus candidatos.

Fueron designadas, por los aludidos candidatos, como apoderados en las dichas elecciones así como los que en su representación actuaron como interventores en las mesas electorales.

Protegieron a los partidos políticos integrados en el Frente Popular y del nacionalismo vasco, especialmente mediante aportaciones económicas.

A partir de febrero de 1936 hubieran desempeñado cargos públicos en representación de los aludidos partidos.

A partir de 1934, hayan figurado como afiliados a los dichos partidos.

Errepresioaren bigarren fokuari dagokionez, errepublikari leial zitzaizkion alderdi, erakunde eta kideen ondasun higigarri eta higiezinak konfiskatzea zen helburua. Aldi berean, propaganda-materiala eta liburutegietako fondoak jende aurrean erretzen ziren (ez zirenean lapurtzen). Gerrako Junta Carlistak edo udal berriek hartzen zuten erabakia. 108. dekretuak zilegitu egin zuen "de facto" gertatzen ari zena tropa erreboltariak okupatuz zihoazen herrietan, hau da, banakakoen, erakunde politikoen eta horien buruzagien ondasunak konfiskatzea edo desjabetzea. Neurri horiekin batera, isilpeko konfiskazioak heldu ziren: altxamendua babesten zuten erakunde eta taldeek sustatutako harpidetza anitzen bitartez, borondatezko ekarpenaren izenean mozorrotutako estortsio ugari egin ziren. "Aurkakoengandik" eskuratutakoarekin gatazkak eragindako gastuak ordaindu nahi zituzten agintari berriek; eskudirutan edo jenerotan egin behar zuten ekarpena, eta jasotakoa, ustez, tropak hornitzeko erabiltzen zen. Jakina, inoiz ez zitzaien itzuli ezer ordaindu behar izan zutenei.

Ez ziren bakarrak izan. Altxatutako militarrek eta beren aliatuek aurrera egin ahala, zuten guztia zegoen-zegoenean utzi eta jasan zitzaketen zigorren beldurrez atzerrira ihes egin zuten pertsonei ere eragin zien. Kontuan hartu beharra dago, Beasaingo gertakarien ondorioz (1936ko uztailaren amaieran), tropak hurbildu ahala populazioaren exodoa etengabea izan zela. Andoain, Hondarribi, Hernani edo Donostiako ebakuazioek, besteak beste, herri horien populazioa erdira murriztu zuten eta agerian utzi zuten gipuzkoarrek erreboltarien etorreraren aurrean zuten beldurra. Horietariko asko Ipar Euskal Herrira abiatu ziren eta sektore garrantzitsu bat Kataluniara joan zen, alderdi nazionalaren kontrako borroka jarraitzeko, harik eta 1939ko otsail-apirilean azken exodoa egin arte. Baina, hasiera batean erbesteratze labur baten moduan planteatzen zen hura, askorentzat atzerriko egonaldi luze bilakatu zen, horrek zekartzan zailtasunekin, hala militantzia politikoari buruzko arrazoiengatik nola agintari berriek muga ixterakoan ezarritako zailtasunengatik. Atzerrian geratzea "borondate txartzat" jo zen eta, hortaz, hori egiten zuenak erregimenak martxan jarritako errepresio-legeek prozesatua izatea merezi zuen. Gerra-kontseilu ba-

tetik pasa zitekeen edo armada nazionalaren lerroetan erroldatuz edo langileen batailoietara bidaliz zigor zezaketen. Horri lan-garbiketa edo lanpostu bat eskatzerakoan baztertua izatea gehitu behar zitzaion. Horrela, probintziatik ihes egin zuten gipuzkoar asko erbesteratzera behartu zituen gatazkarekiko beldurra askorentzat zigor gogorra izango zuen delitu bihurtu zuen Frankismoak.

Hainbat erakunde eta pertsonarengana jotzen zuten ondasunik zegoen eta zer-nolakoak ziren egiaztatzeko. Ondasunak Konfiskatzeko Batzorde Nagusiak eratzeko 1937ko urtarrilaren 10eko dekretuaren bidez sistematizatu ziren ekintza zigortzaileak, gutxi gorabehera espontaneoak. Aipaturiko 108. dekretuan jasotako erakundeen kontra eta Mugimendu Nazionalaren garaipenari aurka egiten zioten pertsonen kontra jardutea zen Batzordearen helburua. Urtarrilaren 26an Gipuzkoako Ondasunak Konfiskatzeko Batzorde Probintziala (CPIB) eratu zen eta ordura arte "de facto" egiten ari zirena ofizial bihurtzeko erakundea izan zen. Ondasunen konfiskazioak hiru helburu nagusi zituen: aurkari politikoak zigortzea; bigarrenik, bere ondasunak kentzean, erresistentziarako edozein borondate uxatzea; eta, azkenik, gerraren gastuak ordaintzeko fondoak biltzea (Vega Sombría, 2005, 153).

1937ko apirilean hasi ziren espedienteak bideratzen. Baten bat Mugimendu Nazionalaren kontrako kausaren batean sartuta zegoela pentsatzen bazuten, espedientea irekitzen zion Batzordeak eta pertsona horren ondasunak zerrendatzen ziren bertan, instantzia posible guztietan informazioa jasoz. Instrukzioaren ondoren, epaileak txosten bat azaltzen zuen bere epaiarekin. CPIBek Burgosera bidaltzen zuen, non eskualde militarreko jeneral buruak, zigor bat ezartzeko kasuan, kantitatea zehazten zuen, espedientedun pertsonaren ondasunen bahiketa agintzearekin batera.

Hiri-lurreko ondasun higiezinak, landa-ondasunak (baserriak, lanerako lurrak, pinudiak...) eraikin industrialak, bankuko kontuak edo baloreak izan ziren konfiskatutako ondasun nagusiak. Auzipetutako pertsonen ondasunak, prozeduren pean zeudenenak edo ihes egindako pertsonen ondasunen inbentarioa egiten zen, eta gero bahitu edo desjabetu egiten ziren. Agintari berrien esku geratzen zen horien administrazioa, eta gehienetan udalek egiten zuten lan hori. Estatu berria finantzatzeko –hori zen helburua– erabiltzen ziren desjabetutako ondasunak. Batetik, gatazkako gastuei aurre egiteko, bestetik, matxinoen aldekoei kalte-ordainak emateko eta, batzuetan, oraindik "liberatu" gabeko lurraldeetatik heldutakoei ematen zitzaizkien ondasun horiek alokairuan. Batzordearen esku geratzen zen jasotako errentaren %15. Gipuzkoako Ondasunak Konfiskatzeko Batzorde Probintzialaren jardunaren ondorioz, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako datuen arabera (Pedro Barrusok sakon azterturikoa), guztira 2.481 pertsonari ireki zitzaien espedientea, eta etxe, ondasun, fabrika, lur-eremu eta akzio ugari konfiskatu ziren. Batzordeak berak 4.000 espediente baino gehiago zenbatu zituen 1937tik 1939ra bitartean, eta bere menpe

egindako operazioetan lortutakoak 7.000.000 pezeta inguru izan ziren. Gipuzkoako 76 udalerritan izan zuten eragina desjabetzeek.

Batzordeak bere jarduerak 1940ko otsailera arte luzatu bazituen ere, 1939ko otsaileko Erantzukizun Politikoen Legea indarrean jarri zenean amaitu zen berez haren zeregina, eta Erantzukizun Politikoen Auzitegiei transferitu zitzaizkien bideratutako auziak. Gipuzkoako errealitate soziologikoaren ezaugarrien ondorioz, goi-mailako asko zeuden errepublikarren aldean, eta, beraz, legeria frankista aplikatu zitzaien horiei guztiei. Gauzak horrela, prozesatuen eta administratu beharreko ondasunen kopurua ikaragarri handia zen, eta horrek ezinezko egiten zuen guztien tramitazioa. Eskualdatzeko unean, batzordea 4.000 espediente inguru tramitatzen ari zen: Donostian ehun hiri-finka baino gehiago administratzen zituen eta probintzian laurehun, eta horri bi mila landa-finka eta ehun hipoteka-kreditu gehitu behar zitzaizkion. Azkenean, ezintasun horri irtenbidea emateko, egoitza Iruñean zuen Erantzukizun Politikoen Auzitegi Probintzialak jaso zituen ia 2.000 espediente.

Erantzukizun Politikoen Legearekin, altxamendu militarraren hasieratik ezarriz joan ziren neurriak maila gorenera iritsi ziren, osatu egiten baitzituen, baliogabetu gabe. Legearen atzeraeraginezko izaera zela eta, auzitegi berezien jurisdikziopean geratzen ziren honako egoera hauetan zeudenak: auzitegi militar batek kondenatu izana, baimenik gabe atzerrian bi hilabete baino gehiago igaro izana eta 1936ko irailean legez kanpo utzitako erakunde politiko edo sindikaletan karguak izatea edo Mugimendu Nazionalari aktiboki aurre egin izana. Erregimen errepublikarrean guztiz zilegi izandako ekintzak epaitzen ziren oraingoan, altxamendua legitimotzat eta ezinbestekotzat hartzea baitzen helburua. 1934ko urritik aurrera, era batera edo bestera legeak deskribaturiko egoeraren batean izanez gero, espedientea irekitzeko arriskua zuten. Horren ondorioz, aipatutako legearen arabera auzipetu beharreko pertsonak asko ugaritu ziren.

Akusatu-pilo horrek ez zuen epailearen aurrean inoiz azaldu beharrik izan, deskargu-orri bat idatzi behar zuten beren alde eta abalak bilatu (erregimenaren aldekoek sinaturikoak ziren lagungarri). Zigorrak zibilak izan ohi ziren: jarduerak murrizten zituztenak (lanpostu zehatzetarako gaitasungabetzeak), bizileku-askatasuna mugatzen zutenak (erbesteratzea, Afrikan zituzten eremuetara atzerriratzea, konfinamendua edo deserriratzea) eta, batez ere, ekonomikoak (ondasun guztiak galtzea, batzuk bakarrik konfiskatzea edota isunak). Auzitegiek prozesatutakoen erantzukizunak hiru mailatan sailkaturik zeuden: larriak, ez hain larriak edo arinak, eta gertakariei jarritako kalifikazioaren arabera ezartzen zituzten zigorrak. Gipuzkoari dagokionez, 1941eko irailean, Iruñeko Erantzukizun Politikoen Auzitegiak 1.832 kausa baino gehiago zituen. Erantzukizun Politikoen Legeak jasotzen zituen zigorren artean Gipuzkoan gehien aplikatu zirenak ekonomikoak izan ziren, atzetik bizileku-

-askatasuna mugatzea eta gaitasungabetzeak zeudelarik. Kasu gehienetan militantzia abertzaleko pertsonen kontra zeuden zuzenduak. 19 izan ziren beren ondasun guztiak galdu zituzten prozesatuak (atzerrian zeuden pertsonen kasua) eta gutxi batzuek ikusi zuten mugatuta bizilekua aukirtzeko askatasuna.

1943ko urrian, bederatzi mila kausa baino gehiago zeuden hasteke, baina gehienak ez ziren inoiz hasiko, bi arrazoirengatik. Lehenik eta behin, bideratutako espedienteen kopuru handia: asko izaten ziren prozesatuaren aurrekariak eta ondasunak zeintzuk ziren ezartzeko helburuarekin eskatutako txostenak; horrek luzatu egiten zuen espedienteen tramitazioa; jurisdikzioa berritzeko unea heldu zenean, bideratzeke zeuden espedienteak bideratuak baino gehiago ziren, eta nola ez, ebatzitakoak baino gehiago. Bigarren arrazoia erreforma legala izan zen; horrek pertsona bat auzipetzeko kausak murriztu egin zituen. Dena den, legea ez zen 1966ko azarora arte guztiz ezabatu. Agintari frankistek hogeita hamar urtez erabili zituzten errepresio-legeak legaltasun errepublikarrari leial izandakoen aurka, nahiz eta 1945eko apiriletik aurrera legea indargabeturik egon eta prozesatutako askoren espedienteak artxibatu. Datu sinboliko batek azaltzen digu agintari frankisten anbibalentzia eta arbitrariotasuna: Jose Antonio Agirre, Euzko Jaurlaritzako lehendakaria, 1966ko otsailean indultatu zuten, hil eta sei urte geroago.

Frankismoaren makineria zapaltzailea beste eremu batzuetara ere heldu zen; errepresioaren ezaugarri izan ziren epaiketaz kanpoko exekuzio eta hilketak, atxiloketak, Ondasunak Konfiskatzeko Batzordearen lana edo Erantzukizun Politikoen Legearen jurisdikzio berezia, baina ez ziren ezaugarri bakarrak izan. 1936ko irailaren 15eko dekretu batek legez kanpo utzi zuen masoneria, eta bertan sartuta zegoen pertsona oro erreboltaritzat hartzen zen. Gerra-egoera aldarrikaturik zegoenez, agintari militar batek epaitzea izan zitekeen ondorioa edota gerra-kontseilu batean heriotza-zigorra jasotzea. Gipuzkoako kasuan, xedapen horien ondorioak ez ziren oso larriak izan, masoneria gutxi errotuta baitzegoen lurraldean.

Frankismoak martxan jarritako zeregin zapaltzaileen artean lan-garbiketak ere egon ziren: arlo guztietan gauzatu ziren, enpresa pribatutik hasita Administrazio Publikoa, diplomazia, epaileak, heziketa publikoa eta eskola profesionak harrapatu zituen, besteak beste. Altxamenduaren aurkakoak zigortzeaz gain, iritzi politiko zehatzik ez zuten horiek beldurtzea eta jarraitzaileak sustatzea izan zen garbiketaren helburua, eta, hortaz, Mugimenduaren jarraitzaileak jartzen zituzten lanpostu estrategikoetan. Era horretan, matxinadaren garaipenaren alde borrokatu zirenei ordain-sariak ematen zizkieten (Vega Sombría, 2005, 197). Langileei eragiteaz gain, 1939ko otsailetik aurrera, neurriak zerbitzu publikoak eskaintzen zituzten enpresen administrazio-kontseiluei eta zuzendaritza-batzordeei ere eragin zien[22].

22 AHN, Fondos Contemporáneos. B-71991, Gobernación.

Administrazioaren garbiketa oso goiz hasi zen eta udalak izan ziren lehenak beren karguak autogarbitzen eta legaltasun errepublikarrari leial izandakoak postuetatik kentzen. Lehen arau garbitzailea 1936ko uztailaren 27an plazaratu zen, zeinaren bidez okupatuz zihoazen herrietako alkateek eta zinegotziek beren kargua uzti behar zuten. Irailaren 3an hasi zen administrazioaren benetako garbiketa: Mugimendu Nazionalaren kontra zeuden funtzionarioen bereizketa. Gainera, tokiko eta probintzietako erakundeak estutu ziren, tropa salbatzaileak herrira sartu eta hurrengo 48 orduetan beren karguetara azaldu ez ziren funtzionarioei lanpostua kentzeko. Horren ondorioz, aldizkari ofizialetan eta prentsan kargurik gabe geratutako funtzionarioen zerrenda luzeak argitaratu ziren; eta horrek areagotu egin zuen agintari berrien eta beren jarraitzaileen eskutik edozein gehiegikeria jasateko beldurra. Kargua berreskuratzeko, abal batzuk behar ziren espedientatuarenganako konfiantza bermatzeko eta, kasu askotan, kolpe militarra babesten zuten taldeetan eman behar zen izena, militantzia azaltzen zuen ziurtagiriaren bidez lanpostua berriz lortzeko. Erakunde askok lekuak gorde zizkieten gatibu eta soldadu ohiei, eta horrek erregimen berriaren aldeko administrazioa eratzen lagundu zuen.

Matxinatutako alderdiaren asmo garbitzailea hezkuntzaren esparruan nabarmendu zen gehienbat. Hemeretzigarren mendetik aurrera tentsioak izandako alorra zen hezkuntzaren mundua; alde batean eliza-hierarkia eta sektore kontserbadoreak zeuden eta, bestean, sektore aurrerakoiak edo liberalak. Aipaturiko tentsioak Bigarren Errepublikaren garaian areagotu ziren, Instruzio Publikoaren Ministerioak ahaleginak egin baitzituen aldaketarako tresna moduan hezkuntza laikoa sustatzeko, eta horrela, Elizaren eta Estatuaren arteko bereizketa indartzeko. Neurri horrek, besteak beste, Elizaren gaitzespena eragin zuen eta muturreko diskurtsoa garatzea; izan ere berrikuntza horiek Espainia katoliko eta tradizionalaren kontrakoak zirela uste zuten. Errepublikaren porrotaren ondorioz, Elizak aurretik zuen lekua berreskuratu zuen berriro. Integrista katolikoen diskurtsoa bere gain hartu zuen Francok, eta bere agintaldi diktatorialak iraun zuen bitartean atzerriko indarrak eta masoneria akusatu zituen Espainian sartzeagatik, desordena sozialari bide eman zion hezkuntza ekartzeagatik eta Aberria suntsitzeko mehatxua egiteagatik. Horrela, Espainia onera ekartzeko asmoarekin, librepentsamenduaren gaixotasunetatik, ideia liberaletatik eta Errepublikaren aurka matxinatu zen koalizioa defendatzen zuten ideal erreakzionarioen kontrako izan zitekeen hartatik askatuz, egin zen hezkuntza-esparruko garbiketa, Frankismoak martxan jarritako errepresio-prozesuen artean eragin handiena izan zuena. Maisu-maistrek talde txikia, kontrolatua eta oso definitua zuten, eta lehen unetik ikusi zuten beren burua mehatxatuta. 1936ko abuztuaren 31n Gipuzkoako Gerrako Junta Carlistak adierazi zuen nolakoa izan behar zen irakaskuntza: «ha de ser en lo sucesivo fundamentalmente

católica y netamente españolista sin paliativos, sin remilgos de ninguna clase (...) conscientes de la decisiva importancia que ella tiene cara a la formación del espíritu de la nueva España. Cuantos obstáculos dificulten este sentido, claro y rotundo, que se quiere dar a la formación de las nuevas generaciones serán apartados inexorablemente». 1936ko irailaren 26an, Gobernu Zibilaren Instrukzio Publikoaren ordezkaritzatik FETEra (UGTren Federación Española de Trabajadores de la Enseñanza) afiliatutako irakasleen zerrenda bidali zen Valladolideko Unibertsitatera, hots, 1936ko abuztuaren 19ko agindu bati jarraituz kargurik gabe utzitakoak ziren zerrendakoak. Agindu horren arabera, unibertsitateetako errektoreek ahalmena zuten irakasleak beren kargutik kentzeko, baldin eta beren jarduera "aztoratzailea" izan bazen.

Horrela, udaletatik jasotzen ziren txostenen arabera egin zen irakasleen lehen garbiketa. Matxinatuen aurkako ideologia zuten irakasleak zerbitzutik kentzea zen helburua. Lehenengo urratsa baino ez zen izan, berehala osatu zuten lehenego garbiketa hori irakasleak sailkatuz akusazioaren larritasunaren arabera: larriak, ez hain larriak eta kargurik gabeak. Azken finean, irakaslearen jarduera pertsonala, profesionala eta politikoa aztertzen dira espedienteetan. Prozesu horretan, oso garrantzitsua da inplikazio soziala, bestela esanda, garrantzia handia zuten apaizaren, familia edo gurasoen, FET-JONSen eta Guardia Zibilaren txostenek.

Garbiketaren bigarren fasea 1936ko azaroan hasi zen, Estatuko Junta Teknikoaren Irakaskuntza Batzordeak dekretu baten bidez araupetu zuenean hezkuntza-esparruko irakasle guztien garbiketa. Zeregin horretarako, batzorde batek aztertu behar zituen Bigarren Hezkuntzako Ikastetxeetako irakasleak, Eskola Normaletakoak, Merkataritza Eskoletara esleituriko langileak, ikuskatzaileak, administrazioko langileak eta abar. 1942ra arte luzatu zen Batzordearen jarduera, eta Gipuzkoako kasuan, garbiketa Eskola Normaleko langileetan nagusitu zen. Probintzian lanean ari ziren maisu guztiak kargurik gabe utziz hasten zen garbiketa-prozesua. Horrela, lanpostua berreskuratzeko eskaera egin behar izaten zen, eta ondorioz, automatikoki zabaltzen zitzaien garbiketa-espedientea.

Gipuzkoako kasuan, jokabide politiko eta erlijioso kontserbadorea zuen probintzia izan arren, zigortutako pertsona ugari egon ziren. Askorengan izan zuen eragina prozesuak eta luze jo zuen –espediente batzuetan hirurogeiko hamarkadara arte luzatu zen–. Gipuzkoako maisuen % 27 zigortu ziren garbiketa-prozesuaren ondorioz, horien % 13 zerbitzutik kendu zituzten betiko; andereñoen % 80 eta maisuen % 56 berriro hartu zituzten beren lanpostuetan. Bigarren Hezkuntzaren kasuan, zigortutakoak % 26-27 inguru izan ziren, eta kargutik betiko kendutakoak (%15), maisuena baino kopuru handiagoa. Hamaika emakume besterik ez zen sartu garbiketa-prozesuetan, eta horietatik bi zigortu zituzten eta, azkenean lanik gabe utzi.

Baina errepresio "espontaneoa" eta "legala" ez ziren uztailaren 18az geroztik tropa matxinatuak okupatuz zihoazen herri horiek jasan behar izan zituzten bakarrak izan. Errepresiorako beste bide batzuk ere izan ziren, inongo dokumentutan jaso ez direnak, baina jasan zituztenen gogoan geratu zirenak, eta ahozko berreskurapen lanei esker ezagutu ditzakegunak. "Soziala" dei diezaiokegun errepresio horri buruz ari gara, gizarte garailearen barnean –baita gizarte garaituaren barruan ere– garaileen kontrako pertsona guztiak "markatzen" zituena; gerraren ondorioz, aitaren, amaren, anai-arreben, seme-alaben galera pairatutako pertsonak markatu zituena; errepresio honek exekuzioa, kartzela-zigorrak, kontzentrazio-esparruetan sartzea, edo behartuta armada nazionalean edo langileen batailoietan sartzea jasan zuten pertsonak eta beren familiak seinalatzen zituen; seinalatze horrek beren ondasunak edo karguak galdu zituztenei ere eragin zien, baita "borondatez" erbesteratzera behartuak izan zirenei eta beste askori. Justo Mokoroa eskolapioak adierazi zuenez:

> Sobre la memoria de los muertos, que casi siempre dejaban a la familia en la miseria, se concitaba la maledicencia pública, haciendo correr la voz de que se les había encontrado documentación comprometedora, para disculpar el crimen y deshonrar a la víctima y a sus familiares.
>
> (Gamboa-Larronde, 2006, 110)

Biolentzia sinbolikoaren eta subliminalaren artekoa zen, beldurtzean, etengabeko mehatxuetan, eguneroko bizitzaren edozein arlotan gauzatzen zen indarkerian oinarrituta zegoena; garaituak eta beren senitartekoak izutzea eta iraintzea ziren biolentzia horren helburuak. Milizia armatuen presentziak edozein unetan zigor bat jasan zitekeela gogorarazten zuen. Milizianoek eta segurtasun-erakundeetako kideek etxebizitzak oso maiz bisitatzen zituzten bertan bizi zirenak kontrolatzeko, eta bereziki kanpokorik zegoen ikusteko. 1936ko azaroan, esate baterako, Donostiako udalak zaintza-zerbitzu bat antolatu zuen, eta horren bitartez hiriburuko etxebizitza bakoitzari arduradun bat jarri zitzaion (Jabetza hiritarreko Ganbera Ofizialaren oniritzia behar zuen arduradunak)[23]. Pertsona horrek uneoro jakin behar zuen nortzuk bizi ziren egokituriko etxean. 1938ko otsailean, Pasaiako Ikerketa eta Zaintza Ikuskaritzak txosten bat igorri zion gobernadoreari zera adieraziz: herri horretara eta bereziki, Trintxerpeko auzora jende ugari heldu zela lan bila militarrek kontrolatzen zituzten probintzietatik, Galiziatik bereziki; eta horien etorrerarekin batera hasi zirela agertzen auzo horretako etxe batzuetako atarietan, kaiko biltegietan eta beste toki batzuetan zenbait graffiti (UHP, Viva la FAI, CNT, Viva la revolución, eta abar). Gertaera horren aurrean, Ikuskaritzak lanik gabe edota epe motzean lana aurkitzeko aukerarik ez zuten pertsona guztiak beraien herrietara itzul zitezela eta etorkizunean

23 *La Voz de España*, 1936-12-5.

etorriko zirenek ugazabak emandako agiriarekin etor zitezela proposatu zuen. Donostiako Poliziak, bere aldetik, 1941ean, plan bat diseinatu zuen polizia bakoitzak Gipuzkoako hiriaren banaketa egitean egokitu zitzaion eremuko etxebizitza guztiak kontrola zitzan,

> para descubrir a los enemigos de nuestra Santa Causa Nacional, los cuales constituyen un constante peligro para la sociedad y por ello hay que tenerlos continuamente vigilados y controlados para hacer fracasar en el acto cualquier maquinación o plan de carácter derrotista o subversivo que traten de cometer, entregándolos a las autoridades competentes, pues no cabe duda que lo mismo en San Sebastián que en las demás poblaciones liberadas por nuestro Glorioso ejército existen muchos individuos desafectos a nuestra Causa, seguramente responsables de hechos delictivos, los cuales permanecen ocultos y amparados quizás por personas desaprensivas, al objeto de librarse de ser denunciados y tener que responder de sus actos ante los Tribunales correspondientes[24].

Batez ere gerrako lehenengo hilabeteetan, kalean zihoan edozein oinezko behartzen zen kanta nazionalak abestera, besoa altxatuz agurtzera edota *Viva España* oihukatzera, besteak beste. Herritarrek derrigorrean hartu behar zuten parte desfileetan eta ekitaldi publiko faxistetan, erlijiosoetan zein zibiko-militarretan, eta bandera nazionalak zintzilikatu behar zituzten leihoetan. Gainera, debekatu egin zuten paperezko farol jakin batzuen erabilera, koloreak ez zirelako garai berrietarako egokienak; ez dakigu gorria, berdea eta zuria (ikurrina) edota gorria, morea eta horia (bandera errepublikarra) izaten ziren. Arestian aipatutako "legezko" errepresio ekonomikoaz gain, beste adierazpen batzuk ere bazituen indarkeriak, esaterako, isunen mehatxuak, diskriminazioa zenbait agiri edo laguntza lortzeko (diru-laguntzak, dokumentu ofizialak, familia-sorospenak eta errazionamendu-liburuxkak) eta matxinatuek oso maiz egiten zituzten diru-bilketetan derrigorrez lagundu beharra (Plater Bakarreko Eguna, Postrerik Gabeko Astelehena, Soldaduen Aldeko Diru-laguntza, Soldaduaren Gabon-saria, etab). Azken kasu horiei dagokienez, diru-bilketak alderdi frankistaren baliabide ekonomikoak areagotzeko tresna izateaz gain, gizartea kontrolatzeko era bat ere baziren, ordaintzen ez zuten pertsonak susmagarri bihurtzen baitziren berehala.

Euskal Herriaren kasuan, Katalunian eta Galizian bezala, garaituen aurka zuzenduriko errepresioak teorialari frankistek bultzatutako beste aurpegi bat ere bazuen: ama-hizkuntzaren erabileraren debekua, kasu honetan euskara, batez ere espazio publikoetan. Desagertu egin ziren hizkuntza horretan argitaratutako aldizkariak, euskaraz idatzitako atalak edo zutabeak zituzten egunkariak, egiten ziren irratsaioa gutxiak, euskarazko antzezlanak edota eliztar gehienen hizkuntza zen horretan egindako sermoiak. Bigarren Errepublikan Gipuzkoako udal batzuetan edo lehen hezkuntzan euskararen erabilera normalizatzeko egin ziren ahaleginak deuseztatu egin

24 AHN, Fondos Contemporáneos. B-753038, Gobernación.

ziren. Agintariek euskaraz idatzitako errotulu komertzialak kentzeko agindu zuten. Kalean erabiltzea ere debekatu zen. Berez, Donostian, tropa frankistak sartzean, euskararen erabilera areagotu egin omen zen protesta moduan, baina horrek euskara debekatzea ekarri zuen eta kalean erabiltzen zutenei isunak jartzea. Beasaingo komandante militarrak espresuki debekatu zuen *Ave Maria* otoitza euskaraz hastea, hots, *Agur Maria* esaerarekin. 1938ko udaberritik aurrera lasaitu egin zen presioa erabilera partikularraren esparruan eta parrokia batzuetan berriz erabiltzen hasi ziren, baina betiere gaztelaniarekin batera.

Ziurrenik, emakumezkoak izan ziren "irain sozial" gehien jasan zituztenak. Ildo horretan, jarrera oso desberdina izan zuten bi aldeek. Osatu berri zen Euzko Jaurlaritzak emakumeak gatazkatik aldentzeko ahaleginak egin zituen, preso hartutako emakume gehienak aske utzi zituen eta Bizkaitik ihes egiteko baimena eman zitzaien (150 emakumek alde egin ahal izan zuten Baionara, Britainia Handiaren eta Nazioarteko Gurutze Gorriaren babespean), alderdi nazionalean preso zeudenekin aldatuko zituztela aginduz. Baina azken horrek ez zuen bere hitza bete eta askatutako emakumeak Euskadi autonomoan integratzea galarazten saiatu zen. Hainbat emakume fusilatzeaz gain eta, abenduan, ehunka emakume, zahar eta haur kanporatzeaz gain, zilegitasun errepublikarraren jarraitzaileak ziren emakumeak iraindu egiten zituzten: ilea moztu edo kaskamotz uzten zituzten, gero herriko leku jendetsuenetatik "paseatzeko", errizino-olioa (purga) edatera eta soinean ikur faxista-falangistak eramatera behartzen zituzten, publikoki ideologia horretako aldarrikapen eta esloganak adierazi eta oihukatzera derrigortzeaz gain. Batzuetan ile-matazatxo bat uzten zizkieten lazotxo monarkiko bat lotzeko.

Irunen, emakume abertzale bat kaskamotz utzi eta asto baten gainean herri guztian zehar paseatzera derrigortu zuten. Zarautzen, neska abertzale bat, Gipuzkoako Bankuko zuzendariaren alaba, kaskamotz utzi zuten bere aitak ihes egin zuelako hartutako errepresalia moduan, eta karlistek aire zabaleko meza batera eramateko egin zuten ahaleginaren ostean, denen aurrean erakusteko, fruta-saltzaile bat haren etxera joan zen neska ikusteko asmoz, eta etxeko gela guztietatik bere atzetik ibili zen (Gamboa-Larronde, 2006, 118 eta 361). Gainera, eskualdeko faxista ospetsuen bulego ofizialak eta etxebizitzak garbitzera eta hareaz igurtzera behartu zituzten edota erreketeentzat jostera. Era berean, kalean beren auzokideek irain gisa esandakoak ere entzun behar izaten zituzten, hala nola, "gorria", "masoi-judua", "fusilatuaren emaztea (edo alaba, arreba)", etab. Horren guztiaren ondorioz, pertsona horiek bizilekuak aldatu behar izan zituzten, ezagutzen ez zituzten lekuetara alde egin edo erbestean beren bizitza berregin.

Kaskamotz utzitako ehunka emakumerekin batera, irain publikoak jasan zituzten gizonezkoak ere egon ziren. Mokoroak Tolosako kasua aipatzen du:

> también se ha afeitado a hombres, un socialista que se quedó, pero que se había caracterizado por contener a los extremistas. Le afeitaron el pelo, dejándole un mechón ridículo en la coronilla y envuelto en una especie de dalmástica de papel lo pasearon por las calles haciéndole gritar Cristo Rey. A un simpatizante nacionalista llamado Felipe Pérez, padre de varios escolapios, también le afeitaron su larga barba y su bigote.
>
> (Gamboa-Larronde, 2006, 111)

Frantzian Bigarren Mundu Gerran, alemanen okupazioaren ostean gertatu ziren kasuak aztertu zituen Fabrice Virgili-k (Aróstegui & Godicheau 2006), eta horren arabera, kaskamotz utzitako emakumeak ez ziren errepresio espontaneo baten biktima, baizik eta emakumeen kontrako zigor-mota jakin batena, askotan auzokoek berek gauzatzen zutena eta indarkeria txikiagotzat jotzen zena. Ilea mozteak konotazio sexual inplizitua zuen, izan ere praktika hau jasan behar zutenek beren emakumezko itxura galtzen zuten. Ikuspuntu fisikoa kontuan hartuz gero, ilea mozteak, berez, ez du odol-isurketarik eta izaera horrek eragin du bigarren mailan uztea, ikerketa historikoaren eta biktimen talde-oroimenaren bigarren arloan geratzea. Aitzitik, harrigarria da kartzela frankistetatik igaro diren gizon eta emakumeek beren istorioa kontatu duten bitartean, kaskamotz utzitako emakumeak isilik geratu izana. Alabaina, horrek ez du inolaz ere esan nahi gertatutakoa ahaztu dutenik protagonistek. Ilea moztu zieten uneaz gain, emakume horiek pairatutako indarkeria eta irainak denboran zehar iraun dute, trauma handiagotuz eta barneratuz.

Aita Barandiaranek jaso eta José María Gamboak eta Jean-Claude Larrondek argitaratutako zenbait txostenetan, nabarmendu gabe utzi diren beste irain-mota batzuk jasotzen dira. Gizarte tradizional eta kontserbadorea izanik, tropa frankistak egon ziren bitartean ez ziren falta izan bortxaketak, orgiak eta moralaren aurkako jarrerak, «violaciones, orgías y desórdenes morales» Mokoroaren hitzetan. Beren kontzientzia zela eta lotuta dantzarik egiten ez zuten neskatxa abertzaleak dantza lotuta egitera behartu zituzten errekete nafarrek (115). Euzko Jaurlaritzaren txosten baten arabera, Irungo karlistek ama-alabak atxilotu zituzten eta behin eta berriro bortxatu zituzten atxiloturik egon ziren bitartean. Txosten anonimo baten arabera, Azpeitian moraltasun eza gailentzen zen, militarren eta milizia eskuindarren jokaera zela eta, askotan eskandaluzko kasuei bide emanez. Parrokoak gomendatu zien gurasoei ez uzteko beren alabak militarrekin eta miliziekin ibiltzen, inor ez baitzen ausartzen gertakari horiek salatzen. Ataungo apaizak lan berdina egin zuen. Gipuzkoako Goierriko herrietan, borrokaldien artean atseden hartzen zuten soldaduek haurdun utzi zituzten neskato ugari egon ziren. Miseria gorriak hainbat emakume behartu zituen prostituitzera, batez ere Donostian, aurrera jarraitzeko baliabide ekonomikoak lortu ahal izateko (671). Azkenik, bere hizkuntzak inongo biraorik ez zuelako harro zegoen he-

rriak asaldatuta ikusi zuen ustez erlijioa eta Eliza defendatzen zuten horiek ordura arte herri horietako askotan entzun ez ziren biraorik handienak esaten zituztela.

Errepresioak eta gizartea garaileen parametroetan "indarrez" berriro hezteko ahaleginek mota guztietako adierazleak izan zituzten: hainbat eratako irain publikoak, familia aurrera atera ahal izateko lanpostua ezin lortzea, edo norberaren printzipioen aurka Mugimenduari edo Falangeari men egin beharra lana lortzeko, II. Errepublikan ezarritako demokraziaren eta askatasunarean arrasto guztiak ezabatzea, askatasun-falta, zentsura, gizarteko uniformetasuna eta abar. Lehen ere esan dugunez, errepresioaren beste mota batzuk izan ziren, hau da, zapaltzeko beste modu batzuk, era batera edo bestera berrogei urtez jasan direnak, nahiz eta nabarmenago eta gogorrago gerraosteko lehenengo urteetan.

Federico Zabalaren aipu batekin eman diogu hasiera atal honi, eta amaiera ere era berean emango diogu; jurista eta abertzale bilbotar honek gerraosteko urte batzuk eman zituen erbestean, eta 1945ean *Justicia inicial* lana idatzi zuen nahiz ea inoiz argitaratu ez. Ikerketa honen bidez, diktadura frankistaren ostean normaltasun juridikora itzultzeko jarraitu beharreko ildo nagusiak zeintzuk izan behar ziren zehazten saiatu zen[25]. Sarrera ezin zitekeen esplizituagoa izan, eta hortik ateratako bi zati ekarriko ditugu hona, atal hau amaitzeko.

> Un verdadero cúmulo de crímenes, de expoliaciones y de arbitrariedades, cuya consideración anonada y conturba el ánimo más templado, ha venido a crear en nuestro país una situación inconcebible que no puede menos que preocupar con obsesionante insistencia a todo espíritu recto amante de su pueblo.
>
> La terrible situación tiene, sin embargo, exteriormente un aspecto de normalidad, que se cultiva con cuidado, mientras se ahogan violentamente las manifestaciones de la verdadera situación de congoja, de dolor, de muerte, tratando de ocultarlas desaprensivamente hasta con el sagrado manto de la religiosidad.
>
> (...)
>
> Y esta Justicia, (...) es absolutamente necesaria, imprescindible, ineludible; sin ella, sobre una sociedad afectada por tanta iniquidad, tanta arbitrariedad y tanto desmán, no es posible cimentar una obra de regeneración, nada en ella sería persistente y fundamental y de nada habrían servido los sufrimientos, las lágrimas, los sacrificios y los trabajos pasados, que en cualquier momento podrían reproducirse al socaire de la impunidad en que prácticamente se hubiere incurrido.

25 Federico Zabala Allende: *Justicia inicial*. 1945, argitaragabeko lana. Abertzaletasunaren Agiritegia. Federico Zabala Fondoa, 0010, c.1.

# V

# FRANKISTEN FUSILATZEAK GIPUZKOAN

> Yo podría aprovechar nuestras circunstancias favorables para ofrecer una transacción a los enemigos; pero no quiero. Yo quiero derrotarlos para imponerles mi voluntad –que es la vuestra– y para aniquilarlos. Quiero que el marxismo y la bandera roja del comunismo queden en la historia como una pesadilla. Mas como una pesadilla lavada con sangre de patriotas, pues esta sangre gloriosa que hoy se está derramando en el frente y que ha de ser como la de Cristo en el Gólgota, la que ha de redimir al pueblo español de sus yerros y de sus desvaríos y le ha de conducir a las grandes empresas para la que está predestinada España.
>
> (General Mola, 31 de julio de 1936)

> He dicho impondremos la paz... Este es el momento temido por nuestros enemigos; mejor dicho, por quienes mangonean en el campo contrario. Tienen razón: están fuera de la Ley y la Ley ha de ser inexorable con los traidores, con los incendiarios, con los asesinos y con los salteadores de Bancos. Los demás nada tienen que temer, pues la España nacional y los hombres que la rigen como buenos cristianos, gozarán practicando la caridad y el perdón; en la España nacional no ha de haber ni rencores ni odios, ni tampoco miserias.
>
> (General Mola, 28 de enero de 1937)

## Informazioa, zurrumurruak eta propaganda

Gaur egun ia ez dago eragozpenik altxatutakoen aldean egon zirenek jasan zuten indarkeria ezagutzeko, baina askoz ere zailagoa da alde errepublikarrekoen sufrimendua neurtzea eta azaltzea. Bien arteko alde hori ulertzeko, zenbait faktore ezberdin dauzkagu, eta, hasteko, bi nagusienetan sakonduko dugu. Lehena, frankismoa ez zen arduratu etsaiaren benetako deuseztatze fisikoarekin zerikusia zuten datuak biltzeaz, eta ondorioz, ekintzetako asko ez ziren idatzi inolako erregistrotan. Gainera, horretan saiatu izan denari eragozpenak baino ez zaio jarri harrezkero. Bigarrena, XX. mendeko azken 25 urteetan ez da ahalegin sistematikorik egin isileko sufrimendu hura ikertzeko, salbuespen gutxi batzuk kenduta. Beraz, ahoz aho kontatu dena ikertzeko ahaleginik egin ez izanak eta dokumentazioari dagokionez, ezer gutxi egoteak asko zailtzen dute Altxamenduaren ondoko agintari berriek izan zituzten jarreren eta jokabideen ikerketa. Gerra-garaiko errepresioaren ezaugarriak aztertzeko hiru arlo jo-

rratu beharra dugu; gainera, oraintsura arte landu gabe egon dira arlo horiek. Nork zuzendu eta gauzatu zituen errepresio-lanak, zein irizpideren arabera hartzen ziren erabakiak eta zenbatek eta nork galdu zuten bizitza errepresioaren biktima, Altxamenduaren ondoko hilabeteetan dira ikertu beharrekoak. Orain arte aipatu ditugun baldintzetan, beraz, ez da harritzekoa gaiaren inguruko ezezagutzak eta agirien faltak ika-mika asko sorraraztea aztertzaileen artean, errepresaliatuen datuak eta kopuruak argitu nahian batez ere.

Frankisten jarreraren ezaugarria beti izan da isiltasuna eta mutu geratzea. Garaiko prentsa frankistak ia aipatu ere ez du egiten arazoa, eta inoizkotan, egiten duenean, zeharka izaten da. Errepublikarren aldean, aldiz, ahoz aho ibiltzen ziren albisteak, baina sarritan ez zuten zabaltzen informazio zehatz eta egiaztagarririk, hori izaten baita samintasun handiko uneetako jokabide ohikoena. Lagunei eta senideei buruzko zerbait jakin nahiak benetan dena eta ez dena nahastera eramaten du; beste alde batetik, zurrumurruak zabaltzeko giro aproposa sortzen da gerra-egoeretan; eta, azkenik, biktimak, bere mina arindu nahian, arerioaren gaiztakeria nabarmendu beharra izaten du. Horren guztiaren ondorioz, gerrak iraun zuen bitartean datu asko zabaldu ziren, baina zehaztasunik gabeak askotan, eta egiaztaezinak beste askotan. Horren adibidea dugu Juan Sesé apaiz tolosarraren testigantza; horren arabera, militar matxinoek Irun hartu zutenean hiriko ospitalean zeuden zauritu guztiak hil zituzten (Gamboa-Larronde, 2006, 91). Bestalde, zabaltzen diren zurrumurruetan izenak eta deiturak agertzen diren gehienetan zuzena izaten da informazioa, salbuespenak salbu. Baina gerra-garaiko agirietan agertzen diren kopuruek errealak baino gehiago, biribilduak dirudite. Berriz ere azpimarratu behar dugu oso lan zaila dela egia argitzea, altxatutakoek, agintaritzan egon ziren berrogei urteetan, tentu handiz ezkutatu eta desagerrarazi baitzituzten beren irudia kaltetu eta zikindu zitzaketen datuak. Ez dakigu noiz, baina Polizia-ko eta Guardia Zibil-eko arduradunek ia beren agiri guztiak desagerrarazi zituzten, espediente pertsonalak salbu. Artxibo militarretan, ordea, gerran idatzi ziren agiri gehienak gorde izan dira, baina Hernaniko fusilatzeak argitzeko ez dira oso lagungarri. Gai hauek ikertu dituzten historialariek (Espinosa 2000 eta 2006) eta zenbait erakundek (Amnesty International, Nizkor) behin eta berriz azpimarratu dute errepresioa aztertzea berez zaila bada ere, agiritegien egoera txarrak eta horietan ikertzeko dauden eragozpenek erabat zailtzen dutela lana.

Jaurlaritza, Agirre lehendakaria buru zuela, saiatu zen kaleratutako berrietan datu zehatzak ematen, hildakoen izen-deiturak gehituz txostenetan; baina, hala ere, hutsuneez eta gabeziez oharturik zeuden

> Los vascos que hoy presentan las listas nominales, –que se especifican a continuación– de sus compatriotas víctimas de la persecución franquista, se encuentran en el destierro, y no han contado con las facilidades que prestaría la residencia personal en el lugar que ha sido

teatro de estas matanzas. Por lo mismo cada información, cada dato y circunstancia de los nombres, fechas y lugares que a continuación se indican, han costado múltiples esfuerzos, secretos y siempre vigilados por el adversario, de héroes anónimos que así se han sacrificado por el conocimiento exacto de la verdad objetiva[26].

Hiru txostenetan azaltzen dira gerra-garaian Jaurlaritzak egindako ahaleginak errepresioaren alderik bortitzenaren berri zabaltzeko eta galtzailearen sufrimendua nolabait adierazita uzteko. Ezinbesteko iturri bilakatu dira garaia ikertzen dutenentzat; ez hainbeste aipatzen diren datu orokorrengatik, azaltzen dituzten xehetasunengatik baizik. Lehen txostena 1938ko martxoan argitaratu zen, *La represión franquista en Euzkadi* izenburupean. Sarreraren ostean, errepresio-ereduak azaltzen dira, eta nola gauzatu zen sei ataletan banatuta: Nafarroari, Arabari, Gipuzkoari eta Bizkaiari zegozkienak, eta apaizei eta emakumeei buruz beste biak. Txostenaren egileek norabide jakina darabilte azterketan: Jaurlaritzaren jokabidea –ez Errepublikarena– kontrajartzen dute frankisten portaerarekin. Horren arabera, Euzko Jaurlaritza Bizkaian aritu zen garaian, hogei heriotza-zigor onartu ziren, betiere zuzenbide-arauen bideak jarraituz; frankistek, aldiz, hogei mila lagun inguru hil zituzten (15.000 Nafarroan), horietatik ehuneko laurogei epaiketarik gabe. Txostenaren arabera, 70.000 preso inguru egon ziren Euskadiko kartzeletan. Hamar mila lagunek galdu zituzten beraien ondasunak ofizialki, eta lapurreten jomuga izan zirenak gehitu behar zaizkie horiei. Horrez gainera, isunez baliatuz milioika pezeta eskuratu zituzten frankistek ogasunerako. Datu horien ondorio nabarmena honako esaldi honetan jasota dago:

Sobre el martirio trágico de Euzkadi, asolada por los efectos directos de la bélica contienda, pesa también este cuadro de dolor que ofrece la persecución franquista, ensañada con mayor crueldad que en parte alguna de la Península.

Agerikoa denez, eman zituzten datuak puztuta zeuden; beharbada, ez zekitelako benetan zer ari zen gertatzen atzeguardia frankistan, eta mugaren beste aldera edo errepublikarren aldera heltzen zena errealitatearen oihartzun antzeko bat baino ez zelako. Galiziako kasuan, esate baterako, 120.000 hilketa aipatu ziren, baina gaur egungo ikerketen arabera, 6.000 inguru izan ziren (Prada, 2006, 279).

Gaur egungo estimazioek 5.000 exekutatu inguru aitortzen dituzte Hego Euskal Herri osorako, erdiak baino gehiago Nafarroan. Nekez aldera daitezke datu horiek Extremaduran edota Errioxan jazotakoarekin; izan ere, herrialde horietan errepublikarrek pairatutako errepresio fisikoa askoz handiagoa izan zen, baina bizi zuten egoera ere oso ezberdina zen, bai alde egiteko aukerei zegokienez, bai eta aurrekari sozial eta politikoei zegokienez ere.

26 Labayru Ikastegiko Agiritegia. Onaindia Fondoa,16-2.

Txosten horien puztuketaren alternatiba ezin da izan erabateko bazterketa eta estatuak, hots, frankistek, gorde zituzten agiriak bakarrik erabiltzea. Izan ere, gehiago dira galdu edota desagerrarazi zituztenak gorde direnak baino. Galdutako fondoak, gainera, garrantzitsuenak ziren, ziur aski, errepresio frankistari buruzko datuak biltzeko orduan. Ondorioz, maiz, lekukoen testigantzak eta era horretako txostenak dira eskura ditugun iturri bakarrak.

Merezi ez zuten errepresioa jasan zutelako sentimenduak bultzaturik idatzi zuten Jaurlaritzaren txostena egileek, eta Europako potentzien eta gizartearen onespena eta babesa jasoko bazuten –hori zen txostenaren helburuetako bat– hobe zen kopuruak goitik biribiltzea, eta ez behetik. Txostena idatzi zen urtean, gainera, 1938an, amaitu gabe zegoen errepresioaren alderik gogorrena eta handiak ziren haren berri emateko eragozpenak. Datu zehatzak ematen dituztenean, hau da, herriz herri azaltzen direnean, gehiago hurbiltzen dira errealitatera kopuruak, eta gaur egungoen antzekoagoak dira. Nafarroan ez zela erresistentziarik egon azpimarratu zuten lan horren egileek eta Arabako giro politikoa oso baketsua zela altxamenduaren aurretik. Bizkaian, aldiz, oso bestelakoa zen giroa, bertako biztanleek erakutsitako erresistentzia-gaitasunak erasotzaileen mendeku-egarria piztu zuela diote. Gipuzkoari dagokionez, atalaren hasieran ondo laburbildu zuten, Jaurlaritzaren arabera gertatutakoa:

> En Gipuzkoa, se ha ensañado la persecución fascista en forma bárbara. No por la cuantía de los fusilamientos y asesinatos realizados sino por las circunstancias que se derivan de esta exposición.
>
> En Guipúzcoa, según se sucedían los avances rebeldes, fue evacuada la población civil. (...) Quien quedó fue porque estimaba que no podía ser objeto de represalia alguna, por su inhibición absoluta en los días en que se sostuvieron los ataques de los militares sublevados.
>
> Sin embargo en Guipúzcoa, pasan de dos mil los fusilados y "paseados". No ha existido prácticamente en esta región lo que llamaríamos Justicia organizada. No conocemos caso alguno en que se halla [sic] seguido para juzgar los trámites exigidos por la Ley.

Sarrera horren ondoren, zenbait herritako berri ematen du txostenak (Oiartzun, Beasain, Ordizia, Gatzaga, Arrasate eta abar), eta kartzeletako egoera azaltzen du. Beraien ustez, Hernaniko kanposantuan 700 gorpu inguru lurperatu ziren.

Hilabete geroago aldatu egin zuten txostena eta *Datos numéricos de la persecución de Euzkadi, Abril 1938*[27] izenarekin argitaratu zuten. Bertan, era honetara egin zuten zapaldutakoen sailkapena: «vascos encarcelados (población vasca recluida en cárceles y penitenciarías de Euzkadi, incluyendo las de Santoña), vascos en campos de concentración y batallones de trabajadores (todos los vascos que han sido encua-

27 Segurtasun-indar frankistek bahitu egin zuten txostenaren kopia bat, eta Avilako Archivo General Militar-ean dago. Documentación roja-Gobierno de Euzkadi. Arm. 46-Carp. 9- Leg. 59. *Datos numéricos de la persecución de Euzkadi, Abril 1938.*

drados en dichas unidades, distribuidas por todo el territorio peninsular), vascos afectados por otras formas de persecución (vascos que han sufrido o sufren (...) una prisión atenuada; les han sido confiscadas sus fortunas o bienes o les han impuesto multas considerables por considerarles desafectos; personas que han sido destituidas de sus empleos en Entidades públicas y particulares y (...) se hallan cesantes, y (...) aquellos que han sido desterrados fuera de Euzkadi o a cierta distancia de su localidad)». Ondorengo laukietan bildu zituzten jazarkundearen zenbakiak:

"DATOS NUMÉRICOS DE LA PERSECUCIÓN DE EUZKADI"

| | |
|---|---|
| Euskaldunak kartzeletan | 30.050 |
| Kontzentrazio-esparruetan eta langileen brigadetan | 30.000 |
| Beste zapalkuntza-mota batzuek eraginda: espetxe-zigor arindua, ondasunen bahiketa, 10.000tik gorako isunak, kargugabetzeak, atzerriratzeak... | 50.000 |
| Herritik aterarazitakoak | 120.000 |
| GUZTIRA | 230.050 |

Iturria: Informe Gobierno Vasco. Abril 1938

Emandako kopuruak hobeto ulertze aldera, 1936ko otsailaren 16ko hauteskundeetan izan ziren emaitzak azaldu zituzten txostenean. Hots, Euskadi guztian, Nafarroa barne, 1.200.000 biztanle zeudela zioen txostenak eta Gobernuko hautagaien aldeko botoak 329.512 izan zirela; beraz, euskal biztanleriaren %19,50ek pairatu zutela nolabait zapalkuntza.

Fusilatzeei zegokienez, txostenak zioen ondoko koadroan agertzen diren kopuruei beste 2000ren bat euskaldun fusilatu gehitu behar zitzaizkiela, Santanderren edo Asturiasen fusilaturikoak, hain zuzen.

FUSILATZEAK

| | |
|---|---|
| Gipuzkoa | 2.500 |
| Araba | 400 |
| Nafarroa | 10.000 |
| Bizkaia (legez) | 453 |
| Bizkaia (legez kanpokoak edo paseatuak) | 500 |
| GUZTIRA | 13.853 |

Iturria: Informe Gobierno Vasco. Abril 1938

Urtebete geroago, 1939ko maiatzean, zabaldu zen hirugarren txostena, *Euzkadi bajo el régimen de Franco* izenburupean. Lau ataletan banatuta zegoen: apaizen aurkako zapalkuntza, Gipuzkoakoa, Bizkaikoa eta Nafarroakoa. Ordurako, Gerra Zibila bukatuta zegoenez, eta nazioartean eragiteko premia txikiagoa zenez, testuinguru horretan erabilitako hizkuntza hotzagoa da, errepresioaren alde estatistikoan sakondu zen eta aurreko txostenean emandako datu batzuk zuzendu egin ziren (oraingoan baxuagoak ziren ematen ziren kaltetuen kopuruak). Ordiziari zegokionez, adibidez, 1938ko txostenak 15 lagunen heriotzaren berri ematen zuen, 1939koak, aldiz, 10en izenak bakarrik zehaztu zituen. Hala ere, kopuru orokorra handiagoa zen: hiru mila hildako. Emandako datuak oinarritzeko aukeraturiko iturrien artean, besteak beste, Telleria musikagile karlistaren ustezko testigantza erabili zuten, hark, 1937ko otsailean, kopuru hori aipatu omen ziolako ondoren ihes egin zuen apaiz bati. Baina txostenaren egileek berehala argitzen dute 3.000 lagun horietatik 340 baino ez zituztela identifikatu: «No es exigua la cifra, y valora la cuantía total señalada, si se tienen en cuenta las razones que citamos y, además, los limitadísimos medios –evadidos y refugiados– que ha sido posible utilizar para poder establecer esta información recopilada; concreta y veraz, por otra parte». Beste alde batetik, esanguratsua da nola jotzen duten aita Zubiagaren testigantzara lerro batzuk lehenago. Ondarretako kartzelan kapilau aritutako jesulagunak aitortu omen zuen hirurehun kristau ingururi lagundu ziela fusilatu aurretik, azken orduan. Fusilatuen izenak eman aurretik, azken atal bat jorratzen du Jaurlaritzaren txostenak: "barbarie rojo-separatista" eta frankista alderatzen ditu eta amaitzeko, fusilatuen izenak ematen ditu. Matxinatuen iturriak erabiliz, Altxamenduaren hasieran, Gipuzkoan, 186 hil omen zituzten errepublikarrek, nahiz eta 100en izenak baino ez zehaztu. Bestalde, badakigu eskuindar askok, tartean udatiar ugarik, ez zutela inongo arazorik izan, eta erraz zeharkatu zutela muga, abertzaleen eta agintari errepublikarren babesean zenbait kasutan. Baina altxatuen jarrera oso bestelakoa izan zen.

Euzko Jaurlaritzaren hiru txostenekin batera, herritarrek eta atzerriko gobernuek beste hiru bide izan zituzten Gerra Zibilean Euskal Herrian gertatzen zenaren berri –berri mugatua bazen ere– jasotzeko: muga zeharkatzen zuten pertsonek emandakoa, prentsan argitaratutakoa eta zenbait erakunderen txostenetan bildutakoa. Lehenengo kasuan, Ipar Euskal Herria informazioaren eta desinformazioaren gune nagusia bilakatu zen; izan ere, lagun askok zeharkatu zuen muga bi norabideetan, batzuek baimen guztiekin eta beste batzuek isilean, baina gehienek zuten mugaren beste aldean bizitako zerbait kontatzeko. Adibideak ugariak dira eta horietako bi lekuko berezi aipatuko ditugu: On Jose Migel Barandiaran apaiz eta ikertzailea eta Pío Baroja idazlea. Manuel de Inchausti-k bultzaturik eta diruz lagundurik, Barandiaranek bere ikerketa-metodoak jarraituz, datu-bilketa garrantzitsua egin zuen. Horretarako, muga

zeharkatu zuten 136 lagun elkarrizketatu zituen eta zenbait kasutan, pertsona horiek emandako agiriak gorde zituen (Gamboa-Larronde, 2006). Aurreko kapituluan ikusi dugunez, bildutako informazioa oso lagungarri izan zaigu gure lanerako, baina era kritikoan aztertu beharrekoa da. Lehenago ere esan da, gerra-giroan eta muga zeharkatzean era guztietako berriak, datuak eta iruzkinak sortzen dira, eta horietako asko ezin dira egiaztatu sarritan. Esate baterako, Barandiaranek jasotzen du Ignacio Oleaga Doktrina Kristauko Anaien kongregazioko kidearen txosten bat. 1936ko azaroaren 15ean idatzita dago eta horren arabera, alde fakziosoko militarrek 113 lagun lurperatu zuten Tolosan, 150 Hernanin eta 12 Andoainen (Gamboa-Larronde, 2006, 92). Garai beretsuan, Gelasio Aramburu apaizak esan zuen 7.000 hildako baino gehiago izan zirela Nafarroan (Gamboa-Larronde, 2006).

*La Guerra Civil en la frontera* liburua idatzi zuen Pío Barojak, mugaren beste aldetik heltzen zitzaion informazioa bilduz, baina zehaztasun gabezia handia dago datu batzuetan. Bere hitzetan, esate baterako, Aitzol apaiza Bilbora joaten saiatu zenean *La Balandra* izeneko itsasontzian egin omen zuen –*Galerna* zen bakailao--ontziaren benetako izena–, eta patroiak traizio egin ondoren, Bizkaiko portu batean lehorreratu omen zituzten bidaiariak –guk badakigu Pasaiara ekarri zituztela–. Barojak, kanpotik begira ari den ikuslearen jokabide objektiboa nabarmendu nahi zuen, eta helburu horrekin, batzuen eta besteen inguruko berriak jaso zituen. Bere esanetan, Berako harrobian laurehun lagun inguru fusilatu zituzten eta San Cristóbal-eko gotorlekuan, Iruñeko Ezkaba mendian, beste berrehun. Donostian eta Irunen, aldiz, preso asko hil omen zituzten, anarkistek bereziki.

Garaiko prentsak ere eman zuen errepresioaren berri, baina komunikabideetan gertatu ohi denez, oso ikuspuntu eta helburu desberdinekin. Altxamenduaren aldeko zuzendaritzak zituzten egunkariek zehatz-mehatz deskribatu zituzten matxinoen mugimenduak, baina mutu geratu ziren errepublikazaleen helburuekin zerikusia zuen guztiaren aurrean. Errepublikarren prentsak ere antzeko jokabidea hartu zuen, baina informazio gehiago zabaldu zuten epaiketa handiak egon zirenean edo Bilboko kartzeletan herritarrak sartu eta hainbat hildako gertatu zirenean. Gipuzkoako atzeguardiako gertakizunei zegokienez, prentsa errepublikarra saiatu zen matxino militarren mendekuzko jarrera eta ekintza zapaltzaileak azpimarratzen. Horrela, sarritan, orain arte esan dugun bezala, informazioa eta propaganda nahasi egiten ziren, baina faktore hori aintzat hartuta ere, emandako datuetako asko ontzat eman daitezke, eta deskribatutako giroak ez zuela errealitatearekin alde handirik izango uste dugu. Pentsamolde ezberdineko egunkariek kontaturikoa erabiliko dugu ondoko lerroetan, Gipuzkoan eta Euskal Herrian, oro har, jasotakoa ezagutzeko.

Bilboko egunkarietako bat zen *El Nervión* izenekoa; ez zuen pentsaera politiko garbirik, baina liberalismo monarkikora hurbiltzen zen. Altxamenduaren ondo-

rengo lehenengo egunetako anabasa gainditu ahal izan zuen, baina 1937ko otsailean desagertu zen betiko. Irailean argitaraturiko gaiari buruzko lehenengo artikuluan, Gasteizetik alde eginda Bilbora heldu ziren zenbait iheslariren berri eman zen; horien arabera, atxiloketa asko eta 50 fusilatu baino gehiago izan ziren Gasteizen, betiere atxiloketaren arduradun ziren erreketeek eta falangistek epaituta, besterik gabe[28]. Urrian eta azaroan zehar publikatu zituen *El Nervión*ek zapalkuntza frankistari buruzko zenbait ohar, baina garrantzi berezirik eman gabe. Urriaren 30eko egunkarian agertu zen Arrasateko bi baserritarren fusilatzeari buruzko berria (batak bestearen igarobaimena erabiltzeagatik). Hamabost egun geroago argitaratu zen lehenengo aldiz Gizpukoako zenbait apaizen exekuzioa, baina zeharkako aipamena izan zen; izan ere, gai nagusia Arrasateko Udala auzoko apaiz bat lerro errepublikarrean sartu izana zen, eta jarrera horren arrazoia azaltzen zen, hau da, Arrasateko eta Gipuzkoako beste abade batzuekin matxinoek jarraitu zuten bidea saihestu nahia.

Euzkadiko Alderdi Komunistaren hedabide ofiziala zen *Euzkadi Roja*, eta, normala denez, askoz jarrera gogorragoa izan zuen informazioa zabaltzean. Azaroaren 11n eman zuen Gipuzkoako diputazioko "garbiketen" berri, eta horrekin batera azaldu zuten zein izan zen zenbait funtzionarioren jarrera norbere ideiak ukatuz, lanpostua berreskuratzearren. Faxisten aldeko adierazpenak ez egiteagatik adineko emakume batzuek pairatu behar izan zutena (ilea erabat moztu zieten) ere kontatu zen, bai eta zenbait elkarte ustez apolitikok hartu zuten lankidetzako jarrera matxinatuekin, Donostiako Orfeoiak, besteak beste. Honela deskribatu zen astekari komunistan hiriak bizi zuen giro apokaliptikoa:

> Le habían dicho que velando por el "buen mantenimiento del orden" habían sido fusiladas algunas personas, que los cafés son muy frecuentados por gente indeseable y amoral, chulos cabareteros y sus inseparables concubinas y que, desde luego, se ha entrado a saco en las moradas de los que, huyendo del terror fascista, tuvieron que abandonar su ajuar.

Hurrengo egunetan ere antzeko artikuluak agertu ziren, baina kaltetuen senideak ez mintzen saiatuko zirela adierazi zuten[29]. Egun berean eman zen *Galerna*ri gertatutakoaren berri (bakailao-ontzia harrapatu eta zenbait bidaiari hil izana). Bi egun geroago argitaratu ziren nazionalek fusilaturiko pertsona batzuen izenak. Abenduaren 10eko titularrak honela laburtzen zuen Gipuzkoako egoera: «En el infierno fascista. En Donostia imperan los fusilamientos, el hambre, los cortes de pelo, los saqueos». Laburpen horren azpian, Donostiatik trukean heldutako emakume batek kontatu zuen zein zen hiriaren egoera, eta ezagun batzuen eta apaiz abertzale batzuen fusilatzeak aipatu zituen. Abenduaren 29ko alean, artikulu bat eskaini zion as-

28 "En los frentes de Guipúzcoa", *El Nervión*,1936-9-26.

29 "Pobre Guipúzcoa", *Euzkadi Roja* 58, 1936-11-18.

tekari komunistak apaizen fusilatzeen gaiari, eta bertan berresten zen 30 apaiz baino gehiago fusilatu zituztela "kristau errekete eta falangistek".

Prentsako ikuspuntuen aniztasuna aztertzeko ahaleginean, bukatzeko, Euzko Jaurlaritzak Parisen argitaratzen zuen *Eusko Deya* egunkariko zati bat hartuko dugu. Kontuan izan behar da egunkaria sortzean izan zituzten helburuen artean, garrantzitsuenetakoa zela nazioarteari erakustea, batez ere katolikoei, zein bidezkoa eta zuzena zen euskal errepublikazaleek zuten borrokarako arrazoia. Bide horretan jorratu zituzten artikuluak, eta helburu hori betetze aldera azpimarratu zituzten behin eta berriz matxinoen krudelkeriak eta ankerkeriak. Gainera, Bizkaian irakurtzeko aukerarik ez izateak lagundu zien deskribapenetan gordintasuna eta zehaztasuna areagotzen. Astekariaren tonua eta estiloa ikusteko oso baliagarria da ondoko zati hau:

> Hemos dicho de 14 a 32 sacerdotes. Porque nosotros, encerrados en el ámbito de la verdad no queremos transponer sus fronteras. Ellos mismos, oficiales del Ejército sublevado, conspicuos falangistas y Jefes tradicionalistas han confesado en la intimidad, en repetidas ocasiones que «llevan ya fusilados 32 sacerdotes nacionalistas vascos». Más nosotros no tenemos hasta el presente nombres más que de 14, si bien tenemos noticias de otros seis sacerdotes fusilados, que hacen un total de 20.
>
> (...)
>
> A estos sacerdotes mártires hay que sumar miles de católicos vascos pasados por las armas por esos monstruos de la civilización cristiana. Beneméritos amantes de su país, sin más pecado que sus ejemplares sacerdotes martirizados, ciudadanos pacíficos que confiados en la honorabilidad de los que decían luchar en nombre de una religión, que es todo amor, bondad, piedad, perdón, no dudaron ni un momento en quedarse en sus casas. Hombres y mujeres de toda edad, estado y condición han sido villanamente fusilados unos y muertos a pistoletazos otros por el «horrendo crimen de amar a su Dios y a su Patria».
>
> En Pamplona han caído más de 1.200; y en toda Navarra pasan de 7.000 en Vitoria se ha fusilado a unos 2.000, y en la Provincia de Álava más de 1.000. En Guipúzcoa, donde la juventud y la casi totalidad de conocidos nacionalistas vascos se refugiaron en Bizkaya, han derramado su sangre más de 800 hombres y mujeres. De esos 9.000 vascos, la mayoría pertenecen al Frente Popular. Pero casi todos ellos eran vecinos pacíficos: no se sublevaron en armas, ni delinquieron en delito alguno, ni dieron ningún motivo para tamaño castigo. Ni fueron juzgados, ni sentenciados, ni condenados por tribunal alguno.
>
> (*Euzko Deya*, 1936, 61)

Orain arteko orrialdeetako datuek garbi adierazten dutenez, ez da batere erraza zehatz-mehatz esatea zenbat izan ziren matxinoek eragindako hilketak Gipuzkoa hartzen zuten bitartean eta ondoko hilabeteetan. Beraz, ia ezinezkoa da errepresioren ondorioz hildako guztien izen-abizenak berak ere zehaztea. Lan horretarako, eragozpen bat gehiago da errepresioa zuzentzen zuten egoitza ofizialetako inolako agiririk ez egotea, hau da, Gobernu Zibil, Militar, Justizia Jauregi edota beste erakunde erdi publikoetako agiritegiak (Falange edota Gerrako Junta Carlista) desagerturik iza-

tea. Gerra-kontseiluetan militarrek epaitutakoei buruzko agiriak baino ez ditugu, El Ferroleko Archivo Militar-ean gorderik. Baina ezin dugu jakin zehaztasunez zenbat izan ziren prozedura hori jarraitu gabe eraildakoak. Gauzak horrela, lehenago ere aipatu dugunez, alde handiak daude gai honetaz arduratu diren historialariek eman dituzten kopuruen artean.

Bi aldeetako hildakoei buruzko azterketa parekatua egiten saiatu zen lehenengo ikerlaria Salas Larrazabal historialari militarra izan zen; berak ere parte hartu zuen Gerra Zibilean, armada frankistan boluntario. Baina, ikerketen oinarritzat hartu zuena gaur egun erabat baztertuta dago; hots, berak uste zuen gerran hil ziren guztiak sartu zirela zegozkien Erregistro Zibiletan, eta horien araberako datuak eman zituen, baina ez zen horrela gertatu. Iturri hori kontsultatuz –beharbada ez behar bezain fin–, Salas Larrazabalek dio Gipuzkoa errepublikarren menpe zegoela 426 hil zituztela agintean zeudenek. Militarrak Gipuzkoan sartu ostean, aldiz, 324 hildako egon ziren. Beste alde batetik, 1936an bakarrik izan ziren gehiago legez kanpoko exekuzioak (24), legezkoak baino (17). Oso esanguratsua da frankistek hil zituztenetako asko noiz sartu ziren Erregistro Zibilean ikustea, izan ere, haietariko 209 heriotza 1945ean erregistratu zituzten (Salas, 1977, 213).

Arestian esan dugun bezala, Salas Larrazabalen lanen oinarrizko printzipioa (Erregistro Zibila) garai hartan bertan ere ez zen erabat onartzen, eta gaur egun okertzat hartzen da, inolako zalantzarik gabe (Reig, 1984). Nahiz eta 1870eko Erregistro Zibilaren Legeak argi eta garbi zehaztu ezin zirela gorpuak lurperatu zegokien udal barrutiko erregistro zibilean (hildako tokia edo gorpua aurkitu zen lekua) heriotza apuntatu gabe, ez zen legea bete kasu askotan, nabarmen. Beste askotan, heriotzaren arrazoia ezkutatu egin zen eta burutik beherakoa, bihotzekoa edo halakoak idatzi ziren arrazoiei zegokien tokian. Heriotzak behar bezala ez inskribatzeak arrazoi ezberdinak zituen; alde batetik, biktimarekiko mespretxuak bultzatzen zituen hiltzaileak horrela jokatzera, eta, bestetik, egindako krimenen berri idatzirik, frogarik, ez uzteko. Bestalde, hildakoen sendietan ere arazoak sortzen ziren betebehar administratibo horretarako, eta luzatu egiten zen prozesua. Askotan ez zekiten legez heriotza inskribatu beharra zegoenik ere; beste batzuetan, mendekuaren beldur ziren; prozedurak berak zailtasun handiak zituen edo ez zegoen zuzeneko seniderik, edo ihes eginda zeuden. Heriotza gehienetan, erregistroan ez agertzeak beste prozedura judizial luze eta konplikatu batera eramaten zituen senideak, desagertu egin zirela edo hilda zeudela aitortuko zuen agiria lortzeko egin beharrekoak betetzera. Gerra osteko lehenengo urteetan, bost urte pasatu behar ziren desagerpenaren agiriaren datatik aurrera epaileak ustezko heriotza dekretatzeko. Gainera, 1939tik aurrera hamar izan ziren igaro beharreko urteak. Agiria eskuratzeko ez zen nahikoa senideen eta lekukoen deklarazioa, erakunde ofizialek ere txostena egin behar zuten (Vega Sombría, 2005, 102-105).

Iñaki Egaña historialariak eskaini zigun gerra-garaiko heriotzei buruzko bigarren azterketa, bere zuzendaritzapean, Gerra Zibilak Euskal Herrian izan zuen bilakaera aztertzen den historia zabal baten barnean. Egañaren iritziz, 1000 lagun inguru erail zituzten frankistek Gipuzkoan gerran eta gerraostean. Hildakoen zerrenda egin zuen eta bertan zehaztu zituen izen-deiturak, jaioterria, bizilekua eta heriotzaren gutxi gorabeherako data eta tokia. Baina, zoritxarrez, datu horien guztien aberastasuna eta egindako lan neketsuaren balioa lausoturik geratzen dira, ez baitigu eskaintzen erabilitako iturriei buruzko argibiderik, eta, beraz, ekarpen garrantzitsu hori kontrastatu ezinean geratzen gara. Aurrerago ikusiko dugunez, zenbait akats aurkitu ditugu zerrendan; hala ere, huts horiek ez dute deuseztatzen egindako lanaren balioa, baina tentuz ibiltzeko oharrarazten gaituzte. Bestalde, ez da behar bezain garbi geratzen gipuzkoarren eta Gipuzkoan fusilaturikoen arteko bereizketa. Izan ere, behin baino gehiagotan, deiturek eta bizilekuek adierazten dute Gipuzkoako lurraldea bertan borrokatu zuten errepublikazaleen ehorzlekua izan zela, errenditu ziren unean hil ostean; edo, bestela, agintari frankistek aukeratutako tokia Iparraldeko Fronteko preso errepublikarrak auziperatzeko. Hala eta guztiz ere, Egañaren ekarpena, Aranzadi Zientzia Elkarteak azken urteotan egindako lanekin zuzenduta eta osatuta, gure ikerketaren zutabeetako bat izan da.

Pedro Barrusok lan ugari argitaratu ditu Bigarren Errepublikari eta Gerra Zibilari buruz, eta lan horiek lagungarri izan ditugu Gipuzkoako egoera ulertzeko Errepublika-garaian, baita Gerra Zibilaren lehenengo fasean ere. Egañaren lanean ez bezala, *Violencia, política y represión en Guipúzcoa* Barrusoren liburuan ugariak dira aipamenak eta agiri-iturrien berri ematen zaigu uneoro. Heriotza-zigorrak zapalkuntzaren alderdi nabarmenena badira ere, horiek apur bat baztertu eta bigarren mailan utzi ohi diren errepresioaren alderdiak aztertzen ditu arreta bereziz Barrusok, hau da, kartzela-zigorrak, ondasunen bahiketak, isunak eta "garbiketak". Hilketei dagokienez, gure ustez, gehiegi mugatzen da dauden agirietan aurkitutakora eta gainera ez digu agirien zehaztasun handirik eskaintzen. Barrusoren esanetan, 635 laguni eman zioten heriotza-zigorra, eta horietatik 485 hil zituzten. Baina berak badaki hobi komunak egon zirela eta inolako agiritan agertzen ez diren "paseatuak" zeritzenak. Oiartzun eta Hernani aipatzen ditu ziur aski ezelako epaiketarik gabe erailketak egin ziren herrien adibidetzat[30]. Beharbada, zuhurtasun handiegiaz dio 1936 eta 1945 artean, 485etik 500 lagunera exekutatu zituztela Gipuzkoan, betiere «[a la] espera de posibles avances a la luz de nuevos documentos». Bestalde, emandako kopuru hori ez dator bat Barrusok berak 158. orrialdera dakarren aipamenean esaten

30 Segoviaren kasuan, Vega Sombría-k dio %64,78 exekutatu zituztela legez kanpo eta erregistro zibiletan sartu zituztela.

denarekin, hots, Gomá Kardinalak Vatikanori esandakoarekin: 1936ko azken hilabeteetan bakarrik «cuatrocientos y pico fueron condenados a muerte». Azkenik, liburuan ez datorrenez hildakoen zerrendarik, ez dugu Egañak eskainitakoarekin konparatzeko gairik. Dena den, egile biak datoz bat Euzko Jaurlaritzaren txostenetan esaten denarekin, hau da, zapalketaren unerik latzenak eta odoltsuenak Donostia hartu eta berehala, Gipuzkoaren zati handiena okupatu osteko lehenengo hilabeteetan bizi izan zituztela.

Gu geu ez gara ausartzen kopuru zehatz bat ematen, baina, agiriei dagokienez, gaia ikertzeko arloan dauden zailtasunak ahaztu gabe, uste dugu kontuan hartu behar dela lurraldearen soziologia, bai Bigarren Errepublikaren garaian, bai eta errepublikarren kontrolpean egon zen bi hilabete eta erdi eskasetan ere. Halaber, ezin da ahaztu gertatu zen erbesteratze handiak eragina izan zezakeela zapalkuntzaren fenomenoa nolabait gutxiestean.

Beste lurralde batzuetan, agiri-faltak utzitako hutsunea[31] –Gipuzkoan baino txikiagoa sarritan– ahozko iturrietara joz bete izan da. Bide hori baliagarria izaten da landa-eremuetan, biztanle gutxiko herrietan, herritarren arteko loturak izaten direnean eta elkar ezagutzen dutenean. Dauzkagun datuen arabera, Gipuzkoako kasuan, orduantxe demografikoki hazten ari ziren herrietara bereziki zuzendu ziren altxatutakoen zigor-ekintzak, salbuespenak salbuespen. Herri horietan, jende-mugimendu handia zebilen eta ez zegoen baldintza egokirik biztanleen arteko harremanak estutzeko. Hain zuzen ere, toki horietakoak izan ziren jarrera ezkertiarrenen alde agertu zirenak eta gehien mobilizatu zirenak. Horietako askok gatazkaren ostean betiko utzi zuten Gipuzkoa, gehiago ez itzultzeko. Batzuek alde egin zuten Espainiatik; beste batzuk beren lurretara edo beste nonbaitera itzuli ziren, iragan "gorria" leporatuko ez zioten tokietara errazago bizitzearren. Horren guztiaren ondorioz, taldearen memoria historikoa murriztuta geratu zen, eta beste toki batzuetan baino zailagoa izan da oroimenean gordetakoarekin berregitea historia. Bestalde, alderdi abertzale eta ezkertiarretako buruzagi gehienek alde egiteko aukera izan zutenez, zapalkuntza militarra gauzatzeko eremua beste probintzia batzuetan baino txikiagoa izan zen, lurralde horietan ezin izan baitzuten ihes egin, ez ezkutatu, errepublikazaleek. Buru-

31 Euzko Jaurlaritzak 1938an egindako zerrendan, *Relación de fusilados en Gipuzkoa y Gipuzkoanos fusilados en otros puntos*, ordura arte, bestelako zerrendetan agertzen ez ziren izenak argitaratu zituen: Alkain Francisco; Aramburu Jauregui, Hilario; Arana, Encarnación; Arana Zubillaga, Hilario; Arrizabalaga, Bienvenida; Astiz; Berecibar-en Andrea; Echave-ren Andrea; Galdos, Eugenia; Ibarbia; Igartua, Hilario; Madina, José María; Martínez Oztacoz, José; Narvaiza, Ángel; Oñatura, Fermin; Urain Egaña, Hilario; Uriona, José Antonio; Urrutia Zuzuarregui, Esteban; Usobiaga Zabala, Antonio; Vega (telegrafista) eta Zabaleta Zabaleta, Angel.

Erakunde berak 1940an argitaratutako gehigarrian honako hauek gehitu ziren: Alberdi, E.; Aznar Brianzo, José; Larre, Mariano; Marquina Palacios, Rodrigo; Roa-ren Andrea eta Urain Egaña, Hilario.

Abertzaletasunaren Agiritegia. GE-12-4.

zagirik ez geratzean, Euzko Jaurlaritzaren txostenetan irakur daitekeenez, eragin politiko handirik gabeko pertsonek pairatu zituzten zigorrak, eta horiek ahaztuta geratu dira urteen buruan. Beste alde batetik, denbora gehiegitxo pasatu da historialariok gaiari heldu arte, eta atzerapenak ez dio mesederik egin informazioa biltzeko aukerari. Gipuzkoako agiritegi ofizialak desagertzea gertaera handiegia da kasualitatea izateko; ahoz ahoko oroitzapenak dagoeneko eskasegiak dira, eta ez da erraza garai hura bizi izan zutenak eta beren lekukotasuna emateko prest dauden pertsonak aurkitzea. Azkenik, ezin dugu ahaztu, uztailetik irailera bitartean, zenbait talde kanpotik etorri zirela Gobernuaren alde borrokatzera. Meatzari asturiarrak, militarren agindupean zegoen Galiziatik ihesean etorri ziren arrantzaleak eta langileak eta Europatik etorri ziren militante ezkertiarrak borrokatu ziren Gipuzkoako fronteetan. Pentsatzekoa da horietako batzuk matxinatuen eskuetan eroriko zirela preso, eta inolako agiritan arrastorik utzi gabe erailko zituztela, gerran borrokakide izan zutenen arteko oroitzapena bera ere galduta.

## Errepresio-estrategia: heriotzak

Gipuzkoako lurraldean, borrokaldiak iraun zuen hiru hilabeteetan erresistentzia errepublikarrak izan zuen indarrak eta militarren eta eskuindarren kontra erabili zen bortxakeriak erabateko eragina izan zuten irabazleen erantzuna azaltzeko orduan: mendeku-nahia neurri zapaltzaile gogorrenetan gauzatu zen (betiere beraiek pairatutakoa erabiliz krudelkeria zuritzeko)[32]. Egia da tarteren batean errepublikarren kontrolpean egondako hirietan bortitzagoa izan zela zapalkuntza frankista, baina horrek ez du esan nahi bestelako hirietan arinagoa izan zenik; erresistentzia oso txikia izan zen zenbait probintziaren kasuak aztertzea baino ez dugu hori ikusteko: Valladoliden, Sevillan edo Nafarroan izandako hilketa-kopurua oso altua izan zen. Beraz, emandako arrazoiak ahaztu gabe, beste era batekoak ere aztertu beharra dago.

Altxatuen errepresioa aldatuz joan zen denboran zehar. Ez da erraza garai bakoitzaren muga zehatzak ezartzea, baina tipologia jakin bat ikus daiteke. Helburu bat baino gehiago izan zituen matxinoen zapalkuntzak: alde batetik, altxamenduaren alde jarri nahi zituen ordura arte jarrera garbirik hartu ez zutenak; beste alde batetik, izuaren bitartez geldiarazi nahi zituzten gobernu errepublikarraren aldekoak; eta, azkenik, atzeguardia zaindu behar zuten, erresistentziaren aldeko jarre-

32 «... cuando se acaba de conquistar la ciudad de San Sebastián después de la resistencia durísima de los nacional-comunistas: justicia rápida y ejemplar...» (Andrés-Gallego, 2001, doc. 4-20). José Andrés-Gallego eta Antón M. Pazos Gomá kardinalaren eskutitz eta agiriak argitaratzen ari dira azken urte hauetan, 2001etik aurrera.

rak saihesteko (Cabanellas, 1975, 837). Beraz, ez du zentzurik gerrako operazioak eta zapalkuntzarekin zerikusia zutenak bereizteak, txanpon beraren alde biak baitira. Gipuzkoan, matxinatuek aurrera egin ahala, hasiera-hasieratik ezarri zituzten neurri zapaltzaileak herriak okupatu ahala, toki horiek defendatzen ari ziren errepublikazaleen aurka; horren adibide dira 1936ko uztailaren 27tik 28rako gauean hil zituzten hogeita hamar beasaindarrak, Oria bailarako buru zen Beasain hartu ondoren. Baina, lehenago ere esan dugu, batez ere Donostia okupatu ostean, neurri batean gerra egoerarekin lotuta zeuden ekintzek bidea ireki zioten errepresio antolatu eta sistematikoari.

Beraz, Gipuzkoako errepresio-estrategia sailkatzekotan, erdibidean dago hasierako araurik gabeko errepresio zuzenaren eta erakundeetatik zuzendutako errepresio arautuaren artean. Lau izan ziren frankista izango zirenek beren esku geratzen ziren errepublikarrak hiltzeko jarraituriko estrategiak: 1) Borroka-guneetan bertan, frontean, hiltzen zuten, erresistentzia errepublikazaleak eragindako giza galerak eta bestelakoak ordaintzeko zabaltzen zen odol-gosearen ondorioz. 2) Sarritan, etxean bertan atxilotzen ziren ustez Movimiento-aren aurkakoak eta berehala hiltzen zituzten gorri-separatista eta marxista susmagarritzat hartuta. 3) Kartzela batera edo atxilotuak edukitzeko toki batera eramaten zuten susmagarria, eta handik egun gutxira "aske uzten zuten" exekutatzeko. Maiz, Donostia erdialdetik kanpora eramaten zituzten fusilatzera, Ulia mendira esate baterako; beste batzuetan, hiritik hurbil, baina beste udalerri batzuetan hiltzen zituzten, Hernanin eta Oiartzunen besteak beste. Azkenik, 4) Gerra-kontseilu guztiz sumarioak egiten ziren, defentsarako aukera handirik eskaini gabe. Prozedura horren bitartez heriotzak "legezko" bihurtzen ziren. Gerra-kontseiluetan emandako heriotza-zigor asko Ondarretako kartzelaren hormetan, bertan, bete zen. Horrez gainera, beste toki batzuk ere erabiltzen zituzten fusilatzeko: Polloeko kanposantu ingurua, Norteko Ferrokarrillaren Burdinazko Zubia edo Errondoko Gas Fabrikaren inguruak. Ikusten denez, horiek guztiak Donostiako udalerriko lurretan, baina ez dakigu heriotza haiek sententzia baten ondorio izan ziren edo "paseoen" azkena. Gure ikerketak eta aurretik gauzatutako beste biek, Egañarenak eta Barrusorenak hain zuzen, ez dute datu nahiko eskaintzen errepresio-eredu bakoitzak Gipuzkoan izan zuen garrantzia zehazteko. Gure ustez, azken aukera biak (kartzelatu eta "aske" utzi ondoren hil eta gerra-kontseilu ostean fusilatu) erabili ziren gehien gure lurraldean, baina baditugu aurreneko bien kasuak ere.

Arestian aipatutako 1936ko uztailaren 27tik 28rako gaua ekarriko dugu hona berriz. Ezaguna da matxinatuek, soldaduek eta nafar erreketeek Beasain hartu zutenean, gau hartan bertan, ordura arte errepublikarrek erakutsitako erresistentziaz gogaiturik, sekulako triskantza egin zutela herrian, bereizketarik gabeko lehenengo zigor-ekintza. Borrokan aurre egin zieten herritarrak, miliziarrak eta guardia zibilak

fusilatu zituzten. Horiez gainera, borrokaldietan parte hartu ez zuten zenbait lagun ere horiekin batera hil zituzten; soldaduek sortutako suteengatik eta herritar batzuk atxilotzean protesta egiteagatik hil zituzten bi tradizionalista. Guztira 25 eta 32ren artean izan ziren hildakoak. Lekuko baten arabera, Cayuela komandanteak agindu zituen, erabat mozkorturik zegoela, heriotza-zigor haiek. Horretaz gain, lapurretak eta atxiloketak gertatu ziren herriko hainbat etxetan[33]. Gainera, zenbait pertsona eraman zituzten Beasaindik Nafarroara zihoazen errepideetara, Lizarrusti eta Etxegaratera hain zuzen, hantxe hil eta lurperatzeko. Hori gertatzen zen bitartean, Gipuzkoako beste aldean, Bidasoako frontean, borrokaldi gogorrak gertatzen ari ziren, altxatutakoek muga kontrolatu eta Irun hartu nahi baitzuten. Gatibu hartu ahala hiltzen zituzten milizianoak: Pikoketan 13, bi emakume miliziano barne[34], Zubeltzun 20 inguru, Guadalupen 5 eta beste hainbeste Lesakan. Irunera sartu zirenean, armen garraioan harrapatu zituzten zenbait lagun hil zituzten, baina ez dakigu zenbat. Hondarribian, Santos abizeneko lorezain bat fusilatu zuten (Gamboa-Larronde, 2006, 563). Donostian sartu zirenean, aldiz, ez zen horrelakorik gertatu, Gobernadore Zibilak (Ortega tenientea) eta Frantziako enbaxadoreak hitzarmen bat egin baitzuten txikiziorik gerta ez zedin hiriburuan.

Orain arte aipaturiko exekuzio horiek, "berotan" egindakoak alegia, ez ziren bukatu orduan, gerrako lehenengo egunetan. Ignacio Azpiazuk kontatu zuen Azpeitiko gazte bat fusilatu zutela erreketeek Deban, preso hartu zuten tokian bertan, irailaren bukaeran. 1937ko martxoaren 7ko *Euzko Deyan* agertzen da Mendaroko Alzola auzotik frankistek kanporatu zituzten lau emakumeren testigantza. Horien arabera, militarrek auzoko bat, Mariano Arriaga, eta Bilboko gudari bat hil zituzten inolako epaiketarik gabe, tokiko komandante militarraren aurrera eraman ondoren. Beste zazpi preso fusilatu zituzten Alzolako bainuetxearen atzean[35]. Errepublikarren aldera pasatzen saiatu ziren zenbait soldadu ere borrokaldiko lerroan hil zituzten. Elgetako frontean gertatutako heriotzen artean bost gudari eta zibil baten hilketa aipatuko ditugu. José Vicente Garay izan zen zibila, Antzuategi Barrena baserrikoa, mairuek fusilatu zuten Elgetan sartu zirenean. Bera bakarrik lurperatu zuten hilerrian (Domingo, 2004, 328). Herri berekoa zen P. T. baserritarra, etxeko sarreran hil zutena, bere alaba bortxatu nahi zuen mairu-talde bati aurre egin zionean; ez zuen

33 Ez zen izan Beasain kasu bakarra: «El camino de Irún a Vera se ve lleno de autos que se dirigen a Pamplona, cargados con cosas robadas, el botín de los conquistadores. Los buenos católicos navarros van a Irún en automóvil a ver si pueden quedar con algo» (Baroja, 2005, 83). Mokoroa fraide eskolapioaren esanetan, harrapakinez betetako kamioikadak heltzen ziren Gipuzkoatik Iruñeko zezen-plazara: batzokietan, alderdi politikoen egoitzetan eta etxebizitzetan harrapaturiko altzariak eta ondasunak (Gamboa-Larronde, 2006, 112).

34 Santiago Macías-ek dio 16 izan zirela hildakoak (Silva-Macías, 2003, 257), baina kopuru zehatza 13 da (Runy, 1938, 23) eta http://www.asociacionrepublicanairunesa.org [2006-12-27].

35 "Ce qui racontent les Guipuzkoans expulsés", *Euzko Deya* 29, 1937-3-7.

lortu eragoztea eta biziarekin ordaindu zuen. Emaztea ere liskar berean zauritu zuten eta Donostiako ospitale batean hil zen (Askoren artean, 2002, 77).

Oraindik ez dugu nahiko informazio "paseoen" inguruan, eta ziur aski ezinezkoa izango da osotasunean ezagutzea, ekintza-motak berak oztopatzen baitu bere berri izatea. Hala ere, Aranzadi Zientzia Elkartearen lanek argibideren bat eman diezagukete horren inguruan. Hasieran aipatu dugun moduan, Aranzadik ahalegin handiak egin ditu 2000. urtetik aurrera, hilobiak aurkitzeko eta bertan lurperatutakoak identifikatzeko. Urte hartan, 2000.ean, Leongo Priaranza del Bierzo-n zegoen hobi baten indusketan hartu zuten parte elkarteko hiru kidek, *Asociación para la Recuperación de la Memoria Histórica*-rekin lankidetzan (Silva-Macías, 2003). Harrezkero, Euskal Herrian hasi ziren eskabatzen hobi komunak aurkitzeko, eta indusketa horietako batzuk Gipuzkoan egin zituzten. Lan nekeza eta zaila da; izan ere, lurperatzeen lekukoek ez dituzte garbi izaten oroitzapenak, eta sarritan ez da jakiten zein diren hobietan lurperatutakoen izen-abizenak. Aranzadikoek 2002. urtean sona handia izan zuten bi indusketa egin zituzten Zaldibian eta Arrasaten, eta bina gorpu aurkitu zituzten. Hobiak (Arrasatekoa mendiko sima bat) hilerrietatik urruti eta jendea ibiltzen zen tokietatik aparte egoteak ondo erakusten dute erailketa haiek ez zutela nondik heldu juridikoki. Gipuzkoako bi hobi horiek memoria historikoa berreskuratu nahiaren ikur bihurtu ziren, Gerra Zibilaren eta bere inguruko errepresioaren gaineko interes soziala berpiztu zuten, eta bidea eman zieten hurrengo urteetan egingo ziren lanei. Urtebete geroago, 2003. urtean, Ametzagainan (Donostian) eta Andoainen egindako indusketek emaitza eskasa izan zuten. Urte berean aurkitu ziren Elgeta hartu ondoren frankistek Garayrekin batera fusilaturiko 6 gudariren gorpuak. Eta Mutrikun, 1936ko urrian fusilatu zituzten lau gudarien gorpuetako bat berreskuratu zen. 2004an, azkenik, beste indusketa bat egin zen Behobian. Lan horiek guztiek gaiarekiko interesa suspertu bazuten ere, Aranzadiren 2002. urteko memorian indusketen bideak dituen mugen berri eman zen. Izan ere, kasu batzuetan, gorpuak isilean atera ziren eta hilerrietara eraman, inongo agiri edo baimenik eskatu gabe; beste batzuetan, inguruan egindako lanek mugitu eta nahasi egin zituzten hondakinak, eta erabat ezinezkotu berreskuratzea eta identifikazioa. Azken urteetako Gipuzkoako lurren bilakaera ikusita, zaila da hainbeste urbanizatu den lurraldean, duela 70 urte egindako hilobiratzeak bere horretan aurkitzea. Horren ondorioz, indusketaren bidea baztertu gabe, Eusko Jaurlaritzarekin batera, agiri idatzien artean ikertzea erabaki zuen Aranzadi elkarteak, errepresioaren berri zabalagoa izateko itxaropenarekin.

Gipuzkoak erakutsitako erresistentziak Molaren hasierako asmoak aldarazi zituen, jenerala ziur baitzegoen borroka gutxi batzuekin Euskal Herri osoa bere menpe egongo zela eta bere indarrak Madrileko frontera bideratu ahal izango zituela. Ikuspuntu horretatik, altxatuek ez zuten pozik egoteko arrazoi gehiegi. Donostiako militar

buruek erakutsitako kemen eta ausardia faltak (atzeratu egin zen altxamendua) eta laguntzaile zibilen ahuleziak hilabete luzeetako lana eskatu zien altxatuei errepublikarren erresistentziari aurre egiteko eta hiria hartzeako. Gainera, Espainia guztitik ekarri behar izan zituzten tropak horretarako. Beraz, hori guztia kontuan hartuz gero, ezin da esan Donostian eta lurralde osoan, oro har, arrakasta izan zuenik altxamenduak. Faktore horiek azaldu dezakete Gipuzkoa okupatzearekin batera, mendeku egarriz, bertako biztanleen aurka ankerkeriaz hartutako neurri gogorrak. Baina nolabaiteko porrot hori ez zen izan arrazoi bakarra. Gogora dezagun, Nafarroan ia ez zela borrokaldi militarrik gertatu eta hasiera-hasieratik ia lurralde osoa lerratu zela altxatutakoen aldera; hala ere, exekuzio asko izan ziren, 3.000 inguru, zenbait iturriren arabera.

Edozein modutan, ezin da hitz egin kontrolik gabeko ekintzez, bereizketarik gabeko errepresio itsuaz, zenbait kasu azaltzeko dugun argudio bakarra hori izanda ere. Nekez pentsa genezake errepresioa berezko kontua izan zenik. Militarrak eta agintari politikoak (karlistak eta falangistak bereziki) denak bat zetozen errepresio-bideen kontrolean. Hori kontuan izanda, pentsaezina da 1936ko udazkenean fusilatu zituztenak, inolako kontrolik gabe, aurretik harturiko erabakirik gabe eta agintarien ezagutzarik eta oniritzirik gabe egin zirenik. Militarrak, tradizioz eta ohituraz, oso uzkur agertzen dira zerbait garrantzitsua inoren esku uztekotan, are gutxiago inkontrolatuen ardurapean. Goi-agintaritzaren onespenik gabe jokatzeko izandako saio gutxi batzuk berehala etenarazi ziren bide ezberdinak erabiliz. Lurraldeko gobernadore zibilek zabaldutako bandoak izan ziren bitarteko bat. Horietan gogorarazten zen Agintariek (maiuskulaz) zuten ahalmena eta lehentasuna atxiloketak eta "bestelako ekintzak" egiteko. Bestalde, altxamendua zuzentzen zuten alderdi eta elkarteetakoak ziren zapalkuntzaren eragileak, eta militarrei laguntzeko izendaturiko zuzendari zibilak ere jatorri berekoak ziren. Beraz, alde horretatik ere, erabat baztertu behar da nork bere kabuz jokatzeko aukera.

Agintari berrien ezaugarriek eta aurrekari pertsonalek ere zerikusia izan zuten indarkeriara jotzeko erraztasunean. Horrekin lotutako lau faktore aztertuko ditugu indarkeriaren erabilera testuinguru zabalagoan ulertze aldera. Espainiako armadak lehenagotik zuen borrokaldietako eskarmentua da lehenengo eragilea. XX. mendearen hasieratik aurrera, tropa espainiarrak kabila marokoarren aurka baino ez ziren borrokatu. Gatazka hartan, basatitzat hartzen zuten etsaia, inolako eskubiderik ez zioten aitortzen eta zilegi zen edozein arma-mota erabiltzea, arma kimikoak barne. Altxamenduko buruzagien jokabidean garbi azaleratzen zen indarkeria erabiltzeko zaletasuna, altxamenduaren kontrako edozeinen aurka. Horren haritik, matxinadan parte hartu zuten zenbait militarrek eta Mola jeneralak berak emandako instrukzio ezagunenez gain, indarkeria sistematikoki erabiltzearen aldeko iritziak agertu zituz-

ten, ez zirenean aginduak izan. 1936ko uztailaren 21ean (data goiztiarra artean) errepublikarrekin oso esku gogorra erabiltzeko gomendatu zien Molak Logroñoko agintari berriei. José María Iribarren, Molaren idazkariak berak jaso zuen liburu batean bazkari batean izandako elkarrizketa bat, zeinetan Altxamenduaren zuzendariak adierazten zuen Madril hartu ondoren ohar bat jarri behar zela etxeen atarietan «Hay que matar al portero antes de entrar»[36]. Liburuak Molaren oniritzia zuen, baina argitaratu eta denbora gutxira erretiratu egin zuten altxamenduko buruzagiek.

Errepublikako urteetan, dialektika politikoa gogortuz joan zen, eta horren ondorioz, aurkaria desagerrarazi behar zen areriotzat hartzeraino heldu ziren. Horrekin lotuta dago indarkeriaren erabilerarekin zerikusia duen bigarren faktorea. Espainia iraunkorraren ideia defendatzen zuen pentsamendu erregenerazionistaren pisuak eta gizarte-higienean sinesten zuen biologia darwinistaren eraginak Espainiako biztanleak bortxakeriaren bitartez garbitu beharraren ideia erraztu zuen (Richards, 1999, 218). Matxinatuek sendo sinesten zuten Espainia gaixo zegoela, kutsatuta eta sendatzeko, eutsi ezinezko egoera sortu zuten, gaitzak desagerarazi egin behar zirelako. Horretarako ideaia gaiztoekin eta haiek onartzen zituzten pertsonekin amaitu behar zen (Vega Sombría, 2005, 72). Ez zen izan Espainiako fenomenoa bereziki, garai hartako Europako sistema politiko gehienetan zabaldu baitzen jarrera hori.

Hirugarren faktorea zuzenean lotuta dago bigarrenarekin. Espainiako Bigarren Errepublika garaian bizi izan zen tentsio soziopolitikoa handia izan zen, eta horren eraginez, zenbait gatazka, greba edo nekazari-mugimendu (beste testuinguru batean arreta-gai soilak) apokalipsiaren aurrekari arriskutsu bihurtu ziren. 1934ko urrian, PSOEk zuzendurik gertatu zen iraultza-saioak (Espainiako kontzientzia demokratiko ahularen beste adierazgarri bat) sorrarazi zuen izuikarak iraultzaileak orduan bertan jazartzera eraman zuen. Baina, horrez gain, 1936ko uztailetik aurrera izendaturiko agintariek iraultza-saio hartan parte hartu izana (egiatan edo ustez) leporatu zieten zenbait susmagarriri beren kontra aritzeko. Horrekin lotuta dago zigor gehien pairatu zuten Gipuzkoako herrien artean Arrasate egotea, bertan hil baitzituzten 1934an Oreja eta Rezusta.

1936ko uztailean, abuztuan eta irailean, errepublikarrek eskuindarren eta militarren aurka izan zuten indarrezko jarrerarekin du zerikusia azken faktoreak. Altxatutakoek edozein aurkariren kontra izandako jokabide gogorra azaltzeko, orain arteko lerroetan agerturiko argumentuak nahiko badira ere, badirudi logikoa dela pentsatzea norbere aldean "martiriak" izateak bideragarriago egiten duela indarkeriaren erabilera. Horretaz oharturik zeuden matxinoak, Donostiara sartzean honelakoak adierazi baitzituzten «con el derecho que nos da la sangre derramada en holocausto

36 Esku gogorraren aipamena, Gil Andrés, 2006, 146. Iribarrenen lana 1937, 210-211. Liburu horri buruz, Iribarren, 1944.

de la Patria»[37]. Carlos Guerraren semearen hilketa izan zen oihartzun handienetakoa izan zuena. Militarren esku zegoen Giopuzkoako Diputazioko lehendakariordea zen Carlos Guerra, eta errepublikarrek hil zuten uztailean haren seme José, Guardia Zibileko tenientea, Donostia hartzeko gertatu ziren borrokaldietan. Ildo berean, "gorri-separatisten" mendean zeudela eroritakoen argazkiz josita argitaratu ziren irailean, urrian eta azaroan Donostiako *El Diario Vasco*, *La Voz de España* eta *Unidad*, gogoraraziz gertatutakoa ez zela ez barkatu ez ahaztu behar. 1936ko irailaren bukaeran, 70en bat preso eskuindar hil zituzten inkontrolatuek Bilbon, hiriburuak eta Ezkerraldeak pairaturiko hegazkinen bonbardaketei erantzuteko. Berriak, aldi berean, mendeku-nahia hedatu zuen, eta heriotzazko sorgin-gurpila abiarazi zuen: etsaiaren krimenen berriak edota zurrumurruak, sarritan errealitatea eta gurariak nahasiz, berehalako mendeku-gose bilakatu ziren.

1938ko gerra-kontseiluetako sententzietako batean aipatzen dira 1934ko urriko iraultza eta 1936ko udan eskuindarren hilketetan parte-hartzea. 1938ko urtarrilaren 28an fusilatu zuten Burgosen Cándido Fernández Losada tolosarra, UGTko kidea eta Rusia batailoiko tenientea. 1934ko gertaeren karira atxiloturik egon izana leporatu zioten; era berean, gerraren hasieran, hainbat lagunen atxiloketan eta horietako baten hilketan parte hartu izana. Urte bereko martxoaren 11n fusilatu zuten Antonio González Olayo bergararra, eskuindar baten hilketa ikusteagatik. Eta zehatz ez dakigun egun batean, apiriletik maiatzera bitartean, José Aznar Rianzo anarkista tolosarra fusilatu zuten, 1936ko udan hainbat presoren heriotzaren arduradun izanaren salaketapean[38]. Errioxar jatorriko Tolosako udaltzain bati, *El Chato* goitizenekoa, leporatu zizkioten uztailaren amaierako 12 exekuzioak; Santoñan atxilotu zuten eta han bertan jipoitu ondoren fusilatu egin zuten beste batzuekin batera (Gamboa-Larronde, 2006, 337).

Aipaturiko elementu guztien eraginez oso giro bortitza sortu zen; horren adierazgarri garbia da uztailaren 19an Mola jeneralak zabalduriko bandoa. Bertan azaltzen da bere aginduak bete ezean (lanpostua arrazoirik gabe uztea edo armak izanik agintariei ez ematea) «Serán juzgados en Consejo de Guerra sumarísimo imponiéndose a los responsables *la pena de muerte que será ejecutada antes de tres horas* [geuk azpimarratuta]; que de igual modo se castigarán cualquier clase de actos de violencia contra personas o cosas por móviles de los llamados políticos o sociales y la tenencia de substancias inflamables, explosivas, con fines ilícitos o desconocidos».

Nortzuek izan zuten errepresioaren ardura zuzena? Datu gutxi ditugu horren inguruan, artxiboak desagertu edo ezkutatu egin baitziren. Batez ere militarrek be-

37 "Nosotros", *La voz de España*, 1936-9-15.

38 AGMAV, C. 72, 13.

rek, «el principal y mejor organizado brazo ejecutor de la represión desencadenada por el régimen» Conxita Mir-en hitzetan. Mola ere ongi jabeturik zegoen zein zen bere zeregina:

...en esta obra de reconstrucción nacional que se han propuesto realizar y que realizarán (los jóvenes), ¿quién lo duda?, en esa formidable empresa hemos de poner nosotros, los militares, sus cimientos; hemos de iniciarla exclusivamente los militares; nos corresponde por derecho propio, porque ese es el anhelo nacional, porque tenemos un concepto exacto de nuestro poder y porque únicamente nosotros podremos consolidar la unión del pueblo con el ejército (Pérez Olivares, 1937, 46).

Ordena-indar gehienen laguntza (Polizia eta Guardia Zibilarena) izan zuten militarrek, baina falangistak, erreketeak eta monarkikoak ere arduratu ziren altxamendurako aginduak bete zitezen. Monarkikoak, batez ere Falangen sartu ziren. Asaltoko Guardia-ko kideak ere hurbildu ziren agintari berriengana, horien onespena jasotzeko eta zuten ospe "txarra" ahazteko (Errepublikaren defentsarako sortutako taldea zela). Antzeko zerbait gertatu zen guardia zibilekin: altxamenduko lehenengo unean orduko Gobernuaren alde agertu ziren, baina aukera ikusi zutenean, matxinoekin egin zuten bat. Atzeraka Bizkaira heldu ziren zenbait asaltoko guardiak ere urriaren lehenengo egunetan desertatu egin zuten eta Ondarretako kartzelako zaintzaz arduratu ziren. Asaltoko Guardiako sarjentu batek esan omen zuen Donostiako Oquendo jatetxean, garrantzi handirik eman gabe gainera, 2.000ren bat preso fusilatu zituztela azaroan Ondarretako kartzelan (Askoren artean, 2002, 22).

Batez ere Falange Españolako eta Comunión Tradicionalistako kideak (ezagunak eta ez hain ezagunak) aritu ziren lan horietan. Gipuzkoak –Nafarroak eta Arabak ez bezala– boluntario-talde txikia eskaini zion Molaren armadari. Nafarroan gertatu zen antzera, horietako batzuk, gainera, pragmatismoz, oportunismoz edota errepresioari ihes egiteko sartu ziren erakunde horietara, kasu batzuetan beren burua salbatzeko, beste batzuetan senitartekoren bat babesteko. Kontrako kasuak ere egon ziren, gutxi batzuk hasiera-hasieratik ibili baitziren borrokan Nafarroako eta Arabako tropekin.

Joaquín Arraras historialari frankistaren arabera, 120 militante falangista zeuden Gipuzkoan 1936ko uztailean eta José Manuel Aizpurua arkitektoa zen burua –matxinatuak hirian sartu baino apurtxo bat lehenago fusilatu zuten–. Casas Vegas historialari militarraren arabera, 171 lagun aurkeztu ziren boluntario falangistekin borrokatzeko 1936ko urrira arte, eta beren zeregin nagusia atzealdean, erretaguardian egon zen, zaintza-lanetan. Hain zuzen ere, urriaren batean atera zen lehenengo konpainia Burgoseko fronterantz, Sagardía kolumnan sartuta (Sagardía, 1940, 24). Baina falangistek bazekiten borrokarako beste gune batzuk ere bazeudela, «En la guerra no todo es frente, ni todos serían útiles allí; es más, en retaguardia hay puestos

vitales para los que combaten y cuyo desempeño es difícil, duro, necesitándose para ellos hombres abnegados y capaces» (Morales, 1937, 128). Círculo Easonense-ko bulegoak (Boulevard-eko 1. zenbakian) eta San Bartolome komentua izan ziren Falange Españolaren egoitza nagusiak. Aurrerago ikusiko dugunez, horiez gain, kartzela pribatutzat erabiltzen zituzten toki gehiago ere izan zituzten beren esku. Bestalde, ezin da ahaztu erreketeekin gertatu zen bezala, abertzaletasunetik hurbileko zenbaitek eta ezkerrekoek behartuta ikusi zutela beren burua, bizia salbatze aldera ("para purificarse" esan ohi zen) Falangeko boluntario aurkeztera. Beste batzuek, aldiz, komenientzia hutsez egin zuten aldaketa. Atzegoardia frankistan falangistek erakusten zuten dinamismoa ez zihoan bat Gipuzkoako erakunde berriak osatzean zuten pisu politiko eskasarekin (Luengo, 1990, 85).

Garai berean, karlistei zegokienez, nahiz eta errotuago egon lurraldean, 512 boluntario bakarrik zituzten, batzuk atzealdean eta besteak frontean borrokan. Antolatu zuten lehenengo Tertzioa *Oriamendi* izan zen, uztailaren 27tik aurrera Beasainen; lehenengo bi hilabeteetan prestatzen aritu ziren, instrukzio militarrean, baina atzealdean egindako zaintza- eta segurtasun-lanekin tartekatu zuten zeregin hori. *San Ignacio* Tertzioa irailaren 23an hasi zen antolatzen Azpeitia-Azkoitia inguruko karlistak biltzeko, eta prestaketa labur baten ostean Elgoibarreko frontera bidali zituzten. Urriaren batean, azkenik, *Zumalakarregi* Tertzioa osatu zen Goierri inguruko Don Karlosen jarraitzaileekin (ordurako, Debagoienean ari ziren borrokatzen). Nicolás Zabaleta Zumalakarregi Tertzioko partaidearen arabera, Oñati hartu ondoren, 60ren bat lagun atxilotu zituzten, eta eskola batzuetan izan zituzten gatibu 15 egunetan gutxi gorabehera[39]. Karlisten Kuartel Nagusia Donostiako Casino Kursaal-en ezarri zuten, eta hainbat bulego zituen Gran Casino-n, Maria Cristina Hotelean eta Boulevard eta Fuenterrabía kaleetan. Kursaalera hainbat abertzale joaten zen lo egitera, bahitu moduan (Arteche, 1970, 49).

Talde biek, bai falangistek, bai karlistek, miliziak eta elkarte sateliteak zituzten. Halaber, badakigu beren polizia-taldeak izan zituztela, baina ezer gutxi dakigu horietaz; hain zuzen ere, agintari berriek erabili zituztela susmagarriei buruzko informazioa lortzeko (errepublikarrak edo euskal abertzaleak) eta poliziari zenbait lanetan laguntzeko[40], presoak atxilotu eta exekutatzen besteak beste. Hainbat zereginetarako baimena zuten: atxilotzeko, presoak leku-aldatzeko, beren egoitzetan galdeketak egiteko eta armak bahitzeko besteak beste; egoera horretan erraztasun handia zegoen arbitrariotasun osoz jokatzeko. Oso entzuna izan zen Donostiako sastre

39 Zabaletak dio gerra amaituta, atxilotuetako batekin egin zuela topo Donostian."Gerra zibila hasi zela 70 urte", *Goierritarra* 305, 2006-7-21.

40 Gerrako Junta Carlistaren Informazio Bulegoan lan egiten zuten bi errekete trafiko-istripuan hil ziren, Elgoibarretik bueltan zihoazela, hara informazioa eramatera joan ondoren. *La Voz de España*, 1936-12-8.

ezagun bat hiltzeagatik nola atxilotu zituzten zenbait falangista (Barruso, 2005, 127). Zapalkuntza militarra zuritzeko idatzitako artikulu batean, Luis Sierra Nava-k dio Falangeko Informazio Zerbitzuetako buru zen Fernández del Pino eta horren sozio bat Emilio Solaun (edo Solana) harrapatu zutela preso zegoen baten etxean sartu eta emaztea bortxatzen ("agresión adúltera" dio berak), eta horregatik atxilotu, epaitu eta fusilatu egin zituztela. Ez dugu orokortuko esandakoa erakunde horietako kide guztietara, baina nabarmena da horietako asko gizartean ongi errotu gabeak zirela, gaizkile arruntak zenbait kasutan, gerra-garaian bertan eta gero ere espetxeko ilunpetan egonikoak. Horren adibide dugu S. A. F. gauzain donostiarra, 54 urtekoa, erreketea eta poliziaren laguntzailea, 1940an atxilotua neskatilei dirua eskaintzeagatik lizunkerietan aritzearen truke[41].

Donostia hartuta, bi taldeen ardura zen hiria gauez zaintzea: erreketeek Urumearen ezker aldea ikuskatu behar zuten eta falangistek gauza bera egin behar zuten, baina eskuin aldean. Egunez, aldiz, arma-taldeak eta zerbitzu militarrak aritzen ziren zaintzan. Frankisten informazio militarreko zerbitzuen txosten baten arabera, Erreketearen Polizia Gerrako Junta Carlistaren menpe zegoen eta Prim kalean zuen egoitza. Baina antolamenduari buruz dioena da esanguratsuena: «se rige por organización autónoma con documentación independiente y resolución propia, no dando cuenta a autoridad alguna de sus servicios, intervenciones y resultado de aquellos», eta gauza bera jartzen du Falangeko Poliziari dagokionez[42]. Baina ez zen iritzi berekoa gerrako komisario karlista Luis Bravo, izan ere, irailaren 17ko agindu batean garbi adierazi zuen inork ezin zuela miaketarik, ondasunen bahiketarik ez atxiloketarik egin bere agindu idatzirik gabe, «porque es sólo mi autoridad subordinada al mando militar quien puede disponer tales servicios»[43]. Badirudi hilabete batzuk iraun zuela egoera horrek, boterea kontzentratzeko bideari ekin arte Francok; hain zuzen ere, 1937ko apirilaren 19ko bateratzeko dekretuaren bitartez aipatutako erakundeen jokabide beregaina eragotzi zen. Dena den, ezin dugu baztertu beste aukera bat, hau da, falangisten eta tradizionalisten ustezko autonomiaz baliatzea militarrak beren erantzukizuna saihesteko zenbait ekintzatan. Horren adibide bat dugu honako hau. Donostian bizi ziren bi alemaniar, aita-semeak, Herbert eta Erwin Reppekus desagertu egin ziren, itsasontzi errepublikarrei kezko seinaleak egitea leporatuta zeudela. Gauzak horrela, argitze-agiria idatzi zuen militarrak azpimarratu zuen falangistek izan zutela tramite guztien ardura, eta inolako militarrek ez zuela parte hartu ez atxiloketan, ez Nafarroako mugatik kanporatzean. Ziur aski ustezko kanporaketa horrek Hernaniko kanposantuaren hormetan izango zuen azkena. Eskoltaren ardura izan

41 AGA. Polizia-txostenak.

42 AGMA. ZN 2/41. Barrusok aipatua, 2005, 126.

43 "Comisaría de guerra de Guipúzcoa", *La Voz de España*, 1936-9-18.

zuen Luis Fernández de Ardura, Falangeko Poliziaren buruordea Huescako frontean hil zen oso une aproposean, eta artxibaturik geratu zen ikerketa[44].

Lehenago aurreratu dugunez, gipuzkoarren aurkako errepresioa antolatua izan zen, alde horretatik oso garrantzitsua izan zen agintarien jokabidea (ez beti); eta, erabakigarria zapalkuntzaren norabidea eta indarra zehazteko. Militar matxinoak Donostian sartzearekin batera izendatu ziren gobernadore militar eta zibil berriak. Altxatutakoen esku geratu ziren Espainiako beste probintzia batzuetan bezala, hemen ere gobernadore militarra izan zen errepresioa zuzendu zuena. Ikerlari guztiak datoz bat horretan, hots, militarrek izan zutela nagusitasuna agintean. Salas Larrazabalek berak (gerran hartu zuen parte, boluntario alde frankistan) aitortzen du nagusitasun hori:

> En la zona nacional había control de la situación y la actividad de las milicias quedaba limitada por la autoridad militar. Donde ésta fue cruel, la extensión de la represión fue mayor, donde tendió a la benignidad, disminuyó notablemente (Salas-Larrazabal, 1980, 382).

1936ko uztailaren 30eko Defentsa Nazionaleko Juntaren Aldizkari Ofizialean (matxinoek Burgosen argitaratua) agertu zen Gerra Egoera Espainiako lurralde guztietara zabaltzen zela. Horren ondorioz, militarren esku geratzen ziren justiziarekin eta ordena publikoarekin lotutako arazo guztiak, eta, beraz, susmagarriak eta atxilotutakoak gerra-kontseilu militarretan epaituko ziren,Gerra Jurisdikzioaren arabera, eta ez tribunal zibiletan. Izan ere, Defentsa Juntaren Bandoaren 10. artikuluaren arabera, Gerra Jurisdikzioaren esku zegoen agintari militarren ustez ordena publikoarekin zerikusirik ez zuten auziak Jurisdikzio arruntera bidaltzea, eta ez alderantziz. Donostia okupatu ondoren prentsak argitaraturiko lehenengo zenbakian, irailak 15, agertu zen aipaturiko bandoa. Abuztuaren 25eko xedapen baten arabera, operazioetan ari ziren armadetako jeneralburuek (Mola gure kasuan) eskumena zuten beren menpe zeuden eskualdeetan ari ziren dibisioetako jeneralburuen esku uzteko Jurisdikzioa, erabat edo zatiren bat. Seigarren Dibisio Organikoaren barruan zegoen Gipuzkoa, Burgosen zuten burua eta abuztuaren 16ra arte Molaren agintepean egon zen, egun horretatik azaroaren 17ra arte harekin batera Gregorio de Benito y Terraza jenerala egon zen agintean. Balet jenerala, errepublikarekiko leiala, izan zen Molaren aurrekoa, eta haren ofizialek berek atxilotu, gerra-kontseiluan epaitu eta 1937ko otsailean fusilatu zuten.

De Benito jenerala ardurazko postuetan egona zen Marokon, Mola jeneralaren agintepean. Oraingoan Huescatik zetorren (Casanova, 1985, 77). Aragoiko egonaldian, gobernu errepublikarraren aurka altxarazi zuen goarnizioa, eta, horrez gainera, oso indarkeria gogorrarekin jokatu zuen orduko agintarien kontra, muturreraino

44 Archivo Militar Intermedio de El Ferrol. Expedientes 10007. Gure esker ona Aranzadi Zientzia Elkarteari, gure esku uzteagatik txostenaren kopia bat.

eramanez zapalkuntza. Era guztietako bideak jarraitu zituen errepresioa gauzatzeko: "izualdi beroan" hainbat errepublikazale hil zituen, horrekin batera etxeak miatu zituen, agiriak bahitu eta funtzionario publikoen artean "garbiketa egin". Kartzela probintziala presoz bete ondoren, Bigarren Hezkuntzako Institutua erabili zuen espetxetzat, eta bertara eramandako asko exekutatu zituen, inolako epaiketarik gabe, Pilar Salomón-en arabera (Casanova, 1996, 149). Hiria berreskuratzera Kataluniatik zetozen kolumnei aurre egin zien, eta abuztuaren erdialdera Burgosera aldatu zuten. Seigarren Dibisio Organikoaren hiriburuak bizi zuen egoera ez zen oso ezberdina, baina kasu honetan altxatutakoek ezin zuten argudiatu ez gehiengoa Frente Popularraren alde zegoenik, ez eta matxinoen aurkako erresistentzia handia zenik ere. 2.000 lagun inguru hil zituzten Burgosen (Castro, 2006).

Solchaga koronelaren agintaldi laburraren ondoren, Arturo Cebrián y Sevilla infanteriako koronelak hartu zuen Gipuzkoako Gobernadore Militarraren kargua. Erdialdeko eskualdean zauritu zuten borrokaldi batean Cebrián abuztuaren 19an; hilabete geroago, bere borondatez aurkeztu zuen senda-agiria, Donostiako Gobernu Militarraren ardura hartzeko, egoeraren "premia larriak" eskatuta. Donostiara heldu eta hurrengo egunerako geratu zen agirian haren asmo interbenzionista eta kontrolatzailea; izan ere, prentsari eta gobernadore zibilari agindu zien ez egiteko inolako aipamenik Fidel Azurza tradizionalistaren (Diputazioko lehendakari berria) diskurtsoari buruz. *La Voz de España*k jaso zuenaren arabera, martiriak gogoratu ondoren, Azurzak eskertu egin zuen Armadaren parte-hartzea Espainia egoera anarkikotik ateratzeko, Nafarroaren jarrera eskuzabala aipatu zuen, altxamenduaren helburua «cristianizar la provincia y España entera» azpimarratu, funtzionario probintzialen arteko garbiketa egingo zuen batzordea iragarri eta erabat gaitzetsi Gipuzkoako lurraldeko zatiren bat banatzea «nada absolutamente de lo que a la provincia se refiere sea menor de que fue» esanez, Irun edo Hondarribia Nafarroaren eskuetara pasatzeko aukera edo Kontzertu Ekonomikoa desagertzeari erreferentzia eginez[45]. Beharbada, azken aipamen hori eta Espainia kristautu beharraz hitz egiteak eraman zituzten Cebrián eta Cabanellas jenerala (masoia) isiltzeko agindua ematera.

Ez dakigu ondo, benetan hala gertatu zelako edo gertatutakoaren zama arrotzen bizkar uzteagatik izan zen, José Berruezo geroago *El Diario Vasco*ko zuzendaria izango zenak Cebriáni egotzi zion 1936ko udazkenean Gipuzkoak bizi izan zuen zapalkuntzaren errua.

> Consejos de guerra sumarísimos, animados por el escalofriante celo del *Gobernador Militar* [geuk azpimarratua] que, en cuestión de horas mandaba a los vecinos ante el pelotón de ejecución[46].

45 *La Voz de España*, 1936-12-20.

46 Berruezo, 1989, 122.

Agintari zibilei dagokienez, Ramón Sierra Bustamante izan zen (1898-1988) altxatutakoek izendaturiko aurreneko gobernadore zibila. Abokatu bilbotar hau *El Diario Vasco* egunkariko zuzendaria zen, eta gogor ordaindu zuen bere familiak monarkiarekiko zuen atxikimendua. Anaietako bat, Luis, Loiolako kuarteletan matxinatua, eta osaba bat galdu zituen lurraldea errepublikarren menpe egon zen bitartean. Handik gutxira, Domingo anaia exekutatu zuten Paracuellos del Jarama-n. Beraz, ez da harritzekoa bere lehen ekitaldi publikoan (Donostiako alkate berriaren zin egitea) honako hau esatea: «Mi actuación será personal y de absoluta inflexibilidad, sin perdonar al que ha delinquido». Egia esan, hiriburuko giroak berak ere ez zuen askorik laguntzen bestelako jarrera bat azaltzeko; izan ere, irailean eta urrian, Donostiako egunkariek aurreko hilabeteetan hildako pertsonen berri ematen zuten, askotan argazkiekin eta iruzkinekin; eta ia egunero ematen ziren mezak haien ("mártires de la Cruzada") omenez. Garai horretan eraman zituzten Polloeko hilerritik Tolosakora Errepublika-garaiko hildakoak. Testuingurua hori bazen ere, zapalkuntzaren eragina arintzen saiatu zen Sierra eta gertatzen ari ziren exekuzio ugarien aurka protestatzeraino heldu zen (Barruso, 2005, 129). Ez zuen askorik iraun bere karguan; ohikoa zenez ez zuten argitu aldaketaren arrazoia, baina badugu *La Voz de España* egunkarian agertu zen azalpen kriptikoa: «por las especiales circunstancias». Ziur aski, zurrumurruek ziotenaren haritik, "bigunegia" izatea da esan gabe esaten zena egunkarian. Iritzi bera du Berruezok (1989, 122).

Urriaren 7an, José María Arellano Igea (1885-1863) abokatu nafarra izendatu zuten gobernadore zibil. Arellano monarkikoa zen, baina lotura estua zuen Falangeko zuzendaritzarekin. 1937ko ekainaren 13ra arte izan zen Gipuzkoako gobernadorea, hots, A Coruñako gobernadore zibil izendatu arte. Galizian, kargu horretan zegoela hartutako erabakien artean dago Santiago Casares Quiroga presidente ohiaren izena erregistro guztietan ezabatzeko agindua (Cabanellas, 1975, 840). Hurrengo urteetan ere makina bat kargu bete zuen frankismoan, horien artean Nafarroako Diputazioko lehendakaritza 1948tik 1952ra bitartean. Donostiako egonaldian, Arellanoren agintaritza irmoa izan zen, diziplina zorrotzekoa; AUTORITATEA (letra larriez idazten zuen bando eta dekretuetan) kontrolatzea zuen helburu. Falangistek eta karlistek beren kabuz sortutako aginte-guneak bere menpe nahi zituen Arellanok. Esate baterako, Gipuzkoako Diputazioan elkarren artean borrokan ari ziren karlista eta falangista guztiak kendu zituen karguetatik urriaren 19an eta haien ordez monarkikoak jarri zituen; Donostiako udala desegin egin zuen, ez egiteagatik langileen arteko garbiketa berak agindu zuen bezala (Luengo, 1990, 86). Artean José Múgica zen Donostiako alkatea, irailaren 22an kargua hartu zuenetik; Arellanok kargutik kendu eta 1937ko martxoaren 4an deserriratu egin zuen, hiriko frankisten jokabide zitalaren aurka agertzeagatik. Baina batez ere Movimiento-arekin bat etorri ez zire-

nak izan ziren kaltetuenak Arellanok bultzaturiko erakunde, ardurazko kargu eta jarduera guztietako garbiketan (ikuskizunak, hizkuntza, kargu publikoak, lanpostuak eta abar). Bestalde, Eliza Katolikoa berrindartze aldera, zenbait neurri hartu zituen: ikuskizunetan "garbiketa" eta moralizazioa suspertu zituen; liburutegietan ere garbiketa agindu zuen; marxismoarekin edo nazionalismoarekin zerikusiren bat zuten idatzi guztiak (liburuak, foiletoak, aldizkariak, egunkariak eta oro har edozein idazki) desegiteko agindu zuen; halaber, erlijioaren aurkako edo pornografia-kutsuko edozer. Ia debekatzeraino mugatu zuen euskararen erabilera; kaleetako idazkunak ere kenarazi zituen, *Autonomia* hitza edo bestelako batzuk «que de alguna manera puedan suscitar el recuerdo de ideas patrimoniales del traidor nacionalismo vasco» agertuz gero. Susmagarri guztiak kanporatu zituen administraziotik eta udal batzorde berrietako partaideen espainiar-zaletasuna honela zehaztu zuen: «españolismo (...) ha de ser neto y exento de toda sospecha y duda». Ongi nabarmendu ziren abertzaletasunari zion herra eta zuen obsesioa, urriaren 19an Diputazio berria osatzean egindako hitzaldian: «estar vigilantes para que no quede en los organismos provinciales ningún germen de marxismo, ni de nacionalismo y habéis de poner más cuidado y atención en lo que al nacionalismo se refiere, porque éste se presenta muchas veces enmascarado y hasta encontraréis amparadores más o menos inconscientes en personas que no son o no se sienten nacionalistas». Horrekin guztiarekin, errepublikarren aurkako errepresioa eta jazarpena gogortu egin zuen.

Exekuzio gehienak Arellanoren agintaldian gertatu ziren, baina ez dakigu benetan norainokoa izan zen haren ardura hilketa horietan. Ildo horretan, ezin da ahaztu Gobernadore Zibilak Gobernadore Militarrarekiko zuen mendekotasuna, formaltasun hutsa baino harago zihoana. Horren erakusgarri dugu 1937ko irailean gertaturikoa (Calvo 1993, 27): Arellanoren ordezkotza Gobernu Zibilean hartu zuenak, Antonio Urbina Melgarejok, Gobernadore Militarraren gaitzespen gogorra jaso zuen Santanderreko ebakuaziorako ordezkari Donostiako alkate ohia, José Múgica, izendatzeagatik, Gobernadore Militarraren oniritzirik gabe, «sin mi consentimiento y por lo tanto, sin mi autorización», «cuando circunstancias especiales que en ello concurrían no aconsejaban ciertamente su nombramiento, pareciéndome acertado cese a dicho señor»[47].

Arellanok karguari zin egin eta berehala hainbat xedapenen berri eman zuen lurraldeko egunkarietan. Urriaren 9an, adibidez, etxejabe eta administratzaileei honako hau agintzen zitzaien: irailaren 15a baino lehen beren bizitokia utzi eta geroago itzuli zirenen berri eman behar zutela idatziz, baita atezainena ere. Kontuan izanik 1936ko udan Donostiak izan zituen 90.000 biztanleetatik 40.000 baino ez zirela geratzen frankistak sartu zirenean –alkate sartu berriaren hitzetan–, pentsa daiteke

47 AGA, 08 0.1.05 44/3910.

zer ondorio izango zituen xedapen horrek. Egun horretan bertan, Donostian "gorri" asko geratu zirela iragarri zen, eta horrek "garbiketa" eskatzen zuela «se impone la labor depuradora, bajo cualquiera de los aspectos que se considera el problema y supuesto que los primeros pasos ya se han dado en lo que respecta a la inmigración, hay que continuar y llevar a feliz término este trabajo, para bien del orden público y de la tranquilidad personal». Urriaren 13an, aldiz, zera jakinarazi zuen *La Voz de España* egunkariaren bitartez, gobernadore zibilak hainbat ordezkari bidali zituela lurralde osora, udaletan eta bestelako erakunde ofizialetan (hezkuntzarekin, osasunarekin eta ongizatearekin lotuak), abertzaletasunarekin edota marxismoarekin zerikusirik izan zezaketen susmagarri guztiak aztertzeko eta kargutik kendu eta kanporatzeko aginduarekin. Lau egun geroago, urriaren 17an, Sierra Bustamantek irailaren 14an zabaldutako agiri bat berrargitaratu zuen Arellanok[48], honako hau gogoratuz:

> Primero. Que no se practicarán detenciones, sino por la Autoridad y sus delegados.
>
> Segundo. Sólo en casos de infragante delito, podrán los organismos auxiliares practicar detenciones, poniendo inmediatamente a los detenidos a mi disposición.
>
> Tercero. Todos los detenidos estarán bajo la custodia exclusiva de la Autoridad.
>
> Cuarto. Únicamente por ésta podrán expedirse órdenes de libertad.

Urriaren 19an Zerbitzu Berezietarako Batzorde bat sortu zuen Arellanok, gobernadorearen aholkulari-lanetarako eta «Someter a este Gobierno las iniciativas y proponerle la adopción de medidas u órdenes de toda clase que estime oportunas para conseguir en el más breve plazo la normalidad de la vida en la provincia»[49].

Badakigu irailaren 14ko agindua ez zela zorrotz bete Sierraren garaian; izan ere, ditugun garai hartako lekukotza idatzi gutxien arteko batean, Gabarain medikuaren liburuan hain zuzen ere, irailaren amaieran Falangeko militanteek atxilotu zutela dio, eta talde horren kartzela batean sartu zutela, Boulevard-eko Opera kafeko sotoetan, gutxienez beste hamar lagunekin batera, eta hantxe izan zutela urriaren 15aren ingurura arte. Arellanok eman ondoren ere ez zen erabat bete agindua, baina zuzenean agintarien menpe ez zeudenak kontrolatzen saiatu ziren ondoko gertakizun honetan ikusten den bezala. Donostiako agintari militarrek zenbait falangista atxilotu zituzten hiriko sastre ospetsu bat, José Ciriaco Gutiérrez, hiltzeagatik urriaren

48 Abuztuaren 22an, Zortzigarren Dibisioko Estatu Nagusira bidali zuen telegrama bat Molak, debekatuz «de forma terminante que falangistas o similares practiquen detenciones *sin orden escrita* (geuk azpimarraturik) y cometan actos de violencia». Mezuaren helburua edozein izanik ere (kontrolik gabeko exekuzio sumarioak amaitzea edo ongi geratzeko adierazpen bat, besterik gabe), aurrera jarraitu zuten legez kanpoko fusilatzeak Iparraldeko Armadaren menpe zeuden eskualdeetan (Vega Sombría, 2005, 258). Donostian ere, antzeko oharrak argitaratu zituzten erreketeek eta falangistek 1936ko irailaren 18an.

49 *La Voz de España*, 1936-10-20.

21ean (Barruso, 2005, 127). Julio Pradak tesi bera defendatzen du Galiziaren kasurako; hark dio urriaren 17koaren antzeko aginduen helburua ez dela hilketak amaitzea, baizik eta militarrek berek kontrolatzea egoera eta botere-gune autonomoak sendotzea galaraztea (2006, 188).

Gure ikerketarako berebiziko garrantzia duen beste agindu bat ere eman zuen Arellano gobernadoreak urriaren 17an bertan: Probintziako Ordena Publikoko Junta bat sortzea. Horrek berresten du lehenago esandakoa, hau da, frankistek Gipuzkoan bultzatu zuten zapalkuntza latza, hilketak eta fusilatzeak ez zirela itsu-itsuan, inolako kontrolik gabe egindako ekintzak izan. Testua luzea bada ere, hona hemen erabaki horren xehetasunak:

> Ante la imperiosa necesidad de coordinar y unificar todos los servicios de Orden Público de la Provincia, vengo a decretar lo siguiente:
>
> Artículo 1°: Se constituye bajo la dependencia directa de este Gobierno Civil, una Junta Provincial de Orden Público, que entenderá en todo lo relacionado con detenciones, órdenes de libertad, sanciones especiales, inspección de servicios y demás actuaciones referentes al Orden Público.
>
> Artículo 2°: La junta la formarán un Delegado especial de este Gobierno civil, que será el Presidente, y la integrarán como Vocales un representante del Gobierno Militar, el Jefe de la Guardia Civil, el de Asalto, el de Policía, el de Requeté y el de Falange y un vocal asesor con voz y voto, con un Secretario que será designado por este Gobierno.
>
> Artículo 3°: La Junta tendrá carácter informativo en todos los aspectos de Orden Público y asumirá por delegación las facultades resolutivas que por este Gobierno le sean otorgadas.

Ez zen izan honelako Junta bat sortzen zen lehenengo aldia; Nafarroan ere sortu zen gobernadore militarraren, Falangeko eta Comunión Tradicionalistako ordezkariekin. Batzorde horren ardurapean egon zen udaletatik bidalitako "susmagarrien" fitxak aztertzea, eta horren araberako erabakia hartzea: aske uztea, atxilotzea edo, askotan, exekuzioa. Batzordearen lanaren erakusgarri dugu Iruñeko gobernadore militarrak urriaren 31n argitaratutako ohar bat, non agintzen zen ez egiteko kalterik ez pertsonei, ez ondasunei, eta hartutako neurriaren arrazoia honela azaltzen zuen «a evitar actuaciones que muchas veces son motivadas por rencores de vecindad o bajas rivalidades político-sociales»[50]. Beste probintzia batzuetan, aldiz, ez zegoen horrelako batzorderik, hain garbi definiturik behintzat, baina bazebilen nolabaiteko eragina zuen jende multzo bat gobernadore militarraren eta zibilaren inguruan, «conglomerado multiforme de personas e intereses», gero horiengandik beheragokoetara pasatzeko unean uneko aginduak. Aginduen norabidearen azterketa eginda, Julio Pradak dio batzuetan ez zela erraza bitartekoak igaro eta jomugara heltzea; izan ere, zenbait egoeratan, aginduak betearazi behar zituztenak (materialki betearazi) noraezean ge-

50 *La Voz de España*, 1936-11-1.

ratzen ziren, ez zekitela goragokoen esana bete edo bizikidetzak eta salatutakoen hurbiltasunak sorrarazitako sentimenduak agintzen zienari jarraitu (2006, 190).

Gipuzkoako kasuan, Ordena Publikokoko Juntaren gorabeherak argitu ezineko kontuak dira guretzat, ez baitakagu horri buruzko informaziorik[51]. Lanean jarraitu zuen 1939ko urtarrilaren 11n Francok desegin arte, eta harrezkero, gobernadore zibilaren eskuetara igaro ziren haren betebeharrak. Batzordea osatu zuten zenbaitzuren izenak ezagutzen ditugu, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean aipatutakoak, hain zuzen: Juntako lehendakaria Román Lizarriturry Martínez (Vastameroli-ko kondea), César Balmaseda Ortega kidea eta Julio Ingunza Santo Domingo idazkaria. Artean Armadako Zalditeriako komandante erretiratua zen Ingunza, eta irailaren 12an itzuli zen zerbitzu aktibora; garai horri dagokion bere espediente militarreko atalean, Ordena Publikoko Juntako Gipuzkoako ordezkaria izan zela agertzen da[52].

Bi zibilak aukeratzeko arrazoiak ez ziren inola ere kasualitatearen ondorio izan. Donostiako goi-aristokraziakoa zen Román Lizarriturry, eta, horrez gainera, *El Diario Vasco* aldizkari monarkikoaren sortzaileetako bat ere izan zen. Renovación Española-koa izan zen, uztailean atxilotu eta Guadalupeko gotorlekura eraman zuten. Errepublikarren agintaldiko azken egunetan, zuzen-zuzenean pairatu zuen presoen zalantza kezkagarria: askatuko ote zituzten edo exekutatu. Gertatutakoak erakusten du bizi zuten egoera: une jakin batean pentsatu zuen denak askatuko zituztela, baina ez hurrengoan eta Lizarriturryk diruaren truke preso guztiak askatzeko eskatu zion zaintzako nagusiari. Espetxearen arduradunak ez zuen onartu eskaintza, baina denak askatzen saiatuko zela erantzun zion. Hala ere, handik gutxira kondeak beste preso bati eman zion bere ezkontzako eraztuna eta amari eta emazteari bere mezuak eramateko eskatu zion, «y dígale que muero como ella quiso: como un cristiano» amari eta «mi último recuerdo es para ella» andreari (Runy, 1938, 254). Azkenean, Lizarriturryren zorionerako, ihes egin ahal izan zuten eta Hondarribia hartzera joan ziren matxinoen tropekin egin zuten bat. Gipuzkoako Diputazioko lehendakariorde izendatu zuen Arellanok, eta kargu horretan, erakundeko langileen "garbiketaz" arduratuko zen batzordearen buru izan zen.

César Balmaseda abokatua zen, eta Gipuzkoako Unión Regionalista-ko zuzendaritza-batzordekoa, gainera oso lotuta zegoen Renovación Española-rekin (Rodríguez Ranz, 995, 71); Germán Iñurrategui abokatuaren hitzetan "déspota y muy autoritario" omen zen. Uztailaren 18an Iruñera joan zen aginduak hartzera, eta Donostian altxamenduari ekiteko agindu zioten han. Baina haren misioak porrot egin zuen, artean Gipuzkoako gobernadore militarrak, Carrasco koronelak, ez baitzuen

51 Juntako agiriak ez dira agertzen inolako artxibo publikotan.

52 AGMS II, GC:I-33.

onartu berarekin hitz egitea; azkenean Frantziara egin zuen ihes, Carlos Soto Guridi Donostiako Izquierda Republicana-ko lehendakariaren laguntzari esker; hori ere mugaz beste aldera igaro zen (Iñurrategui, 2006, 66). Altxamenduaren lehenengo egunetan atxilotu zuten Pepe, anaia, eta Ondarretan preso egon ondoren Guadalupeko gotorlekura eraman zuten, baina handik ihes egin ahal izan zuen iraileko gertakizunetan. Preso ohien talde batekin batera, bandera espainiarra eskegi zuen Hondarribiko Carlos V.aren gazteluan (Runy, 1938, 254). Irailaren 19an Diputazioko presidente aukeratu zuten. Senitarteko bi hil zizkioten 1936ko udan, Fernando eta Carlos Balmaseda, hain zuzen. Urriaren erdialdean gertatutakoak azaltzeko oso esanguratsua ez den arren, beste datu bat dugu, hots, PYSBE konpainiako (*Galerna* arrantzontziaren jabea) akzionistetako bat izan zela Balmaseda.

Hondarribiko Ángel fraide kaputxinoaren esanetan, Ordena Publikoko Juntako beste kide bat Juan José Pradera izan zen, Víctor Pradera buruzagi karlistaren semea, eta Javier Praderaren anaia, Donostia erori aurreko egunetan hildakoak biak (Gamboa-Larronde, 2006, 655). Gero fusilatu zuten Alejandro Mendikute apaiz hernaniarra atxilotu izanaren ardura zuzena leporatu zion *Galerna*n atxilotuetako batek, Jean Pelletier pilotu ohiak (Pelletier, 1937, 67), nahiz eta Praderak berak ukatu. Juan José Praderak ekintza errepresiboen aurrean izango zuen jarreraz ez dugu zalantza handirik, aurrerago izan zuen jokabidea kontuan hartuz gero. 1938an, Charles Maurras ideologo ultraeskuindar frantsesari egin zitzaion omenaldi-bazkari batean izan zen parte, eta argi eta garbi azaldu zen Hitlerren alde, nahiz eta Aita Santuak nazismoa kondenatu (Opus Dei-ko kidea izan zen Pradera eta *Ya* egunkari katolikoaren zuzendaria). Masoneria desagerrarazteko tribunaleko kidea ere izan zen. Aita kaputxinoaren testigantzaren arabera, matxinoak Donostiara sartu zirenean, Juntaren zuzendaritzapean, kontrol-sistema bat ezarri zen susmagarriak aztertzeko. Egiten zitzaizkien galdeketen gaiak era askotarikoak izaten ziren: zituzten ideia politikoak, hauteskundeetan nola jokatzen zuten, erlijioak ezarritako betebeharrak eta are urrutiago joanda, elizako aitortzetan konfesoreak botoei buruz emandako aholkuak ere jakin nahi zituzten.

Karguagatiko kideen izenak, aldiz, ez ditugu ezagutzen (Guardia Zibileko nagusia, Asaltoko Guardiakoa, Poliziakoa, Erreketeetakoa eta Falangekoa). Ziur aski, Erreketeetakoa Luis Barrio teniente koronela izango zen, erreketeen talde armatuetako burua; Falangearen ordezkaria, berriz, Miguel Rivilla, Falangeko milizietako burua. Ardurak argitzeko orduan, guretzat garrantzi berezia du Gobernu Militarraren ordezkaria zein izan zen jakiteak, oraindik erantzunik gabe dugun zalantzetako bat baita zein izan zen Gobernadore Zibilaren, Ordena Publikoko Juntaren eta Gobernadore Militarraren (Arturo Cebrián koronela lehenengo eta Alfonso Velarde geroago) arteko harremana. Erakundearen aipamena izan litekeen bat ere badugu. Gomá

kardinala Donostiara etorri zen zenbait apaizen hilketak argitzera, eta hark idatzitako eskutitzetako batean "Oficina de Información de Orden Público del Gobierno Militar de San Sebastián" zeritzonari leporatzen dio apaiz abertzaleen zerrenda bat egin izana. Gure ustez, Ordena Publikoko Junta izan zitekeen aipaturiko erakunde hori (Andrés-Gallego, 2001, 376).

Bitxia zen egoera. Preso gehienak Ondarretako kartzelan zeuden, gobernadore zibilaren zuzendaritzapean, baina gobernadore militarraren ardurapeko "presos gubernativos" zeritzenak ziren. 1937ko urtarrilaren 13an preso gubernativo guztien zerrenda egiteko agindu zuen Francok, eta gobernadore zibilaren erantzuna izan zen bi polizia ohi baino ez zeudela Gipuzkoako kartzeletan bere ardurapean, eta 6. Eskualde Militarreko Komandante Jeneralaren abenduaren 17ko aginduz, atxilotu guztiak pasatu zirela agintari militarren eskuetara[53]. Gure eskuetara iritsi diren agiri batzuetan (kartzela horretako zenbait preso "askatasunean uzteko", gero hiltzeko, eskatzen zen agirietan hain zuzen) epaile militar baten sinadura agertzen da, Ramiro Llamas-ena –geroago itzuliko gara honetara–. Preso gubernatiboak ez zeuden sartuta inolako prozesu judizialetan eta urteetan egon zitezkeen espetxeratuta. Segoviako kasuan, esate baterako, badakigu "ateratzeetan" hildako preso gehienak kategoria horretakoak zirela. Aitzitik, zuzenean Jurisdikzio Penal Militarraren menpe zeudenek ez zuten horrelakorik pairatu, prozesu judizial baten barruan baitzeuden, epaile militar baten menpe (Vega Sombría, 2005, 99).

Bestalde, Juntako kideak nor ziren aztertzeak bide ematen digu arakatzeko altxatutako militarren eta gizarte gipuzkoarraren arteko harremana zein izan zen. Izan ere, zapalkuntzaren hasieran, militar matxinoak berak izan ziren ardura zuzena izan zutenak, baina zapalkuntza gauzatzeko eta aurrera egiteko, beste batzuk aritu ziren lankidetzan: armada, oro har, prentsa, Jurisdikzio Militarraren menpera aldatu ziren epaile zibilak, Eliza, tokiko agintariak eta herritar arruntak. Ildo horretan, altxamenduko buruzagiek interes handia zuten ahalik eta eragile gehien inplikatzeko zapalkuntzan. 1936ko abenduan atzerriratu zenean, Joaquín Bermejo apaizak eman zituen Andoainen etsai politikoak sailkatzen ibilitako batzuen izenak (Gamboa-Larronde, 2006, 115).

Karlismoaren jarrera oso nabarmena izan zen, eta horixe azpimarratuko dugu ondoko lerroetan. Gerra aurretik, askoz jarrera gogorragoa izan zuen Falange Españolak ideia autonomisten aurka, baina Falangek eragin txikiagoa zuen Gipuzkoako lurraldean. Santiago Martínezi (2004) esker dakigu zein izan zen Gipuzkoako karlisten gurari tinkoa: inolako errukirik gabeko zapalkuntza gauzatzea, bai abertzale euskotarren aurka, bai eta mugimendu abertzalearen aldeko apaizen aurka ere. Hori

53 AHN, Gobernación B-48936.

ulertzeko, kontuan izan behar da karlismoaren bilakaera errepublikaren urteetan. Izan ere, sasoi hartan, XIX. mendeko jatorrizko oinarriak ahaztu gabe, mende berriaren hasierako Europan sortu zen korronte erradikal berrira hurbildu ziren (kontserbadorea, autoritarioa eta izaera parlamentarioaren aurkakoa) karlistak. Mende-hasieran euskal gizarteak izan zituen aldaketak hartu behar dira kontuan karlismoaren bilakaera hura aztertzean. Gizarteko aldaketa handiak, batez ere sekularizazioa eta politikan nahiz gizartean agintea galtzea, izan ziren eragile. Egoera horretan, zenbait sektorek mehatxaturik ikusi zuten beren burua eta gogortu egin zituzten beren jarrerak, erradikalizatuz eta etsai politikoen aurkako borrokaren indarkeria zilegitzat hartuz (Ugarte, 2000). Bai eskuindarrek, bai eta ezkertiarrek ere erradikalizatu egin zituzten beren jarrerak Europan osoan.

Fidel Azurza izan zen jarrera horren bultzatzaile nagusia Gipuzkoako karlisten artean. Tolosako alkatea izan zen agintaldi bat baino gehiagotan, eta altxamenduaren berri izan zuenean Iruñerantz abiatu zen. Ziur asko, ihesaldi horri esker jarraitu zuen bizirik; izan ere, 17 tolosar (eskuinekoak eta tradizionalistak) hil zituzten errepublikarrek, Tolosako kartzelatik atera eta Donostiako Ondarretakora eramanda. Gipuzkoako Gerrako Junta Carlista sortu zen abuztuaren 10ean, eta hori zuzentzera eta Diputazio berriko lehendakari izatera (denbora gutxirako) itzuli zen Gipuzkoara Azurza. Euskal abertzaletasunaren tesien aurkari gogorra izan zen; 1933ko estatutuari buruzko erreferendumean ere kontrako botoa eskatu zuen, nahiz eta bere pentsaerako asko abstenitu edo aldeko botoa eman. Garbi erakutsi zuen, agintea eskuratuta ez zuela ahaztuko ez aurreko asteetan gertaturikoa, ez Errepublika-garaian bizitakoa.

### Atxiloletak

Ezinezkoa da zehaztea zenbat gipuzkoar atxilotu zituzten matxinoek agintea hartu zuten lehenengo asteetan, baina garbi dago asko eta asko egon zirela gatibu kartzela izateko egokitu zituzten tokietan. Senideek eta lekukoek kontatutakoaren arabera, badakigu atxilotzera joaten zirenak erakunde eta talde polizial ezberdinetakoak zirela, baina, gehienetan ordena-indarretako kideren bat zuten buru. Esate baterako, bi erreketek eta guardia zibil batek atxilotu zuten Ignacio Azpiazu apaiza; Juan José Usabiaga eskolapioa eta bere anaidiko beste bi kide, aldiz, bi poliziak eta errekete batek. Goarnizioak eraman zuen Julián Pérez Simón maisu hernaniarra eta Ángel Arbiza bi erreketek. José Insausti donostiarra, ostera, falangista batek, errekete batek eta guardia zibil batek eskoltaturik iritsi zen Ondarretako kartzelara.

Era askotakoak izan zitezkeen atxilotzeko arrazoiak: politikarekin zerikusia zutenak, eguneroko harremanetako etsaitasunen ondorio edo kristau moralaren kon-

trako jokabidearekin lotuta. Lehenengo motakoei dagokienez, alderdi politiko jakin batzuetako kide izatea, ideologia "susmagarriko" egunkariak erostea, manifestazioetan parte hartzea, 36ko udan milizietan parte hartu izana edota eskuindarren atxiloketekin zerikusia izatea ziren atxilotzeko arrazoietariko batzuk. Egunean eguneko bizitzan sorturiko liskarrak, auzokoen artekoak, zorrak, pleitoak edo haserrealdiren bat nahiko ziren kartzelara eramateko. Azkenik, "bizitza desordenatutzat" hartzen zenak zuzenean eramaten zuen ziegara. Lehenengo hilabete haietan gertaturikoaren lekukorik onenetakoa dugu Salbador Zapirain abertzale errenteriarra, apaizgai ohia. 1936ko irailaren 13tik aurrera egon zen preso Ondarretan, eta han bizitakoa kontatu digu *Espetxeko negarrak* izeneko liburuan (1984an Auspoak argitaraturikoa). Honako atal honetan aipatzen ditu zein izan zitezkeen barrura eramateko arrazoiak:

> Erriko garbiketak egiten asten diranean, auek etziotek ezeri begiratuko. Sartzen diran agintariak, asko il eraziko dizkitek. Ori izango dek salatzalleen uzta. Gizon on ta mazalak baditutk militarretan. Baña kontzientzi gabeko jendea ere ugari badek oien artean. Ezin ikusiak eramango dizkik makiña bat erru gabeko gizon. Andregairengatik il eraziak ere izango dituk. Auzitako barrutiengatik ere bai. Zorrak ez ordaintzeagatik ere, ez nikek esango ezetzik. Kontzientzi gabeko gizonek ez ditek egokiera ori galduko. Militarrak, berriz, umeen antzekoak dituk: oso sinesberak. Salatua ez bada beren iritzikoa, an joango da ankaz gora. Baña, alare, asko izango dituk beren eskuz mendekoa egingo dutenak. Espetxeratu ta agintarien berririk gabe, non ez dakitela, amaikatxok galdu bear dik. Ortarañakoxeko ezin ikusi ta gorrotoa sartua zegok, len nai zutena egiten oituk zeuden biotzetan (Zapirain, 1984, 14).

Errenteriako jaiotetxean, Bordaxar baserrian, atxilotu zuten Salbador Zapirain, aita alargunarekin batera eta zituen 9 anaietatik zazpirekin; bi guardia zibil, bi errekete eta bi falangista joan zitzaizkien bila. Beren armak (ehizarako hiru eskopeta) agintari berrien esku utzi ez izana eta etxean munizio gehiegi edukitzea izan ziren atxilotzeko lehenengo akusazioa. Baina ez zen horretan geratu, berehala eman zituzten haien aurkako datu gehiago auzokoek berek. Falta ziren bi anaiak euskal armadan parte hartzera joanak ziren, eta etxean geratutako batzuek ere parte hartu zuten Errenterian osatu ziren milizia jeltzaleetan, Gobernuaren kontrolpean. Bestalde, Errepublika-garaian, anaietako batzuk Euzko Langilleen Alkartasunean afiliatu ziren. Baserrian bertan exekutatzen saiatu ziren atxilotzera joandako bi falangistak, baina bi erreketeek kolumna militarreko kapitainak emandako agindua gogorarazi (bizirik eraman behar ziren atxilotuak San Markos gotorlekura) eta eragotzi zuten bertan hiltzea. Hurrengo egunean, Errenteriako udaletxean jarri zuten komandantearen bulegora eraman zituzten, eta saiatu ziren alderdi eskuindar bateko senideren batek beren alde egin zezan, baina ez zuten lortu. Azkenik, anaietako lau Donostiara eraman zituzten; Salbador izan zen horietako bat, anaietan hirugarren gazteena izan arren –militarrek errudunak eta errugabeak bereizteko irizpideetako bat zen–, komandante militarrari emandako papertxo batean azaltzen zelako haren izena. Hiriburuan geratzen

ziren gutxietako batzuek matxinoak sartu izana ospatzen zuten bitartean, edo beste batzuk ezkutuan geratu, Zapirain lau anaiak Gobernu Militarretik oso azkar igaro eta Ondarretako kartzelan sartu zituzten.

Huskerietan oinarrituriko salaketak sarritan onartu izanak garbi erakusten du zein zen irabazleen asmoa, hots, edozein barne-disidentzia deuseztatzea. Era berean, sarritan aipatu izan dira "susmagarrien zerrenda beltzak", udaletatik edo beste erakunde batzuetatik bidalitakoak. Ez dago zerrenda horien kopiarik, baina lekukoek behin eta berriz azpimarratzen dute egon egon zirela. Esate baterako, Ignacio Azpiazuk dio tradizionalista batek, Azpeitiko Ramón Echániz apaiz laguntzaileak, esan ziola berak ikusi zuela Iruñeko Círculo Carlistan apaiz abertzaleen zerrenda bat, hauteskunde orokorren aurretik egindakoa, eta bertan agertzen zela Azpiazu hirugarren postuan, atxilotu eta fusilatu behar zirenen artean. Bestalde, Leoz tenienteari aurkitu zitzaion Bilbon, inolako espedienterik ireki gabe exekutatu behar ziren 100 lagunen zerrenda (Iñurrategui, 2006, 98). Justo Mokoroa eskolapioak esan zuen Gerrako Junta Carlistako Ulivarri abizeneko kide batek (seguru asko Marcelino Ulibarri, geroago Zaragozako Servicio de Recuperación de Documentos-en ardura izango zuena) Vasconia probintziako eskolapio abertzaleen zerrenda bat egin zuela (Gamboa-Larronde, 2006, 102). Zerrenda horretako sei atzerriratu egin zituzten. Altxatutakoak sartzen zirenean herri batera, herritarren ideia politikoak biltzen zituen fitxategi bat egiten zuten, datu horietaz baliatuz atxiloketak, miaketak eta isunak bideratzeko; beste batzuetan, herrira sartu aurretik zeukaten matxinoek susmagarrien zerrenda. Eusko abertzaleak, apaiz abertzaleak eta ezkerreko erakundeetako partaideak egoten ziren zerrenda horietan. Alde eginda egonez gero, haien etxebizitzak inkisidore berrien helburu bihurtzen ziren[54].

Salaketak anonimoak baziren ere, badakigu gehienetan akusatuaren auzokoa edo familiakoren bat izaten zela salatzailea, norbere burua garbitze aldera eta kalteak saihesteko; beste batzuetan, baina ez hain sarri, altxamenduaren eta agintari berrien aldekoak izaten ziren salatzaileak. Egoera horretan, pentsa daitekeenez, oso tentsio handian bizi ziren. Belloc-eko monastegian errefuxiaturik bizi zen Pablo Sasetari honako hitz hauekin deskribatu zioten egoera: «La soplonería es tan canallesca que nadie vive seguro y en la calle nadie se atreve a hablar con otros»[55]. Errepresio-bide horretan sartzeak, borondatez edo halabeharrez, nolabaiteko lotura sortzen zuen egoera berriarekin eta diktadura militarreko kohesiorako bitarteko bat izan zen, diktadurarekin konprometitzeko era bat, muturrekoa eta oso eraginkorra (Prada, 2006, 165). Jazarpenaren helburua ez zen zigortzea beste barik, are urrunago zihoan: erregimen politiko berri

54 "Comment les rebelles pretendent ruiner le peuple basque", *Euzko Deya* 95, 1937-2-13.

55 Abertzaletasunaren Agiritegia. EBB 278-1.

bat sendotu behar zen, euskal abertzaleak eta errepublikazaleak inolako tokirik gabe utzita. Arestian aipaturiko salaketen artean deigarria da zenbait elizgizonen jarrera, beren kideak salatzen baitzituzten; kopuruak kontuan izanez gero laikoen aurkako salaketak baino askoz gehiago izan ziren erlijiosoen artekoak (ikus Barandiaranek jasotako testigantzak Gamboa-Larronderen liburuan). Gai honekin bukatzeko, beste adibide samingarri bat dugu: Urnietako lekaime-komunitate batek zenbait lagun salatu omen zituen, Olaizola anaiak barne, eta fusilatu egin zituzten[56].

Gipuzkoako herriak hartzearekin batera atxilotu ugari egon zen, eta gero, 1936ko azken hilabeteetan, berriz areagotu ziren atxiloketak, sarritan agintari berriek ezarritako isunak ez ordaintzeagatik. Gainera, errepublika-garaian egindako ustezko delituen arduradunak ez zeudenean, haien gurasoak edo seme-alabak atxilotzen zituzten sarritan.

Are apetazkoagoa izaten zen atxilotuen etorkizunari buruzko erabakia: aske utziko ziren edo sententziatu. Horrelako egoeretan, militarren baten, herriko agintarien edo handikien sendiren baten bitartekotza izaten zen defentsarik eraginkorrena:

> En aquellos meses de terror franquista, la existencia o no de lazos familiares con las nuevas autoridades, las relaciones de vecindad con milicianos nacionales, la cercanía a algún religioso o el trato clientelar anterior con patronos y grandes propietarios dibujan la delgada línea invisible que separa a los detenidos que suben a la camioneta, camino de la muerte, de los más afortunados que pierden la libertad, pero salvan la vida.
>
> (Gil Andrés, 2006, 151)

Askatasuna edo bizitza diru truk lortzea izaten zen beste irtenbide bat. Horren adibidea dugu Enrique Marquet tolosarraren kasua, izan ere, 10 hilabetean egon zen preso, militar-talde batek eskatzen zion diru-kopurua ez zuelako ordaindu (Gamboa-Larronde, 2006, 339). Beste adibide bat ere badugu, polizia batek 200.000 pezeta eskatu zizkion Gelasio Aramburu apaizari, horren bi lehengusu ez atxilotzeko, Pablo eta John Zabalo anaiak hain zuzen ere, oso abertzale ezagunak Donostian (Gamboa-Larronde, 2006, 515). Diru asko batzeko zeharkako bidea zen isun handiak jartzea, baina ordaintzaileek kartzela saihesteko modua ere bazen. Gainera ez zen batere arraroa, isun handi bat ordainduta, hurrengoan pertsona berari ondasunetako batzuk bahitzea eta gehiago eskatzea; horixe gertatu zitzaion Juan Muñoa donostiarrari. Salbador Zapirain konturatu zen diruak zuen balioaz, Ondarretako kartzelan ohartu baitzen askatasuna lortzen zuten presoetako asko maila sozial altukoak eta diru-arazorik ez zutenak zirela. Kasu askotan, beldurtzeko bide bat baino ez zen espetxean sartzea, izuturik dirua errazago eta bizkorrago emateko (Zapirain, 1984, 73).

56 Abertzaletasunaren Agiritegia. GE 496-2.

Errepublika-garaian, eskuindar askok jarraitu ahal izan zuten bizirik, alderdi errepublikarretako eta batez ere abertzaleetako kideen babesari esker, eta kontrako norantzan ere egon ziren laguntzak, Gipuzkoa altxatutakoen eskuetan geratu zenean. Horren haritik, *La Voz de España* egunkariaren hirugarren zenbakiak gogorazten zuen ez zela erraza ahaztea errepublika-garaian pairatutakoa, eta honako hau iragartzen zuen: «No es cobardía ni delación descubrir o desenmascarar a los enemigos de España». Astebete geroago, Barrio teniente koronelaren deklarazio batzuk jasotzen zituen egunkari berak, errekomendazioak lortzeko izaten zituen bisitak eta gutunak –oso kopuru handia– ekidin behar zirela esanez. Haren esanetan, oztopoa baino ez ziren: «ya que es necesario no entorpecer la labor policíaca de depuración de responsabilidades». Horrelako iruzkinak irakurrita eta militar errebeldeek zabaldu zuten izua tarteko, berehala gutxitu ziren laguntzeko saiakerak, norbera susmagarritzat hartuko ote zuten beldurrez.

Era guztietako esloganak zabaldu ziren justizia frankistaren errukigabetasuna azpimarratzeko helburuarekin. Botereko arlo guztietatik kendu behar ziren ezkerrekoak eta abertzaleak, baina, horrez gainera, guztien eskarmenturako eredu izan behar zen zigorra. Horretatik zigortu ziren inolako ardura politiko nabarmenik ez zuten hainbeste lagun.

> Los que aún andáis escondidos esperando atemorizados el justo castigo a vuestros crímenes, nosotros os decimos que aunque os ocultéis en las entrañas de la tierra os sacaremos a la picota pública para escarmiento de todos y para que el sol de la justicia brille limpio en España[57].

Antonio Sáenz de Urturi 1936ko azaroan Baionan errefuxiaturik zegoen arabar jatorriko donostiar bat zen, haren lekukotzaren arabera,

> Ahora estaba prohibida toda recomendación a favor de un condenado a muerte. El que intercediera por la liberación de un detenido, el que intentara demostrar la inocencia de un nacionalista o de quienquiera que hubiera sido acusado como tal, era por eso mismo considerado como sospechoso.

Justo Mokoroa eskolapioaren hitzetan:

> la animosidad contra las personas que tardó un tiempo en hacerse visible, se convirtió poco a poco, a medida que se prolongaba la resistencia en los frentes, sobre todo en el de Guipúzcoa, en odio franco y persecución encarnizada contra el nacionalismo y contra toda especie de características vascas (Gamboa-Larronde, 2005, 105).

Abertzale euskaldunen aurkako oso kanpaina gogorrari ekin zion prentsa frankistak, horiei leporatuz gaitz guztien errua eta altxamenduaren porrota[58]. Harrigarria

57 *La Voz de España*, 1936-9-22.

58 Ramón Sierra Bustamantek ere ideia bera errepikatu zuen (1941, 174).

da zein artikulu gutxi idatzi ziren Euskal Herrian "horda marxisten" aurka, eta, aldiz, zein sarritan jotzen zuten Jose Antonio Agirre eta bere alderdikideen kontra. Irailaren 18an, Román Oyarzun karlistak artikulu bat argitaratu zuen *La Voz de Españan* "La aberración del carlismo" izenburupean. Bertan salatzen zuen EAJk hartu zuen jarrera erlijioari zegokionez, hau da, haren ustez, autonomiaren mende utzi zuen erlijioa alderdi jeltzaleak, eta hori muturreraino eraman zuen mugimendu militarra hasi zenean (kristautasunaren eta komunismoaren arteko borroka), Moskuren eta maketo ezkertiarren alde egin baitzuten abertzaleek. Egun berean, mezu beretsua errepikatu zuen Fausto Gaiztarrok abertzaleei lepotatuz CNTko hiltzaileen esku utzi izana eskuindarrak. Bi egun geroago, Tetuan-etik idatzitako artikulu batek honako izenburu esanguratsua zeraman "Para los nacionalistas vascos, ni el olvido, ni el perdón", eta sinadurarik gabeko beste batean abertzaleen ondasunak bahitzeko eskatzen zen. Ildo berean José Muguerzaren hitzak (*La Voz de España*, 1936-10-7): «De cuanto ha ocurrido en estos últimos tiempos calamitosos, nada tan horrible, tan demoledor, tan pernicioso, tan perverso como la acción estimulada por el separatismo». Iritzi berekoa zen José V. Fuente: argi eta garbi zegoen marxistak eskuindarren etsaiak zirela, baina abertzaleek, aldiz, engainatu egin zituzten beren deklarazio hipokritekin. Fidel Azurza Diputazioko presideanteak azpimarratu nahi izan zuen egunero hartzen zituela Aldundian damututako abertzaleak eta orduan espainiar sentitzen zirenak, eta EAJn baja emateaz gain ahalegin ekonomiko handia egin zutenak gerraren helburua aurrera atera zedin. Eta horien guztien aurrean, ekintzen bitartez adieraziko zuela bere esker ona gehitu zuen Azurzak. Bestela esanda, damua publikoan adierazi eta dirutza ematen zuten abertzaleek, beharbada inolako zigorrik gabe geratzeko aukera izango zuten.

Errepublikaren aurka altxatu ziren taldeek beren ezaugarritzat hartu zuten erlijio katolikoa, baina kristauen eskuzabaltasunaren aldarrikapenaren ordez berehala egin zuten mendekurako eta suntsipenerako deia. Elizak eta pertsonak babestu izanak ez zituzten salbuesten abertzaleak, ez baitzuten eten Erlijioaren eta Jabegoaren aurkakoekin zuten harremana –matxinoen esanetan–. Lehenengo eta behin, gaitzetsi egin behar zen:

> y con espíritu lleno de indignación los horrores cometidos por las izquierdas españolas, que ha traído como consecuencias represalias de las derechas que, acaso, y en alguna ocasión, han podido ser excesivas[59].

Lehenago errepublikarren garaian kartzelan egon, eta baten baten bitartekaritzari esker aske geldititakoak, altxamenduaren ostean ukatu egin ziren beren ongileen –orain gatibu– aldeko agiri bat sinatzera bizirik jarraitu ahal izateko. Jarrera hori,

59 Román Oyarzun, "El nacionalismo vasco. Envenenamiento espiritual", *La Voz de España*, 1936-10-21.

gainera, arrazoitu egiten zuten: lagundu zieten errepublikarrek eta abertzaleek giza harremanek eta giza sentimenduek bultzatuta ez ezik, beren burua babeste aldera egin omen zuten. Are gehiago, abertzaleek ez zuten ezertxo ere egin errepublikarren hilketak eragozteko (Sierra, 1941, 182 y 203). Apaiz asko nabarmendu ziren esku gogorra eskatzen zietelako militarrei, ez zutelako inolako dudamudarik izan beraiek bezalako kristauak salatzeko edota zenbait kasutan armak hartzeko. Baina salbuespenak ere egon ziren: Hernaniko apaiz laguntzailea, Gervasio Achucarro, joera tradizionalistakoa eta Falangeko kapilaua, benetan nabarmendu zen herritarrak salbatzeagatik matxinoen eskuetatik. Horren erakusgarri dugu Hernaniko Alejandro Mendikute apaizaren alde egindako bitartekaritzari esker aske utzi izana, baina bigarren aldiz atxilotu zutenean fusilatu egin zuten parrokoa. Fernando deValle Lersundi hernaniarra ere susmagarritzat hartu zuten, hainbat abertzaleri laguntzen saiatzeagatik. Gerrako Junta Carlistako presidenteak ere kargua utzi zuen bere taldekideen jokabide ankerra ikusita, eta Espainiatik alde egiten lagundu zien hainbat pertsonari. Kargutik kendu eta Lizarrara bidali zuten desterraturik José Múgica, Donostiako alkatea, ez zuelako onartu militar matxinoek eta horien aliatuek bultzatzen zuten mendeku sistematikoa erabiltzea. Bere agintaldian saiatu zen atxiloturiko udal funtzioanarioei laguntzen, ahalik eta defentsa onena izan zezaten gerra-kontseiluetan eta igarobaimenak ere egin zien zenbait laguni, presondegia saihesteko, kartzela izan baitzitekeen heriotzarako urrats zuzena eta laburra askorentzat (Múgica, 2005).

Oraindik ez dira erabat aztertu presoen ezaugarri politikoei buruzko datuak. Badirudi nahiko garbi dagoela ezkerreko taldeetako gehienek utzi zutela Gipuzkoa, matxinoen esku erori aurretik. Abertzale gehienek ere alde egin zuten, batzuek Bilbora eta beste batzuek Iparraldera, bertan geratzeko, ez baitzuten ikusten bizirik jarraitzeko aukerarik errepublikaren alde jokatu ostean. Abertzale askok, aldiz, uste zuten ez zutela ezer txarrik egin eta ez zitzaiela ezer gertatuko, eta uste horrekin Gipuzkoan geratu ziren. Baina talde horretakoak izan ziren lehenengo egunetan atxilotuetako asko, errepublika-garaiko une gogorrenetan elizak eta apaizak babesten ibilitakoak. Horixe bera dio Salbador Zapirainek, Ondarretako kartzelan berarekin batera egondako gehienak katolikoak zirela eta elebakarrak, gainera, itzultzailearen beharra izan zutela gerra-kontseiluko galdeketetan. Azpeitian atxilotu eta handik gutxira aske utzi zuten Ignacio Azpiazuk honela kontatzen du zerk bultzatu zuen etxean jarraitzera, alde egin gabe:

> Yo me quedé en Azpeitia, el 20 de septiembre, pensando que el movimiento era únicamente anticomunista. Sabía, es cierto, que para septiembre había ya adquirido un matiz antinacionalista; pero creía yo que éste era posterior a la actitud gubernamental adoptada por el Partido Nacionalista Vasco. Según eso era lógico pensar que los militares no iban a perseguir más que a quienes de una u otra forma lucharon contra ellos, y como yo había mantenido una postura abstencionista durante la guerra creí poder quedar en Azpeitia sin temor a castigo (Gamboa-Larronde, 2006, 133).

1937ko otsailean, Gomá kardinalari bidalitako txosten batean esaten zen *La Voz de Guipúzcoa* (Donostiako egunkari errepublikarra) irakurtzen zutenak kalean zebiltzala aske, ez, ordea, abertzaleak, gogor jazarrituak. Era horretara jokatuz eragotzi nahi zuten abertzaleak hurbiltzea klase bereko, familiako edo lagun eskuindarrengana, ez zezaten txepeldu besteek Altxamendu Nazionalarekin zuten atxikimendu sutsua. Badirudi falangistak izan zirela gogorren aritu zirenak euskal abertzaleen aurka (Barruso, 2005, 128). Bestalde, ezin da ahaztu abertzaleei leporatzen zietela matxinoek Altxamenduak berehala irabazi ez izana, nazionalistek Frente Popularrarekin egin zutelako bat eta ez anaia katolikoekin. Horixe izan zen, esate baterako, Gomá kardinalaren tesia Vatikanora bidali zuen lehenengo txostenean (Rodríguez Aisa, 1981, 21). Antzera pentsatzen zuen Ramón Sainz de los Terreros-ek Gerra Zibileko lehenengo hilabeteak nola igaro ziren Bidasoako mugan idatzi zuenean «la influencia decisiva del nacionalismo vasco en la gesta revolucionaria» eta ezinbestekotzat hartzen zuen agintarien, prentsaren eta iritzi publiko espainiarraren ahalegina abertzaleak suntsitzeko, «extirpar el virus separatista» haren hitzetan (1937, 214). Ahalegin hori erabat eraginkorra izan zedin, gaitzaren errora jo behar zen, eta benetako erroa euskara bereizgarritzat hartuta horren defentsa sutsua egitea zen, hainbat apaizek egiten zutena, hain zuzen. Beraz, apaiz eta elizgizon "separatistak" haien parrokietatik urrundu behar ziren eta gainerakoak Altxamenduak bereganatu behar zituen:

> Enseñanza españolista en las escuelas, labor de prensa y captación, y algo que todavía no se ha hecho: ciertas anexiones o cambios de jurisdicción, que abreviarían los trámites y serían, además, un acto de justicia (Sainz de los Terreros, 1937, 216).

Pentsaera eta jarrera horrek zuritzen zuen euskal abertzaletasunaren aurkako jazarpena Gipuzkoan, baina Nafarroan jelkideak neutral agertu ziren edo errekete-en alde egin zuten, eta hala ere jazarri zituzten abertzaleak, nahiz eta ondorio dramatiko gutxiagorekin gertatu.

Aitzitik, ez dakigu zer gertatu zitzaien errepublikar moderatuenei, hilabete haietako gertakizunak ikusita noraezean izango zirenei. Haietako askok matxinoek hiribu-rua hartu baino askoz lehenago egin zuten ihes Frantziara, Carlos Soto Donostiako Izquierda Republicanako buruak, besteak beste, edo Fernando Sasiain alkateak berak (lehenengo Bilbon babestu zen eta handik Frantziara igaro zen exiliaturik). Ez zen gaiari buruzko komentariorik falta: abertzale fededun sutsuak zapalketaren ondorio guztiak pairatzen zituzten bitartean, errepublikazale lerrouxistek (erlijioaren aurkako jarreragatik nabarmendu zirenak) ez zuten inolako jazarpenik jasan. Pío Chaos Donostiako alkateordea Bilbon zegoen babesturik, eta haren esanetan, lerrouxista donostiarrek bat egin zuten Donostia hartu zuten jokabide bortitzarekin (Iñurrategui, 2006, 90). Gelasio Aramburu abertzaleen inguruko apaizak txosten batean adierazi zuen zenbait ezkertiar (izen-abizenak zehaztuta) Falangera sartu zirela inolako arazorik gabe, nahiz

eta zibiletik ezkonduta egon eta seme-alabak bataiatu gabe; eta hori gertatzen zen bitartean fusilatuta hil zela Pasaiako batzokiko lehendakaria, Manuel Garbizu. Debako zenbait zinegotzi ezkertiar ere herriko Falangen sartu ziren eragozpen handirik gabe. Pedro Barrusoren datuen arabera, gerra-kontseiluetan epaitu zirenetatik %10 inguru izan ziren errepublikazaleak, horietatik bat fusilatu zuten sententziaren ondorioz, eta epaiketarik gabe fusilaturikoen proportzioa baxuagoa da. Errepresio ekonomikoari zegokionez, %17,5 inguru izan ziren kalteturiko errepublikanoak (Barruso, 1999).

Ikerketa zehatzagorik ez dugun bitartean, Pedro Barrusoren datuez baliatuko gara errepresioak kaltetutakoak zifretan adierazteko. 1936tik 1945era, Gipuzkoako hirietan atxilotu eta prozesatu zuten jende gehien, %53 inguru. Gune urbano horien ondoren Donostia bera izan zen kaltetuena, %25, baserriaren eta hiriaren arteko Gipuzkoa hurrena, %14, eta, azkenik, Gipuzkoa nekazaria, %3. Industriako langileak, enplegatuak eta funtzionarioak izan ziren gizarteko talderik kaltetuenak. 1936an, euskal abertzaleena izan zen zapalkuntza gogorren pairatu zuen talde politikoa, baina hurrengo urtetik aurrera, hots, Iparraldeko Frontea erori zenetik, errepresioaren norantza aldatu egin zen eta askoz gehiago izan ziren kaltetutako ezkerreko militanteak (Barruso, 2005, 207-222). Orain arte ere esan dugu, mendeku pertsonalak, edo zoritxarra bera, kontuan hartzeko faktoreak direla oso eraginkortasun politiko txikiko hainbeste pertsonaren heriotzak (fusilaturik hiltzea) azaltzeko; baina, hala ere, errepresio frankista gogorren bizi izan zuten eskualdeei dagokienez, oro har, dinamika sozial, politiko eta ekonomiko handiena zuten tokiak izan ziren kaltetuenak. Pradaren hitzetan, estatusari zegokion zapalkuntza izan zen eta ez hainbeste klasearen araberakoa (Prada, 2006, 234); izan ere, abertzaletasunarekin, errepublikazaletasunarekin eta ezkerreko taldeekin lotura zituzten sektoreak izan ziren helburu nagusia, eta klase sozial batekoa edo bestekoa izateak ez zuen garrantzi erabakigarririk. Teruelen gertatutakoa azaltzeko, Ángela Cenarro-k esan zuen istilu handiko testuingururik «trasfondo de conflictividad intensa» egon ez zenez, zapalkuntzaren eragina arinagoa izan zela eta ez zirela gauzatu probintzia hartan altxatutakoek harturiko lurraldeetan bultzatzen ziren erabakiak (Casanova, 1999, 176), baina ez zen hori gertatu Gipuzkoako kasuan. Zapalkuntza frankistaren helburua gizartea "garbitzea" zen, eta hori lortze aldera, moral eta fisikoki garbitu behar ziren frankismoak erabaki zuen gizarte sozial, kultural, politiko eta ekonomikoan sartzen ez ziren guztiak (Richard, 1999, 25).

## Kartzelak

Zalantza handirik gabe esan daiteke frankistak ez zirela gai izan hainbeste jendez betetako kartzelak behar bezala kudeatzeko; baina errepublikarrei ere gauza bera ger-

tatu zitzaien, agintean egon ziren tarte laburrean. Donostia okupatu eta probintziaren zati handi bat hartu ondoren, atxiloketen oldeari erantzuna emateko espetxe probintzialaz gain beste egoitza batzuk hasi ziren erabiltzen: Zapatari-n zegoen Asaltoko Guardiaren kuarteleko kalabozoak, San José ikastetxea (Prim kalean, emakumeentzat) eta San José de la Montaña ikastetxea Ategorrieta-n. Eskualdeetako kartzelek ere jarraitu zuten beren zeregina betetzen: irailaren amaieran 62 lagun (4 apaiz) zeuden pilatuta Azkoitikoan, eta 22 zeuden giltzapean Beasainen. Arrasateko kartzelan zeuden presoak hiru aldiz eraman zituzten herriko plazara bonbardaketak zirela eta. Geroago, 1938tik 1944ra bitartean, Saturrarango seminarioa emakumeentzako kontzentrazio-eremu bihurtu zuten, ehunka emakumeren zorigaiztoko oroitzapen samingarria. Ez dirudi Gipuzkoan presoentzako esparrurik erabili zutenik, beharbada Lasarten egongo zen; aitzitik, badakigu izan zirela Araban, Bizkaian, Nafarroan, Burgosen eta Logroñon. Sailkapen-esparru bat egon zen, Irunen, 1937 inguruan, Frantziatik penintsulara itzultzen ziren pertsonentzat. Eta Donostiako eta Tolosako zezen-plazak ere erabili zituzten presoak edukitzeko bertan era probisionalean 1939an (Barruso, 2005, 180-190). Langileen batailoiei dagokienez, ez zuten indar handirik izan Gipuzkoan eta dauden agiri bakarrak gerrak Espainian izan zituen azken egunetakoak dira.

Dena den, gerra-garaian Ondarretakoa izan zen espetxe nagusia eta bertatik atera ziren Hernanin fusilatu zituzten gehienak. Iñaki Egaña ari da ikertzen kartzela horri eta beste atxilotze-gune batzuei buruzko agiriak, eta azterketa hori erabat amaitu arte, agiritegiak betiko desagertu ziren edo zer dagoen jakin arte, ezin izango dugu zehaztu zenbat preso sartu zituzten espetxe horietan, zenbat hil ziren gatibu zeudela, ez eta zein baldintzatan (garbitasuna, osasuna, kopuruak) bizi ziren barruan zeuden bitartean ere. Orain arteko datuak ez dira erabatekoak eta gehienak aztergai dugun garaia baino geroagokoak dira. Salbador Zapirainen memorietan agertzen zaizkigu zenbait datu: gizasemeen kartzelak banakako 127 ziega zituela dio, baina horietako batzuetan 7 egoteraino iritsi zirela, eta 1936ko azaroaren bukaerarako 600 preso izatera iritsi zirela (Zapirain, 1984, 184). 1938ko Euzko Jaurlaritzaren txosten batean honako datu hauek aipatzen ziren: 800 preso Ondarretako kartzelan, beste hainbeste emakume Saturraranen, 1000 preso eskualdeetako kartzeletan (gehiegi iruditzen zaigu) eta 400 Zapatarin[60]. José de Arteche nazionalista izandakoak ere kopuru bera aipatzen du Zapatariko kasuan, 1937ko irailerako (Arteche, 1970, 149). Bestalde, kontuan hartu behar da Iparraldeko Frontea erori zenean, atxilotu euskaldun gutxi batzuk Gipuzkoako presondegietara ekarri zituztela, eta horrekin gorantz egingo zuten kopuruek. Polizia frankistak berak egindako txosten batean esaten da 1938ko

60 Abertzaletasunaren Agiritegia. GE, K. 000 13 C-1.

urriaren 4an katxeo oso zehatza egin zela Ondarreta (gizonezkoen eta emakumezkoen artean) eta Zapatariko egoitzetan, eta 1848 pertsona izan zirela miatuak[61].

Errepublikarren agintaldian ere kartzela izan zen Ondarretakoa, eta matxinoek Gipuzkoa okupatu eta berehala hasi zen preso berriak hartzen etengabe. Altxatutakoak Donostian sartu ziren egunean bertan, irailak 13, eraman zituzten lehenengo lau presoak, Errenteriako Zapirain anaiak. Egoeraren larritasuna eta samina baztertuz gero, esperpentotzat har daiteke egoera hura: lau preso eta kartzeletako funtzionario bakar bat. Salbador Zapirainen esanetan, ez zuten inolako arazorik izango ihes egiteko, baina berriz harrapatu eta fusilatuak izateko beldurrak edo etxekoak zigortzekoak bultzatu zituen bertan geratzera. Izen-deiturak hartu zizkien funtzionarioak, eta hasieran Irungo Zapirain anaiekin erratu zituen, azken horiek Alderdi Komunistakoak; identifikatu ondoren ziega banatan sartu zituen. Salbador bera zegoen ziega oso zikin zegoen eta errepublikarren garaiko odol- eta bala-markak zeuden hormetan. Lehenengo egunetan ez zuten izan koltxoirik eta hirugarren egunean hasi ziren jaten, funtzionarioak bere poltsikotik ordainduta. Kartzelara sartzeaz batera zihoazen zigor fisikoa eta psikikoak, atxiloketak berak eta galdeketek eragindakoak hain zuzen ere.

Irailaren 17tik aurrera zaindari gehiago egoteaz gainera, presoak heltzen hasi ziren, batez ere Errenteria eta Andoain aldetik heltzen ziren. Egunak igaro ahala, presoen jatorria ere zabaldu egin zen: Nafarroako San Cristóbal espetxeko gipuzkoar asko eraman zituzten Ondarretara, kasu batzuetan aske utzita eta etxeetara heltzean berriz atxiloturik. Horrela espetxeak ohiko itxura hartu zuen. Presondegietako langile funtzionarioez gain, zaindari gehiago sartu ziren, agintari berrien gustuko eta menpekoak. Zaintza-lanetan milizietako kideak sartzea izan zen beste aldaketa bat: erreketeak, falangistak, guardia zibilak, karabineroak eta asaltoko guardia ohiak aritu ziren. Artean, altxamendu militarrera arte debekaturik egon bazen ere, harrezkero zenbait presok lagundu zuten bulegoko lanetan edo sukaldean.

Ricard Vinyes-en hitzetan, botere-sistema bakar baten menpeko aparteko mundu bat ziren kartzelak, baina horma sendoz inguraturik egon arren, etengabe zuten presoek kanpoko berri eta harremana kanpoarekin. Atxilotu berriak sartzen zirenean, haiekin batera sartzen ziren kanpoko berriak, informazioa eta zurrumurruak. Bestalde, sarritan ezagunak edo senideak egoten ziren zaindarien artean, eta horrek ere erraztu egiten zuen aipaturiko komunikazioa; funtzionario bigunagoak edo gizakoiagoak ere aurkitzen ziren haiekin hitz egiteko helburu berarekin; eta, azkenik, galdeketak egitera edo gerra-kontseiluetara eramaten zirenean presoak presondegitik kanpora, Donostiako kaleak zeharkatzen zituzten eta itzultzen zirenean ikusita-

61 AHN, Gobernación 68031.

koaren berri ematen zuten. Era berean, baina kontrako norantzan, berehalako oihartzuna eta ondorioak izaten zituzten presoen eguneroko bizitzan militar matxinoen garaipenek eta galtzeek. 1938an, poliziak aintzat hartu eta aztertu zuen informazio baten arabera, Ondarretako presoen artean errepublikazaletasunari eusten zion preso-talde bat zegoen, eta Donostian altxatzeko aukera aipatzen zen[62].

Espetxe frankistak aztertu izan diren kasu gehienetan ez da kontuan hartu eta ikertu hasiera-hasieratik erabili zirela gatibuak espetxetik kanpoko lanak egiteko[63]. Gehienek uste badute ere presoen lanerako indarra aprobetxatzeko modu bakarra langileen batailoiak izan zirela, erregimen berrian, altxamenduarekin batera hasi ziren gatibuak lanerako erabiltzen. Zapirainek gogoratzen du iraila amaitu baino lehen eraman zituztela 10 preso Lasartera aerodromoa eraikitzeko obretara (Zapirain, 1984, 87). Salbadorrek berak, zenbait lan egin zituen kanpoan kondenatu ostean, nahiz eta legez debekaturik egon. Isidro Intxaustik aita Barandiarani kontatu zion Ignacio Zapirain lehengusua –abizen berekoa, baina ez Salbadorren anaia– Artikutzan fusilatu zutela Andoaingo zubia berreraikitzen lan eragin ondoren (Gamboa-Larronde, 2006, 320). Azken batean, helburu bikoitza zuen presoen indarra kanpoko lanetan erabiltzeak. Alde batetik, zigortzeko era bat zen; eta, bestetik, gerrako ahaleginetan lanerako indarra eskuratzeko modu bat zen, bestela lortzea ezinezkoa zen lan-eskua agintari berrien zerbitzurako.

Kartzelen zeregina bikoitza zen: lehenengo eta behin zigortzea, eta horrekin batera, presoak makurraraztea eta aldatzea, haien nortasuna eta ezaugarriak deuseztatuz (Molinero, 2003, XIX). Badirudi Ondarretako zaindariek ez zutela arazorik izan bi helburuak lortzeko presoak zigortuz, jipoituz eta torturatuz edozein aitzakiarekin; izan ere, obedientzia eta diziplina ziren oinarriak kartzelen sisteman. Errekete baten aurrean txapela kendu ez zuen eskale gazte bat, erreketeak berak jipoitu eta aurre egiten saiatu zenez, ziegara eraman eta gauean desagertu egin zen betiko (Zapirain, 1984, 70). Estatuko Junta Teknikoaren azaroaren 22ko dekretu baten arabera, berrezarri egin zen, oso-osorik, 1930eko azaroaren 14ko Kartzelen araudia; horretarako kendu egin zitzaizkion errepublika-garaian gehituriko xedapenak, profesionaltasun handiagoa ezartzeko eta gizakoiago egiteko gehiturikoak, hain zuzen[64]. Ordutegiek, errekuentoek eta miaketek baldintzatzen zuten eguneroko bizimodua espetxean. Hasiera-hasieratik onartu ziren bisitak, eta jarrera hori harrigarria iruditzen bazaigu ere, apur bat sakonduz gero badu azalpena. Alde batetik, gerra aurreko egoeraren jarraipen hutsa izan zitekeen; baina, bestetik, bazegoen beste helburu bat, hots, presoa makurraraztearekin batera haren familia ere makurraraztea,

62 AHN, Gobernación 53042.

63 Salbuespenetako bat: Vega Sombría-ren "La vida en las prisiones de Franco", *in* Molinero 2003, 192-194.

64 A. Cenarro: "La institucionalización del universo penitenciario franquista", *in* Molinero, 2003, 135.

kanpokoari erakustea erresistentzia-kutsuko edozein mugimenduk ondorio kaltegarriak izango zituela barrukoarentzat. Horrela presoa ez ezik, haren ingurua menperatzea ere lortzen zen. Bestalde, ziegetan irakurtzeko eta idazteko aukerarik ez emateak indartu egiten zuen presoaren nortasuna deuseztatzeko ahalegina.

Zapirainen liburua astiro irakurriz gero, edota frankisten kartzeletan egondako beste preso batzuenak, garbi ikusten da nola bizi zuten egunerokotasuna hurrengo unean zer gertatuko zitzaien jakin gabe, eta horren beldur; etengabeko larritasun egoera horrek presoen izaera eta osasuna suntsitzen zuen. Patioko paseoa da Zapirainen memorietan agertzen den ekintza bakarra, eta irtenaldi txiki horretan kartzelako alde bereko presoak baino ez ziren elkartzen. Zapirainen kasuan, Ondarretan egon zen hiru hilabeteetan behin baino ez zuen ikusi beste galeria batean zegoen anaietako bat, eta gerra-kontseiluan egin zutelako topo izan zen. Espetxeko egoerak ez zuen errazten presoen arteko bizikidetza eta sarritan sortzen ziren eztabaida, haserre eta liskarrak. Alde batetik, bizi-baldintzak ez ziren egokiak eta presoak pilaturik zeuden; bestetik, toki berean zeuden preso gubernatiboak, epaiketaren zain zeudenak eta kondenatuak –kartzeletako araudiak debekatu arren–, eta horiei guztiei gehitzen zitzaien frankistekin bat egin zutenak, baina gehiegikeriengatik edo iraganagatik (politikoa edo deliktiboa) atxilotzen zituztenak.

Presoen arimaren osasunak kezkatzen zituen agintari berriak, baina ez osasun fisikoak. Errepublika-garaian, 1931n, kendu egin ziren espetxeetako kapilauak, eta 1938an berriz ezarri ziren araudian, baina 1936ko urrirako, errepublikarren araudia indargabetu zenerako hain zuzen, bazeuden kartzeletan, batez ere gerra-kontseiluetako heriotza-zigorrak gauzatzen hasi zirenean. Jesulagunak izan ziren kapilau Espainiako kartzela askotan, baina harrigarria badirudi ere, haien zeregin nagusia ez zen presoen bizitza salbatzea, ia ahalegin guztia bideratzen omen zuten presoak aitor zitezen hil aurretik eta ez heriotzatik askatzen. Donostia erori eta urtebetera, aita Errandoneak (geroago ESTEren sortzailea) irratiz egindako sermoi batean –1937an argitaratua– esan zuen deuseztatzera bideratu beharrean, espainiarrak Kristorengana erakartzera bideratu behar zirela erregimen berrikoen indarrak. Hala ere, jesulagunak onartzen zuen justizia egiteko zuten eskubidea agintari berriek, gizartea kutsa zezakeen edozer eragotzi beharra zutela, eta, are urrunago zihoan, gerrari onartuz "eskubiderik sakratuenak".

> Pero creer que todo se resuelve con acabar con las vidas de los hombres y con reducir en varios millones la vida de los españoles es una fórmula tan simplista que no puede serlo más (...).
>
> Además esa formula simplista es inmoral y anticristiana, pues ninguna moral y menos la cristiana, consentiría tal hecatombe, infinitamente superior a cuanto al derecho de guerra y la justicia vindicativa y la cautela protectora de la nación pueden consentir y recomendar (10. or.).

Se gana la guerra, es preciso ganar después la paz; se han conquistado los cuerpos de nuestros hermanos, hay que trabajar denodadamente por conquistar sus almas, hemos logrado vencerlos, resta ahora el trabajo de convencerlos (13. or.).

Dena den, justizia gauzatu beharrak ez zuen oztopatzen inolako trabarik gabeko mendekua, ez eta karitatearen ordez gorrotoa nagusitzea ere, nahiz eta Jesukristoren mezu nagusiak esan etsaiari barkatu egin behar zitzaiola eta maitatu egin behar zela. Baina herri xehe galduak, noraezean zebilenak Jesusen barkamena eskuratuko bazuen, egindako bekatu guztien damua izan behar zuen:

Para que sanes y seas feliz, es preciso que antes llores tus propios pecados; porque tus pecados son la causa de tu ruina (17. or.).

Gutxienez bost jesulagun aritu ziren presoen arimak salbatzen Ondarretako kartzelan, eta lauren izenak ezagutzen ditugu. Ondarretan lau jesulagun egon ziren kapilau: Juan Urriza Berraondo (1892-1977), Asturiasen jaiotako Jose María Lacoume Gorostiola (1888-1967) izan zen beste bat, Miguel María Zubiaga Imaz segurarra (1903-1992) eta Juan Pérez izeneko bat. Kapilau-lanetan arituriko guztiak harritu zituen presoen fedeak eta erlijio-sentimenduak, talde handian gogotsu joaten baitziren ospakizun erlijiosoetara, nahiz eta altxamendua goratzen igaro sermoiko denbora gehiena. Bestalde, kapilauek presoek berek baino lehenago jakiten zuten zein zen gerra-kontseiluetako emaitza.

Presoen eta kanpoko aldearen arteko harremanean bitartekari garrantzitsuak izaten ziren kapilauak, batez ere hiru arrazoirengatik. Aurrez aurreko eta banan-banako harremana zutenez presoekin, oso ongi ezagutzen zuten haien egoera eta aldartea, eta kartzelako hormen beste aldetik zetorren informazioa neurtzeko eta emateko pertsona egokiak ziren. Zenbait kasutan, beraiek egin zuten bitartekari-lana kanpokoekin eta atera zituzten dokumentuak kartzelatik, funtzionarioen eskuetatik igaro gabe. Azkenik, ez dakigu Ondarretako kasuan ere hala gertatu zen, baina kartzela askotan kapilauen ardura zen presoen gutunak zentsuratzea[65].

Ez zen pertsona xamurra izan behar José María Lacoume; hil zenean, honela idatzi zuen bere lankide batek: «Ha sido el Padre Lacoume un ejemplar extraordinario de fortaleza y de dureza consigo mismo. (...) Amaba a la compañía con verdadera ternura y ese cariño le hizo tal vez enfrentarse con energía, que no siempre fue interpretada favorablemente, ante claudicaciones y condescendencias que le parecían peligrosas»[66]. Urriza izan zen kartzelako zuzendari espirituala, eta Bilbon hil zuten errepublikarrek haren anaia Ángel, Ciudad Real-eko kanonigoa, urriaren 3an. Urrizak ere Lacoumeren antzeko jarrera izan omen zuen, eta hala adierazten du gu-

65 Cenarro, Ibidem, 149.

66 Loiolako Artxibo Historikoa. Dosier pertsonalak.

tun batean, anaiaren eta hurbilekoen saminaren gainetik zorionez Espainiaren berpizkundea aipatzen duenean «Es España, la que renace entre plegarias y sacrificios». Aitzitik, hil zituzten apaizek merezitako zigorra baino ez zuten jaso: «traidores o desertores de España» izateagatik. Exiliaturiko jesulagun batek, Francisco Corta-k, esan zuen Ondarretako kartzelako presoek eskatu zutela ez zitezela bisitan joan aipaturiko kapilauak, politika faxistari uko egin gabe ari baitziren. Ondarretan preso egon eta kapilauekin elkarrizketak izan zituen Usabiaga eskolapioaren lekukotasuna ere badugu. Urrizak esan omen zion bera ere salatu egin zutela, baina kontsolagarria zela jakitea bera kapilau zela ez zela inor hil heriotzarako ongi prestatu gabe eta sakramentuak hartu gabe. Kapilau izateko ezinbesteko baldintza zen ez hartzea parte prozesuetan, baina, hala ere, Urrizak lortu omen zuen ez fusilatzea apaiz bat. Lacoumek, aldiz, pazientzia eskatu eta apaizen heriotza gerra-egoerarekin lotzen omen zuen, eta ez omen zuen agertzen inolako nahigaberik eta saminik heriotza haien aurrean (Gamboa-Larronde, 2005, 239).

Miguel Zubiagari dagokionez, ez dakigu juxtu noiz hasi zen lan horretan, baina bai jarrera ezberdina izan zuela. Hil zenean, bestelako daturik ematen ez bazaigu ere, honela jaso zuen norbaitek bere nekrologikoan: «Gure gerratean gorrotoak baketzen, eta presoak espetxetik aterarazten lan handia egin zuen». Zubiaga, gainera, 1946an Kanarietara desterratu zuten, urte hartan egindako sermoi bat zela medio[67]. Berriro erbesteratu zuten 1960. urtean, 339 apaizek sinaturiko agiria emateagatik gotzainari. Agiri horretan, euskal herritarren eskubide politiko eta kulturalen aurrean jarrera irekiagoa izateko eskatzen zen, eta erregimen frankistaren askatasun eza kritikatzen zen. Horren guztiaren ondorioz, abertzale izateagatik zigortu ziren apaizen historiaren zerrendan agertzen da Zubiaga, ohartxo bat duela alboan «tiene muchos datos». Berak idatzitako liburuetan, aldiz, ez dago gertatukoaren inguruko inongo azalpen edota oroitzapenik, ezta Franco hil ondorengoetan ere.

Lekukoen bidez dakigu, errepublika-garaian gertatu zen bezala, arkakusoz, zorriz eta ezkabiaz (sarna) beterik zeudela ziegak, eta presoek sarritan ez zutela garbitasunerako ezer, ez gorputza, ez arropa ez eta gela garbitzeko ere. Kasu askotan, etxekoei eskatzen zizkieten mantak eta koltxoiak presoek. Jan gutxi zeukaten eta kalitate txarrekoa; ahal zutenek, behintzat, etxekoek eramandakoarekin edo kartzelako ekonomatoan erositakoarekin betetzen zuten hain gabezia handia. Kasu askotan, inkomunikazio-aldi bat igaro ondoren, bisitak har zitzaketen presoek, egunean bi ordu gehienez, bat goizean eta bestea arratsaldean. Ikustaldietako gelan, sare batek banatzen zituen presoak eta senideak eta metroa baino gehiago egoten zen alde bien artean; egoera horretan, ez zen arraroa bisita bat baino gehiago egotea aldi berean eta

67 Ziur aski Loiolan egindako sermoia izango da, Iturraldek deskribatzen dituen ondorioak izan zituena (1978, 461-462).

elkarrizketak oihuka egin behar izaten ziren, elkarri entzungo bazioten. Posible zen euskaraz hitz egitea gerraren hasierako garai hartan.

Salbador Zapirain Ondarretako kartzelan zegoen egunetan sartu zuten bertan Jean Pelletier, Frantziako armadako kapitain ohia, *Galerna* itsasontzian atxiloturik. Aurrerago itzuliko gara berriz pertsonaia horren gorabeherak aztertzera, baina orain ikusiko dugu nola deskribatu zuen espetxeko egonaldia 1937an argitaratu zuen liburu batean, hegazkinlari alemaniar baten truke apirilaren 22an aske utzi ostean. Pasaiako portutik eraman zuten Ondarretara Pelletier urriaren 16an. Behin kartzelan zegoela, erreketeen laguntzaz miatu zuten zaindariek, baliozko gauza guztiak kendu zizkioten eta banakako ziega batean sartu zuten, ez oherik, ez mantarik, beste bost lagunekin batera. Hurrengo egunetan egin zizkioten galdeketetan jo ere egin zuten, eta goizero entzuten zituen exekuzioetako disparoen tiro-hotsak. *Galernako* gainerako bidaiariak fusilatu bazituzten ere, berak bizirik jarraitu zuen eta inkomunikaturik izan zuten zenbait egunetan. Azkenik, patiora irteten utzi zioten eta han egin zuen topo era guztietako presoekin, gizarteko maila guztietakoak eta ideologia politiko ezberdinetakoak, falangistak eta erreketeak barne, bai eta zazpi edo zortzi apaiz ere. Frantziako kontsula jarri zen harremanetan Pelletierekin, eta orduan hobetu zen haren egoera, jana eta arropa eraman baitzizkion. Baina inguruan presoak exekutatzera eramaten jarraitu zuten. Zapirainen kontatu duenaren kontra, Pelletierek esan zuen gogor zigortzen zela euskaraz hitz egitea Ondarretako kartzelan, eta astebetean edo bitan patioko irtenaldia debekatzea izaten zela ohikoena.

Donostiako espetxeei buruz zerbait gehiago jakiteko, hain zuzen ere Zapatarikoaz, beste iturri bat dugu Thomas P. Abelló, espainiar jatorriko iparramerikar bitxi bat, altxamenduaren aldekoa Europara etorri arte, eta behin kontinente zaharrean aldea aldatu zuena. Espainiara sartu zenean, lehenengo Irungo udaletxean izan zuten atxiloturik eta geroago Zapatari kalekoan 40 egunetan, 1937ko abendutik 1938ko urtarrilera arte. Hortik Burgosera eraman zuten eta 10 egunetan han izan ondoren, Irungo mugan kanporatu zuten. Frantziara heldu zenean Euzko Jaurlaritzari eta Gobernu errepublikarrari eskaini zien bere burua Estatu Batuetan lan egiteko Euskal Herriaren alde[68]. Abellóren datuen arabera, 7 preso zeuden ziegako Ondarretan eta heriotzara zigortutako 300 baino gehiago. Emakumeen kartzelan 200 emakume zeuden pilatuta, horietako batzuk haurdun eta erditzeak ere gertatu ziren kartzelan bertan; gainera, emakumeetako askok debekaturik zuten patiora irtetea. Zapatariko presondegian 400 lagun baino gehiago zeuden giltzapeturik, gehienak nahiko zaharrak eta prozesatu gabe. San Joséko kartzelan 40 emakume zeuden, gehienak gaixorik edo erditzeko zorian. Deskribatzen duen sasoirako itxita zeuden kartzelatzat erabilitako

68 Abertzaletasunaren Agiritegia. GE, 408-1.

beste egoitza batzuk, Kursaalekoa, Prim kaleko erreketeen presondegia edo Opera kafeko falangistena. Hiriburutik kanpo, 500 emakume zeuden Saturraranen, elkarren gainean eta oso egoera txarrean. Azpeitian ere presoak zeuden, batez ere kanariarrak; baita Tolosan ere, 8 urteko umetxo bat tartean, eta Oñatin eta Eibarreko Armeria eskolan.

Kartzelen egoeraren deskripzioak erakusten digu noraino heltzen zen egoeraren gogortasuna eta larritasuna; hala izanda ere, zehaztasunetara joz gero, kontraesanak daude iturri batzuen eta besteen artean. Esate baterako, Abellóren datuen arabera, 10 dutxa besterik ez zegoen Ondarretan, eta medikuaren aginduz baino ezin ziren erabili; baina Euzko Jaurlaritzaren iturrien arabera, ez zegoen horrelako baldintzarik dutxak erabiltzeko. Ziegak ez ziren egurasten eta presondegiko sotoetan zeuden gatibu batzuk. Zaindariak hezkuntza handirik jaso gabeak ziren eta langile laguntzaileak delitu arruntengatik preso zeudenak ziren. Janaria ez zen nahikoa eta txarto prestatuta ekartzen zieten. 1937ko uztailetik aurrera ezin izan zuten kanpoko janaririk sartu espetxe barnera, eta kartzelako ekonomatoa zen jakiak eskuratzeko bide bakarra. Gutxitu egin zen presoko gastua eta kartzelako diru-kontuetan ez zen falta izan iruzurra. Lau presok egin zuten beste beren buruarekin. Horietako bat heriotza-zigorrera kondenaturik zegoen eta zainak ebaki zituen; egoera horretan, aulki batera lotu –ez dakigu bizirik zegoen– eta fusilatu egin zuten.

Tropa frankistek eskualde berriak okupatu ahala, gatibuak hartzen zituzten eta kontzentrazio-eremuetan pilatzen zituzten; behin kondenaturik, kartzeletara eramaten zituzten, eta espetxeetako egoera eta baldintzak okertu egin ziren. Hori ikusita, Euzko Jaurlaritzak plan berezi bat jarri zuen martxan 1939ko apirilaren azkenetan, zein baldintza txarretan bizi ziren euskal presoak ezagutarazteko eta haiekiko elkartasuna suspertzeko herritarren artean. Haien aldeko ekintzak eta etengabeko jarrera pertsonala izatea eskatzen zuten, bereziki karlisten artean. Espetxeetan bizi zituzten baldintza gogorrak zehatz-mehatz agertzeaz gainera, euskal presoek gerran izan zuten jarrera moral eta erlijioso eredugarria azpimarratzea proposatu zuten, eta oro har, kartzelan bertan euskal presoek zuten jokabide zintzoa nabarmentzea, gainera, sarritan, eskuindarren biziak salbatu eta gero[69].

Baina, orain arte ere esan dugu, ez ziren izan kartzela ofizialak presoz gainezka egon ziren bakarrak. Falangistek eta karlistek beren kartzelak izan zituzten; bi aipamen, behintzat, baditugu: Donostiako Boulevardeko Opera Kafean egon zen txeka falangista, eta hiri bereko Fuenterrabía kalean egon zen kartzela karlista bat. Ez dakigu zein irizpideren arabera eramaten zituzten atxilotutakoak batera edo bestera, ezta aukera bakoitzaren ondorioak ere; baina, hala ere, ezin dugu pentsatu "kar-

69 Archives Nationales. Paris F/7 14743.

tzela partikular" bakoitzak funtzionamendu beregaina zuenik. Zorionez, oso garrantzi handiko lekukotza bat dugu José Antonio Primo de Riveraren jarraitzaileen jokabidea ezagutzeko; giltzarria da agintariek bazutela kartzela horien berri baieztatzeko eta haietan egondako zenbait gatiburen izenak ezagutzeko. Lehenago ere aipatu dugun Manuel Gabarain mediku donostiarraren lekukotzaz ari gara. Berak idatzitako liburuan *Así asesina Falange: una celda de condenados a muerte en un cuartelillo de Falange Española de San Sebastián*[70], uztailetik urrira arte izan zuen esperientziaren berri ematen digu. Altxamenduaren lehenengo egunetan zauritutakoak sendatzen lagundu zien Gabarainek agintari errepublikarrei, eta irailean utzi zuen Donostia. Behin Zumaiara helduta, ihesean ez jarraitzea erabaki zuen eta egun batzuetan ezkutuan egon ondoren, Donostiara itzuli zen. Hantxe ikusi zuen nola desfilatzen zuten falangistek, eta nola jotzen zituzten atarietako txirrinak etxeetakoak kalera aterarazi eta desfilatzera derrigortzeko –Toledoko Alkazarra askatu zutela ari ziren ospatzen, irailak 28 zituen–.

Egoeraren larritasunari neurria hartuta, Usurbilgo buruko gaixoentzako egoitzara sartu zuen bere burua, baina hurrengo egunean atxilotu zuten Juan Aizpurua Donostiako Falangeko buruak eta falangista-talde batek «para ser puesto a disposición de la autoridad gubernativa». Hasieran, Círculo Easonense-n zegoen Falangeko kuartel nagusira eramatea pentsatu bazuten ere, Boulevardeko Opera Kafeko kuartelera eraman zuten. Izena hartu zioten, haren maletak gorde, katxeatu eta sotoan itxi zuten, Mendabiako nafar talde bat zuela zaintze-lanetan. Beste hamar gizaseme eta emakume bat egon ziren Gabarainekin batera. Bere ustez, horietako zazpi –emakumea barne– hil egin zituzten[71]. Beste preso-talde bat egon zen pilatuta lehenengo pisuan, baina, entzun zuenaren arabera, aske uzteko ziren horiek. Ez da aipatzen zein irizpideren arabera atxilotzen, askatzen edo hiltzen ziren presoak, ez eta nork ematen zituen aginduak ere, txekaren arduradunek, Falangeko buruzagi politikoek edo agintari ofizialek. Donostiako prokuradore oso ezagun bat zen kartzelako burua, eta «un tal Manterola, industrial electricista cojo, hombre de gran crueldad que golpeaba a los presos» izan zen galdeketen arduraduna. Erabat debekaturik zeukaten presoek el-

70 Gutxienez bi argitalpen daude: bata Parisen Editorial España-k argitaratuta, datarik gabea, eta bestea –guk erabilitakoa– Pampa etxeak Buenos Airesen 1938an argitaratua.

71 Honako hauek dira Gabarainekin batera egon ziren presoetako batzuk: Cayetano Ferrero, Atotxako Cayetano tabernaren jabea, lerrouxista; San Vicente abizeneko 33 urteko gizaseme bat, Guetaria kalean enplegatua; Fulgencio Frechilla, Ategorrietakoa, elektrikaria, urriaren 15ean hil zuten; Zabaleta abizeneko 27 urteko gazte bat, anaiek ihes egin zutelako atxilotua; bi kale-garbitzaile, hirian geratu ziren bakarrak, bat Tafallakoa zen (beharbada, ziur aski, Filiberto Ciriza González izango zen, urriaren 13an fusilatua); Compañía de Ferrocarriles del Norte-ko peoi bat, Blázquez abizenekoa, ustez, hil egin zuten; eta Alde Zaharreko Gastón izeneko tabernari bat, kataluniarra edo valentziarra, gorriei zerbitzeagatik atxilotua. Gabarain txekan egon zen bitartean hiru baino ez ziren bizirik geratu (Gabarain, 1938, 65).

karrekin komunikatzea, baina hala ere hitz egin zuten, eta, are gehiago, diru truke zaindariek jana eta edana eramatea ere lortu zuten. Gabarainen iritziz, falangistek egunero atxilotzen zuten jendea, alde batetik beren burua zuritzeko, eta bestetik sadismoa asetzeko. Izan ere, arerioak asmatu behar zituzten, zuten herrari erantzuteko eta hiriko egonaldiari arrazoi bat emateko, etsai nagusi garrantzitsuenek utzia baitzuten hiria, eta frontean gertatzen zen borroka, «en los frentes se batía el cobre» esaldiak adierazten duen bezala. Gutxi gorabehera, urriaren 1etik 12ra bitartean egon zen atxilotuta medikua –berak esan zuenez, hilketa handienak gertatu baino lehen–. Psikologiaz zuen ezagutza aprobetxatuz, "eroarena egin" eta Santa Agedako erietxe psikiatrikora eramatea lortu zuen, eta hortik egin zuen alde errepublikarren lerroetara[72].

Hiru arrazoirengatik azpimarratu behar da Gabarainen lanaren garrantzia. Lehenengo eta behin, txeka falangista bat ezagutzeko dugun lekukotza zuzena eskaintzen digu. Oso antzeko argibideak ematen dituzte errepublikarren aldean jasan behar izan zituztenek atxiloketak, txeka komunistetan edo anarkistetan. Bigarren arrazoia "polizia" falangistak Gipuzkoan izan zuen jokabidea ezagutzeko ematen digun aukera da. Testigantza honek erakusten du nolako erraztasunaz eta zigorren beldurrik gabe mugitzen ziren poliziak, eta nola irizpide finkorik gabe erabakitzen zuten atxilotuen etorkizuna, agintarien esku utzi, beren ziegetara eraman, askatu edo hil. Azkenik, ia pasadizo moduan kontatzen du 61. orrialdean: «una noche apareció un alférez de artillería, Prado, un abogado joven, que frecuentaba la tertulia del café Madrid». Gertakizun horrek datu adierazgarri bat eskaintzen digu falangisten eta agintari militarren ekintzak lotzeko. Ia ziurtasun osoz esan dezakegu aipatutako alfereza Agustín Prado abokatu donostiarra izan zela, Llamas komandantea presidente zuen Epaitegi Bereziko idazkaria –geroago ere ikusiko dugu Hernaniko gertaeretan izan zuen protagonismoa Llamasek–. Txeka falangistan Prado egoteak frogatzen du agintariek egoitza ofizialetatik kanpo gertatzen zenaren berri ere bazutela, eta ez duela zentzurik indarkeria autonomoaz hitz egiteak; zapalkuntza-sistema egituratua eta jerarkikoa zela pentsatzea da zuzenena.

## GERRA-KONTSEILUAK

Agintari militar frankistek argitaraturiko dekretuek oso garbi adierazten zuten zein prozedura jarraitu behar zen atxilotuekin: Justizia Militarreko 3. tratatuko 19. tituluaren arabera, gatibu guztiak epaitu behar ziren gerra-kontseilu guztiz sumarioetan. Beraz, ez zen beharrezkoa «que el reo sea sorprendido "in fraganti" ni que la pena

72 Behin Bilbora helduta, Euzko Jaurlaritzaren Osasun Sailarekin egin zuen lan, eta zenbait artikulu argitaratu zituen komunisten prentsan. Gijón erori arte jarraitu zuen Iparraldeko Frontean.

a imponerse sea la de muerte o perpetua» (BO-JDN, 1936ko irailaren 4koa). Sarritan sumario bakar bat erabiltzen zen bat baino gehiago epaitzeko, nahiz eta haien artean ez izan harremanik. Historialari gehienak ados daude prozedura horren helburua zehaztean: ahalik eta azkarren jokatzeko modua izaten zen, eta presoaren eskubide gehienak ukatzen ziren, denak ez baziren. Esate baterako, Miguel Cabanellasek esan zuen (1975, 862-863) egunen batean gerra-kontseiluak errebisatuz gero, "paseoek" berek baino gehiago izutuko dutela gerra-kontseiluetako kondenek; izan ere, lege itxurapean egindako hilketak izan ziren, «porque estos últimos, en la conciencia de todos, fueron con justicia calificados como asesinatos, de viles asesinatos si se quiere; pero aquellas condenas tuvieron, además de la vileza del asesinato, la premeditación de cubrir la forma con una apariencia de legalidad».

Deklarazioa hartu ondoren, Instrukzioa Plenariora pasatzen zen, Aginte Militarraren bitartez, edo, egonez gero, Auditorearen dekretu bidez (BOE, 1936ko irailak 4). Nahiz eta lege-arloko heziketarik ez izan, armadako nagusi eta ofizial guztiek bete zezaketen epailearen, idazkariaren edo defendatzailearen kargua gerra-kontseiluetan. Fiskalak zigorra eskatzeko erabiltzen zituen akusazioek salaketaren baten zuten oinarria (oso ahula gehienetan), edo presoa bizi zen herriko botere faktikoek (udala, parrokoa, guardia zibila, erreketeak, Falangea...) bidalitako txostenetan. Abokatu defendatzailea ere militarra izaten zen, baina epaileak baino graduazio baxuagokoa; "ofiziozko abokatua", gehienetan, defendatuaren alde egiteko inolako interesik gabe, errukitasuna eskatzera mugatzen zen bere zeregina. Epailea bat etortzen zen fiskalak eskaturiko zigorrarekin eta Kode Militarra aplikatzen zen; ez da ahaztu behar Gerra Egoera aldarrikaturik zegoela, eta heriotza-zigorra zela sarritan ematen zen sententzia.

Seigarren Dibisioko Gerrako Auditoreari bidaltzen zitzaion ebazpena Burgosera, eta horrek, zenbait tramite formal bete ostean, zegokion agintari militarrari ematen zion txostena, De Benito jeneralari, hain zuzen, 6. Dibisio Organikoko burua orduan. Erakunde horrek hartu izana adierazi ondoren (Francoren "enterado" famatua), auditoreari itzultzen zitzaion kausa, De Benito jeneralaren onespenarekin, eta bide hori eginda sententziak ez zuen bueltarik. Orduan, epaile instruktoreari bidaltzen zion kausa-auditoreak, zigorra bete zedin. Agintari militarrak, auditorea eta gerra-kontseiluko sententzia ez zetozenean bat, Defentsa Nazionaleko Juntaren eskuetan geratzen zen azken erabakia.

Baina, ez zen ia inoiz bete teoria, are gutxiago gerra-kontseiluak ugaritu zirenean. Federico Zabala Allende abertzale bilbotarra preso egon zen exiliatu ondoren, eta justizia frankistari buruzko zenbait eskuizkribu idatzi zituen; behin baino gehiagotan azpimarratu zuen gehienetan ez zuela inolako aukerarik akusatuak bere defentsa egiteko. Honela adierazi zuen: «¿Cómo se iban a oír esos descargos en jui-

cios de treinta a cuarenta reos que duraban tres cuartos de hora y en que los reos hasta el momento del juicio no habían sido interrogados y ni ellos ni sus defensores sabían de qué se les iba acusar?». Zabalaren eskuetara iritsi zen egile ezezagun baten idazki batean –legalki argitaratua Espainian– argi eta garbi esaten zen zein izan zen epaileen jokabidea «justa allegata et probata, sino ex informata conscientia, sistema peligroso, más legalmente admisible y admitido en circunstancias excepcionales», eta nola eman ziren sententziak, «Que siempre las sentencias no estuvieron tan justificadas, que en la sustancia y en modo hubiera precipitación, en algunos sinceramente lo creemos»[73].

Donostian egin ziren gerra-kontseilu guztiak, gehienak Loiolako kuarteletan. Tartean delitu zibil batzuk egon baziren ere, akusatu gehienei neurri ezberdinean matxinatzea, laguntzea edo oldartzea leporatzen zitzaien. Hasierako epaile militarretariko bat infanteriako komandante erretiratu bat izan zen, Manuel Bartolomé Udave; Donostia okupatu zutenean bertan zegoenez, Gobernadore Militarrari eskaini zion bere burura behar zenerako, eta orduan Lehenengo Epaile Militar izendatu zuten. 1937ko otsailaren 27ra arte bete zuen kargua, eta data horretan utzi zuen postua Bizkaiko ofentsiban parte hartuko zuen talde baten buru izateko[74]. Paseoei buruzko inolako agiririk aurkitzea ezinezkoa da, baina gerra-kontseiluei dagokienez, dokumentazio ugari aurki daiteke artxibo militarretan eta, horrez gainera, sasoi hartako prentsan ere agertzen ziren gaia jorratzen zuten albisteak. Horren haritik, azaroaren 1eko *La Voz de España*n gerra-kontseilurako dei bat agertu zen: komandantzia militarraren aginduz, Loiolako Ingeniarien kuartelean egingo zen gerra-kontseilua, Leocadio Quijano koronela buru zela eta bertan epaituko ziren "ustezko" matxinada mililatarra leporatuta, honako zibil hauek «Lucio Gómez Crespo, José Mancisidor Ibarguren y Anselmo Cid Díez y otros». Gainera zehatz-mehatz agertu zen egunkarian zein izango ziren tribunaleko kideak (guztiak kapitainak), eta zein defentsaz arduratuko ziren ofizialak (bi teniente eta alferez bat). Egunkariko ale berean agertu ziren kapitain bat eta bi alferez laguntzaile epaitu ziren beste bi gerra-kontseilu: «Un piquete compuesto por una sección de ingenieros, al mando de un oficial, se hallaba a disposición del Excmo. Señor Presidente». Egunkari bereko irailaren 11ko alean, Foru Aldundiko batzar-areto nagusian egin zen gerra-kontseilu berezi samar baten laburpena agertu zen; izan ere, Loiolako kuarteletan errenditu ziren militarren aurkako epaiketan parte hartu zuten militar erretiratuak izan ziren akusatuak oraingoan, beren bizia errespetatzearen truke entregatu zutenak beren buruak. Rodríguez de la Rivera jenerala izan zen gerra-kontseiluko pre-

73 Abertzaletasunaren Agiritegia. Federico Zabala Fondoa 006, c. 10.

74 AGMS II, GCB-185.

sidentea, eta jeneralek eta koronelek osatu zuten mahaia. Nahiz eta sententzia eman baino lehenago itxi egunkaria eta hurrengo egunean agertu ez, kazetariak sumatzen zuen 12 eta 14 urte bitarteko kartzela-zigorra izango zutela.

Dena den, gerra-kontseiluei buruzko informazio publikoa eta ofiziala eskasa izan arren, beste lurralde batzuetan bezala, Gipuzkoan ere gertatzen zenaren jakinaren gainean zeuden herritarrak. Denborak ahanztura ekarri badu ere, harrigarria da ikustea zein ongi zekiten herritar gehienek nork hiltzen zuen eta nor hiltzen zuten (Vega Sombría, 2005, 93). Hori ulertzeko, ezin da ahaztu publikoak zirela gerra-kontseiluak, eta ikusleak joan zitezkeela, eta joan ere egiten ziren. Bestalde, epaiketak egiten ziren bitartean zaintza-lanetan aritzen ziren soldaduak gipuzkoarrak ziren. Horren adibidea dugu lau Zapiraindarren aurkako gerra-kontseiluko egunean, Loiolako kuarteleko sarrera-ateko guardia egiten lehengusu bat egon izana.

Salbador Zapirainen kontakizunei esker dakigu nola bizi zitekeen gerra--kontseilu bat, betiere akusatuaren ikuspuntutik. Irailaren bukaera aldera hasi ziren prestatzen epaiketa, eta Andoaingo 11 herritarren ostean, Errenteriako Zapiraindarrak izan ziren Justizia Militarreko Kodearen arabera epaituriko lehenak. Egun batzuk atzeratu ziren tramiteak, izan ere, ez errenteriarrek, ez eta andoaindarrek ere gazteleraz hitz egiteko erraztasun handirik ez zutenez, itzultzailea behar zuten. Komandante zahar eta gaixo batek egin zien lehenengo galdeketa, baina erakutsi zuen zurruntasuna eta gogortasuna ez zetozen bat haren osasun-egoerarekin. Bakarreko ziegetan egon ziren inkomunikaturik akusatuak eta galdeketak ere banan-banan egin zitzaizkien. Hasierako akusazioez gain, Pasai Antxoko Campsako biltegietan zaintza-lanak egin izana leporatu zitzaien. Kontuan izan behar da biltegi horietako ahalik eta gasolina gehiena Bilbora eraman zela Irun galdu zenean, baina, hala ere, stock handia geratu zen eta ezkertiarrek su eman nahi zioten. Nazionalistak ez zeuden ados irtenbide horrekin eta biltegien ingurua hartu eta zaindu egin zuten, gau eta egun. Erretiratzeko agindua eman ondoren ere bertan jarraitu zuten zenbait jeltzalek irailaren 13ko goizera arte, eta horrela saihestu zuten erretzeko hiru saio (Gamboa-Larronde, 2006,95). Baina Zapiraindarren jarrerak ez zien zirkinik eragin agintari militarrei, errepublika-garaian zenbaiti ihes egiten lagundu zietela jakinda ere. Altxamenduaren aurkako milizia "gorrietan" parte hartu izana eta etxean polbora pilatu izana leporatzea izan ziren agintari militarren ardura bakarra. Anaietako bik, Antoniok eta Jose Ramonek hain zuzen, onartu egin zuten eskopetak izan zituztela zaintza-lanetan ari zirela; Salbadorrek eta nagusiak, aldiz, makilak baino ez zituztela erabili esan zuten. Deklarazio horiek eginda, laurak geratu ziren prozesaturik epaiaren zain. Egoera horretan abantaila bat zuten: Gerra Jurisdikzioaren bitartez bideraturiko sumario batean sartuta egoteak nolabaiteko babesa ematen zieten presoei paseoei zegokienez, nahiz eta erabateko segurtasuna ez izan. Handik

egun gutxira, fiskalaren eskaeraren berri eman zitzaien (antza, Burgosetik bidali zen): heriotza-zigorra eta bizi bitarteko kartzela.

Urriaren 18an egin zen gerra-kontseilua. Errenteriako agintariak beraien alde agertzeko saiatu baziren ere, ez zuten ezer lortu Zapiraindarrek eta defentsaz arduratzen zen kapitain zahar baino ez zuten izan "aldeko" –prozesua hasi baino minutu batzuk lehenago egin zuten hitz "defentsarekin"–. Ofizial ezagun bat proposatu zuten defentsa-lanetatarako, baina zeregin horretarako Irundik Donostiara joatea ezinezkoa zela argudiatuz ezezkoa eman zitzaien. Epaiketako aretoan, tribunala, fiskala, bi lekuko eta horiez gainera, militarrek eskainitako ikuskizunera gustura asko joan ziren zenbait pertsona egon ziren. Lau anaientzako heriotza-zigorra eskatu zuen fiskalak, eta galdeketa txiki bat baino ez zuen egin defendatzaileak. Bukatuta, Ondarretako kartzelara itzuli ziren, eta egun batzuk behar izan ziren sententziaren berri izateko. Tarte horretan, epaitutako andoaindarretatik lau fusitatu zituzten espetxeko patioan bertan goizalde batean. Azkenik, urriaren 27tik 28ra arteko gauean komunikatu zitzaien Burgosetik heldutako sententzia prozesatuei eta aretoan zeuden entzule morbosoei (gauerdiko hamabiak jota zeuden). Antonio eta Jose Ramon Zapirainek heriotza-zigorra jaso zuten. Beste bi anaiek bizi bitarteko kartzela. Lehenengo kondena hurrengo egunean bertan bete zen, espetxean bertan, San Juan Tadeo eta San Simon egunean. Hil baino lehen, gutun hunkigarri bat idatzi zion aitari Jose Ramonek, non bere fede katolikoa berresten zuen[75]:

> Nere aita ta anai maiteak:
> Gu ola iltzea naiko zuan gure Jaungoiko maiteak.
> Zuei ere dicha on bat dizutela eman Virgiña grasias beteak.
> Gure odolarekin garbi ditzala gure munduko kalteak.
> Agur egiten dizuet nere aita ta munduko lagunak.
> Bukatu dira kontatutako egunak.
> Munduan ez dira danentzat olako portunak.
> Emengoak utzi ta zeruan eitera noa ezagunak.
> Nere azkeneko agur ederra, aita, Juan José, Saturnino, Joaquín, Salvador, Juan Cruz, Manuel, José Mari.
> Gorantziak. Zerurarte.
> Ondo bizi eta beti catoliko onak bezela, euskotar zintzoak bezela,
> Gure ama Elisaren alde egin.

75 Labayru Ikastegiko Agiritegia. Onaindia Fondoa, 17. kaxa, 4. karpeta.

Handik gutxira, Iruñeko San Cristóbal kartzelara eraman zuten Salbador Zapirain. Lau urtean zehar hantxe bizitakoa kontatu zuen *Zigorpean* liburuan (Auspoa, 1985), narratibako bere beste lanetako bat.

Zenbat lagun hil ziren Gipuzkoan errepresio-mota honen ondorioz? Kapitulu honen sarreran adierazi dugunez, ikerketen gaur egungo egoera kontuan hartuta, ezin da erantzun zehatzik eman, ezta behin betiko izango dena ere. Orain arte Pedro Barruso izan da zuhurrena zifrak ematean, eta beti azpimarratu du dokumentazio berria agertu ahala alda daitezkeela emandako kopuruak. Haren arabera, 1936ko udatik 1945eko uztailera bitartean, 639 lagun kondenatu zuten heriotza-zigorrera eta horietatik 485 hil zituzten. Ehunka hildako aipatzen ziren zurrumurruetan, Hernani eta Oiartzuni zegokienez, baina Barrusok dio ez zirela 500etik gora izan guztira (2005, 121). Egañak, bere aldetik, zifra altuagoak eman ditu: 1.000 eta 1.100en artean hil zituztela esan izan du, baina ez du zehaztu zenbat hil zituzten gerra-kontseiluetako sententziak betetzeko eta zenbat paseoetan.

Gipuzkoako agintariek ez zuten behar izan Ordena Publikoko Junta formalki sortzea zapalkuntza-politika zorrozteko. Exekuzioek izan zuten erritmo-aldaketak garbi erakusten du zein izan zen errepresioaren politika berria; izan ere, Cabanellas jenerala (Defentsako Junta Nazionaleko presidentea) Donostian izan zen irailaren 20an eta urriaren 7an heldu zen Arellano eta egun horietatik aurrera asko areagotu ziren exekuzioak. Frantziako kontsularen txosten baten arabera, gogortasun handiagoa eskatu zuen Cabanellasek. Ditugun datuen zehaztasun falta eragozpena baino ez da baieztapen biribilak egiteko, baina nabarmena da nondik nora aldatu zen jokabidea. Egañaren datuei jarraiki, 150en bat lagun exekutatu zituzten uztailaren eta irailaren bitartean, tropak Beasainen, Oiartzunen eta Tolosan sartu zirenean gertatu ziren hilketetako asko. Baina, urrian bertan bakarrik, hilaren 9tik aurrera, ordura arte bezain beste gipuzkoar hil zituzten, gehienak Hernanin. Askoz gutxiago izan ziren exekuzioak azaroan, 80-90 lagun inguru, baina oraingoan Oiartzunen gertatu ziren gehienak. Abenduan ere gutxitu egin ziren hildakoak, 25en bat, beharbada Eguberriak zirelako, eta Francok agindutako xedapen berriei esker. 1937ko lehenengo hilabeteetan nolabaiteko lasaitasuna bizi izan zen, hilean hamarren bat hil baitzituzten, eta tropak Bizkaian aurrerantz egin ahala, martxoaren bukaera aldera, berriz egin zuten gora exekuzioek, baina gehiago ez ziren izan inoiz hilean 30 exekuzio baino gehiago.

Ondorengo grafikoak erakusten digu nola "baretu" zen militar matxinoen errepresio-politika: 1936ko urrian heriotza-zigorrarekin zigortzen ziren delituak, bi urte geroago, sei hilabeteko kartzelaldiarekin zigortzekoak izan zitezkeen. Kasu askotan, heriotza-zigorren ordez kartzelako egonaldi luzeak bete behar izan zituzten. Baina horrek ere ondorio okerrak izan zituen, gainezka bete baitziren espetxeak. Egoera horri aurre egiteko, 1940tik aurrera, presoak aske uzteko edo kartzelako egonaldia

laburtzeko barkamen-erabakiak hartzen hasi ziren; esate baterako, hamabi urteko kondena lau urte barruan egonda bete zitekeen. Horrela uler dezakegu nola urritu ziren zenbait presoren hasierako kondenak. Baina, ezin dugu ahaztu hasierako errepresioaren gogortasuna eta ankerkeria, ez eta zer baldintza okerretan bizi izan ziren kartzeletan, sarritan bertan hiltzeraino. Eta, itzalean lotuta eduki beharrean kanpoan lotu zituzten herritarrak. Pentsa daitekeen kontrolik gogorrena, politikoa, poliziala, soziala eta ekonomikoa, zein baino zein bortitzagoa, jasan behar izan zuten.

FUSILATUAK 1936-1939




Iturria: Egañaren datuak (1998)

# VI

# ERREPRESIO PARALEGALA ETA HERNANIKO FUSILATZEAK

## Dokumentaziorik gabeko exekuzioak

> Nosotros hemos fusilado en la zona blanca: es cierto. Pero no hemos atormentado, ni hemos destruido, ni hemos ultrajado con furor demoníaco. Por lo menos yo no lo he visto, ni lo he oído.
>
> (Cruz Oloriz, 1937, 27)

> A ningún sacerdote fusilado se le ha incoado proceso: ningún juicio contradictorio ha examinado sus causas. Ninguno ha sido condenado por tribunal competente, ni ningún otro tribunal: contra ninguno ha recaído sentencia de muerte ni de condena alguna.
>
> (*Euzko Deya* 10-1936, 12-31, 61)

Orain arte ere behin eta berriz esan dugu zer informazio gutxi –eta duguna zatikatua– daukagun benetan jakiteko zein bide jarraitu zuten Gipuzkoako exekuzioetan, eta, batez ere, gure ikerketa-gaiari dagokionez, Hernaniko fusilatzeen kasuan. Baina zenbait datu eskura ditugula (atal honetan aztertuko ditugunak), zalantza handirik gabe baiezta dezakegu errepresio militarraren ondorioz hil ziren gehienek ez zutela gerra-kontseilurik izan, ez eta tribunal militarrek erabilitako prozesu guztiz sumariorik ere, inolako epaiketarik gabe exekutatu zituztela.

Ikertzen hasi eta berehala aurkitu genuen lehenengo ezustekoa, 1938an Euzko Jaurlaritzak egindako zerrendak eta El Ferroleko Artxibo Militarrean daudenak erkatu genituenean. Izan ere, iturri ezberdinen bitartez (txostenak, agiriak, ahozko lekukotasunak edota senideek esandakoak) guk bagenekien zenbait lagun irailetik abendura bitartean hil zituztela, ziur aski Hernanin, baina militarren artxiboetan dauden milaka agiriren artean gure zerrendako inor ez zen agertzen. Are harrigarriagoa iruditu zitzaigun konturatu ginenean, sasoi bertsuan beste herri batzuetan, Andoainen adibidez, exekutatutakoek bazutela beren txostena Ferroleko artxiboan, izan zuten gerra-kontseiluko datuak agertzen ziren agiriak zeudela, hain zuzen ere. Bestalde, oso kontuan hartu behar da zenbait heriotzaren inguruko beste datu bat, hau da, zein

denbora gutxi igaro zen atxiloketaren unetik exekuziora artean; tarte txiki horretan ezinezkoa izango zen gerra-kontseilu bat egitea, guztiz sumarioetan sumarioena eta presazkoena izan arren. Egoera horretan hil ziren hiru gipuzkoarren kasuak aipatuko ditugu. Urriaren 16an sartu zuten Ondarretako kartzelara Manuel Guruzeaga, *Galerna* itsasontzian atxilotu ondoren, eta 18an utzi zuten "aske" eta fusilatu zuten beste 13 lagunekin batera. José Becerra Narvaiza hil bereko 23an atxilotu zuten eta irteera-erregistroak 25eko data dauka, hau ere exekutatu egin zuten. Azkenik, urriaren 23an atxilotu zuten Gabino Alustiza Etxeberria eta 28an "askatu" fusilatzeko. Ezin dugu ahaztu, senide eta lekuko askoren esanetan, ez zitzaiela inolako epaiketarik egin haien hurbilekoei. Horrelako baieztapen asko dugu. Gelasio Aramburu apaizaren hitzetan: «Ha habido sacerdotes como Peñagaricano y Onaindia, que no han sido llamados ni una sola vez a declarar como lo atestiguan sus compañeros de cárcel, don Joaquín Bermejo y el Párroco de Astigarraga». Gauza bera adierazi zion Jerónimo Magureguik Gomá kardinalari, 1936ko azaroaren 7an bidalitako eskutitz batean[76]. Azpiazu jesulagunak adierazi zuen Jorge Iturricastillo, Marin-go apaiza, Gatzagan atxilotu zutela eta Oiartzunen fusilatu inolako deklaraziorik egin gabe eta epaiketarik gabe. José Berruezo kazetariak idatzitako lanean (1989, 122), gobernadore militarrari gerra-kontseiluen gogortasuna leporatu zion paragrafo berean deskribatu zuen zenbait heriotzaren ingurumaria:

> Paralela a esta "justicia castrense" abundó la acción de los "incontrolados" que todas las noches "daban el paseo" a quienes fiados de su inocencia se habían quedado en San Sebastián y a cuantos, víctimas del odio y del mal querer, eran acusados de "rojos" por algún vecino.

1952ko apirilean, José Artechek, Gerra Zibilean izan zuen bere esperientzia kontatzeko lana prestatzen ari zela (*El abrazo de los muertos,* 1970ean argitaratua), Berruezori erakutsi zion eskuizkribua, iritzia jakin nahian. Ez argitaratzeko eskatu zion Berruezok –Artecheren egunerokoa irakurrita dakigu–, beraiek biek pasatutakoa ez zuela gaiari bueltaka dabilen inork pasatu esanez. Urte batzuk geroago, Berruezok aitortu zion Artecheri (Arteche, 1977, 62-63) kalte egin ziola eskuizkribua irakurtzeak, ahaztutakoak berriz gogorarazi zituela eta. Horietako oroitzapenetako bat da honako hau:

> [había] visto en el frente el fusilamiento de un niño de once años y de su abuela de ochenta, de noche, a la luz de un farol de bicicleta. Me dice asimismo que recuerda a uno, hoy persona respetable que ejerce su carrera, con la cara manchada de los sesos de otro a quien acababa de dar el tiro de gracia.

Lekuko askok kontatu dituzte antzeko gauzak, eta horien guztien bizipenak hartu ditu kontuan Barrusok epaiketarik gabeko exekutatuak egon egon zirela, baina ko-

76 Andrés-Gallego, 2001, 276.

puruak ezin direla zehaztu baieztatzeko (Barruso, 2005, 127). Berako harrobia, Oiartzun, Getariako kanposantua, Orioko gaina edota Altzolako bainuetxearen atzeko aldea izan ziren horrelako heriotzen tokiko[77]. Baina ez ziren izan exekutatzeko aukeraturiko leku bakarrak; esate baterako, Ignacio Azpiazu apaizak kontatzen du bere lekukotasunen artean, madrildar jatorriko dentista bat, Debako udatiarra, Valderrama abizenekoa, fusilatu zutela inolako epaiketarik gabe urriaren 1ean, Azpeitiko kartzelatik atera ondoren, eta bi miliziano bizkaitar ere toki beretik atera zituztela fusilatzera, ziur aski zirkunstantzia berdinetan. Elgetako sektoreko desertore batek kontatu zuen bi fusilatzeren lekuko izan zela Antzuolan eta beste hirurena Itzagan (Zumarragan)[78]. Orain arte aipatutakoez gainera, Lasarteko automobilismo-zirkuituaren inguruan ere fusilatu zuten, baina ez dakigu epaiketarekin edo epaiketarik gabe gertatu ziren heriotza horiek. Toki horretan gertaturiko pasadizo gogor baten berri dugu. Hara hiltzera eraman zuten gazte urnietar batek ihes egitea lortu zuen (ez dakigu Nicolás edo Trino Olaizola izan zen, anaia biak fusilatu baitzituzten), baina zauritu egin zuten ihesaldian; sastraka artean ezkutaturik igaro zuen gaua, eta hurrengo egunean ezagun bat aurkitu zuen, ez zen ausartu laguntzera, baina diru apurren bat eman zion. Handik gutxira guardia zibilak agertu, atxilotu Urnietako gazte zauritua eta berbertan exekutatu zuten[79].

Baina hala izanik ere, ez gatoz bat Berruezo edo Ignacio Azpiazuren hitzetatik atera daitezkeen ondorioekin. Honako hau dio Azpiazuk: «En las detenciones destacó el celo de los requetés que obraban a capricho, obedeciendo a motivos de venganza, sin contar para nada con la autoridad militar, ni con la civil» (Gamboa--Larronde, 2006, 250); eta Barrusoren hitzek nolabait berresten dute aurrekoak esandakoa: «La actuación de estas fuerzas políticas (tradicionalistas y falangistas) tiene como consecuencia inmediata la detención de un determinado número de personas, las cuales fueron asesinadas sin que se instruyera contra ellas el más mínimo procedimiento judicial» (Barruso, 2005, 127). Bi aipamen horietatik ondoriozta daiteke karlisten eta falangisten ardurapean gertatu ziren errepresio-ekintzak legez kanpokoak edo irregularrak izan zirela, eta militarrek, ordea, gerra-kontseiluen sententzien arabera jokatu zutela. Baina ez da hori guk uste duguna; gure iritziz, zapalkuntza-eredu biak elkarren osagarri izateaz gainera, koordinaturik zeuden. Eta baieztapen hori berresteko aukera ematen digun oinarri-oinarrizko datu bat dugu, hau da, era irregularrean hil zituzten gehienak Ondarretako kartzelatik atera zituzten. Hil aurretik,

77 Orioko gainari buruz, Zarautz eta Getariari buruz, ikus *Euzko Deya* 32, 1937-3-18. Orion hil zuten, beste batzuekin batera, Cosme Yánez, Usurbilgo Luistarren kongregazioko idazkaria, 1936ko urriaren 10ean (Egaña, 1998, 260), Llamas komandantearen aginduz (Iturralde, 1978).

78 "La guerra en el País Vasco", *El Nervión*, 1936-11-25.

79 Abertzaletasunaren Agiritegia. GE 496-2.

hots, "aske zeudela" esan baino lehen, kartzelan eta erreketeen edo falangisten egoitzetan atxiloturik zeuden bitartean bisitatu zituzten senideen adierazpenez gain lekuko berezi batzuk ditugu. Horietatik esanguratsuena izan daiteke Salbador Zapirainen lekukotasuna, kartzelan bertan berak bizitakoa utzi baitigu idatzita.

Kontakizun hori aztertu baino lehen, Luis Sierra Nava-ren artikulu labur bat (2001) aipatuko dugu. Luis Sierra Bustamante, Ingeniarien komandantea, Donostian altxatu, atxilotu eta bertan exekutaturikoa izan zen artikuluaren egilearen aita. Garai hartan Ondarretako kartzelan kapilau ziharduen Lacoume jesulagunak eskuz idatziriko ohar batzuk transkribatu zituen eta sarrera bat gehitu zien. Atal horretan, era nahasian eta zehaztasun handirik gabe, saiatu zen lotzen berak bizi izandakoa eta garaiko errepresio frankistaren ezaugarriak, testuingurua hobeto ulertze aldera. Baina nahasi egin zituen justizia militarra eta zapalkuntza paralegala; agintari militarrek era "apelaezinean" erabakitzen zutela atxilotuekin egin beharrekoa dio, eta horrela zehazten du «Pero ni *injusta*, ni *parcial*, ni *impunemente*». Heriotza-zigorraren zain zeudenak aipatzen dituenean, gerra-kontseiluko sententzia noiz beteko itxaroten zeudenak direla dirudi. Baina Lacoumeren oharrak sakonxeago aztertuz gero, ez gara heltzen halabeharrez ondorio horretara. Izan ere, jesulagunak dio ez zuela zalantzan jartzen fusilatzeen legezkotasuna «se supone que se hace siempre en justicia», ezta beharrezkoak ziren ere «es necesario hacerlo en muchos casos y en otros es conveniente», baina zorroztasuna eskatzen zuen, jokabide arbitrarioak baztertzea «Reos, acusados de un mismo delito poco más o menos, unos han sido fusilados, otros se han librado mediante sanciones pecuniarias mayores o menores». Eta kezka horren jatorria adierazi zuen, ordurarteko fusilatzeei buruzko gorabeherak honela azalduz: «La mayoría de los fusilamientos hasta ahora son en su mayoría de los menos responsables; los que más lo son están huidos. Si se guarda la proporción con lo hecho hasta ahora, se habrá de fusilar a 50.000, por lo menos, en el País Vasco». Lacoumeren hitzetan, are gogorragoak ziren honako hauen heriotzak: «adeptos de la causa nacional que en tiempo de dominio rojo, por fuerza, y para hacer mayor bien a otros, actuaron disimuladamente con los enemigos». Kapilauaren ustez, heriotza-zigorraren helburua mendekuzko justizia egitea baino ez da, eta, azken batean, pairaturiko sufrimenduak eta bortxakeriak militarren zilegizko helburutik urrundu baino ez zituen egiten atxilotuak eta senideak, gizartea oro har. Dena dela, egindako baieztapen guztiak baliagarriak izan daitezke bai paseatuen kasuan, bai eta epaiketen ondoren hildakoenean ere, eta ez dute frogatzen hildako guztiak epaituak izan zirenik. Lacoumeren oharren bigarren atalean, aldiz, aipatzen direnak gerra-kontseiluko sententzia betetzeko zain daudenak dira; esate baterako azpimarratzen du zein tratu axolagabea jasotzen zuten fusilatu aurreko orduetan, adibidez sententzia arratsaldeko bostetan irakurri eta hurrengo goizeko sei eta erdietara arte noiz beteko zain izaten zituztenean.

Zapirainen arabera, iraila amaitu baino lehen hasi ziren konturatzen zein izan zen kartzelan beraiekin batera egon ziren preso askoren azkena. Batzuk egunez ateratzen ziren espetxetik, kanpoko lanetan aritzeko edo etxera itzultzeko, baina beste asko betiko desagertu ziren, inolako arrastorik utzi gabe. Zapirainek lo sakona zuen eta anaietako batek ohartarazi zuen gaua nagusitzen zenean gertatzen zenaz. Gau hartan bertan, gaueko hamaikak inguruan ikusi zuen gazte errenteriarrak nola sartu ziren galerian zenbait lagun Falange Españolako alkandora urdina soinean zeramatela edo txapel gorri karlistarekin, eta zerbitzu-buruari paper bat eman ondoren, nola igo ziren ziegetara. Ezagutu egin zuen haietako bat: bere auzoko gazte baserritar bat zen, *Potxo* deitzen ziotena, «erdi'ero bat, erderaz etzekiña gañera»; zarata handia ateratzen zuten mendiko bota iltzedunak zeramatzan soinean. Ziegako atea ireki ondoren, preso bat baino gehiago zeudenetan, aukeratutakoaren izena esaten zuten eta hau gehitzen zuten «Prepárese. Está usted liberado». Presoa jantzi ondoren, irteeraraino laguntzen zioten. Gau hartan lau aldiz errepikatu zen zeremonia berbera, eta hurrengo egun gehienetan, egun gutxi batzuk kenduta. Gau bakoitzean hiru, lau edo bost preso eramatea zen ohikoena, baina urriko lehenengo egunetan hamar baino gehiago izaten ziren. Gaueroko bisitariek oihuka egiten zutenez hitz, preso gehienak konturatzen ziren gertatzen zenaz, baina hurrengo egunean, desioa eta errealitatea nahasiz, benetan aske geratu zirela sinistu nahi zuten askok edo lanen baterako eraman zituztela, baina beste batzuek ez zioten aurkitzen azalpenik gaueko beranduko orduetan ateratzeari.

Zalantza eta kezka nagusitu ziren presoen artean, are handiagoa eguneko orduetan askatzen zutenean presoren bat. Baina gaua ilundu ostean izaten ziren irteera gehienak, eta gehiago ez zuten haien berririk izaten. Urriaren 18an amaitu zen Salbador Zapirainentzat ezjakintasunean eta etengabeko kezkan bizitzea, egun horretan epaitu baitzuten gerra-kontseiluan. Egun horretako gauean, espetxeko zaintzailea zen karabineru erretiratu batek ziegako atea ireki eta aske zegoela iragarri zion, espetxetik irteteko prestatzeko agindu zion. Ateraino lagundu eta gero, zaintzailea eta eskolta barrura itzuli ziren beste gatibu baten bila. Sarrerako burdinhesia igarotzen ari zela, aldi berean heldu zioten bisitariek eta korrika hurbildu zen Benito Calvo zerbitzu-buruak (Comillasen apaizgai egondakoa), ezin zutela Zapirain eraman argituz, gerra-kontseiluko sententzia Burgosen berresteko zain zegoelako. Gertaera horren ondoren, kartzela barnera itzuli zen berriz, baina bitartean ahots ezagun batek mehatxu-kutsuaz esanda, entzun zuen hurrengo batean eramango zutela –Errenteriako abertzale ohi bat izan zen, gero falangisten aldera aldatutakoa–. Zerbitzu-buruak bisitariei galdetu zienean ea zergatik deitu zioten Zapiraini, eraman zuten agiria erakutsi zioten, eta orduan funtzionarioak argitu zuen handik aurrera ez zela preso bakar bat ere irtengo kartzelatik, zerrenda be-

rak irakurri baino lehen. Gainerako presoei geratzen zitzaien itxaropenezko zalantza apurra agortu zen handik egun batzuetara; izan ere, preso baten bila joan ziren gauean ziegara eta salto egin zuen bigarren pisutik. Baina bizirik geratu zen, eta bertan zegoen kartzelako zuzendariak ("ateratzeak" gertatzen ziren bitartean ia beti egoten zen aurrean) *fusilatzera eramateko* gainontzekoekin agindu zuen. Oso baxu ahozkatutako hitzak izan ziren, baina kartzelako zulorik ezkutueneraino heldu zen hitz haien oihartzuna (Zapirain, 1984, 136). Harrezkero, lasaitasun-izpi guztiak galduta, inor ez zuen loak hartu gauerdia baino lehen. Gainera, ordura arte deitutako gehienak lasai samar ateratzen ziren, benetan askatuko zituztela sinetsi nahian; ez, ordea, gau hartatik aurrera, gehienak penatan urtu beharrean, negarrez irteten hasi ziren, oso eskoltaturik gainera. Gerra-kontseiluetan erabakitako lehenengo fusilatzeak gertatu ondoren, urriaren 22 inguruan, lau egunetan eten ziren "ateratzeak" , eta horrek esperantza berpiztu zuen zenbait presorengan, baina laburra izan zen, hilabete berriarekin batera hasi baitziren berriz gaueko "irtenaldiak", lehen baino amorru handiagoaz gainera. Egoera horretan, akusazio zehatzik gabe, presoetako askok eta askok galdera bakarrari erantzun nahian ematen zituzten orduak, hau da, zein izan zitekeen beraiek atxilotzeko arrazoia aurkitu nahian igarotzen zuten eguna eta gaua.

Beste batzuen lekukotasuna ere badugu. 1936ko udazkenean, zenbait astetan egon zen preso Ondarretan Joaquín Bermejo apaiza, eta haren esanetan, aske utziko zuten unea zen gehien izutzen zuena, bazekielako inolako fusilatzeko agindurik gabe zeuden asko desagertu egin zirela "aske" utzitakoan (Gamboa-Larronde, 2006, 96). Juan José Usabiaga eskolapioa, 15 egunean egon zen preso Ondarretan, 1937ko maiatzean; berak ez zituen bizi izan zuzenean orain kontatzen ari garenak, baina zaintzaile zegoen Altzako errekete batek esan omen zion aurreko urteko urri eta azaroko gauetan ziega askotako ateak ireki behar izan zituela, inoiz 25 baino gehiago gau berean, presoak kartzelatik atera eta fusilatzera eramateko beste toki batzuetara. Oraindia Fondoan dagoen txosten baten arabera, irailaren amaierarako oso zabalduta zegoen Donostian 15en bat etsai fusilatzen zituztela gauero hiria hartu zutenek. Hamabost egun geroago, txostengile berak azpimarratzen zuen izuzko erregimena pairatzen ari zela Gipuzkoa. José de Arteche, Oriamendi Tertziora sartu zen abertzalea, Kursaalean zegoen babestuta, inondik inora ez irteteko kalera gomendatu baitzioten guztiek. Azaroaren 8an izua baino ez zuen ikusten «¡Terror! ¡Otro terror!» eta bi egun geroago hilketak azpimarratu zituen «*Afusilar*: así, *afusilar*, verbo de moda» (Arteche, 1970, 48 y 51).

Beraz, orain arte azaldu ditugun hiru elementuak (dosierrik ez egotea, atxiloketen eta exekuzioen arteko denbora-tarte laburra eta dauden testigantzak) batzen baditugu, zalantzarik gabe ondoriozta dezakegu 1936ko udazkenean fusilatu zituz-

ten gehienek ez zutela izan aukerarik ezta epaiketa guztiz sumario bat izateko ere. Erantzukizun eta ardurei dagokienez, ezin dugu alboratu gerrako lehenengo hilabeteetan eskuineko miliziek beren kontura jokatu zutela, agintari militarrekiko mendekotasun handirik gabe, baina pentsaezina da, salbuespenak salbuespen, agintari berrien oniritzirik gabe eta horien ezjakintasunean gertatzen zirela exekuzioak. Garbi utzi behar da "aske uzteko" aginduen sinatzaileak ez zirela ez falangistak ez eta karlistak ere, kartzelako zuzendaria agintari zibilen eta militarren mendean baitzegoen zuzenean. Hortaz, agintari horiena zen gertatutakoaren ardura zuzena. Baina, oso zaila da agirien bitartez frogatzea baieztatu duguna; izan ere, batez ere ahozko aginduak edo "aske uztekoak" erabiltzen ziren exekuzio irregularren prozeduran, eta horien inguruan sortu ziren agiri ia guztiak desagertu egin dira.

Estatu espainiarreko beste lurralde batzuetan ere fusilatu zuten inolako epaiketarik gabe; lehenengo egunetako hilketen ondoren, gerra-kontseiluak eta "ateratzeak" konbinatzen zituzten. Gazlelaniaz *sacas* hitzarekin izendatzen zen prozeduraz honela idatzi du Gil Andrés-ek (2006, 209): «...sin siquiera unos trámites mínimos y al menos una apariencia legal pretendían eliminar de una manera brutal y rápida a los posibles opositores al golpe de Estado y, al mismo tiempo, aterrorizar al resto de la población». Lugori dagokionez, 1936tik 1940ra bitartean, 416 lagun hil zituzten epaiketarik gabe eta 168, aldiz, prozesu bat izan ondoren exekutatu zituzten (Souto Blanco, 1998, 252). Ourenseko gertaerak aztertu dituenean Julio Prada historialari galiziarrak, doktoretza-tesiko atal berezi bat eskaini dio berak "represión paralegal" izendatu duen zapalkuntza-moduari. Honela definitu zuen: «un determinado tipo de represión que precede y coexiste al lado de otra de naturaleza "institucionalizada" o "juridificada" sin mezclarse con ella pero como veremos, practicada, alimentada y tolerada igualmente por ese mismo poder con unos objetivos perfectamente definidos». Indarkeria muturreraino eramateko modu bat zen, indarrez eta bortxaz sortutako izuzko giroan erresistitzeko aukera guztiak deuseztatzeko eta beldurraren beldurrez kontzientziak hiltzeko. Datuetara joz gero, Ourenseko hildakoen %53 errepresio paralegalaren ondorioa izan ziren eta %22 epaiketaren bateko sententziarena (Prada, 2006, 167 eta 280). Ezin da aipatu gabe utzi Zaragozan gertatutakoa: Julita Cifuentes eta María Pilar Maluenda ikerlarien arabera, 1936an hil zituzten 2.610etik 27 baino ez ziren izan gerra-kontseilu baten sententzia (Casanova, 1999, 41-44). Pablo Uriel mediku aragoiarra preso egon zen zenbait hilabetetan Zaragozako Academia Militarrean, eta hango oroitzapenak idatzi zituenean kontatu zuen falangisten talde bat joaten zela Akademiara presoen bila, exekutatzera eramateko, baina aurretik inolako epaiketarik edo galdeketarik egin gabe joaten zirela hiltzera, nork aginduta eta zergatik hilko ziren jakin gabe: «estas decisiones se tomaban sin el menor formalismo. Nadie había sido interrogado en la

prisión, ni se había hecho diligencia alguna. Aquellos hombres no sabían quién les mandaba a la muerte, ni por qué» (1988, 65).

Interesgarria da Errioxako kasua Gipuzkoakoa aztertzeko, nahiz eta Ebro ibaiaren ertzetan ez gertatu Gipuzkoan izan ziren borrokaldiak udako hilabeteetan. Hernándezek aztertu zuen lehenengo eta Carlos Gil Andrések aztertu du gaia oraintsu berriro. Itxuraz kontrolgabea zen izualdia bizi izan zuen Errioxak lehenengo, eta irailetik aurrera erregularizatu egin zen ateratzeen sistema. Bi gunetan kontzentratu zituzten atxiloturikoak: Logroñoko kartzelan eta Beti-jai frontoian, eta salbuespenen bat kenduta, fusilatzera baino ez ziren irteten handik, behin-behineko askatasunean utzi ondoren. Oso sistema antolatua zen eta igandeetan bakarrik egiten zuen huts egitarau makabroak. Gainera, 224. orrialdean Gil Andrések dio gobernadore zibilaren bulegotik (Emilio Bellod artilleriako kapitaina) ateratzen zela gauero kondenatuen zerrenda. Ez daukagu agiri corpusik baieztapen berbera egiteko Gipuzkoari zegokionez, baina Logroñokoak garbi erakusten du Ondarretan gertaturikoa ez zela salbuespena izan. Iruñean ere, Mokoroaren esanetan, preso asko hil zituzten ofizialki "aske" utzi ondoren.

Geografian tarte handia badago ere, Granadako errepresio frankistaren ezaugarriak oso baliagarriak izango zaizkigu Gipuzkoakoa ulertzeko. Altxamendua garaitu zen hiriburuan, baina langile, errepublikar eta ezkerrekoen talde eta erakundeen erresistentziari aurre egin ezinik, abuztuan ozta-ozta lurralde osoaren herena baino ez zuten kontrolatzen matxinoek. Baina egoera hori ez zen eragozpena izan, Mola jeneralaren Bandoaren eredua jarraituz, hasiera-hasieratik betetzeko altxamenduarekin bat egin ez zutenen aurkako xedapenak eta agintari berrien agindueta ra ez zeuden herritarrak zigortzeko agindutakoak. 1937ko martxora arte behintzat, honako puntu hauek jarraitu zituen Justizia Militarrak (Gil Bracero, 1990, 600-601):

> Jurisprudencia atípica, basada en la supresión de procedimientos, de resultas se produce la indefensión de los detenidos en los primeros días del Alzamiento en la zona controlada por los sublevados ...
>
> Rigor punitivo, ya que la pena a la que se condena a los detenidos suele ser la máxima, pena de muerte.
>
> Multiplicidad de autoridades represoras: Gobierno Militar, Gobierno Civil, Institutos Armados, voluntarios militantes de partidos políticos, milicias cívicas.
>
> Militarización gubernativa de la Justicia: duplicidad de funciones ejecutivas y judiciales de los militares, contraviniendo el principio jurídico de independencia y equilibrio de poderes del Estado.
>
> Justicia punitiva de naturaleza selectiva contra autoridades públicas y personalidades políticas de izquierdas, con la finalidad de liquidar físicamente el régimen republicano. A continuación represión indiscriminada como instrumento político.

2.700 pertsona baino gehiago exekutatu zituzten Granada hiriburuan, eta kalkuluen arabera, Altxamenduaren osteko lehenengo hiru hilabeteetan 4.000 lagun inguru hil zuten lurraldean zehar, kontrolik gabe fusilatuta edo "paseoen" ondorioz. Matxinatuen dekretuak agertu ahala, erakunde eta prozedura judizialak berrantolatu zituztenean desagertu egin ziren kontrolik gabeko exekuzio ugariak eta heriotza-zigorrak ere gutxitu egin ziren. Gerraren azken bi urteetan 400 lagun "bakarrik" hil zituzten.

## Epaiketarik gabe fusilatutakoak Gipuzkoan

Orain arteko azterketa aintzat hartuta, baiezta dezakegu ohiko araua zela epaiketarik gabe fusilatzea, eta *modus operandi* hori ez zen salbuespena militar matxinoen eta horiekin bat egin zuten aliatuen jokabidean. Baina, hala ere, epaiketarik ez izateak ez du esan nahi ez zela egiten inolako tramiterik exekuzio horietan. Dauzkagun datuen arabera, horrela hil zituzten askoren heriotza prozedura baten ondorioa izan zela pentsa dezakegu, baina prozedura irregularra eta legez kanpokoa. Galdeketak egiten zizkieten atxilotuei herriko komandante militarrak eta laguntzaileek, udal kartzelan, komisarian edo milizien kuartelean. Ez ziren falta tratu txarrak eta kolpeak, lekuko batek baino gehiagok esan dutenaren arabera; Ignacio Azpiazu, Pelletier eta abarren testigantzak ditugu. Atxiloturikoa erruduntzat hartuz gero, ohikoena zen Ondarretako kartzelara eramatea, eta han epaitegi militarren mende geratzen zen. Zenbat ez dakigu, baina preso batzuk falangisten eta karlisten espetxe partikularretan izan zituzten. Horrela egon ziren Hernanin fusilatuetako batzuk: San Bartolomé ikastetxean egon zen Maximino Resina, Heriz Pasealekukoan Hipólito Berasategi eta Carlos Benito Rodríguez Prim kaleko kartzela tradizionalistan. Behin espetxean sartuta, alde batetik Pradak izendatu zuen "biolentziaren ilogikak" eraginda eta, bestetik, hainbeste atxiloturekin ezin zituztelako bideratu gerra-kontseiluen gutxienezko tramiteak, gerra-kontseiluetan epaitzen ez zituztenak Ramiro Llamas komandantearen esku gelditzen ziren. Izendapen berezi bat zuen zeregin hori bete zezan, hau da, "juez especial" zehaztapena zuen jarrita izenaren aurretik.

Hona hemen Ramiro Llamas del Toro infanteriako komandanteari buruzko zertzelada batzuk. Armadako atal ezberdinetara destinaturik ibili ondoren, 1931ko urrian 6. Dibisio Organikoko (Burgos) Auzi-epaile iraunkor izendatu zuten. Zereginen artean honako hauek zehaztu ziren: «... comisiones propias de su cargo, ordenadas por la superioridad, con motivo de los sucesos revolucionarios de Octubre [de 1934] en Mondragón, Arechavaleta, San Sebastián y Fuerte de Guadalupe». Llamasek berak eskatuta, ohorezko zinpean adierazitako bere buruaren ezaugarria (Movimiento-

ari zion atxikimendua) gehitu zen zerbitzu-orrian «... está adherido al Movimiento Nacional desde antes de su iniciación (por conocerlo)...». Izango zuten nolabaiteko eragina datu horiek 1936ko irailaren 14an Donostiako plazako Epaile Berezi izendatzeko. Sierra Navaren arabera (2001, 414), zehaztasun handirik gabeko testuan, Llamasek beteriko beste kargu batzuk agertzen dira: «fue el primer director en plaza de la cárcel donostiarra Zapatari u Ondarreta, juez del tribunal de Justicia Militar, asumiendo de hecho el oficio y suplantando a Fernández Ladreda, inspector de la Jefatura Nacional de Prisiones y a Daniel López de la Calle, delegado de Prisiones». Cabanellas jenerala kexatu egin zen Gipuzkoa okupatu ondorengo lehenengo egunetan txepelkeriaz jokatzen zutelako, baina Llamasek lortu zuen kezkari konponbidea jartzea Francoren Kuartel Nagusira bidalitako txosten batean irakur daitekeenez:

> Gracias a la energía del juez especial comandante Llamas quien perfectamente compenetrado con la necesidad de una justicia eficaz ha mejorado el ambiente pasado de absoluta falta de autoridad que se notaba en esta provincia[80].

Llamasen Donostiako egonaldia ez zen isilean geratu, haren jokabideak eta erabakiek oihartzuna izan baitzuten hiriburuan. Hartu zituen lehenengo erabakietako bat izan zen ohar bat prentsan argitaratzea, gorrien gehiegikeriei buruzko informazioa biltzeko asmotan. Zein izan ziren «los desmanes cometidos por los rojos durante los sucesos acaecidos en esta capital»[81] jakin nahi zuen. Are gehiago, Igentea kaleko Gobernu Militarrean egoitza zuen Epaitegi Militarreko buru zela izan zuen jokabideaz gain, bestelako ekitaldi publiko batean izandako parte-hartzeak ere adierazten du nolakoa izan zen pertsonaia hau. Arrazaren Eguna ospatzeko Victoria Eugenia antzokian egindako "jaialdi patriotikoa" amaitu zenean, Espainiako bandera gorri-horia atera zuten eszenatokira eta epaile militar bereziak hartu zuen hitza palko batetik, Espainiari zion maitasuna eta fedea goretsiz, txalo eta biba artean. Idazkariaren esanetan, gizon oso katolikoa zen, inoiz bulegoko lanak baztertu eta mezatara joaten zena, "neurritsua eta orekatua", mendeko laguntzailearen hitzetan[82].

Llamasen epaitegiko idazkarietako bat izan zen Agustín Prado Fraile, Artilleriako alferez laguntzailea, Donostiako Falange Españolako militanterik aktiboenetakoa[83]. Luis, anaia, izan zen erakunde horren sortzailea Donostian, lurraldeko burua 1934tik 1936ko hasierara arte, eta urte horretako udan hil zuten Ondarretan, Movimientoaren aldeko izatea leporatuta. Lanbidez abokatua zen Agustín Prado, eta al-

80 AGMA, ZN, 9/43, Barrusok jasoa, 2005, 119.

81 "Aviso", *La Voz de España*, 1936-9-17.

82 "Ponderado y ecuánime". Andrés Gallego, 2003, 37. 4-20 agiriari lotuta.

83 Ezin izan dugu frogatu Juan José Prado Gamiz (Primo de Riveraren diktaduran Donostiako alkate maurista, 1924tik 1925era eta 1930etik 1931ra) eta Agustín Pradoren artean senidetasunik zegoen; baina ez dirudi, ez baitu aipatzen bere espediente militarrean, bai, ordea, anaia.

txamendua gertatu zenean Guardia Zibilaren kuartelean aurkeztu zuen bere burua, eta Gran Casinon babestu beharra izan zuen altxamenduak porrot egin zuela ikusi zutenean. Alde egin ahal izan zuen borrokaldien ondoren, eta abuztuaren 17an Saleta azpikolumnara sartu zen, Los Arcos teniente koronelaren operazio-taldera. Horrela hartu zuen parte Brinkola, Oñati eta Gipuzkoako fronteko beste sektore batzuen okupazioan. Irailaren 16an, Donostian goarnizioa zuen Artilleria Astuneko 3. Erregimentura destinatu zuten, Llamas komandantearen Epaitegira idazkari, hain zuzen.

Epaile bereziaren jarrera eta herritarrekin zuen harremana nolakoa zen ulertzen lagunduko digun pasadizo bat dugu[84]. 1936ko urriaren 30ean, Gelasio Aramburu Pasaiako apaizak hitzordua izan zuen Llamasekin, Frantziara ihes eginda zegoen Pablo Zabalo lehengusu arkitekto abertzalearen alde hitz egiteko. Elkarrizketa ez-ofiziala bazen ere, epaile gisa hartu zituen apaiza, komandantearen lagun bat eta Zabaloren emaztea, bi laguntzaileak aurrean zeudela, bulegoan bertan. Aurkezpenak egin eta hitzorduaren helburua adierazi ostean, apaizaren izena apuntatzeko eskatu zien laguntzaileei Llamasek, eta honela hitz egin zuen, apaizaren bertsioaren arabera:

> Yo les hablaré con entera franqueza y claridad como lo hice ayer con la señora de Vega de Seoane que vino a interceder por un sacerdote, un tal Onaindia, y le dije: No insista Vd. porque a Onaindia le fusilé el día 28.

Harrituta eta izututa utzi zuen apaiza Llamasen jarrerak, ordura arte ez baitzuten inoiz aitortu hiltzaileek heriotzen ardura, eta, orain, bere aurrean, inolako beharrizanik gabe, harrotasunez zabaltzen zuen apaiz bat fusilatu izana. Isilaldi larri baten ondoren, ea Celestino Onaindia izan zen fusilaturiko apaiza galdetu zion eta liburu batean kontsultaturik baietz erantzun zioten, «entonces los secretarios *consultando en un libro* (geuk azpimarratuta) me dijeron: efectivamente, Celestino se llamaba». Gero, Arambururi galdetu zion ea zein pentsaeratakoa zen, eta bera ere abertzaleen aldekoa izana zela erantzun zuenean, mehatxua entzun zuen epailearen ahotik, «pues bien, yo he fusilado a 16 sacerdotes y haré que ese número ascienda a 160, o sea multiplicado por diez». Apaizaren urduritasuna ikusita, apur bat jolastea erabaki omen zuen. Lehenengo esan zion abertzaletasuna zabaltzen ibilitako apaizek heriotzarekin ordainduko zutela, gero 5.000 pezetako isuna jarri zion eta ezagunari era adiskidetsuan galdetu omen zion ea barkatuko zion. Baietz erantzun zion emakumeak, eta gainera beste apaiz abertzale baten izena gehitu zuen; horren ondoren hasi ziren elkarrizketaren gaia zen arkitektoari buruz hitz egiten. Itzul zitekeela esan zuen Llamasek, bizia errespetatuko ziola. Eta agurtzean, eskua estutzearekin batera "ona izateko" gomendatu zion apaizari. Eskaileretatik behera zihoazela, honela hitz egin zion

84 Irargi. Instituto Bidasoa Fondoa, C.20/31.

komandantearen ezagunak Zabaloren emazteari : «ahora consejo de amiga, a este Sr. hay que untarle». Kalera heldu zirenean, apaizarengana zuzenduz, Llamasi buruz zuen iritzia adierazi zion: «¿Ve Vd. qué caballero y fino?».

Oso ezaguna zen Llamas komandantearen diruzaletasuna, Gomá kardinalaren ohar batzuetan ere haren berri dugu eta. Lacoume kapilauak esan omen zion kardinalari apaiz presoetako bati 25.000 pezeta (elizbarrutiarenak) errekisatu zizkiola Llamasek, baina berak zekiela, ez ziela Elizako agintariei itzuli[85]. Gainera hori aipatzeko arrazoia argitzean, dirua tarteko zen beste kasu batzuk ere bazeudela esan zion: «Apunto el hecho porque se me asegura, sin prueba, que este citado Juez Militar aceptó dinero de algunas personas complicadas»[86]. Bestalde, diruari zion maitasunaz batera, apaiz edo erlijioso abertzaleei zien gorrotoa ere oso ezaguna zen. José Ángel Lizasoain Donostiako Acción Católicako lehendakariaren arabera, behin esan omen zuen Llamasek berehala "despatxatzen zituela" hurbiltzen zitzaizkion apaiz nazionalistak eta Pacelli kardinalari zuzenduriko idazkian argitzen zuen zer esan nahi zuen horrekin: «despachar aquí es sinónimo de fusilar»[87].

Komandanteak izan zuen exekuzio askoren ardura zuzena, matxinoek kontrolaturiko beste lurralde batzuetan jarraitu zuten prozedura bera jarraituko baitzuten hemen ere. Zaragozan, esate baterako, altxamenduko lehenengo hilabeteetan, Informazio Militarreko Zerbitzuaren buru zen koronel bat izan zen erabakiak hartzen zituena. Honela deskribatzen da prozedura Uriel-en lanean: «el hombre todopoderoso que manejaba nuestras vidas. Estudiaba nuestras circunstancias personales, pedía, a veces, informes a la Universidad, a la Policía o a la Iglesia, y tomaba sobre nuestros destinos cualquiera de estas dos decisiones: muerte o libertad» (Uriel, 1988, 83). Aske uztea zenean erabakia, txirrindulari baten bitartez aske uzteko aginduarekin bidaltzen zuen ofizio bat kartzelara. Bestela, aske uzteko aginduarekin batera honako ohar hau idazten zuen: «si no está reclamado por otra autoridad». Kasu horretan, txirrindulariak kartzelara eraman beharrean mezua, Falangeko Zuzendaritzaren egoitzara eramaten zuen, eta erakunde horretako kideak joaten ziren espetxera presoaren bila, gero hiltzeko.

Sevillako kasuan, Manuel Díaz Criado Ordena Publikoko Ordezkariak zuzentzen zuen prozesua eta berak erabakitzen zuen nor fusilatu.Gizasemeari buruzko topiko oker guztiak betetzen zituen ofizial bat zen: alkoholikoa, andrezalea, arratsaldeko seiak baino lehen bulegora inoiz heltzen ez zena. Presoei galdeketarik egin gabe egiten zituzten txostenak (sakontasun handirik gabeak) menpean zituen langileek,

85 Lacoumek José Peñagarikano apaiza aipatzen du, baina aita Arin izan zen 12.000 eta 15.000 pezetaren arteko kantitate bat zeramana aldean (Iturralde, 1978, 366).

86 Andrés-Gallego, 2002, 228.

87 Andrés-Gallego, 2001, 283.

eta horietan oinarriturik erabakitzen zuen Díaz Criadok. Inoiz aztertu izan zituen txostenak kafetegi batean, parrandan ari zen bitartean, lunpen sevillarraren konpainian. Emakume gazteak baino ez zituen hartzen bulegoan, eta sexu-harremanen truke askatzen zituen senideak. Prostituzioarekin lotura zuen emakume lagun batek ere lan bera egiten zuen diru truk. Inoiz ez zuen sententziarik izenarekin sinatu, X2 marka jartzen zien (Ortiz, 1998, 159), eta *heriotza* edo *exekuzioa* hitzak ez ziren sekula agertzen agirietan. Salbuespenen batean izan ezik, zibilei egindako gerra-kontseiluak 1937ko otsailean hasi ziren.

Nafarroan, Gasteizen, Kompostelako Santiagon eta Ourensen ere ohikoa zen "aske" utzi eta fusilatzea. Santiagon, 1936ko abuztuaren 17an argitaratu ziren lehenengo gerra-kontseiluaren sententziak, baina epaiketa guztiz sumarioen ondoriozko exekuzioek eta paseoek erritmo berbera jarraitu zuten. Azken kasu horretan ere aske utziko zituztela iragartzen zitzaien. Hilketa politikoa zela jakin zezaten hobiratzaileek, tiro bat ematen zieten ukabil itxian (Tojo, 1990, 41). Baina hildakoak identifikatzeko arazo handia dago; izan ere, ofizio-eredu berbera, testu berberarekin eta agintari berberak sinaturik, batzuetan benetan aske uzteko agindua izaten zen eta besteetan presoaren heriotza agintzen zuen (Prada, 2006, 192).

Antzeko egoera gertatuko zen Gipuzkoan. Zapirainek zioenean presoetako asko desagertu egiten zirela, inolako epaiketatan edo gerra-kontseilutan epaitu gabeko presoez ari zen. Baina zenbait lekukok diote preso bakoitzak bazuela bere "dosierra". Horren haritik, Luis de Arrizabalagak esan zion aita Barandiarani auzoko bat elkartu zela Llamas komandantearekin eta horrek adierazi ziola Arrasatetik Donostiako kartzeletara eramaten zituzten preso guztiek zeramatela txosten hori eta fusilatzea beste lanik ez zutela. Arrizabalagaren ustez, herrian aginte militarra zuen teniente koronel batek eta alkate berriak prestatzen zituzten txosten haiek (Gamboa-Larronde, 2006, 128). José Ariztimuño apaizaren kasuari zegokionez, Gomák Pacelli kardinalari bidalitako gutun batean ematen da Aitzolen aurka zeuden akusazioen berri (bide batez esanda, gertatutakoaren interesezko kontaketa okerra), eta bukaeran zehazten da dena jasotzen duen txostena non dagoen, «Todo es declaración suya, que obra en el archivo militar de San Sebastián[88]. Juan Iturraldek (Juan José Usabiagaren goitizena) idatzitako *El pueblo vasco frente a la cruzada franquista* lanaren lehenengo bertsioan, Aitzoli buruzko zenbait agiriren faksimilak agertzen ziren, Ondarretako kartzelakoak, baina ez zen zehazten nola lortu ziren (1966, 462-464). Kartzelako sarrerako auzibide-txostenaren kopia zen lehenengo agiria, eta bertan agertzen ziren atxilotutakoaren izen-deiturak, helbidea eta nola heldu zen kartzelara: urriaren 15ean heldu zen "procedente de la Capital" (txosteneko hitzetan), Guardia Zibilak entregaturik, «en concepto de *estancia* a disposición de *Gobierno Militar* con *suplicatorio de la cita-*

88 Andrés-Gallego, 2002, 38.

*da fuerza que se une al expediente de Luis Sesma Benavente*». Bigarren agiria bi egun geroagokoa da; Seigarren Dibisioko Instrukzio Epaitegi iraunkorreko Ramiro Llamas komandante epaile bereziak sinatuta dago eta 14 pertsona («detenidos a mi disposición») aske uzteko agindua da, eta horien artean dago José Ariztimuño. Agiri horretan hamabosgarren izen bat ere agertzen zen, baina beharbada zorionez, azken unean Llamasek tatxatuta, Llamasek berak berariaz agirian bertan adierazten zuenez. Hirugarren agiria ere egun berekoa da eta José Ariztimuño Llamasen agninduz aske utzi zutela adierazteaz gainera, haren txostena Luis Megido-renarekin batera geratzen zela esaten zen. Luis Megido ere Aitzolekin batera utzi zuten "aske" eta Hernanira eraman eta fusilatu zuten. Azken txosten hori jardunean ari zen zuzendariak izenpeturik zegoen. *Historia General de la Guerra en Euskadi* lan marduleko euskal kleroari eskainitako tomoetan ere badaude faksimilak. Horietako bat Alejandro Mendikute apaizari buruzkoa da, atxilotua probintziako kartzelan sartzeko eskatzen du José María Arellano gobernadore zibilak, baina epaile militarraren esku, «a disposición del juez militar de esta Plaza». Eta, hain zuzen ere, Ramiro Llamas komandante epaile instruktorearen aginduz utzi zuten "aske" (1981, 303).

Oso ongi azaltzen du Iturraldek nola islatu zen agirietan garai hartako egoera, hau da, nola ez zen idatzita geratu adierazi beharrekoa (1978, 355):

> Si algún día se le franquean al futuro historiador los archivos penales de San Sebastián y tiene la suerte de encontrar los documentos originales –dudo mucho que lo consiga– se llevará la sorpresa de que lo único habido contra don José fue detención en San Sebastián, sin duda en su domicilio –detención que duró breve tiempo, dos días– y libertad por orden del juez, volviendo sin duda el detenido a su domicilio.
>
> (...)
>
> Aquella gente levantaba sus documentos de manera que pudieran servir a un expediente a lo Moscardó. De donde resulta que la verdad oficial es una y la verdad verdadera muy otra. La verdad y la justicia, como la vida, eran escarnecidas con la burla más sangrienta, entre los alzados por Dios y por España

Oso ohikoa zen dosier berean sartzea elkarrekin, itxuraz behintzat, zerikusirik ez zuten lagun bat baino gehiago. Jokabide horrek dokumentazioa aurkitzeko aukera zailtzeaz gain, agintari militarren jokabide axolagabea adierazten du, zorroztasun juridikorik eza.

Bestalde, Zapirainen eta desagertutakoen senideen pertzepzioa ere aintzat hartzekoa da: horien ustez, Donostiako kartzelan sartzen zirenetik aurrera atxilotuek ez zuten inolako tramitetan parte-hartze zuzenik izaten, exekuzioa bera kenduta. Horren ildotik egin zuen Gabonetako mezua Agirre lehendakariak 1936ko abenduan; exekuzioen aurka protestatu zuen, eta hain zuzen ere Eliza Katolikoari leporatu zion apaiz asko inolako epaiketarik gabe fusilatzen utzi izana. Akusazio horri erantzunez, Gomák gutun irekia idatzi zion Jose Antonio Agirreri, elizgizonen exekuzioetan ja-

rraituriko prozedura ezagutzeko interesa agertuz. Baina oso ongi zekien zein zen erantzuna, izan ere, aurrerago zehatzago ikusiko dugunez, haren parte-hartzeak eten zituen halako heriotzak. Gertakizun latz haietako protagonista militarretatik bakarra geratzen zen Donostian orduan, Agustín Prado, Llamasen idazkaria hain zuzen, eta horrekin izan zuen elkarrizketa bat kardinalak. Apaizen txostenak erakutsi omen zizkion idazkariak eta Erromara bidali ahal izateko, zenbait agiri kopiatzeko baimena eman omen zion. 1937ko otsailaren 20an Gomá kardinalak Vatikanora bidalitako txostenaren arabera, ondorio bat gailentzen zen, hots, epaiketak egin zirela; baina Pradok egindako zenbait zehaztasun hartu behar ziren kontuan:

> El criterio del enjuiciamiento obedeció a las circunstancias de cuando se acababa de conquistar la ciudad de San Sebastián después de la resistencia durísima de los nacional-comunistas: justicia rápida y ejemplar. Particularmente para aquellos cuya preeminencia social importaba mayor responsabilidad. Fueron juzgados algunos sacerdotes (..). Se les midió según el rasero de todos los presuntos culpables, de los que cuatrocientos y pico fueron condenados a muerte (...). *El juicio fue sumarísimo como correspondía al caso* [geuk azpimarratuta]. Es falso como se ha afirmado que fuese juzgado un solo sacerdote sin que le tomaran declaraciones. Los ejecutados fueron dieciséis: lo fueron vestidos de seglar; de noche para evitar publicidad; avisados poco antes para evitarles sufrimientos morales; procurándoles confesores que fueron los padres jesuitas Lacoume y Urriza; acompañándoles el pelotón de voluntarios para su custodia y un automóvil que servía de confesionario[89].

Ildo bereko beste zenbait iritzi jasoko ditugu. Urriza elizgizona saiatu zen militarren jokabidea zuritzen, egoerak hala beharturik jokatu zutelakoan, «un gobernador no puede proceder siempre por la vía judicial, máxime en tales circunstancias» (Gamboa-Larronde, 2006, 240). Gomá kardinalaren agirien artean dagoen gutun pertsonal batean irakur daiteke 1937ko urtarrilaren 26an Urrizak idatzitakoa, betiere apaiz guztiek izan zutela epaitzeko prozesua berretsiz[90]: «Yo he visto bastantes expedientes: depone el acusado y varios testigos; falla el juez. No dirá nadie que en las cosas humanas no quepa posibilidad de error; pero se ha hecho justicia segura y expedita». Iritzi bera agertu zuen 1941ean Ramón Sierra Bustamantek *Euzkadi. De Sabino Arana a José Antonio Aguirre* lanean. 1936an Gipuzkoako gobernadorea izandakoaren esanetan, gerra-egoerak baldintzatzen dituen prozedura sumarioen bitartez prozesatu ondoren exekutatu zituzten apaiz abertzaleak Okupazioko Armadako agintari erregularrek. Exekuzioen aldeko argudioak ematean, Sierrak esan zuen Iparraldeko kanpainaren hasieran, gerrak hala derrigortuta, kolumnetako komandanteen eskumenak ia erabatekoak zirela, Justizia azkarra egin beharra zegoela eta aurreikuspena eta eskarmentua ia derrigorrezko arauak zirela (1941, 128 eta 209).

89 Andrés-Gallego, 2002, 126.

90 Andrés-Gallego, 2002, 409-411.

Kontrako iritzi horiek gorabehera, gure ikerketan oinarriturik, uste dugu gezurretan ari zirela epaituta hil zituztela ziotenean. Ez ziren behar bezala prozesatu akusatuak, eta, are gutxiago, epaimahai baten aurrean. Arbitrariotasunaren ondorioa izan zen haien heriotza: epaile militar baten apetaren araberako erabakiek eta zenbait lagunen xedapen arbitrarioek eraman zituzten hiltzera –ziur aski Ordena Publikoko Juntako kideen erabakiek–. Edonola ere, ez zen izan epaiketarik. Ez dugu uste Justizia Militarreko Kodeak deskribaturiko ezein bide jarraitu zenik, *urgentziazko* prozedura guztiz sumarioak berak ere ez, zeinetan 24 ordutan entzun zitekeen akusatuen deklarazioa, lekukoena eta sententzia eman, derrigorrez bete beharrekoa. Hori bete izan balitz, Zapirainen testigantza egiatzat hartuz gero, gauerdian hiru edo lauko taldeetan aterako zituzten presoak kartzelatik, epaimahai militar baten aurrera eraman, epaitu, kondenatu eta ordu batzuk geroago exekutatzera eraman. Baina horrela izanez gero, zergatik erabiltzen zen urgentziazko prozedura hori, beste alde batetik gerra-kontseiluak egiten ari ziren bitartean, bete beharreko urrats guztiak jarraituta, premia izanez gero euskarazko itzultzaile eta guzti? Aitzol eta beste hamahiru lagunak epaitu bazituzten nola uler daiteke, hil baino ordu batzuk lehenago "aske" utzi zirela adierazten duen aginduaren kopia bat egotea? Urgentziazko prozedura hori bete izan balitz, presazkoa izan arren, arrastoren bat utziko zuen agirietan, horrek ere gutxienezko tramite batzuk eskatzen baitzituen. Zergatik daude Ferrolen gerra-kontseilu sumarioetako presoen txostenak eta ez urgentziazko prozedura guztiz sumarioetan epaitutakoenak?

Sarreran esan dugunez, Ferroleko Archivo Militar Intermedio-n ez dago, itxuraz behintzat, horrelako kasuetako txostenik. Ondarretako kartzelako artxiboan ere ez dago preso horiei buruzko txostenik (gaur egun Martuteneko kartzelan dago artxiboa); aitzitik, preso gehienak agertzen dira sarrera eta irteerako erregistro-liburuetan. Gure uste sendoa da batez ere apaizen heriotzek eragindako eskandalua ikusita, balizko froga guztiak desagerraraztea erabaki zutela agintariek, ez zelako epaiketarik egin. Hortaz, Gomá kardinalak irakurri eta kopiatu ahal izan zituen txostenak eta Gelasio Aramburu apaizaren aurrean Llamasek irakurri zuen erregistro-liburua suntsitu egin zituzten edo orain arte gutariko inork ezagutzen ez duen tokiren batean daude ezkutuan. Aukera hori berresten duen beste datu bat ere badugu: Jean Pelletier-en arabera (1937, 109-110), 1937ko apirilaren 10ean, Ondarretako zaintzaileek preso guztiak elkartu zituzten patioan, eta atxiloketaren nondik norakoak galdetu zizkieten. Atxilotutakoen herenak azaldu behar izan zuten zein akusazio leporatzen zitzaien, akusazioak idatzita zeuden txostenak galdu egin baitziren.

Beharbada, harrigarria iruditu beharko litzaiguke Gomá kardinalak ontzat hartzea Pradoren bertsioa, baina elizgizonaren izaera eta ezaugarriak ezagutuz gero, hori ere ez da harritzekoa. Gainera, Llamasen idazkari ohiarekin elkartu baino

lehen, zenbait ohar idatzi zituen kardinalak Gipuzkoako gobernadore militar berriarekin eta aita Lacoumerekin izandako bilerak laburbilduz; ateratako ondorioek ez dute zalantza-izpirik uzten:

> Aparece envuelto en el mayor secreto todo lo referente a los motivos que determinaron los fusilamientos de los sacerdotes. Parece que se han hecho desaparecer todos los rastros relacionados con estos casos.
>
> (...)
>
> De mi entrevista con el P. Lacoume recojo los siguientes datos: Por declaración hecha (al morir) de los propios ejecutados, consta de modo cierto que a la mayor parte de ellos no se les tomó declaración formal. Parece que a casi todos se les acusaba de delito de espionaje, encubridores de espionaje (Sr. Onaindia, por ejemplo, encubridor del Sr. Peña Garicano [sic]) y propaganda de nacionalismo, o carácter destacado dentro de la organización.

Baina, hala ere, nahiago izan zuen Pradoren bertsioa. Ricard Vinyes-ek dio, hain zuzen ere, giza krimena ukatzeko saiakera hori dela frankismoaren zapalkuntza-sistemaren ezaugarririk nabarmenena; dokumentazioa ezabatuz edo arrasto gehiegi ez uzteko moduko hizkuntza erabiliz, hilketak izenik gabeko gertakizun hutsal bihurtzen saiatu ziren. Vinyes-en hitzetan, gertaturiko gehiena betiko baztertu nahi izan zuten, «eternamente en el anonimato o en la banalización»[91]. Francisco Espinosaren iritziz (Casanova, 2003, 54-57), kontrairaultzaren izuaren frogak ezkutatzeak, batez ere zapalkuntza paralegalarenak, arazo handiak sortzen ditu sistema horren ondorioak ezagutzeko, eta, are gehiago, zapalkuntza-era hori egon zela frogatzeko eta izan zuen garrantzia erakusteko. Haren ustez, erailketak eta fusilatzeak eta paseoak eta fusilatzeak bereizi izanaren atzean errepresio-prozesu bakarra dago, fase ezberdinetan gertatu zena. *Paseo* hitza kasu bakar batean izango litzateke egokia, hau da, talde inkontrolatuen biolentzia denean eta Estatuak ez duenean inolako zerikusirik indarkeria horrekin. Baina Espinosaren arabera, ez zen hori matxinoek hartutako lurraldeetan gertatzen zena. Haren hitzetan: «En la zona sublevada, donde la represión se planificaba y donde la jerarquía y la disciplina fueron absolutas, los crímenes se produjeron en todo momento con el conocimiento de las autoridades, por medio de fuerzas designadas para la ocasión por esas mismas autoridades e incluso con un cura confesor entre el camión y el paredón. Eso no es un *paseo*. Tampoco –por más cómodo que sea– resulta muy riguroso hablar de fusilamientos, ya que si hablamos con propiedad, sólo cabría hablar de éstos como final de un proceso que se iniciaría con la detención legal y concluiría tras la sentencia de muerte con el certificado médico de defunción previo a la inscripción en el Registro Civil». Beraz, egia ezkutatzeko eta errua biktimengana zuzentzeko erabilitako hitzak izango lirateke.

91 R. Vinyes, "El universo penitenciario durante el franquismo" *in* Molinero, 2003, 175.

Epaiketarik gabeko exekuzioen zeharkako ondorioa –baina ziur aski berariaz bilatutakoa– zenbat exekuzio gertatu ziren zehaztuta lekarkeen dokumentazioa aurkitzeko zailtasuna da. Gainera, hildakoak zenbatzeko eta identifikatzeko beste eragozpen bat ere badago: gehienetan, senideek debekatuta zuten lutoa eramatea, hildakoen aldeko hileta-elizkizunak egitea (Victoriano Akizu eta Isidoro García Echave Aretxabaletako semeen kasua adibidez) edota eskelak prentsan argitaratzea. Manuel Garbizuren eskela baino ez dugu aurkitu, urriaren 18an *La Voz de España*n argitaratua, baina debekatu egin zuten hileta, atxilotu eta hil zuten agintari karlo-militar-faxista berberek[92]. Euskal Herriko gizarte tradizionalean, heriotzaren inguruko ohiturek eta erritoek garrantzi handia izan dute, eta zigor hirukoitza ziren aipaturiko debekuak: lehenengo eta behin, hildakoa bera zigortzen zen, ezin baitzuen betiko atsedena hartu arbasoekin batera; bigarrenik, zalantzan, ziurtasunik gabe eta beldurrez itxaroten egon ondoren, hildakoaren senideek ezin zituzten ospatu beren nahigabea kanporatzeko aukera emango zieten erritoak, edo etorkizunean ere, biktimaren eta familiaren arteko loturari eutsiko zioten ospakizunak; hirugarrenik, elkartea edo komunitatea zigortzen zen, izan ere, auzokoaren aldeko ospakizunetan parterik ez hartzeak erraztu egingo zuen ahanztura eta hildakoa, eta haren pentsaeraren eta bizimoduaren oroitzapena galaraziko zituen (Prada, 2006, 202).

## Hernani, epaiketarik gabeko exekuzioen gunea

Hernani herria, Donostia eta ia Gipuzkoa osoa hartu ondoren, 1936ko uztailean altxatutako tropa militarrek zuzendu zuten zapalkuntza odoltsu eta ankerraren lekuko izan zen Hernani, zoritxarrez, atzeguardia frankistaren exekuzio-gune bihurtu zen Gipuzkoako hiribildua. Donostiatik hurbil egotea izan zitekeen Hernani aukeratzeko arrazoia. Alde batetik, beste udalerri bat zenez, ez zuten parte hartu behar hiriburuko agintariek, ez auzitegikoek, ezta osasun-arlokoek ere. Bestalde, era horretara ez zen zikintzen Donostiaren izen ona, eta oihartzun eskasagoa izango zuen herri txiki batean gertatutakoak. Hiriburuaren izaera turistikoak ere bultzatuko zituen agintari berriak kanpoko aldera eramatera exekuzioak[93], baina ez da ahantzi behar asko hil zituztela Ulia mendian, Donostiakoa izan arren. Beste probintzia batzuetan ere antzekoa izan zen hiltzeko tokien aukeraketa. Ourenseko kasua aztertu duen Julio

92 "Encuesta sobre la guerra civil fascista en Euzkadi", *Euzko Deya* 16, 1937-1-21.

93 «Donostia, franquista desde el final del verano del 36 (...), como hoy, tenía su idiosincrasia, su negocio turístico (...) y se llevaron las ejecuciones a Hernani para que los que añadían el aspecto humano al incomparable marco natural no sufrieran los rigores de la guerra...». Iñaki Egaña, "18 de julio. La derecha victoriosa", *Noticias de Gipuzkoa*, 2006-7-18.

Pradaren ustez, ez dago zenbait ekintza zapaltzaile azalduko dituen logika jakinik. Esate baterako, borreroaren identitatea ezkutuan geratzearren hilketak kartzeletatik urrutiko tokietara eramateak ez du zentzurik. Izan ere, ia "mundu guztiak" zekien nortzuk ziren talde horietako partaideak, eta, sarritan, hiltzaileek berek zabaltzen zituzten beren ekintzak eta krimen-kopuruak, askotan handizkatuz. Gure kasuan, gainera, gipuzkoar asko egon ziren zaintza-lanetan (borondatez edo derrigorturik) lurraldeko kartzelan, Gobernu Militarrean (Llamas zegoen egoitza) eta beste erakunde militar batzuen egoitzetan. Beraz, urrutira eramatearen helburua nolabait izua sorrarazi eta erresistentziarako aukerak geldiarazteko asmoarekin loturik egongo zen. Ourenseko erailketak, adibidez, jende askoren pasoko tokietan egiten ziren (Prada, 2006, 201). Dena den, ez zen hori izan Gipuzkoako kasua, aukeraturiko tokiak (Hernani eta Oiartzun) diskreto samarrak izan ziren eta.

Gipuzkoako herritarrak, Bizkaikoak, Nafarroakoak eta beste herrialde batzuetakoak ere fusilatu zituzten 1936ko udazkenean Hernanin. 1958an egindako zerrenda baten arabera, 200en bat lagun zeuden lurperaturik Hernanin une horretan. Honako hau da zerrenda: *Relación nominal de los enterramientos colectivos que existen en la demarcación de este Puesto,* –realizada por la 143ª Comandancia de la Guardia Civil - 1ª Compañía, Línea y Puesto de Hernani– con fecha de 17 de junio de 1958. Izen hauek zehazten dira zerrendan: Martín Lecuona Echaveguren, Gervasio Albisu Bideaur, José Ariztimuño Olaso, José Adarraga Larburu, Celestino Onaindia Zuluaga, José María Elizalde Zubiri, Gabino Alustiza, eta beste 190en bat horiekin batera (izenik zehaztu gabe), «juntamente con los reseñados anteriormente unos 190 individuos más aproximadamente, cuyos nombres se desconocen totalmente, los cuales también fueron ejecutados por las Fuerzas Nacionales»[94]. Ez dakigu zergatik ematen diren bost apaizen eta horiekin zerikusi zuzenik izan ez zuten bi seglarren (Elizalde eta Alustiza) izenak.

1936ko iraileko azken egunetatik aurrera gertatu ziren frankistek Hernanin egindako fusilatzeak. Harrezkero, batez ere urri guztian zehar izan ziren hilketak, eta gutxiago azaroaren lehenengo hamabostaldian. Arestian aipaturiko agiriaren arabera, 200en bat erail zituzten indar nazionalek, «ejecutados por las Fuerzas Nacionales». Beraz, gobernadore zibil eta militarrak izango ziren sarraskiaren arduradunak. Hernanin ez ezik Oiartzunen ere hil zituzten Ondarretako presoak, baina horiez gainera, beste toki batzuetara ere eramaten zituzten hiltzera. *Eusko Deya*ren arabera, zehazki ez dakigu zenbat, baina atxiloturiko batzuk Orio eta Zumaia arteko errepidean hil zituzten, eta horietako batzuk Zarautzen lurperatu zituzten, eta beste batzuk Usurbilen[95].

94 Hernaniko Udal Artxiboa (HUA // HISTORIKOA/E-5-II-27/4. Guerra Civil 1936-1939. Relación de asesinados en Hernani).

95 "Sous la terreur des fascistes dans le Pays Basque envahi", *Euzko Deya* 32, 1937-3-18.

Ondarretako kartzelan giltzapeturik zeuden presoek bazekiten gauero zalaparta nagusitzen zela, bai eta zer gertatzen zen ere. Zenbait preso, batez beste 4, esnatzen zituzten egunero, "aske" geratuko zirela esan eta presondegitik ateratzen zituzten. Baina bisiten bitartez, edo kartzelako zaintzaileren baten bidez, bazekiten zalaparta horien ondoren kanporatutako inor ez zela heldu bere etxera. Gaueko hamaikak aldera entzuten zen kamioi bat heltzen, motor haren hotsa ez zuen sekula ahaztu ahal izan Salbador Zapirainek, eta ziur asko ezta handik bizirik irtendako beste inork ere. Kartzelako funtzionarioekin batera, miliziano eskuindarrak arduratzen ziren presoak ateratzeaz. Atea zeharkatu bezain laster derrigortzen zituzten exekuzio-tokira eramango zituzten kamioira igotzera.

Bide bera egin ez zuten arren, zoritxarrez toki berera heldu ziren beste herritar batzuk ere. Litekeena da, era berean, Hernanira eramatea exekutatzera kartzela falangista eta tradizionalistetan izandakoak. Hernani bertako bi kasu ezagutzen ditugu: Atsegindegi etxean (gaur desagertua) egon zen atxiloturik Saturnino Garbizu eta udal kartzelan (gaur Udal Artxiboa) Ángel Arbiza. Azken hori "aske" utzi ondoren inork ez zuen haren berririk izan eta Hernanin fusilatuko zutela uste da; beste informazio batzuen arabera, Andoainen hil zuten.

Heriotzara bidean ihes egin eta bizirik geratutako kasu bakar baten berri besterik ez dugu. Iñaki Egañak kontatzen du bere lanetako batean: «Sólo uno de los que fueron conducidos frente al pelotón de fusilamiento logró salvar su vida. Se trató de Elías Miner, quien logró saltar en marcha de la camioneta que le trasladaba a Hernani desde la cárcel de Ondarreta, en medio del intenso fuego producido por sus guardianes. Escondido durante años, logró sobrevivir a la represión»[96]. Ihes egin zuen beste kasu bat ere izan zen: Falangera sartu zen anarkista bat (aldatu arren atxilotua) exekutatzera zeramatela Oiartzunera, kamioitik jaitsi zirenean, ilunpeaz baliatuz, alde egin zuen, baina zauritu egin zen eta inguruko baserri batean eskatu zuen babesa. Azkenean, entregatzea erabaki zuten baserrikoek eta berriz ihesean saiatu arren, Txikierdi baserritik hurbil hil zen.

Behin Hernanira helduta, kapilauen esku geratzen ziren presoak, eta zenbaitetan kartzelatik harako bidea ere haiekin egiten zuten. Katolikoak ziren exekutatutako gehienak, baina errepresioko lehenengo egunetan ez zuten izan laguntza erlijiosorik. Ez dakigu zehatz noiztik aurrera, jesulagunak jardun ziren kartzelako kapilau-lanetan, baina zin egin behar zuten ez zutela sekula nortzuk fusilatu zituzten esango, ez eta exekuzioaren inguruko gorabeherarik kontatuko ere. Dirudienez, kapilauen kezka nagusia kondenatuak aitortuta eta damututa hiltzea zen. Bestelako lanak ere egiten zuten noizbait, esate baterako, gerra-kontseiluan heriotza-zigorra eman zioten Urnietako gazte bati Veronal pilula bat (lasaigarria, barbiturikoa) eman

96 "Guerra Civil en Hernani", Iñaki Egaña, 2002-09-20.

zion jesulagun batek, urduritasuna lasaitzeko (Gamboa-Larronde, 2006, 93); ez dakigu horrelakorik gertatu zen Hernanin.

Militarrek, guardia zibilek, falangistek, erreketeek, matxinatuek eta haien erakundeen hurbileko boluntarioek osatzen zituzten fusilatzeko pelotoiak[97]. Fusilatzeetan parte hartu zuten Espainiako aristokraten bi seme aipatuko ditugu. Gabriel de Ybarra enpresari bizkaitarraren semeetako bat, Baionara heldu zen zurrumurru baten arabera, harro ibiltzen zen Donostian Aitzoli azken tiroa eman ziona bera izan zela esanez; «se jactaba en San Sebastián de haber dado él mismo el tiro de gracia al sacerdote D. José Antonio (sic) Ariztimuño» (Gamboa-Larronde, 2006, 588)[98]. José Luis de Vilallonga zen bestea, gerrak Donostian uda pasatzen harrapatu zuen Madrilgo familia aberats bateko semea. Iñaki Egañak dio fusilatzeko pelotoi horietako partaide batzuek urteetan jarraitu zutela egindakoagatik beren burua goratzen[99].

Urte mordoa pasatuta, *Fiesta* (1971) izeneko nobela kaleratu zuen Parisen frantsesez idatzirik Vilallongak; ez dakigu zein asmorekin egin zuen, kontzientzia lasaitzeko edo bere konbikzioak berresteko. Ustez, bere eskarmentua kontatu zuen nobela horretan, nola fusilatzen zuten azaldu zuen, askotan tonu ironikoan, gainera. Gerra Zibila hasi berria zela, interno zegoen ikastetxe frantsesera joan zitzaion aita eta handik atera zuen aristokrata katalan gaztea, alde nazionalean borrokatzeko asmoarekin. Villalongak dioena sinistuz gero, heriotzako pelotoi haietan parte-hartzea baino modu hobarik ez zegoen gaztea zailtzeko[100]. Nobela -nolabait izendatzearren- topikoz beterik dago. Arrasate da gertaeren gune nagusia, baina hango biztanleen eta herriaren deskripzioak errazago garamatza Andaluziako herri batera Gipuzkoara baino. Pasarte batean ezinezkoa litzatekeen bonbardaketa bat gertatzen da: Arantzazu bonbardatzen du *Baleares* kruzeroak, eta denok dakigu Arantzazu kostatik 40 kilometrora dagoela eta matxinatuen mende egon zela abuztuaren azkenetatik aurrera. Mozkortiak eta morfinazaleak dira nobelako militarrak, eta homosexuala arduradun nagusia. Aragoiko apaizak hil izana azaldu behar izan zutenean anarkista katalanek, haiek kanpandorreetatik egiten zutela tiro esan zuten. Horrelako ekintza batean ari dela atxilotzen dute nobelako apaiza. Ustez, borreroen pentsaera ulertze-

97 Baionan jatorria duen isilpeko txosten baten arabera, 1937ko otsailaren 1ean, J. P. L. (Santanderren jaiotakoa eta Haitiko kontsula) akusatu zuten, nola hiltzen zituen presoak eta irabaziz gero nolako negozioak bereganatuko zituen kontatzen zuelako harrotasunez.

98 Ignacio izango zela uste da; gainera Getxoko Comisariado de Orden Público erakundeak egindako txosten batean berretsi egiten da aipaturiko zurrumurrua, baina ohartxo bat gehitzen dio: «criterio particular mío es que [es] un farol que se ha tirado». Abertzaletasunaren Agiritegia. Irujo Fondoa 12-1.

99 Iñaki Egaña, *Guerra Civil en Hernani. Información previa a las tareas de investigación y exhumación*. Aranzadi Zientzia Elkartea, Donostia 2003.

100 Armengou-Belis, 2004, 61-63. 2002ko abenduan Jose Luis Vilallongari Kataluniako telebista publikoak (TV3) egindako elkarrizketa batean oinarrituriko informazioa.

ko gakoak ematen dizkigute zati batzuek. Hona hemen bat: «fusilamos a los hombres, a las mujeres y también a los niños, (...) La sangre no tiene edad, ni sexo». "Odola maite zuen" katoliko sutsua da López-Quimbo Gipuzkoako gobernadore militarra liburuan. Bi pertsonaiaren bikoitza izan daiteke: Hernaniko hilketak gertatu eta bi hilabetera izan zen 6. Dibisioko buru López Pinto-rena eta Arturo Cebrián y Sevilla-rena, Gipuzkoako gobernadore militarra izandakoa. Harrigarria da fusilatuekiko mespretxua eta darabilen tonu ironikoa narrazioan zehar.

Franco hil ondoren, telebistako programa batzuetan agertu zen Vilallonga eta elkarrizketak ere egin zitzaizkion; horrelakoetan, inolako damurik gabe, onartu zuen Hernaniko hilketetan hartu zuela parte eta exekuzioetako batera, behintzat, goi-mailako jendea joan zela, dotore jantzita, meza ondoren, erailketak ikustera[101]. Oraintsuago (2002-6-10), artikulu bat idatzi zuen berriz ere Hernaniko fusilatzeak gogoratuz, baina, beharbada, giro politikoak eraginda edo, oraingo honetan hiru apaizi salbatu ziela bizia azpimarratu zuen eta bere damua azaldu hiruretako bat Donostiako gotzaina, Jose Maria Setien, izan zitekeelako. 2004ko elkarrizketa batean, berriro berretsi zuen bere parte-hartzea fusilatzeetan; bere esanen arabera, egunero hiltzen zen, goizeko 6etan hasten ziren fusilatzen eta goiz osoa ematen zuten jendea fusilatzen (Armengou-Belis, 2004, 62). Nekez sinets daiteke informazio hori bere horretan, Ondarretako presoak gauerdian ateratzen baitzituzten; bestalde, urriaren 18tik 22ra bitartean izan ezik, ez ziren inoiz hamar preso baino gehiagoko taldeak izaten. Ez dago jakiterik zein neurriraino den egia pertsonaia horrek kontatutakoa, deklarazio polemikoak eta kontraesankorrak egin izan baitzituen bere garaian. Berak aipaturiko gau hartan, Aitzol fusilatu zutenean, Vilallonga Hernanin izan ote zen ere ez dago jakiterik, berak telebistaz egindako beste adierazpen batzuk ere gezurra dira eta. 300 lagun inguru zeramatzan barku bat harrapatu eta gero "untxiak bezala" hil zituztela esan zuen, eta horregatik sorbalda minduta izan omen zuela (Torres, 2003b, 80). *Galerna* bakailao-ontziari gertatutakoari egindako erreferentzia dela dirudi, baina ez zeraman 50 bidaiari baino gehiago eta ez zituzten guztiak fusilatu.

José Artechek dioenez (1970, 128), erreketeek ere hartu zuten parte exekuzioko pelotoietan. Bere konpainiako nafar batek kontatu zizkion une larri haietako gertakizunen sekuentzia, presoak kartzelatik atera eta hil arte:

> El despojo por los del piquete de cuantos objetos valiosos tuviesen los condenados, tan pronto éstos trasponían las puertas de la prisión. La confesión de los sentenciados de pie, ya junto al paredón, vigilados hasta en aquel momento por uno del piquete arma al brazo. El borbollear producido por el escape del pulmón atravesado, en los fusilados que aún respiraban.

101 Hori ez zen Gipuzkoako berezitasuna, beste lurralde batzuetan ere bazuten ohitura makabro hori eta, Nafarroan besteak beste. Julio Casanovak dio ia derrigorrezkoa zela "ekitaldira" joatea, gizarteko aitzinamendu-zerrendan gora egiteko eta susmo txarrak edo salaketak saihesteko (Casanova, 2001, 98).

La larga hilera que cae derrumbada, excepto uno en el extremo de ella porque el piquete a pesar de su número no alcanzaba para todos, y las palabras irremisibles al desgraciado que, viéndose él solo de pie al lado de los compañeros caídos, alumbró quizá en un momento, un fulgor de esperanza: –Ahora te toca a ti–. El hombre obligado a alumbrar con un farol la silueta de los condenados que los piquetes poco numerosos determinaban matar uno a uno para ahorrarse la labor de los tiros de gracia.

Alderdi komunistaren *Euzkadi Roja* egunkariko artikulu batean zehazten da, *Galerna* ontziaren atxiloketa zela eta, borreroetako bat "el Antoñito" deitzen zioten guardia zibil bat izan zela, oso harro zegoena asko eta asko hil zituelako berak, fusilatzeen errekorra berak zuela esaten ibiltzen zena[102].

Francoren armadan borrokatu behar izan zuen apaiz gipuzkoar baten oroitzapenak jasotzen dira Euzko Apaiz Taldearen lanean (1981, 325-326) Beltxarana goitizeneko batek kontaturik. Horren esanetan, orain arte ere aipatu dugun Luis Fernándezek, Falangeko Zaintzako burua, eta Severiano Álvarezek (beste falangista bat) hartu zuten parte atxiloketetan eta fusilatzeetan, kondenatuak aitortzea eragotzi zuten eta zuzeneko parte-hartzea izan zuten Arrasateko hiru apaizen exekuzioan Oiartzunen[103].

Lehenago ere esan dugu toki bat baino gehiago erabili zutela fusilatzeko Hernani inguruan: hiru gune nagusi. Donostiarekiko mugatik hurbil, Galarretan, bi gune izan ziren heriotzaren lekuko: Illarratsuena baserritik hurbil dagoen sima bat eta "Heriotzaren Aldaparen" bukaeran dagoen bidegurutzea (lehenagotik datorkio izena aldapari, bertan gertatzen ziren istripuengatik). Herriaren beste aldean zegoen hirugarren gunea: kanposantuko kanpoko aldean garai hartan egon ziren hormetan ere fusilatzen zuten. Isidro Inchausti gipuzkoarraren esanetan (beste ezein iturrik ez du berretsi), Francisco Perurena izeneko bere lagun batek adierazi zion gorpu asko ikusi zuela Hernanitik Goizuetara doan errepidearen kunetan 1936ko urriaren hasieran (Gamboa-Larronde, 2006, 320).

Lehenengo fusilatzeak Galarreta inguruan izango zirela uste da, gehienetan goizaldean, eta beste toki batzuetan igandea jaiegun gisa errespetatzen bazuten ere, Hernanin ez zuten atsedenik hartzen hiltzaileek. Behin baino gehiagotan kexatu omen ziren inguruko etxeetakoak, gauean ez zelako giro, kondenatuen eta hilzorian zeudenen aieneak entzuteak erabat larritzen zituelako gau askotan (EAT, 1981, 309). Bertan behera uzten zituzten Hernanin fusilatutakoen gorpuak, eta handik ordu batzuetara edo hurrengo goizean pasatzen zen zabor-biltzailea udal hilerrira eramateko. Urteak

102 *Euzkadi Roja* 58, 1936-11-18.

103 Beltxaranaren arabera, atxilotu eta berehala hil zituzten; bere iritziz, lekukoak gutxitzeko modu bat zen hain bizkor jokatzea. Dena den, ez datoz bat Luis Sierrak aipaturiko bigarren izena (Emilio S.) eta lekuko honek aipaturikoa.

igaro arren, garai hartan neskatilatxoa zen Josebe Goya enterradorearen alabak honela gogoratzen ditu une latz haiek:

> En un carro de basura, como si fuera ganado... para que nadie fuese a mirar, anunciaban la llegada del carro a toque de campanilla. La gente tenía que quedarse en su casa...

Urriaren erdialdetik aurrera, hilerriaren sarreran hasi ziren fusilatzen, "ez hain nabarmen". Baina, hala ere, heriotza bera bistarazten zen hildakoen odoletan: «...Hacia mediados de octubre empezaron ya a fusilar aquí, contra el muro de la entrada del cementerio (...) el lugar quedaba encharcado de sangre. Encima le echaban gravilla gris, (...) pero si se pisaba allí salía una huella roja...»[104]. Urriaren bukaera aldera, Mola bera egon omen zen exekuzio-guneetan, eta handik egun batzuetara, ia ez zuten inor gehiago fusilatu Hernanin. Zenbait lekukotza idatziren arabera, diskrezio handiagoaz fusilatzeko agindu zien Molak une hartako agintariei[105].

Hildakoak aldean zeramatzan arropen eta gauzen artean, identifikatu ahal izateko zerbait aurkitzen saiatzen zen enterradorea, ez baitziren inoiz apuntatu kanposantuko erregistroetan hara eramandako hildakoak[106]. Zenbait lekukok esan izan dute Hernaniko kanposantuko enterradoreak, Juan Goyak, identifikatu gabe lurperatutako hildakoen kopurua eta identifikatu ahal izan zituenen izen-deiturak koaderno "berde" batean apuntatzen zituela beti. Antza, familiak gorde izan du urte askotan koaderno hori, baina guk ezin izan dugu eskuratu. Kanposantuko bi hobitan lurperatu zituzten fusilaturikoak: "Cripta Panteón" esaten dioten tokian, eta "Monumento a los muertos violentamente por sus ideales" izeneko hilobian.

Senide batzuk saiatu ziren etxekoen gorpuak eskuratzen, baina ezin izan zuten beren nahia bete. Gutxi batzuek, aldiz, exekuzioak gertatu eta gutxira, 1936ko azken egunetan, ahaideak non zeuden jakinda, lortu zuten handik ateratzea. Kasu bat aipatuko dugu: Juan Antonio Landin Urrieta fusilatu egin zutela familiak jakin eta egun gutxira, gau batean gorpua atera eta Sarasqueta (orduan Hernaniko medikua) familiaren panteoian ehortzi zuten "duintasunez". Beste batzuek, aitzitik, legezko bidea aukeratu zuten eta administrazioaren bitartez saiatu ziren, baina ez zuten inoiz lortu beren senideen gorpuak bereganatzea eta behar bezala hobiratzea. Horixe gertatu zitzaion Joaquín Arrue-ri, José Ariztimuño Olaso *Aitzol*en gorpuzkinak esku-

104 "40 años después: Euskadi honra a sus muertos", *PUNTO y HORA* 60, 1977ko azaroaren 3-9koa.

105 Egaña, 2003.

Irailerako, bidean atzeman zen Molak Valladolideko Guardia Zibilaren buruari idatziriko mezu bat, non esaten zitzaion gorpu gehiegi zegoela Valladolid eta Burgos arteko errepidean, eta horietako batzuek trafikoa oztopatzen zutela. Beste toki batean egiteko exekuzioak agintzen zitzaion, eta lurperatzeko hilotzak (Martín Blázquez, 1938, 144).

106 Gaur egun Udal Artxiboan dauden garai hartako lurperatzeen erregistro-liburuetan begiratu dugu, eta ez dago heriotzarik erregistratuta irailaren erditik azaroaren amaierara arte.

ratzen saiatu zenean[107]. Azkenean, zenbatek lortu zuten etxekoen artera eramatea senideak? Ez dakigu ez zenbatek, ez eta nola ere.

Egoeraren tragikotasuna ikusita, sasoi hartan alkate zen Julián Madina-k honako bando hau zabaldu zuen 1936ko urriaren 30ean: «Hago saber: Que este año queda prohibido el acceso del público al cementerio los días de Todos los Santos y Animas»[108]. Espainiako beste toki batzuetan ere agindu zen debeku hori, Kordoban besteak beste (Casanova, 2001, 94). Baina alderantziz ere jokatu zuten: Donostiako agintari frankistek Polloeko udal hilerria txukundu egin zuten, gurutze berriak jarri eta Frente Popularrak eragindako biktimen omenezko hilarri bat ipini zuten. Bezperan, agintarien deiari erantzunez, ehunka lagun joan ziren kanposantura senideen hilobiak txukuntzera, eta horietako askok lore gorri eta horiak erabili zituzten hildakoei eskaintzeko, bandera espainolaren kolorekoak hain zuzen.

> Este año, la fiesta de Todos los Santos y el día llamado de Difuntos, reviste una excepcional importancia, la visita tradicional que se hace a los muertos, tiene hoy caracteres de una manifestación, que carece de nombre, es mezcla de protesta muda nacida en el fondo del alma dolorida por tanta y tanta pena y es a la vez pleitesía rendida a los mártires de la Patria asesinados por confesar la fe de Cristo.

Egun horietan hasi ziren Hernanin egin beharrean Oiartzunen fusilatzen. Iturri batzuen arabera, Bilbo erori aurretik, 100 lagun baino gehiago exekutatu zituzten Oiartzunen. Lehenengo kanposantuan, eta geroago, era diskretoagoan, Artikutzarako errepidean (Gamboa-Larronde, 2006, 345).

## Azken exekuzioak

Exekuzio bakan batzuk gehiago gertatu baziren ere, guk ziurtasunez aipa ditzakegun Hernaniko azken heriotzak azaroaren 5ean izan ziren. Fusilatzeak ia bat-batean etetearen arrazoiak azaltzeko era guztietako teoriak sortu ziren. Gure ustez, azalpenik zentzudunena apaiz abertzaleen hilketarekin lotuta dago (aurrerago aztertuko dugu zehatzago). Antza denez, urriaren 26 inguruan, Donostiako Acción Católicako presidentea eta Gobernu Zibilaren aholkularia zen José Ángel Lizasoainek 9 apaizen fusilatzeen berri eman zion Gomá kardinalari. Egun bertsuetan, baina ez dakigu zeinetan zehazki, aita Urrizak elkarrizketa bat izan zuen Gomárekin gertaeren berri emateko. Urriaren 26an bertan jakinarazi zien Gomák Dávila jeneralari (Estatuko Junta Teknikoko burua) eta Franco jeneralari berari zer ari zen gerta-

107 Hernaniko Udal Artxiboa (HUA // HISTORIKOA / E-5-II-27/15 Gerra Zibila 1936-1939. Denetik).

108 Hernaniko Udal Artxiboa (HUA // HISTORIKOA / A-15-1/16. Kanposantuari buruzko agiriak 1866-1936).

tzen, eta horiek erantzun zioten ziurtasun osoz horrelakorik ez zela berriz gertatuko. Hala ere, azaroaren 8an, Jorge Iturricastillo apaiza exekutatu zuten Oiartzunen.

Astebete geroago, azaroaren 17an, Seigarren Eskualde Militarreko buru zen De Benito jenerala kendu zuten postutik. Azaroaren 30ean, Arturo Cebrián y Sevillari (Gipuzkoako gobernadore militarra) heldu zitzaion Francorengandik zuzenean postua uzteko ebazpena eta oso egoera ez-ohikoan geratu zen orduko gobernadore militar ohien artean "disponible forzoso en la 6ª División". Gainera, kargugabetze horrek bazuen zerikusiren bat bi gizon alemaniar desagertzearekin. Hebert eta Erwin Reppekus aita-semeak Donostian bizi ziren eta falangistek eskoltaturik Luzaideko mugara iritsi behar zuten, baina ez ziren inoiz heldu[109].

Alfonso Velarde Arrieta artilleriako koronela jarri zuten Cebriánen ordez, eta 1938ko uztailaren 28ra arte egon zen kargu horretan; antza, hiritarrek zioten maitasun eta errespetu handiak bazuen zerikusiren bat hiriburuko goarnizio-erregimentuaren buru izatearekin. Velardek ere polemika berri bat piztu zuen: abertzaletzat katalogaturik zeuden apaizen aurkako neurri gogorragoak eskatu zizkien Elizako agintariei. Beste bando batek ere lagundu zion ospea irabazten: kalean gazteleraz baino ezin zitekeen hitz egin. Herritarren arteko batasuna lortzeko eman omen zuen agindua, eta ez eskualdeetako hizkuntzak gutxiesten zituelako: «eliminar causas que tiendan a desunir a los gobernados. (...) Como esto en nada indica menosprecio de los idiomas regionales, sino una exaltación patria que nos apiñe en las manifestaciones de nuestros entusiasmos, espero del patriotismo de todos contribuyan a ello, sin que tenga que corregir resistencia alguna»[110].

Cebrián kargutik kendu baino astebete lehenago, azaroaren 22an, Llamasek instrukzioko epaile postua utzi zuen. Ohikoa zen destinoz aldatzea, eta ez da pentsatu behar halabeharrezko kargugabetzea izan zenik. Esate baterako, azaroaren 10ean Seigarren Dibisio Organikora aldatu zen José Pérez Villamil Dibisioko Auditorea. Geroagoko idazki batean baieztatu zuen arineketan atera zela Donostiatik Toledoko batailoi baten agintea hartzeko, eta horrek, hain zuzen, egiten du berezi Llamasen kasua. Zergatik? Zerikusiren bat izan zuen destinoa aldatzean frankisten zapalkuntza--estrategiaren bilakaerak, ordura arte bereizketarik gabe emandako zigorrei muga jartzearren? Zergatik bidali zuten berriz frontera, batailoi baten buru, epaile militar berezia izan ondoren Burgosen eta Donostian? Zigorra izan zen? Inolako bereizketarik gabe egindako hainbeste exekuzioren arduradun izana –apaizena eta elizgizonena barne– ordaindu behar al zuen? Llamasen espediente militarrean dauden agiriek ez

109 AGMS II GU: c-111.

110 www.euskaraz.net/donostia/gorosti/testuak/00066.htm. Aurretik, Arellanok behartu zuen Principal Antzokiaren enpresaria iragarki batean agertzen zen Alkorta abizeneko k kendu eta c jartzen. *Euzkadi Roja* 74, 1936-12-17.

digute inolako erantzunik eskaintzen, baina nolabaiteko zigorra izan bazen ere, ez zen eragozpen handia izan karguak hartzen jarraitzeko; izan ere, 1937ko urrian Marokoko Mendebaldeko Barrutiko Komandante Nagusiaren Landako Laguntzaile izendatu zuten. Zenbait zurrumurruren arabera, heriotzarekin ordaindu zuen Donostian egindakoa, Gipuzkoatik irten eta bi hilabetera (Sierra, 2001, 415), baina ez zen orduan hil, 1938ko uztailaren 4an baizik, Castellongo frontean, gerran[111].

1937ko martxoaren 23ra arte egon zen bere karguan Agustín Prado alfereza; harrezkero, hegazkinen aurkako babes-erregimentu batetik bestera ibili zen. 1940ko urrian –ordurako kapitain laguntzailea zen– Irungo Mugako Epaile Militar Berezi izendatu zuten, kargudunen artean nolabaiteko maila eskatzen zuen postua, nonbait, «cargo delicadísimo y de extrema confianza del Gobierno y de las Autoridades Militares». Handik gutxira, 1941eko martxoaren 15ean Armadako Eskala Profesionalean sartu zen, Interbentzio Militarreko Taldean. Tarteka aritu zen abokatu-lanetan, baina oso denbora gutxian. Ingunzak (Ordena Publikoko Juntako idazkaria)1937ko maiatzaren 23ra arte jarraitu zuen karguan, eta gero Valladolideko VII. Armada Gorputzean sartu zen.

Nola ulertu behar dira leku-aldaketa horiek guztiak? Ez dira interpretatu behar, derrigorrez, kudeaketa txar baten ondoriozko zigor gisa. Cebrián, hilabete eskas geroago, Brigadako Jeneral mailara igo zuten eta Iparraldeko Armadako Kuartel Nagusira bidali. 1939ko abuztuan , Coruñako Gobernadore Militar izendatu zuten, eta handik bi urtera, Dibisioko Jeneral. De Benito jeneralaren ordezkoa, Eliseo Álvarez-Arenas (hau ere Afrikan borrokatutakoa) abenduaren 9ra arte baino ez zen egon karguan, eta José López Pintok hartu zuen haren lekua. Baina, De Benito Afrikara bidaltzea ez zen inondik inora zigorra izan, kontrakoa baizik, hau da, karguetan oso gora igotzen lagundu zion urrunaldiak: Ordena Publikoko Idazkariordetzara, 1939an Kataluniako Okupazio Indarren buru izatera, Guardia Zibilaren Zuzendaritza Nagusira eta Valentziako Goi Jeneraltzara heldu zen. Azken horretan, nahiz eta aspaldi bukatu gerra, preso politikoei eman zien tratu gogorrarengatik nabarmendu zen, gainera, epaiketetan akusatuak defendatzea egokitzen zitzaien militarrak mehatxatzen zituen, zeregin hori bete ez zezaten (Balcells, 2001-2002).

Urte bereko azaroaren 12an kargugabetu zuten Manuel Díaz Criado kapitaina, Gobernuaren ordezkari militarra Andaluzia eta Extremaduran, eta Legiora bidali zuten, Talaverako frontera hain zuzen. Bi bertsio daude kargutik kentze hori azaltzeko. Lehenengoaren arabera, militar bat fusilatzeko agindu zuen Díaz Criadok, Molak kontrako agindua eman arren (Ortiz, 1998, 163). Bigarren bertsioaren arabera,

111 AGMS. Ramiro Llamas del Toro Infanteriako komandantearen espediente pertsonala. Gainerako militarrei buruzko datuak ere Artxibo beretik atera dira.

Portugaleko kontsulordea atxilotzen saiatu zen, espioia zelakoan, benetan Nicolás Francoren zerbitzura lanean ari zela (Espinosa, 2000). Garrigós komandantea jarri zuten Díaz Criadoren ordez, eta indartu egin zuen errepresioa: aurrekoaren hatzaparretatik ihes egindako asko fusilatu zituen honek. Beraz, badirudi baduela zentzua pentsatzeak heriotza eskandalugarrienen arduradunak Francok eszenategitik urrutiratu zituela, baina ez egindakoagatik zigortu.

Edozein modutan, azaroaren bukaeratik aurrera eta bereziki 1936ko azkenetatik aurrera, nabarmen jaitsi ziren epaiketarik gabe edo legez kanpo egin ziren exekuzioak, eta egin zirenak gerra-kontseiluen ondorio izan ziren; orain arte ere esan dugun bezala, ez ziren errespetatzen prozesatuaren eskubiderik oinarrizkoenak, baina ateratzeen bideak baino berme handixeagoa zuten. Beste probintzia batzuetarako ere balio du orain arte esandakoak; Segovian, esaterako, irailerako amaitu ziren ateratze irregularrak. Zaragozan, Eguberriak baino egun batzuk lehenago eten ziren falangistek Academia General Militarrera egindako bisitak, askatzeko aginduak ugaritu egin ziren eta eraginkorragoak izan ziren epaitegi militarrak. Errioxan ia erabat desagertu zen ateratzeen sistema 1937ko lehenengo egunetan, baina exekuzioek jarraitu egin zuten. Errioxako kartzeletan zabaldu zen Burgosetik agindu zutela (Espainia frankistako hiriburua) legez kanpoko atxiloketak eteteko. Francisco Espinosaren arabera (Casanova, 2002, 86), Andaluziako komandantzia militarrek 1936ko abenduan agindu bat jaso zuten, atxilotuak gerra-kontseiluen zain uzteko esanez. 1937ko idazki batean, Múgica gotzainak ziurtatu zion Vatikanori debekatuta zegoela apaizak hiltzea zioen Francoren telegrama bat jaso zela Donostian azaroaren 6an[112]. Ez dugu ezagutzen horrelako baieztapenak froga ditzakeen dokumenturik, baina, hala ere, bat gatoz, frankisten kartzeletan egoniko asko eta askoren testigantzetan oinarriturik. 1937ko urtarrilaren 24an *Eusko Deya*k publikaturiko artikulu batean esaten zen, berriro ere atxiloketen bolada bat hasi zela eta jendea Baionara ihesean zihoala, eta horrekin batera zekarren honako berri hau, hots, Nafarroako kartzeletako zaintzaileak kendu zituela Francok egindako gehiegikerien zigor moduan, «La sanguinaria ferocidad de las autoridades locales ha llegado hasta el extremo, que el mismo Franco ha destituido a los guardias de las prisiones de Navarra, por haberse extralimitado en sus funciones, asesinando a los presos y cometiendo toda clase de atropellos»[113]. 1937ko urtarrilaren 13ko Francoren zirkular baten berri dugu, ordutik aurrera atxiloketa guztietan argitze-agiriak betetzeko esanez, eta zegokien epaitegietan haien

112 Telegrama berean, antza, masoien infiltrazioak aipatzen ziren, eta gotzainak, gehiago zehaztuz, Cebrián gobernadore militarrari leporatu zion masoi izatea (Esnaola & Iturrarán, 1994, 807). Hortaz, euskal abertzale izatearen akusaziopean apaizak hiltzea, Sabino Aranaren jarraitzaileak karlistengandik urruntzeko maniobra bat baino ez zen izan, horrela Falangea sendotzeko tradizionalisten aurrean.

113 "Noticias de Euzkadi", *Euzko Deya* 17, 1937-1-24.

berri emateko[114]. Azaldutako "baretze" prozesu hau ez zen aldi berean gertatuko altxatutakoen mende zeuden lurralde guztietan, 1936ko urritik 1937ko hasierara joango zen hedatzen. Andaluzian, esate baterako, preso guztiak pasatu ziren Justizia Militarraren mende apirilean.

Estrategia-aldaketaren arrazoiak ezberdinak izan zitezkeen, baina orain arte ere aipatu dugu, gure ustez eragin erabakigarria izan zutela apaiz eta elizgizon abertzaleen aurka hartutako neurriek. Gertakari horien aurrean Vatikanok eta Espainiako Elizak ez zutenez inolako erantzunik eman, ugaritu egin ziren haien aurkako kritikak, baina Francok bi erakunde horien laguntza eta lankidetza behar zuen, "kruzada" bihurtu eta gerra irabazteko. 1936ko udako eta udazkeneko hilketa masiboek izan zuten oihartzunak, García Lorcaren heriotzarenak tartean, aldarazi zuen agintari frankisten jarrera. Horiez gainera, beste arrazoi batzuk ere egon ziren: uztailetik abendura bitartean hil zituztenez "susmagarri" ustez arriskutsuenak, ordutik aurrera ez zen beharrezkoa hain gogor erabiltzea indarkeria fisikoa lurralde okupatuak kontrolatzeko; funtsezkoena eginda zegoen eta oso zaila zen erritmo berean hiltzen eta exekutatzen jarraitzea. Beste arrazoi posible bat ere badago: ez zela uste bezain eraginkorra hain errepresio gogor eta odoltsua; izan ere, hainbeste lagun hiltzeak eta fusilatzeak eragotzi egin zuen nolabait errepresioaren jarraipena, zapalkuntza-esparrua zabaltzeko behar zen informazioa lortzeko aukera (atxilotutakoak) desagertu egin baitzen. Garai hartan zabaldu zen beste zurrumurru baten arabera, frankisten aholkulari ziren polizia alemaniarren gomendioz baretu zuten estrategia errepresiboa, eraginkorragoa izan zedin. Geroago izan bazen ere, 1938ko apirilean, erakunde berri bat sortu zuten, jarrera-aldaketaren adierazgarri. Alde errepublikazaleko erakunde, talde era pertsonei buruzko dokumentazioa eskuratu, sailkatu eta zaintzeko Ordezkaritza zen. Frankisten eskuetan erortzen ziren errepublikarren aurkako frogak biltzea izan zen orduko helburu nagusia; azken bolada honetan hain istilutsu eta eztabaidatua izan den Salamancako Artxiboan gorde zen bildutakoa. Orain arte esandakoaz gainera, bestelako arrazoiak ere aipatu izan dira. Julián Casanovaren ildotik, zenbait faktore azaldu ditu Javier Rodrigok errepresio paralegala erregularizatzeko erabakiaren eragingarri izan zitezkeenen artean. Alde batetik, gatibu gehiegi egotea frankisten mende; bestetik, matxinatuekin batera armadan borroka zezaketenak eta ezin zutenak bereizi beharra; eta, azkenik, Zona Nacional-eko baliabide ekonomikoak optimizatzeko erabil zitezkeela presoak pentsatu izana[115].

114 AHN, Fondos Contemporáneos. Gobernación B-48936.

115 J. Rodrigo: "Campos en tiempos de guerra. Historia del mundo concentracionario franquista (1936-1939)" *in* Molinero, 2003, 21.

Beste aukera bat ere badago, beharbada, Burgoseko Defentsa Nazionaleko Juntak, Nazioarteko Gurutze Gorriaren bitartez, gatibuen trukerako bultzaturiko negoziazioak bide onetik eramateko, komenigarria izango zen Gipuzkoako exekuzioak gutxitzea[116]. Trukearen ondorioz aske geratuko ziren preso eskuindar edadetuenak alde batetik (Ezquiaga, 1938, 15-17), eta preso errepublikar ez-borrokalariak bestetik, baina porrot egin zuen negoziazioak hitzarmenaren aurrean uzkur agertu zirelako altxatutakoak, eta hala adierazi zuten hil bukaeran egin zuten bilera batean[117]. Dena den, Franco beti agertu izan zen presoen arteko trukeen aurka, alemaniarrak edo italiarrak izanez gero baino ez baitzuen onartzen trukea (Martínez de Pisón, 2005, 175).

Estrategia-aldaketa azaltzeko balio lezakeen azken argumentua aztertuko dugu. Konfliktoaren lehenengo fasean, salbuespenak gorabehera, borrokaldi txikiak, istiluak eta polizia-operazioak izan ziren gerraren ezaugarriak, baina 1936ko azarotik aurrera benetako armaden arteko borroka gogorrak hastearekin batera, sumatu zuten frankistek luzea izan zitekeela gerra. Eta horrek, halabeharrez, lehenengo hilabeteetan gauzaturiko zapalkuntza-estrategia (antolatua edo ez) aldarazi zien. Estatu berria eratu beharra (1936ko urrian Estatuko Junta Teknikoa sortu zen eta horren mendeko erakundeak) eta nazioarteko onespena eskuratzeko ahalegina ezin ziren batera joan estrategia errepresibo gogor, basati, araugabe eta berme juridikorik gabekoarekin. Errealitatean, Hernanin, bereizketarik eta gupidarik gabe gauero pertsona-piloa fusilatzen zen bitartean, urriaren 24an Justizia Militarreko Goi Auzitegia (geroagoko Justizia Militarreko Kontseilu Gorena) eratzea erabaki zuen Defentsako Junta Nazionalak. Erakunde berriaren zereginen artean zegoen, besteak beste, zigor-konmutazioak eta prozesatuen errekurtsoak aztertzea. Francisco Gómez Jordana teniente jenerala izan zen erakundearen lehenengo presidentea, eta 1937ko uztailera arte bete zuen kargu hori, ondoren Estatuko Junta Teknikoko buru izendatu zuten. Abenduaren 1ean zehaztu zen zein baldintza behar zen Indar Armatuetan funtzio judizialak bete ahal izateko: letratua izan behar zen Gorputz Juridikoko partaide izan ezean.

Heriotzek eta desagertzeek familietan eta ondasunetan eragindako ondorioak erregulatze aldera, funtzio gehiago esleitu zitzaizkion Azken Borondateen Erregistroari, azaroaren 8tik aurrera, eta hildakoak erregistro zibiletan apuntatzeko baimena eman zen. "Marxismoaren aurkako borrokaren" barnean sartu zen dekretua eta konfliktoan hildako guztiak hartzen zituen, borrokalariak izan nahiz ez izan.

116 Pelletierren arabera (1937, 93-94), azaroan Gurutze Gorriko ordezkari bi joan ziren kartzelara, gatibu ez-borrokalariak trukatzera. Bisita horrekin batera jaitsi egin ziren fusilatzeak. Baina ezin izan zen inor trukatu, aldatu beharrekoak hilda zeuden eta. Bilbon ez zuen inork pentsa *Galerna*ko bidaiariak fusilatuko zituztela, baina hala izan zen eta militar-buru matxinoen truke aldatzeak porrot egin zuen.

117 "La Junta de Burgos se opuso al canje de 4.000 prisioneros", *Euzko Deya* 13, 1937-1-10.

Dena den, alde nazionalean eroritakoen artera joan ziren onura gehienak, eta ez zen eragozpena izaten, betiere errepublikarrek hilez gero, artean gorpua berreskuratu gabe izatea. Dekretua gorabehera, urte askotan jarraitu zuten *desagertuak* izaten hildako errepublikarrek, ezin izan baitziren erregistroetan sartu gutxienez 40ko hamarkadako erdialdera arte. Esate baterako, Hernanin fusilatu zuten 1936ko udazkenean Raimundo Gamboa, baina heriotza-ziurtagirian 1944ko urtarrilak 7 dakar (Gamboa, 2004).

Azaltzen saiatu garen bilakaera honetan, eragin handiegirik izan ez zuen datu bakarra Gobernadore Jeneralaren aldaketa (Barne Arazoetarako Ministroaren parekoa) izan zen; Francisco Fermoso Blancoren ordez (1936.10.4 / 1936.11.4) Luis Valdés Cabanillas (1936.11.4 / 1938.01.31) jarri zuten eta aldaketak nolabaiteko eragina izan zuen alderdietako milizien kontrolean, baina ez errepresioaren ondoriozko heriotza-kopuruaren jaitsieran. Laburtuz, horren guztiaren eraginez, arindu egin zen apur bat "justizia" eta gehiago hartu ziren kontuan egiteko moduak. Hala ere, atzeraeraginezko justizia zen neurrian, Altxamendua gertatu zenean egon ez ziren delituen araberakoa zen, eta matxinatutako agintari militarren borondatearen eta premien mendekoa. Justiziak mugatua izaten jarraitu zuen, muga juridiko, politiko eta ideologikoek baldintzatua (Gil Bracero, 1990, 604).

Aldaketaren beste eragile bat Franco bera izan zen; izan ere, botere guztia bereganatu nahia ez zetorren bat aginte autonomoekin, eta azken horiek indarra galdu behar izan zuten. Eskuineko miliziak militartzearen helburua (1936ko abenduaren 10eko eta 20ko dekretuak) ez zen izan hilketak amaitzea, baizik eta borrero eta biktimengan kontrol militarra ezarri nahia eta jokabide beregainari aukera eman ziezaioketen eremuak kentzea (Prada, 2006, 199). Garai hartako hitzetan esanda, «[había que] concentrar en un solo poder todos aquellos que han de conducir a la victoria final y al establecimiento, consolidación y desarrollo del nuevo Estado, con la asistencia fervorosa de la Nación». Beraz, ez da arraroa Armadara, Itsas Armadara eta Aire Armadara lotutako hiru sekzioez gain Justizia Zerbitzu bat izatea Generalísimoaren Gerra Idazkaritzak. Ez dakigu zehatz zein unetatik aurrera gertatu zen, baina Francok berak hartu zuen bere gain gerra-kontseiluetako heriotza-zigorrak berresteko ardura. Horrela, behin sententzia emanda, ia beti onartzen zuen Dibisio Organikoko edo Eskualde Militarreko Gerra Auditoriak, eta Generalísimoaren Kuartel Nagusiko Aholkulari Juridikoari bidaltzen zitzaion, Lorenzo Martínez Fusset koronelari hain zuzen. Ramón Serrano Súñer-en memorien arabera (1977, 243-244), Martínez Fussetek bazkalostean, kafearen orduan hartzen zituen hainbat pertsonaren bizitza eteteko erabakia, «se presentaba, corrientemente a la hora del café, después del almuerzo, con una relación siniestra para el "enterado" de las penas de muerte por el jefe del Estado». Baina, beste edozein tartetan ere betetzen zuen zere-

gin hori, automobileko bidaietan esate baterako[118]. Serrano Suñerrrek ez du aipatzen noiztikakoa den ohitura hori, baina kontuan izan behar da 1937ko otsailean heldu zela bera Salamancara, Espainiar errepublikarretik ihesean; beraz 1936ko eguberri ingurutik aurrera gerta zitekeen kontatutakoa.

118 Generalísimoaren "eskuzabaltasunari" eta ontasunari buruz, ikus Martín Rubio, 2005, 184-188.

VII

# BI EGOERA BEREZI: *GALERNA*KO FUSILATZEAK ETA ELIZGIZONENAK

## *GALERNA*, FUSILATZE BATZUEN HISTORIA

1936ko urriaren 15ean, *Galerna* izeneko bakailao-ontzia Baionatik atera zen Bilbora joateko asmotan. Eguerdian abiatu zen Lapurdiko hiriburutik eta barnean tripulazioa eta pasaiariak zihoazen. Horretaz gain, *Galerna*k korreoa eta dokumentuak zeramatzan Bilbora. Gipuzkoako kostaldea frankisten esku zegoen orduko, baita Pasaiako portua ere, eta barku errepublikarrek kontuz ibili behar zuten haien erasorik ez jasateko; izan ere, errepublikarrak eta frankistak borroka gogorrean ari ziren momentu horretan, kostaldeko itsas trafikoa nork eskuratuko. Arratsalde partean *Galerna* Pasaiako kostatik gertu pasa zen, 17 miliatara, eta Bilbora bidean jarraitu zuen, pentsatu bezala. Une horretan Pasaiako portutik hainbat ontzi atera zirela ikusi zuten bidaiariek; arrantza-ontziak zirela pentsatu zuten. Baina, laster konturatu ziren artileriarekin hornitutako *bou* frankistak zirela. *Galerna* inguratu eta kainoikada batzuen ondoren, preso hartu zuten ontzia. Iluntzen ari zuen frankistak beren botinarekin Pasaiako portura iritsi zirenean. Ez zen frankistek harrapatu zuten itsasontzi bakarra, baina bai oihartzun handiena izan zuena.

### *Bakailao-ontzitik gerrarako ontzi armatura*

*Galerna* Eskoziako Hall Russell ontziolan eraiki zuten 1927an. 1.204 tona pisatu eta 70 metro luze neurtzen zituen osotara. PYSBE enpresak eman zion eraikitzeko enkargua ontziola eskoziarrari (Pardo, 1991, 70). Izenak dioen bezala, PYSBE (Pesquerías y Secaderos de Bacalao de España) bakailao-industrian lan egiten zuen enpresa zen, 1919an Luis Legassek eta Gandioso de Celayak sortua; geroago enpresa anonimo egin zen eta Alfontso XIII.a erregea izan zen bazkide nagusietako bat. Kasualitate hutsa izan arren, merezi du komentatzea bere akziodunen artean César Balmaseda Ortega zegoela, 1936ko urrian Gipuzkoako Junta de órden Público-ko kidea. Garai haietan Espainiako barnealdeko eremuetan gehien jaten zen arraina bakailaoa zenez, ete-

kin handiak ikusi zituzten industria horren atzean, eta ez zuten hutsik egin. Hasieratik Pasai Donibanen jarri zuten PYSBEren egoitza; bertan zeuden enpresaren pabiloiak, bakailaoa lehortzeko barneak, ontzientzako kaia... alegia, 22.000 m$^2$ Pasaiako badiaren erdi-erdian. Datu horrek erakusten du nolako garrantzia izan zuen itsas enpresa honek, ez bakarrik Euskal Herrian, baita Europan ere, Pasaia kontinente zaharreko bakailao-portu garrantzitsuena bilakatu baitzuen urte gutxian (Tolosa, 2000, 366).

Langile eta arrantzale asko behar izan zituen PYSBEk lana aurrera ateratzeko. Hasiera batean, bakailao-ontzietan, batez ere Islandiatik eta Frantziatik ekarritako marinelak eta ofizialak aritu ziren, baina euskaldunek eta galiziarrek ordezkatu zituzten pixkanaka, lana nola egin ikasi zuten heinean. Ternuara, Labrador penintsulara, Norvegiako iparraldera, Groenlandiara..., urrutirako bidea hartzen zuten urtean bitan PYSBEko itsasontziek, bertako marinelak soldadutzatik libratzen ziren gainera, denbora luzez aritzen baitziren ur hotz haietan arrantzan. Hotzak eta izoztuak ziren itsaso haiek, eta izotzari aurre egiteko moduko ontziak egin zituen enpresa pasaitarrak, bapore bidez mugitu eta altzairuzko kroskoa zuten itsas makinak, alegia. Horrek markatu zuen barku horien etorkizuna Gerra Zibilean. Hasierako bi bakailao-ontziak, *Euskal-Erria* eta *Alfonso XIII*, frantziarrek egin zituzten. Horren ondoren beste sei ontzi egiteko agindu zuten enpresaren nagusiek: *Galerna, Vendaval, Mistral, Tramontana, Abrego* eta *Bierzo*. Bistan denez, denek hartu zituzten haizearen izenak eta 1.200 tonatik gora pisatzen zuten. Funtsean, munduko bakailao-ontzidi onenen artean zegoen PYSBErena garai hartan.

Gerra Zibila hasi zenean, agintari errepublikarrek ez zuten ontzidi boteretsu hori erabiltzeko aukera galdu. Uztailaren 18an Ternua aldera joateko prestatzen ari ziren bakailao-ontziak, baina abuztuaren 6an Gipuzkoako Defentsa Batzordeak PYSBE enpresaren instalazioak konfiskatu zituen. Irailean, Francoren tropek Irun bereganatu eta gero, ihesaldia hasi zen. Beldurra nagusitu zen zibilen artean eta Donostia eta inguruko herrien ebakuzioari ekin zioten. Bakailao-ontziek milaka lagun eraman zituzten Bilbora, hainbat egunetan; irailaren 12an *Galerna*k eta *Vendaval*ek azkeneko bidaia egin zuten jendez gainezka, eta, kasik aldi berean, nafar erreketeak iritsi ziren Pasaiako portura. Pasaian, konponketak behar zituzten ontziak utzi zituzten soilik, gainerakoak Bilbora eraman zituzten edo bestela Ingalaterrara alde egin zuten, bakailao-arrantzarekin jarraitzeko. Artean, *Tramontana* eta *Abrego* ontziak oraindik guztiz eraiki gabe zeuden. Danimarkako ontziola bati enkargatu zizkion PYSBEk eta 1937rako bukatu zituzten. Euzkadiko Gobernuak hainbat ordezkari bidali zituen Danimarkara, ontziak bereganatzeko asmotan, baina Francoren ordezkariak ere han ziren. Horren aurrean Danimarkako gobernuak erabaki zuen gerra amaitu arte ontziak bertan geratuko zirela, ez batzuentzat eta ez besteentzat.

Urri aldera Errepublikako Gobernuak hainbat gerra-ontzi bidali zituen Kantauri itsasora, flota frankistari aurre egiteko. Gerra hasi zenetik, errepublikarrek zailtasun handiak izan zituzten Kantauriko kostaldean itsas trafikoa kontrolatzeko, Ferrol-en zegoen Espainiako gudarosteko flotaren gehiengoak bat egin baitzuen altxamenduarekin. Donostia ebakuatu zutenetik, PYSBEko ontzi gehienak Bilboko portuan zeuden, Bizkaiko Defentsa Batzordearen esku. Batzorde horrek erabaki zuen *Vendaval* eta *Galerna* ontziak Baionatik Bilborako korreo-lanak egiteko erabiliko zituztela, urrian iritsitako gerra-ontzi errepublikar horien babesean. Zeregin horretan ari zela harrapatu zuten *Galerna* ontzia, urriaren 15eko egun lazgarrian.

### *Frankistak "arrantzan"*

"El buque pirata *Galerna* es capturado a 18 millas de Pasajes", (*Galerna* ontzi pirata Pasaiatik 18 miliatara harrapatu dute). Titular horixe zekarren *La Voz de España* egunkari tradizionalistak urriaren 16an. Itsasontzi errepublikarra frankisten eskuetan erori izana garaipen handi bat izan balitz bezala ospatu zuten lurrera iritsi orduko, eta prentsa frankistak xehetasun guztiekin kontatu zuen itsasoan gertaturikoa. *Virgen de Icíar* itsasontzian erreketeak zihoazen, *Denis* izenekoan falangistak, *Alcázar de Toledo*n (orduantxe liberatu zuten Mantxako hiriburua frankistek) eta *Virgen del Carmen* ontzietan aldiz, Galiziatik etorritako bolondresak[119]. *La Voz de España*ren esanetan, lau ontziak hurbildu zirenean, *Galerna*k bira egin zuen, baina hainbat kanoikada jotzea nahikoa izan omen zen errendiziorako. Egunkariak zioen ontzi errepublikarrak mezu bat bidali zuela irratiz, eta *bou* frankistek estualdi latza pasa behar izan zuten gerra-ontzi errepublikar bat hurbildu zitzaienean. Azkenean, argiak itzalita, ziztu bizian itzuli behar izan ziren portura. Barruan 80 lagun zihoazen egunkari donostiarraren arabera, horietatik 28 tripulanteak eta beste 50 inguru pasaiari, horien artean emakumeak eta haurrak ere bazeuden. Pasaiarien artean hainbat izen ezagun nabarmendu zituen *La Voz de España*k eta gainerakoak "miliziar gorriak" izango zirela suposatu zuen (ez zuen argitzen haurrak miliziartzat hartzen ote zituen). Antza denez, dokumentazioz beteriko 150 zaku atzeman zituzten *Galerna* barruan, eta egunkariak zioen itsasontzia harrapatu aurretik dokumentazio ugari bota zutela uretara bidaiariek. Atxilotuak bi autobusetan eraman zituzten Donostiako Ondarretara, eta tripulazioa, aldiz, itsasontzian geratu zen.

Hurrengo egunean, hilaren 17an, *El Diario Vasco* egunkariaren txanda etorri zen. Ez zuen nolanahiko artikulua kaleratu egunkari horrek. Hitz oso gogorrak eta

119 Hilabete batzuk geroago *Virgen del Carmen*eko marinelek itsasontziko ofizialak atxilotu eta Bilbora joan ziren, Errepublikarekin bat eginez (Iñurrategui, 2006, 104).

akusazio zuzenak egin zituen *Galernan* zihoazen pasaiarien kontra eta, batez ere, Jose Ariztimuño "Aitzol" apaiz abertzalea izan zuen jomuga nagusi: "maltzurra", "astakirtena" eta "apaiz separatista", horiek dira *El Diario Vasco*k Ariztimuñori esan zizkion irain gozoetako batzuk. Akusazio gogor haien eta artikuluan jasotako tonu mehatxagarriaren eredu gisara, hemen pasarte bat: «Me cuentan los chismes del barco: al cocinero gordo y lustroso lo llevan como pieza de gran peso, para cuando un barco rojo tarde en hundirse». Diario Vascok *Galerna* porturatu zeneko bi argazki ekarri zituen bere erreportajean eta horietako batean bidaiari batzuk ageri dira.

Baina, zein ziren pasaiari horiek? Eta zer egiten zuten itsasontzian? Lehenengo galdera argitzea errazagoa da bigarrenari erantzutea baino. Jakin, badakizkigu itsasontzian zeuden pertsona gehienen izenak, Baionako espainiar Kontsulatuaren txosten batean azaltzen baitira horiek. Horretaz gain, Euzko Jaurlaritzak egindako beste zerrenda bat ere badugu. Nabari da bigarren zerrenda hau presaka egin zela, akats ortografiko ugari baititu, eta gainera hainbat aldaketa azaltzen dira Kontsulatuaren zerrendarekin konparatuz gero[120]:

*GALERNA*KO BIDAIARIEN ZERRENDA OFIZIALAK

| **Baionako espainiar Kontsulatua** | **Euzkadiko Gobernua** |
|---|---|
| Aurora Garrigos | Aurora Garrigoz |
| Ignacio Villaverde | Ignacio Villaverde |
| Pedro Baras | Pedro Paraz |
| Maria Velez | Maria Perez |
| Leonor Modrego | Leonor Modrego |
| Maria Jesus Modrego | Maria Jesus Modrego |
| José Luis Modrego | José Luis Modrego |
| Maria Luisa Modrego | Maria Luisa Modrego |
| Maria Oteiza | Maria Oteiza |
| Pedro Mari Jauregui | Pedro Maria Jauregui |
| Maria Lourdes Jauregui | Maria Lourdes Jauregui |
| Avelino Sala | Avelino Salva |
| Aurelio Alvarez | Aurelio Alvarez |

120 Abertzaletasunaren Agiritegia. GE-K00382-C.1 (eranskina). Baionako kontsula Pedro Lecuona zen eta berak sinatu zuen txostena. Horretaz gain, beste zerrenda bat ere ageri da Euzkadiko Jaurlaritzak egina: "Relación de las personas que vienen en el vapor *Galerna* cuando fue apresado, y que se encuentran en San Sebastián".

| | |
|---|---|
| Manuel Guruceaga | Manuel Lizarraga |
| Benito Caviña | Benito Trevilla |
| Juan Antonio Landín Urreta | Juan Antonio Landi |
| Zacarias Elustondo Zulaica | Zacarias Eluztondo |
| Manuel Rivero Flor | Manuel Rivero Flor |
| Francisco Rivero Perales | Francisco Rivero Perales |
| Joaquin Cartón Pajares | Joaquin Cartón |
| Martina Garralda | Martina Garralda |
| Rafael Pueyo | Rafael Puello |
| Pilar Pueyo | Pilar Puello |
| Eugenio Pueyo | Eugenio Puello |
| Juan Miranda | Juan Miranda |
| Encarnación Oliden | Encarnación Oliden |
| José Cerdan | José Cerdal |
| José Navamuel Castillo | José Zababuel |
| Miguel Artola | Miguel Artola |
| Felisa Gastaminza | Felisa Gastaminza |
| José Ariztimuño Olaso | José Ariztimuño |
| Natividad Aldazabal | Natividad Aldazabal |
| Teresa Manrique (eta hiru seme-alaba) | Teresa Manrique |
| Teófilo Monge (eta 7, 8 eta 9 urteko hiru ume) | Teofilo Monje (eta 7, 8 eta 9 urteko hiru ume) |
| Francisco Saizar | Francisco Saizar |
| José Jurico | José Jurico |
| Salvador Jauregui (ez da ontziratu) | Salvador Jauregi |
| Tomás Larrinaga | Ez da agertzen |
| Andres Lecertua | Andres Lecertua |
| Raimundo Gamboa | Raimundo Gamboa |
| Jean Pelletier | Juan Pelletier |

Zerrenda bien artean aldaera batzuk sumatzen dira, akats ortografikoez aparte. Alde batetik, ikusten da Salvador Jauregi ez zela *Galerna*n ontziratu, baina Jaurlaritzak egindako zerrendan bidaiarien artean agertzen da. Bestetik, Tomás Larrinagaren izena azaltzen zaigu Kontsulatuaren zerrendan (Larrinaga Algortako enpresaria eta Galdakaoko organo-jolea zen), baina izen hori ez da ageri bigarren zerrendan. Gainera, Teresa Manriquek hiru seme-alabarekin bidaiatzen zuela dio espreski

Kontsulatuak eta Euzkadiko Jaurlaritzak egindako zerrendan ez da horri buruz ezer esaten. Guztira 40 lagun baino gehiago azaltzen dira, beraz, eta horretaz gain tripulazioa aipatzen du, baina ez du horien izenik ematen[121]. Honaino iritsita, komeni da geldiune bat egitea. Izan ere, *Galernan* zeuden bidaiariak benetan dira zerrenda ofizialetan azaltzen direnak? Ez ote ziren pasaiari batzuk zerrenda ofizialetik kanpo, *Galernan* ontziratu? Jakina da pasaiarien kontrola zorrotz eramaten saiatu zirela, baina gerraren anabasak zirrikitu asko utzi ditzake. Zantzu batzuk baditugu horrelakoren bat gertatu zela pentsatzeko. Esaterako, Jose María Elizalde Zubiri donostiarraren kasua aipa dezakegu. Izen hori ez da zerrendetan azaltzen. Baina haren senideek diotenez *Galernan* zegoen ontzia harrapatu zutenean[122]. Elizalde komertziala zen eta Bartzelonan harrapatu zuen gerrak, hortik Frantziara ihes egin zuen eta Iparraldean zela, senideek uste dute mugaz hegoaldera pasatzen saiatu zela, familiarekin elkartzeko. Hain zuzen, Ramiro Llamas komandante frankista eta epaile bereziak sinaturiko dokumentu batean azaltzen da Elizalderen izena. Urriaren 17an dataturik dagoen dokumentuan[123] Elizalde eta beste 13 lagun aske uzteko agindua ematen da (horien artean daude *Galernan* atxiloturiko zenbait pertsona, José Ariztimuño *Aitzol*, esaterako). "Aske" geratzea fusilatzearen sinonimo zen garaietan, ez dago esan beharrik zein izan zen horien guztien patua. Beraz, lehen aipatutako zerrenda ofizial horietan azaltzen diren datuak osatu gabe egon litezke, esku artean ditugun informazioaren arabera, behintzat.

Lehenago esan bezala, atxilotuen inguruan egindako bigarren galderari erantzutea benetan da zaila. Zer egiten zuten Bilborako bidean? Batzuen berri badugu behinik behin. Jose Ariztimuño *Aitzol* zen, dudarik gabe, bidaiarien artean ezagunena, "arrain handia" *El Diario Vasco*k mesprezuz idatzi zuen bezala. Aitzolek (ezizena Ariztimuño eta Olaso abizenen laburdura bat da[124]) protagonismo handia izan zuen Errepublikako urteetan[125]. Kontaezinak dira apaiz tolosarrak garai haietan sustaturiko ekitaldi, egunkari eta elkarteak. Antoine d'Abbadieren testigua hartu zuen Lore Jokoak eta bertsolari-txapelketak antolatzeko; Euskaltzaleak elkartea sortu zuen; *El Día* egunkari nazionalista kaleratu zuen; ELA-STV sindikatuaz baliaturik kristautasun soziala defendatu zuen; Donostian komunisten aurrean emandako hitzaldi ba-

121 Tripulazio barruan Salvador Echenique Gobernuko delegatua zihoan, 3. ofizial.

122 Maria Asunción Elizalde eta Conchita Elizalderi elkarrizketa, Jose Mari Elizalderen alabak (2005. urtea).

123 Dokumentua oso-osorik irakur daiteke, Iturralde, 1978, 354.

124 Ikus. Elixabete Garmendiaren artikulua *Argia* astekarian: «Aitzol, izen propio arrakastatsu bihurtu da azken urteotan. Izen eufonikoa sortu zuen Ariztimuño apaizak eta hortik datorkio onespena, ziur, eta ez horrenbeste Euskal Pizkundeko protagonista eta gerrako martiri izatetik» (2002ko apirilak 28).

125 Bere lan idatziak bilduta daude, J. Ariztimuño, *Obras completas=Idazlan guztiak*, San Sebastián, Erein, 1986.

tengatik Elizaren kritikak jaso zituen; Estatutuaren aldeko mitinak eta misioen inguruko idatziak izan ziren egindako beste lanetako batzuk. Gerra hasi zenean, Iparraldera egin zuen ihes bere lagun Jose Mari Benegasekin. On Jose Migel Barandiaranen arabera, hasieran ez zuen pentsatzen militarrak euskaldunen aurka arituko zirenik, eta ahalegina egin zuen abertzaleen jarduna pertsona eta orubeen defentsara mugatzea. Giroa ikusita, muga pasatu zuen eta, gerraren krudelkeria arintze aldera, Nafarroara joan zen militar agintariekin hitz egiteko asmoz, baina hauek atxilotzeko agindua eman zutenean, konturatu zen gerraren benetako izaerarekin (Gamboa-Larronde, 2006, 88-89).

Aitzol Hendaian izan zen denboraldi batez eta gero Belloceko monastegi beneditarrean hartu zuen ostatu. Aitzolek egunkarietan idazten jarraitu zuen[126] eta Iparraldera iritsitako errefuxiatuei lagundu zien, ostatua edota lana bilatzen. Hilabete izan zen Bellocen eta hainbat lagunen bisita jaso zuen: Alberto Onaindiarena (handik gutxira fusilatu zuten Celestino Onaindia apaizaren anaia), Jesus Elosegirena eta Antonio Maria Labayenena, besteak beste[127]. Erbesteko jarduera horiek arazoak ekarri zizkioten apaizari. Izan ere, Belloceko arduradunek esan zioten beldur zirela, frankistak ez ote ziren Lazkaoko beneditarren kontra arituko (Iturralde, 1978, 348-349), bera ordena bereko abadia batean zegoen aitzakia hartuta. Ariztimuñok, Lazkaoko beneditarrak arriskuan jar zitzakeela jakin orduko alde egitea erabaki zuen. Hasieran dudan ibili zen, Frantzian geratu eta kazetari gisa lan egin edo Hego Euskal Herrira itzuli. Azkenean, urriaren 15ean hartu zuen erabakia, Ziburun azkeneko meza eman ondoren, *Galernan* ontziratu zen Bilbo aldera. Preso hartu zuen kapitaina, hilabete batzuk geroago errepublikarren eskuetan jausi zen eta egindako itaunketetan Aitzolekin izandako solasaldia azaldu zuen. Aitzolen laguna zen German Iñurrategui tolosar legegileak jasotzen duenez, honako hau esan omen zion apaiz presoak, zergatik itzultzen zen gerrara galdetutakoan:

> La causa de Dios, primero, y la de mi pueblo después, precisa del auxilio espiritual de sus ministros, más, mucho más, en la guerra que en la paz. Aparte de toda otra consideración, mi misión no está cerca del convencido, sino del ignorante. ¿no dicen ustedes que los vascos han perdido la fe y que la religión sólo se asienta en su bando? No, capitán; mi deber y mi apostolado me obligan a abandonar la inactividad de Betherran y correr a prestar los auxilios espirituales a aquel que me los reclame... (Iñurrategui, 2006, 106).

126 Buenos Airesko *Nación Vasca* aldizkarian, esaterako, bere izenean sinaturiko artikulu bat kaleratu zuten Sabino Aranari buruz, jadanik fusilatua zegoenean (1936ko azaroaren 25a).

127 Azurmendi, Javier: "Aitzol, ilustre héroe de Euzkadi", in Insausti, 1990, 25.

Aitzolek Iparraldean egindako ibilbideari buruz jakiteko Bidasoa Institutuak berriki atera duen liburu bat ikusi (Gamboa-Larronde, 2006, 88-90), bertan Aitzolen testigantza agertzen da, Barandiaranek jasoa.

Jose Ariztimuñoz gain, beste bidaiari batzuen berri ere badugu: Francisco Saizar, Donostiako mediku ezaguna eta ANVko kidea, uztaila eta iraila bitartean Gipuzkoako Comisaría de Abastos-eko kidea izan zena; José Jurico pilotaria; Socorro Rojoko presidentea zen José Cerdán; Jean Pelletier hegazkin-pilotu frantziarra; Juan Miranda, Gipuzkoako Diputazioko langilea eta alderdi komunistako kidea... dira ontzian zihoazen garaiko ospetsuetako batzuk. *Galernan* zihoan Raimundo Gamboa industria-gizona ere. Gamboa gernikarra zen izatez, baina Madrilen bizi izan zen urte luzez, emaztearekin eta bost alabekin, Estatuko hiriburuan baitzituen bere negozioak. Hala ere, 1936an, familia osoa Bilbora joan zen, eta gerra hasi zenean Raimundo Lekeitioko Itsas-Mendi batailoia antolatzen aritu zen. 1936ko irailean Gamboak Madrilera itzuli behar izan zuen (gerrako frontea saihesteko Frantzia-Bartzelona-Madril ibilbidea egin zuen). Hiriburuan, Jose Antonio Agirrerekin bildu zen behin baino gehiagotan. Itzultzeko bide berdina egin zuen gernikarrak, baina bueltakoan Baionan geratu zen, Bilbora eramango zuen itsasontzi baten zain. Bilbora itzuli bitartean, hegazkin-piloturako ikasketak hasi zituen Gamboak, gerrarako baliagarri izango zitzaizkiolakoan. Horretan zebilen *Galerna* itsasontzian ontziratu zenean (Gamboa, 2004). Juan Antonio Landinen kasua ere ezagutzen dugu. 21 urteko abokatu honen aita ontzi-kapitaina eta Igeldoko meteorologoa izan zen, baina gerra hasi zenean Bilbora joan ziren, Diputazioak hala eskatuta. Dena dela ere, Juan Antonio Landin Baionan zegoen urriaren 15ean eta *Galernan* ontziratu zen Bilbora itzultzeko asmotan[128]. Asmo berdina zuen Manuel Guruceaga donostiarrak. Guruceagak Groseko mataderoan egiten zuen lan gerra hasi aurretik; anaia Astigarragako alkatea izan zen eta Bilbora ihes egin zuen gerra lehertu zenean. Horregatik, senideek uste dute Baionatik Bilbora anaiarengana zihoala Manuel Guruceaga, *Galernan* atxilotu zutenean[129].

Tripulazioari zehazki zer pasatu zitzaion ez dakigu, baina badirudi Ondarretara eraman zituztela lehenik. Arteako artxiboan aurkituriko dokumentu baten arabera, Francisco Odriozola izeneko *Galernako* sukaldariak (itsasontzi gorriak "hondoratzeko" eraman behar omen zutena), Donostian jarraitzen zuen preso 1937ko maiatzaren 29an[130]. Hala ere, beste dokumentu batek dio tripulazio guztia Ezkabako San Cristóbal gotorlekura eraman zutela Ondarretatik[131]. Sukaldariaz gain, tripulazioko beste kide bat identifikatu ahal izan dugu: Alberto Lores Soler izeneko 33

128 Landin, Maite: "Gakoa", in Torres, 2003, 79-102.

129 Manuel Guruceaga Arruabarrenari elkarrizketa, fusilatuaren iloba (2005eko azaroa).

130 Abertzaletasunaren Agiritegia. Irujo Fondoa, K.00075, C.2.

131 Ibid., GE, K.000 13 c.1. Dokumentuan jartzen du: «Navarra San Cristóbal, 1.300 presos. Están en esta cárcel los supervivientes del Bou Navarra, con los tripulantes de los V/ Galerna y Galdames, trasladados todos ellos de la cárcel de Ondarreta» (Nafarroa, San Cristóbal 1.300 preso. Espetxe honetan daude *Navarra bou*-tik bizirik atera zirenak, *Galerna* eta *Galdames*-eko tripulazioarekin batera, horiek guztiak Ondarretako espetxetik eramanak).

urteko marinel pasaitarra[132]. Lores-en izena Ezkabako presoen zerrendetan azaltzen da eta 30 urteko kartzela-zigorra jarri zion Donostiako auzitegiak. Baina Loresekin batera beste 17 lagun azaltzen dira zerrendetan, horiek ere Donostiako auzitegiak kondenatuta delitu beragatik eta Ezkaban egun berean sartu zituzten gainera (Alforja-Sierra, 2005). Bertsio horrek bat egiten du Pelletierren testigantzarekin. Horren esanetan, 1937ko urtarrilean ekarri zituzten marinelak Donostiara epaitzeko. Echenique kapitaina eta beste bi lagun hil egin zituzten martxoaren 16an eta besteek bizi osorako zigorra jaso zuten (Pelletier, 1937, 89). Datu horiek eskuan hartuta, pentsa liteke *Galerna*ko tripulazioko kideak zirela Lores-ekin batera 1937ko apirilaren 15ean Ezkaban sartu zirenak[133]. Horien artean gehienak gipuzkoarrak dira, baina badaude Galizia eta Asturiaskoak ere. 1938ko ihesaldi famatuan horietako bik hartu zuten parte eta hil egin zituzten egun horretan bertan.

## Galerna: *harrapatua edo entregatua?*

Susmo handiak biltzen ditu bere baitan *Galerna* harrapatzeko moduak, eta horrela azaldu izan dute horri buruz idatzi duten historialariek. Baina ez bakarrik historialariek, gertakizun haiek bizi izan zituztenek ere zalantzan jarri zuten arestian azalduriko bertsioa. Pedro Lecuona izan zen garai haietan Espainiako Kontsula Baionan. Hark idatzitako hainbat txosten iritsi zaizkigu guregana, eta horietako batean *Galerna*ri buruzko datuak ematen ditu, bidaiarien zerrenda agertzen den txostenean bertan hain zuzen[134]. Lecuona kexu zen kostaldea ez zelako batere segurua eta itsasontzi-korreoek arrisku handia pasa behar izaten zutelako. Txostenak azaltzen du urriaren 14an iritsi zela *Galerna* Baionara, baina iritsi orduko frantziar Gobernuak portuan atxiki zuela, Glasgow-en zegoen Peacock izeneko konpainia ingelesarekin kreditu-arazo batzuk zituelako. Abokatuen esku utzi zuten auzia eta urriaren 15ean barkua berriz itsasoratu zen.

Txostenean beste kontu ilun bat ageri da, ordea: kapitainak itsasontzia entregatu ote zuen susmoa. *Galerna*k egindako aurreko bidaian (urriaren 12an), ontzia ateratzera zihoanean Lecuona kontsulak Germán Gómezen eta Jorge Martín Posadilloren kontrako salaketa bat jaso zuen (ontziko kapitaina eta lehenengo ofiziala ziren, hurrenez hurren). Salaketa Angel Louvelli izeneko makinista batek egin zuen eta ho-

132 AHN. Madrilgo Artxibo Nazionala. Alberto Lores-en anaia, Claudio, fusilatua izan zen.

133 Militarrek ez zuten jarrera bateratua izan harrapatutako itsasontzien eskifaiekin. Garai bertsuan atzemandako *Udondo* baporeko 40 lagunak fusilatu zituzten. 1937an atzemandako *Mar Cantábrico*ko 25 hil zituzten eta 20 kartzelera bidali (Suárez, 2004).

134 Abertzaletasunaren Agiritegia. GE-K00382-C.1

rren arabera, bi gizon horiek ez zituzten beren ideia faxistak inolaz ere ezkutatzen, «No recatan en ningún lado sus ideas fascistas». Gómez eta Posadillorekin hitz egin zuen kontsulak. Antza denez, Germán Gómezek Ingalaterrara joateko asmoa zuen arazo pertsonalengatik, baina Lecuonak ez zion utzi eta biei agindu zien Bilbora iritsitakoan agintariengana joateko, kontu hori lehenbailehen argitu zezaten. Posadillo ontziratu arren, Germán Gómez kapitaina lurrean geratu zen. Zergatik ordea? Fernández Clérigo izeneko politikari baten anaiari Hendaian azaldu zionez, Bilbora joanez gero fusilatuko zuten beldur zelako *Galerna*ko kapitaina, Hurtado de Saracho izeneko "faxista" bati Bilbotik Baionara ihes egiten lagundu baitzion. Gómezek aitortu zuen barkua frankistei entregatzeko proposamen asko izan zituela, baina berak ez zuela horrelakorik egingo, nahiago zuela lurrean geratu. Bitartean, Posadillo Bilbotik bueltan itzuli zen, dena konpondu zuela esanez. Hurrengo egunean, urriaren 15ean, *Galerna* Baionatik atera zen, eta Jorge Martín Posadillok egin zituen berriz ere kapitain-lanak, Germán Gómez ez baitzen gehiago azaldu. Txostenaren puntu horretatik aurrera hasten dira Lecuonaren errezeloak; honela azaltzen du:

> Segun se me ha dicho, los que mandaban los barcos-correos tenían orden de alejarse de 40 a 50 millas. Según *La Voz de España* el *Galerna* fue apresado a 17 millas de Pasajes. El *Galerna* disponía de radio con el que tenía yo entendido que se avisaba a Bilbao. (...) Podía hacer hasta 12 millas y podía considerarsele blindado, porque estaba construido para navegar entre hielos. Los bous no podían hacer mas de 10 millas y media. Y esos bous, armados con unos cañoncitos, han apresado a un barco de 1.200 toneladas, blindado y de mas andar que los bous.

> (Esan didatenez, ontzi-korreoei agindu zitzaien kostaldetik 40-50 miliatara nabigatzeko. *La Voz de España*ren arabera, *Galerna* Pasaiatik 17 miliatara harrapatu zuten. *Galerna*k irratia zuen eta uste dut Bilbora abisatzen zuela Baionatik atera baino lehen. (...) 12 milia orduko egin zitzakeen ontziak eta blindatutzat har ziekeen, izotzetan nabigatzeko egina baitzegoen. *Bou* frankistek ezin zuten 10 milia eta erdi baino gehiago egin ordu betean. Eta *bou* horiek, kanoitxo batzuekin armaturik, 1.200 tonako barku bat harrapatu dute, blindatua eta beraiek baino bizkorragoa).

Idatzi honetan, Baionako Kontsulak ez du zuzenean ezer esaten, baina garbi asko aditzera ematen du barkua entregatu egin zutela. Lecuonaren susmoak Germán Gómez kapitainak berak argitu zituen *Galerna* harrapatu zutenean. Autoritate frankisten aurrean deklaratu behar izan zuen Gómez-ek eta deklarazio horretan azaltzen du ontzia entregatzeko asmoa zuela: «Acordamos que a las 9 de la mañana del siguiente día y a 17 millas del meridiano de Igueldo me encontraria con el buque y que 2 bous de Pasajes y una lancha gasolinera obligarían a arrumbarme, a San Sebastián". Allí estaba a la hora prevista, pero no se presentó nadie» (...hitz hartu genuen hurrengo eguneko goizeko 9etan, Igeldoko meridianotik 17 miliatara izango nintzela ontziarekin eta Pasaiako bi *bou* eta gasolinazko beste txalupa batek Donostia aldera eraman araziko zidatela. Han izan nintzen jarritako ordu eta lekuan eta ez zen inor

aurkeztu)[135]. Hala ere, prentsa frankistan azaltzen zenez, *Galerna* ihes egiten saiatu zen eta gainera irratiz abisatu omen zion gerra-ontzi bati. Baina informazio hori kontraesankorra da beste iturri batzuekin alderatuz gero. Esaterako, *Galerna*ren "harrapaketan" parte hartu zuen Galiziako marinel baten testigantza daukagu. Horren arabera, itsasontzia entregatu egin zuten eta bertako ofizialak aske utzi zituzten Pasaiako portura iritsi orduko[136]. Bestalde, Juan Pardo ikerlariak dio Jorge Martín Posadillok frankisten flotan parte hartu zuela geroago, alegia, bando frankistara pasatu zela (Pardo, 1995). Jean Pelletier frantziar pilotua ere gertakizun haien lekuko zuzena dugu. Bera izan zen atxilotuen artean bizirik atera eta hilabete horietan pasatu zitzaiona memoria batzuetan idatzi zuen bakarra, 1937. urtean. Pelletier erretiratua zegoen pilotu kargutik eta haurrentzako jostailuzko hegazkinak saltzera dedikatzen omen zen, betiere bere hitzetan. Egun horietan, Baionan zegoela, bere merkatua Bilbora zabaldu zezakeela bururatu zitzaion, eta horregatik hartu zuen *Galerna* ontzia, Bilbora joateko asmotan. Memorietan Pelletierrek azaltzen du *bou*ak ikusitakoan Echenique komandanteari eskatu ziola iparraldeko norabidea hartzeko eta handik alde egiteko, baina komandantea erabat "harrituta" zegoela itsasontziko kapitainak egindako maniobrarekin (Pelletier, 1937,17). Izan ere, itsasontziak kontrako norabidea hartu eta ziztu bizian alde egin beharrean, frankistengana zuzendu zen. *Galerna*ko radiotelegrafista-lanetan jardun zen Jose Bareak ere gauza berbera esan zuen urte asko pasa eta gero. Hau da, *Galerna* ez zela ihes egiten saiatu. Are gehiago, radiotelegrafistak Baionaren eta Pasaiaren arteko "komunikazio" batzuen berri eman zien Posadillo kapitainari eta momentu horretan lehenengo ofiziala zen Domingo Uriarte galdakarrari, baina ez omen zioten "kasurik egin"[137].

Bareak aipatutako "komunikazio" horiek espioitzarekin zerikusia dute. Ikertzaile gehienek bat egiten dute aparatu frankistak mugaz bestaldean espioiak zituela baieztatzean. Zerbitzu sekretuek informazio garrantzitsua pasatzen zieten agintari militarrei, itsasontzien nondik norakoak, esaterako, eta Pedro Lecuona kontsulak zioenez, Donibane Lohizune eta Baiona ziren "espioitza errebeldearen" bi gune nagusiak. Hain zuzen, Pelletierrek espioitza horri loturiko pasadizo susmagarri bat aipatzen du bere memorietan: barkuaren zain zegoela, Raimundo Gamboarekin hizketan aritu zen *Galerna* noiz aterako ote zen-edo, eta ondoan zuten lagun batek "satisfazio irribarre bat egin eta alde egin zuen", bere esanetan. Beraz, badirudi *Galerna* harrapatzea ez zela

135 AGMA (Zona Nacional, Ejército del Norte, 2. sekzioa 15/45/9). Gómez kapitainak *Galerna*rekin egindako ibilbidearen berri ematen du, gerra hasi eta harrapatu zuten arte, eta epe horretan anarkistek bere etxea erregistratu zutela salatzen du. Horretaz gain, Bilbon zein egoeratan zeuden azaltzen du Gomezek deklarazio honetan, informazio militar esanguratsua emanez.

136 AGA-Asuntos Exteriores, c.258. José Seoane Cortés-en deklarazioa, *Virgen del Carmen* ontziko marinela. Errepublikarren bandora pasa zen gero.

137 Gamboa, 2004, 38. Halaber ikusi, Romaña, 1984, 516-521.

kasualitatea izan; ontzia zeramaten ofizialek frankisten zerbitzu sekretuekin lankidetzan ontzia entregatzea hitzartu zuten (200.000 pezetako ordainarekin, batzuen ustez)[138], zantzu guztiek erakusten dutenez[139]. Esan izan da Aitzol bertan zegoelako harrapatu zutela itsasontzia, baina Pedro Barruso historialariaren iritziz, tesi horrek ez du pisu handirik, Aitzolek ez baitzuen erabaki azkeneko momentura arte *Galernan* itsasoratzea. Beraz, frankisten helburua ez zen Aitzol atxilotzea izan, korreo-barkua geldiaraztea baizik (Barruso, 2001, 102).

### *Ondarreta eta Hernani*

Atxiloketa zakarra izan zen, hori diote behintzat lekukoek. Bidaiariei esan zitzaien ez zietela minik egingo, baina badaezpada ere, guztiak itsasontziko sotoetan sartu ziren frankistak inguratu zirenean. Javier Saldaña tenienteak aginduta, bakailao-ontzia inguratu eta bertan zeudenak banan-banan atera zituzten *Alcázar de Toledo* izeneko ontzira. Ontzi batetik bestera salto eginez aterarazi zituzten eta batzuek min hartu zuten une horretan, Francisco Saizar medikuak adibidez (Pelletier, 1937, 56-59). Horretan ari zirela, gerra-ontzi errepublikar bat ikusi zuten hurreratzen eta flota guztiak ihesari ekin zion (argiak itzalita porturatu behar izan ziren).

Portuan, frankisten garaipen-oihuen artean, presoak ilaran jarri zituzten eta falangista talde batek eskua altxatzera eta kantu faxistak abestera behartu zituen (Pelletier, 1937, 22). Horren ondoren, binaka esposatu eta bi autobusetan Ondarretako kartzelara eraman zituzten atxilotu guztiak[140]. Ondarretako egonaldiaren berri zuzen bakarra Pelletier pilotuaren testigantza da; agian zertxobait puztutako kontakizuna izan liteke, baina kartzela horretan atxilotuek pairatu zutena imajinatzeko balio du. Pelletierrek dioenez, baliozko objektu guztiak kendu zizkieten kartzelako guardia zibilek eta ondoren ziega batean sartu zuten frantziarra. Gogor torturatu zuten eta ziegatik ateratzean Aitzol apaiza "aurpegia, odoletan eta desfiguratua" zuela ikusi zuen. *Virgen del Carmen* itsasontziko ofizial baten esanetan, errepublikarren aldera pasatu ostean egindako adierazpenen arabera, Aitzol odoletan zegoen, irrixta egin zuelako kubiertan (Iñurrategui, 2006, 104). Ondarretako kartzelan Juan Urriza izeneko jesulaguna ibili zen egun horietan presoak konfesatzen eta Pelletierrengana ere jo zuen. Bada, Pelletierrek Aitzoli buruz esandakoa ukatzen du Gomá kardinalari bidalitako gutun batean, jesulagun horrek (Iturralde, 1978, 352): «Que lo golpearon se dijo al principio y fue voz

138 Landin, Maite: "Gakoa", in Torres, 2003, 86.

139 Pedro Barruso historialariak hainbat datu ematen ditu ontzia entregatzea paktatu zela azaltzeko: Barruso, 2001, 100-101.

140 *La Voz de España*, 1936ko urriaren 16a.

que llegó a nosotros. Por eso tuve empeño en preguntárselo yo mismo al Sr. Aristimuño (...) -No, me contestó rotundamente, pero me han tratado muy mal». Juan de Iturralderen ustez, Urriza jesulagunaren gutuna biziatuta dago, erregimen frankistak elizgizonengan kontrol zorrotza ezarri zuen momentu batean idatzi baitzen. Urrizak, gainera, itaunketan ez zutela kolpatu baino ez zuen esan. Erantzun horrek ez du eragozten itaunketa ostean jipoitzea. Jokin Inza abertzalea Francoren garaian egon zen preso Martutenen eta bertako zaintzaileen artean Ondarretan egondako bat izan zuen, Salinas izenekoa. Hainbaten ustez, Salinasek Aitzol gogor astindu zuen kartzelatik Hernanirako bidean, beharbada Aitzolek Urrizarekin hitz egin ondoren. Salinasek, antza, ziegako giltzarekin kolpatu zuen eta begi bat atera zion (Inza, 2006, 45).

Pelletierren kontakizunarekin jarraituz, hurrengo gauean, urriaren 18an, *Galernan* atxiloturiko 20 lagun inguru ziegetatik atera eta kamioi batera sartu zituzten. Pelletier azkeneko momentuan salbatu zen, ez baitzuten kamioira igoarazi. Hortik aurrerakoak Hernaniko ahozko historiaren bidez jarrai daitezke. Iturri batzuen arabera, fusilatzeko zeudela, azken unean, konfesatu zituzten heriotzara bidean zeudenak, Hernaniko hilerritik gertu[141]. Zeinek fusilatu baina? Badirudi falangista eta erreketeak zirela fusilatzeetan parte hartzen zutenak. Horien artean zegoen, antza, José Luis Vilallonga, bere testigantzaren arabera.

Fidagarriagoa izan daiteke Goya familiaren informazioa. Familia horrek Hernaniko hilerri ondoan zuen etxea, eta Joxe Goyari egokitu zitzaion garai haietan enterradore lanak egitea. Joxe Goya abertzalea zen eta lanpostu publiko bati heltzea aholkatu zioten, arriskua saihesteko; horregatik sartu zen enterradore. Fusilatzeak izaten zirenean oso ondo jabetzen ziren Joxe eta bere familiakoak, gau beltzean tiroak entzuten baitzituzten. Josebe Goya, alaba gaztea, hilerrira hurbiltzen zen, zein fusilatu zituzten jakin nahian, eta haren testigantza iritsi da guganaino: "Ni korrika joaten nintzen kanposantura, pareta gainetik salto eginda, bezperan ikusten nituen zuloak egiten eta ikusi egin nahi nituen, ia baten bat ezagutzen nuen... Baina han ez zegoen inor ezagutzerik; hartu gurditik eta haragia bezala botatzen zituzten zulora, behin hemezortzi kontatu nituen, beste behin hogei... Ekartzen zituzten guztietan ni han nintzen"[142]. Aitzol Hernanin hil zutela konfirmatzen duen dokumentu ofizial bat badago Hernaniko artxiboan; Guardia Zibilak 1958. urtean idatzitako txosten bat da. Bertan, Hernanin fusilaturiko zazpi pertsonen izenak ageri dira, horien artean Aitzol[143]. Goya familiak ezaguna zuen Aitzol eta hura fusilatu zutenean, ahaleginak egin zituzten tolosarraren gorpua hobitik atera eta panteoi batean sartzeko; Aitzolen senide baten eskaera aurkeztu zuten, baina azkenean agintari frankistek ez zuten horrelakorik egi-

141 Josebe Goyari elkarrizketa. Dobera Euskara Elkartea (200X-JGZ-01).

142 Josebe Goyari elkarrizketa. Dobera Euskara Elkartea (200X-JGZ-01).

143 Hernaniko Udal Artxiboa, E/5/V/7.

ten utzi[144]. Juan Antonio Landinen gorpua, aldiz, bai, atera ahal izan zuten. Horren neska-laguna Sarasqueta familiako alaba zen, eta haien panteoian sartu zuten Landinen gorpua, Joxe Goyaren laguntzarekin (Torres, 2002, 87-88).

## *Denak fusilatu zituzten?*

Aitzolekin batera beste hainbat lagun hil zituztela diote orain arte erabilitako iturriek. Baina zein izan ziren Aitzolen azken bidaide? Batzuen esanetan, beste hemezortzirekin batera hil zuten apaiz ezaguna, horien artean 18 urteko neska gazte bat[145]. Hala ere, lehenago aipatu dugu badagoela Ramiro Llamas epaileak sinaturiko dokumentu bat, eta bertan izen zehatzak azaltzen dira. Aitzol eta beste hamahiru pertsona aske uzteko agintzen duen dokumentua da. Fusilatzeak ezkutatzeko erabiltzen zen formula zen hura, "aske" zeudela esan, gero modu estrajudizialean fusilatzeko. Hauek dira Jose Ariztimuño apaizarekin batera azaltzen diren izenak:

> Luis Megido Fernandez, Bautista Martinez Fernandez, Dominica Artola Echeverria; Luis Echeverria; Luis Lahore Bilbao (gainetik marra bat duela), Juan Luis Dana; Clemente Garcia Gallego, Manuel Artola Iraola; Jose Aristimuño Olaso; Jose Jurico Zaro; Juan Miranda Alduarte; Jose Cerdan Murillo, Manuel Guruceaga Arruabarrena; Ignacio Villaverde Moron eta Jose Maria Elizalde Zubiri.

Horietako asko ez dira *Galerna*ko bidaiarien zerrendan azaltzen eta horrek zalantza bat sorrarazten digu: *Galerna*ko bidaiari "ez-ofizialak" ziren edo Ondarretako kartzelan preso zeuden eta *Galerna*koekin batera fusilatu zituzten? Baliteke bietatik izatea; garbi dago gau hartan ez zituztela *Galerna*ko guztiak hil. Are gehiago, ez dago erabat ziurtatzerik bakailao-ontziko bidaiari guztiak fusilatu ote zituzten, nahiz eta zenbait lekutan horrela esaten den (Barruso, 2005, 161). Jakin badakigu *Galerna*ko pasaiari batzuk geroago fusilatu zituztela. Adibidez, Jean Pelletierrek Francisco Saizarren kasua aipatzen du. Pilotu frantziarrak bere liburuan dioenez, Francisco Saizar egun batzuk geroago eraman zuten Hernanira, aurreko egunetan fusilatu zituzten hainbat pertsona identifika zitzan, baina azkenean bera ere fusilatu egin zuten[146].

144 Odriozola, Jon: *Hernaniko Aiene eta ajeak Gerra Zibilaren altzoan*, lan argitaragabea, Hernaniko Udal Artxiboa, 2. eranskina. Hernaniko alkateari zuzenduriko gutuna da, 1936ko abenduaren 13an idatzia eta Joaquín Arruek sinatua.

145 *Euzkadi* (Santiago de Chile), 1943ko urria.

146 Pelletier, 1937, 56-59.

Iñaki Egañak zuzenduriko *1936. Gerra Zibila Euskal Herrian* (Aralar liburuak) bildumako IV. tomoan Francisco Saizarren izena azaltzen da Gipuzkoan fusilaturikoen artean. Bertan jartzen duenez, 1936ko urriaren 5ean hil zen Donostiako mediku hau, heriotza-akta idatzi zuenaren akatsa izan daiteke hori. Horretaz gain, Tomas Larrinagaren heriotza-eguna ere azaltzen da, 1936ko urriaren 20a, hau da, Aitzol eta gainerakoak baino bi egun geroago fusilatu zuten *Galerna*ko bidaiari hori.

Dena den, Aitzolen fusilatzeak oihartzun handia izan zuen prentsa abertzalean eta Ameriketako euskal erbesteratuen aldizkariak dira horren adierazgarri. Aitzol hil zutenean *Nación Vasca* aldizkarian kultur gizon honen inguruko artikulu zabal bat kaleratu zuen Vicente Ametzagak, tolosarrak bultzatu zituen ekimen garrantzitsuenak nabarmenduz eta haren hilketa arbuiatzen: «Un asesinato cruel y estúpido nos lo ha arrebatado. Los sedentes adoradores de la tradición vasca matan en su nombre a quien dedicó lo mejor de su vida al euzkera»[147], (Hilketa krudel eta ergel batek eskuetatik kendu digu. Euskal tradizioaren adoratzaile egarrituek, bere izenean hil dute euskarari bizitzaren onena dedikatu zion hura) zioen Ametzagak artikuluaren amaieran. Gainera, aldizkari horrek *Euzkadi* egunkariaren notizia bat zekarren, Aitzolen heriotza nola izan zen kontatuz. Aitzoli bere "huts egiteak" publikoki korrejitzeko aukera eman zitzaiola zioen egunkariak, baina horrek ez omen zuen onartu; egunkari horren arabera, Tolosako elizgizonak hil aurretik hitz batzuk egitea eskatu zuen eta sermoiaren ondoren fusilak eskuan zituzten askok tiro egiteari uko egin omen zioten. Azkenean, soilik bi tirok hil omen zuten Aitzol[148]. Hilketaren ondoren, aldizkari abertzaleek urteak eman zituzten Aitzolen irudia goraipatzen, batez ere urriaren 18a iristen zenean, martiri bilakatu zen aldizkari horientzat eta abertzale katoliko guztientzat, José Ariztimuño[149].

### Galerna*ren akabera*

Zer pasatu zen *Galerna* ontziarekin? Frankistek ekitaldi bat antolatu zuten bakailao-ontzia harrapatu eta bi egunera, igandearekin. Horrela azaldu zuen ekitaldi hartan gertatutakoa *El Diario Vasco* egunkariak urriaren 21ean, "A bordo del Galerna", ("Galernaren barruan" ) izenburupean:

> El domingo por la mañana tuvo lugar una misa a bordo del vapor *Galerna* apresado a los marxistas días pasados en alta mar por los *bous* armados de este puerto. Fue una gran fiesta para Pasajes a la que acudieron representaciones de la fuerza armada y autoridades del puerto, los que oyeron la misa reverentemente. También acudió mucho público de los tres Pasajes que una vez terminada la fiesta religiosa irrumpió en aclamaciones entusiastas.
>
> (Igande goizean meza izan zen *Galerna* bapore barruan, duela egun batzuk portu honetako *bou* armatuek itsasoan marxistei harrapatutakoan. Festa handia izan zen Pasaiarentzat, indar armatuen eta portuko agintarien ordezkariak azaldu ziren bertara eta meza entzun zuten adeitsu. Horretaz gain, hiru Pasaietako jende ugari ere izan zen eta festa erlijiosoa bukatu zenean gogotsu hasi ziren gorazarreka).

147 *Nación Vasca* (Argentina), 1937ko otsaila.

148 Ibid., in *Euzkadi* (Bilbo).

149 Ikusi: *Batasuna* (1941eko abendua), *Euzkadi* (1943 eta 1946ko urria).

Urriko fusilatzeen ondoren, *Galernak* bere bidea egin zuen, baina frankisten bandoan. Bakailao-ontziari artileria jarri zioten Ferrolen (101'6 mm-ko bi kainoi eta beste bi 47 mm-koak). 69 pertsonako tripulazioarekin, Pasaian zuen basea, bere sorlekuan. Bertan zainketa-lanak egiten zituen, baina operazio berezietan ere parte hartu zuen *Galernak* Bizkaian eta Santanderren (Pardo, 1995, 90-93). Esaterako, Bilboko blokeoan izan zen bonbardatzen eta Bizkaiko hiriburuaren ebakuazioa hasi zenean, hainbat itsasontzi harrapatu zituen jendez gainezka. Santanderren, gerra-ontzi errepublikar baten erasoa jasan zuen eta horregatik eraman zuten Pasaiara bueltan, konponketak egitera. Gerra amaitu zenean bere lehenagoko jabeei itzuli zitzaien *Galerna*, PYSBE konpainiari, hain zuzen. Bakailao-arrantzan ibili zen 1965 arte, harik eta itsas trafikotik kendu eta txatarrarako desmuntatu zuten arte (Urrutia, 2003, 600). Urte luzez, gerrako fusilatze haien zama eraman du gainean *Galerna* baporeak, eta oraindik ere hala darama.

## Elizgizonen heriotzak

> Los Sacerdotes nacionalistas fueron ejecutados por las autoridades regulares del Ejército de Ocupación, después de someterles a procedimientos sumarios establecidos por las necesidades de la guerra. Los sacrificados por los rojos, en su inmensa mayoría, lo fueron por hordas incontrolables, como ellos mismos las llamaban. Los unos murieron después de recibir todos los auxilios normales en tan tristes ocasiones. Los otros, martirizados en forma espantosa. Y sobre todo, unos cayeron, por motivos de orden político, por considerárseles traidores a España, *no víctimas de una persecución religiosa.*
>
> (Ramón Sierra Bustamante, 1941, 209)

> ¿Se tramitaron procesos? ¿Quiénes declararon? ¿Qué testigos depusieron en esos procesos? ¿Eran o no recusables en derecho? De todo esto no se dio cuenta a la autoridad eclesiástica; se prescindió completamente de ella, se le ocultaron cuidadosamente todas las actuaciones de los tribunales militares, y se conculcaron en caso tan grave los sagrados cánones de la Santa Iglesia, se pisoteó la inmunidad y el fuero y foro de los eclesiásticos, y éstos, sin poder defenderse, fueron juzgados, sentenciados y fusilados sin piedad.
>
> (Mateo Múgica, 1945, 14)

Gerra Zibilak Euskal Herrian izan zituen elementu bereizgarrien artean nabarmenetakoa dugu euskal apaizen sektore batek izan zuen jarrera; izan ere, Espainiako erlijioso gehienak eta hierarkia ia bere osotasunean Francoren alde azaldu arren, euskal apaiz-talde batek, euskal abertzaletasunetik hurbilenak, Altxamenduarekin bat ez egiteaz gain, legezko gobernua babestu zuen, bereziki sortu berria zen Euzko Jaur-

laritza. Jarrera horrek matxinatuen errepresioren biktima egin zituen, batzuk tokiz aldatu zituztelako, beste batzuk kartzelaratu eta azken talde bat, 16 lagunekoa, erail. Jarrera hori ulergaitza egiten da, kontutan izanik gainera, militarren hasierako agirietan erlijioak pisu txikia zuela eta ez zela aipatzen altxamenduaren arrazoien artean. Mola berehala konturatu zen, dena den, Jainkoaren hitza aipatzeak eman ziezaiokeen abantailez (Casanova, 2001, 42 eta 68). Baina euskal abertzaleak militarren aurka agertzeak izugarrizko eragina zuen garai hartan, kolokan jartzen zuelako militarren erlijioaren aldeko defentsa munduko katolikoen aurrean eta polemika eta eztabaida askoren iturri izan zen. Horren lekuko dugu, adibidez, Francoren alde behin eta berriz agertu zen Gomá kardinalak bere eskutitzetan gaiari eskainitako tartea. Gomá eta Francoren arteko lehen bilera ofizialean, abenduaren 29an, altxatuen buruak berriro eskatu zuen Vatikanok gaitzets zezala jelkideen jokabidea, «una desautorización de la conducta de los vascos por parte de las autoridad eclesiástica podría, tal vez, en estos momentos de depresión moral en que se hallan, ser un factor decisivo en el propósito de desistir de la lucha»[150]. Baina Vatikanok, Francoren aldeko sinpatia izan arren, ez zen ausartu bere aldeko agiririk plazaratzen, Pio XI.a hil arte, gerra bukatzear zegoenean. Era horretan, nahiz eta errepublikarrek 7.000 erlijioso inguru hil zituzten Espainia osoan eta 45 bat Euskal Herrian, ekintza basati eta bortitzetan, euskal katoliko askoren erresistentziak kalte handia egin zien militar matxinatuei.

Apaizen heriotzek, bestetik, nolabaiteko odolezko ituna sortu zuten beraien kideen artean, haien oroimena gal ez zedin, eta hainbat lan argitaratu zituzten, hasi gerra-garaitik eta laurogeiko hamarkadara arte[151]. Jaurlaritzak berak ere apaizen aurkako erasoak azpimarratu zituen bere argitalpenetan. Gertaera horrek, nahi gabe, ezkutatu egin zituen beste ehunka lagunen fusilatzea. Apaizen testigantzek beti azpimarratu zuten beren kideak gerraren kontestuan hil zituztela, beste askorekin batera:

> Con esta lista no se pretende presentar al Clero Vasco, como único perseguido. Son muchos los miles de vascos perseguidos, asesinados, fusilados, condenados, exiliados, desterrados, multados.
>
> (Euzko Apaiz Taldea, 1978, 9)

Zabaldutako irudiak, ordea, askoz ere pisu handiagoa eman die Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan hildako 15 lagun horiei beste bi mila laguni baino. Bi arrazoi

150 1937ko urtarrilaren 1eko Gomáren txostena, (Rodríguez Aisa, 1981, 100).

Juxtu egun horietan Burgoseko gobernua eta EAJ elkarrizketa ofiziosoak egiten ari ziren. Vatikanok ezezkoa eman zion jeltzaleen jarrera gaitzezteari, baina posible ikusten zuen bitartekaritza egitea, Franco abertzaleen eskakizun batzuk onartzeko prest egonez gero. Elkarrizketa horien inguruan, honako lan hau ikusi, Marquina (2006).

151 Lan garrantzitsuenak honako hauek dira: Iturralde (1978) eta Euzko Apaiz Taldea (1981).

egon dira horretarako. Lehenak harreman estua du Francoren eta erbestean zeuden abertzaleen politikarekin. Horrela, 1946an Nazio Batuen Erakundea Espainiaren kontrako neurriak eztabaidatzen hasi zenean, Francoren diplomaziak gerran hildako katolikoen auzia harrotu zuen. Manuel Irujok Galindezi bidalitako eskutitzean zera aholkatu zion: «puesto que Franco ha anunciado su defensa acudiendo al socorrido tópico de los muertos y de la persecución a la Iglesia, carguemos de nuevo sobre la persecución al clero vasco»[152]. Bigarren arrazoia xinpleagoa dugu, beraien inguruko lanak izan direla denbora luzez errepresioaren kontua jorratzen zuten bakarrak. Nafarroan, jakina denez, ez da horrelakorik gertatu laurogeiko hamarkadan aztertu zelako errepresioa bere osotasunean, baina Euskal Autonomia Erkidegoan ez zen garai horretan lan orokorrik egin. Lurralde hartan, gainera, apaiz bakarra hil zuten ia hiru mila lagunen artean. Apaizen nortasuna eta ezaugarriak, gizarte-sektore txiki, baina oso nabarmeneko kide eta ikur izateak lagundu egin zuen beraien inguruko kontabilitate zehatza lortzen, beste kasuetan oso zaila zena. Horrela, 1938ko Jaurlaritzaren txostenean honako datu hauek eman zituzten: Gasteizko gotzaindegian 15 apaiz fusilatuta, 137 kartzelan, 263 erbesteratu eta 300 baino gehiago parrokiaz aldatuta. Kopuru horiek, gutxi gorabehera, elizbarrutiko apaizen % 30 ziren. 1977an argitaratutako liburuxkan Euzko Apaiz Taldeak 224 kartzelaratu, eta 14 fusilatu aipatu zituen, 700 inguru izanik, era batera edo bestera jazarrituak. Erbesteratutako apaizek, bestetik, behin baino gehiagotan kontrajarri zuten beraien jarrera eta Nafarroako apaizena, azken horiek armak hartu baitzituzten, eta erreketeen buru izan ziren hasi berria zen Gerra Zibilean.

Esanguratsua da, halaber, Eliza Katolikoak, ez Espainiakoak, ezta Euskal Herrikoak ere, ez duela aitortu heriotza horietan izan zuten parte hartzea, zuzenean edota zeharka eta ez duela onartu apaiz horiek jasandako martirioa. Hilari Raguer-ren hitzetan, Eliza oso sentibera izan da bere biktimekin, ez, ordea, bereak ez zirenekin, nahiz eta begien aurrean zituen. Fusilatutako euskal apaiz horiek, antza, ez ziren bere biktimak. Bere sasoian, gainera, hildakoen izenak ez ziren argitaratu Gotzaitegiko Aldizkari Ofizialean. Are gehiago, errepublikarrek hildako edota berez hildako apaizen izenak jarri ondoren, zera gehitu zuten, badakigu beste apaiz batzuk ere hil direla, baina ez dugu xehetasunik emango berri ofizialak iritsi arte. Oraindik, antza, ez dira heldu. 2006ko urrian Arrasateko apaizen fusilatzearen 70. urteurrena bete zenean, 70 urte ziren haien izenak herriko San Juan parrokiatik desagertu zirela. Ez hil zituztenean, ezta Franco desagertu ondoren ere, ez zuten entzun elizako hormek bertako apaizen heriotzaren berririk. Herriko semea den Ibon Aperribai apaizaren esanetan, bada ordua barkamena eskatzeko eta barkamena emateko, benetako berradis-

152 Abertzaletasunaren Agiritegia. Irujo Fondoa, 10-2.

kidetzea gertatzeko. Serafin Esnaola apaiz abertzale hil berriak aitortu zuenez, bestetik, ezinezkoa zen, garai batean, Iturralderen liburuak (1978) edota Euzko Apaiz Taldearenak (1981) aurkitzea elizbarrutietako liburudendetan.

Euskal apaizen fusilatzeak hainbesteko arreta jaso zuten, oso gutxi izan zirelako Espainian frankisten aurka agertu ziren erlijio-gizonak. Mallorcan, adibidez, bertako gotzaina, Josep Miralles, Francoren alde agertu zen nabarmen, baina ez zituen gogoko falangistak eta alemaniarrak, Pio XI.ak "Mit brennender Sorge" nazismoaren aurka idatzitako entziklika argitaratu zuen eta errepresioa eta erailketak zuzenean salatu gabe, Olaechea gotzainaren hitz gogorrak, "No más sangre", argitaratu zituen Gotzaindegiko Buletinean. Espainiako apaiz gehienek errepresioa babestu zuten, baina batzuek aurkako jarrera azaldu zuten eta epaituak izan ziren, kartzelaratuak eta zenbait kasutan erailak. Horrela gertatu zen Jeromi Alomar Poquet-ekin, errepublikarrei laguntza ematea leporatu eta salatua Mallorcan, epaitua eta Francoren baimenarekin fusilatua 1937ko ekainaren 7an (Massot, 2002 eta Pons, 1995). Ezagutzen ditugun beste kasuak honako hauek dira: Galizian Andrés Ares apaiza hil zuten 1936ko urrian (Casanova, 2001, 144); Andaluzian ere beste kasuren bat egon zen; Loscorraleseko parrokoa, José Pascual Duaso, Huescan (www.memoria.org) eta beste bat Burgosen, Mariano Revilla izeneko apaiza (Sierra 2001, 414).

### *Apaizen aurkako jazarkundea*

Zergatik euskal apaizen aurkako jarrera hori? Ezaguna da Sabino Aranaren garaitik gaur egunera arte espainiar nazionalistek euskal Elizari leporatu diotela abertzaletasuna zabaltzea, nahiz eta datuek kontrakoa erakutsi. Izan ere, Gasteizko gotzain desberdinak eta zenbait erlijio-etxetako buruzagiak ahalik eta oztopo gehien jartzen saiatu ziren, abertzaletasunari ez eze, euskaltzaletasuna berari ere bai. Euskal gizartean abertzaletasuna zabaldu ahala, Eliza katolikoko apaizen artera ere zabaldu zen abertzaletasuna eta gutxi batzuk asko nabarmendu ziren politika-lanetan, gizarte-zereginetan eta, bereziki euskal kulturaren defentsan eta berpiztean, ezagunenak José Ariztimuño eta Policarpo Larrañaga ditugu. Horren kariaz, arrunt bilakatu zen Errepublikako urteetan abertzaletasunaren garapena apaiz-talde horren laguntzarekin lotzea eta euskal Eliza nazionalismoarekin identifikatzea. Lehenengo aldia zen, gainera, Gasteizko gotzaindegia eta Iruñekoa euskaldunen esku zeudela: Mateo Múgica idiazabaldarra Gasteizen eta Marcelino Olaetxea barakaldarra Nafarroako hiriburuan. Baina bietako batek ere ez zuen zerikusirik jelkideekin; Múgica integrista monarkikoa zen, erregearen hurbileko laguna eta Olaetxea salestar erlijiosoa eta monarkikoa, Espainiako gotzain gehienen moduan.

Altxamendua gertatu ondoren, militarrek hartu zuten ezusteetako bat jeltzaleak, zenbait gorabeheraren ondoren, errepublikarekin bat egitea izan zen. Molaren asmoetan, Hego Euskal Herria osoa bere alde jarriko zen eta bere ahaleginak Madril hartzera bideratuko zituen. Egoera berrian, tropa ugari Gipuzkoa konkistatzera zuzentzeaz gain, abuztuaren 6an Gasteizko eta Iruñeko gotzainek Pastoral bat argitaratu zuten Euzko Alderdi Jeltzaleak Errepublikaren alde agertutako atxikimendua salatzeko. Testuak ez zuen bere helburua bete; batetik, jeltzaleek ez zutelako sinetsi testua Múgicak askatasunez sinatu zezakeenik, horrek ala berretsi arren, eta, bestetik, zenbait apaizi aholkua eskatu ondoren, jelkideek Errepublikaren alde jarraitzea erabaki zutelako[153]. Testua, Múgicaren baimen eta oniritziarekin zabaldu bazen ere[154], Belaskoaineko bainuetxean oporretan zegoen Toledoko Gomá kardinalak idatzitakoa zen. Elizaren agintari hori ezaguna zen bere espainiar nazionalismoagatik eta euskal abertzaleen aurkako iritziagatik. Horrela, 1936ko hauteskundeen ondoren txosten bat bidali zion Pacelli kardinalari haien jokabidea salatuz: «alianzas vergonzosas de los católicos... con revolucionarios de toda laya, descreídos enemigos de la religión y de la patria con el fin de lograr mediante ellas, sus ideales de orden político» (Esnaola & Iturraran, 1994, 783). Gerrak iraun bitartean Gomá Iruñean egon zen eta protagonismo berezia izan zuen gertakizun horietan. Pacelli kardinala, bere aldetik, Elizaren kanpo-arazoez arduratzen zen eta, nahiz eta ez zen ausartu argiro Francoren alde agertzen gerra amaitu arte, ezaguna zen horren aldeko jarrera (Iturralde, 1978, 544-556).

Jeltzaleen jarrerak matxinatuen arteko haserrea indartu zuen bi norabide desberdinetan. Lehenak, Gasteizko gotzaina zuen jomuga (Iturralde, 1978, 197-205. Militarrek Burgosen antolatu zuten Defentsa Juntaren iritziz, Múgicaren jarrera epelegia zen eta nahasia, ez zituelako kendu bere postuetatik, ustez, abertzaleak ziren hainbat apaiz, ez gotzaindegikoak, ez seminariokoak, tartean Bikario Nagusia, Errektorea eta Manuel Lekuona irakaslea. Militarrek Múgicari Burgosera joateko eskatu zioten irailaren hasieran, abertzaleak makurtzeko hartu beharreko neurriak eztabaidatzera, baina Múgica ez zen Gasteiztik irten, bidean hilko zutela susmatzen zuelako, eta erabaki hori bere aurkako salaketa berri bilakatu zen. Orduerako Burgoseko Juntakoek Gomári Múgica Gasteiztik kanporatzea eskatu zioten (Raguer, 2001,

153 Honela deskribatzen du Gomá kardinalak bilera hura: «A mediados de septiembre se celebró una junta de algunos arciprestes, en la que llevaron la voz cantante los arciprestes de Mondragón, Joaquín Arin, y de Éibar, Eugenio Urroz. El primero afirmó que la pastoral era de dudosa autenticidad y que la guerra era justa, porque era contra un injusto invasor. El de Éibar dijo que la guerra contra los españoles era obligatoria para los vascos» (Andrés-Gallego, 2002, 101-102).

154 1937ko urtarrila arte gutxienez altxatuen aldeko mezuak idatzi zituen Gasteizko gotzainak, baina 1945ean idatzitako agiri famatuan (*Por imperativos de mi conciencia*) zera argitu zuen, berak pastoralari baiezkoa eman ziola, baina hainbat gauza konprobatu arte ez zuela argitaratu nahi. Gomák, ordea, berehala argitaratu zuen egiaztatzea amaitu aurretik.

121), bestela neurri gogorren bat hartu beharko zutela iragarriz, baita Gasteizko apaiztegia ixtea ere, bere zuzendaritza aldatu bitartean. Gorabehera batzuen ondoren eta Elizaren agintariak eskari horren aurka agertu arren, azkenean, urriaren 14an Múgica, Vatikanoren eskariari men eginez, Espainia utzi eta Erromara joan zen, bertan egin behar zen Kongresu Katoliko batean parte hartzeko aitzakiarekin. Ez zen gehiago itzuli Gasteizko bere egoitzara[155].

Bere ordezkoa, Bikario Nagusi berria, 1937ko uztailera bitartean, Antonio Pérez Ormazabal izan zen. Pérez Ormazabalek, paradoxikoki, Donostia errepublikarrean zegoela, jeltzaleei gobernuarekiko leialtasuna mantentzeko eskatu zien. Altxatuak Donostian sartu ondoren, berak eta bere inguruak ondo erakutsi zuten zer zen militar eta agintari berrien aurrean makurtzea eta men egitea, apaiz batzuk salbatzeko ahaleginak gorabehera, baita haiek bultzatzea ere, euskal aberria gaitzetsi eta espainiarra goratzera. Testigantza ugari dira jarrera hori erakusten dutenak, baina bakarra jarriko dugu, Pérez Ormazabalen anaiak, apaiztegiko irakaslea berau, urriaren 12n, Arrazaren Egunean, poesia bat irakurri zuen: «Madre España, Madre España, que eres trono y eres yunque y eres castillo y altar (...) por la cruz y con la espada –motes de gesta sublime– hoy mi pueblo se redime»[156].

Bigarren arretagunea erlijioso abertzaleak izan ziren. Múgicarekin batera, aurretik edo ondoren, apaiz- eta erlijioso-andanak utzi zuen Euskal Herria. Batzuek lotura zuzena zuten abertzaletasunarekin, beste batzuk, aldiz, euskaltzaleak baino ez ziren. Hori izan zen, adibidez, on Jose Migel Barandiaranen kasua; baina berehala ohartu ziren beraiek ere izan zitezkeela matxinatuen helburu, altxatuen herra ez zen mugatzen gotzainera eta. Altxatuek, militarrek, zein karlistek, jelkideei eta, beraien ustez, haien buruzagiak ziren apaizei, leporatzen zieten Iparraldeko Frontea zutik mantentzea, horrek zituen ondorioekin. Karlistek, abuztuan bertan azaldu zuten kezka hori, prentsaren bidez eta pribatuki. Fal Conde buruzagiak Gomári bidalitako eskutitzean zera esan zion: gotzain batek (ez zuen izenik aipatzen, baina Múgica baino ezin zen izan) ukatu egin ziela apaiz batzuei armada matxinatuko kapilau izateko baimena eta, aldi berean, ez zituela zigortu zenbait apaiz abertzale. Hilaren 22an Fidel Azurza, Gipuzkoako karlisten buruzagiak eskutitz bat zuzendu zion Múgica gotzainari apaiz abertzaleak (13 lagunen zerrenda bat erantsi zuen) zigortu zitzala eskatuz, bestela militarrek egin beharko zutela iragarriz. Múgicak ezezkoa erantzun zion, salaketen frogak eskatuz, eta Azurzaren eskutitz berri batek jeltzaleen lankide izatea leporatu zion. Izan ere,

155 1936ko abenduaren 29an izandako bileran Francok zera eskatu zion Vatikanori, «porque el poder civil (sic) no podría hoy garantizar la seguridad personal de dicho Sr. Obispo, ruega a la Santa Sede que se difiera sine die el regreso a España de dicho prelado y la consiguiente ausencia de su diócesis» (Rodríguez Aisa, 1981, 96).

Múgica 1947an itzuli zen Espainiara, Donostiara. 1968an hil zen Zarautzen.

156 *La Voz de España*, 1936-10-14.

...no se trata en este caso de sancionar faltas concretas recientes sino de purificar el ambiente de la provincia apartando de su contacto aquellos elementos que por su tradición nacionalista vasca y el carácter de sus cargos, tan propicios a ejercer influencia espiritual, pueden neutralizar y hacer inútil la gestión que estamos llevando a cabo y para lo cual se necesita una energía y una persistencia excepcionales[157].

Irailaren 10ean Fal Condek beste eskutitz bat bidali zion Pedro Segura kardinalari eta bertan Gomárekin izandako elkarrizketaren berri eman zion. Bere hitzetan, Gomá abertzaletasunaren zilegitasun eza salatzearen aldekoa zen, eta hori lortzeko Euskal Herritik kanpora bidali behar ziren apaiz abertzaleak. Falek, bere aldetik, apaiz abertzaleekin gogorrago jokatu behar zela pentsatzen zuen; izan ere, «se viene procediendo con notoria debilidad por los militares de aquí arriba», bereziki kleroarekin. Horregatik, Iruñeko gotzainaren baimena lortu ondoren, Múgicarena ezinezkoa ikusten zuelako, bere ustez, epaitu eta fusilatu egin behar ziren.

Todos aquellos que estén incursos en el bando militar deben ser fusilados pero por consejo de guerra. Porque en los militares la tendencia es más bien la de eliminarles sin juicio ni publicidad.

Y, pienso también, que aun aquellos en quienes no se pruebe participación activa, pero que sean de la docena de exaltados, antiguos forjadores de la indisciplina separatista [,] si es solamente el indicio de que habían estado alentando esto [,] también deben caer.

Segura kardinalak bere oniritzia eman zion, sinatu gabeko eskutitz batean, Fal Conderi apaizen heriotza bultza zezan, «creo que nada obsta a que se cumpla ley, para los que en ella han incurrido. Es triste, pero... es verdad. (...). Yo aconsejaría que se hable poco de esto y que se proceda en justicia. (...) pues la cosa es urgentísima por pedirlo el bien de la patria». Handik gutxira, Gerrako Junta Carlista Nazionalak agiri bat bidali zion Burgoseko Juntari abertzaleen aurkako neurri gogorragoak eskatzen, baita apaiz abertzaleen aurka ere. Azken horien kasuan batzuk hil (inplikazio handia zutenak) eta besteak kanporatu egin behar ziren, gotzainaren baimenarekin edo gabe. Lan horiek betetzea militarren ardura izan behar zuen, nahiz eta karlistek ahalik eta informazio gehien bilduko zuten atxiloketa ugari egon zitezen.

Militarrek bat egiten zuten apaiz abertzaleak zigortu beharrarekin. Cabanellasek irailaren 17an Burgosen Gomári hori esan zion, izan ere «al aliarse los nacionalistas con los comunistas, habían obligado a intensificar y prolongar la lucha y a un mayor derramamiento de sangre» (Rodríguez Aisa, 1981, 47). Ordurako Gomá prest zegoen onartzeko Donostia altxatuen esku egon arren, Bizkaian egon zitekeen erresistentzia gainditzeak abertzaleen jarrera aldatzea eskatzen zuela. Bi bide erabili ziren horreta-

157 Manuel Fal Conderen agiritegia. 1936ko irailaren 2ko eskutitza. Martínez, 2004, 377-397. Hurrengo aipamenak bertatik atera ditugu.

Ezin izan dugu Fal Conderen agiritegia erabili (Nafarroako Unibertsitatean dago gaur egun), berrantolatzen ari dira eta.

rako, bata negoziazio isilen bidea, bestea, errepresio gordinarena. Lehen ahaleginek porrot egin zezaketela ikustean, urriaren hasieran gutxi gorabehera (egon ziren aurrerago beste batzuk) altxatuek bigarrenera jo zuten, presio egiteko edota beste biderik ez zutelako ikusten. Errepresioak hainbat bide izan zituen: erlijiosoei ezarritako isunak, atxiloketak, kartzelaratzeak, erbesteratzeak eta heriotzak.

Erlijioso abertzaleen aurkako jarreraren lehenengo adibideak Oiartzunen, bertako apaizekin, eta Hondarribiko kaputxinoekin gertatu ziren. Hondarribiko kaputxinoek arazoak izan zituzten Irungo milizianoekin eta Guadalupeko gotorlekuan egon ziren giltzapetuta gau bat, baina komentura itzultzeko aukera izan zuten kalte gehiegirik gabe, jeltzaleen presioari esker. Ondorengo egunetan, dena den, gorabehera dexente izan zituzten milizianoekin. Militarrak sartu ondoren, ordea, irailaren 8an, beste arazo batzuk hasi ziren, kaputxinoek prentsa abertzalea erosten omen zutelako eta ez zutelako agurtu Mola jenerala, nahiz eta kaputxinoek bere komentuaren solairu bat eskaini haren soldaduentzat eta tropa marokoarrei bazkari bat eman. Salaketa hori zela medio, Nafarroako kaputxinoen burua, Yabarreko aita Ladislao Hondarribira etorri zen eta erabaki gogor baten berri eman zien hango fraideei, guztiak Nagusia eta bikarioa izan ezik, preso joango zirela kaputxinoek Iruñeko kanpoaldean zuten komentura, abertzaleak zirelako. Handik egun gutxira bide bera hartu zuten bi horiek ere eta hurrengo egunean, bikarioa, Intzako aita Damaso euskaltzaina Altsasura bidali zuten eta handik Txilera. Haren atzetik beste zenbait fraidek ere erbesterako bidea hartu zuten (Inza, 1977).

Oiartzunen aste batzuk lehenago, militarrak sartu orduko, lagun ugari atxilotu zituzten, tartean hiru apaiz: José Domingo Larrañaga (uztailaren 29an), Eustaquio Iriarte eta José Arin (abuztuaren 9an). Hirurak Iruñeko Ezkaba mendiko gotorlekura eraman zituzten eta geroago Iruñeko apaiztegira. Pío Barojak aipatzen duenez, Lesakan bost edo sei apaiz abertzale (hiru horiek izango ziren ziur aski) eta Lekarozen bi fraide ikusi omen zituzten eskuak lotuta (2005, 81). Idazleak Donostiako apaiz abertzale bat ikusi zuen Donibane Lohizuneko portura heltzen, irailaren hasieran, karlisten gorrotoaren beldur, umeei euskaraz abesten erakusten ibili zelako (2005, 114). Apaiz abertzaleen aurkako salaketa ugari argitaratu ziren altxatuen aldeko prentsan. Kaleratu berri zen *La Voz de España*ren irailaren 17ko zenbakian hau irakur zitekeen, «Guipúzcoa no se merece tanto sacerdote nacionalista. (...) La propaganda separatista se hizo en nombre de Dios y colaborando en ella hasta ministros del Señor». Valladolideko unibertsitateak egindako txostena (1938, 8) are gogorragoa izan zen

> El separatismo vasco, que es una de las más monstruosas aberraciones del espíritu humano, ha hecho posible el odio a España en gente nacida en territorio español, ha unido al sediciente católico con el sin-Dios, ha hecho posible la existencia de una parte *inconsciente* del clero regular y secular que asistía impasible a la profanación e las iglesias y ha permitido una desatada y especial propaganda que quería presentar al país vasco-separatista ante el

Extranjero como un oasis de tranqulidad, respeto ideológico y normalidad civil, frente a los desmanes anárquicos de las demás repúblicas rojas.

Irailaren 19an Erromara bidalitako txostenean Gomák onartu egiten du Gasteizko elizbarrutiko apaiz asko abertzaleak zirela eta batzuek armak hartu zituztela komunistekin batera (guztiz faltsua zen datua)[158]. Gertaera horren ondorioz, altxatu batzuek zera aztertu nahi zuten: «la cuestión de conciencia del fusilamiento de sacerdotes y religiosos que han incurrido en las sanciones del fuero militar»[159]. Hurrengo hileko txostenetan ideia bera agertu zen berriro. Ordurako militarrak hasita zeuden apaizak atxilotzen eta zigortzen. Berrogei bat bildu omen zituzten Ondarretako kartzelan eta San Joséko zaharren egoitzan. Salatzaileen artean, bat baino gehiago erlijiosoa zen, salatuen lanpostuak lortzeko itxaropenarekin edota elkarbizitzan sortutako gorroto eta ezinikusiak konpontzeko asmotan. Bat baino gehiago damutu zen, salatuak hil zituztela jakin zuenean.

## *Apaizen fusilatzeak*

Hernanin hildako apaizen ezaugarriak eta bakoitzaren ibilbidea eman aurretik, komeni da gertatutakoaren irudi orokorra eskaintzea eta ondorioak azaltzea[160]. Nafarroan hil zuten matxinatuek lehenengo apaiza: gizarte-kezka ugari zuen baina abertzalea ez zen Santiago Lucus 1936ko irailaren 3an hil zuten[160bis]. Berehala, zurrumurru ugari zabaldu ziren, apaizen atxiloketen eta heriotzen inguruan, kopuru desberdinak plazaratuz Ipar Euskal Herrian. Hala, azaroaren 18an Berako kanposantuan 4 apaiz hilobiratu zituztela zabaldu zen, nahiz eta inoiz ez den horrelakorik konfirmatu. Hogeita hamar izan zitezkeela fusilatutakoak esan zuten iturri desberdinek. Guztira hamasei erlijioso hil zituzten matxinatuek Euskal Herrian. Horietako bat, Antonio Bombín, Errioxako Angucianako Frantziskotarren ikastetxeko irakaslea zen, baina Guardian hil zuten, separatista omen zelako eta gizarte-arazoez kezkatuta zegoelako (Iturralde, 1978, 390). Honako hauek dira hildakoak:

158 Otsailean bidalitako txostenean apaiz baten izena eman zuen, Ramón Labordarena, Pradok Donostian ikusi omen zuen errebolberra eskuan zuela, gudariekin batera. Ez du zehazten zertan. Andrés-Gallego, 2001, 38, documento anexo 4-20.

Aitzoli gertatutako pasartearen berri eman zuen bere liburuan Iturraldek: Belloc-en zegoela, bertako beneditar batek zera esan omen zion Aitzoli, Ariztimuño izeneko apaiz bat une hartan bertan, Donostian, pistola eskuan, Francoren katolikoen aurka ari zela borrokan (Iturralde, 1978, 363).

159 Gomá kardinalaren txostena Vatikanora, 1936ko irailaren 19koa (Rodríguez Aisa, 1981, 49).

160 Apaiz eta erlijioso bakoitzaren berri zabalagoa nahi duenak jo beza Euzko Apaiz Taldeak kaleratutako liburuetara, 1981ekora bereziki.

160bis Irailaren 12an Kasedako parrokoa, Eladio Celaya, 72 urtekoa, hil zen Azkoienen. Zenbaiten ustez eraila. (Altafaylla, 2003, 508).

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Lucus Aramendia, Santiago | Armadako kapilaua | 38 urte | Iruñeko bidean | 1936-09-03 |
| Bombín, Antonio | Frantziskotarra | | Guardian | 1936-09/10 |
| Albisu Bidaur, Gervasio, | Errenteriako koajutorea | 64 urte | Hernanin | 1936-10-07 |
| Lekuona Etxabeguren, Martín, | Errenteriako koajutorea | 29 urte | Hernanin | 1936-10-07 |
| Adarraga Larburu, José, | Hernanira lotua | 55 urte | Hernanin | 1936-10-17 |
| Ariztimuño Olaso, José | Donostiara lotua | 40 urte | Hernanin | 1936-10-17 |
| Sagarna Uriarte, José | Berriatuako koajutorea | 25 urte | Markinan | 1936-10-20 |
| Mendikute Lizeaga, Alejandro, | Hernaniko kapilaua | 45 urte | Hernanin | 1936-10-23 |
| OtanoMikeliz, José, | Tolosako Korazonista | 38 urte | Hernanin | 1936-10-23 |
| Arin Oyarzabal, José, | Arrasateko arziprestea | 64 urte | Oiartzunen | 1936-10-24 |
| Guridi Arrazola, Leonardo, | Arrasateko koajutorea | 38 urte | Oiartzunen | 1936-10-24 |
| Marquiegui Olazabal, José, | Arrasateko koajutorea | 38 urte | Oiartzunen | 1936-10-24 |
| Peñagarikano Solozabal, José I. | Etxebarriko koajutorea | 64 urte | Hernanin | 1936-10-27 |
| Onaindia Zuloaga, Celestino | Elgoibarreko koajutorea | 38 urte | Hernanin | 1936-10-29 |
| Iturricastillo Aranzabal, Joaquín, | Marineko ekonomoa | 34 urte | Oiartzunen | 1936-11-08 |
| Urtiaga Elezburu, Román, | Zornotzako karmeldarra | 49 urte | Zornotzan | 1937-05-19 |

Gipuzkoan hildako lehen apaizak Errenteriako parrokiko Gervasio Albisu eta Martín Lekuona izan ziren. Irailaren amaieran atxilotu zituzten eta handik astebetera, urriaren 7tik 8rako gauean fusilatu zituzten Hernanin. Haien atzetik beste sei erlijioso hil zituzten herri horretan eta beste lau Oiartzunen. Heriotzen berri berehala zabaldu zen, hilaren 11rako ezaguna zen Iparraldean zenbait apaiz atxilotuta zeudela eta batzuk, kopuru eta izenik ezagutu gabe, fusilatu egin zituztela. Urriaren 13rako, Albisuren eta Lekuonaren izenen berri eman zen[161]. Mugak eta egoerak ezarritako zailtasunak eta zehaztasun-falta gorabehera, informazio ugari heldu zen hurrengo egun eta asteetan Gipuzkoan gertatzen ari zenaren inguruan.

Hernanin hildakoak ikusi aurretik, eta beste erlijiosoei dagokienez aipatu dugu liburuaren sarreran zernolako bertsio kontrajarriak eman ziren Sagarnaren atxiloketa eta heriotza zela eta. Bat gehiago aipatzearren, 1959an Francorentzat egindako txostenaren arabera, Markinako frontean hil zuten, bertan zegoen Iruñeko Falangeko Bigarren Zenturiako buruak errepublikarrei informazioa ematen ziela eta gudari jantzita fronteen arteko muga zeharkatzen zuela leporatu ondoren. Bertan egin omen zen gerra-kontseilua, heriotzara zigortu eta urriaren 20an hil. Egun gutxi batzuk geroago, 24an, hil zituzten Oiartzunen Arrasateko arziprestea, José Arin eta bi koajutore, Leonardo Guridi eta José Marquiegui. Hiru apaiz horien heriotzak Arrasateko herriak jaso zuen errepresioaren dinamikaren barruan ulertu behar dira. 1934ko

161 Labayru Ikastegiko Agiritegia. Onaindia Fondoa.

urriko iraultza-saioak ondorio latzak utzi zituen herrian, bai orduan, baita 1936an ere, berrogei lagun baino gehiago atxilotu eta hil baitzituzten frankistek azken urte horretako udazkenean Debagoieneko herri horretan.

Apaizen heriotzek, hala ere, mugarria ezarri zuten. Arin arziprestea oso ezaguna eta estimatua zen herrian, lan asko egina baitzen behartsuenen alde, gotzainaren estimua zuen eta ez zen nabarmendu politikoki. Hala ere, bazituen hainbat gabezi eta kulpa matxinatuen iritziz: Viteri eskolen alde agertu zen, karlistak aurka zeudela; eliza-erakundeek bultzatutako jarduera guztietan (meza, antzerki, kantaldi, jaialdi, eta abar) Espainiari buruzko erreferentzia guztiak kentzen saiatzen zen (Bayle, 1939, 196); 1936ko otsaileko hauteskundeetan, gotzainaren agindua jarraituz, zilegi zela abertzaleei botoa ematea azaldu zuen eta urte horretako udan, gerra hasi ondoren, Gipuzkoako hainbat arziprestek egindako bilera batean parte hartu zuen, altxatuen alde Múgicak eta Olaetxeak kaleratutako pastoralari nolabait indarra kenduz[162]. Ez da harritzekoa, beraz, militar matxinatuak Arrasaten sartu orduko, 1933ko hauteskundeetan hautagaia izan zen María Rosa Urraca Pastor andere karlistak Arin ikusi eta ¡Viva España! oihukatzera behartzea hiru aldiz eta honako esaldi hau botatzea, «Si de mí dependiera, ahora mismo sería fusilado»[163]. Hurrengo igandean mezatan hitz gutxi batzuk euskaraz esan eta hiru egun geroago atxilotu egin zuten bere bi laguntzaileekin batera. Marquieguiri abertzalea izateaz gain, mugimendu horren zabaltzailea eta Arrasateko gorri-separatisten erresistentziaren bultzatzailea izatea leporatu zioten[164]. Guridiren kasuan, aldiz, Múgicaren pastoralaren egokitasuna zalantzan jartzea izan omen zen bere hobena. Urriaren 22an sartu ziren Ondarretara eskuak lotuta eta bi egun geroago, "libre" zeudela esan, kartzelatik atera, Oiartzuneko kanposantura eraman eta bertan fusilatu zituzten, beste 20 bat lagunekin batera.

Gipuzkoan fusilatuetako azken apaiza ere Oiartzunen hil zuten, baina oraingo honetan Artikutzako bidean, Joaquín Iturricastillo elgetarra, Eskoriatzako Marin auzoko abadea. Frontea, hain zuzen, auzo horren eta Gatzaga herriaren artean zegoen. Itxura guztien arabera, militarrek Marinetik Gatzagara joaten ikusi, meza ematera, eta espioitzat hartu zuten; berehala atxilotu zuten beste lau lagunekin batera. Beste kasu batzuetako moduan, ez ziren falta izan salaketa berriak apaizaren aurka: abertzalea omen zen (gezurra zena, Gil Roblesen CEDAtik hurbilago baitzegoen) eta dantza helduak kritikatu izana euskal usadioen aurkako ohitura zirelako. Herritar batek salatu omen zuen, denda bat zuelako eta Iturricastillok bultzatutako koopera-

162 Fundación Francisco Franco, 4128.

163 Bertsio desberdinak daude pasarte horri buruz, baina oinarrian bat egiten dute. Ikusi, adibidez, Luis Arrizabalaga eta Juliana Guridiren testigantzak Gamboa-Larronderen liburuan.

164 Markiegiren anaia, Polentzi, Debako alkate jeltzalea, hurrengo urtean hil zuten frankistek Santoñan.

tibak bezeroak kendu zizkiolako[165]. Gomák are salaketa gogorragoak egin zituen: «Era dirigente del partido nacionalista y tenía a su cargo el servicio de espionaje antes de que los nacionales se apoderasen del pueblo. Aconsejaba a los mozos de la parroquia que se alistaran en las filas de los rojos. Tenía relaciones con los dirigentes del Frente Popular» (Andrés-Gallego, 2002, 38). Azaroaren 3 edo 4an eraman zuten Ondarretara eta nahiz eta bere arrebak eta beste apaiz batzuek hura askatzeko ahaleginak egin Gasteizko gotzaindegian, berandu ibili ziren. "Libre" utzi zutela esan eta haren ondasun apurrak eman zizkioten arrebari: apaiz-txapela, manteoa, aterki bat, eta liburu gutxi batzuk. Ordurako Artikutza bidean zegoen hilda, beste zazpi lagunekin batera.

### *Hernanin fusilatutako apaizen ezaugarriak*

Arestian aipatu dugunez, Hernani izan zen Gipuzkoan hildako apaiz gehienen bilgunea. Zortzi elizgizon (7 apaiz eta korazonista bat) hil zituzten bertan, nahiz eta kasu batean edo bestean (Otano eta Peñagarikanoren kasuetan) zalantzak dauden heriotzaren tokiaren inguruan. Hildako lehenengo bi apaizak Errenteriako bi koajutore izan ziren, Gervasio Albisu eta Martín Lekuona, herriko koajutore zaharrena eta gazteena, hain zuzen. Ez dirudi kasualitatea izan zenik beraien fusilatzeak urriaren 7an izatea, hots, Euzko Jaurlaritza osatu zen egunean. Badirudi frankistek abertzaleak erakartzeko edo makurtzeko zituzten balizko itxaropenak desagertu egin zirela eta haien ustezko zuzendarien aurka, hots apaiz abertzaleen aurka, gogor jotzea erabaki zutela. Albisuk Errenteriatik alde egin zuen gerrako egunetan, aurrena Donostiara eta gero Zumaiara, baina handik herrira itzultzea erabaki zuen. Heldu bezain pronto atxilotu zuten, irailaren 29an. Egun horretan bertan giltzaperatu zuten Martín Lekuona. Iritsi berria zen Errenteriako parrokiara eta gazteekin egiten zuen lan, gotzaindegirako hainbat ardura bete ondoren, besteak beste, Asociación Vasca de Acción Social Católicako Donostiako idazkaria izan zen. Ihes egiteko mandatua eman zioten, baina "nik ez diot inori kalterik egin" esanda gelditu egin zen herrian. Komandantzia militarrera deitu eta bertan aurkeztu zenean etxera itzuli eta kaleko arropekin itzultzeko eskatu omen zioten han zeuden falangistek eta hala egin zuen, ihes egiteko aukera izan arren[166]. Albisurekin batera Errenteriako batzokian (espetxe bihurtuta) egon zen preso irailaren 29tik urriaren 4ra arte. Bi omen ziren salaketa garrantzitsuenak: lehena karlistek antolatutako meza baten berri ematea Frente Popularrekoei, haiei erasotze-

165 Handik urte batzuetara, bere nahia ez zela izan apaiza fusilatzea aitortu omen zuen (Domingo, 2004, 321).

166 Artecheren arabera falangistak ziren (1970, 51), Pelletierrek lehenik falangistak aipatzen ditu, ondoren karlista bat izan zela dio (1937, 66).

ko; abertzale sutsuak izatea bigarrena. Horrela finkatu zituen salaketak Errenteriako buruzagi militarrak gobernadore zibilari bidalitako eskutitzean:

> el primero [Albisu] fundador del partido en ésta y que ha manifestado siempre públicamente su desprecio a todo lo español no ocultando sus simpatías por el Frente Popular. Cuando el movimiento catalán de octubre del 34, se vanagloriaba de este movimiento y manifestaba sus deseos de que lo imitaran los vascos. Ha sido el brazo derecho y consejero de un tal Loidi, teniente-alcalde y presidente de la Comisión de Abastos y Finanazas de Frente Popular de Rentería (...).
>
> El segundo además de su exaltado nacionalismo hacía pública propaganda en la Escuela de una Sociedad que con el matiz de Social-Católica era vergonzante nacionalista, hasta el extremo que alguna vez los padres de familia han protestado porque entre otras cosas imponía multas por hablar el español...
>
> Los detenidos han sido ingresados en traje seglar en el día de hoy en la Cárcel de Ondarreta, donde se encuentran a disposición de su [neuk azpimarratuta] autoridad.

Lehen salaketa gezurra zen, baina Círculo Carlista-ko idazkaria izan zen José María García Fuentes-en heriotzari mendeku emateko modua zen eta heriotzak justifikatzeko aitzakia egokia, gertatu ez zen gerra-ekintza batean nahastuz bi apaizak. Egia zen biak abertzaleak zirela, baina ez oso nabarmenak. Edozein kasutan, Loidi zinegotzi jeltzalearen bizilaguna zen Albisu eta Lekuonak euskararen alde gogor egiten zuen bere jardunetan. Julián, bere anaia, EAJko kidea berau, militarrek hil zuten Oiartzunen sartu zirenean. Adierazgarria da, era berean, ez zituztela beraien etxeak miatu. Nortzuk izan ziren salatzaileak? herrikoak izan beharko. Batzuen esanetan, bertako karlistak izan ziren, beste batzuek bi apaizen izenak eman zituzten (Gamboa-Larronde, 2006, 100). Beraien asmoa, Iturricastillorekin gertatu zen bezala, ez zen beraien kideak heriotzara eramatea, behin-behineko urruntze bat lortzea baino (EAT, 1981, 228). Inbidiak eta diferentzia politikoak zeuden salaketen atzean.

Ondarretan lau egun baino ez zuten egin, familiak jana eta koltxoiak eraman zizkien, baina ez zuten beraiekin hitz egiteko aukerarik izan. Urriaren 8an Albisuren iloba bat (Fernando Garaicoechea apaizaren arreba) bazkaria eramatera joan zenean, libre utzi zituztela esan zioten zaindariek, aurreko eguneko saskia itzuliz. Han, berriz, afaria zegoen ukitu gabe eta Martín Lekuonaren erlojua. Zer gertatu zen? Julián Legarra apaiza izan zen lekukoa. Gaueko hamaika eta erdiak aldera, San Juan abizeneko zaindari bat agertu zen 16. gelan eta Albisuri eta Lekuonari prestatzeko esan zien, kartzelatik ateratzeko. Hala egin zuten bi apaizek, pozik, askatuko zituztelakoan. Askatasuna lortzeko ahaleginak egingo zituztela esanez agur egin zioten Legarrari. Hurrengo goizean, espetxeko garbitzaile batek, Legarraren ezaguna, abadea ikustean, atzamarrak lepora eraman zituen, bi apaizak hil zituztela adierazteko keinua eginez (Iturralde, 1978, 361-362). Errenterian egindako lehen itaunketa salbu, ez zituzten berriro galdekatu, are gutxiago epaitu. Familiei, hauek hainbat gestio egin ondoren, era extra-

ofizialean, zera esan zieten, Hernani inguruan fusilatu zituztela beste 14 lagunekin batera. Ezin izan zituzten gorpuak berreskuratu eta haien aldeko meza ospatu nahi izan zutenean agintariek baimena ukatu zuten, apaizak beharbada bizirik zeudelako aitzakia jarrita. Handik gutxira, Gervasio Albisuren etxeko ondasunak lapurtu zituzten.

Hamar egun geroago, urriaren 17an beste bi apaiz hil zituzten, nahiz eta beraien arteko loturarik ez egon. Bata, José Adarraga hernaniarra dugu. Apaizen hilketek azalpen gutxi baldin badituzte, Adarragarenak are gutxiago, bere bizitzaren zatirik handiena Mexicon pasatu zuelako eta ez zuelako inoiz inongo sinpatia politikorik azaldu. Bere errugabetasunaren eta garrantzi politiko ezaren adierazlea da 1959an Francori aurkeztutako txostenean ez ziotela ezer leporatu eta ez zutela berari buruzko inongo daturik, ez baitzekiten noiz fusilatu zuten (abuztuan jartzen zuen txostenak), ezta non hil zuten ere. Hernanin lurperatu zutela baino ez zekiten. Arrazoi bakarra aurkitu da Adarragaren heriotzari azalpenen bat emateko eta familiaren bidetik etorri zen. Bere anaia bat, Juan Adarraga, Izquierda Republicana alderdiko kidea zen eta parte-hartze zuzena izan zuen Autonomia Estatutuaren eztabaidan eta garaiko hauteskunde-kanpainetan. Bere koinatu bat Gipuzkoako Diputazioko Comisión Gestora-ko kidea izan zen eta ordurako fusilatua zuten militar matxinatuek. Arrazoi eskasak dirudite, baina ez da besterik aurkitu.

Bigarren apaiza askoz ere ezagunagoa genuen, José Ariztimuño *Aitzol*. Azaldu ditugu aurreko atalean bere atxiloketa eta heriotza. Bizirik zegoen bitartean zuen oihartzunak eta polemikarako gaitasunak heriotzaren ostean ere lagundu zion, «En torno a él se ha tejido una amplia novela, que ya pocos días despues de su muerte desmintió el P. Juan Urriza, de la Compañía de Jesús»[167]. Izan ere, hil bezain pronto zabaldu ziren lehen zurrumurruak:

> Hoy nos basta saber que José de Ariztimuño fué hecho prisionero y que, cruelmente tratado, vejado y escarnecido se le encerró en la cárcel de Ondarreta.
>
> Horas después, con solo tomarle unas declaraciones en las que ratificó y confirmó sus firmes convicciones patrióticas; sin formársele sumario, sin proceso sin sentencia, dándosele tan sólo el tiempo justo para recibir los santos sacramentos, la madrugada de un día que no puedo precisar con certeza, pero que quedará grabado para siempre en la memoria de Euskalerria, fue fusilado en las inmediaciones de Euzkadi.
>
> (...)
>
> Se ha sabido que Ariztimuño abrazó y perdonó al jefe del pelotón que iba a ejecutarle. Murió como un santo y un héroe aclamando a euzkadi y pidiendo a Dios, al expirar, piedad y misericordia.
>
> Cuentan testigos próximos al lugar del suceso que el cuerpo de Aitzol desapareció misteriosamente a las dos horas de haber exhalado su último suspiro[168].

167 Fundación Francisco Franco, 4128.

168 "A la memoria imperecedera de Aitzol", *Euzko Deya* 5, 1936-11-13.

Gertaera horien iluntasuna zurrumurru ugariren iturburu izan zen eta gehienek apaizen balentria eta abertzaletasunari eskainitako atxikimendua aipatzen zituzten. Baina ez ziren errepublikarrak bakarrik kontuak horrela haizetu zituztenak. Gomá kardinalak Pacelliri bidalitako eskutitzean zera zioen: «Murió gritando Gora Euzkadi, "Viva Euzkadi libre". (El P. Lacoume dice que al morir le dijo que sentía pesar sobre sí la mano de Dios y que ya barruntaba debía ocurrir algo)» (Andrés-Gallego, 2002, 38). Ez zen hori Urriza jesulagunaren iritzia:

> Ningún género ha sido más propicio que éste para hacer circular bulos de todo género. Alguien me contaba que cuantos han muerto, fieles a sus ideales separatistas, lanzaban un gora euzkadi, por la que sacrificaban gustosos sus vidas. Si a V. le cuentan eso, no lo crea V. No son momentos que dejen tiempo para muchas cosas. El adiós supremo a la vida, y la inminencia de la eternidad llenan totalmente el alma. No le daré datos, porque deben guardarse en secreto. Muy pocos, poquísimos se han acordado en esos instantes de sus ideales políticos. Se lo asegura a V. quien lo sabe de visu y ex auditu propiis. ¿Quiere V. Una muestra típica? Varias veces visité a Aitzol estando detenido en la cárcel. No me habló jamás de ideales políticos. Estaba convencido de la proximidad de su muerte. Nuestras conversaciones –únicas que parecía admitir– se ordenaron exclusivamente a eso. Conmigo recitó, dictándosela yo, porque no la podía recordar, la oración de Pío X que encierra la aceptación de la muerte; en castellano. No en vascuence. En la para ellos despreciable lengua maqueta invocaba al Señor, como si para obtener el perdón del cielo fuera la llave la lengua de España[169].

Ez dugu inoiz benetan jakingo zer gertatu zen, ezta egia ote ziren ere zabaldutako hainbat zurrumurru, hala nola, pelotoiak tiro egin zuenean, zauritu baino ez zutela egin eta min-oihuen artean, ofizial bat hurbildu zitzaiola, Bilboko jauntxo gazte bat, azken tiroa ematera[170].

Militar altxatuen egarria ez zen asetu Ariztimuñoren heriotzarekin. Astebete pasa baino lehen beste bi erlijioso heldu ziren kanposantuko hormetara. Alejandro Mendikute apaiza eta José Otano korazonista. Mendikute abertzale sutsua zen, «De uno solo de ellos, Alejandro Mendicute, llegó a mí, estando aún en Vitoria, el rumor de que había hecho algo, muy al principio, en contra del ejército blanco, cosa que no fue posible comprobar. Si fue verdad, lo condeno categóricamente; por lo demás, él era buen sacerdote»[171]. Mendikutek hainbat ekitaldi jelkidetan hartu zuen parte Errepublikako urteetan. Besteak beste, Zegaman egindako mitin batean. Bertan, herri hartako paper-lantegiko jabeetako bat zen Aseginolaza jaunaren aurka mintzatu zen eta berari leporatu zion Mendikutek gertatu zitzaiona. Izan ere, Mendikute bitan atxilotu zuten. Lehenengo aldian Hernaniko kartzelan sartu zuten, baina hamar egun barruan pasatu ondoren askatu egin zuten Miguel bere anaiari esker, Hernaniko pa-

169 Andrés-Gallego, 2002, 409-411.

170 Abertzaletasunaren Agiritegia. Irujo Fondoa, 76.

171 Múgicak Vatikanora 1937ko urtarrilean bidalitako txostena (Esnaola & Iturraran, 1994, 805).

rrokoa berau. Urriaren 14aren inguruan, ordea, falangista-talde bat azaldu zen bere etxean eta preso eraman zuten, irain eta mehatxuen artean[172]. Egun berean, sartu zuten Ondarretako kartzelan, gobernadore zibilaren aginduz, «a disposición del juez militar de esta Plaza». Hainbat egun egin zituen bertan, lehenik 11. ziegan eta gero 16.ean, Lekuona eta Albisuk erabili zuten berberean, Otanorekin batera. Maitekiro azaldu omen zen bere erasotzaileekin eta beraien alde egiten omen zuen otoitz. Azkenean, urriaren 24an eraman zuten, itxuraz galdeketarik eta epaiketarik egin gabe, «Puesto en libertad por orden del comandante juez instructor Ramiro Llamas, se une al expediente de José Otano». Izan zituen kontsolamendu bakarrak bere anaia berarekin egotea azken momentuan eta bere herrian hil zutenez, familiaren panteoian atseden hartzeko aukera edukitzea izan ziren. Ez dakigu zer pentsatuko zuen anaiak, handik hilabetera, Hernaniko udaletxeko balkoitik hitz egin zuenean, hernaniarren sinismena goraipatu, Jaungoikoa bera, Armada Salbatzailea, Franco jenerala eta haren laguntzaile guztiak egoera berriaren bultzatzaileak zirela esan eta garaipen osoaren aldeko otoitza eskatu zuenean[173].

Mendikuterekin batera, José Otano lekaimea hil zuten. Nafarra zen jaiotzaz, baina Tolosako Corazonisten komentuan zegoen gerra hasi zenean, Bilbon eta atzerrian hainbat urte pasa ondoren. Adarragaren kasuan bezala, ez da erraza jakitea zergatik atxilotu eta hil zuten. Isilean bizi zen, ez zen ezaguna eta ia inork ez zuen ezagutzen euskal abertzaletasunari zion sinpatia[174]. Musikaria zen eta euskaldun berria, eta bi elemendu horien batuketak zerikusia izan omen zuen bere salaketan. Elizako organista izanik, euskarazko kantuak sartzen saiatzen zen, gaztelaniazkoak eta latinezkoak baztertu gabe. Gerra hasi zenean, Bilbora joateko aukera izan zuen, baina nahiago izan zuen Donostian geratu. Urriaren 12an atxilotu zuten. Salaketa, antza, anaidi bereko fraide batek egin omen zuen, aita Julio Ramírezek. Otanok "gorriek" arrazoi zutela eta gustura joango zela haiekin esan omen zuen[175]. Otano eta Mendikuterekin batera hainbat seglar ere hil omen zituzten. Bi erlijiosoak Hernaniko Villa Trinidad etxera eraman zituzten azken aitortza egitera, ondoren guztiek jauna hartu zuten eta kanposantuaren ateen ondoan zegoen horman jarri zituzten fusilatzeko. Hil aurretik, antza, Otanok ez sufriarazteko eskatu omen zuen eta bere heriotzarekin zerikusia zuten guztiak barkatu zituen (EAT, 1981, 309).

172 Pelletierren testigantzaren arabera, Juan José Pradera zen atxiloketaren arduradun zuzena, «recuerdo deliberadamente su nombre» (1937, 67), baina handik urte batzuetara Praderak ukatu egin zuen heriotzarekin zerikusirik izan zuenik (EAT, 1981, 305).

173 *La Voz de España*, 1936-12-1.

174 Abertzaletasunaren Agiritegia. Irujo Fondoa, 76.

175 Andrés-Gallego, 2002, 39.

Hernanin hildako azken bi apaizak José Ignacio Peñagarikano eta Celestino Onaindia izan ziren. Lehena Bizkaiko Etxebarri herriko koajutorea zen; Onaindiak, berriz, Markinakoa izan arren, oso hurbilekoa beraz, Gipuzkoako Elgoibarren egiten zuen lan bera. 64 urte zituen Peñagarikanok eta 38 Onaindiak. Celestinok bi anaia zituen apaiz, Domingo eta Alberto. Azken horrek protagonismo handia izan zuen gerra-garaiko bi aldeen arteko elkarrizketetan eta gerra osteko abertzaletasunean. Peñagarikanoren parrokia frontearen ondoan geratu zen 1936ko urriaren hasieran eta milizianoek haren etxea hartu zuten. Gertaera horrek apaiza asaldatu eta mendira ihes egitera eraman zuen eta hainbat egun pasatu zituen inguruko baserrietan ezkutatzen eta baselizetan mezak ematen. Ibilera horiek susmagarri bihurtu zuten eta badaezpada ere, militar matxinatuen aurrera aurkeztea erabaki zuen, Urkarregiko gainean. Bertan zegoen agintariak, Gortazar kapitainak, markinarra jatorriz, igarobide bat luzatu zion eta Elgoibarrera jaitsi zuen; Onaindia bizi zen etxera, hain zuzen; urriaren 21a zen[176]. Berehala heldu ziren Onaindiaren etxera zelatariak, apaizen gelak miatu (Peñagarikanori ez zioten ezer aurkitu eta Onaindiari Frantziatik heldutako bi eskutitz, baina zentsuraren oniritziarekin), preso hartu eta Donostiara eraman zituzten. Ez zegoen Peñagarikanoren aurkako salaketarik, abertzaleen aldekoa zela eta bere anaia bat gudariekin ari zela borrokatzen salbu[177]. Onaindiari zegokienez, oso iritzi kontrajarriak bildu ditugu. Múgica gotzainak Alberto anaiari bidalitako eskutitzean zera esan zion «era uno de los mejores, (...) Mira que fusilar a un ministro tan excelente de Jesucristo! ¡Qué pecado más terrible!». Frankistek kontrako iritzia zuten: «En la localidad de Elgoibar observó mala conducta, y estaba conceptuado como extremadamente separatista, hablando públicamente en contra de la Causa Nacional. Se le acusó también de espionaje»[178]. Horretaz gain, Peñagarikano ezkutatu eta babestu izana leporatu zioten.

Atxiloketen berri eduki bezain pronto, Elgoibarren batzorde bat osatu zen, alkatea eta parrokoa buru zituela, eta Donostiara abiatu ziren agintari militarrekin hitz egitera. Onaindia oso ezaguna eta maitatua omen zen herrian eta jarrera ezin hobea erakutsi zuen. Eskuineko preso ugari askatu zituen eta bere abertzaletasuna euskalzaletasuna baino ez zen, mitinetan edo jaialdi abertzaleetan parte hartu gabe. Alferrikakoa izan zen ahalegina, Ondarretako 5. ziegan sartu zituzten bi apaizak, Oiartzunen hil zituzten Arrasateko hiru erlijiosoekin batera. Horiek atera zituztenean, Andoiango parrokoa, Joaquín Bermejo, eraman zuten bertara eta hori askatu zute-

176 Jerónimo Magureguik 1936ko azaroaren 7an Gomári bidalitako eskutitzetik hartu ditugu datu horiek, (Andrés-Gallego, 2001, 275-277).

177 «De ideas nacionalistas», Fundación Francisco Franco, 4128. Anaiarena, Abertzaletasunaren Agiritegia, Irujo Fondoa, 76-3.

178 Fundación Francisco Franco, 4128.

nean, Astigarragako parrokoa. Bestelako informerik gabe, galdeketarik egin gabe eta epaitu gabe, urriaren 27ko gauean atera zuten ziegatik Peñagarikano eta, itxura guztien arabera, Hernanira eraman eta fusilatu zuten. Onaindia beste ziega batera eraman zuten, Juan José Olazabal arkitektoarekin batera[179], besteak beste, eta hurrengo egunean Urriza jesulagunak bisitatu zuen, hil egingo zutela aditzera emanez, baina zuzenean esan gabe. Gaueko hamaikak aldera etorri ziren bere bila, manteoa ahaztu zuen eta gogorarazi ziotenean, zera esan omen zuen, "ez dut behar, badakit nora eraman behar nauten". Eskuak bizkarrera lotu eta kamioi batera igo zuten beste hamabi lagunekin batera, tartean Donostiako sozialista gaztetxo bat. Hernaniko kanposantura eraman zituzten. Hil aurretik bere betaurrekoak kendu zituen eta *Te Deum*-a errezatu zuen. Hilerriko atarian lurperatu zuten sasi artean.

Apaizen fusilatzeak laburbiltzeko beren kideek jasotako testigantzen sintesia egingo dugu. Hil aurreko egunetan eskutitzak idazteko aukera izan zuten apaizek, nahiz eta oraindik ez jakin zer gertatuko zitzaien. Janaria kanpotik eraman zieten, familia edota ezagunek bidalita eta otoitz ugari egin zituzten preso eraman zituztenean hartutako eliza-liburuak irakurriz. Ateratzeko agindua jaso zutenean, jarrera desberdinak izan zituzten, hasierakoek libre zeudela uste zuten eta pozik irten ziren; azkenekoek, jesulagun baten bisita izaten zuten ordu batzuk lehenago, garai zail haietan prestatuta egon behar zutela adieraziz. Itxaropenik gabe, zituzten ondasun apurrak banatu edota etxera bidaltzeko ahalegina egin zuten, nahiz eta hori kasu bakan batzuetan baino ez gertatu, adiskideei egindako erreguei esker. Bekatuen aitortza egin eta duintasun handiarekin abiatu ziren kanpoaldera, kristau-fedearen testigantza irmoa eskainiz.

Fusilatzeei buruzko erreferentzia garrantzitsuena, nahiz eta ez izan oso fidagarria, Urriza jesulagunarena da, lekuko zuzena izan zelako, nahiz eta bere testigantza militarrek egindakoa zuritzera zuzendu zen. Erlijioso horrek 1937ko urtarrilean aita Adurizi bidalitako eskutitzean, besteak beste, honakoak azaldu zizkion:

> En lo que había ciertamente deficiencias es en el modo de la ejecución: la justicia se hacía en aquellos días segura pero prontamente y no había al principio ni abundancia de vehículos para conducirlos (apaizak) al lugar de la ejecución –por eso algunos fueron mezclados en el coche de los demás reos–, ni sobra de verdugos o fusileros, ni de enterradores –por eso cayeron y fueron enterrados mezclados con los rojos y los nacionalistas–, permitiendo así Dios que sus cuerpos cayeran en la misma fosa con los que iban o aconsejaban estar unidos en la guerra. Pero soy testigo de la pena con que actuaron siempre los mismos ejecutores, y lo vieron sacerdotes también; que por eso, viendo tan conmovido al que mandaba el pelotón de fusileros uno de los sacerdotes le dio un abrazo; y cuando pudieron los llevaron en coche aparte; y finalmente los mismos ejecutores retrasaban si podían de un día para otro la ejecución y destacaron sus jefes hacia las alturas para poner un remedio, que ha sido, se lo aseguro, definitivo.

179 Honen testigantza (Arteche, 1970, 111).

*Fusilatzeen amaiera*

Gomák, itxuraz, apaizen fusilatzeen lehen berria urriaren 26aren inguruan izan zuen, Iruñetik Toledora abiatzeko zela. Data horretan José Ángel Lizasoain Palaciosek, Donostiako Acción Católicako lehendakariak jakinarazi zion matxinatuek bederatzi apaiz hil zituztela. Lizasoainen ekintzaren iturburua Julián Pereda jesulaguna izan omen zen, Donostiako San Ignacio ikastetxeko errektorea (Sierra, 2001, 415)[180]. Gertaera hau, berez, oso larria zen, baina bazegoen are larriagoa egiten zuen ezaugarria Elizaren agintariaren begietara: ez zietela beraiei inongo baimenik eskatu, izan ere Estatuarekin sinatutako agiri guztiek elizgizonen zigorra araudi bereziaren esku uzten zuten. Arrazoi hori asko erabili zuten bai Múgicak berak, baita erbesteratutako apaizek ere, alegia, matxinatuek ez zutela errespetatu Elizaren autonomia. Gomáren kasuan, nahiz eta pentsatu errepresio-mota hori gehiegizkoa izan zela, batzuetan bazirudien garrantzi gehiago eman ziola baimen-faltari, heriotzari berari baino. Edozein modutan, horiek gelditu egin behar ziren, baina frankismoaren aurkako tresna bilakatu gabe, diskretoki, alegia. Nabarmena da, bestetik, Elizak bi irizpide desberdin erabili zituela neurtzeko, hildakoak apaizak baldin baziren protesta egin zitekeen, laikoak izanik ez zen beharrezkoa, militarren "legalitateak" bermatzen zituelako ekintza horien zuzentasuna.

Gomák Toledora egin beharreko bidaia erabili zuen Burgosen Dávila jeneralarekin biltzeko, hori baitzen altxatuen Junta Teknikoaren burua eta honek hitz eman omen zion «que interpondría su autoridad para que no se vulnerara ningún fuero». Egun berean, urriaren 26an, Gomá Francorekin bildu zen Salamancan:

> ante quien hice valer las razones de justicia, de antipatía que se engendraba contra el ejército, de aumento de la aflicción de la Iglesia ya tan afligida por tanta desgracia, y especialmente apuntando la posibilidad de una reclamación por parte de la Santa Sede, por haber sido vulneradas las disposiciones canónicas en este punto.

Francok, han esandakoaren arabera, ez zuen gertatukoaren berririk, eta hitz eman zion kardinalari, horrelako ekintzak ez zirela errepikatuko, «Tenga Su Eminencia la seguridad de que esto queda cortado inmediatamente». Handik egun gutxitara, Francoren Kabinete Diplomatuaren buruak, J. Antonio Sangronizek adierazi zion Gomári neurri azkar eta sendoak hartu zirela gertatutakoa ez errepikatzeko. Francok, antza, telegrama bat bidali zion Dávila jeneralari eta honek beste bat Llamasi apaizen fusilatzeak geldiarazteko aginduz. Llamasek aginduak ez zuela Iturricastillo apaizaren kasua hartzen harrotu zuen, eta fusilatzea agindu zuen. Handik gutxira, lehen

180 Hurrengo egunetan gutxienez beste eskutitz bat jaso zuen fusilatzeen berri emanez, Jerónimo Maguregui eibartarrak bidalitakoa, hain zuzen, azaroaren 7an. Zehaztu gabeko datan Urriza jesulaguna ere Gomárekin elkarrizketatu zen. Lacoumek bidalita, «para resolver aquel conflicto de poderes».

ikusi dugun moduan, Gipuzkoako agintari militarrak kargutik kendu zituzten eta apaizen fusilatzeak amaitu egin ziren[181].

Hildako apaiz gehienek antzeko ezaugarriak zituzten: nahiko gazteak ziren, baina ez nabarmen, gehienak 40 urte ingurukoak, euskaldunak, euskaltzaleak, oso aktiboak gizarte-arloan, Euzko Langilleen Alkartasunaren bultzatzaileak eta, politikoki, Euzko Alderdi Jeltzalearen hurbilekoak; baina beraien kideek azpimarratu zutenez, ordea, bazekiten bereizten politikaren eta erlijioaren esparruak eta bortxakeriaren etsaiak ziren (Azpiazu, 1965, 38). Múgica gotzainak, bere aldetik, gogor gaitzetsi zituen heriotzak eta apaizen kalitatea, errugabetasuna «Sagarna e Iturricastillo que apenas llevaban unos meses en sus puestos, ni se agitaron, ni pudieron siquiera agitarse contra España» eta politikarekiko mantendutako urruntasuna nabarmendu zituen, «Sólo Ariztimuño y Mendicute faltaron alguna vez a mis órdenes en relación a estos asuntos» (Múgica , 1945, 14).

Gomák azaroaren 8an jakinarazi zion Pacelli kardinalari gertatutakoa. Adierazgarria da bere hitzetan ikustea apaizak beraien iritziengatik hil zituztela, "han sucumbido víctimas de sus opiniones políticas», militarrek abertzaleei leporatzen zietelako Gipuzkoak eta Bizkaiak erakutsitako erresistentziaren ardura. Baina kardinal espainiarraren esanetan, Aitzolek baino ez zuen, agian, heriotzara zigortzeko besteko inplikazioa. Llamasek zuen gertatutakoaren erantzukizuna eta haren ekintza gelditzeko Davilarekin eta Francorekin bildu zela jakinarazi zion Vatikanoko kanpo-arazoetako arduradunari. Gomáren ustez, eta bere esku-hartzearen ondorioz ez zegoen ezer konpontzeko aukerarik:

> aún siendo muy lamentable lo ocurrido, por considerarse como un abuso de autoridad por parte de un subalterno y por la formal promesa del Jefe del Estado de que no ocurrirá fusilamiento alguno de sacerdotes sin que se observen juntamente con las leyes militares las disposiciones de la Iglesia, no procede por ahora, salvo el mejor parecer de Vuestra Eminencia, reclamación alguna por la vía diplomática.

Are adierazgarrigoa da ikustea, hil horren 23an Gomák *El caso de España* liburuxka argitaratu zuela eta bertan bertsio hori leundu egin zuela. Bertan esaten denez, ez zen euskal apaiz bakar bat ere erlijio-arazoengatik fusilatu, (Casanova, 2001, 105). Ideia hori azpimarratu zuen hurrengo hilabateetan, gai horri eskaini zizkion eskutitz eta agirietan, publikoetan bereziki: fusilatutako euskal apaizak abertzaleak zirelako edota gerrako-krimenak egin zituztelako hil zituztela, ez ordea, apaizak zi-

181 Hildako azken erlijio-gizona, aita Román karmeldarra, Zornotzan hil zuen 1937ko maiatzaren 19an Donostiako Oriamendiko errekete-talde batek, norbaitek abadea hiltzeko agindua eman ondoren.

Bilbo erori ondoren bi heriotza-zigor erabaki ziren: Fracisco Errazti karmeldarrarena eta León Aranguren apaizarena, 1937ko uztailaren 30ean. Errazti Olaechea gotzainaren laguna zenez, lortu zuten honek Gomárekin hitz egitea eta horrek Francorekin. Matxinatuen buruak, nahiz eta ordurako sinatuta eduki zigorraren konfirmazioa, atzera egin zuen. Labayru Ikastegiko Agiritegia. Onaindia Fondoa, 16. kutxa, 2. karpeta.

relako, errepublikarrek egin zuten moduan. Are argiago azaldu zuen auzia 1961ean Pérez de Urbel fraideak, «fueron sacerdotes que se valieron de su autoridad para engañar a sus feligreses, para llevarles a la muerte, para luchar en unión de los enemigos de la Fé, traidores a su Patria y, lo que es peor, todavía, traidores a su Dios»[182].

Gomák bere liburua kaleratu zuen garai bertsuan, 1936ko azaroaren 15ean, egin zuen bere diskurtso famatua Iruñeko gotzainak, Marcelino Olaecheak "No más sangre" izenburuarekin ezagutzen dena. Bertan, egun batzuk lehenago Tafallan karlistek egindako sarraskia zuzenean aipatu gabe (28 lagun atera zituzten kartzelatik eta inguruetan hil), epaiketa gabeko heriotzen aurka mintzatu zen. Hitzaldiak aurkako erreakzio ugari sortu zituen eta gotzainak hainbat mehatxu jaso zituen. Hori zela medio, ez zuen salaketa gehiagorik egin (Raguer, 2001 eta Sevillano, 2004, 82-84). Iñaki Azpiazu jesulagunaren esanetan, azaroaren 24an, berarengana hurbildu zenean Ceferino Isasaren aldeko laguntza eskatzeko baiezkoa erantzun zion, baina hurrengo egunean itzuli zenean, Olaechearen jarrera aldatu egin zen, hasierako berotasuna epeldu ondoren. Bi egun geroago, Múgica gotzainak Alberto Onaindiari eskutitza idatzi zion Erromatik bere anaia Celestinoren heriotzagatik doluminak emateko eta bere jarrera azaltzeko. Izan ere, Múgicak misiolarien kongresuan parte hartu zuenean, "gorrien" gehiegikeriak baino ez zituen salatu. «Del otro asunto (Apaizen heriotza antza, laikoei buruzko aipamenik ez dagoelako) escandalosísimo y gravísimo no había por qué hablar en el Congreso; pero he informado de palabra y por escrito ampliamente y en audiencias personales al Papa, a Sus Eminencias C. Pacelli; C. Bisletti, Tedeschini; y a los señores Pizzardo, Tardini y al general de los jesuitas: todo está hecho y allá donde única y eficazmente pueden poner remedio al mal de esos incalificables fusilamientos»[183]. Elizgizonek militarren jarreraren aurrean eduki zezaketen kritikak edota ñabardurak isilpean geratu ziren.

### *Apaizen kanporatzeak*

Heriotzen ondoren, giroa ez zen gehiegi baretu, militarren presioak bere horretan jarraitu zuelako. Horren lekuko dugu Pérez Ormazabalek Luis Valdés Cabanilles, Brigada jenerala eta azaroaren 5etik aurrera Francoren gobernuko Gobernadore Oroko-

182 AAVV, *La Guerra de Liberación Nacional*, Zaragoza, Universidad de Zaragoza, 1961. Julián Casanovaren aipua (2001, 141-142).

183 Múgicak ez zuen aukera galdu, Euzko Jaurlaritzaren jarrera kritikatzeko: «entendiéndose con los rusos que quieren borrar la idea de Dios en el mundo; matar, desde el Papa hasta el último católico; destruir desde el Vaticano y S. Pedro hasta la última ermita: todos están faltando mucho y la ruina absoluta de todo alcanzará a todos». Labayru Ikastegiko Agiritegia. Onaindia Fondoa. 11. kaxa, 1. karpeta.

rrarekin izandako elkarrizketa. Valdések euskal apaiz abertzale guztiak, moderatuak eta erradikalak, kanporatu nahi zituen, beraien ordez, Gaztelako apaizak jarriz. Horretarako euskalduna ez zen gotzaina behar zen (Múgica ezin zen itzuli), bigunegia izan ez zedin, «porque la justicia tenía que ser tranquila y serena, pero severa». Elizako jarduera osoa gaztelaniaz egin behar zen hori zelako Espainiako hizkuntza ofiziala eta ez zekienak ikasi egin behar zuen. Pérez Ormazabalen esanetan, Valdések nahastu egiten zuen euskararen erabilera zuzena eta gehiegizkoa eta uste zuen, oker, separatismoak lotura zuzena zuela bertako hizkuntzarekin. Ormazabalek horrela laburbildu zuen egoera: Gomák Francorekin edota Dávila jeneralarekin bildu behar zuen irizpideak finkatzeko; Valdésen jarrera aurrera ateraz gero, abertzaletasuna hil ordez, indartu egingo zelako; apaiz abertzaleen kanporaketei berehalako irtenbidea eman behar zitzaiela eta bera ordezkatuko zuen Administradore Apostolikoa izendatu zedila, militarrekin ondo konponduko zena eta ahal izanez gero, kanpotarra[184].

Fusilatze berriak saihesteko eta Elizaren eta agintari militarren arteko talkak alboratzeko, Gasteizko Elizak gogortu egin zituen apaiz abertzaleen aurkako neurriak, apaiztegian eta beste eliza-etxe batzuetan sarraraziz. Diziplina gogortzea eta aginduak zorrotz betetzea ziren lortu nahi ziren beste helburuak. Hurrengo hilabeteetan, apaizen kanporaketak izan ziren eliza-agintarien kezka nagusia. Gomáren hitzetan, militarrek gehiegizko zorroztasuna erabiltzen zuten euskal apaizen aurka, froga gabe edota garrantzi gutxiko salaketen ondorioz apaiz ugari atxilotu eta zigortu zituztelako, izan ere, batzuek jasotako salaketen jatorria auzokoak ziren «que aprovechan la actual situación para sus ruines venganzas». Horregatik iruditu zitzaion beharrezkoa eliza-agintarien baimena apaiz horien aurka jo aurretik. Atal honen sarreran aipatu dugunez, ehunka izan ziren bide hori hartu zutenak, batzuek euren kabuz, arriskua saihesteko, derrigorrez beste askok, militarrek Pérez Ormazabali bidalitako zerrendetan agertzen zirelako. 30 probintzia desberdinetan egon ziren Euskal Herritik kanporatutako apaiz eta erlijiosoak. Beste zenbait Espainiatik kanpo erbesteratuak izan ziren. Bestalde, lan horiek hainbat tentsio sortu zituzten Alfonso Velarde Gipuzkoako Gobernadore Militar berriaren eta Antonio Pérez Ormazabal, Bikario Nagusiaren artean, baita elizbarrutia desegiteko mehatxuak zabaltzea ere. Velardek apaizen hainbat zerrenda bidali zizkion haien kontrako neurriak hartzeko eskatuz. 1937ko urtarrilaren 20an, adibidez, 185 apaiz eta beneditar gutxi batzuen izenak bidali zizkion Velardek, kanporatzeko neurria eskatuz.

> Lo triste fue entonces que se dieron nombres que jamás debieron tildarse de tal mancha, como al fin de algunos se vino a reconocer el error que procedió de la pasión política de algunos exagerados y de la malevolencia de otros[185].

184 Andrés-Gallego, 2001, 378-379.

185 José María Lacoumeren eskutitza, 1937-1-30, (Andrés-Gallego, 2002, 481).

Pérez Ormazabalek salaketen frogak eskatu zituenean, Velarderen erantzuna oso adierazgarria izan zen:

> ...sabe V. que es imposible reunir [frogak] pues claro es que ninguno de ellos deja pruebas materiales de su gestión. Pero tenemos que convenir que si preguntamos los nombres de aquellos destacados que hayan laborado activamente es seguro que coincidirán en los mismos nombres de Sacerdotes. Por eso no he podido conseguir más que los nombres y filiación que le he enviado. (...) Es que V. mismo no podría con plena justicia señalar los nombres de los más destacados?

Tirabirak apirilean jarraitu egiten zuen eta mehatxua garbia izan zen Velarderen eskutik, zigorrak ez baldin baziren betetzen arriskua zegoen

> ¿No teme Vd. Que este impunismo pueda traer como consecuencia que, al tomarse Bilbao haya el peligro de que se repitan sucesos lamentabilísimos que con nuestra justicia tenemos el deber de evitar?[186]

### *Fusilatzeen inguruko polemika*

Apaizen heriotzek sortutako tentsioa baretu zela zirudien, baina Agirre lehendakariak 1936ko abenduaren 22an egindako diskurtsoan Elizari leporatu zion isilik geratzea apaizen fusilatzearen eta erbesteratzearen inguruan. Gomák *Respuesta obligada. Carta abierta, al Sr. D. José Antonio Aguirre* lanarekin erantzun zion 1937ko urtarrilaren 10ean. Bertan zera esaten zion, eliza ez zela isilik geratu, egin beharreko ahaleginak egin zituela, arrakastaz gainera, eta apaizak ez zituztela hil Euskal Herria maitatzeagatik. Hori gutxi balitz zera jakinarazten zion, altxatuen agintari gorenek ez zutela ontzat eman ekintza hura.

> Yo le aseguró, señor Aguirre, con la mano puesta sobre mi pecho de sacerdote, que la jerarquía no calló en este caso, aunque no se oyera su voz en la tribuna clamorosa de la prensa o de la arenga política. Hubiese sido menos eficaz. Pero yo puedo señalarle el día y el momento en que se truncó bruscamente el fusilamiento de sacerdotes, que no fueron tantos como se deja entender en su discurso....*aquellos sacerdotes sucumbieron por algo que no cabe consignar en este escrito,* (neuk azpimarratua) y que el hecho no es imputable ni a un movimiento que tiene por principal resorte la fe cristiana de la que el sacerdote es representante y maestro, ni a sus dirigentes, que fueron los primeros sorprendidos al conocer la desgracia.

Múgica gotzainak Gomáren agiriaren berri izatean, idatzi bat bidali zuen Vatikanora (Múgica, 1937) bat egiten zuela Gomák esandakoekin azalduz, puntu batean izan ezik, «discrepamos totalmente en una cosa, y mi conciencia y mi condición

186 Andrés-Gallego, 2003, 215.

Valverde ez zen mehatxuak egin zituen bakarra. Antza, 1937ko martxoan Burgoseko apezpikua, Manuel Castro saiatu zen Pacelli kardinalari bidalitako eskutitzean, apaiz abertzaleak eskomulgatzea lortzen. Aberásturi, 2003, 126.

de prelado de los sacerdotes asesinados en la diócesis de Vitoria, provincia de Guipúzcoa (..) me obliga a dirigir este escrito a la Santa Sede; ya que, como merecía de suyo el caso, no me parece edificante dar a la luz pública otra carta mía, rectificando lo que a todo trance debo rectificar»[187]. Múgicaren ustez, ez zen egon inongo arrazoirik apaizak hiltzeko. Are gehiago, berarekin hitz egin zuenean, Gabon aurretik, argi azaldu omen zion «que desde Franco hasta el último soldado debieron, no matar al venerable y ejemplarísimo arcipreste de Mondragón, sino besar las huellas de sus plantas». Gomák kanporatu beharreko apaizen zerrenda aztertzea eskaini zionean, uko egin omen zion lan horretan parte hartzeari[188].

> Sólo los nuestros, los que no han hecho del púlpito una trinchera, como ha ocurrido con los púlpitos y los boletines eclesiásticos de España en favor de los militares, sólo los nuestros que han estado en sus ministerios sacerdotales hasta última hora, sólo éstos mueren sin recuerdo de piedad, ni de la Santa Sede, ni de su Obispo. Hay una consigna de dejar en el secreto estos crímenes; pero no podemos tolerarlo. Todo se sabrá. Todo se publicará. Hasta el silencio estudiado de sus superiores de Vitoria que, en el Boletín, no han dedicado un R.I.P. a sus hermanos muertos y muertos como santos.

Múgicaren salaketa gogorra zen, baina ez da ulertzen zergatik erabaki zuen berak ere isilean egitea, beharbada, testu berean esaten duenez istilu gehiago saihestearren, «me temo que salgan a la luz muchas cosas que convendría quizá silenciar para evitar el escándalo de gentes sencillas».

Handik egun gutxira, 1937ko urtarrilaren 30ean, Gomák eskutitz bat bidali zion Múgicari, argibideak emanez. Bere hitzetan, «Aquellos sacerdotes sucumbieron por algo que no cabe consignar en este escrito» idatzi zuenean zera esan nahi zuen: «Lo que no cabía consignar en este escrito era el uso arbitrario de su autoridad, por parte de quien la ejercía, al fusilar a los sacerdotes, abuso desautorizado ante mí por el Jefe del Estado y que posteriormente lo ha sido de forma más enérgica y total» (Rodríguez Aisa, 1981, 197). Múgicak martxoaren 9an erantzun zion, zeharkako hitzak erabiliz, baina polemikarik zabaltzeko asmorik ez zuela adieraziz: «Con respecto al asunto consabido he resuelto callar»[189]. Izan ere, «Un ruego, que yo no podía desatender, me fue transmitido para que callara "por el momento"»[190]. Bi aste geroago,

187 Múgicaren idatzia, *Exposición que el Obispo de Vitoria presenta a la Santa Sede en orden a los sacerdotes fusilados por los franquistas*, honako liburu honetan dago jasota (Esnaola & Iturraran, 1994, 803-816).

188 Múgicak informazio berriak jaso ahala bere iritzia aldatzen joan zen eta frankistengandik aldentzen. Horrela 1939an eskutiz berri bat bidali zion Aita Santuari, aurreko urteetan esandakoak zuzenduz. Múgicak horren berri eman zion Agirre lehendakariari 1946. urtean. Urtebete lehenago, aita Barandiaranen bitartez bere jarreraren berri eman zuen (Múgica, 1945).

189 Andrés-Gallego, 2002, 155.

190 Múgica, 1945, 11.

Euskadiko Partidu Komunistak gogor kritikatu zuen isiltasun hori. "¿Qué hace el obispo de Vitoria?', *Erri* 19, 1937-5-22.

Pacellik idatzi zion Gomári Aita Santuaren zorionak emanez Espainiako arazoaz informazioa prestu bidaltzen ziolako, baina era berean Pio XI.aren sentimendua adierazi zion Gipuzkoako gobernadore militarrak euskal apaiz ugariren aurka hartutako neurriak zirela eta. Horren ondorioz, kezka horren ondorioz, biziki eskatu zion (astebetera beste eskutitz bat bidali zion) apaiz horien aldeko lana egin zezala[191].

Gomák, lehen ikusi dugunez, bi argudio erabili zituen Agirre Lehendakariaren salaketa alboratzeko. Bata Urriza jesulagunaren eskutitz luzea izan zen:

> Yo he visto bastantes expedientes: depone el acusado y varios testigos; falla el juez. (...)
>
> el Card. da la cifra exacta de los sacerdotes fusilados; son 14. Sé de este asunto más de lo que debo decir. De uno ciertamente dicen que no era digno. Los demás, si han muerto no ha sido por ser sacerdotes ni por ser dignos sacerdotes, al menos en lo que se refiere al amor patrio. (...) Uno era sumamente ligero, y muy capaz de las faltas que se le probaron. Otros con sus consejos fueron legalmente verdaderos inductores para el alzamiento en armas, y, si no incurrieron ante su conciencia en culpa moral, fueron verdaderos inductores, y la inducción la castiga la ley con la pena de muerte. Otros se prestaron a señalar el lugar donde se hallaban los requetés, a los que se les preparó una emboscada. Etc. (...) A todos se les formó proceso. De él bien claro me dio a entender que estaba enterado el Ilmo Sr. [Gasteizko Bikario Nagusia] a quien antes me he referido.
>
> (...) Termino este punto con una sola idea fruto de las informaciones serias que he recibido: todos los sacerdotes fusilados incurrieron en un crimen que la ley española –como la de todos los países– castiga y debe castigar con la muerte; traidores o desertores de España incurrieron en el crimen de lesa patria.

Dena den, Urrizaren testigantzak hainbat arazo planteatzen ditu. Lehena, pertsonaren inpartzialtasuna, anaia galdu berria baitzuen, "gorrien" eskuetan, Agirre lehendakariaren ardurapean zegoenean eta garbi azaldu zuen militarrekiko atxikimendua. Bigarrena zalantza ugari sortzen dituen baieztapena dugu: «Y nosotros fuimos los que después de otros, como Fal Conde, hicimos cuanto estuvo en nuestra mano para impedirlo [apaizen fusilatzeak]». Baieztapen harrigarria aurretik ikusi dugunean Fal Condek bultzatu zuela apaiz abertzaleen aurkako jazarpena. Are gehiago, Fal Conderen jarrera hori ulertzeko egon daitekeen arrazoi bakarra epaiketa-falta dugu, Segura kardinalarekin izandako karta-trukean garbi baitzegoen karlistek apaizak epaitu ostean hil nahi zituztela, eta aldiz, militarrek, isilpean. Hirugarren arazoa, jaso dugun aipuaren azken aurreko lerroan dago, «a todos se les formó proceso». Prozesatuak egoteak ez baitu esan nahi epaituak izan zirenik. Urrizak,

191 Andrés-Gallego, 2002, 262.

Vatikanoko agiriak ikusteko aukerarik izan ez dugun arren, badirudi Gomák ematen zuen irudia, hots, Pio XI.a Francoren aldekoa zela, ez dela zuzena. Hilari Raguer historialari beneditarraren ustez, Aita Santuak euskal katolikoen aldeko sinpatiak zituen. Beste kontu bat da hurrengo Aita Santua izango zen Pacelliren jarreraa. "En busca de los secretos vaticanos", *El País*, 2006-9-30.

Gomák bezala, gerra-kontseiluetan zigortuak besteekin nahasten ditu, nahita edo nahi gabe. Egoera are garbiago dago lehen lerroan, «falla el juez» idatzi zuenean. Epaiketa egon izan balitz, erabakia ez zuen epaile instruktoreak hartuko, tribunalak baino. Garbi dago, beraz, prozedura bat egon zela, baina inolaz ere ez epaiketa zuzena, ezta militarrek finkatutako araudi berri, berezi eta legez kanpokoa (matxinatuak ziren) jarraituz egindako gerra-kontseilurik ere.

Kardinalaren bigarren argudioa, Donostian apaizez arduratu zen Epaitegi Bereziko idazkariarekin Gomák berak izandako elkarrizketa dugu. Pradok, antza, espedienteak erakutsi zizkion (berriro diogu, ez halabeharrez epaiketaren akta) eta hainbat agiri kopiatzeko baimena eman zion. Agiri horiek, ordea, ez dira inon ageri, orain arte, bederen[192]. 1937ko otsailaren 20an idatzitako txostenean bi ondorio atera zituen Gomák. Lehenengoa, epaiketak egon, egon zirela. Bigarrena, ekintza tamalgarria izan zela, heriotzak beste zigor batzuengatik ordezka zitezkeelako eta Múgica gotzainaren ustezko abertzaletasuna ez zelako arrazoi nahiko Elizaren araudiei muzin egiteko. Hala ere, badirudi kardinalaren ondorengo hitz hauek gehiago zuzentzen zirela hildakoei hiltzaileei baino:

> Es ello una lección terrible que deberán aprender cuantos, más atentos a las humanas banderías que a los sagrados deberes de su ministerio, comprometen gravemente el bien de las almas y el prestigio de la Iglesia.

Ez da harritzekoa horrelako gauzak irakurtzea. Eliza Katolikoaren gehiengoak Francoren aldeko ahalegin handia egin zuen, laizismoarekin bukatzeko tresna zelakoan, eta harek eraikitako errepresio-sisteman hartu zuen parte, salaketak eginez edota erabilitako prozedurei bermea emanez. Gerra bukatzear zegoela, 1939ko otsaileko Ardura Politikoen legea onartu zenean, herrietako parrokoak poliziaren laguntzaile ziren. Era horretan, adiskidetzeko tresna izan ordez, Espainiako Elizak eta apaiz gehienek nahiago izan zuten mendekuaren eta gorrotoaren tresna izaten jarraitu.

192 Fernando De Meer historialariak ere duela hamabost urte ahalegin bera egin zuen hainbat agiritegitan eta ez zuen ezer aurkitu (Meer, 1992, 199).

## VIII

# ERREPRESIOA HERNANIKO HERRITARREN AURKA

### HERNANI BIGARREN ERREPUBLIKAN: BI GIZARTEREN ARTEKO TALKA

1931. urtean, kanpoan ez ezik, Hernanin ere ez zen batere giro. Herriak lan-krisi gordina bizi zuen eta sentipen hori ez zen II. Errepublika guztian uxatu. Herriko egoera gorabeheratsuak langile bat baino gehiago sindikatuetan afiliatzera bultzatu zuen, baina lehenagotik ere sindikalismoa bere bidea ereiten hasia zen: 1921etik aurrera herriko paper-fabriketako zenbait langile UGTra afiliatzen hasi baitziren. Beste batzuk, aldiz, sindikatu katolikoetan eta Euzko Langilleen Alkartasunean. Lan-giroa batere ona ez zenez, langabeziari aurre egiteko lan-poltsa bat jarri zuen abian udalak. Besteak beste, bide-konponketak bultzatu zituen; herriko langabetuek zerbaitetan bederen lan egitea zuen xede neurri horrek.

Urte horretako maiatzean, herriko adreilu-fabrikak lau egunetara murriztu zuen lan-astea. Egoera berbera bizi izan zuen Cerámica de Arístegui lantegiak ere. Larru onduak egiten ziren "La Perfecta" fabrika, berriz, Fernando Montes enpresaburuak alokairuan hartu eta Gerra Zibila bitartean ustiatu zuen. Gero, Montesen semeek beren gain hartu zuten lantegia, jada, eraikinaren erabateko nagusi modura. Garaiko krisiaren ondorioz lantegi horrek ere arazo piloa izan zuen: lan-egunak murriztu egin zituen eta 1931n lantegia ixteko zorian egon zen. Lau urteren buruan, 1935eko maiatzean, berriz ere fabrikak ateak berehala itxiko zituela zabaldu arren, elkartze-formula bati esker, itxiera saihestu zuen. Ez hori bakarrik, Gerra Zibilarekin batera, gerra-industrian aritu zen bitartean, bere goren goraldia izan zuen.

#### *Hemen da Errepublika*

Apirila politikoki beroa izan zen. Hilaren 12an, Espainian, udal-hauteskundeak egin ziren eta partidu errepublikanoek emaitza bikainak erdietsi zituzten. Bederatzi probintziatako hiriburuetan izan ezik, gainontzeko guztietan ezkerrak lortu zituen alkatetzak. Apirilaren 14an Errepublika aldarrikatu zen. Alfontso XIII.a erregeak Espainiatik hanka egin orduko, behin-behineko gobernua eratu zen, errepublikarra: Niceto Alcalá Zamorak hartu zuen bere gain gobernuaren buruzagitza.

Hernanin, Gipuzkoako beste herri askotako moduan, hauteskunderik ez zen egin, astebete lehenago alderdi nagusiak ados jarri eta hauteskunde-legearen 29. artikuluaz baliatuz, beraien artean banatu zituztelako aukeratu beharreko zinegotzi-postuak. Era horretan, udal berria 4 jeltzale, 4 errepublikar-sozialista (Conjunción Republicano-Socialistako kideak) eta 5 independentez osatuta gelditu zen. Azken horiek eskuinekoak izan arren (Errepublika aurreko alderdi dinastikoen ondorengoak), behin baino gehiagotan egin zuten bat errepublikar-sozialistekin. Julio Ubarretxena Iraola independentea izan zen alkate berria eta 1933ko urtarrilaren 26ra arte iraun zuen karguan.

Errepublika indarrean jarri eta bi egunetara, jaiegun izendatu zen apirilaren 16a, eta udal-hauteskundeetatik irtendako erregimenari ongietorria emateko, manifestazio bat antolatu zen herrian zehar. Ez zen ereserkirik falta izan, "Internazionala", "Himno de Riego", "Marsellesa" eta "Hernaniko himnoa" kantatu baitziren.

Apirilaren 18an, udaletxean ez-ohiko bilkura egin zen. Bildutakoek, Ubarretxena alkate aukeratzeaz gain, José Beroitz izendatu zuten lehen alkateorde, bigarrena, berriz, Miguel Toledo. *Síndico propietario*a, Ramón Liceaga; ordezkoa, Tomás Illarramendi eta ikuskatzailea, Segundo Sagarna. Bide batez, Lasarte eta Ereñozu auzoetako alkateak, José María San José eta José María Liceaga zinegotziak izendatzea onetsi zuen alkateak. Bildutakoek udaleko bilera arruntak asteazkenetan, arratsaldeko sei eta erdietan egitea ere adostu zuten. Bilkuran zehar, gutxiengo conjuncionist*a*-ren proposamenez, Errepublikarekin bat egin eta behin-behineko Gobernuko presidenteari idatzi bat bidaltzea onartu zen. Gero gutxiengo abertzaleak mozioa aurkeztu zuen Euskal Herriaren lehen autodeterminazio ekintza modura.

> En este momento histórico en que ha desaparecido el régimen destructor de nuestra libertad política como nación, ante el hecho de la nueva estructuración del Estado español, la minoría nacionalista vasca del Ayuntamiento de Hernani después de afirmar los derechos naturales o históricos que como tal nación corresponden reclama como primer acto de autodeterminación del País Vasco, la reclamación de la República Vasca confederada con las demás Repúblicas Ibéricas[193].

Apirilaren 22an, udalak, Plaza Nagusia izenaren ordez, Errepublikaren plaza izena jartzea ebatzi zuen. Alfontso XIII.a kaleak, garai bateko Kale Nagusia izena berreskuratu zuen; baita plaketako idatziak euskaraz eta gaztelaniaz ipintzea ere onetsi zen. Zazpi egunen buruan, 29an, udalbatzak, udaletxerako eta eskola publikoetarako bandera eta oihal zintzilikari nazional berriak erosteko baimena eman zuen. Baita Lasarten haur-eskola bat zabaltzeko baimena eta nekazaritza-guneetan neska-mutilentzat beste bi eraikitzekoa ere. Era berean, udalak zituen arazoen zerrenda

193 Hau eta hurrengo aipamenak *El Día* egunkaritik hartutakoak dira.

Gobernu Zibilera bidaltzea onetsi zen. Maiatzeko lehen batzarrean, aldiz, ez zen aintzakotzat hartu Portu auzoaren izena, Errepublikaren auzoa izenaz aldatzeko ahalegina. Osoko bilkurako erabakien artean, beste bi bereziki esanguratsuak izan ziren. Bata, Instrukzio Publikoko ministroari, mezu baten bidez, Katalunian elebitasuna onartzen zuen dekretuagatik zorionak eman eta kontzesioa Euskal Herrira ere hedatzeko eskaria egitea. Astebeteren buruan egin zen hurrengo bileran, Instrukzio Publikoetako Ministeriotik bidalitako telegrama jaso izana aktan idatzita geratu zen.

### *Estatutua*

Maiatzeko batzarraren bigarren erabakia Euskal Estatutua idazteko, Donostiako udalari probintzia guztia biltzeko eskaera luzatzea izan zen. Eskaera ez zen hiriburuko zinegotzien gustukoa izan. Donostiako udalari eginiko gonbita hiriburuko udalak ez zuenez abian jarri, maiatzaren 20ko bilkuran, hain zuzen, zera adierazi zuten:

> Estimando que el trámite dilatorio de aquel Ayuntamiento no es compatible con la urgencia del estudio del asunto, adherirse al proyecto de la Asamblea de Municipios que patrocinan los alcaldes de Azpeitia, Vergara, Zumaya y Andoain para discutir y aprobar el Estatuto guipuzcoano; adherirse, asimismo, a la Asamblea de todos los Ayuntamientos del País Vasco, para acoplar el Estatuto Provincial al general del País, que debe ser presentado a las Cortes Constituyentes; mostrar su adhesión a la Comisión de los expresados alcaldes para la labor preliminar, hasta que la Asamblea o Junta general guipuzcoana constituya una Comisión permanente oficial.

Ildo berean, Estatutuaren egitasmoaren prokuradore lanetarako, Miguel Toledo zinegotzia aukeratu zuten herriaren ordezkari.

Gutxiengo conjuncionistak proposatutako erabaki bat ere onartu zuen udalbatzak: 1931ko ekainaren 2an, eguerdiko hamabi eta erdietan, Plaza Nagusia zena Errepublikarena bihurtzeko oroitarria ipintzeko ekitaldiarekin bat egitea. Egun txarra ateraz gero, bazkarirako udaletxeko harrera-gela lagatzeko eskaera ere ontzat hartu izan zen. Egun horretan, bandek, arauzko eran, diana, kontzertua eta dantzagarriak arratsalde eta gauean jo zitzaten ere eskatu zuten.

### *Euzko Etxea, euskara, hauteskundeak...*

Udalak bizi zuen giro berria Hernaniko kaleetan ere igartzen zen. Eztabaida politikoak aurreko urteetan izan ez zuen garrantzia hartu zuen herrian eta ia-ia ekintza guztiak zipriztindu zituen. Bilakaera horretan berebiziko garrantzia izan zuten alderdiek egindako ahaleginek beraien jarraitzaileak biltzeko eta antolatzeko, Primo

de Riveraren diktadurak eragindako etenduraren ondoren. Era horretan, 1931ko maiatzean, Euzko Etxea elkarte abertzaleak zuzendaritza berria aukeratu zuen. Honela geratu zen osatuta: presidentea, Hipólito Zubillaga; diruzaina, Bonifacio Arbela; Hipólito Setien, idazkaria; batzordekideak, Ángel Beristain, Alejandro Guerra eta Severo Aramburu. Zuzendaritza berriak "Jaungoikoa eta Lege Zarrak" leloaren alde lan egiteko asmoa azaldu zuen. Partaideak gazte eta ekintzaileak zirenez, abertzaleek beraiengandik gauza handiak espero zituztela idatzi zuen herriko korrespontsalak: «Zuzendaritza-batzordekide berriak irrikaz Jaungoikoa (bera gabe ez gara ezer) eta gure Euzkadi maitearen alde lan egitera animatzen ditu». Eskuineko beste taldeek arazo gehiago izan zituzten beraien kideak biltzeko, eta ez zen egon karlista edota Unión Regionalista Guipuzcoana-ko egoitzarik Hernanin, nahiz eta zenbait jarraitzaile izan. Kultura- eta aisialdi-elkarteak izan ziren beraien bilguneak. Euzko Abertzale Ekintza (ANV) jelkideen zatiketa laikoak izan zuen jarraitzaile-talde bat herrian, baina ez zuen hauteskundeetan babes handirik izan, %1en azpitik 1933an.

Ezkerreko taldeek antolaketa sendoagoa zuten, Berrezarkuntza-garaiko zatiketak jarraitzen bazuen ere, oraingo honetan sozialistek errepublikar hutsek baino arrakasta nabarmenagoa izan zuten. Lehenengo hilabeteetan, dena den, jokabide desberdinak zehaztu eta nabarmendu aurretik, elkarrekin aritu ziren eta horrela egin zuten 1931 eta 1936ko hauteskunde orokorretan. Errepublikarrek ez zuten indar nahiko Espainian eta Gipuzkoan bertan zegoen alderdi-sakabanaketan murgiltzeko, eta elkartuta jarraitu zuten. 1934ra arte itxaron behar dugu, alderdi errepublikar baten egitura antolatzeko Hernanin, Izquierda Republicana alderdiarena, hain zuzen. Talde horren sorreran aurreko urteko hauteskundeetan jasotako porrotaren arrastoak daude, baita beste talde errepublikar batzuen (erradikalak bereziki) eskuin aldera egindako bira ere. Ordura arte Centro Republicano elkartea izan zen beraien bilgune nagusia. Sozialistek 1931ko bigarren seihilabetean sortu zuten beraien lehenengo agrupazioa Hernanin, aurreko garaietan sindikatua baino ez baitzuten sortu. 1932an 18 bat lagun biltzen zituen elkarte nagusiarekin batera Gaztedi Sozialista ere sortu zen, 15 eta 35 urte bitarteko neska-mutilek biltzeko asmoarekin. Talde Artistiko bat ere antolatu zuten gaubelak egiteko. Komunistek ere bazuten beren antolakuntza. Ideal Zineman egindako mitin batean, herrian gune komunista bat eraikitzea proposatu zen 1931ko azaroan, baina oihartzun txikiarekin; 22 boto baino ez zituzten lortu 1933an (Rodríguez Ranz, 1994).

Hurrengo urteetan, erakunde horiek, ezkerrekoek zein eskuinekoek makina bat ekitaldi antolatu zituzten, batzuk barrura begira, hitzaldiak eta gaubelak lekuko, besteak kanpora begira, antzerki, mitin, kirol-saio eta dantzaldiak besteak beste; horien guztien eraginez, giro berri, bizi eta gatazkatsua heldu zen herriko egunerokotasunera.

Eztabaida politikoak arlo ugari hartu zuen bere menpe. Irakaskuntzak, adibidez, eman zuen zeresanik 1931n. Ordurako, euskara zela eta, euskaldunei nolabaiteko ezinegona antzematen zitzaien.

> Oraiñ egin dutena lotsagarria da, baserri ikastoletako irakasle buru (ikuskatzailea) euskara ez dakin bat, Oloriz andrea aukeratu dute. Emakume ona izango da, ta bear bada jakintsua, ez diot ezer kentzen, baña orren eginkizuna ongi betetzeko, euskara naita'ezkoa zen. ¡Gero ikasiko omen du, ala bearko!

Bidenabar, Miner eta Martikorena andereñoek eskola-politika errepublikarrak ezarritako herriko gau-eskolen ardura hartu zuten herrian. Ikasle gehienak, baserritarrak ziren, hots, nekazaritza-guneetako gazteak. Era berean, abuztuaren amaieran, Donostiako Salón Novedadesen, *Bilingüismo escolar, castellano-euskeldun* izenpean kongresu jendetsua egin zen: parte hartzaileak laurehundik gora izan ziren. Ez ziren haiek euskararen alde egindako azalpen bakarrak. 1932ko abuztuan, adibidez, Aur Eguna eta Olerti Eguna antolatu zituen Euskaltzaleak erakundeak Hernaniko Xalaparta eta Zintzotasuna elkarteetan, udalaren eta beste elkarte batzuen babesean. Bertan, besteak beste, Agustin Iturriaga pedagogoaren lana goraipatu zen. Eztabaida politikoaren baitan, euskara deman aritzeko lanabesa ere izan zen. «Erdara erabiltzen badugu pozez eta atseginez izango dira gure Aberriaren etsaiak» adierazpenak, edo antzekoak, maiztasunez erabili zituzten abertzaleek ezkertiarrak zirikatzeko.

1931ko ekainaren 28ko hauteskunde orokorren atarian, ez zen ika-mika faltarik izan Hernanin. Zeresan handiko hauteskundeak izan ziren eta ezkertiarrak eta abertzaleak elkarri hordagoka aritu ziren herrian.

> Gaurko auteskundeak ardura aundikoak dira euskaldunentzat, or dabiltza ezkertarrak gezurra dariotela, batzuk oletan, bertako langiliak bere alde biurtu nairik, onian ez bada, zitalkeria azalduaz, baserritan berriz, gezur biribilak esanez, laster berak bizi diran etxe, ta antolatzen dituzten lurren jabe egingo dirala, baldin ezkerrari ematen badiote autarkia edo botua agintza oiek ezin bete litezke ori edozeñek daki, burua bere tokian daukanak beintzat bai. (...) Igandean gizon ta euskaldun ona zaren lez, azaldu zaite, gero damutu, ta umetxoak bezala negar egin gabe. (...) Elizkoya altzera; badakizu ze bota eman bear dezun. Euskalduna bazera, Euskal erria maite badezu, artu eramantzazu zure lagunak ere.

Erreguek ez zuten oihartzun askorik izan, Gorteetarako diputatuen hauteskundeetan ezkerra nagusitu baitzen Hernanin, garai berriak ekarri zuen bermoldaketaren lekuko nabarmena (Apaolaza, 2003):

| | | |
|---|---|---|
| Justo Garate | Euzko Abertzale Ekintza | 733 boto |
| Juan Usabiaga | Eskuin Errepublikarra | 733 boto |
| Enrique De Francisco | Sozialista | 732 boto |

| | | |
|---|---|---|
| José María Amilibia | Unión Republicana | 729 boto |
| Jesús María Leizaola. | Abertzalea | 518 boto |
| Antonio Pildain | Integrista | 518 boto |
| Rafael Picavea | Independentea | 517 boto |
| Julio Urquijo | Tradizionalista | 516 boto |

Irailean, muga konstituzionalak gainditzen zituela argudiatuz, Euskal Estatutu proiektua atzera bota zen Espainiako Gorteetan. Handik lasterrera, aldiz, emakumeak ederki poztu ziren. Urriaren 1ean, 161 aldeko botorekin eta 121 aurka, hau da, 40 boto eskasengatik, Kongresuak emakumeari boto-eskubidea eman zion.

Estatutuaren eztabaidarekin batera, erlijio-kontuek garrantzi handia zuten eztabaida politikoan, 1932ko herriko udal aurrekontuak eztabaidatu zirenean, adibidez. Aurrekontuetan parrokia laguntzeko diru-kopuru bat aurreikusten bazen ere, herriak bizi zituen lan-arazoak ahantzi ezinda, bi aldiz pentsatu zuen udalbatzak azken erabakia. Aldi berean, 1931. urteko azken txanpan, abenduaren 9an, Konstituzio Errepublikarra onartu zuten Gorteek. Estatua laikoa zela zioela lege nagusiak kontuan izanda eta udalak edozein 'sekta' erlijiosori sosik emango ez ziola erabaki ondoren, Eliza Katolikoa laguntzarik gabe geratu zen. Hil hartan bertan, udal hilerrian, katolikoen eta ez-katolikoen hobien arteko banaketa-horma eraitsi zen. Erabaki horiek zalaparta asko sortu zuten gehiengo eliztar handia zuen herrian. Datuak zuzenak baldin badira, 1935eko martxoan antolatutako gogo-jardunen ondoren izandako jaunartzeak honako hauek izan ziren 6.200 lagun zituen herrian:

> Ostegunian, aurtxoak, laureundik gora. Ostiralian, neskatxak, bosteundik gora. Larunbatean, emakume ezkonduak, zazpireundik gora. Igandean, gizasemeak, mila seieundik gora. Guztira lau egunian, iru mila fededunetik gora Jauna artu dute.

1932ko otsailean, aldiz, beste erabaki esanguratsu bat hartu zuen udalak: eskoletatik gurutzeak eta Udaletxetik Jesusen Bihotza kentzea. Ostiral Santuan, gobernu-baimena izanda ere, ez zen prozesiorik izan herrian. Giro horretan, maiatzean, José Ariztimuño *Aitzol* jario handiko hizlariak goizeko hamarretan meza nagusia eman zien herriko zenbait emakumeri. Arratsaldean, Arrosario Santua errezatu ondoren, Zintzotasuna aretoan (Elkano eta Izpizua kaleek bat egiten duten eraikinean zegoen), Maria Luisa Oñatibia Emakume Abertzale Batzako presidenteak hitzaldia eskaini zuen. Gurutze Santua izan zen gaia. Gero bost eta erdietan, Euzko Langilleen Alkartasuneko «el indiscutible conferenciante y gran sociólogo, alma y vida de la 'Solidaridad de Obreros Vascos'», Aitzol, gai sozial baten inguruan mintzatu zitzaien herriko emakumeei.

### *Ekaitza*

Langabeziak jarraitu zuen hernaniar askoren buruhauste nagusia izaten 1932an eta, egoera politikoarekin batera, hilabeteek aurrera egin ahala, giroa are gehiago nahasi zen. Soldatapekoen diru-sarrerek beherantz egin zutelako kezkaturik, eta langile-krisiari aurre egiteko (herrian egin beharreko konponketak areagotzea zen irtenbide bat), Langile Elkarteen Tokiko Federazioak luzatutako eskaera aztertzea onartu zuen udalak. Floridako auzoari Pablo Iglesias izena jartzeko eskaria, aldiz, ez zen aintzat hartua.

Ekainean, bizi-bizia izan zen Estatutuaren aldeko kanpaina Hernanin. Baita Lasarten ere. Hamaika bazterretan azaldu ziren autonomia-egitasmoa zela-eta pintadak. Edozein aitzakia zilegi zen ezkertiarren eta abertzaleen arteko liskarrak areagotzeko, eta prentsan nahiko maiz agertu ziren bien arteko eztenkadak. Astigarragako gizaseme batek, Arrapazak goitizenarekin, gutun bat idatzi zuen Estatutua hizpide, errepublikarrak zirikatuz:

> Oyek egiten dute ba erderaz negar egin eta euskaraz jan. Eta ori igiten ere jakin egin bear da. Guk euskotarrak ez degu orren azal gogorra. (...) Ezkertiarrak zergatik aurka juan dira? Estatutoa "separatista" delako? "Katolikoa" delako? Ez mila bider, ez. Zer gatik ba? Garestia delako Españarentzat. (...). Oyen tartean gertatu dana auxe da. Amar bat lagun kendu oyetatik, eta ez dakite zer den estatutoa, ez dute ba irakurri eta egin ba dute ere, ez dute ulertu.

Politikaren burrunba ez zen txikia Hernanin, baina naturak ere bere protagonismoa aldarrikatu zuen uztailean. Ekaitz batek botatako 50 eta 60 gramoko harri koskorrek kalte handiak eragin zituzten zelaidietan: larre bat baino gehiago hondatuta geratu zen.

### *Jai aberkoia*

Giro horretan, abertzaletasunak indar handia hartu zuen Hernanin, eta bera izan zen talderik dinamikoena indar politikoen artean. Gaur egunean ez bezala, bere jarduerak ekintza politikoak eta aisialdia elkartzen zituen. Horren adibide dugu 1932ko irailaren 25ean, Emakume Abertzale Batza, Mendigoizale eta Euzko Gaztetxo Batzaren ikurrinen onespena aprobetxatuz, antolatu zuten "jai aberkoia". Eta ekitaldiak oihartzun handia izan zezan ez zuten ahalegin gutxi egin: «Abertzale izena duenik ez dedila gelditu egun orretan Ernanira etorri gabe, emengo areriyo ezkertarrai erakusteko abertzaletasunaren indarra».

Era horretako adierazpenak maiz irakurri ziren ospakizunaren eguna heldu bitartean. Halere, jaiak izan zuen konpetentziarik; Lasarten, egun berean urtero ospa-

tzen zen eusko erromeriak jendea kenduko ote zion kezka zabaldu baitzen antolatzaileen artean.

Batek:

> Zer edo zer kenduko dionik ez det esaten bañan Ernani orren abertzaletasunaren bearrean arkitzen dan ezkero ¿ez al dute ezagutuko, batez ere, abertzale zintzoak diranak, bear bearrezkua dala egun orretan (herrira) etortzea?

Besteak:

> Guk ere lan pixka egin bear degu, gure lagun eta adixkide abertzale ez diranak eramateko, batez ere, baserritar eta langile artian itzaldi aberkoi aiek entzun ditzaten, Jaingoikua eta Lege zarraren alde, bear aundiya daukan Ernani ontan.

Parte hartzeko gonbitak ez zuten etenik izan. «Abertzaleak, euzkotarrak, igandean denak Hernanira» eslogana maiz errepikatu zen, baita «abertzaletasunaren egun handia» izango zelako adierazpena ere. «Abertzaletasunak indar gutxi daukan errira etorri bear dezu, JEL azia zabaltzea gero igali ugari jaso nai badegu».

Abertzaletasuna eta Euzko Langilleen Alkartasuna zer eta zertarako ziren azaltzeko antolatu ziren hitzaldiak entzuteko deia ere egin zitzaion jendeari. Euskaldunak, Euzko Langilleen Alkartasunean *izenpetubak* (afiliatuak) egon behar zutela azpimarratu zuten bultzatzaileek behin eta berriz. Baina ekitaldiari itzal handi samarra atera zitzaionez, aurre egiteko ahaleginak areagotu egin zituzten bultzatzaileek.

> Lasarte auzoan eusko erromeya omen da. Baita Ernanin ere. Baña emen euskotar erromeri jatorra. Eusko abertzale erromeya. Zumarrako trikitixa, Usurbilko dultziñeroak eta Ernaniko txistulariekin. 24 urte banitu nik ere zer irrintzi oju ta dantza egingo nituzke.

Gipuzkoako herri guztietako abertzaleei luzatu zitzaien deia, baina abertzale sutsuek, batik bat, Tolosako eta Irungo abertzaleek huts egin ez zezaten erreguka aritu ziren:

> Ernani'k zuen jaietarako erantzun duen bezela ziur gaude zubek ere berdin erantzungo diozutela gure deiari.
>
> Abertzaletasunaren bear-bearrian arkitzen da, Ernanin. Ezkertarrak dauzkagu nagusi. Euskotar zintzo, Jaungoikoa ta Lege Zarra'ren jarraitzalea baldin bazera, etorri datorren igandean Ernani'ra, ez zaizu damutuko, zergatik zure aurpegiak ezagungo du etxera biurtzerakoan, pozez eta atsegiñez beterik zuazela egun alai bat igaro eta Jel-Alderdira'ko lagun batzubek geiago irabazi diralako.

Hernanira hurbiltzekotan zirenei ikurrinekin eta lepoko zapiekin azaltzeko eskatu zitzaien. Eta inor bat ere gabe etorriz gero, *laurleko* baten truke, "merke, oso merke" erosteko aukera izango zuen Epelderen dendan, Kale Nagusiko 44. zenbakian.

Jaiaren bultzatzaileek, gonbit berezia egin zieten baserritar eta langile euskaldunei: «Zuek ere emen ikusi nai zaituztegu» esanaz. «Altzetak euskaraz eta Izurieta

jaunak erderaz, jarriko zaituzte jakiñan gañian Abertzaletasuna eta Eusko Langillen Elkartasuna zer diran, zertarako diran, egi aundiakin erakutsiaz, euskaldunak, Eusko Langillen Alkartasunian izenpetubak egon bear dezutela».

Emakume Abertzale Batza etxeko lanez gain bizitza politikoan parte-hartze handiagoa aldarrikatzen zuen erakundea zen. Hernanin, herriko batzokiko egoitzaren bigarren pisua zuen bilgune. Gazteak, gizasemeak, Euzko Gaztediren baitan antolatzen ziren; neskak, ordea, Umetxoak erakundean, haur edo begirale moduan.

Egoitzaren inaugurazio eguna Ugalde txistulari anaien dianarekin hasi zen goizeko sei eta erdietan; ondoren, Usurbilgo dultzaineroek hartu zuten txanda. Bederatzietan abiatu zen parrokiarantz segizioa. Mendigoizaleen bandera, Ramonita Miranda amabitxia zuela aldamenean, Ángel Tormesek, elkarteko presidenteak eraman zuen.

Meza nagusian hirurehun ahotsez osatutako Euzko Abesbatzak hartu zuen parte. Elizkizuna amaitu orduko Emakume Abertzale Batzaren egoitzaren bedenkazioa egin zuen Alejandro Mendikute herriko parrokoak. Era berean, *Josuren Bihotzaren* irudia ere ipini zuten. Usurbilgo dultzaineroek, hiru txistularik eta zortzi ezpata--dantzari taldek, eta trikitixak eta olerkariek osatu zuten kultur eskaintza. 170 bat pertsona bildu ziren bazkaltzera. Arratsaldean, Tiloetako kioskoan Julene Urzelay mitina ospatzen ari zela, euria indartsu hasi eta jendea aterpe bila mugitu zenez, bere horretan amaitu behar izan zuen ekitaldia. Halere, herriko abertzaleak gustura geratu ziren jasotako erantzunarekin. Alabaina, urte bukaera ez zen batere erraza izan. Azaroan, tentsioa areagotu egin zen eta gauzain baten kargugabetzeak istilu larriak eragin zituen. "Bake-egoera" hausteagatik, esku hartu behar izan zuen indar publikoak. Guztira, dozena bat zauritu egon ziren.

### *Miguel Toledo alkate abertzalea*

1933. urteak, hauteskunde-urtea izan arren, hasiera alaitsua izan zuen, urte horretako inauteriak festa bikainak izan zirelako; kaldereroen eta zapatarien konpartsek eta Urumea Elkartean ospaturiko mozorro-jaiak giro ederra sortu zuten eta kalean ere giro aparta bizi izan zuten. Hurrengo urteetakoak, aldiz, ez ziren batere nabarmendu, batzuetan eguraldi txarragatik, bestetan alaitasun faltagatik. Gatza eta piper gabeak izan ziren. Bestalde, apirilean, gertakari batek zeresan handia eman zuen, Banco Guipuzcoanoren sukurtsalean egin zen lapurretak, pistola eskuan, 12.000 pezeta hartu eta ihes egin baitzuten lapurrek.

Hil horretako 23an, udal-hauteskundeak egin ziren; izan ere, 1931n borrokarik gabe aukeratutako udal guztiak desegin zituen Espainiako gobernuak eta hiritarrak

berriro hautes-ontzietara deitu zituen. Hiru zerrenda aurkeztu ziren oraingoan Hernanin eta jeltzaleak izan ziren talderik indartsuena: 6 zinegotzi lortu zituzten abertzaleek, ezkerreko koalizioak 4 eserleku eskuratu zituen eta independenteak 3 baino ez ziren izan udal berrian. Dena den, jeltzale eta independenteak elkarrekin aurkeztu ziren barruti batzuetan. %80,87k eman zuen botoa, lehia gogorraren adibide ezin hobea. Maiatzaren 10ean, asteazkena, zinegotzi berrien izendapena egin zen udaletxean. Zortzi boto alde eta bost aurka jasota, Miguel Toledo Alberdi izendatu zuten alkate. Lehen alkateorde-lanetarako, berriz, Luis Achucarro Zubillaga (abertzalea) aukeratu zuten: José María Puig eta Lázaro Lujanbio Beldarrain, independenteak, bigarren eta hirugarren alkateorde izendatu zituzten. 1934an, euskal udalek, jeltzaleek eta sozialistek bultzatutako kanpainaren ondorioz, zinegotzi gehienek dimititu egin zuten, eta, gobernuak izendatuta, José María Puig Villarrek ordezkatu zuen Miguel Toledo alkate-karguan.

Jeltzaleak ez ziren mobilizazio jendetsuak nahi zituzten bakarrak. 1933ko maiatzean bilkura handia egin zuten ezkertiarrek herrian. Zeresan ugari eman zuen gainera. Ezkerrak deitutako mobilizaziorekin jarraitzaile piloak egin zuen bat; hernaniarrak ez ezik, trenean eta tranbian, besteak beste, manifestari andana etorri zen Gipuzkoako hainbat bazterretatik. Bandera errepublikano pila ikusi ahal izan ziren eta galtza urdin eta alkandora gorriarekin jantzita etorritako ezkertiarrak ere ez ziren gutxi izan.

Baina bizitza politikoaz gain, herriak bere ohiko nondik norakoarekin jarraitu zuen. Esaterako, trenak Norteko Compañiak zuen ordutegi desegokia ikusita, hernaniarrentzat Donostiarako bidaia errazteko autobus-zerbitzua zabaldu zuen Perurena jaunak. Hots, ordura arteko goizekoaz gain, arratsaldez ere beste zerbitzu bat eskaintzen hasi zen. 1933ko irailean botatako euria, bestalde, ederki eskertu zuten nekazariek, zelaiak nahiko lehortuta baitzeuden ordurako. Baina, izan zen harri koskorrik ere tartean. Gutxi baina handiak. Hernanin askorik antzeman ez bazen ere, Lasarteko bazter askotan nahiko hondamendi eragin zituen ekaitzak, sagar, babarrun, arto eta bestelako landaketak galtzeraino.

### *Erreferenduma*

Estatutuaren erreferenduma hurbildu ahala egoera berotzen joan zen herrian, nahiz eta, esaterako, abertzaleen diskurtsoa arrunt triunfalista izan. Ohikoa zen, ildo bereko hedabideetan Estatutuaren aldeko hamaika laudorio topatzea:

> El baserritarra no será de los que menos saldrá ganando, serán defendidos los intereses de empleados y obreros; a las madres no les llevarán sus hijos con motivo del servicio militar fuera de Euzkadi; a los estudiantes y por lo tanto a sus padres, puesto que tendre-

mos Universidad Vasca y con esto además de evitar gastos de desplazamiento, podrán los estudiantes ser vigilados de cerca por sus padres y hasta estudiar una carrera desde su misma casa.

Jarrera erasokorra ez zen soilik ezkertiarrekiko, baita bozkatzeko asmorik ez zuenarekiko ere. «Zeharo tentela», «ez du intentzio onik» edo «ez bozkatzea, aurka bozkatzea da», dira topa zitezkeen laudorioetako batzuk.

Estatutuaren aldeko erreferendumean hernaniar askok hartu zuten parte eta baiezkoen emaitza, parte-hartzearen parekoa izan zen. Botoa emateko eskubidea zuten 3.427 hernaniarretatik, 2.855ek Estatutuaren alde bozkatu zuten, 175ek berriz, aurka. Gipuzkoan, Estatutuak % 89,52ko babesa jaso zuen.

Bozketa amaitu bezain laster, botoa emateko eskubidea zutenek ez zuten denbora askorik izan ondorioak ateratzeko. Manuel Azaña gobernu-buruak irailean dimititu egin zuen eta azaroaren 19rako hauteskunde orokorrak deitu zituen Alcalá Zamora errepublikako presidenteak. Jeltzaleen mezuak gardenak izan ziren:

Por vosotros mismos, por vuestros hijos, por la Patria, votad la candidatura nacionalista, dad una vez más una prueba de vasquismo depositando en las urnas la candidatura dispuesta a traeros el Estatuto.

Hernaniko emaitzek, eta oro har, Gipuzkoakoek eta Bizkaikoek, garaipen handia eman zieten abertzaleei. Kontuan izan behar da, gainera, aurreko hauteskundeak irabazi zituen zentro-ezkerreko koalizioa apurtu egin zela eta alderdi bakoitza bere aldetik aurkeztu zela. Gertaera horrek ederki erakusten du indar politiko bakoitzaren indarra Hernanin:

| | | |
|---|---|---|
| Jesús María de Leizaola | Abertzalea | 1220 boto |
| Manuel Irujo | Abertzalea | 1120 boto |
| Rafael Picavea | Abertzalea | 1057 boto |
| Juan Antonio Irazusta | Abertzalea | 1110 boto |
| Telesforo Monzon | Abertzalea | 1144 boto |
| | | |
| Juan Usabiaga | Errepublikarra | 140 boto |
| Nicolás Bizcarrondo | Errepublikarra | 133 boto |
| José Miguel Gomendio | Errepublikarra | 109 boto |
| Manuel de la Torre | Errepublikarra | 122 boto |
| | | |
| Enrique De Francisco | Sozialista | 789 boto |
| Federico Angulo | Sozialista | 772 boto |
| Julia Alvarez | Sozialista | 779 boto |
| Toribio Echeverria | Sozialista | 786 boto |

| | | |
|---|---|---|
| María Rosa Urraca Pastor | Eskuindarra | 146 boto |
| Ramiro de Maeztu | Eskuindarra | 268 boto |
| Antonio Pagoaga | Eskuindarra | 151 boto |
| Agustín Telleria | Eskuindarra | 153 boto |
| Juan Astigarribia | Komunista | 21 boto |
| Jesús Larrañaga | Komunista | 21 boto |
| Ricardo Urondo | Komunista | 18 boto |
| Luis Zapirain | Komunista | 22 boto |
| José Imaz | Euzko Abertzale Ekintza | 14 boto |

Espainian, eskuinak irabazi zituen hauteskundeak. Manuel Azaña aurrera egiteko aukerarik gabe geratu zen eta Alejandro Lerroux, Alderdi Errepublikar Erradikaleko buruzagia izendatu zuten gobernu-buru. Hernanin, abertzaleak kontent agertu ziren lortutakoarekin. Halere, ez ziren batere alai azaldu ezkertiarrekin, udalerako zein Estatutuko bozketan eta hauteskunde orokorretan, herri-ordena asaldatu izana leporatu baitzieten. Prentsan, *Hernaniar bat* sinadurapean, idatzitakoak, ezkertiarren eta abertzaleen artean zegoen tentsioa herrian islatzen du:

> El pasado domingo fue una verdadera vergüenza; fueron apedreados nuestros autos y herido en la frente un querido amigo nuestro, al romperse de una pedrada lanzada por uno de esos cipayos, el parabrís de uno de los autos.
>
> Otros muchos desmanes cometieron y quisieron cometer los tan 'educados zurdos'; hubo quien tiró de pistola, y quienes quisieron apalear a dos guardias que siempre se han distinguido por su honradez y, sobre todo, por el cumplimiento de su deber y mucho valor.
>
> Voy a recordarles a los señores de la izquierda alguna frase que empleaban muy a menudo antes de las elecciones municipales.
>
> 'El Ayuntamiento actual no representa al pueblo de Hernani, que vengan las elecciones y entonces se verá'.
>
> Pues bien, las elecciones vinieron y vosotros los 'zurdos' os llevasteis una soberana paliza y una desilusión enorme, porque creáis que los electores os iban a hacer representar al pueblo.
>
> Han venido estas elecciones y solamente los nacionalistas (para las elecciones de concejales hubo unión de derechas) os han inflingido una gran derrota, sin necesidad de coaccionar como vosotros, sino limpiamente.
>
> ¡Y todavía seréis vosotros el pueblo! ¿Qué hubiera sido de nosotros si hubieseis triunfado en ambas elecciones? Pues nada; hacía tiempo que hubiéramos tenido que emigrar a otras tierras.
>
> Pero no; gracias a Dios y mal que os pese, el pueblo de Hernani no está con vosotros; cada día tenéis menos adeptos y la gente de orden no está ni puede estar con vosotros

Sasoi hartan antolatzen ziren ekitaldi gehienek kutsu politiko handia izaten zuten. Batzuek ez nolanahikoa gainera; 1933ko urte-amaieran egin zen afari bat da horren ikusgarri bikaina. Izan ere, herriko Emakume Abertzale Batzak sukaldaritza--ikastaro bat antolatu zuen eta afari batekin eman zitzaion amaiera jarduerari. Menua bitxia izan zen: «Euzkadi arroza», «Arrautzak Estatutu erara», «Oilaskoa Urraca erara» (Rosa Urraca eskuineko hautagaia izan zen 1933ko hauteskundeetan eta zerikusia izan zuen 1936ko urriko fusilatzeekin), «Angula askatuak» eta «Garaipena postrea». Ondoren, emakumeek, Sagar-dantza, Ingurutxo eta beste zenbait dantzatu zituzten. Hurrengo egunetan, Emakume Abertzale Batzaren egoitzan premia zuten pertsonentzat arropak egiteko elkartu ziren.

### «*Txikago txikia*»

Grebak eta gatazkak ez ziren gutxi izan 1934an. *Biurteko Beltzak* iraun zuen bitartean, Hernaniko giroa hainbeste gaiztotu zen, ezen herriari «Txikago txikia» goitizena jarri zioten. Horren erakusle izan zen lehen sei hilabeteetan izandako indarkeria guztia: bi heriotza bortitz, 153 lapurreta eta bi bortxaketa-ahalegin.

Gipuzkoa guztian zehar ere istiluak gutxi izan ez zirenez, argi gorri guztiak piztu ziren. Martxoaren 7ko Ministro Kontseiluaren dekretua jarraituz, Emeterio Muga Díez, Gipuzkoako gobernadore zibilak, Espainia osoan Alarma Egoera ezartzen zuen bandoaren berri eman zuen. Biharamunean, hilaren 8an, eman zuen haren berri lurraldeko prentsan.

> En virtud del mencionado decreto queda mi autoridad facultada para adoptar medidas excepcionales". (...) "Espero de la cordura y sensatez bien probadas hasta hoy de los nobles hijos de Guipúzcoa que no habrá lugar a adoptar medidas extremas para mantener la paz social y evitar la más ligera perturbación del orden público.

Baina arazo larriena iristear zegoen herrira. Martxoan, Dámaso Berenguer jenerala Hernanin zela zabaldu zen herritarren artean. Krisi ekonomiko larriaren ondorioz, 1930eko urtarrilean, Primo de Riverak gobernuan zazpi urte eman ondoren, dimisioa aurkeztu zion Alfonso XIII.a erregeari. Horrek, Dámaso Berenguer Fusté (1878-1953), militar ohia eta kondea jarri zuen bere ordez gobernu-buru. 1931ko otsailaren 14a bitartean egon zen karguan Berenguer. 1934an, Erantzukizun Komisioak ezarritako kondena bete asmoz, jenerala bere Anita alabarekin batera Hernanira etorri zen. Hiru hilabeteren buruan, ekainaren 6an, erail zuten Dámasoren anaia, Antziola auzoko Villa Albernian bizi zen Fernando Berenguer Fusté jenerala, tranbiaren geralekuan Donostiatik zetorren arrebaren zain zegoela. Handik egun batzuetara, Emiliano Huertas anarkistak beste bi pertsonarekin batera, bere gain hartu zuen hilketa, poliziak atxilotu ondoren.

Urteak ziren Guardia Zibilik ez zela Hernanin ikusten. XIX. mende-amaieran (1889) herrian kuartela egon arren, gerora desagertu eta mikeleteek hartu zieten lekukoa. 1934. urtera arte iraun zuen egoera horrek. Izan ere, Antziola auzoko erailketaren ondoren, Guardia Zibilaren presentzia areagotu egin zen herrian.

*Urriko Iraultza*

Uda igaro orduko giroa gehiago garraztu zen, PSOEk prestatutako saio iraultzailea zela medio. Urriaren 6an eta 7an altxamendu iraultzaileak gertatu ziren Katalunian eta Asturiasen; baita Espainia guztian ere. Hernanin greba orokorra deitu zuten sozialistek eta zenbait indarrezko ekintza egin zituzten. Urriaren 6an bertan, Guardia Zibilari eraso egin ziotenez eta herriko leku ezberdinetan zenbait lehergailu eztandarazi zituztenez, armada herriko kaleetan barrena patruilatzen ibili zen. Etxe-miaketak eta atxiloketak ere egin zituen. Matxinadaren ondoren herrian izandako galeren balorazioa egin zen. "Matrakek" gune ezberdinetan lehergailuak jarri eta telefono-sarean eragindako kalteak 16.000 pezetakoak izan zirela esan zen. Gertaera haien ondorioz zenbait hernaniar preso hartu eta Ondarretako espetxera eraman zituzten, gerra-kontseilua egin zitzaien arte. Beste batzuek, ordea, ihes egin zuten erbestera eta ez ziren itzuli 1936ko otsaileko hauteskunde orokorrak Frente Popularrak irabazi eta gero eman zuen amnistiara arte.

Ondorengo egunetan zabaldu zen zeintzuk ziren, matxinada garaile irten izan balitz, herriko komite iraultzaileak gauzatuko zituen ekintzak. «Adostutako seinalea» entzun ondoren, hamar bat taldetan antolaturiko matxinatuek izango zuten ekintza haiek aurrera eramateko ardura. Talde batek, González abizeneko bat buru zuela, adibidez, Errotaburuko eta Antziolako tranbiaren zubiak lehertzeko eginkizuna zuen. Beharrezkoa izan balitz, baita Karabelgoa ere. Horrez gain, erresistentziarik sumatuz gero, Latxunbe eta Lizeagako Gainako zubiek ere bukaera bera izango zuten. Beste talde ibiltari baten jomuga, autoak eta armamentua bahitzea zen. Hirugarren taldeak, J. Gimenok, José Altolaguirrek, J. Celayetak, J. M. Aizpuruak, Z. Zubeldiak, A. Gómezek eta J. Pérezek zuzenduta, kanpaiak erabiltezin utzi orduko, agintariak gauzaeztatzeko agindua zuen. Gauzainak ikaratu, desarmatu eta udaletxean sarrarazi ahala, idazkaria preso egin eta giltzak hartzea zuten xede matxinatuek. Baita, idazkariari herriko agintari berriak izendatzen zituen agintea sinaraztea ere. Matxinatuek preso hartzeko asmoa zuten zerrenda, berriz, luzea bezain askotarikoa zen: Miguel Toledo, alkate abertzalea; Alejandro Mendikute apaiza; Irigoien mediku tradizionalista; Ángel Tormes, abertzalea; Armendariz, abertzale independentea; Isidro Ollokiegi Garin *Eltzekondo*, ELAko partaidea eta pultsulari eta borroka greko-erromatarra egiten zuen gizon indartsua, besteak beste.

Iraultzak porrot egin eta astebetera, León Carrasco komandante militarrak Hernaniko matxinatuen inguruan informazioa bildu ahala, erakundea adin motzeko mutil-koskorrez osatua zegoela adierazi zuen. Ez ziren iritzi berekoak udalbatzako partaideak. Iraultzaileen asmoek ezinegon handia sortu zien:

> Emen dabiltza istiluk, Udala zinegotzi ordezkuak bilatu eziñik, batak batak ez dula nai, besteak lan asko dula, bestea gaxo dagola ta abar. Zeintzuk juango ote dira? Egun asko igaro baño len jakingo da.

Asturiasko komite iraultzailea errenditu baino bi egun lehenago, urriaren 20an, lau hernaniar, aldean agiririk ez zutela, atxilotu zituzten Irungo muga igarotzeko asmotan zebiltzala. Lau lagun horiei Hernanitik ihes egindako mugimendu iraultzailekoak izatea leporatu zitzaien. Martín Celayeta Escalante, Juan Ibáñez Ayesa, José Altolaguirre Camarero eta Sebastian Barral Azpeitia ziren. Karabineroen eta guardia zibilen arabera, hernaniarrak atxilotzera zihoazenean, batek, bere buruaz beste egiteko ahalegina egin arren, eragoztea lortu omen zuten.

### *Epaiketa*

Iraultza-saioaren ustezko arduradunak, 1935eko abuztuan epaitu zituzten; hogeita hemeretzi hernaniarren aurka –UGTkoak guztiak– Donostian egindako gerra-kontseiluan. Epaitegi Militarraren egoitza Garibai kalean zegoen, garai bateko Tabako Fabrikan. Ikusmin handia piztu zuen abuztuaren 29an, goizeko bederatzietan hasi zen epaiketak. León Carrasco komandante eta epailearen zuzendaritzapean egin zen judizioa. Bestalde, bost abokatuk hartu zuten beraiengan epaituen defentsaren ardura.

José Maria Dávila fiskal militarrak urriko iraultzako gertaeren deliberamenduen idatzia irakurriz ekin zion lanari. Hernaniko "elementu sozialistei" greba orokorrean parte hartu eta beraiekin bat egin ez zuten langileak hertsatu izana leporatu zien.

> Varios de los procesados se situaron en lugares estratégicos del paso de obreros al trabajo, se distribuyeron armas, se instruyeron los grupos según el plan trazado o siguiendo órdenes del partido y desarmaron a serenos y a un miquelete, al que condujeron a la Casa del Pueblo.

Fiskalaren arabera, iraultzaileek armategia asaltatu eta udaletxean bakar-bakarrik zeuden guardia zibilak eraso egin orduko, bi indarren arteko tiroketa hasi zen. Gertaera horien aurretik, matxinoek bolbora eskuratu eta bonbak eta beste lehergailu batzuk prestatu zituztela adierazi zuen Dávilak. Lehergaiak herriko Telefono-etxeko bulego nagusia eta argi-indarraren posteak lehertzeko erabili zituztela ere leporatu zien fiskalak. Salatuei leporatzen zitzaizkien ardura guztiak, matxinada militartzat

definitu zituen fiskaltzak, baina ez zuen eskatu, beste kasu batzuetako moduan heriotza-zigorrik .

Akusatzailearen ostean, epaituen izenean, Eustasio Amilibia abokatua izan zen hitza hartzen lehena. Gero mintzatu ziren beste lau abokatuen antzera, akusazioak eginiko karguak banan-banan ezeztatuz, epaitu guztiak aske uzteko eskaria egin zuen. Epaiketa ordu bata eta erdietan eten zen, eta arratsaldeko lauretan ekin zion berriz ere defentsak lanari. Falta ziren defentsako abokatuen azalpenak entzun orduko, auzitegia deliberatzera erretiratu zen. Ordu batzuk joan ziren sententzia ezagutarazi zen arte, epaia gaueko hamabietan eman baitzen jakitera. Fiskalak hamabi eta hogeita hamar urte bitarteko kondenak eskatu arren, espetxe-zigorrak hamar hilabete eta hamalau urte bitartekoak izan ziren.

Esaterako, Ángel Alcelayk, Antonio Gonzálezek eta Antonio Ormazabalek hamalau urteko espetxe-zigorra jaso zuten. Manuel Ruizek, José Manuel Azurmendik, José López Morenok eta Mariano López Fernándezek, hamabi urte eta egun batekoa. Ángel Jiménezek eta Juan Ibáñezek hamabi urtekoa. Agustín Ibañezek hamar urte. Gabriel Moncayok, Jesús Macazagak, José Altolaguirrek eta Martín Celayetak, lau urte. Alejandro Garcíak, Cándido Icacetak eta Ramón Muguruzak, bi urte. Urte eta erdiko kondena ezarri zitzaien Castor Vidaurre, Juan Sánchez eta Teófilo Lópezi. José Ormazabal eta Roque Gili hamaika hilabeteko espetxealdia eta Amadeo Idigorasi, berriz, hamar hilabetekoa. Teófilo López eta Ángel Jiménez auziperatuei, gainera, lapurreta-delituagatik, sei hilabete eta egun bateko zigorra ipini zitzaien. Epaituriko beste hamasei hernaniarrak aske geratu ziren.

### *Beste behin, bozkatzera*

1936ko Errege Egun biharamunean, urtarrilaren 7an, Gorteak desegin eta hauteskunde orokorrak deitu ziren. Zortzi egunen buruan, 15ean, ezkerreko alderdiek bat egin zuten eta Frente Popularra sortu zuten. Sozialistek ez zuten hasieran Azañarekin bat egin nahi eta garai hartan, hainbat lekutan bezala, euskal sozialisten baitan ez zen giro. Partidua bi zatitan banatuta zegoen: Largo Caballerok gidatutako sektore iraultzailea batetik eta Indalecio Prieto buru zuten moderatuak bestetik. Afiliatu sozialista gehien zituzten herri gipuzkoarrak, Eibar, Donostia, Elgoibar eta Errenteria ziren. Guztiak, Prieto zaleak. Arrasate, Hernani, Irun, Soraluze, Tolosa eta Pasaia, aldiz, Largo Caballeroren dotrinaren aldekoak ziren. Baina, azkenean, amore eman zuten.

Haatik, otsailaren 16an egin ziren bozketa orokorrak, "hauteskunde guda" zela esan zuen baten batek.

Ezkertarrak esaten dute, [abertzaleok] eliza geiegi aitatzen degula; eskubikoak, berriz, masoiak gerala (...). Ezkertiarren "artian badira banaka batzuk, abertzaliai beren botoa emango digutenak, bana geienak euskal errian etsayak dira.

Eskubitarrak berdiñ, Euskal-erriko jabe, aldi luzian izan ziran, ¿ta zer egin zuten gure izkuntza eta oitura ederrak goraltzeko? Ezertxo ez.

Oiek emendik Madri'a bialtzen zituzten aldunak, Otzaurte'ko tunela igarotzerako aztutzen ziran. (...) Eskubitarretan ere badira ezauera dutenak, ta beren botua abertzaliai emango diotenak, guk guziai beso zabalak jarriko diogu ta pozez artuko ditugu.

(...) Aldun abertzaliak gogotik alegindu dira kristautasuna eta abertzaletasuna goraltzen, beragatik berriz ere gure botua, berentzat izan bear du, ongi irabazia dute, Aldun zintzo ta langilliak izan diralako.

Ezkertiarrak eta eskubitarrak, biotz oneko guziok, pakezale bazerate, zuen sendia, zuen erria, zoriontasuna izan nai baduzute, zuen botua abertzaliei eman.

Au da biderik ederrena eta Jaungoikuak nai badu datorren astelenez ikusiko degu abertzaletasunak etsai guziak aixa zapaldu ditula.

Espainian ezkerra irten zen garaile, eta garaipena erdietsi eta hiru egunetara, otsailaren 19an, Frente Popularreko Manuel Azañak hartu zuen bere gain Frente Popularreko gobernuaren buruzagitza. Garaipenarekin batera, 1934ko urriko iraultzan aritutako hamaika erbesteratu etxeratu ziren. Hernanin, hiru kolektiboren artean zegoen aldea bozketetako emaitzetan islatu zen. Gutxigatik bada ere, ezker indarrak garaitu ziren Hernanin:

| | |
|---|---|
| Frente Popularra | 1.196 boto |
| PNV | 1.181 boto |
| Iraultzaren aurkako koalizioa | 285 boto |

Hilaren bukaeran, berriz ere, Miguel Toledo Alberdi, abertzalea, izendatu zuten alkate. Kargua hartu orduko, udalak urteetan saihestu zuen arazo bati heldu zion, Guardia Zibilaren kuartela eraikitzearen eskariari hain zuzen ere, eta ezezko biribila eman zion. Udal-hiltegiaren egoera, ur-falta eta, liburutegirik eta irakasleek etxerik ez izatea izan ziren, besteak beste, kuartelaren proposamena atzera botatzeko argudiatutako arrazoiak.

### *Bigarren hilketa*

Martxoan asko belztu zen herriko egoera politikoa. San Jose egunean, 19an, Portu auzoko 18 urteko José Aranburu Lasa gazte abertzalea hil zuten Plaza Berrian Agustinetako komenturantz zihoala. Berehala atxilotu zituzten hiru susmagarriak. Car-

los Rada, militarren semea, Joaquín Gómez Sarasola *Madrileño* eta León Arbizu Mateo udaletxeko arkupe txikian zegoen espetxera eraman zituzten. Aranbururen erailketak biziki sutu zituen EAJko jarraitzaileak. Susmagarriak, dena den, libre geratu ziren. Bazter guztietan, giroa erabat berotua zegoen erakusle da EAJko Euzkadi Buru Batzarrak 1936ko Aberri Eguna jarraitzaile bakoitzak bere etxean ospatzeko deia egin izana.

Apirilaren 7an, Errepublikako presidentea, Niceto Alcalá Zamora, kargugabetu zuten. Hernanin, aldiz, egungo Plaza Berrian, orduko Foruen Plazan, Kardaberaz eta Perkaiztegi kaleek bat egiten duten bidea zabaltzeko, etxe batzuk bota ziren. Hil hartan bertan, greba orokorra egin zen kaskoan, eraikuntza-alorrean. Bestalde, herriko Izquierda Republicanako elkarteko zuzendaritza berria aukeratu zuten: Estanislao Orradre izendatu zuten presidente.

Tentsioa zen nagusi herrian, eta 1936ko, pilota txapelketako finala izan zen horren lekuko. Hernaniarrak une oro pilotan han aritzen zirenez, orduko pilotazaleen bilgune nagusia zen Tilosetako frontoia. Txirrik apustu pila ederra ezagutu zuen bere baitan, baina 1936ko binakako txapelketako finalak zeresan handia eman zuen. Sozialistak eta abertzaleak lehiatu ziren nor baino nor. Joaquín Gómez Sarasolak *Madrileñok* (José Aranburu Lasa jeltzalea hil zuten susmagarrietariko bat) eta José Ormazabalek osatu zuten bikote bat. Aurrez aurre, Damaxo Uria eta Juanito Apaolaza abertzaleak izan zituzten. Finalisten arteko borroka partida ikustera hurbildutako zaleetara ere igaro zen. Hain zen handia sozialisten eta abertzaleen jarraitzaileen arteko tentsioa, ezen indar publikoak azaldu behar izan zuen bake pixka bat jartzera. Jendartean, pistolak ere ez omen ziren gutxi. Gaua eguna irensten ari zenez, lehia bertan behera geratu eta partida hurrengo egunean amaitu zen. Gorriak eta bi ikusi ondoren, Ormazabal eta Gómez *gorriak* garaitu ziren.

***Badator...***

1936. urteak kultur ekitaldi handi bat ere hartu zuen. Tolosan, Azpeitian eta Elizondo herrietan kanporaketak jokatu ondoren, urtarrilean, San Sebastian bezperan, jendez lepo zegoen Donostiako Victoria Eugenia antzokian, Bigarren Bertsolari Egunaren finala jokatu zen. Guztira bederatzi bertsolari aritu ziren nor baino nor. Gai-jartzaile lanak Iñaki Eizmendi *Basarri* bertsolariak egin zituen. Bertsoz proposatu zituen gaiak errezildarrak. Bertsotan bakarka aritzeko amaierak hala zioen: «gerra zitalen ondoren txarrak, azalduz bota bertsoa/ ta agertu sutsu zein geiagoka, beretzako gorrotoa». Beste bertsolarien antzera, Joxe Manuel Lujanbio *Txirrita* hernaniarrak, hiruna bertso bota zituen, eta lehenak, oraindik ere bertsolaritzan leku aipagarria du:

Zenbat errezo egin izan det
nere denboran elizan,
ta pozik nago ikusirikan
pakian nola gabiltzan.
Ni naizen bezain kobarderikan
iñor ezin leike izan,
semeak gerra ez joateatik
mutil zar geratu nintzan.

Txirrita, 1936ko ekainaren 3an, altxamendua baino hilabete eta erdi lehenago zendu zen. Gerra Zibilaren atarian, mutil zaharra joan zen, baina euskal seme-alabek gerrara joan behar izan zuten.

### 1936ko gertakizunak Hernanin

Hernaniko herriak kaleak bete zituen 1931ko apirilaren 14an, II. Errepublika aldarrikatu zela ospatzeko. Gauza bera egin zuen gerra piztu zenean, 1936ko uztailaren 18 hartan altxamendu militarra gertatu zenean; baina oraingoan helburu ezberdinekin, «bizitza laburrekoa eta heriotza luzekoa» izango zen erregimena defendatzeko asmotan. Ilargi-eklipse osoarekin hasi zen 1936. urtea, beharbada, etortzekoak ziren urte ilunen aurrekari. Sasoi hartan, izatezko 6. 919 biztanle zeuden Hernanin, horietatik 6.651 eskubidezkoak zirenak.

Orain arte ikusi denez, 1936ko udaberrian bazegoen zerbait gertatuko zen susmoa. Giro horretan, tentsio politikoak, gizartekoak eta militarren artekoak, besteak beste, egunetik egunera areagotu egiten ziren; eta hiri eta hiriburuetan ez ezik, herri txikietan ere gertatzen ziren, Hernanin kasu. Handik gutxira, uztailaren 18an, altxamendua gertatu zenean, berehala erantzun zuten hernaniarrek eta, egun gutxitan, 250 gazte inguruk eman zuten izena armak hartzeko Errepublikaren alde.

> ...Entre tanto [se iba a] celebrar una reunión en la Izquierda Republicana, (...) en la que estaban (...) todas las organizaciones (...) Darío Guzmán, (...) era el que presidía aquella reunión, (...) el 21 de julio, se echó un bando en el pueblo, invitando a todas las organizaciones y a todos que desearan de 18 a 45 años de edad y me presenté como voluntario en la que fui al día siguiente que me entregaron una escopeta de caza[194].

194 Julián Erdozia Urretabizkaia hernaniarraren egunerokoa.

Gipuzkoako Ondasunen Inkautazioen Batzorde Probintzialaren 1939ko memoriak, bestetik, bere Industria Saileko buru zen Luis Pottecher industria-ingeniariak bahitutako enpresen zerrenda gehitu zuen. Sail horrek lantegien zuzendaritza hartu zuen «haciendo que funcionasen a pleno rendimiento, con vistas a los intereses generales de la nación y sin olvidar tampoco la defensa de los intereses de que se ha hecho cargo este organismo, y que en su día habían de servir en muchos casos para hacer frente a la responsabilidad civil que pudiera imponérsele al inculpado». Esku hartutako lantegi garrantzitsuenen artean zeuden Fagollaga argindar zentrala, Victoriano Celaya jeltzalearen ondasuna (zentrala geldirik zegoen, ez baitzen inoiz erabili, jabeak Hernaniko udalari helburu politikoekin emandako hitzaren ondorioz. «Actualmente se han realizado las obras necesarias para su puesta en marcha»); Lasarteko adreilu-lantegia, bertatik %50 bahitu zen, hori zelako Miguel Urreta jeltzalearen partea bertan, eta zehazten ez ziren zenbait paper-lantegi.

### *Los caídos por Dios y por España*

Errepresioaren neurriak ezin digu ahaztarazi hernaniar askok, gogoz edo derrigorrez, altxatuen aldean borrokatu zutela, 72 lagun, 1938ko abenduko zerrenda baten arabera[212]. Batzuk borroka-guneetan erori ziren, hilda edo zaurituta, baina errepublikaren aldekoak hil zituztenean ez bezala, lehen unetik identifikatu zituzten eta gorazarre egin zitzaien. Beraien gorpuak, kasu askotan, udal hilerrian lurperatu ziren eta haien aldeko oroigarria altxatu zen.

«Relación de los caídos por Dios y por España en la Guerra de liberación de 1936-1939 de la villa de Hernani...»[213]

| Nombre | Lugar de fallecimiento | Fecha | Lugar de enterramiento |
|---|---|---|---|
| Adarraga Erizaran, Juan | Quito (paso del Ebro) | 23-3-1938 | Hernani |
| Aguirre Zugasti, Victorio | Valdemoro (Madrid) | 15-2-1938 | Valle de los Caídos |
| Aguirrezabala Lete, Pedro | Frente de Asturias | 11-9-1937 | Llanes (Asturias) |
| Aizpurua Estala, Venancio | Lemona (Vizcaya) | 13-6-1937 | Hernani |
| Alberdi Inchauspe, José Miguel | Lemona (Vizcaya) | 26-3-1938 | Hernani |
| Albistur Adarraga, Agustín | Frente de Teruel | Se desconoce | Frente de Teruel |
| Amezua Sasiaimbarrena, Victor | Frente de Santander | 15-8-1937 | Hernani |
| Aramburu Garmendia, Félix | Valderrobles (Teruel) | 17-4-1938 | Hernani |
| Arrigorriaga Abalabide, Luis | Hernani (accidente) | 2-1-1937 | Hernani |
| Delpuerto Arregui, José | Ciudad Universitaria (Madrid) | 26-10-1939 | Madrid |
| Duran Valverde, José (Sargento de la G. Civil) | Hernani, asesinado | 7-9-1936 | Hernani |
| Erice Satrústegui, Andrés | Llanes (Asturias) | 9-9-1937 | Hernani |
| Iboleón Pagola, Rafael | Hospital M. Calatayud | 13-2-1938 | Calatayud (Zaragoza) |
| Iradi Abalabide, Rafael | Frente de Teruel | 30-12-1937 | Teruel |
| Izaguirre Irura, Victoriano | | 24-5-1937 | |
| Izaguirre Loyarte, José Mª | Frente de Cáceres | 31-8-1937 | Cáceres |
| Izaguirre Oyarbide, Mariano | | Sep. 1938 | Hernani |
| Jáuregui Uranga, Bernardino | | 17-4-1938 | Hernani |

212 Iñaki Egaña en *Guerra Civil en Hernani. Información previa a las tareas de investigación y exhumación*. Sociedad de Ciencias Aranzadi. San Sebastián 2003.

213 Archivo Municipal de Hernani (HUA // HISTORIKOA / E-5-II-27/5. Guerra Civil de 1936. Combatientes de Hernani caídos en la lucha). Zerrendak Hernani herria hartu aurretik gertatutako hildakoen izenak ere biltzen zituen.

| | | | |
|---|---|---|---|
| Laporte Yeregui, Felipe | Frente de Burgos | 27-1-1937 | Hernani |
| Miranda Usategui, José | Sopuerta (Vizcaya) | 5-7-1937 | Hernani |
| Miranda Vitoria, Esteban | | 11-1-1939 | |
| Molinaga Gorrochategui, Juan | Frente de Asturias | 15-10-1937 | Hernani |
| Muguruza Zubillaga, Ángel | | 31-7-1938 | Hernani |
| Mutiloa Arabaolaza, José | Frente de Vitoria | 6-11-1936 | mismo frente |
| San Adrián Zozaya, Gorgonio | Pola de Gordón (León) | 20-9-1937 | San Sebastián |
| Santa Cruz Arreche, José Ant° | Hospital de Ayerbe (Huesca) | 21-4-1928 | Ayerbe (Huesca) |
| Yanguas y Fernández, Germán F. (Funcionario del Ayuntamiento de San Sebastián) | Asesinado en ésta | 8-9-1936 | Hernani |

"Por Dios y por España" eroritakoek urtero omenaldia jasotzen zuten, baita 1972ko azaroaren 20aren moduko data berantiarrean. Data hartan zabaldu zuten berriro, konpondu ostean, urte bereko abuztuaren 23an bonba batek suntsitutako Erorien Monumentua.

Garaipenaren oroimena diktadura osoan, indar gehiago edo gutxiagorekin, landu zen. Francisco Franco bera Hernaniko Ohorezko Alkate izendatu zuen udalak osoko bilkuran eta horrela jarraitu zuen, duela urte gutxi akordio hura anulatu zen arte. Egun, badaude oraindik herrian frankismoaren eta Falangeren ikurrak, duela 70 urte gertatutakoaren oroimen historikoa "mantenduz" eta ikur horiek nagusi izan ziren hamarkada luze horietan jasandakoarena gogoraraziz.

Oroimen historikoa bere osotasunean eta aniztasunean berreskuratzea oso lan nekosoa da. Gaur egun ere, atzera begiratzeak hainbat zauri irekitzen ditu, eta gerraren ondorioak jasan zituzten guztiak ondratzea, galtzaileak bereziki, eta beraiekin justizia egitea polemika-iturri da; nahiz eta galtzaileek, berrogei urte luzez porrotaren zauria eraman behar, Errepublikaren zilegitasuna defendatu zutelako. 1936ko uztailaren 17tik aurrera gertatutakoa urrunekoa eta hurbilekoa dugu era berean. Errepublikaren alde hildako guztiak identifikatzea, hernaniarrak izan edo ez, lan konplexua da eta nekez bete ahal izango da erabat, ezta gaur egun ere.

# IX

# HILERRIKO KRIPTA ETA MONUMENTUA: IRAGANAREN LEKUKO ISILAK

## Fusilatzeen memoria gerraostean

Euskal errepublikarren eta altxatutakoen jokaera gehien ezberdindu zuen ezaugarrietako bat alderdi bakoitzak fusilatuekiko izandako jarrera izan zen. Abiazio matxinatuen bonbardaketei Bilboko kartzeletan emandako erantzun gisa izandako hilketen zeharkako erantzule izan zen Euzko Jaurlaritza, eta hildakoen izen-abizenak argitaratu zituen eta ez zuen debekatu haien omenezko hileta-elizkizunak egitea. Matxinatutako militarren esku hildakoen kasuan, ordea, hiletak ospatzea galarazi zieten senitartekoei edota hildakoengatik doluz janztea.

Erregimen frankistak bere biktimak bakarrik gogoratzen eta omentzen zituen, eta haei eginiko omenaldi bakoitza alderdi errepublikarrean eroritakoentzat irain berri bat zen, zenbat eta gehiago goraipatu hildako frankistak, orduan eta gehiago hondoratzen baitziren ahanzturan besteak (Vega Sombría, 2005, 242). Ezberdintasuna alor juridikoan ere betikotu zen. Estatuko Buruzagitzak 1938ko azaroaren 16an ateratako dekretu baten bidez, azaroaren 20a dolu-egun nazional izendatu zuen eta elizako agintariekin aldez aurretik adostu ostean, parrokia bakoitzeko hormetan Jaunarengatik eta Espainiarengatik hildakoen izenak jasotzen zituen inskripzioa jarri zen. Azken horiek Erregistro Zibilean aipamen horrekin jasotzen ziren bitartean, 1939ko uztailaren 26ko agindu batek adierazten zuen hildako errepublikarren kasuan, heriotza-agirietan "Desafecto al Glorioso Movimiento Nacional" [Mugimendu Nazional Handiaren Aurkakoa] idatziko zela, "Caído por Dios y por España" [Jaunarengatik eta Espainiarengatik hildakoa] leloarekin kontrajarriz.

Diskriminazio hau alderdi frankistan borrokatutakoentzat bakarrik onuragarriak ziren neurri-sorta batekin batera zihoan: lanpostuak, diru-laguntzak, bekak eta abar soldadu ohiei, gatibu ohiei, Gurutzadako martirien senitartekoei bakarrik zuzenduta zeuden. Horrek guztiak bi aldeen arteko ezberdintasuna mantentzen lagundu zuen. Baina, bizirauteko eta bazterketa sozialaren egoeratik ihes egin beharrak eta pobrezia ekonomikoak Gerra Zibilean hildako errepublikar askoren senitartekoek, era sumarioan exekutaturikoenek, bereziki, atsekabea isilpean jasatera bultzatu

zituzten eta sufrimendua barneratu egin zuten. Agintariek, zibilek nahiz erlijiosoek, eta gerrako gizarte garaileak berak egindako presioak egoera hori kasu askotan lotsagarri moduan ikustea eragin zuen, biktimak errudun bihurtuz, ("zerbait egingo zuen"), eta oso kaltegarritzat hartu zen politika, izan ere, alor horretan parte hartzeagatik jasan zuten sarritan senitartekoek zigorra.

Altxatutako militarren eta beren aliatu zibilen ekintzaren ondorioek eragindako beldurrek urte haietan edo gerraostean bizitakoaren oroitzapenak, kasu askotan, buruan edo bihotzean ezkutatzera bultzatu zituzten, hain sakonki, ezen pertsona hori desagertzearekin batera, indarkeria frankistaren esku hildako senitartekoaren oroitzapena ere berarekin batera desagertuko zen. Usu gertatu izan da alderdi garailearen errepresaliak jasandako pertsona baten ondorengoek urte asko igaro ondoren jaso izana gertakari haren berri. Gaur egun, memoria historikoa berreskuratzeko martxan jarritako mugimenduak benetako talde-terapia egiten lagundu du eta, gainera, nolabaiteko motorra ere izan da, hildakoen senitartekoek, eta beren seme-alabek batez ere, gaiari buruz hitz egin zezaten eta ia hirurogeita hamar urtez aldean eraman duten zamatik aska zitezen.

Zorionez, ez zen hori gertatu kasu guztietan. Senitarteko askok harro, baina isilpean gorde zuten beren biktimen oroitzapena eta horiek bizirik mantentzea ahalbidetu zuten errituak sortu zituzten, haien gogoetan behintzat. Erritu garrantzitsuenetariko bat Santu Guztien Egunean kanposantuak bisitatzea zen. Baina, Hernanin lurperatutakoen kasuan, pertsona maitea benetan leku horretan lurperatua ote zegoen edo lurperatzeko leku batek eskatzen zituen duintasun-baldintzak betetzen ote zituen ez jakiteak ziurgabetasuna eta kezka sorrarazten zituen, ahaideen sufrimendua areagotuz. Are gogorragoa zen beren ahaideen gorpuak non ote ziren ez zekitenentzat. Aurreko atal batean adierazten genuenez, hileta-erritu bat egotea funtsezkoa da, ez bakarrik hildakoen oroitzapen iraunkorra mantentzeko, baizik eta baita gertakari horrek dakarren zama mingarritik askatzeko ere. Hildakoaren izenak inon idatzi gabe, loreak eramateko hilobirik gabe, atsekabea barren-barrenean geratzen zen, urte asko igaro arren.

Iragana, identitatea eta etorkizunerako itxaropena galarazi zituen porrotak. Euskal abertzaleen kasuan, aldiz, hainbat faktorek arindu egin zuten etsipen-sentimendua, hau da, beren sentimendu erlijiosoak, fede katolikoan zuten sinesmen handiak edota hainbat apaiz euskal abertzaletasuna maitatu eta hedatzeagatik jazarri zituztela jakiteak aurrerantz egiteko indarra eman zien abertzaleei. Jose Migel Barandiaranek garaiko lekukotasun askotan jaso zuen eliztarren eta hierarkiaren artean zabaldutako arraila, erlijioso ugari azaldu baitziren frankisten alde eta beren kideen heriotzen aurrean isildu egin baitziren. Alabaina, ez dirudi arraila hori guztiz ireki zenik eta, klandestinitatean, hildakoen aldeko elizkizunak ospatu ahal izateak indar-

tu egin zuen kohesioa galtzaileen taldean. Abertzaletasuna bizitzeko era horrek, beste faktore batzuekin batera, diktadura frankistan irauteko aukera eman zuen, beste erakunde edo ideologia batzuk, hala nola, errepublikarrak edo anarkistak, desagertzen ziren bitartean. 1939an, hileta-elizkizun bat ospatu zen Atotxako frantziskotarren elizan, gatazkan hildako abertzale donostiar batzuen alde.

Hernaniko kasuan, omenaldia egiteko lehenengo saiakera 1943an izan zela uste da, Santu Guztien Egunean. Norbaitek ikurrinaren koloreak zituen lore-koroa jarri zuen isilpean, hilerriko hobietan lurperatutakoen omenez. Ondoan, "Arerio maltzurrak zuek bazterrean utzi arren, eusko gogoan toki berezia daukazue" idatzia agertu zen. Egilea(k) aurkitzeko salaketak jarri ziren, eta koroaren alboko idatziaren letrak marraztu izana leporatuz, margolari bat atxilotu zuten. Benetako egilea Elbira Zipitria izan zen, gerraosteko ikastolen mugimendua sortu zuena, Iparraldean erbesteratua izan ondoren itzuli zenean Aitzolen oroigarri gisa loreak jartzen hasi zena.

Juanito Goya hernaniarra zen garai hartan hilerriko atezaina. Bera ere preso hartu zuten eta atxilotu orduko, idatzi hartan jartzen zuena itzultzeko eskatu zioten. Atezainak, frankistek Hernanin euskara ikasteko eskolarik jarri ez zutenez, berak ere ez zekiela han zer jartzen zuen erantzun zien. Hitz haiek ez zitzaizkion batere merke atera Juanitori. Bi hilabete igaro behar izan zituen espetxean; lehendabizi Ondarretan eta, gero, Burgosen. Orduko udaleko idazkariak eta alkateak Juanitoren alde egin zuten. Baina afera konpontzeko bidean zirenean –Guardia Zibila ere auzia bere horretan uzteko prest zegoen– bata bestearen atzetik salaketak jartzen hasi ziren Falangekoak. Azkenean, osorik bete behar izan zuen kondena hernaniarrak.

Euskal Herriko atzealde frankistak egindako ekintzarik odoltsuenetarikoak izan ziren Hernaniko fusilatzeak; eta gertatutakoaren oroitzapena gizartean bizirik mantentzen lagundu izan dute hildakoak asko izateak eta, bestetik, horietariko batzuek gizartean zuten ospeak. Gainera, egoera horri nolabaiteko mesedea egin zion hildakoak, leku ezberdinetan erail arren, espazio berean lurperatzeak, udal kanposantuan, bi hobitan. Hori dela eta, frankismo-garaian –baita gerraosteko unerik gogorrenetan ere– eta matxinada horren ondorioz bere burua estatu berriaren buru izendatu zuen Franco militarra hildakoan, batez ere, 1936ko udazkenean gertatutako guztiaren oroitzapen- eta memoria-gune bilakatu zen Hernani. Geroago, ahaide asko hasi ziren hilarriak jartzen hilerriko hormetan, hildakoen oroigarri gisa.

Gerraosteko lehenengo urteetan, funtsezko gaia izaten jarraitu zuen gorpuak berreskuratzeko aukerak. Nafarroan, egoera horren aurrean egindako kexak hainbeste izan zirenez, Marcelino Olaechea Iruñeko gotzainak, 1939ko azaroan, kleroari zuzendutako gutun pastorala idatzi zuen gorpuak berreskuratzeko erraztasunak emateko eskatuz:

Lograr que los restos mortales de todos los hijos de la Iglesia reposen en tierra sagrada, de todos, hasta que la "luce clarius" no nos haya probado que han muerto rechazando neta y conscientemente los Santos Sacramentos y no solamente podemos ya cumplir este deber, sino que contamos también con el apoyo entusiasta de nuestro Gobernador civil que nos da así una prueba más de ejemplar espíritu cristiano.

Por consecuencia, de acuerdo con los familiares de los difuntos y siempre en el caso que esto sea posible, de acuerdo con el alcalde del lugar, presten su ayuda para el traslado de los restos mortales al cementerio, en una forma estrictamente religiosa y privada y con la discreción, que el asunto exige; más todavía: traten de inculcar a las familias el deseo de hacer ese traslado lo antes posible, para que Vds. tengan el consuelo de saber que en los límites de su jurisdicción no ha quedado una sola víctima fuera de la tierra sagrada[214].

Ez dakigu Gasteizko elizbarrutian ildo horretako dokumenturik egon ote zen, baina hortxe daukagu agintari zibilek jarraitutako kontrako bidea. 1940ko urrian, Beasaingo alkateak Gipuzkoako Causa General-aren Fiskal Instruktore Ordezkariari gutun bat bidali zion, aurreko gutun bat jaso zuela adieraziz, eta lehenago jasotakoan zera agintzen zen «bajo ningún pretexto sin oportuno permiso del v.s. [fiscal] se practiquen exhumaciones de cadáveres de personas asesinadas durante la dominación roja, cuyos enterramientos se efectuaron en forma colectiva en zanjas o fosas abiertas al efecto, dentro o fuera del cementerio»[215]. Horrela, senitartekoek ahaideak fusilatu zizkienetik desiratzen zutena, hots, gorpuak hobietatik atera eta duintasunez lurperatzea, bazterturik geratu zen luzarorako.

Gatazka zibilaren oroitzapena bizirik egon zen gerraostean, baina 50eko hamarkadako lehenengo urteetan nabarmendu zen. José Arteche izugarri oinazetu zuen bizitakoak, eta bere memoriak egoera hari egindako erreferentziaz josirik daude. «La guerra, siempre la guerra civil» idazten zuen ezin ahaztuz ikusitakoa; bestalde, hizkera gerrazalea erabiltzen jarraitu zela aipatzen da memorietan, baita Eliza Katolikoan ere; esaterako, Azpeitiko Loiolako basilikan, 1954ko uztailaren 31n, jesulagun batek honakoa esan omen zuen: Jesusen Konpainia prest zegoela odol gehiago isurtzeko beharrezkoa bazen. Epaileak, militarrak, agintariak, poliziak eta zentsuratzaileak azaltzen dira maiz liburuko orrialdeetan. Artecheren lagun gehienek gerrari buruzko egunkaria ez argitaratzeko aholkatu zioten. Artechek zenbait komunikabidetarako idazten zuen, ta berak ere bere burua zentsuratu zuen bi urte lehenago, José Eguino Santandergo gotzainaren sermoia transkribatu zuenean. Aipaturiko hitzaldian, Eguinok ahanztura predikatu zuen, antza, gerra-garaian euskal abertzaleen laguntzari esker lortu zuela bere elizbarrutitik ihes egitea berak ahaztuta. Honako hitzak erabiliz eskatu zuen iragana ezabatzeko: «al olvido de los trágicos recuerdos de la fratricida guerra civil y de las cosas ocurridas en el país durante la misma» (Arteche, 1977, 69).

214 Iruñeko Gotzaindegiko Aldizkari ofiziala, 1939ko azaroa (Azpiazu, 1958, 18).

215 AHN, Causa General, 1335.

Ezinezkoa zen gertatutakoa ahaztea, hantxe baitzeuden begien bistan "Jaunarengatik eta Espainiarengatik hildakoei" eta "Gurutzadaren martiriei" idazkiak, Altxamenduaren Eguna, Garaipenaren Eguna eta matxinatutako gudarostearen esku eroritako herrien "liberazioarena" egutegian. Elizak eta kaleek garaileen memoria azaltzen zuten elizkizunak ospatuz, jaialdiak antolatuz, plakak ezarriz edo "gorri separatistaren grinak" hildakoen gorpuzkinak leku egokiagoetara aldatuz. Bien bitartean, hildako errepublikarrek, bereziki "legez kanpoko" errepresioa pairatu edo bizia borrokan galdu zutenek, lurperatze duinik izan gabe jarraitzen zuten.

Paradoxa bada ere, Valle de los Caídos-eko lanak amaitzean aldatu zen egoera, ia hogei urtean preso politikoek edo arruntek egin zituzten lanak bukatu zirenean[216]. Eraikin ikaragarri hau 1959ko apirilaren 1ean inauguratu zen eta Gurutzadaren memoriari egindako azken eskaintza zen, baina beste asmo bat ere bazuen: «dar en él sepultura a quienes fueron sacrificados por Dios y por España y a cuantos cayeron en nuestra Cruzada, sin distinción del campo en que combatieron, según impone el espíritu cristiano de perdón que inspiró su creación, siempre que, unos y otros, fueran de nacionalidad española y religión católica» (Gil Andrés, 2006, 411). Asmo hori gauzatu ahal izateko, Gobernazioko ministerioak zirkular bat bidali zien Gobernu Zibil guztiei bi zerrenda egiteko eskatuz: lehenengoan, gerran edo errepublikarren esku hildako alde nazionaleko kideak jasoko ziren; bigarrenean, berriz, kanposantu katolikoetan zeudenak sartuko ziren, beti ere beren senitartekoek onartzen bazuten gorpuzkinak Guadarramako mendilerroan eraikitako santutegira eramatea. Espainiako udaletxe guztietara bidali zen zirkularra eta udaletxeetako iragarki-tauletan jarri zen, baina ez zuen arrakasta handiegirik izan. Frankisten esku hildako pertsonen ahaideek ez zituzten beren senitartekoen gorpuak hara eraman nahi, gainera, oso zaila zen zehaztea nortzuk ziren pertsona horiek eta non zeuden lurperaturik. Agerian zegoen ez zela senide eta adiskideen etxeetatik desagertu hildakoen oroitzapena, ez eta lurperatu zituzten lekuetatik ere.

Horren aurrean, kasu askotan, gorpuak inongo baimenik gabe ateratzea izan zen harturiko erabakia. Beraz, ez da harritzekoa zehazki ez jakitea kripta madrildarrean zenbat gorpu dauden, 35.000 inguru, izan ere, txkun, banaka-banaka kokatutako gorpuzkinekin batera, beste hainbat batera ontzietan jarri zituzten eta ezezagunak bezala inskribatu ziren[217]. Azken horiek, kasu askotan, borroka-guneetako hobietatik eraman ziren, baina baita nazionalek egindako lurperaketa klandestinoetatik ere. Berez, lan honetan zehar Hernanin lurperatutako pertsonen kopuruari buruz erabili dugun erreferentzia tokiko Guardia Zibileko kaboak egindako idazki baten kopia da, 1958ko ekainaren 17koa, Udal Agiritegian dagoena eta, ustez, udaletxetik, gorpuz-

216 Basilikaren eraikuntzaren gorabeherei buruz, Sueiro 2006.

217 Fitxen erdiek izen ezezaguna adierazten dute. *El País*, 2005-4-3.

kinak lekuz aldatzeko egindako deialdia zela eta, Gipuzkoako Gobernu Zibilera bidali zena. 1960an, gorpuak biltzeko ahaleginean jarraitzen zuen erakunde horrek[218].

Gerran hildakoen gorpuak berreskuratzeko ahaleginek Franco jeneralaren oroitzapen zaharrak piztu omen zituzten; izan ere, bere izena daraman eta bere agiritegia zaintzen duen fundazioak dosier bat gordetzen du, non nazionalek hildako euskal apaizen heriotzen gorabeherak azaltzen diren[219]. Txostenak ez du datarik, baina 1959ko hasieran koka dezakegu, 1959ko urtarrilaren 28ko data baitarama Sagarna apaizari buruz entregatu zen beste idazki batek[220]. Ez dirudi oso zehatza denik, aita Román, Zornotzan hil zutena, Hernanin lurperatuta dagoela baitakar, edo Aitzol eta Adarraga 1936ko abuztuan fusilatu zituztela eta Martin Lekuona urriaren 28an Oiartzunen hil zutela; era berean, "aita Lupo" izeneko bat aipatzen da, hau ere Hernanin lurperatua, baina zehaztasun gehiagorik gabe, eta baliteke aita Lucus Aramendia izatea, bere fitxa horren aurrekoa baita. Agian, 15 elizgizon (aita Bombín falta da) biltzen dituen zerrenda honetako gauzarik harrigarriena da, Jorge Iturricastillo salbu, denak agertzen direla Hernanin lurperaturik. Arin, Marquiegui eta Guridiri dagokienez, Oiartzunen fusilatu zituztela zehazten da, baina Hernanin lurperatu zituztela. Ez dakigu baieztapen hori sinets dezakegun, hori baita daukagun era horretako berri bakarra, eta, dagoeneko aipatu dugunez, ez du ematen Lucus edo Románen gorpuzkinak Hernanira ekarri zituztenik. Sagarnaren kasuan, ondo baino hobeto dakigu bere gorpuzkinak Zamalloako hilerrian daudela.

Lekuz aldatzeari buruzko datua egia izateko aukera lotuta egongo litzateke Valle de Los Caídos amaitutakoan gertaturiko gorpuen mugimenduekin. Lehenago adierazi dugun legez, Gobernu Zibilek egin zituzten tramiteak gorpuzkinak Madrilera eramateko, eta ez zuten beti arrakasta izan. Aranzadi Zientzia Elkarteak basilikako lurperaketen erregistro-liburuetan egindako lehen ikerketa baten arabera, hainbat udalerri euskaldunetatik eraman ziren gorpuzkinak: ehun hezurdura Gasteiztik eta beste hainbat Donostiatik. Alabaina, ez da aipatzen Hernanitik eraman zirenik. Gai honek eztabaida piztu du ikertzaileen artean, izan ere Aranzadik Hernaniko hilerrian 2003an egindako azterketa arkeologikoan, gorpuzkinak lekuz aldatzeko kutxa bat azaldu zen, Valle de Los Caídosera eramateko gomendatzen zenaren berdina. Historialari batzuen aburuz, baliteke Hernanitik gorpuzkinak eramatea "santutegi frankistako" liburuetan jaso gabe. Ez inskribatzeko arrazoia hildakoen artean apaizak egotea izan liteke. Guk ez dugu uste hipotesi hori zuzena denik, ez baitu zentzu handirik apaizak hil eta 20 urtera, gertakari haiek estatuan eta nazioartean izandako oihar-

218 AGA, 08 3.02, 44/113/0. Memoria del Gobierno Civil de San Sebastián 1960.

219 Fundación Francisco Franco, 4128. Artxiboan Gerra Zibileko errepresioarekin erlazionatuta dagoen txosten bakarra da.

220 Fundación Francisco Franco, 21775

tzuna kontuan hartuta, agintari frankistak horrelako isiltasunarekin ibiltzea. Agian Oiartzundik egindako lekualdaketak azal dezake kutxa Hernaniko hilerrian azaltzea.

Oiartzungoa, Artikutzako errepidean kokatutako hilobia izan zen ofizialki baimendutako lehen desehorzketaren lekuko, hots, Gipuzkoan gerra hasi zenetik ateratako lehenengo hildakoak izan ziren[221]. Inguru haietako biztanleek Katin-Txiki deitzen zioten leku horri. Bigarren Mundu Gerran izandako sarraski handienetarikoaren herrirako egokitzapena zen emandako izena; hain zuzen ere, sobietar tropek Katyn herri errusiarrean milaka ofizial poloniar hil zituzten (guztira 22.000, iturri batzuen arabera), lurralde hartako gizarteko buruak desagerrarazteko asmoz; aipatutako lurraldea Alemania naziaren eta Sobietar Batasun stalinistaren artean banatua zegoen. Ezberdintasun kuantitatiboa dela eta, edozein alderaketa egitea zaila litzateke, baina erabilitako deitura borrero frankistek eragindako minaren adierazgarria da. Gorpuak lurretik ateratzeko lehen saiakerak 1940. edo 1941. urteetan koka ditzakegu, lur haien jabeak gorpuak leku sakratu batera eraman zitzatela eskatu zuenean, baina Javier Laucirica Gasteizko Apezpiku Laguntzaileak herrira egindako bisitak ez zuen emaitza positiborik izan.

Gaia geldirik egon zen 1957ra arte. Urte horren hasieran, otsailean, ekitaldi bat egin zen Errenterian José Caballero Gipuzkoako Diputazioko lehendakariaren omenez, eta bertan, bere txapel gorria herrian ospetsua zen errekete bati jarri zion Caballerok. Gerra Zibilean bi aldeetako pertsonak salbatzea lortu zuen enpresari bat zen Joaquín Zubiria, eta gertakari horrek oroitzapenak esnarazi zizkion. Zubiriak gutun bat idatzi zion Caballerori egindakoa salatuz, denen ahotan baitzebilen errekete hark gerra-garaian kalte handiak eragin zituela. Nahiz eta ez den gertatutakoari buruzko zehaztasun handiegirik ematen, Zubiriak Diputazioko lehendakariari jakinarazi omen zion oraindik behar bezala lurperatu gabe zeuden pertsonak bazirela, eta berak horien senitarteko batzuk ezagutzen zituela, eta haiekin harremanetan jar zezakeela. Caballerok ez zion erantzun, baina egun batzuk geroago, Zubiriak Juan Sesé erbesteratutako apaizarekin egin zuen topo, eta horrek, gertatutakoa jakitean, Donostian eratu berri zen elizbarrutiko bikario nagusiarekin, Bereziartua gotzainarekin, Probintziako Osasun Institutuko zuzendariarekin, eta Oiartzungo parrokoa zen Daniel Urangarekin hitz egin zuen. Horrela, bikario nagusia eta Osasuneko probintziako ordezkaria Oiartzunera joan ziren hobia aztertzera. Azterketaren ostean, errespontsu bat errezatu eta ordezkariak gorpuzkinak lekuz aldatzeko erraztasunak emango zirela adierazi zuen. Baina gehiegi luzatu ziren tramiteak. Gotzainak berak Francorekin hitz egin zuen Donostian egon zenean jenerala abuztuan, eta Estatu Buruak baimena eman zuen aldaketa egiteko, betiere era diskretoan egiten bazen, eta,

221 Joaquín Zubiria Katin-Txikiko desehorzketaren protagonista nagusiaren lekukotasuna: Euzko Apaiz Taldean, 1981, 339 eta hurrengoak. José Artechek ere, bertan zeharka parte hartu zuena, aurreko faseko xehetasun batzuk ematen ditu (1970, 17).

horrez gainera, senitartekoek Valle de Los Caídosera eraman nahi bazituzten gorpuzkinak, bazutela aukera adierazi zion.

Gerrako garaileak, ustez, hala agindu arren, ez zituen tramiteak azkartu eta, azkenean, 1957ko azaroan, Zubiriak bi lore-koro eraman zituen Katin-Txikira. Lehenak "Etzaudete aztuta" zioen eta bigarrenak "Dios no os olvida" [Jaunak ez zaituzte ahaztu]. Hobia hantxe zegoela publikoki adieraztea zen asmoa. Hurrengo egunean, Zubiria, José de Artecherekin batera, koroak nola zeuden ikustera abiatu zenean, beren lekuetatik kendu eta inguruan bota zituztela ikusi zuten[222]. Loreak berriro jarri ostean, Zubiria hobira itzuli zen eta ohol batean idatzitako inskripzio batekin egin zuen topo: "Dios está con Franco" [Jauna Francorekin dago]. Gauzak horrela, Zubiriak Guardia Zibilarengana joateko agindua jaso zuen. Zubiriak egindako kudeaketen berri eman ostean jakinarazi zuen sei hilabeteko epean gorpuak ez baziren aldatzen, gurutze bat kokatuko zuela hobian. Denbora gutxira, poliziako komisarioak adierazi zion José María del Moral gobernadore zibilak gorpuak hiru hilabeteko epean leku sakratuan lurperatzeko ardura hartu zuela. Egoera politikoa korapilatu egin zen 60ko hamarkadako lehen urteetan, Jose Antonio Agirre lehendakariaren heriotzarekin eta 339 apaiz euskaldunek sinatutako gutunarekin, non euskal herritarrentzat askatasun eta errespetu gehiago eskatzen zuten, baina azkenean, 1960ko urriaren 25ean, langileek eta hara joandako talde handi batek zortzi gorpu atera zituzten hobitik eta Oiartzungo kanposantura eraman. Gutxienez beste hainbeste hobian geratu ziren, inoiz helduko ez zen bigarren aukeraren zain.

Alderdi errepublikarreko hildakoak bigarren mailako hildakotzat hartzeak eta hilobi komun asko mantentzeak exekuzioen bidegabekeria eta bazterketa mingarria zegoela nabarmendu nahi zuten zurrumurruak sorrarazi zituzten. Markinan gertatu omen zen mirariari buruzkoa izan zen gehien hedatu zena, José Sagarna apaiza hil zen lekuaren inguruan. Zurrumurruaren arabera, mendian lurperatu omen zuten Sagarna, okerra den datua[223], zuhaitz ihar baten ondoan, eta zuhaitzari adarrak, hostoak eta fruituak atera omen zitzaizkion. Gainera, gorpuzkinak lurpetik atera zituztenean, usteldu gabe zeuden. Franco jeneralaren mahaira heldu zen txostenak Sagarna Celestino Onaindiarekin, euskal abertzaletasunarekin eta, bereziki, klero separatistarekin nahasten zuen, eta gertakari haiek propaganda moduan erabili zirela zioen, lurperatu zuten leku hartara jende asko erakartzeko[224].

222 Inguruetako agure batek koroak berak kendu zituela aitortu zuen, pentsatuz inskripzioak berari zuzenduak zeudela, hildako pertsonen lurperaketan parte hartu baitzuen. Hildakoak "zerrendan zeudelako" exekutatutako martir batzuk ziren. Lekukoaren arabera, hildakoak konfesatu zituzten apaizak egoteak hilketak justifikatzen zituen besterik gabe.

223 Sagarna Amulategi baserriaren aurrean fusilatu zuten, eta Fancisco Zabalak bertako jabeak hesola bat jarri zuen hil zen leku zehatzean. Amalloako hilerrian lurperatu zuten, EAT, 1981, 283-294.

224 Fundación Francisco Franco, 21775.

Era batera edo bestera, hildakoen oroitzapenak euskal gizartean iraun zuen eta oso era xumean lehen ekitaldi publikoak egiten hasi ziren haien oroimenez. Horrela, 1959ko urriaren 4an, Urnietan misio espiritualen aste bat ospatu zen eta gurutzebideetako batean Miguel Zubiaga jesulagunak (Ondarretako kapilaua izandakoa) errotik heldu zion gaiari: «abordó claramente el problema. El efecto fue impresionante» (Arteche, 1977, 116). Urnietan matxinatutako militarrek eta beren aliatuek 18 pertsona fusilatu zituzten, gehienak elizara joan ohi ziren katolikoak. Artechek bere egunkarian idatzi zuenaren arabera, batzuk elizgizon zahar batek salatu zituen eta haien hileta-elizkizunak artean ospatu gabe zeuden. Familia batzuek Elizarekin zuten harremana hautsi zuten eta ordutik aurrera ez zuten eliza berriro zapaldu. Bi urte geroago, Artechek kontatu zuen nazionalak Urretxura sartu zirenean hil zituzten 11 lagunen omenez egindako elizkizunak nolako oihartzuna izan zuen. Honela deskribatu zuen: «Su delito consistió en cometer la ingenuidad de quedarse. Asistió un gentío; algunos que no pisaban la iglesia desde hace veinticinco años».

Aldaketa politikoek berek eta gerra lehen pertsonan bizi izan ez zuten belaunaldiak 60ko hamarkadan azaltzeak gerrako hildakoen oroitzapenarekiko jarrera berria eragin zuen. Euzko Alderdi Jeltzaleak Gudari Eguna ospatzea erabaki zuen gerrako hildakoen omenez. 1965eko urriaren 7an ospatu zen lehenengo aldiz. Beste adierazpen ospetsu bat Arrasaten 1967ko martxoan gertatutakoa izan zen. Egun horretan, ezezagun batzuek parrokiako hormetan alderdi frankistako hildakoen omenez jarrita zegoen hilarria puskatu egin zuten. Egoeraz baliatuz, kabildoak gobernadore zibilari eta gotzainari eskatu zien hilarria berriro jartzeko baimenik ez emateko, batez ere horrek beste aldean hildakoak baztertzen zituelako, horien artean parrokoa eta bi apaiz laguntzaile. Gotzainak hilarria berriro jartzeko baimenik ez zuela emango agindu zuen, baina gobernadore zibilaren presioaren ondorioz amore eman zuen. Gobernazio, Justizia eta Informazio eta Turismo ministroek idatzia berriro jartzeko eskatu zioten gobernadoreari eta horrek gotzainari. Erreketeek eta falangistek irain-kitatze ekitaldi bat ospatu zuten martxoaren 12an, baina tokiko apaizak ez ziren joan. Parrokoak, gainera, elizaren atarian ezarritako lore-koro batzuk kendu zituen eta horren ondorioz gobernadore zibilak 25.000 pezetako isuna jarri zion. Horrela piztu zen eztabaida berri bat agintari politikoen eta erlijiosoen artean, izan ere, azken hauek, Vatikanoko II. Kontzilioan onartutako irakaspenen berri emanez, adierazi zuten ez zietela aterperik eman nahi erlijioarekin zerikusirik ez zuten kontuei, «[a] todos aquellos signos, ajenos a la vida religiosa, que pudieran servir de motivo de discrepancia y de escisión entre los fieles de la comunidad parroquial» (Esnaola & Iturraran, 1994, 759-767). Hurrengo asteetako mezetan Gerra Zibilean hildakoengatik otoitz egiteko eskatu zuten Arrasateko apaizek (Barruso, 1996a, 207-208).

Alabaina, hutsegitea izango litzateke pentsatzea biktimen ahaide guztiek hartu zutela parte memoria berreskuratzeko mugimenduan. Horietariko askok ez zuten gaiari buruz hitz egin nahi, pertsona maiteak galtzeak eragindako samintasuna gainditu ezinik edo agintarien eskutik ondorio latzak jasateko beldurrez. Francoren heriotzak indarberritu egin zuen senitartekoen oroitzapena eta, nahiz eta asko izan ez, euskal prentsak artikulu batzuk argitaratu zituen Gerra Zibilaren atzetik heldu zen errepresioari buruz. *Punto y Hora de Euskalerria* astekaria nabarmendu zen gehien aipatutako lanean. Baina beldurra eta ziurtasunik eza, gorrotoak eta gerraren oroitzapenak areagoturik, gailendu egin ziren iritzi publikoaren zati handi batean, eta lehentasuna eman zitzaion "inoiz gehiago ez" printzipioari, ordenari, egonkortasunari eta moderazioari; aukera hori sendotu zuten Elizaren ekintzak eta gizarte espainolaren eta euskaldunaren zati batek zuen ongizate-egoerak. Hala eta guztiz ere, klima politiko berriak ordura arte era klandestinoan egindako jarduera publikoki egiteko aukera eman zuen: hildakoen gorpuak berreskuratu. Hain zuzen ere, exekuzioak gertatu ziren unetik bertatik, beren senitartekoen gorpuak non lurperatu edo abandonatu zituzten jakin zuten ahaideek berreskuratu egin zituzten, isilpean, leku sakratu batera eramateko. Diktadorea hil zenean, publikoki aitortu zen hildakoei zor zitzaien ohorea eta haien kausa omentzeko saioak hasi ziren. Jarraian xehatuko dugun Hernaniko kasuaz gain, 1978ko ekainean Pikoketan fusilatutako milizianoen gorpuak berreskuratu ziren, eta Irungo hilerriko mausoleo batean lurperatu zituzten. Monolito bat kokatu zen inskripzio batekin eta urtero egiten zaie omenaldia. Ez zen gorrotorik, mendekurik, ezta justizia egiteko eskakizunik ere ageri ekimen haietan. Jasandako sufrimendua publikoki aitortzea eta ahaideen izenak berreskuratzea zen asmoa. Memoria Historikoaren mugimenduak azken urteotan (demokraziarako trantsizioa hasi eta hiru hamarkadara) lortutako garrantziak adierazten du egindako lana amaitu gabe geratu zela Espainian.

## Trantsizio politikoa eta fusilatuen gorazarrea

1977. urteak hamaika albiste erditu zituen. Adibidez, azaroan, Euskal Herriak bi urte bete zituen diktadorearen hatsa sumatzen ez zuela, baina izan zen beste berririk. Maiatzean, Juan de Borbónek, Alfonso XIII.aren semeak, uko egin zien zituen eskubide dinastikoei bere seme Juan Carlos I.a egungo erregearen mesedetan. Ekainean, berriz, diktadura osteko lehen hauteskunde orokorrak egin ziren: Adolfo Suárezek (UCD) erdietsi zuen garaipena. Hiru hilabetera, irailean, milioi bat pertsonak Kataluniarako autonomia aldarrikatu zuten Diadan. Hil berean, eskuin muturrak *El Papus* aldizkariaren aurka egindako atentatuan pertsona bat hil zen. Ohikoak izan ziren sasoi hartan eskuin muturrekoen erasoak eta Euskal Herriak ere pairatu zituen bereak. Frantzian,

erbesteraturik urteak eman ondoren, Josep Tarradellas Kataluniara itzuli zen, urriaren 23an. Bi egun geroago, Espainiako alderdi politikoetako buruek Moncloako Paktuak adostu zituzten, hau da, Espainiako egoera ekonomiko larria bideratzeko egitasmoa. 1977. urtearen erdi aldera, inflazioa %44koa zen eta langabezia gorantz zihoan. Urriaren 27an, Espainiako parlamentuan, Paktuak bozkatu eta onartu egin zituzten.

Euskal Herria ur nahasietan murgildurik zebilen. Baita Hernani ere. Herriko egoera sozio-politikoa ez zen batere samurra. Krisi ekonomikoa begirada zorrotzak luzatzen ari zitzaion populazioari, eta langileek, lan-duintasuna eskatuz, hamaika greba egin zituzten herriko lantegietan. Jendeak ondo present zituen urtebete lehenago Gasteizen izandako bost hildakoak eta ehundik gora zaurituak. 1976ko martxoaren 3an, langileak Asisko San Frantzisko elizan egiten ari ziren asanblada indarrez eten zuen poliziak eta aipaturiko ondorioak izan zituzten. Alabaina, 1977ko urte-hasiera nahiko koloretsua izan zen Hernanin. Urtarrilaren 20an, bezperan Donostian ikurrina lau haizetara zabaldu ondoren, San Sebastian egunean, arrastian egindako ez-ohiko bilera baten buruan, Hernaniko udalbatzak ikurrina jartzea erabaki zuen. Udaletxeko balkoian, Espainiako eta herriko banderen ondoan, aspaldiko partez, ikurrinak lekua hartu zuen. Udalbatzak urte hartan beste erabaki esanguratsu bat ere deliberatu zuen, Espainiako plaza izena kendu eta Hildako gudarien enparantza jartzea. Betiko alderdiek Adolfo Suárezek proposatutako hauteskundeetan parte hartzea onartu zuten bitartean (emaitza onak lortu zituzten), ezker erradikalenak erreformen bidean sartu edo hausturaren bidean mantentzea eztabaidatzen jarraitu zuen. Urriaren 5ean, EIA, EK, EKA, ESB, HASI, LAIA, LC, LKI eta OICk egin zuten bilera Hernanin. EAJren eta PSOEren arteko aurreakordio autonomikoa gaitzesteaz gain, euskal ezkerraren aldeko aldarrikapena egin zuten.

Beste leku batzuetan gertatu zenaren antzera, Hernanik ere eskuin muturreko indarren erasoen berri izan zuen. Urriaren 8an, David Salbador taxista hil zuten Andoainen; 27an, berriz, Pedro Mari Goikoetxea iturgindegiaren aurka lehergailu batek egin zuen eztanda. *Triple* Ak hartu zituen bere gain bi ekintzak. Santa Barbara mendiko harrobia ere ahoz aho ibili zen. Hogeita hamar urtez ustiatu eta gero, harrobiko leherketak amaitzeko bidean zirela zabaldu zen. Udala kalte-ordanengatik kopuru ekonomiko handi bat emateko prest izanez gero, ez zuela inongo oztoporik ikusten ustiatzea bertan behera uzteko esan zuen harrobiko jabeak, Aranburu Harrobia enpresako buruak hain zuzen ere.

Gorabeheratsua izan zen 1977. urtea Hernanin: egoera politikoa zela, langabezia zela... Horrez gain, adinean aurrera zihoazenek oso presente zuten Gerra Zibilean bizi izandakoa; ia berrogei urte lehenago gertatutako egoera samingarria. Ezin zituzten ahaztu herriko hilerriaren atariko hormatzarrean fusilatu zituztenak 1936ko altxamenduaren ostean.

### LEHEN OMENALDI PUBLIKOA, 1977KO URRIAREN 30A

Fusilatuak omentzeko, 1977ko urriaren 30ean oihartzun handia izan zuen ekitaldia egin zen Hernanin. Aurretik ere izanak ziren beste batzuk. Denak isilpean. Gerra Zibilean fusilatutakoen alde 1977an egindako ekimena irekia eta publikoa izan zen. Urteetako isiltasuna haustearren, ez ziren gutxi izan, orri zuri baten aurrean jarri eta memoria historikoa berreskuratzeko asmoz, iritzia azaldu zutenak. Izan zen, 1936an, "Gurutzatu"ek 300 pertsona inguru fusilatu eta lurperatu zituztela adierazi zuenik. Baita, odolez jantziriko gertakari hura, ahapeka kontatu behar izaten zela gogorarazi zuenik ere. Bizikidetza eta errespetuzko bizitza bat hasteko injustizia bat konpontzea ezinbestekoa zela ere idatzi zen: "guztion arteko bakea, bizikidetasuna eta harmonia bultzatzeko". Era berean gogorarazi zen, bizitza berri bat hasteko komenigarria zela hildakoen aldeko ekintza bat egitea. Hona hausnarketa pare bat.

> Pocos niños de Hernani han olvidado aquello. [...] Hernani ha permanecido en silencio hasta ahora. Las flores frescas que de vez en cuando han ido apareciendo en la fosa común han roto ese silencio, si es que las flores pueden acallar ese silencio [...]. Nunca se permitió ninguna celebración religiosa. Nunca apareció frase alguna de respeto en la prensa. Siempre se ha tratado de muertos clandestinos. Y ya ha llegado la hora de que públicamente se paguen esos insultos, ya que a ninguno de esos 300 se les ha imputado la muerte de alguien o el robo de algo[225].

Bigarrenak ere oroitzearen garrantzia azpimarratu zuen:

> Berrogei urte zaarrago geranontzat, ta ordun ogeitaka gendunontzat, bien bitarte ontan, makiña gertakizun ikusi eta bizi degu. Berrogei orte oietan geren buruak makurtuta eduki izan gendunok, ze nolako naigabetasunak nabaitu ditugu. Izkillupean egon bearra, minori txiki eta arroak menperatuak, ta gure txepeltasunak, ederki maniatu dituzte oiek. Orain, gaur, askatuago bizi gera ta baztertuta egon diran trapu zikiñak aziak dira agertzen. Agerpen oiek ordea ez dira orain arte arro ibilli diran oien aurkako, baizik; gogoratzeko, ta zer egin zuten adierazteko berrogei urtetik berako jaio diranentzat.
>
> Zer egin zuten? Guazen geldika gogoraztea ez dakitenari. Amalau apaiz erail zituzten. Guziak euskaldun onak. Bere erria maite zutenak. Zer erru zuten? Gaur eguneko ezer ez, baiñon, une aietan gorrotoz beterik zetozten pizti aientzat, naparru aldetik, aitzeki gutxi.
>
> [...] Ernanin izan giñan lengo igandean. Bertan bost milla batu giñan eta mesa entzun ondore, guziak joan giñan kanposantura. An zeunden bazterrian, lurpean ilera ura lorez eztalita.
>
> [...] Gaur ordea erriak ikusi du nolako kalteak egin zituzten gure arerioak. Zenbat bizi gera ordun gazte giñanak? Egunetik ogeita amar? Genontzeko irurogeita amar oiek ez zuten ezer ikusi, ta ez naiz arritzen, askok ez jakitea gure une aietako estuasunak. Irakurri zuk gazte. Or daude liburuetan eta oraindik idatziko diranetan ere irakurri ta jakingo dezute zer egin zuten besteak. Eta ori, gure portamen izanik ain garbia, ain zuzen jokatua, iñuri kalte egin eza[226].

225 A.E., "Hernani: un cementerio bajo la luna". *Euzkadi* 47, 1977-10-26.

226 E. Ozkin, "Oroimenez". *Euzkadi* 53, 1977-12-8a.

Omenaldiak bultzatzaile bi zituen. Alde batetik, Jose Eusebio Iraola Iparragirre (1912-1990), herriko parrokoa, fusilatuen aldeko kripta bat eraikitzea proposatu zuena. Bestetik, Euzko Alderdi Jeltzaleak kriptaren irekiera aprobetxatu zuena omenaldia berak egiteko.

Eusebio Iraolak gerra kontuetan zuen interesa ez zen kasualitate hutsa. Alegiarra jaiotzaz, Gerra Zibilak Gebaran (Araba) harrapatu zuen, frankisten aldean. Alde frankistaren armadan, Burgosen eta Azpeitian aritu beharra izan zuen kapilau-lanetan. Azpeitian zegoela, gudariak Santoñan errenditu zirela jakin zuen, 1937ko ekainean Bilbo utzi ondoren. Auto bat laguntzaz betetzen ari zela, norbaitek ikusi eta zigortu egin zuten. Ondorioz, Andaluzian eman behar izan zuen denboraldi bat. Gero, urteak igaro zituen Lorenzo Bereziartua Balerdi (1895-1968) monsinorearen laguntzaile gisa. 1965eko uztailaren 11n, Hernaniko San Joan Bautista elizako parroko izendatu zuten. Don Eusebio izango zen hernaniarrentzat.

1977ko uztailaren 13an, eskaera bat egin zuen udaletxean. Idatziak hala dio:

> Existe, en el lado sur del cementerio municipal de Hernani, un lugar donde hace 40 años un grupo de personas (200) fueron enterradas, entre ellas había varios sacerdotes, sus nombres aparecen escritos en la pared;
>
> Durante este largo tiempo se ha pensado alguna vez en arreglar esa ignonimia.
>
> Debido a la situación política y social que todos conocemos, no se ha podido llevar a cabo ningún plan para acabar con esa situación.
>
> Parece ser que de aquí a cuarenta años podría realizarse un proyecto que diera fin a esa situación.
>
> Se trataría de, manteniendo la situación actual (monumentos conmemorativos, etc.), crear un panteón-cripta en todos aquellos lugares donde se encuentran los cadáveres; mediante una cristalera se elevarían un poco las paredes, de manera de que quedaran a la vista las montañas y paisajes de alrededor, y se cubriría para que quedara como un espacio verde parecido a un jardín.
>
> El plan ya ha conseguido el beneplácito de los señores obispos.
>
> La financiación del proyecto quedaría a cargo de la parroquia de San Juan Bautista.
>
> Por todo esto, por la confianza que en usted tengo depositada, le ruego tenga usted la amabilidad de estudiar este proyecto y esta petición y dé el consentimiento necesario para que se lleve a cabo lo antes posible.
>
> Dios guarde a usted muchos años.

Atanasio Lapazaran, Hernaniko udal aparejadoreak egin zuen txostena entzunda, irailaren 6an, Udal Batzorde Iraunkorreko bilkuran, lehenik eta behin kripta egiteko hilerriko lursailaren jabea udala bera zela gogorarazi zuen udalak. Gero, aho batez onartu zuen Don Eusebioren eskaria. Udalaren eta Gotzaindegiaren onespena izan zuten eraikuntza-lanek eta 1977ko azaroaren amaieran bukatuko zirela aurrei-

kusi zen. Era berean, kriptaren aldeko diru-laguntzen bilketarako hiru kontu korronte zabaldu ziren beste hainbeste kutxatan.

> La financiación de los trabajos corre a cargo del clero de la diócesis, las casas religiosas y de los familiares de los allí sepultados. No se desdeñará el donativo de nadie que quiera sumarse a este acto de reparación. Lo que sí se evitará, de todas formas, es la participación de los sectores políticos como tales[227].

## Goratzarrea

Udalaren erabakia gorabehera, fusilatuei omenaldia egitea erabaki zuten Hernaniko Euzko Alderdi Jeltzaleak eta EGIk. Orduko egunkari gehientsuenek, batzuk desagertuak gaur egun, nahiko lerro eskaini zizkioten urriaren 30eko ekitaldiari, fusilatuak omentzeko egunari, alegia. *La Hoja del Lunes*ek, astebete lehenago, "Aniversario" izenburupean albiste bat argitaratu zuen.

> El próximo domingo, por iniciativa del PNV, se va a conmemorar en Hernani los fusilamientos, unos 250, que tuvieron lugar entre octubre y noviembre de 1936. Se celebrará una misa en la iglesia parroquial de San Juan Bautista por el eterno descanso de todos los muertos, oficiada, entre otros sacerdotes, por el padre Olaso, seudónimo del P. Alberto Onaindia, locutor de Radio París y la BBC de Londres durante el régimen anterior[228].

Data hurbildu ahala, urriaren 26an eta 28an, bi egunkarik *Deia*k eta *El Diario Vasco*k, Hernaniko EAJren Uri Buru Batzarraren eta EGIko komunikatua eman zuten.

> Os invitamos a la Misa que se celebrará en la iglesia de San Juan Bautista el próximo 30 de octubre, a las 10:30 de la mañana, por todos aquellos que fueron fusilados y enterrados en el cementerio de Hernani hace 41 años, así como por aquellos enterrados en la fosa próxima al lugar sagrado, y por todos los que dieron su vida por Euzkadi. De la misma manera, quedáis invitados a los responsos que se celebrarán en los lugares en que fueron enterrados.

Bitxia izan zen *Deia*n, ekitaldirako bi egunen faltan, azaldu zen albistea: «Aitzol izena duten ume guztiei dei egiten zaie Hernanira datorren igandean, Aitzol zenari –Jose Ariztimuño *Aitzol*– omenaldi bat egiteko».

EAJk eta EGIk egindako gonbitak izan zuen erantzunik. Ekitaldiaren egunaren atarian, PSOEk, UGTk eta Euskadiko Partidu Komunistak deialdiarekin bat egingo zutela jakinarazi zuten. Ekimena serioa eta solemnea izango zela esan zuen prentsak; baita milaka pertsonak parte hartuko zutela ere. Hala izan zen.

227 *El Diario Vasco*, 1977-10-30.

228 *La Hoja del Lunes*, 1977-10-24.

Urriaren 30ean leporaino bete zen fusilatuen aldeko elizkizuna ospatu zen Joan Bataiatzailearen eliza. Apaiz-sorta ederrak hartu zuen parte bertan: Eusebio Iraola herriko bikarioak; Alberto Onaindia *Aita Olasok;* Emeterio Isasti, orduko pastoraltzako bikario jeneralak; Serafin Esnaolak, Pio Montoyak, Inazio Larrañagak eta Eugenio Arreguik, besteak beste.

Aita Olasok egin zuen sermoia: euskaraz hasieran eta gaztelaniaz gero. Bildutakoak agurtu eta mendeko bi mundu-gerrek eragin zituzten milioika hildakoak "hilketa negargarri" gisa definitu zituen. Bide batez, apaizak zenbait gauza azpimarratu zituen.

> Geuk be esagutu izan degu geure Errian, guda izugarrri eta ikaragarri bat. Oraiñ berrogei ta bat urte, gerra aretan sartuta gengozan. Anaiak anaiean aurka: sue, odola, ondamendia eta gorrotoa ugari. Len, bake-bakean bizi izan giñanak, bat-batera, goizetik gabera ta uste gabe, guda bildurgarri baten sartuta aurkitu giñan. Orduan bizi giñenok, beiñ be ez doguz aastuko egun eta illabete beltz eta larri aiek.
>
> Gudak amaitzekoan, beti ondorengo esaugarri batzuek geratzen dira, batez ere, ill-erriak, kanpo-santuak.
>
> (...).Ni askenengo otsaillaren 10'n, erbestean berrogei urte inguru igaro ta nere errira, Euskal-Errira itzuli nintzanean, nere lenengo ikustaldea Hernani'ra, emengo ill-errira izan zan, nire anai Celestino, apaiza, bertan obiratuta dagolako. Leenengo zartada, garratza izan zen benetan. Nik bainekian, nire anaia bezala beste asko onetsi gabeko lur-pean obiratuta egozala, egia esateko, ill-erritik, kanpo-santotik alboan. Izen bat edo beste bat irakurri, ta nere barruan gorde nebazan. Emen, Hernani'ko zimiterioan, ez dakit zenbat, eun, berregun edo geiago, lurperatuta dagoz, ixilian, iñori ezer esan gabe, talde moltzoak, denak nastatuta, zerraldo barik, ez izenik ez kurutzarik.
>
> (...) Lan zikin eta lotsagabeko ori, Hernani'ko erria lo egoala egiten zan. An gertatzen ziran gorpuak lar artean, odoleztuta, basatza artean, txakur illak bezala moltsuan jaurtita. Illda erori ziranen amak, alargunak, ume-zurtzak seguru, euren etxeetan lotan eta bakean ezer jakin gabe. Eta illak, zelako bakartasunean ilten ziran! Familiaren gomuta bat be ez eukien euren ondoan.
>
> (...) Orrelako gertaera negargarriak toki askotan jazo ziran egun aretan. Bi edo iru bider geiago izan ziran, errietan, atze-aldetan, gudu-tokietatik urrun ill ebezanak, gudan bertan baiño. Eriotza orreik bi aldetan gertatu ziran. Eta oraiñ, entzun: Ez da esagututen, gudari abertzale batek be iñor ill ebanik. Gure gudariak, abertzalek, euren eskuak garbi euki ebezan beti.
>
> Adiskideok, gu ez gara etorri gaur eliza onetara, iñori kontuak eskatuten. Ori Jaungoikoak egingo dau. Ez dakigu noiz, baiña zigur, egun baten. Guk ez degu gorrotorik, ez da mendeku edo bengantza nairik be.
>
> (...) Ez dakit, aspaldian, bizitzeari zor diotzegun lotsa eta errespetua bear den lez agertuten deutzegun Euzkal-Errian. Eta ez bakarrik gure bizitza, bai-ta lagun urkoana be balio aundikoa da. Gu ez gara bizitzearen jaubeak; Jaungoikoa da. Egi aundi ori sartu daigun gure biotzean, eta batez ere, gure gazte ta umetxuen barruan.
>
> (...) Eta, zer gaitik etorri gera gaur Hernani'ko errira? Eta, zer gaitik ille onetan, Urraillean? Ba, Hernani'n illak eta obiratuak asko direlako, eta emen sei apaiz illak be euren illobia dau-

kelako. Oneik dira: Martin Lekuona, don Manuel Lekuonaren anai gaztea, Jose Ariztimuño "Aitzol", Gervasio Albizu, Jose Adarraga, Alejandro Mendikute, erri onetako semea, eta Celestino Onaindia. Orren ganez, beste asko ta asko zuen ill-errian obiratuta dagoz.

Jaunak gura izan eban, euzkotar gogorkeriz ildakoen artean, euzko apaizak be egotea. Eta gabez, illunean, ixillean, izen gabe, kurutze barik ill da, denak alkartuta dagoz samintasun, atzekabe, negar eta oiñaze ta nekaldietan. Ori da kurutzeko anaitasuna. Ori da benetan apaizentzako goresgarri arritzeko bat. Elizak berak, Elizako agintariak eurak ez eben esagutu erri ta apaizen anaitasun orren edertasuna. Egun baten eregiko dira agintari orren begiak.

(...) Alkar maitatu bear gara, baiña illerri be eman bear jakue euren zuzentasuna. Areik illda dagoz, eta gu gera euren abotza. Euren izenian, eskatu nai degu errespetua, garbitasuna, eta kurutze bat. Bai-dakit Donostiako Gotzain Agurgarriak, asmo oneik barru barruan artuta daukezala. Bai-ta zuen elizburu, parrokoak ere. Gure gaurko deia, urrundik entzungo da, eta famili askok poza eta zoriontasuna aurkituko dabe[229].

Elizkizuna amaitu orduko, bildutakoak, hilerrirantz abiatu ziren errezo eta lore-eskaintzak egitera. Ondorengo egunetan ekitaldiaren inguruko hausnarketak ere idatzi ziren.

Las cinco mil personas que hicieron que el pueblo se quedara pequeño visitaron los dos lugares principales donde, supuestamente, enterraron a aquellos que fueron fusilados cruelmente. El camino hacia el campo santo se recorrió en silencio. No se vio ni una sola pancarta o bandera. Don Txomin Onaindía se encargó de las bendiciones. (...) El pueblo vasco demostró, una vez más, que es capaz de perdonar: no se escuchó ningún grito en contra de los verdugos y eso dice mucho sobre el comportamiento y el pacifismo[230].

Handik egun batzuen buruan, herriko EAJk, egitasmoaren antolatzaileak, balorazioa eskaini zuen. Jeltzaleak ekitaldira azaldu zen jende-kopuruaren inguruan uzkur azaldu baziren ere, gustura zeuden ekitaldiaren emaitzarekin.

El número de gente era numeroso, lo que nos indica el deseo del Pueblo Vasco a olvidar todo tipo de violencia y considerar por la vida humana un respeto profundo. Gente procedente de muchos pueblos (de Euskadi) acudió a Hernani para mostrarse solidarios con los familiares de los fusilados y ofrecer un homenaje póstumo a la lucha que llevó a cabo el pueblo de Euskadi contra la sublevación de las tropas nacionales en 1936[231].

Hernaniko kriptaren eraikuntza 1977ko urte-amaierarako aurreikusi bazen ere, omenaldia ospatu eta urtebetera jakinarazi zuen parrokiak kriptaren lanak amaitu zirela herritarren laguntzari esker. Fusilatu askoren familientzat oroimen-gune bilakatu zen kripta. Bertako hormetan jarri zituzten biktimen aldeko oroigarriak, berrogeita hamar inguru, nahiz eta, ikusi dugun bezala, zalantzak egon kasu batzuetan Hernanin fusilatu ote zituzten.

229 Labayru Ikastegiko Agiritegia. Onaindia Fondoa.

230 *"Hernani: un necesario acto de reivindicación"*, *Euzkadi* 48, 1977-11-2.

231 *Egin*, 1977-11-1.

## Urretxu, Elgoibar, Oiartzun...

Hernanikoa ez zen izan Gerra Zibilean fusilatu zituztenen omenez egin zen ekimen bakarra. Bi egun lehenago, Urretxun eta Elgoibarren, berrogei urte lehenago urrian eta azaroan fusilatutakoen aldeko elizkizunak egin ziren. Elgoibarren, 1936an hil zituzten herritarrak izan zituzten gogoan. Baina, bereziki, Celestino Onaindia apaiza. Hernanin fusilatu zutela 41 urte betetzen ziren egunean, haren aldeko elizkizuna egin zen. Celestino Onaindiaren aldeko Elgoibarreko elizkizunean bere anaia Albertok, *Aita Olasok*, hausnarketa batzuk egin zituen sermoian:

> Juiziorik barik, epai gabe, ixillin eta illunian, lotzatuta bezala, ezaugarririk itxi barik. Zartza arte baten, onetsi bako lurrean, txakurrek balitzez lez, izen barik, kurutze gabe, basatz artean...
>
> Ez dakigu nortzuk ziran eta nun dagoezan eriotza areik agindu ebezanak. Zigur nago, euren barruan, gaur be, bizi ba-dira, Jaungoikoak Kain'eri esaniko itzak entzuten egongo direla: Kain, nun dago Abel, zure anaia[232]

Elgoibarreko eta Hernaniko omenaldien ostean, azaroaren 1ean beste ekitaldi bat ospatu zen Arrasate eta Oiartzungo udalek antolatuta, fusilatu ezagun gehienak bi herri horietakoak izan baitziren. Eguerdian, bost apaizek emandako mezaren ostean, herriko hilerrira abiatu ziren bildutakoak. Txistularien bandaren atzetik, 1936an Pikoketan fusilatu zituztenak gogorarazten dituen monumentua estalgabetu zuten kanposantuan. Aitagure bat errezatu ondoren, Ignacio Aristizabal Oiartzungo alkateak guztion batasunaren premiaren inguruan hitz batzuk esan zituen.

## Arerio maltzurrak...

Kripta amaitu eta zortzi urtera, 1986an, altxamendu militarraren 50. urteurrena ospatzen zela eta, "1936an erailak izan zirenekoen gorazarrerako" izenburupean, Hernaniko udalak, Herri Batasunaren zuzendaritzapean, eskultura bat eraikitzeko lehiaketa publikoa deitu zuen. Uztailaren hiruan, hiru epaimahaikideek Jon Iturrarte Artolaren lana aukeratu zuten hilerrian jartzeko.

Eskulturarekin batera, esaldi ezberdinak proposatu ziren harrizko horman ipintzeko. «Jaioko dira berriak, gu gera Euskal Herria» (Xenpelar); «Hil zintuzten. Ez ordea, herria. Zuek duzue biziberritu Euskal Herria»; «Herri bezala bizinahia. Gau luze luzea. Zuen odola, herriaren arnas» eta «Arerio maltzurrak zuek bazterrean utzi arren eusko gogoan toki berezia daukazue» (Elbira Zipitria).

232 Bere anaia Celestino Onaindiaren oroimenez, Alberto Onaindiak irakurritako sermoia. Elgoibar, 1977-10-28. Labayru Ikastegiko Agiritegia. Onaindia Fondoa.

Azkenean, 1986ko irailaren 18an Kultura Batzordeak egindako bilkuran, bi idatzi ipintzea erabaki zuen, bata euskaraz, eta bestea gazteleraz; «Herri bezala bizinahia. Gau luze luzea. Zuen odola, herriaren arnas» eta «La sangre de los demócratas es semilla de libertad». Bost egunera, Gobernu Komisioak, zinegotzi guztien adostasunarekin, onartu zuen Kultura Batzordearen proposamena, eta ekitaldiaren aurreko egunean, udalak ohar bat plazaratu zuen fusilatuei egingo zitzaien omenaldiaren inguruan.

> Datorren urriaren 5ean, hilerrian altxamendu militarraren biktimei omenaldia egingo zaie. Ez da gaizki etorriko gogoraraztea berrehun baino gehiago pertsonek bizitza galdu zutela hilerri honetan edota ingurumarian.
>
> Hernaniar guztiak, eta era berezi batean familiartekoak (herritarrak edota beste herrietakoak) 50. urteurrenera (1936-1986) gonbidatzen ditugu.
>
> Gaurtik aurrera, eskultura baten ondoan eta haritz baten gerizpean, borrokalari adoretsu haiek leku berezi bat izango dute gure kanposantuan[233].

Herri Batasunak (HB), bere aldetik, «tropa faxistek fusilatutakoen oroimenez» egingo zen omenaldian parte hartzeko gonbita egin zien jarraitzaile eta militanteei.

Eguerdian hasi zen ospakizuna, hilerriaren sarreran. Txalapartaren ttakun eta ttukuttunen ondoren, Ricardo Mendiola Egaña alkateak hartu zuen hitza. Nahiz eta belaunaldi berriek ez ezagutu gerraren lazturak zuzenean, diktadura militarraren ondorioak «gaurdaino iraun dutenak», herriak ezagutu dituela adierazi zuen. Hildakoak gogoan izanik, «ez dugu gertaturikoa ahantziko. Eta ezta batzuk nahi duten bezala berriro hutsetik hasiko ere».

Gorazarrea huts bat bete asmoz antolatu zela esan zuen alkateak. «Bidezkoa zen euren izena aldarrikatzea nahiz eta beraietako askok 'desagertuen' taldea osatu. Zor bat dugu beraiekiko eta hein batean, gaurtik aurrera, arinagoa izango da betekizun horren pisua». Gero hilerriko kaperaren hormako plaka estalgabetu zuen alkateak. Testuak hala dio: «36-ko gerrakoan, hilerri honetan, berrehun pertsonaz goiti basaki erahilak izan ziren. Askatasunaren alde bizia utzi zuten haiei, oroitzapen eta gorazarre».

Hilerrira sartu eta monumentu berrian bildutakoek lore-eskaintza egin aurretik, Erketz taldeko hiru dantzarik agurra dantzatu eta Langile Ikastolako gazteek bertso batzuk bota zituzten.

Hamabi egun eskasen buruan, EAJk omenaldia eskaini zion Hernaniko hilerrian Jose Ariztimuño *Aitzoli*; hil zuten 50. urteurrena betetzen zen data berean Hernanin izan ziren, esaterako, Jesus Insausti *Uzturre*, Xabier Arzalluz eta Joseba Arregi jeltzaleak. Kanposantuko kaperan lore-eskaintza egin orduko, Joseba Arregik (ga-

233 1986-10-5. Udalaren idatzia, egunkarietan "leku berezi batean" ager zedin.

rai hartako EAJko Gipuzkoako GBBko presidentea) fusilatuak gogoraraziz hitz batzuk zuzendu zizkien bildutakoei. Ekitaldiaren amaieran Xabier Arzalluzek, EAJko presidentea orduan, «No quisiera que nuestro pueblo volviera a vivir la masacre que vivió» esan zuen. «Hay gente que no quiere mirar al pasado, como si fuera algo muerto, y sin embargo, el pasado, algunas veces, es un ejemplo, que nos empuja al futuro y a intentar mantenernos al servicio de nuestro pueblo»[234].

Urriaren 26an, gerora askotan errepikatu duen bezala, Eusko Alkartasunak ere omenaldia egin zien fusilatuei. EAkoek fusilatuen oroimenezko kriptan dagoen gurutzearen oinean, «Arerio maltzurrak zuek bazterrean utzi arren, eusko gogoan toki berezia daukazue (Elbira Zipitria)» dioen plaka ipini zuten.

Omenaldien segida honek argi adierazten duenez, 1936ko biktimen oroitzapena abertzaleen eskuetan geratu arren, aipatutako erakundeak, Hernanin elkarren aurka oso gogor ari zirenak, ez ziren gai izan hildakoen omenezko ekitaldiak elkarrekin antolatzeko. PSOEk eta PCEk, gaur egun Ezker Batua, izandako bigarren mailako parte-hartzea parametro ezberdinetatik ulertu behar da. Alde batetik, ez zegoen alderdi horietako kide ospetsurik hildakoen artean. Bestalde, Trantsizioan biktimen oroitzapena, itxuraz, adiskidetzearen aldeko diskurtsoarekin bateraezina zen eta komenigarriagoa zen Bigarren Errepublikaren aldarrikapenaren urteurrena ospatzea, PCEren eta inguruko taldeen ondare bihurtuko zen ekitaldia. Errepresioaren auzia ez zen nabarmendu, eta gobernu sozialistak bultzatu zuen jarduera bakarra oraindik bizirik zeuden gudaroste errepublikarreko kide ohiei beren parte hartzea aitortzea izan zen, pentsioak emanez eta armadako gradua onartuz.

Azkenik, eta Gerra Zibilaren hasieraren 70. urteurrena zela eta, Hernaniko udalak ekintza batzuk antolatzea erabaki zuen. Horien artean, biktimei omenaldia egiteaz gain, identifikatzeko ahalegina egin behar zen. Xede horrekin, Mertxe Etxeberriak (Euskal Herritarrok) zuzendutako korporazioak 2002an Aranzadi Zientzia Elkartearekin hitzarmen bat sinatu zuen indusketa arkeologikoa egiteko, beste hainbat hilobi komunetan erabilitako eredua jarraituz. Aurreneko lanetan ondorioztatu zen hilobi horietako gorpuak hilerria zabaltzeko egindako lanetan mugitu egin zituztela, eta horrek asko zailtzen zuen lan arkeologikoa. Egoera horren aurrean, 2003an hautatutako udalbatza berriak, José Antonio Rekondo (Eusko Alkartasuna) buru zuela, urteurrena egokiago ospatzeko ekitaldien programa zabala eratzea erabaki zuen. Horretarako, Euskal Herriko Unibertsitateari Hernanin 1936an gertatutakoa ikertzeko eskatu zitzaion eta horren fruitua da liburu hau; Carmen Gamboaren liburua argitaratzen lagundu zuen, bertan Hernanin fusilatu zuten bere aita Raimundoren oroitzapenak bilduz; gertatutakoaren inguruko dokumental bat egiten lagundu du,

234 *El Diario Vasco*, 1986-10-18.

Aranzadi Zientzia Elkarteko kide den Sabin Egiliorrek zuzendua, eta lehiaketa bat antolatu zen herriko hilerrian hil edo hilobiratu zituzten pertsonak gogoraraziko zituen "oroimenezko monumentu" bat eraikitzeko. Hori guztia udaletxearen eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko elkarlanarekin egin zen. Era horretan, azken bi erakunde horiek, Gerra Zibilaren memoriaren auzian inplikatu ziren. Saritutako lana, Argi Horma, Carlos López Ceballos eskultorearena, hildako baten biloba, 2006ko abenduaren 8an inauguratu zen Juan Jose Ibarretxe Eusko Jaurlaritzako Lehendakaria buru izan zuen omenaldian. Bertan, Eusko Jaurlaritzako Lehendakariak, egungo egoera politikoari erreferentziak egiten zizkion diskurtso batean, ahanzturan oinarrituz ezin dela ezer eraiki adierazi zuen, ez eta amaiera-puntuko legeetan oinarrituz ere, eta elkarbizitzak eta adiskidetzeak ez duela amnesia esan nahi, iraganaren irakurketa kritikoa egitea baizik.

Nahiz eta ekitaldiaren izaera instituzionalaren inguruan kritika batzuk jaso ziren, izaera hori izan zen, hain zuzen ere, bere berritasuna. Izan ere, pribatua, alderdikoia edo udalera mugatua izan zen aurreko omenaldien izaera. 1980an sortutako Eusko Jaurlaritzak edo Gipuzkoako Foru Aldundiak ez zuten Gerra Zibila edo milaka euskaldunek erakunde errepublikarren defentsan izandako esku-hartzea gogoratzeko diskurtsorik edo praktikarik garatu. Nahiz eta abertzaleen esku egon, ez zuten aipatu gatazka erresistentzia nazionalaren eta erasotzaile atzerritarraren arteko borroka izan zenik ere. Klandestinitatean hasitako Gudari Egunak Franco hil eta lehen urteetan jende ugari bildu zuen, baina beti Euzko Gudarosteak antolatutako ekitaldia izan zen, EAJrekin estuki lotutako erakundea eta, belaunaldi hartako kideak desagertuz joan ziren heinean, ekitaldia garrantzia galduz joan zen. EAJ, EA eta EBren koalizioarekin eratutako gobernuak eta XXI. mende hasieratik aurrera Gerra Zibilean desagertutako eta errepresioa jasandako pertsonen auziak gizartean izan zuen eragin handiak eta Bidasoa Institutua bezalako erakunde batzuen ahaleginak bakarrik aldarazi zuten jarrera, eta horren ondorioz, Jaurlaritzako sailen arteko batzorde bat eratu zen 1936ko gatazkaren hasieraren 70. urteurrenarekin erlazionatutako ekitaldiak eta programak koordinatzeko eta sustatzeko.

Gertakari horietatik guztietatik azken ondorio bat atera dezakegu. Nahiz eta agintari publikoek nahiko berandura arte ez dieten aitortzarik eskaini fusilatutako ahaideei, eta aipaturiko ahaide batzuek gertatutakoaren aitorpenik ez dela egon uste duten arren, ez dira gertakariak ahaztu; izan ere, hauen oroitzapenak Gerra Zibilaren hasieraren urteurren ezberdinetan egindako hiru omenaldi handitan (1977, 1986, 2006) bizirik iraun du eta oroitzapenerako monumentu ezberdinetan gauzatu da. Nolabait balio izan dute 1936ko udazken urrun eta aldi berean hurbil hartan Hernaniko hilerrian lurperatutako guztien memoriari eusteko.

# X

# FUSILATUEN NORTASUNA

## SARRERA

Orain arteko orrialdeetan ikusi dugunez, ia ezinezkoa da zehatz jakitea zenbat hil edota hobiratu zituzten Hernanin matxinatuek, eta kopuruetara hurbiltzen bagara ere, ezin izan dugu jakin nor izan zen biktimetako bakoitza. Hobiratzeak ez dira agertzen inongo agiritan, eta, kasu askotan, Erregistro Zibilean ere ez; gainera, batzuen kasuan, urte asko geroago inskribatu ziren heriotzak erregistroan, baina ez zen zehaztu zein tokitan hil ziren. Egoera horretan, oso zuhurki jokatu behar izan dugu ikerketetan, eta badakigu ikerketan aurrera egin ahala, guk emandako zerrenda luzatu edota aldatu egin litekeela. Hildakoen gorpuei dagokienez ere, urteetan egin diren kanposantuko obrek erabat eraldatu dute 1936ko hobien egoera, eta gaur egun ezin dira jaso hildako bakoitzaren gorpuzkinak banan-banan, mugimenduek nahasirik geratu baitira. Hori guztia dela eta, beste toki batzuetako errealitate berdina dugu: hobi komunetan lurperaturiko hildakoak, inolako inskripziorik gabe eta kopuruen gorabeheren artean, zifrak eman izan dituenaren asmoaren arabera erabilita eta aldatuta.

Beraz, beste bide batzuetara jo du gure ikerketak. Bi puntu hartu ditugu lanean hasteko abiapuntutzat: alde batetik, 1958an Guardia Zibilak egindako txostena; bestetik, Aranzadi Zientzia Elkartearen izenean Iñaki Egañak egindako lana[235] 2003an eta lan horretan ematen duen Hernaniko kanposantuko hildakoen zerrenda. Horietan oinarriturik, Hernanin hildako edota hobiraturiko gehiago aurkitzera zuzendu ditugu gure ikerketak, lehenengo eta behin. Senideen lankidetza mugagabea izan dugu zeregin horretan, baina, aldi berean, ahozko iturriek beren izaeragatik dituzten mugak izan ditugu eragozpen. Izan ere, inolako legezko biderik eta arrastorik utzi ez duten gertaerak ezagutzeko bide bakarra dira ahozko kontakizunak, informazio bakarra eta oso baliotsua eskaintzen dute sarritan; baina direna izateagatik, kontatutakoetan eta oroitzapenetan oinarriturikoa, denborak berak eta beste hain-

235 Egaña, Iñaki: *Guerra Civil en Hernani. Información previa a las tareas de investigación y exhumación.* Sociedad de Ciencias Aranzadi. San Sebastián, 2003.

bat zirkunstantziak zaildu egiten dute gertatutakoaren oroitzapen zehatza. Bigarrenik, oso azterketa kritikoa egin diegu eskura genituen zerrendei, ahalik eta froga gehien izateko, emango dugun zerrendan agertzen direnak benetan Hernanin hil edota hobiraturikoak izan zirela egiaztatzeko. Kasu askotan, nahi baino aukera gutxiago izan dugu hildakoei buruzko zehaztasunak ezagutzeko, agiri faltagatik edota seniderik ez delako gelditzen. Dena den, ondoko orrialdeetako erregistro bakoitzarekin batera doaz zerrendan sartzeko frogak eskaini dizkiguten erreferentzia historiografikoak, artxiboetakoak eta ahozkoak.

129 izen bildu ditugu, eta banaka zerrendatu baino lehen hildakoen ezaugarrien azterketa kuantitatiboa egingo dugu, eta horrekin batera, dakigunaren arabera, zein egoerak eraman zituzten heriotzara aztertuko dugu. Sei aldagai erabili ditugu azterketa kuantitatiboa egiteko: adina, egoera zibila, jeneroa, jatorri geografikoa, ogibidearen araberako sailkapena eta lerrokatze politikoa.

Ogibideei dagokienez, ez dugu sakonduko hauteskundeetako erroldetan eta udalekoetan agertzen diren sailkapenen eta errealitatearen arteko aldeaz, izan ere, eguneroko lanbidea ez da sarritan ongi islatzen aurreikusita dauden sailkapenetan. Gure ikerketarako, zortzi taldetan banatu ditugu ogibideak: jabeak, autonomoak, lanbide liberalak, funtzionarioak / enplegatuak, esku-langileak, baserritarrak, etxeko andreak eta apaizak. Oso nabarmena da emaitza: exekutaturikoen %50 baino gehiago esku-langileak ziren (ogibidea ezagutzen ditugun kasuak kontuan hartuta). %11 funtzionarioak edo enplegatuak ziren eta %6 nekazariak. %9,3 aritzen ziren autonomo lanean, eta %8,4 izan ziren etxekoandreak. Ogibide liberalekoak izan ziren gutxienak (%2) eta horien atzean zeuden jabeak (%4,3). Beraz, datu horiek eskuan ditugula, hobeto zehaztuko dugu lanaren lehenengo atalean egin genuen baieztapen bat. Hau da, ez zen klase-errepresioa izan, ez lanbidea ez bizimodua ez baitziren izan zigortzeko irizpidea; baina alde klasista nabarmena izan zuen zapalkuntzak, zigortuetako gehienak gizarteko klaserik baxuenetakoak izan baitziren, ez erdi-mailakoak, ez behekoak, beherengoak baizik. Hildakoen proportzioak Gipuzkoako lan-gizartean zuten lekuarekin erkatuz gero, ez datozela beti bat ikusten da. Gipuzkoako biztanleria aktibotik kentzen baditugu eskola-umeak, ez dihardutenak lanean, etxeko andreak eta umeak, guztira gizartearen %60, Rodríguez Ranz-en arabera (1994, 21), ogibide liberalekoen eta jabeen proportzioa probintziako aktiboetan bi talde horiek zutena baino altuagoa dela ikus daiteke. Gogoeta berdina egin daiteke funtzionarioen datuekin: biztanleria aktibo murriztuaren %3 izanik, exekutatuen %11 izan ziren. Kontrakoa gertatu zen industriako eta zerbitzuetako esku-langileekin: biztanleria aktibo murriztuaren %60 inguru ziren eta hildakoen %50. Antzeko zerbait esan daiteke nekazariei buruz: 1930ean lehen sektoreak Gipuzkoako populazio aktiboaren %9,62 betetzen zuen (%24 murriztutakoan) eta hildakoen zerrendako %6 baino ez ziren izan.

Gainera, Debagoieneko bi herritako baserritarrak izan ziren gehienak, Gatzagakoak eta Eskoriatzakoak. Beraz, azterketa azkar hau ikusita, ondoriozta daiteke Gipuzkoako gizarteko sektore dinamikoenak izan zirela kaltetuenak; esku-langileen artean, proportzioan, uste baino eragin txikiagoa izan zuela; eta, azkenik, konpromiso politiko handienak zeuzkatenak alde eginda zeudela errepresioaren une latzenetarako. Baserritarren arteko kontzientzia politiko eskasak, edo pentsaera tradizionalistetaranzko joerak ere zerikusia izango zuten errepresioaren helburu ez izateko, eta Hernaniko exekutatuen artean hain nekazari gutxi egoteko.

Nahiko harrigarria izan da exekutatuen adinari buruzko azterketaren emaitza: batez beste, ez ziren oso gazteak izan hildakoak, hildakoen %46k 40 urte baino gehiago zeukan eta 21 urte baino gutxiago %7k. Harritu egiten du jokabide eta pentsaera erradikalena izaten dutenak politikan (ustez, zapalkuntza gogorren pairatzen dutenak) gazteenak izaten baitira; eta horren arabera, gazteenak izan beharko lirateke exekutatuen arteko gehienak. Baina ez zen horrela gertatu, eta nolabaiteko azalpena badu. Matxinoek Gipuzkoa hartu zuten moduak aukera eman zien ihes egiteko errepresioaren biktima izan zitezkeela uste zuten gehienei, eta zaharrenak eta inolako "errurik" ez zutela uste zutenak geratu ziren lurraldean. Orduan, atxilotutako askok ordaindu zuten agintari berrien frustrazioa, ustezko benetako errudunek alde egin baitzieten. Zenbait kasutan, aitak edo amak ordaindu zuen errepublikarren aldeko semeren bat izana. Esate baterako, seme komunista izateagatik fusilatu zuten 64 urteko Dominica Artola eta semeetako batzuk errepublikazaleak izateagatik –beste aldekoak ere bazituen– Petra Heredero, Donostiako etxe bateko atezaina. Horixe da heriotza batzuk azaltzeko aurkitzen dugun azalpen bakarra, ez baitzitzaien ezagutzen inolako lotura politikorik hildakoei. Beste kasu batzuetan, aldiz, altxatutakoen armadara derrigor sartu beharrak urrundu zituen zenbait gazte zigorretik.

Egoera zibilari dagozkion datuak lotuta doaz adinarekin, izan ere, adinean zenbat eta aurreratuago handiagoa da ezkondua izateko aukera. Exekutatuen egoera zibila ezagutzen dugunen artean, erdiak baino gehiago ezkonduak ziren eta seme-alabak zeuzkaten, Jesús Callejak ume jaioberria zuen hil zutenean eta Emeteria Aranburuzabalak 9 seme-alaba. Bederatzi izan ziren Hernanin hil edo hobiraturiko emakumeak; beste probintzia batzuetako proportzioa baino altuagoa, besteetan %4 edo 5en ingurukoa izan baitzen. Gure lagina oso txikia da estrapolazioak egiteko, baina goian aipaturiko arrazoiarekin lotuta egon daiteke kopuru altua, hau da, seme-alaben ordez aukeratu izana zigortzeko. Hernaniko biktimarik gazteena ere emakumea izan zen: María Bengoa, Arrasateko Emakume Abertzale Batzara afiliatua. Emakumeen aurkako gogorkeria hori erabili zuen Euzko Jaurlaritzak, bi aldeen arteko ezberdintasunak azpimarratzeko gerra-garaiko matxinoen jokabidea salatzean. Emakume bakarra kondenatu zuten heriotzara errepublikarrek Euskal Herri osoan,

María del Coro Zubizarretari espioitza leporatu zioten heriotzara kondenatzeko, baina emakumea zela aintzat hartuta, indultatu egin zuten[236].

Zehaztasun gutxi daukagu exekutatuen lotura politikoei buruz: ez dakigu hildakoen %47ren pentsaera politikoa zein zen. Nahiko normala da datu hori, ohiko erregistro ofizialetan ez baita zehazten lotura politikoa, txosten polizialak kenduta. Bestalde, senideek ere batzuetan ez dakite esaten zein zen zehazki etxekoaren pentsaera politikoa edota zein alderdirekin zuen lotura, isilpean gordetzen zen datua delako kasu askotan. Dena den, deigarria da zehazki inora atxikigabeak eta inolako lotura politikorik gabeko hainbeste egotea hildakoen artean, halaber, ardura politiko nabarmena izan zuen inor ez egotea. Aitzol eta Francisco Saizar (EAEkoa, Foru Aldundiko Batzorde Kudeatzaileko kidea) bakarrik nabarmen daitezke ibilbide politikoagatik. Malgutasunez jokatzen badugu, irizpide zabal baten arabera, Victoriano Akizu eta Manuel Garbizu ere sar ditzakegu taldean, EAJko Aretxabaleta eta Pasaiako Uri Buru Batzarretako lehendakariak, hurrenez hurren; gainerakoak, gehienez ere, alderdi politiko edo sindikaturen bateko afiliatuak ziren. Hildakoen %40, gutxienez, abertzalea zen, afiliatua edo sinpatizantea, batez ere EAJkoak, baina batzuen lotura Euzko Langilleen Alkartasuna sindikatuko kide izatera mugatzen zen. Errepublikazale definitutakoak (zehaztasun gehiagorik gabe) sartu ditugu bigarren taldean, exekutaturikoen %8 izan ziren horiek. Eta %4ren kasuan, badakigu UGTrekin edo PSOErekin zutela lotura. Gainerakoei buruz ez dakigu ezer, usteak besterik ez. Hildakoen artean, Euskal Herritik kanpo jaio eta batez ere Donostian bizi zirenak 20ren bat izan ziren; guk uste dugu, beharbada, ezkerreko ideologia eta erakundeetatik hurbil ibiliko zirela, baina ez dugunez horiei buruzko datu zehatzik, ezin dugu baieztapen biribilik egin.

Exekutatutakoen bizilekua izan da azterketan kontuan hartu dugun azken aldagaia. Altsasuko nafar bat (Tomás Lezea) eta hiru bizkaitarrez gain (Raimundo Gamboa, Tomás Larrinaga eta José Ignacio Peñagarikano), Gipuzkoako 20 herri desberdinetakoak hil edota hobiratu ziren Hernanin; 54 Donostiakoak, 10 Hernani bertakoak, 10 Arrasatekoak, 7 Urretxukoak, 7 Errenteriakoak, 7 Gatzagakoak, 6 Pasaiakoak, 5 Eskoriatzakoak, 3 Oñatikoak, 2 Astigarragakoak, 2 Lezokoak, 2 Zarauzkoak, 2 Zumarragakoak, 2 Aretxabaletakoak, Aiako 1, Andoaingo 1, Lasarteko 1, Tolosako 1, Elgoibarreko 1 eta Mutrikuko 1. Oro har, ez dira herri txikiak, industria-sektore sendoa zuten eta hauteskundeetan ezkerraren edo abertzaleen alde agertzen ziren herri horietan.

Ezin gara hasi sarrera honetan kasuak banaka-banaka aztertzen, ezta herririk herri, bakoitzak bere dinamika eta ezaugarriak izaten ditu eta, baina kasu berezi ba-

236 Labayru Ikastegiko Agiritegia. Onaindia Fondoa,16-2 Karpeta, 1940, 36.

tzuei dagozkien zenbait iruzkin egingo ditugu. Donostiako Loiola auzoan, Zumarraga eta Urretxun eta Debagoienean, Arrasate eta Gatzagaren artean, gertatutakoa aztertuko dugu. Lehenengo kasuan, Loiolan, 14 lagun hil zituzten, horietako bi emakumeak. Militarren kuartelen aldamenean dago auzoa, eta nahiko lasai bizi izan zuten Errepublika-garaia, Cristobaldegui mojen komentuan aritu baitziren zaintza-lanetan ELAko zenbait abertzale, eta horiek eragotzi zuten erradikalenek eskuindarrei eraso egitea. Dozena-erdi lagun besterik ez zuten atxilotu garai hartan; baina erabat aldatu zen egoera militarrak sartu zirenean. Hilabete batzuk lehenago, frankistak sartu aurretik, auzo-alkate errepublikarrari (Saturio Burutaran) eta abertzaleei esker kartzelaratu gabe geratu ziren batek baino gehiagok lagundu zieten militarrei lehenago beraiek kartzelatik libratu zituztenak atxilotzen. Felipe de Múgica abertzalearen testigantzaren arabera (Gamboa-Larronde, 2006, 411), Loiolako kuarteltxoan zaintza-lanetan aritzeagatik hil zituzten guztiak, lau salbuespen kenduta, Portuondo etxeko senar-emazteak eta Encarnación Arana mendeku pertsonalengatik hil zituztelako, eta auzo-alkatetza betetzeagatik Burutaran. ELAko kideak ziren hildako gehienak, eta hamalauetako inork ez zuen izan epaimahai baten aurrean hitz egiteko aukerarik. Múgicaren iritziz, bi kazike herratsuren salaketak izan ziren nahiko, txekatik igaro eta "paseatzera" eramateko, gainera, lehenago biktimek berek babestuta bizi izan zirenak ziren salatzaileak. Argi eta garbi dakigu, haietako bost Hernanin hil zituztela, baina ez dakigu besteen berririk.

Zumarragak eta Urretxuk ere ez zuten kalte handirik jasan Errepublika-garaian. Causa General delakoak zenbait ondasunen galera baino ez zuen hartu kontuan, gainera Zumarragan bakarrik. Hondamendia eta kalteak arintze aldera, Errepublika-garaiko udal agintariek Francoren aldekoak bildu zituzten, minik jasan ez zezaten; eta frontea hurbildu zenean, Markinara eraman zituzten eta handik Debara; azkenik, askatu egin zituzten irailaren 23an. Altxamendu militarraren ondorioz tailer asko itxi ziren, langabeziak gora egin zuen, eta goseak eragindа, langile batzuk milizietan sartu ziren Gobernuak agindutako soldata jasotzeko asmotan. Zumarraga eta Urretxu okupatu eta hilabetera, antza denez, otsaileko hauteskundeetan emandako boto gehienak abertzaleen artera (%57,77 Zumarragan eta %44,93 Urretxun) eta Frente Popularrera (%13,92 eta %27,14) joan zirenez, hautu hori egin izana zigortzea erabaki zuten agintari berriek. Horien aginduak jarraituz, 9 lagun atxilotu zituen Guardia Zibilak, 7 Urretxun eta 2 Zumarragan, eta Ondarretara eraman zituzten (Mendizábal, 1996, 246). Gehienak abertzaleak ziren, errepublikan zaintza-lanetan aritutakoak, kasu batzuetan Zumarragako eskuindar presoek berek eskatuta erradikalenek ez ziezaien erasorik egin zaintzen aritutakoak (Gamboa-Larronde, 2006, 143 eta 255). Inork ez zuen ezer gehiago jakin atxilotu haiei buruz. Senideek iturri ez-ofizialetatik jaso zuten informazio eskasaren arabera, Hernanin hil zituzten. Inolako erruki-

rik gabe tratatu zituzten familiakoak udal agintari berriek, hildakoen aldeko ospakizun guztiak debekatu zitzaizkien, eta ezin izan zuten ezer egin senideak gogoratzeko; horrela hildakoen sufrimenduaz gainera samintasun larria eta estigmatizaturik bizi beharra baino ez zitzaien geratu senideei. 1961era arte itxaron behar izan zuten, fusilatutakoen omenezko ospakizun erlijiosoak egiteko. Artechek gogoratu zuenez, ezer txarrik pentsatu gabe, alde egin gabe geratu izana izan zen delitu bakarra. Urteak geroago, 1983an jarri zuten hildakoen omenezko plaka bat Hernaniko kanposantuko kriptan.

Donostiako eskualdearekin batera, Debagoiena izan zen militar matxinoen errepresioaren lehenengo aldiko eskualderik kaltetuena[237]. Horrela ikusita, harrigarria da baieztapen hori, izan ere frankistek hartu zuten Gipuzkoako azken eskualdea izan zenez, errepublikarekin eta abertzaletasunarekin lotura estuena izandakoek inolako arazorik gabe ihes egiteko aukera izan zuten. Beharbada, hiru elementuren arteko konbinazioan bilatu behar dugu arrazoia. Lehenik, abertzale asko eta errepublikar-sozialista asko izatea bailaran, baina eskuindarren presentzia ere aintzat hartzeko adinakoa zen. Bigarrenik, 1934ko iraultza-saioaren porrotaren ondorioak. Eta, azkenik, eskualdeak bizi zuen gerra-egoera, irailaren bukaeratik aurrera egon baitzen frontea geldituta Bizkaiarekin muga egiten duten mendietan. Ordura arte, herrietan sortutako defentsa-batzordeen kontrolpean egon zen bailara, defentsa-marrak ezartzeaz gain (hegoaldean Arabako frontea eta ekialdean) ordena publikoa bermatzeaz arduratu ziren eta susmagarriak jazarri eta atxilotu egiten zituzten. Hasiera-hasieratik, oso baja gutxi egon ziren eskuindarren artean, agian EAJko eta ELAko kideek hartu zutelako parte aipatutako defentsa-batzordeetan. Causa General-aren arabera[238], asko izan ziren atxiloketak (80 Arrasaten eta 12 Aretxabaletan) eta isunak, eta tratu txarrak ere jasan zituzten zenbaitzuek (Eibarreko sozialista-talde batek Arrateko santutegira eraman presoak eta han jipoitu zituzten), baina heriotza gehienak Bilbon gertatu ziren, hara eramandako presoen artean. Emilio Saiz Barco aretxabaletarra, esate baterako, matxinatuen hegazkinek hiriburua bonbardatu ostean, errepublikarrak kartzeletan sartu eta eraso zutenean hil zuten Bilbon. Beste bi gaixorik hil ziren. Arrasaten, aldiz, hiru lagun hil zituzten Kanpanzarren: irailaren 23an Manuel García Corral eta hiru egun geroago Lucio de la Cruz eta Lino Mardaraz Elustondo.

Altxatutako militarrek eta aliatuek erreakzio gogorra izan zuten eskualdea okupatu zutenean. Errepublikan, 29 karlista atxilotu zituzten Oñatin, baina ez zen hildakorik izan. Militar matxinoek, ordea, 70 lagun atxilotu zituzten eta 19 fusilatu Oñati eta inguruan eta beste toki batzuetan (Oktubre, 1987, 285-288). Ez daukagu

237 Oktubre Taldea-k aztertu zuen eskualdean gertaturikoa 1987ko lan batean, eta 2003an berriz argitaratu zen, askoz ere osatuago.

238 AHN, Causa General 1335.

datu zehatzik, baina, gure ustez, horietako hiru gutxienez Hernanin hil zituzten. Are gogorragoa izan zen mendekua Arrasaten, udal agintari berrien eta karlisten arteko lankidetzan zuzendurik. 42ren bat lagun exekutatu zituzten matxinoek fase ezberdinetan, ihesaren legearen arabera hil zituztenak, Florencia Olazagoitia errepublikarra (5 hilabeteko haurdunaldian), María Bengoa 17 urteko gazte abertzalea (Hernanin hil zuten) eta Dionisio Uribesalgo karlisten aldekoa, iloba batek salaturik (Arteche, 1977, 81) barne. Ia biztanleen %60k utzi zuten Arrasate, eta altxaturikoak herria hartzearekin batera hasi ziren atxilotzen. Udal-kartzelan sartu zituzten presoak, eta errepublikarren hegazkinen bonbardaketetan gatibu edo rehen gisa erabiltzera ere iritsi ziren. Gatibuetako asko Oiartzunen fusilatu zituzten, baina hasierako 9ko talde bat (abertzaletasunarekin zuten lotura) Hernanin hil zuten, akusazio faltsua leporatuta, hots, 1934ko urrian Marcelino Orejaren hilketan parte hartu izana. Urriaren 20an, Arrasateko bederatziekin batera, beste herri batzuetako presoak kamioira igo eta Donostiara eraman zituzten Ondarretako kartzelara. Bi egun geroago, familiakoak joan zitzaizkienean bisita egitera, aske geratu zirela adierazi zien zaintzaileak. Bila eta bila aritu ondoren, Hernaniko hobi batean aurkitu zituzten (Oktubre, 1987, 237-240).

Bailarako beste herri batzuek ere pairatu zituzten irabazleen errepresaliak. Aretxabaletan Herri Defentsarako Junta eratu zuten: 6 abertzale, 6 ezkertiar eta alkatea buru. Máximo Alberdiren arabera, garia errekisatu zuen batzorde horrek, isun batzuk jarri zituen, eta, hasieran abertzaleek aurrerabide handirik eman ez bazuten ere, boluntarioak erreklutatu zituen milizietarako (Gamboa-Larronde, 2006, 440-445). Irailaren 20an, Bilbora eraman zituzten presoak, matxinoek herria hartu baino lehen. Herriko etorkin gehienek, 40ren bat gudarik eta 15 familia abertzalek utzi zuten herria. Altxatutakoak sartu zirenean, nahiz eta Eusebio Alcorta alkate berria saiatu indarkeria eta injustiziak saihesten, atxiloketak eragin zituzten herritar baten salaketek, eta atxilotuetako bi exekutatu egin zituzten: Isidoro García Echave, Euzko Langilleen Alkartasuneko lehendakaria, Oiartzunen hil zuten eta Victoriano Akizu Euzko Etxeako lehendakaria, Hernanin. Iparraldeko Frontea erori ondoren beste bi lagun fusilatu zituzten, Errepublika-garaiko atxiloketen arduradunak izana leporaturik: Félix Alberdi Ceberio abertzalea hil zuten 1937an eta Saturnino Sauquillo Echevarria sozialista 1938an[239]. Beste aretxabaletar bat desagertu egin zen zaurituta ingresaturik zegoen Santanderreko ospitaletik (Askoren artean, 2002, 155).

Beharbada, Gipuzkoa guztiko kasurik harrigarrienak Leintz Gatzagakoak eta Maringoak (Eskoriatzako auzoa) izan ziren. Nekazari-giroko herri txiki bat zen Gatzaga, 394 biztanlekoa, biztanleen gehiengo abertzalearekin (1936ko hauteskundeetan, %53,75 boto abertzalea eta %13,69 Frente Popularraren aldekoa) eta gerrak frontea-

239 AGMAV, C. 72, Cp. 13.

ren lerroan bertan kokatu zuena. "Jaungoikoari eskerrak" Gatzagan ez zela ezer gertatu adierazi zuen Zacarías Ruiz de Alegría alkate frankistak Causa General-ari egindako txostenean 1940an, baina oso bestelakoa izan zen errealitatea. Antonio Gamarra abertzale gasteiztarraren kontakizunari esker dakigu benetan gertatu zena (Gamboa-Larronde, 2006, 315-317). Gamarra (geroago EBBko kidea izango zena) uztailaren 27an heldu zen Gatzagara Gasteiztik ihesean, bi anaiarekin batera; behin herrira helduta, defentsa-batzordearen sorrera bultzatu zuten eta Gamarra bera izan zen buru. Baina handik egun gutxira, faxista izatea leporatu zieten, ez zutelako eskuindarren atxiloketarik agindu, ez eta ondasunik errekisatu ere. Orduan, herriko abertzaleek eta errepublikarrek batzorde berri bat eratu zuten. Azkenik, matxinatuen alde zeudelakoan, zazpi lagun atxilotu zituzten eta herriko etxe batean giltzapetu. Irailaren 5ean, aldiz, aske utzi zituzten preso guztiak, batzordeak aho batez erabakita. Matxinatuek herria hartu arren, ez zuten alde egin batzordekideek, eta 25 egun geroago atxilotu zituzten, urriaren 15ean hain zuzen, beste gazte batzuekin batera. Arrasateko kartzelan gau batzuk igaro ondoren, Donostiara eraman zituzten eta horietako zazpi, inolako epaiketarik gabe fusilatu egin zituzten. Gainerakoak preso geratu ziren.

Ikusi ditugun gertakizunen gogortasuna eta zigorren zorroztasuna azaltzeko, agian, lagungarri gerta lekiguke Santiago Vega Sombríaren gogoeta (2005, 71). Haren esanetan, bereziki gogorra izan zen errepresioa landa-eremuetan; izan ere, nekazari-giroko herri txikietan gizarteko harremanak estuagoak dira, hurbilagokoak, onerako zein txarrerako, eta horrek azaleratu egiten ditu haserre zaharrak, familiartekoak zein amodioa tarteko sortutakoak, eta nahasi egiten dira gorroto politikoarekin edo klaseko gorrotoarekin; are gehiago, batzuetan herriko tabernarien interesekin berekin ere nahas litezke, Gatzagan gertatu zen bezala. Gerrarekin lotura estuagoa zuten arrazoiek ere izango zuten eragina mendeku gogorretan. Frontea hurbil zegoenez eta errepublikazaleen erresistentzia handia izan zenez, luzaroan eragotzi zitzaien matxinoei Bizkai aldera igarotzea; egoera horretan, ofentsiba geldiarazten laguntzen zuten espioiak aurkitu nahi zituzten inguruan. Maringo gertaeretan ere bi logikek izango zuten zerikusia, 129 auzotarretik 6 fusilatu zituztenean, 1936ko udazkenean (Oktubre, 1987, 292). Jorge Iturricastillo parrokoa (lehenago ere kontatu ditugu horri buruzkoak) eta, itxura batean, politikarekin inolako loturarik ez (edo lotura eskasa) zuten 5 herritar hil zituzten. Kasurik nabarmenena aipatuko dugu: Emeteria Aranburuzabala, 59 urtekoa, 9 seme-alabaren ama, Gatzagan olioa erosita etxera itzultzean atxilotua. Azken ikerketen arabera, Zarimutz auzoko apaizak izan zuen zerikusia atxiloketekin eta geroko sei heriotzekin[240]. Iturricastillo izan ezik, Hernanin fusilatu zituzten gainerakoak, Arrasatekoekin eta Gatzagakoekin batera, urriaren 22an.

240 *El Diario Vasco*, 2006-6-3.

# ARGAZKIAK



Bigarren Errepublikako hauteskunde batzuetan, botoa emateko ilarak Hernanin.
(Argazkia: KUTXA Fototeka)



José Aranbururen gorpua hilerrira eramaten, 1936ko martxoaren 19an erail ondoren.
(Argazkia: KUTXA Fototeka)



Errepublikarrak Hernani defendatzen Santa Barbarako gotorlekuan.
(Hernaniko Udal Artxiboa)




**Los autobuses que transportan a los militares traidores**

Loiolan matxinatu ziren militarrak etsi ondoren zeramatzaten autobusak.
(*Erri* aldizkaria)



**El pueblo espera la llegada de los militares que acaban de rendirse en los cuarteles de Loyola**

Jendetza Donostiako Gipuzkoa plazan, atxiloturiko militarren zain.
(*Erri* aldizkaria)




Ondarreta



Saturraran



Saturrarango emakume presoak

Ondarretako eta Saturrarango kartzelak, gizonena eta emakumeena, hurrenez hurren. Nazionalek erabili zituzten kartzelarik handienak. Ondarretakoa errepublikarrek ere erabili izan zuten.



Ondarretako gizon presoak




1936ko urriaren 15ean harrapatu zuten *Galerna* bakailao-ontzia, ondoren frankisten zerbitzura erabili zuten. (Argazkia: KUTXA Fototeka)

143ª COMANDANCIA DE LA GUARDIA CIVIL    1ª COMPAÑIA    LINEA Y PUESTO DE HERNANI

RELACION nominal de los enterramientos colectivos que existen el la demarcacion de este Puesto, expresiva de antecedentes.-

| Nombres y apellidos | Fecha del fallecimiento Dia | Mes | Año | Lugar en que se hallan enterrados | Observaciones |
|---|---|---|---|---|---|
| Don Martin Lecuona Echaveguren | 9 | Octubre | 1.936 | Cementerio de Hernani | Ejecutado por los Nacionales |
| Don Gervasio Albisu Mideaur | 9 | Octubre | 1.936 | Idm. Idm. | Idm. Idm. |
| Don José Aristimuño Olaso | 18 | Octubre | 1.936 | Idm. Idm. | Idm. Idm. |
| Don José Adarraga Larburu | 18 | Octubre | 1.936 | Idm. Idm. | Idm. Idm. |
| Don Celestino Onaindia Zuluaga | 28 | Octubre | 1.936 | Idm. Idm. | Idm. Idm. |
| Don Jose Maria Elizalde Zubiri | 18 | Octubre | 1.936 | Idm. Idm. | Idm. Idm. |
| Don Sabino Alustiza | 27 | Octubre | 1.936 | Idm. Idm. | Idm. Idm. |

N O T A .- Se hallan enterrados juntamente con los reseñados anteriormente unos 190 individuos mas aproximadamente, cuyos nombres se desconocen totalmente los cuales tambien fueron ejecutados por las Fuerzas Nacionales.

Hernani 17 de Junio de 1.958
El Cabo 1º Comandante Puesto accidental

Hernaniko Guardia Zibileko kaboak egindako hildakoen zerrenda 1958ko ekainean. (Hernaniko Udal Artxiboa.E-5-II-27/4. Gerra Zibila 1936–1939. Hildakoen zerrenda)



**LA FALANGE Y EL REQUETE, HERMANOS EN LA GUERRA, SE UNEN EN HOMENAJE INTIMO AL GENERAL MOSCARDO, SIMBOLO DE LA ESPAÑA NUEVA**

Armadako, Erreketeko eta Falangeko ofizialak, Moscardó koronelari egindako omenaldian.
*(La Voz de España)*




Ahaztu ez zituztenak. "Monumento a los caídos por España".
1938ko maiatzaren 29an egin zen inaugurazio-ekitaldia, Hernaniko España plazan.
(Argazkia: KUTXA Fototeka)




1907ko proiektuaren arabera egindako Hernaniko kanposantuaren planoa.
Biribilez markaturik daude 1936ko bi hobi komunak.
(Hernaniko Udal Artxiboa)



Gaur Kripta deitzen zaion tokia, eraiki baino lehen. Fusilaturikoen omenezko zenbait plaka ageri dira.
(Hernaniko Udal Artxiboa)




Fusilatuen omenez egindako omenaldia 1977an.
(Hernaniko Udal Artxiboa)

# FUSILATUEN ARGAZKIAK



Pedro Agiriano Arana (289 or.)



Marcelino Azkarreta Aiastui (293 or.)



Lorenzo Aranbarri Goñi (290 or.)



Ramón Aiastui Ormazabal (289 or.)



Julián Aristegi Agirrebeña (291 or.)



Victoriano Akizu Izurrategi (289 or.)



José Ariztimuño Olaso (291 or.)



Manuel Etxabe Zabaleta (296 or.)



Simón Olaizola Arregi (304 or.)



Norberto Mondragón Errasti (304 or.)



Juan Bengoa Agiriano (293 or.)



Hipólito Berasategi Alcalde (3293or.)



Juan Antonio Irulegi Uranga (302 or.)



Raimundo Galdos Azkarretazabal (296 or.)



Emeteria Aranburuzabala Beitia (290 or.)



Raimundo de Gamboa Aurrecoechea (296 or.)



José González Espinel (299 or.)



Ceferino Ugarte Aiastui (307 or.)



Venancio Gastañares Villar (299 or.)



Juan Manterola Imaz (304 or.)



Vicente Madina Irizar (303 or.)



Miguel Gastañares Villar (298 or.)



José María Elizalde Zubiri (295 or.)



Tomás Zubizarreta Errasti (308 or.)



Doroteo Maestro García (304 or.)



Maximino Resina Carnero (306 or.)



Francisco Biteri Beitia (294 or.)



Juan Antonio Landin Urrieta (302 or.)



Higinio Fco. Saizar Mujika (306 or.)



Carlos B. Rodriguez Rodríguez (306 or.)



José Intsausti Arruti (301 or.)



Isidoro Iturbe Elkorobarrutia (302 or.)



Jesús Calleja Alfaro (294 or.)



José Ciriaco Gutiérrez Fernández (300 or.)



2006an inauguraturiko monumentua, Carlos López Ceballosen lana.
(Hernaniko Udal Artxiboa)

## 1936KO UDAZKENEAN HERNANIN EXEKUTATUETATIK IDENTIFIKATUEN ZERRENDA[241]

**Adarraga Larburu, José.** 1881eko martxoaren 11n Villabonan jaiotakoa. 1906an apaiztu zen, Mexikon aritu zen apaiz eta gero Gasteizko Elizbarrutiko zenbait parrokiatan. Azkenik, Movimiento Nacional-aren etorrerarekin batera Hernanira bidali zuten. 1936ko urriko 17tik 18rako gauean fusilatu zuten Hernaniko kanposantuan. Beurko; Hernani.

**Agiriano Arana, Pedro.** Arrasaten jaiotakoa, bertan bizi zen. 30 urte inguru zituen, ezkonduta zegoen eta hil eta hiru hilabetera jaio zen alaba. ELMAko langilea zen, abertzalea eta EAJko afiliatua. Urriaren erdialdera atxilotu zuten, eta 1936ko urriaren 21etik 22rako gauean fusilatu zuten Hernanin, inolako epaiketarik gabe. Beurko; Oktubre: 316.

**Aiastui Ormazabal, Ramón.** Oñatikoa, 45 urte zituen. Bergarako Altos Hornoseko langilea zen. ELAkoa, Gipuzkoako Komandantziako milizietako kidea[242]. 1936ko azaroaren 5ean fusilatu zuten. Oktubre: 365; Egaña.

**Akizu Izurrategi, Victoriano.** Aretxabaletan jaio zen eta bertan bizi zen; 40 urte zituen, ezkondua eta bi seme-alabaren aita. Burdinbide-enplegatua. EAJko batzokiko lehendakaria zen. Hernanin fusilatu zuten, epaiketarik gabe. Geroago, 1940an, Nafarroa eta Gipuzkoako Erantzukizun Politikoetarako Epaitegi Zibil Bereziak epaitu zuen[243]. Oktubre: 372; Beurko.

**Albisu Bidaur, Gervasio.** 1871n Errenterian jaiotakoa. Apaiza. Errenteriako Parrokiako apaiz laguntzailea zen. 1936ko urriaren 9an fusilatu zuten, epaiketarik gabe eta azken uneko laguntzarik gabe Hernanin. Hernani.

**Aldabaldetreku Vitoria, Juan.** 40 urteko donostiarra. 1936ko urriaren 8an fusilatu zuten. Egaña.

**Aldai Mitxelena, Bautista[244].** Oiartzunen jaio zen Yarza baserrian (Arragua, Oiartzun) eta Lezon bizi zen. María Portugalekin ezkonduta zegoen eta hiru alaba

241 Informazio-iturri ezberdinak erabili dira zerrenda egiteko, eta batzuetan kontraesanak aurkitu dira iturrietan. Pertsona bakoitzaren datuen ondoren adieraziko ditugu kasu bakoitzerako erabilitako erreferentzia nagusiak

Egaña: Egaña, Iñaki: *Guerra Civil en Hernani. Información previa a las tareas de investigación y exhumación*. Sociedad de Ciencias Aranzadi. Donostia, 2003.

Beurko: Archivo Sancho de Beurko. *Euskadi bajo el régimen de Franco II. La represión en Guipúzcoa*. 1939.

Oktubre: Oktubre Taldea: *Arrasate 1936. Una generación cortada*. Arabera arg. Vitoria-Gasteiz, 2003.

Hernani: Hernaniko Udal Artxiboa (HUA-AMH. E-5-II-27/4. Guerra Civil 1936-1939. Relación de Asesinados en Hernani.

242 AHN, Guerra Civil, Salamanca. Serie Bilbao 1482, fol. 15.

243 AGA 07-CAJA75/623.

244 Lekuona, Andoni: *Oroipena zor II* in "Oiartzun 05" urtekaria. Oiartzun, 2005.

zituzten. Errenterian atxilotu zuten, eta Hernanin fusilatu zutela uste dute familiakoek.

**Alegre Lores, Antonio.** Donostian jaio zen, 52 urte zituen eta ikatz-botatzailea zen ogibidez. 1936ko urriaren 18tik 19rako gauean fusilatu zuten. Egaña.

**Alonso Fernández, Bernardino.** Valladoliden jaiotakoa, 62 urte zituen. Donostian bizi zen. 1936ko urriaren 23an fusilatu zuten. Egaña

**Alustiza Etxeberria, Gabino.** Seguran sortu zen 1889ko urriaren 27an. Aiako alkatea zen, abertzalea. 1936ko urrian fusilatu zuten, bere urtebetetze-egunean. Hernani.

**Ameztoi Fernández, Fermín.** Lantziegon jaiotakoa. 45 urte zituen eta Donostian bizi zen. 1936ko urriaren 22an fusilatu zuten. Egaña.

**Arana, Hilario.** Leintz Gatzagakoa, 24 urte zituen eta jornaltiarra zen. Txirrindularitza zen bere zaletasuna eta lehiaketa bat baino gehiago irabazitakoa zen. EAJko afiliatua zen. 1936ko urriaren 15ean atxilotu zuten eta zazpi egun geroago fusilatu zuten Hernanin, epaiketarik gabe. Oktubre: 376; Beurko.

**Arana Etxenagusia, José.** Andoainen jaiotakoa, 22 urte zituen, ezkongabea zen. UGTra afiliatua. Frankistak sartu zirenean, Oriora joan zen familiarekin batera. Irailaren bukaera aldera itzuli zen, eta orduan salatu eta atxilotu egin zuten. Ez zuten izan gehiago haren berririk. Donostian edo inguruetan fusilatu zutela uste du familiak.

**Aranbarri Goñi, Lorenzo.** Arrasatekoa, ezkondua, Unión Cerrajera-ko langilea zen. EAJra eta ELAra afiliatua. Karlista batek salatu zuen eta 1936ko urriaren 21etik 22rako gauean fusilatu zuten Hernanin, inolako epaiketarik gabe. Oktubre: 319; Beurko.

**Aranburu Oiartzabal, Carmen.** Hernanin jaiotakoa. 54 urte zituen. 1937ko urtarrilaren 5ean fusilatu zuten. Egaña.

**Aranburu Unanue, Hilario**[245]**.** Tolosan jaiotakoa zen, baina Urretxun bizi zen. 62 urte zituen, ezkondua eta 7 seme-alabaren aita zen. Saskigilea zen ogibidez, eta musikaria zaletasunez, udal-bandan eta herriko txistulari taldean jotzen zuen. Abertzaletasunaren aldekoa zen[246]. 1936ko urriaren 21ean fusilatu zuten.

**Aranburuzabala Beitia, Emeteria Casimira.** Marinen (Eskoriatza) jaio zen, eta 59 urte zituen hil zutenean. Ezkondua eta 9 seme-alabaren ama zen. Ez zuen lotura politiko ezagunik. 1936ko urriaren 15ean atxilotu zuten erreketeek eta Guardia Zibilekoek, Gatzagatik etxera zihoala. 1936ko urriaren 21ean fusilatu zuten. Oktubre: 373.

245 Egañaren arabera (2003), José Ulpiano zuen izena.

246 Mendizabal, 1996, 273.

**Arbella San Juan, Isidro.** Tuteran jaiotakoa, 53 urte zituen, ezkondurik zegoen eta lau seme-alabaren aita zen; igeltseroa ogibidez. Donostiako Egia auzoan bizi ziren. Pentsaera ezkertiarrekoa zen, baina, guk dakigula, ez zegoen inolako alderdi politikora edo sindikatura afiliaturik. Semeak, aldiz, gazte sozialista militanteak ziren, Juventudes Socialistas-eko kideak, eta Rusia Batailoian hartu zuten parte gerran: bi hil egin ziren, bata frontean eta bestea fusilaturik, hirugarrena behin eta berriz atxilotu zuten 1958ra arte. Nazionalak Donostian sartu zirenean Zestoara joan zen familia, baina laster itzuli ziren, ezer gertatuko ez zitzaielakoan. Etxera heldu zirenean, prezintaturik zuten etxea eta sarraila apurtu beharra izan zuten sartzeko. Ia berehala atxilotu zuen Guardia Zibilak, auzokoren batek "gorria" zela eta, salatu ostean. Ondarretan izan zuten preso eta Hernanin fusilatu zuten. Emazteak eta alabetariko batek, bizi ziren inguruan "markaturik", Tuterara alde egin beharra izan zuten, baina han ere antzeko egoera pairatzen zutenez, Argentinara erbesteratu ziren.

**Aristegi Agirrebeña, Julián.** Eibarren jaio zen 1890eko urtarrilaren 7an eta Amara auzoan bizi zen familiarekin. Ezkonduta zegoen eta 6 seme-alabaren aita zen, bat umetan hil zitzaien. Merkataria zen, eta bizi ziren etxeko beheko aldean zeukaten biltegi bat. Abertzalea zen, baina ez zegoen inora afiliaturik. Inolako azalpenik gabe atxilotu zuten etxean, 1934ko urriaren 24an, bi guardia zibilek. Salaketaren baten ondorioa izango zelako susmoa gelditu zitzaion betiko familiari. Okendo kaleko Gobernu Zibileko leotz edo kalabozoetan izan zuten preso eta geroago Ondarretara eraman zuten. Hara joaten zitzaion emaztea jana eta arropa garbia eramatera, egun batean "aske" utzi zutela esan zioten arte. Hernanin fusilatu zuten urriaren 27ko gauean. Identifikatu ez zen batek esan zien senideei hiltzera eraman zituzten beste batzuekin batera (tartean apaiz bat) ikusi zuela Julián Aristegi. Aita desagertu eta berehala, ondasunez desjabetu zuten familia, eta "seinalaturik" bizi beharra izan zuten. Senideen laguntzari esker atera zituen aurrera 5 seme-alabak, gizarte-laguntzak beranduegi iritsi baitzitzaizkien (seme-alabak lanean ari ziren ordurako).

**Ariztimuño Olaso, José, *Aitzol*.** 1896ko martxoaren 18an jaio zen Tolosan. 1922an apaiztu zen eta Donostiako elizbarrutiko parrokia batera bidali zuten Movimiento Nacional-a iritsi zenean. Kazetari ekintzailea: Donostiako *El Día* egunkariaren sortzaileetako bat izan zen eta bertan idazten zuen. *Euzkadi* Bilboko egunkariaren sorreran ere lagundu zuen; beste aldizkari batzuk sortzen ere parte izan zen. Abertzalea, sasoi hartako hitzak orduko esanahiarekin erabiliz, "publizista" eta "soziologo" ospetsua izan zen. Parte-hartze nabarmena izan zuen politikan. 1936ko urriaren 15ean atxilotu zuten *Galernan* gainerako bidaiariekin batera. Hernaniko kanposantuan fusilatu zuten beste 18 lagunekin batera, urriaren

18tik 19rako gauean, inolako epaiketarik egin gabe. Hernaniko kanposantuan bertan hobiratu zuten. Hernani.

**Arregi, José Manuel.** Donostiako Loiola auzokoa. ELAkoa. 1936ko urriaren 5ean exekutatu zuten, tropak sartu zirenean. Beurko.

**Arrieta Arteaga, Miguel, *Muturzuri*.** Astigarragakoa sortzez, 52 urte zituen 1936ko urriaren 8an fusilatu zutenean, **Miguel Arrieta Zuaznabar** semearekin batera.

Petrikilo antzekoa zen Muturzuri, zauriak eta bestelako minak sendatzen baitzituen. Inork ez zuen lotzen politikarekin, ez eta semea ere. Altxaturikoak Astigarragan sartu zirenean, Bilbora joatea erabaki zuen familiak (aita-amak eta lau seme-alaba). Itsasontziren batean Donostiatik irteten saiatu ziren aita eta semea, baina atxilotu egin zituzten eta Hernanin exekutatu zituzten. Familiako gainerakoek lortu zuten Bilbora heltzea, eta handik Hendaiara; hor bizi da alabetako bat. Astigarragako etxea utzi eta berehala kendu zieten agintari berriek.

**Arrieta Goíburu, Bernardo**. Idiazabalen jaio zen 1884ko abuztuaren 28an, eta Hernanin bizi zen Puerto auzoan. Jornaltiarra, ezkondua eta 7 seme-alabaren aita. 1936ko irailaren 23an fusilatu zuten. Egaña.

**Arruti Alkorta, Eusebio.** Zarautzen jaio eta bizi zen, 56 urte zituen. Elvira Gil del Monte Huarte-rekin ezkonduta, 5 seme-alaba zituzten. Gipuzkoako Diputazioko funtzionarioa zen, eta beste lan batzuen artean suhiltzaile aritzen zen. 1936ko urriaren 2an fusilatu zuten Hernanin. Egaña.

**Artola Azurmendi, José María.** Urnietan jaiotakoa, Donostian bizi zen Loiola auzoko Irunenea baserrian, 42 urte zituen. ELAkoa zen. Tropa nazionalak sartu zirenean hil zuten, 1936ko irailaren 29an. Beurko.

**Artola Etxeberria, Dominica.** Donostiarra, 64 urtekoa. Ezkondua. Seme komunista izateagatik fusilatu zuten 1936ko urriaren 18an. Beurko; Egaña.

**Artola Iraola, Manuel.** Donostian jaiotakoa, 45 urte zituen eta jornaltiarra zen. 1936ko urriaren 18an hil zuten. Egaña.

**Artza Beasain, Martín.** 1903ko maiatzaren 16an jaio zen Beasainen. Juana Lujambio Artola-rekin zegoen ezkonduta, eta haur txiki bat zuten. Hernanin bizi ziren, Padre Cardaveraz kaleko 24. zenbakian. Beste lan batzuetarako elbarria zenez, kale-garbitzaile aritzen zen. Desagertu egin zen matxinoak herrira sartu zirenean. Kataluniara egin zuen alde familiak eta Manresako ospitalean hil zen gaixorik emaztea. Familiakoek hazi zuten Frantzian semea, eta gerra bukatutakoan itzuli ziren.

**Artzelus, Hilarión.** Urretxuarra, 28 urte zituen eta ezkongabea zen. Sastrea zen ogibidez. EAJko afiliatua. Herrian egiten ziren antzezlanetan hartzen zuen parte

eta parrokiako erreziboak ere berak kobratzen zituen. 1936ko urriaren 20an hil zen fusilaturik, inolako epaiketarik gabe[247]. Beurko.

**Azkarreta Aiastui, Marcelino.** Oñatin jaiotakoa, 26 urte zituen. Bergarako Altos Hornos-eko langilea. ELAko kidea. 1936ko azaroaren 5ean fusilatu zuten. Oktubre: 365; Egaña.

**Becerra Narbaiza, José.** Donostian jaio zen 1917an eta 14 urterekin Urretxura joan ziren bizitzera. Ezkongabea zen. Esteban Orbegozo fundizioko langilea, eta enpresako futbol-taldeko jokalaria. Ez zuen politikarekin zerikusirik, eta adina zela eta, inoiz botorik eman gabea[248]. 1936ko urriaren 20an fusilatu zuten.

**Beitia Erraste, León.** Leintz Gatzagan, Dominaga baserrian jaiotakoa, 31 urte zituen. Artzaina zen, ezkongabea. Abertzalea zen, 1936ko urriaren 15ean atxilotu zuten meza entzun ondoren. Arrasaten izan zuten atxiloturik egun batzuetan, eta Ondarretara eraman zuten. 1936ko urriaren 22an fusilatu zuten. Oktubre: 376.

**Belaustegi Otamendi, Ángel.** 20 urteko urretxuarra. Iturri batzuen arabera, abertzalea zen. Zuzenbide ikasketak egiten ari zen, eta Urolako futbol-taldeko jokalaria zen. Udal-idazkariaren semea zen. 1936ko urriaren 20an hil zuten epaitu gabe[249]. Ignacio anaia ere abertzalea izan zen, errepublikako 105. Brigadako komisario jenerala izan zen. Preso hartu zuten, baina 1941eko uztailaren 23an askatu egin zuten[250]. Beurko.

**Bengoa Agiriano, Juan.** Arrasaten jaiotakoa, 38 urte. Ezkondua, 6 seme-alaba zituen. Unión Cerrajera-n egiten zuen lan, mekaniko. EAJko afiliatua eta ELAko zuzendaritza-batzordekoa. Herriko karlista batek salatu zuen. Hernanin hil zuten, 1936ko urriaren 21etik 22rako gauean, inolako epaiketarik gabe. Oktubre: 317.

**Bengoa Elortza, María.** 17 urteko arrasatearra. Emakume Abertzale Batza-ko afiliatua. Hernanin fusilatu zuten. Beurko.

**Berasategi Alcalde, Hipólito[251].** 31 urte. Lagarto xaboi-fabrikako langilea. Familiak uste du salatu egin zutela. Guardia Zibilak atxilotu zuen fabrikan, eta Donostiako Heriz pasealekura eraman zuten. Handik Ondarretara. Hernanin fusilatu zuten 1936ko irailaren bukaera aldera. Bi seme-alabarekin (5 eta 2 urtekoak) eta inolako laguntzarik gabe geratu zen alarguna.

247 Mendizabalen arabera (1996, 273), urriaren 23an.

248 Mendizabal, 1996, 274.

249 Mendizabal, 1996, 274.

250 AGA - Expedientes policiales.

251 *Euskaldunon EGUNKARIA* 1992-9-15. Igandeko KZ, "1936ko gerrako hobiak agertzen hasi dira".

Anaia apaiza eta falangista zuen, Gonzalo Berasategi. Horrek eman zion familiari heriotzaren berri eta Hernanin "hobiratu" zutela esan zien. Urteak geroago, hildakoaren argazki batzuk eskuratu zituzten Hernaniko kanposantuan, ziur aski hildako unean aldean eramango zituenak; eta ordura arte susmoa izandakoa egiaztatu ahal izan zuten.

**Bermejillo Acasuso, Leandro.** Balmasedan jaiotakoa, 44 urte zituen. Pasaian bizi zen eta inprenta bat zuen bertan. 1936ko urriaren 10ean fusilatu zuten. Egaña.

**Biteri Beitia, Francisco.** Eskoriatzan jaiotakoa, Ulenza baserrikoa, 38 urte zituen. Ferrocarriles Vascongados-en egiten zuen lan. 1932an Instrucción Pública-ko ministroari elebitasuna hezkuntzarako eskatzen bidali zitzaion gutun baten sinatzaileen artean dago[252]. 1936ko urriaren 22an fusilatu zuten. Oktubre: 373; Beurko.

**Burutaran Ormazabal, Pantaleón.** 46 urteko donostiarra. Loiola auzoan bizi zen, Ibaieder etxean. ELAkoa. Errementaria zen eta Dragas de Loyola-n egiten zuen lan. Lanean ari zela atxilotu zuten, eta Café La Paz-eko txekara eraman zuten atxiloturik. 1936ko urriaren 1ean hil zuten. Beurko; Egaña.

**Burutaran Ormazabal, Saturio**. Pantaleónen anaia, 48 urte zituen, ezkonduta zegoen eta 5 seme-alabaren aita zen. Errepublikarra zen, eta Loiola auzoan bizi zen; auzo-alkatea zen. Anaiarekin batera egiten zuen lan errementari, Dragas de Loyola-n, eta hau ere lantokian atxilotu zuten, baina Ondarretan izan zuten preso. Manta bat eramatera joan zitzaionean familia kartzelara, esan zieten "aske" zegoela. 1936ko urriaren 1ean fusilatu zuten. Beurko; Egaña.

**Calleja Alfaro, Jesús.** Familia karlista bateko semea, Fiteron jaio zen 1911n. Donostiara aldatu zen familia eta Jesúsek Eskola Frantsesean lehenengo eta gero Sagrado Corazón ikastetxean (gaur Mundaiz) ikasi zuen. Amaran bizi zen ezkonduta, eta hilabete gutxiko semea zuten. Ez zitzaion lotura politikorik ezagutzen, eta oso elizkoia zen. Automobiletako ordezko piezen enpresa bateko bazkidea zen, eta hango kontuak eramaten zituen. Enpresako beste bazkideren batek akusazio faltsuarekin salatu zuen, eta Ondarretako kartzelara eraman zuten preso. 1936ko urriaren 2ko data zuen gutun bat heldu zitzaien gurasoei kartzelatik idatzita. Eskutitz horretan, maite zituenak gogoratu eta bere egoera ulertezina zela azaltzen zuen, berari inork ez ziola deklaraziorik hartu, eta dena zela nahasketaren baten ondorioa. Egokiena iruditzen zitzaienarekin hitz egiteko eskatzen zien etxekoei eta Langile Katolikoen Junta aipatzen zien kartan. 1936ko urriaren 4an fusilatu zuten. Beurko; Egaña.

Frankisten gehiegikerien beldur, emazteak alde egin zuen Frantziara, Bizkaitik irtenda, eta Baionan elkartu zen familiarekin. Senarraren heriotzaren berri

252 AHN, Guerra civil, Salamanca, Serie Madrid.2964 tomo 45, folio 16.

izan zuenean itzuli zen Gipuzkoara eta joskin egin zuen lan Donostian, jubilatu arte.

**Celigüeta Rincón, Marcelino.** Cintruénigon (Nafarroa) jaio zen. 1930eko hamarkadan ospe handia izan zuen Amarako txurro-denda baten jabea zen, Churrería y Patatas Celigüeta. Behartsuenei, mojei eta abarri laguntzak ematen zizkien. Ondarretako kartzelara eraman zuten atxiloturik, eta Lasarteko hipodromoko zubia berreraikitzen "egin zuen lan", 15en bat egunetan. Gero fusilatu egin zuten. Familiaren ustez, Hernaniko Galarreta aldean.

**Cerdán Murillo, José.** Nafarroan jaiotakoa, Donostian bizi zen. 1936ko urriaren 18an fusilatu zuten. Egaña.

**Dana, Juan Luis.** Donostiarra. 1936ko urriaren 18an fusilatu zuten. Egaña.

**De la Cruz De las Heras, Enrique.** 59 urteko donostiarra. 1936ko irailaren 29an fusilatu zuten. Egaña.

**Eguren Mendia, Venancio.** Zumarragan jaiotakoa, 32 urte zituen. Ezkongabea. Saskigilea zen lanbidez, eta Alcorta, Mendizabal y Cía. enpresako bazkidea zen. Abertzalea. 1936ko urriaren 20an fusilatu zuten. Beurko.

**Egurtzegi Arteaga, Encarnación**. Donostian jaiotakoa, 40 urte zituen. 1936ko urriaren 5ean fusilatu zuten. Egaña.

**Elgarresta Arbelais, Félix.** Errenteriakoa. 29 urte zituen, ezkonduta zegoen eta haur bat zuten. Iturri-zaina zen eta ELAko afiliatua. 1936ko urriaren 20an fusilatu zuten. Beurko, Egaña.

**Elgoibar Gorostiza, Anselmo.** Leintz Gatzagako Zelaikua baserrikoa. 38 urte zituen, kamineroa zen eta ELAko afiliatua. Ofentsiba militarraren aurretik Arabako frontean guardiak egiten ibilitakoa zen (Gamboa-Larronde, 2006, 317). 1936ko urriaren 15ean atxilotu zuten eta 22an fusilatu zuten Hernanin, epaiketarik gabe. Oktubre: 376. Beurko.

**Elizalde Zubiri, José María**. 40 urteko donostiarra. Casa Usoz oihal eta puntuzko gaien enpresan egiten zuen lan emaztearekin batera; saltzaile bidaiaria zen bera eta kutxakoa emaztea. Hiru alaba zituzten, baina haietako bat 1936ko ekainean hil zitzaien gaixorik. Antza, ez zegoen inolako alderditan edo sindikatutan afiliaturik, baina senideek uste dute sozialisten aldekoa zela. Gerrak Bartzelonan harrapatu zuen lanean. 1936ko uztailaren 17an bidalitako gutun bat da familiak izan zuen azken berri zuzena. Frantziara joan zen eta *Galerna* itsasontzian Bilbora itzultzen saiatu zen. Baina atxilotu eta Ondarretako kartzelara eraman zuten. Azkenean, 1936ko urriaren 18an fusilatu zuten Hernanin. Honako azalpen hau dator heriotza-agirian: «Falleció en esta ciudad [San Sebastián] a consecuencia de heridas por arma de fuego». Hernani, Egaña.

Donostian geratu zen familia, eta Frantziara alde egin zuten senide batzuen ile--apaindegiaz arduratu zen emaztea, San Martin kalean. Casa Usoz-eko arduradun bat joan zitzaion hara, senarra fusilatu zutela esatera. 1938an, Aldamar kalean mertzeria bat zabaldu eta aurrera egiten saiatu zen emaztea, baina inguruko beste dendari batzuen jazarpena eta mespretxuzko tratua jasan ezinik (behin eta berriro gogorarazten zioten fusilatu egin zutela senarra), etsi egin behar izan zuen.

**Elortza Narbaiza, José.** 1885eko uztailaren 16an Azkoitian jaiotakoa, Errenterian bizi zen eta bertako basozaina zen. Ezkondua eta lau seme-alabaren aita zen. Prudencio anaia UGTko kidea zen eta Nazioarteko Sorospen Gorria elkarteko kidea eta gizarte-laguntzarako informazio-batzordekoa izatea leporatu zioten[253]. Gerra hasi zenean, Azkoitira egin zuen alde familiak, baina lanpostua galtzeko beldur, Errenteriara itzuli zen bera. Atxilotu eta Ondarretako kartzelara eraman zuten preso; 1936ko urriaren 10ean hil zuten Hernanin. Beurko; Egaña.

**Etxabe Zabaleta, Manuel.** Aramaion jaio zen eta Leintz Gatzagara joan ziren bizitzera Bordincruz baserrira. 24 urte zituen eta ezkongabea zen. Abertzalea zen, baina ez daukagu EAJko afiliatua zela esateko frogarik; bai, ordea, Gatzagako defentsa-batzordeko kidea izan zela baieztatzeko. Melillan egin zuen soldadutza eta itzuli zenean Forjas de Escoriaza lantegian hasi zen lanean. Baina artzaintzan ere aritzen zen familiari laguntzeko. Eta horretan ari zela atxilotu zuten mendian 1936ko urriaren 15ean. Arrasaten giltzapetu zuten eta geroago Ondarretako kartzelara eraman zuten. Azkenik, inolako epaiketarik gabe fusilatu zuten Hernanin 1936ko urriaren 22an. Oktubre: 376.

**Ferreño Domínguez, Cayetano.** Salamancan jaiotakoa, 49 urte zituen eta Donostian bizi zen. Cayetano tabernaren jabea zen. Errepublikarra. 1936ko urriaren 17tik 18rako gauean fusilatu zuten. Egaña.

**Gabilondo Ugalde, Hilario.** 42 urteko urretxuarra, ezkondua eta bi seme-alabaren aita. Forjaria, Alcorta y Cia.-ko bazkidea. EAJko afiliatua. 1936ko urriaren 20an fusilatu zuten, epaiketarik gabe. Beurko.

**Galdos Azkarretazabal, Raimundo.** Arrasaten jaiotakoa, 38 urte zituen, ezkonduta zegoen eta bi seme-alaba zituzten. Unión Cerrajera-n egiten zuen lan. EAJko afiliatua zen. 1932an, II. Errepublika-garaian, ELAko lehendakaria izan zen. Herriko karlistek atxilotu zuten, eta 1936ko urriaren 21etik 22rako gauean fusilatu zuten Hernanin, inolako epaiketarik izan gabe. Oktubre: 316.

**Gamboa Aurrecoechea, Raimundo de[254].** 1902ko urtarrilaren 23an jaio zen Gernikan. Rosario Soloagarekin ezkondurik zegoen eta bost alaba zituzten (9 urte eta 6 hilabeteren bitartekoak). Bilbon bizi zen familia, baina Madrilen egiten

253 AHN, FC, B-7, H. 255.

254 Gamboa Soloaga, Carmen: *Recuerdos de mi niñez. En homenaje a mis padres*. Carmen Gamboa, 2001.

zuen lan Raimundok eraikuntzako negozioetan. Familiak ez daki zehazki noiz etorri zen Euskal Herrira militarrak altxatu zirenean. EAJri eskaini zion bere burua lanerako, eta Miguel Garavillari lehenengo talde militartuak antolatzeko. Garavillarekin, Víctor Erquiagarekin eta Andrés Ordoricarekin batera hasi zen lehenengo konpainia antolatzen Lekeition, Itxasalde batailoia izango zena. Gipuzkoa erori aurretik, 1936ko irailaren hasieran, Port Bou-tik bueltan joan zen Madrilera EAJko ordezkaritza batekin, José Antonio Agirre buru zela; Agirrek elkarrizketa bat izan zuen Largo Caballerorekin irailaren 15ean. Madriletik Biarritzera itzuli zen, eta hegazkinetako pilotuaren titulua atera zuen. Urriaren 15era arte jarraitu zuen han, eta egun horretan *Galernan* itsasoratu zen. Pasaia aurrean harrapatu zuten itsasontzia eta Ondarretako kartzelara eraman zituzten atxiloturik bidaiariak. Aldean zituen baliozko gauza guztiak kenduta, 1936ko urriaren 18tik 19rako gauean fusilatu zuten Hernaniko kanposantuaren ateetan. Orduan, Frantziara egin zuen alde familiak, errefuxiatu gisa, eta gero Belgikara.

**Garaialde Martinez, Saturnino.** Donostiako Loiola auzokoa, 49 urte zituen. Errepublikarra zen (Gamboa-Larronde, 2006, 410). 1936ko urriaren 21ean exekutatu zuten Hernanin. Beurko; Egaña.

**Garbisu Arbizu, Saturnino.** Bidaurretan (Nafarroa) jaiotakoa 1896ko azaroaren 29an; Hernanin bizi zen eta Florida auzoko Palacio de los Oblatos jauregian egiten zuen lan lorezain. Ezkonduta zegoen eta bi seme-alaba zituen. Atsegindegi etxean izan zuten atxiloturik egunetan hainbat lagunekin batera, eta 1936ko urriaren 28an hil zuten, inolako epaiketarik gabe. Beurko.

Saturninoren emaztea zen **Felisa Goñi Biurrun,** Belaskoainen (Nafarroa) jaiotakoa 1896ko otsailaren 21ean. Eskolako maistra zen **Julián Pérez Rodríguez** maisuarekin batera, eta biak fusilatu zituzten Tolosa eta Berastegi arteko tokiren batean, 1936ko urriaren 23an, atxilotu ostean. Inork ez du izan Felisaren berri gehiagorik.

**Julián Pérez Rodríguez.** Husillos-en (Palentzia) jaio zen 1887ko otsailaren 16an eta Hernanin bizi zen, Lorenza De Simón Zugasti-rekin ezkondurik; hiru seme-alaba zituzten. Gutxienez bi aldiz atxilotu zuten, baina lehenengoan aske utzi zuten. Bigarrenean, berehala fusilatu zuten. Kasu honetan, erabakigarria izan zen Gervasio Achucarro apaizaren lana, berak egindako ikerketei esker aurkitu baitzuten hil edota hobiraturiko tokia, eta atera ahal izan zituzten Juliánen gorpuzkinak Hernaniko kanposantuko hobitik.

**Garbizu Etxeberria, Manuel.** 1901eko martxoaren 12an jaio zen Pasaian. Ezkondua zen eta sei seme-alaba zituzten. Pasaiako batzokiko lehendakaria izan zen. Errepublikarrak agintean egon ziren bitartean, herriko juntako finantza-komi-

sariotzako partaidea ere izan zen. Dirua zor zion falangista batek salaturik, 1936ko urriaren 2ko goizaldean atxilotu zuten eta Ondarretako kartzelara eraman zuten. 1936ko urriaren 13an fusilatu zuten Hernanin, beste 14 lagunekin batera, inolako epaiketarik gabe. Beurko.

**García Gallego, Clemente.** Salamancan jaiotakoa, Pasaian bizi zen eta 38 urte zituen. 1936ko urriaren 18an fusilatu zuten. Egaña.

**García Platón, Eulogio**. Valladolideko Siete Iglesias herrian jaio zen 1888ko uztailaren 3an. Concepción Rubio Martínezekin (Zaragoza, 19892-12-8) zegoen ezkondurik eta Hernanin bizi ziren, Florida auzoan. Jornaltiarra zen ogibidez. Gerra piztu zenean, eta Hernani hartzear zegoela, Bilbora egin zuen alde familiak, baina bera Hernanin geratu zen bakarrik ongi moldatuko zelakoan. Astialdian, ia zuen denbora guztia abereak zaintzen ematen zuen. Eta nazionalak Hernanin sartu eta gero ere horretan jarraitu zuen, erraza izan ez arren, gauez kandelaren argipean aritzen zen. Atsegindegi etxean izan zuten atxiloturik, espioitza leporaturik, eta harrezkero inork ez du haren berri gehiago izan. Egoera baretu zenean itzuli zen emaztea Hernanira, eta orduan jakin zuen alargun geratu zela. Geroago jakin zuen familiak, Atsegindegi etxean fusilatu ere egin zutela, eta udal kanposantura eraman zituztela gorpuak gurdi batean, goizaldean. Hernanira heldu eta exekuzioaren berri izan zutenean, agintari berriengana jo zuten familiakoek azalpenen baten bila; espioitzan aritzen zela erantzun zioten «todas las noches hacia las diez, hacía señales a los aviones». Hori izan omen zen Eulogio atxilotzeko eta fusilatzeko arrazoi ofiziala.

**Gascón Pérez, Catalina.** Salamancan jaio zen, 53 urte zituen eta Mutrikun bizi zen. 1919ko Gorteetarako hauteskundeetan Alfonso Churruca mauristak Victoriano Celaya abertzaleari irabazi izana ospatzeko ekitaldian *charra* jantzita atera zen Catalina, bandera espainola zeramala eskuetan. Horrek ospetsu egin zuen herri arrantzalean[255]. Garai hartan Gipuzkoan hedatu zen giro espainiarzalearen muturreko adierazgarria izan zen ekitaldi hura. 1932ko hauteskunde-erroldan, etxekoandrea zela agertzen da, baina lekuko baten testigantzaren arabera, Ferrocarriles Vascongados-en egiten zuen lan langa-zain. Militar frankistak sartu ahala gertatzen zena ikusita, hura guztia igaroko zela esan omen zuen "todo esto ya pasará", eta horixe izan omen zen atxilotzeko eta fusilatzeko aitzakia (Gamboa-Larronde, 2006, 596). 1936ko urriaren 20an fusilatu zuten.

**Gastañares Villar, Miguel.** 26 urteko arrasatearra, ezkondua zen eta alaba bat zuen, aita hil eta egunetara jaio zen bigarrena. Banco Guipuzcoanoko enplegatua. EAJko eta ELAko afiliatua. Ondarretako kartzelara eraman zuten atxiloturik, eta

255 *La Voz de Guipúzcoa*, 1919-6-10, "En Motrico. Homenaje a Churruca".

"aske" utzi zuten. Inolako epaiketarik gabe, 1936ko urriaren 21etik 22rako gauean fusilatu zuten Hernanin. Oktubre: 318.

**Gastañares Villar, Venancio.** 1907ko apirilaren 1ean jaio zen Arrasaten. Ezkondurik zegoen eta haur bat zuten. Unión Cerrajerako enplegatua zen, EAJ eta ELAko afiliatua. Miguel anaiarekin batera atxilotu zuten, Ondarretara eraman eta "aske" utzi exekutatzeko. Anaia hil zuten gau berean fusilatu zuten "Gora Euzkadi askatuta" oihu egiten zuela. Oktubre: 318.

**Gaztañaga Gaztañaga, José Martín.** 46 urteko errenteriarra, nekazaria. 1936ko urriaren 3an fusilatu zuten. Egaña.

**González Espinel, José.** Valladoliden jaiotakoa, 36 urte zituen. Soldadutza amaitu arte bizi izan zen han, eta langile-buru ere ibili zen lanean Valladolideko soroetan. Pasaiara aldatu zen, eta Victoriano Luzuriagan hasi zen lanean. Petra Silva Garcíarekin ezkondu zen; hori ere Valladolidekoa zen, Rioseco herrikoa, eta Pasaiara etorrita zegoen ahizpa bat zaintzera, baina Euskal Herrira etorri baino lehenagotik zen Joséren emaztegaia. Hiru alaba izan zituzten. Ez zegoen inora afiliaturik, baina harreman handia zuen batzokiko lehendakaria zen Manuel Garbizurekin, eta nazionalak sartu baino lehen harekin batera lankidetzan ariturikoa zen. Frankistak heltzear zeudela, familiak Donostiara egin zuen alde, beldurrez; etxea zein egoeratan zegoen ikustera Pasaiara joan zen batean, oinez itzultzen zela atxilotu zuten Buenavista aldean, eta Ondarretara eraman zuten preso. Familiaren esanetan, geroago Lasartera eraman zuten "lanera", eta hantxe egon zen urriaren 7ra arte. Egun horretan, emaztea joan zitzaion bisitatzera eta ez zegoela han, "aske" utzi zutela adierazi zioten. Hori horrela izanez gero, berehala itzuliko zela etxera erantzun zien emazteak eta ea nola jakin zezakeen non zuen senarra galdetu zien. «Vaya al edificio de la Diputación y exponga el caso» izan zen jaso zuen erantzuna, eta Diputazioan "aske" zegoela berretsi zioten, etxera lasai joateko eta familia aurrera ateratzeko. Orduan hasi zen aditzen Hernanin fusilatzen zutela jendea, eta Pasaiako agintari berriengana jo zuen informazio eske. Ea egia zen jendea hiltzen ari zirela galdetu zienean, hau entzun zuen emazteak «pues si le tienen que matar a tu marido, tienen que matarnos a todos». Herriko Falangeko egoitzan jaso zuen erantzuna, berriz, honako hau izan zen: «¡Que barbaridad! (...). No sé que podemos hacer... El alcalde ya le dará trabajo». Harrezkero ez zuen ezer jakin senarrari buruz.

**González Fernández, Silverio.** Zamoran jaio zen, baina Hernanin bizi zen. 48 urterekin fusilatu zuten, 1936ko urriaren 22tik 23rako gauean. Egaña.

**González Girarte, Julián.** Acebo-n (Caceres) jaio zen 1879ko otsailaren 16an. Luciana Perales Gurrea-rekin ezkonduta zegoen, eta 1917an joan ziren Donostiara bizitzera. Zurriolako lehenengo horma altxatzeko lanetan aritu zen, baina is-

tripu baten ondorioz utzi egin behar izan zuen lan hori. Papelera Nerecán-eko atezaina izan zen gero; enpresa hori familia errepublikar batena zen. 1936ko azaroaren 9an atxilotu zuten etxean Guardia Zibileko eta Asaltoko Guardiako bi bikotek eta polizia batek, eta Ondarretara eraman zuten. Familiak uste du Hernanira eraman zutela eta han exekutatu zutela 1936ko azaroaren 19an.

**Guruzeaga Arruabarrena, Manuel.** 37 urteko donostiarra. Ezkondua eta bi alabaren aita. Abertzalea. Gros auzoko abere-hiltegian egiten zuen lan abere-hiltzaile. Baionatik Bilborantz *Galernan* zetorrela, anaiarekin elkartzeko asmotan, atxilotu zuten. Anaia, Alberto Guruzeaga, Astigarragako alkatea izan zen Errepublika-garaian eta Caracasera erbesteratu beharra izan zuen. 1936ko urriaren 18an exekutatu zuten Hernanin Manuel, Ondarretako kartzelan preso egon ondoren. Gerra ostean, Frantziara aldatu zen familia. Beurko.

**Guruzeaga Illarregi, Juan.** Donostiako Altzan jaiotakoa[256], ezkondua eta sagardogilea lanbidez. EAJra afiliaturik zegoen. Miracruz kaleko Iturrizaga etxera sartu zirenean matxinoak eta lapurtzen hasi «si los rojos robaban, también ellos [militarrek] lo hacían» ozenki esateagatik atxilotu zuten. 1936ko urriaren 2an exekutatu zuten. Beurko; Egaña.

**Gutiérrez Fernández, José Ciriaco[257].** 1875ean jaio zen Burgosen. María Delbot Couret-ekin ezkonduta zegoen eta alaba bat zuten. 1926an alargun geratu zen. Donostian bizi zen, Avenida-n. Sastrea zen lanbidez, Sastrería Gutiérrez-en jabea, garai hartako Donostiako ospetsuenetakoa. Familia bizi zen etxeko sotoa eta beheak hartzen zituen sastreriak. Harreman handia zuen Cristóbal Balenciaga jostun ospetsuarekin, eta inoiz esan omen zion Parisera elkarrekin joateko, nazionalak sartu baino lehen. Esandakoa bete zuen Balenciagak, eta Pepe (José Ciriaco) Donostian geratu zen. Gerra ostean, Donostiara etortzen zen bakoitzean beti joaten omen zen lagunaren alaba bisitatzera Balenciaga. José Ciriacok ideia errepublikarrak zituen, baina ez zuen lotura politiko ezagunik. 1936ko urriaren 17-18 bitartean "bahitu" zuten, orduan desagertu baitzen. Atxiloturik egon zen, akusazio jakinik gabe, eta suhia, José Ortiz de Urbina Homparena, informazioa lortzen saiatu zenean, "aske" utzi zutela esan zioten. 1936ko urriaren 21ean fusilatu zuten Hernaniko kanposantuan. Harrezkero, beste familia askok bezala, honen familiak ere errebantxismoaren ondorioak pairatu behar izan zituen; esate baterako, bizitza-poliza handi bat zuen sinaturik hildakoak, baina familiak ez zuen ezer kobratzea lortu. Etxebizitza eta sastreria harpilatu eta kendu egin zizkieten; handik gutxira, Cafetería Raga ireki zuten frankista

256 Kontraesanak daude adinari buruzko informazioetan: Iñaki Egañaren arabera 45 urte zituen, Beurko txostenean 38 jarri diote.

257 Barruso, 2005, 127.

batzuek etxe hartan. José Ciriacoren alaba eta familia Frantziara erbesteratu ziren, mehatxuetatik ihesean.

**Heras Barríos, Félix.** Errioxako Fuenmayor herrian jaiotakoa, 69 urte zituen eta Donostian bizi zen. 1936ko urriaren 10ean hil zuten. Egaña.

**Heredero Martín, Petra**. Turéganon (Segovia) jaiotakoa, alargundu ondoren Donostiara etorri zen bizitzera, aurretik seme-alabak lan bila etorrita zeuden, eta 66 urte zituela, Usandizaga kaleko etxe batean egiten zuen lan atezain. Boulevardeko txekan izan zuten atxiloturik, eta, familiaren arabera, Hernanin fusilatu zuten, Galarreta aldean. Bi aldeetakoak ziren seme-alabak, eta ama fusilatu zutela jakitean beren arteko liskarrak sortu ziren, elkarri leporatuz ezer egin ez izana ama salbatzeko.

**Idígoras, José.** Leintz Gatzagako 22 urteko gaztea, metalurgikoa zen. ELAko kidea. 1936ko urriaren 22an fusilatu zuten Hernanin, inolako epaiketarik gabe. Beurko; Egaña.

**Intsausti Arana, Juan**[258]. Donostiako Kale Nagusiko 18.ean zegoen taberna-jatetxe baten jabea. 38 urte zituen eta ezkonduta zegoen. 1936ko urriaren 5ean fusilatu zuten, eta beste hamar lagunekin batera lurperatu zuten hobi batean.

**Intsausti Arruti, José**[259]. Donostiako San Bartolome auzoan jaio zen, eta Easo kalean bizi zen. UGTko militantean zen. Consuelo Ruizekin ezkonduta zegoen eta 3 seme-alaba zituzten. Haro-n zegoen, sendatzen, gerra piztu zenean. Behin osatuta, Donostiara itzuli zen familiarengana eta bere lanpostuan hasi zen lanean, ikatz-botatzaile gas-fabrikan. Egun horretan bertan atxilotu zuten, beste lankide batzuekin batera. Ondarretako kartzelara eraman zuten eta 2 egun eman zituen han. Hirugarren egunean, arropa garbia eramatera joan zitzaionean ama, ordurako ez zegoela han esan zioten. Bi zaletasun handi izan zituen José Intsaustik: mundua ezagutu nahi zuen bidaiatuz, eta horretarako merkataritza-ontzidian egin nahi zuen lan; eta, bestetik, oso kirolzalea zen, C. D. Abandotarra taldeko jokalaria. Beurko.

**Intsausti Martínez, José Manuel.** Errenterian jaio zen eta Lezon bizi zen; 49 urte zituen, ezkondua zen eta zortzi seme-alabaren aita. Compañía Asturiana-ko enplegatua. Etxean atxilotu zuten eta Ondarretara eraman zuten preso. 1936ko urriaren 6an exekutatu zuten. Hernanin hil zutela uste du familiak. Beurko.

**Intsausti Zuzuarregi, Esteban**[260]. Errenteriakoa zen eta hango Papelera Española-n egiten zuen lan. Lantokian atxilotu zuten, eta familiak ez zuen izan haren

258 Beurko artxiboko iturrien arabera, tabernaria izan zen, UGTko afiliatua eta Donostian hil zuten.

259 Beurkoko iturrien arabera, Donostian hil zen 1938ko urrian. Egañak, aldiz, dio Hernanin exekutatu zutela 1936ko urriaren 10ean.

260 Jiménez de Aberasturi, 1996.

berririk, bospasei egunetara Ondarretan zegoela jakin arte. Familiak uste du, 10 egunera-edo fusilatu zutela Hernanin, Gervasio Albisu apaizarekin eta beste batzuekin batera.

**Irañeta Izurriaga, Jacinto.** 47 urte zituen. Kale-garbitzailea zen ogibidez, eta lanean ari zela atxilotu eta Boulevardeko txekara eraman zuten. Familiaren ustez, Hernanin fusilatu zuten. Geroago, Gabarain medikuak egunkarian idatzi zuen artikuluaren bitartez, berarekin ziegan egon zirenen berri ematean, bi kale-garbitzaile aipatu zituen, eta horietako bat izan zen, hain zuzen, Jacinto Irañeta.

**Irulegi Uranga, Juan Antonio.** Andoaingo Anastasi etxean jaio zen 1903ko urrian. Ezkondua, bi seme-alabaren aita, Donostiako Esterlines kalean bizi zen. EAJko afiliatua zen. Kontratista eta ostalaria zen, Intza tabernaren jabea. Maria Cristina hotelaren aurkako erasoan parte-hartzea leporatu zioten. Ondarretako kartzelan izan zuten preso eta 1936ko urriaren 5ean fusilatu zuten. Hernanin hil zuten susmoa du familiak. Beurko.

**Iturbe Elkorobarrutia, Isidoro.** Arrasatearra, 32 urte zituen, ezkondurik zegoen eta bi alaba zituzten. Tornulari mekanikoa izan zen Unión Cerrajeran. EAJ eta ELAko afiliatua. Kalean bertan jipoi izugarria eman zioten, antza denez, emaztearekin euskaraz hitz egiteagatik eta atxiloturik eraman zuten bi guardia zibilek. Ondarretan egon zen preso eta Hernanin hil zuten, inolako epaiketarik gabe, 1936ko urriaren 21etik 22rako gauean. Oktubre: 317.

**Juriko Zarco, José.** 38 urteko donostiarra, pilotaria. *Galernan* atxilotu zuten eta Hernaniko kanposantuan fusilatu 1936ko urriaren 18an. Beurko.

**Lahore Bilbao, Joseph Louis.** Ipar Euskal Herriko semea, Zarautzen bizi zen; 51 urte zituen. Lanbidez txoferra zen. Errepublikar federala pentsaeraz. 1936ko urriaren 18an hil zuten Hernanin. Beurko.

**Lamarain Elgoibar, Valentín.** Leintz Gatzagakoa, 23 urte zituen. 1936ko urriaren 15ean atxilotu zuten eta 22an fusilatu. Anselmo Elgoibar Gorostizaren iloba zen; osaba ere fusilatu egin zuten. Oktubre: 376.

**Landin Urrieta, Juan Antonio**[261]. Bilboko familia zen, baina Donostian bizi ziren. Juan Antonio Landin eta Cesárea Urrietaren hiru seme-alabetan zaharrena zen Juan Antonio; 21 urte zituen eta Zuzenbidean lizentziatu berria zen. Maite arrebaren esanetan, kristautasunaren alde egiten zuen lan gazte eta ikasle katolikoekin. Baionan zegoen Donostia erori zenean, eta han itsasoratu zen *Galernan*. Ondarretan atxiloturik egon ondoren, 1936ko urriaren 20an exekutatu zuten Hernanin. Orduko Hernaniko medikuaren alabaren senargaia zen, eta fusilatu eta gutxira, gorpua atera eta Sarasqueta medikuaren familiaren panteoian sartu zuten.

261 Landin Urrieta, Maite: *Gakoa (La clave)* in Torres, 2003 (79-102).

**Larrinaga Gana, Tomás.** 1896an jaio zen Sopelan. Industriala zen lanbidez, garaje eta gasolindegi baten jabetzan partea zuen Areetan, Algortan. Galdakaoko organo-jotzailea zen. Familiako arazoak zirela eta joana zen Baionara, eta itzultzeko *Galerna* hartu zuen eta hantxe harrapatu zuten. 1936ko urriaren 16an sartu zuten Ondarretan, 21ean "aske" utzi zuten eta goizaldean fusilatu.

**Lassalle Goñi, Jorge.** Irunen jaio zen 1895eko urtarrilaren 12an, eta bertan ezkondu zen Juana Etxano Mardaras-ekin (Euba, Bizkaia). 1922an Donostiara aldatu zen familia. Errementaria zen, eta Amara auzoko Autonomía kalean egiten zuen lan, etxetik hurbil zeukan tailerrean. Hantxe atxilotu zuten. Ideia errepublikarrak zituen, baina ez zuen parte hartzen ez politikan ez sindikalgintzan, nahiz eta 1931ko hauteskundeetan Amarako hautes-mahai batean egon eragile politiko gisa. Beste lagun eta ezagun batzuekin batera, "Guk ere nai degu" elkartea sortu zuten Amaran; elkarteko diru-zaina izan zen. Danborradako konpainia bat antolatu zuen elkarteak 1936ko danborradan. Gerra piztu zenean, Bizkai aldera jo zuen familiak, Eubako amama-aititen baserrira, baina Jorge Lassalle Donostian geratu zen tailerraren arduraz. Bertan atxilotu zuten, Antiguoko Guardia Zibilaren kuartelera eraman eta handik Ondarretara. 1936ko urriaren 28an fusilatu zuten. 1937an erbesteratu egin zen familia. Sei urte geroago abisatu zieten Gobernu Zibiletik ordurako bazekitena, fusilatu egin zutela Jorge Lassalle. Beurko.

**Lekuona Etxabeguren, Martín.** Oiartzunen jaio zen 1908an. 1934an apaiztu zen eta Errenteriako parrokiako apaiza zen. Gasteizko Seminarioko irakaslea, Euskal Herriko Adoración Nocturna taldearen sortzailea. Francoren tropak Errenterian sartu zirenean, berak inori kalterik egin ez ziolakoan, bertan geratu zen. Atxilotu eta kartzela bihurtu zuten batzokian giltzapetu zuten.Ondarretara eraman zuten eta hiruzpalau egunen buruan, 1936ko urriaren 8tik 9rako gauean exekutatu zuten Hernanin, inolako epaiketarik gabe. Julián Lekuona, anaia, ere exekutatu egin zuten Endarlatzan, frankistak Oiartzunen sartu zirenean. 38 urte zituen, ezkongabea zen eta EAJko kidea. Hernani.

**Lezea Mazkiaran, Tomás.** Altsasun jaiotakoa, eskualdeko zementu-fabrika batean egiten zuen lan. Gerra hasi zenean, emaztea eta alaba txikia Frantziara joan ziren, baina Nafarroa eta Gipuzkoa arteko mendietan geratzea erabaki zuen berak, laster bukatuko zelakoan gerra. Atxilotu egin zuten eta Lasarteko kartzelara eraman. Heriotzaren gorabeheren berri izateko, Iruñeko "gizon inportante" batengana jo zuen familiak.

**Lores Solé, Claudio.** Irunen jaiotakoa baina Pasaian bizi zen, 27 urte zituen. 1936ko urriaren 19an fusilatu zuten. Egaña.

**Madina Irizar, Vicente.** 30 urteko arrasatearra, ezkondua eta haur baten aita. Banco Guipuzcoano-ko enplegatua zen. EAJra eta ELAra afiliaturik zegoen. Kar-

listek salatu zuten, eta Ondarretako kartzelan egon zen preso. 1936ko urriaren 21etik 22rako gauean fusilatu zuten Hernanin, inolako epaiketarik izan gabe. Oktubre: 318.

**Maestro García, Doroteo.** Errioxako Bañares herrian jaiotakoa, Donostian bizi zen, Grosen. 42 urte zituen eta haratengia zuen. Ezkerreko pentsaera zuelako salatu zuten, nahiz eta inoiz ezertan ez sartu. 1936ko irailaren 29an hil zuten Hernanin. Famialiarteko baten kontaktuen bitartez jakin zuten senideek atxilotu eta fusilatu egin zutela.

**Manterola Imaz, Juan.** 47 urteko donostiarra, ezkongabea, Donostiako Alde Zaharrean bizi zen. Gerra Zibilaren aurretik hil zitzaien aita, eta berak hartu zuen familiaren ardura, lehenengo iturgin aritu zen lanean eta tarteka langile-buru Donostiako suhiltzaileetan. Sozialista zen pentsaeraz, baina inguru abertzalea zuen. Suhiltzaileen parkean bertan atxilotu zuten. Ondarretara eraman zuten preso, eta Hernanin fusilatu zuten 1936ko urriaren 3an, "aske" utzi ondoren.

**Martínez Fernández, Bautista.** 40 urteko donostiarra, ezkongabea. Errepublikazalea izaki, salatu egin zuten eta atxilotu. 1936ko urriaren 17tik 18rako gauean fusilatu zuten Hernanin. Egaña.

**Megido Fernández, Luis.** Donostiarra. 1936ko urriaren 19an hil zuten. Egaña.

**Mendikute Lizeaga, Alejandro.** Donostiako Altza auzoan jaio zen 1891ko otsailaren 26an. 1916an apaiztu zen eta 1929tik aurrera Donostiako kapilaua izan zen, eta gero Hernanikoa. Hernanin bizi zen Miguel anaiarekin eta Isabel arrebarekin. Anaia ere apaiza zen. 1936ko urriaren 23tik 24rako gauean hil zuten, eta exekutatu baino lehen, Hernanira begira hiltzeko eskatu zuen. Herriko kanposantuan bertan hobiratu zuten.

**Miranda Alduarte, Juan.** Donostiakoa, 28 urte zituen eta tapizatzailea zen. 1936ko urriaren 18an fusilatu zuten. Egaña.

**Mondragón Errasti, Norberto.** Arrasaten jaiotakoa, 25 urte zituen. Ezkonduta zegoen eta ume baten aita zen. Banco Guipuzcoanoko langilea zen. ELAra eta EAJra afiliatua. Frankistak Arrasaten sartu baino lehen, guardia bat egin izana leporatu zioten, atxilotu eta Hernanin fusilatu zuten, inolako epaiketarik gabe, 1936ko urriaren 21etik 22rako gauean. Oktubre: 317.

**Moya Moya, Francisco.** Donostian sortua, 35 urte zituen eta jornaltiarra zen. 1936ko azaroaren 2an fusilatu zuten. Egaña.

**Olaizola Arregi, Simón.** Azpeitiko Aguite baserrian jaiotakoa, 28 urte zituen. Unión Gastronómica Guipuzcoana elkartearen sortzaileetakoa. Donostiako Londres Hotelean egin zuen lan. Donostiako Easo kalean bizi zen ezkondurik, eta ume baten aita zen. Badirudi lankide batek salatu zuela ELAko kidea zelako. Etxean atxilotu zuten, Paulina Alustiza emaztearen eta seme txikiaren aurrean; On-

darretara eraman zuten eta 1936ko urriaren 8tik 9rako gauean desagertu zen. Familiak uste du Galarretan fusilatuko zutela, Hernanin. Beurko.

**Onaindia Zuluaga, Celestino.** Markinan jaio zen 1898ko abuztuaren 13an. 1922an apaiztu zen eta Elgoibarreko apaiz laguntzailea zen. Txosten frankistaren arabera, oso arriskutsua zen; honela definitzen dute: «mala conducta, y estaba conceptuado como extremadamente separatista, hablando públicamente en contra de la Causa Nacional». Espioitza ere leporatu zioten; atxilotu eta Ondarretako kartzelan izan zuten preso urriaren 21etik 28ra. 1936ko urriaren 28ko gauean hil zuten, inolako tribunaletan epaiketarik izan gabe. Hernani; Beurko.

**Orcajo Orcajo, Alfonso.** Valladoliden jaiotakoa 1900ean, baina 19 urterekin Urretxura etorri ziren bizitzera; hor bizi zen amarekin. Eguzkia S.A. enpresako langilea. Errepublikarra. 1936ko urriaren 20an fusilatu zuten. Beurko.

**Otano Mikeliz, José.** Lergan (Nafarroa) jaio zen eta Tolosan bizi zen, 38 urte zituen. PP Corazonistas, Corazón Inmaculado de María kongregaziokoa zen. Ordena bereko elizgizon batek salatu zuen; egindako iruzkin bat zen hiltzeko akusazioa, hau da, gorrien aldean zegoela justizia eta gustura joango zela haiekin esan omen zuen. Inolako epaiketarik gabe hil zuten 1936ko urriaren 23an. Beurko.

**Peñagarikano Solozabal, José Ignacio.** Bizkaiko Etxebarrin jaiotakoa 1872ko abenduaren 1ean. 1897an apaiztu zen eta Markina Etxebarriko apaiz laguntzailea zen. Abertzalea zen. 1936ko urriaren 27an fusilatu zuten Hernanin.

**Pérez López de Breñas, Antonio**. Ezkondua zen eta bi seme-alabaren aita. Errenteriako artile-fabrikan atxilotu zuten. 1936ko irailaren bukaeran edo urriaren lehenengo egunetan fusilatu zuten.

**Pompeyo Pompeyo, Francisco.** Donostian jaiotakoa, baina Zumarragan bizi zen, 40 urte zituen, ezkondua zen eta hiru seme-alabaren aita, langilea zen. Iturri batzuen arabera, EAJko afiliatua zen[262]. Beurko; Egaña.

**Prieto Navarro, Pablo.** Madrildarra jaiotzaz, Donostian bizi zen. 41 urte zituen. 1936ko urriaren 2an fusilatu zuten.

**Reppekus, Herbert**. Bochum-en (Alemania) jaiotakoa. 18 urteko semearekin batera, **Erwin Reppekus,** atxilotu zuen "milizia falangistak" Donostian, 1936ko urriaren 13tik 14rako gauean. Errepublikarren itsasontziei linterna baten bidez argi-seinaleak egitea leporatu zitzaien. Donostiako Aldapeta kalean bizi zen familia, eta atxiloketaren ondoren etxeko ondasun guztiak lapurtu zizkieten. Kursaaleko atxilotze-gunean egun batzuetan izan eta gero exekutatu zituzten 1936ko urriaren 16an, ustez Hernanin. Egaña.

262 Mendizabalek baztertu egiten du aukera hori (1996, 275).

**Resina Carnero, Maximino.** Avilan jaio zen eta 41 urte zituen. Umetan, Donostiara aldatu zen familia. Ezkonduta zegoen eta lau seme-alaba zituzten. Moraza kalean bizi ziren. Merkataritzako peritua zen eta komisio truke egiten zuen lan. Falangistek etxebizitza arakatu ondoren, lantokian atxilotu zuten, Iztueta kaleko bulegoan. Easo kaleko atxilotze-gunean eta San Bartolome ikastetxean giltzapetuta egon ondoren, Ondarretara eraman zuten, eta hantxe eduki zuten irailaren 22tik urriaren 2ra bitartean. Egun horretan "aske" utzi eta fusilatu zuten Hernaniko kanposantuaren sarreran. Egaña.

**Rezola, Miguel.** Bidanikoa jaiotzaz, Donostiako Loiola auzoan bizi zen; arotza zen.

**Rodríguez Rodríguez, Carlos Benito.** Madrilen jaiotakoa, Pasaian bizi zen, 38 urte zituen; ezkondua zen eta bi seme-alabaren aita. Inprimatzailea zen ogibidez, eta Donostiako Colón Kaleko Navarro y Delteso inprimategian egiten zuen lan. Miliziano errepublikar boluntarioa izan zen eta Oiartzungo frontean borrokatu zen batailoi komunista batean, sarjentu mailarekin. Bilborantz irteteko asmoa zuen, baina gaixotu egin zen eta Errenteriako ospitalean sartu zuten. Senda-agiria jaso eta berehala atxilotu zuten lantokian. Prim kaleko Falangearen atxilotze-gunean izan zuten 10 bat egunean eta Hernanin fusilatu zuten 1936ko urriaren 3an. Egaña.

**Rodríguez Sedano, Eusebio.** Burgosen jaio zen eta Donostian bizi; 30 urte zituen eta igeltsero egiten zuen lan. ELAko kidea zen, baina eskuinari ematen zion botoa. Antza, ELAkoek Loiola auzoan egin zuten guardietan hartu zuen parte (Gamboa-Larronde, 2006, 411).

**Romo, Sabino.** Lasartearra, 44 urte zituen eta ezkongabea zen. Oihalgintzako langilea. Sozialista zen. Agirien arabera, tropak sartu zirenean exekutatu zuten: «a la entrada de las tropas». Beurko.

**Rubio Peña, Blas.** 42 urte zituen, ezkonduta zegoen eta 3 seme-alabaren aita zen. Abertzalea. Ollokiko geltokiko burua zen, eta bertan atxilotu zuten 1936ko irailaren hasieran. Harrezkero, familiak ez zuen jakin hari buruzko ezer gehiago; Ondarretara eraman eta Hernanin fusilatuko zutela uste dute[263].

**Saizar Mujika, Higinio Francisco.** 42 urteko donostiarra. Ezkonduta zegoen eta haur jaioberria zuten; medikua zen. EAEko kidea. *Galernan* harrapatu zuten eta Hernaniko kanposantuan fusilatu. Geroago, Donostiako Polloeko hilerrira eraman zuten gorpua 1936ko urriaren 23an[264]. Irakurzaletasun handia zuen eta berak utzitako liburu-bilduma handia du familiak. Beurko.

263 Kontraesanak daude informazioen artean; batzuen arabera, Iruñera eraman zuten.

264 Polloeko lur-emailearen liburua (1935 abr. 01–1937 may. 22). Heriotzaren arrazoia agertzen da: «herida de arma de fuego».

**Salterain, José.** Leintz Gatzagakoa, 18 urte zituen. 1936ko urriaren 15ean atxilotu zuten eta 22an fusilatu zuten. Ziur aski, Zapirainen liburuan agertzen den 17 urte inguruko gaztea izango da. Narrazioan kontatzen du gaueko joan-etorriak hasten zirenean Ondarretako kartzelan, ziegetako batean zegoen Gatzagako 17 urte inguruko gazte bat amari deika hasten zela etsiak harturik, samintasunez oihuka [265]. Oktubre: 376.

